

1. *Euskal Herriko udalen izendegia*
Euskaltzaindia 2011

2. *Leioako leku-izenak*
Euskaltzaindia 2011

3. *Aiarako toponimia nagusia*
Euskaltzaindia 2013

4. *Euskal Herriko ibaiak*
Euskaltzaindia 2014

5. *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*
Patxi Salaberri Zaratiegi, 2015

6. *Sestaoko Toponima*
José Luis Tejedor, 2016

7. *Sierra de Toloño, nexo de la Montaña y la Rioja Alavesa*
José Ángel Chasco Oyon, 2017

8. *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak*
Euskal odonimiako eskuliburua
Onomastika batzordea;
Euskaltzaindia, 2019

9. *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*
Patxi Salaberri Zaratiegi - Luis Mari Zaldúa Etxabe, 2019

La labor de Onomástica de Euskaltzaindia tiene como finalidad el estudio de los nombres, tanto antropónimos (nombres de pila, apellidos...) como topónimos (mayores, menores, exónimos, callejeros, oicónimos...). Tras recoger, clasificar, analizar y establecer la forma normativizada de los nombres, Euskaltzaindia considera imprescindible darlos a conocer, a fin de que las formas correctas vayan implantándose en el uso habitual, al igual que ocurre en toda lengua normalizada. Ese es el objetivo de la presente colección *IZENAK*.

Le travail d'Onomastique d'Euskaltzaindia a pour but l'étude des noms, aussi bien des anthroponymes (prénoms, noms de famille...) que des toponymes (principaux, secondaires, exonymes, noms de rue, noms de maison...). Après les avoir répertoriés, classés, analysés et établis selon les normes, Euskaltzaindia considère indispensable de les faire connaître, afin de favoriser l'emploi habituel des formes correctes, comme c'est le cas de toutes les langues normalisées. Voilà l'objectif de cette collection *IZENAK*.

The main aim of Euskaltzaindia's Onomastic work is the research of basque names that are classified in proper nouns (names of persons, surnames...) and place names (main and minor toponyms, exonyms, street names, house names...). After collecting, classifying, analyzing and deciding the standardized form of those names, Euskaltzaindia considers it is a must to announce them, so that the correct forms are adopted in the every-day use as it happens with any standardized language. That is the purpose of this *IZENAK* collection.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



PATXI SALABERRI ZARATIEGI - LUIS MARI ZALDUA ETXABE

GIPUZKOAKO HERRIEN IZENAK. LEKUKOTASUNAK ETA ETIMOLOGIA



Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.

ONOMASTIKA BATZORDEA

BURUA:

González de Viñaspre, Roberto

IDAZKARIA:

Mujika, Alfontso

TEKNIKARIA:

Gorrotxategi, Mikel: Onomastika zerbitzuaren arduraduna

KIDEAK:

Alaba, Nerea

Bidart, Asier

Galé, Patxi

Martínez de Medina, Elena

Mugurutza, Felix

Rekalde, Paskual

Zaldúa, Luis Mari

AHOLKULARIAK:

Alfaro, Gexan

Goikoetxea, Imanol

Socarros, Allende

GIPUZKOAKO HERRIEN IZENAK. LEKUKOTASUNAK ETA ETIMOLOGIA



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Liburu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak lankidetzan argitaratu dute.
Hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© Patxi Salaberrri eta Luis Mari Zaldúa

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / A.L.B.

Plaza Barria, 15 48005 BILBO

Tel. 94 - 415 81 55

Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: info@euskaltzaindia.eus

Webgunea: <http://www.euskaltzaindia.eus>

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde zuzeneko edo idatzizko baimenik gabe.

Azaleko irudia / Fotografía de la cubierta: A. Ortelius, *Theatrum Orbis*, 1584. Espainiako Liburutegi Nazionalaren jabeago peko irudia / Imagen propiedad de la Biblioteca Nacional de España.

Diseinua / Diseño: IKEDER

Inprimategia / Impresión: IMPRESION TECNIGRAF, S.L.L.

ISBN: 978-84-120766-2-2

Lege-gordailua: BI-02770-2019

*Euskal Herriko
eta
Euskal Herriaren
bihotza
den
Gipuzkoari*

Aurkibide orokorra

Atariko hitzak Markel Olano (<i>Gipuzkoako Diputatu Nagusia</i>)	15
Atariko hitzak Andres Urrutia (<i>Euskaltzainburua</i>)	17
Hitzaurrea	19
Gipuzkoako herrien eta auzoen izenak	23
Abaltzisketa	23
Aduna	25
Aia	27
Altzola	29
Andatza	30
Aristerratzu (ikus <i>Andatza</i>)	31
Elkano	31
Laurgain	31
Urdaneta	32
Aizarnazabal	35
Aiztondo	37
Albiztur	39
Argisain	41
Santa Marina (ikus <i>Argisain</i>)	42
Alegia	43
Alkiza	45
Altzaga	47
Altzo	49
Altzoazpi	49
Altzomuño	50
Amezqueta	51
Ugarte	51
Andoain	53
Sorabilla	55
Anoeta	57
Antzuola	59
Uzarraga	59
Arama	61
Areria	63
Aretxabaleta	65
Aozaratzu	66

Areantza	66
Arkaraso	67
Galartza	67
Goroeta	68
Isurieta	69
Larrino	70
Arrasate	71
Bedoña	74
Garagartza	75
Gesalibar	76
Udala	77
Uribarri	79
Asteasu	81
Astigarraga	83
Ataun	85
Aia	86
Elbarrena (-a) (ikus <i>San Martin</i>)	87
San Gregorio	87
San Martin	88
Azkoitia (-a)	91
Arrietamendi	94
Izarraitz	96
Martirieta (ikus <i>Arrietamendi</i>)	97
Zendoia (ikus <i>Arrietamendi</i>)	97
Azpeitia (-a)	99
Loiola	100
Nuarbe	102
Urrestilla	102
Baliarrain	105
Beasain	107
Aratz-Matxinbenta	108
Arriaran	109
Astigarreta	109
Garin	110
Gudugarreta	112
Beizama	115
Belauntza	117
Berastegi	119
Eldua (-a)	121
Bergara	123
Angiozar	126
Elosua (-a)	127
Berrobi	129

Beterri	131
Bidania-Goiatz	133
Billabona-Amasa	135
Deba	137
Elorriaga	140
Itziar	140
Donostia	143
Altza	148
Igeldo	148
Zubieta	149
Eibar	151
Agiñaga	152
Elduain	155
Elgeta	159
Elgoibar	161
Altzola	161
Errenteria	163
Errezil	167
Eskoriatza	171
Apotzaga	172
Bolibar-Ugazua (-a)	173
Gellao	174
Marin	175
Mazmela	176
Mendiola	177
Zarimutz	178
Ezkiio	181
Anduaga	182
Gabiria	183
Alegia	184
Gaintza	185
Gaztelu	187
Getaria	189
Askizu	191
Gipuzkoa	193
Goierri	199
Hernani	201
Hernialde	205
Hondarribia (-a)	207
Ibarra	213
Idiazabal	215

Ikaztegieta	217
Irun	219
Behobia	225
Pausua (-a) (ikus <i>Behobia</i>)	226
Irura	227
Itsaso	229
Alegia	230
Itsasondo	231
Kosta, Kostaldea (-a) edo Itsasaldea (-a)	233
Larraul	235
Lasarte-Oria	237
Lazkao	241
Leaburu	245
Legazpi	249
Legorreta	251
Leintz Gatzaga	253
Leitzaran	257
Lezo	259
Lizartza	261
Maia (ikus Elgeta)	262
Mendaro	263
Azpilgoeta	264
Garagartza	265
Mondragón (ikus Arrasate)	265
Mutiloa	267
Mutriku	269
Astigarribia	271
Mijoa (-a)	272
Olatz	273
Oiartzun	275
Olaberria (-a)	279
Oñati	281
Arantzazu	284
Araotz	285
Uribarri	286
Urrexola	287
Ordizia	289
Orendain	291
Orereta (ikus Errenteria)	292
Orexa	293

Orio	295
Ormaiztegi	297
Pasaia	299
Pasai Antxo	300
Pasai Donibane	301
Pasai San Pedro	302
Placencia de las Armas (ikus Soraluze)	302
Saiatz	303
San Sebastián (ikus Donostia)	304
Segura	305
Soraluze	307
Tolosa	309
Aldaba	311
Bedaio	312
Urkizu	312
Urnieta	315
Urretxu	317
Usurbil	319
Agiñaga	320
Urdaiaga	321
Villabona-Amasa (ikus Billabona-Amasa)	321
Zaldibia	323
Zarautz	325
Zeba (ikus Olaberría)	327
Zegama	329
Zerain	333
Zestoa	335
Aizarna	336
Arroabea (-a)	337
Arroagoia (-a)	337
Lasao	339
Zizurkil	341
Elbarrena (-a)	342
Zizurkilbea (-a) (ikus <i>Elbarrena</i>)	342
Zizurkilgoia (-a)	342
Zumaia	343
Artadi	345
Oikia	345

Zumarraga	347
Agiñaga	348
Ondorioak	349
Iturriak	357
Laburdura eta siglak	357
Erreferentziak	361
Liburu, aldizkari eta webguneak	361
Mapak	387
Laburtzapenak	387
Mapen erreferentziak	388
Berriemaileak	391
Gipuzkoakoak	391
Abaltzisketa	391
Aduna	391
Aizarnazabal	391
Alkiza	391
Alzaga	391
Altzo	391
Amezqueta	391
Andoain	391
Anoeta	391
Antzuola	391
Arama	392
Aretxabaleta	392
Arrasate	392
Asteasu	392
Astigarraga	392
Ataun	392
Azkoitia	393
Azpeitia	393
Baliarrain	393
Beasain	393
Beizama	393
Belauntza	393
Berastegi	394
Bergara	394
Berrobi	394
Bidania-Goiatz	394

Billabona-Amasa	394
Deba	394
Donostia	394
Eibar	394
Elduain	395
Elgeta	395
Elgoibar	395
Errenteria	395
Errezil	395
Eskoriatza	395
Ezkio	395
Gabiria	395
Gaintza	395
Gaztelu	396
Getaria	396
Hernialde	396
Hondarribia	396
Ibarra	396
Idiazabal	396
Ikaztegieta	396
Irun	396
Irura	396
Itsasondo	396
Larraul	396
Lasarte-Oria	397
Leaburu	397
Legazpi	397
Legorreta	397
Leintz Gatzaga	397
Lezo	397
Lizartza	397
Mendaro	397
Mutiloa	397
Mutriku	397
Oiartzun	397
Olaberria	398
Oñati	398
Ordizia	398
Orendain	398
Orio	398
Ormaiztegi	398
Pasaia	398
Soraluze	398
Tolosa	398

Urnieta	399
Urretxu	399
Usurbil	399
Zaldibia	399
Zarautz	399
Zerain	399
Zestoa	400
Zizurkil	400
Zumaia	400
Zumarraga	400
Arabakoa	400
Aramaio	400
Bizkaikoak	400
Elorrio	400
Ondarroa	400
Populazio entitateen aurkibide alfabetikoa	401
Irudiak	407

Atariko hitzak

Markel Olano
Gipuzkoako Diputatu Nagusia

Euskaltzaindiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlanari esker argitaratu da, irakurle, esku artean duzun liburu hau: *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*.

Liburuaren izenburuari erreparatuz gero, lau alderdi hauek azpimarratu nahi nituzke. Lehena, “Gipuzkoa”, gure herrialdearen izena, egileen hitzetan «Euskal Herriko eta Euskal Herriaren bihotza». Zinez, eskertu nahi nituzkeen hitzak. Bigarrena, “herri izena”, liburuan Gipuzkoako herri izenez gainera herri horien auzoenak eta biztanle-entitate berezi askorenak ageri baitira, xeheki aztertuak. Hirugarrena, “lekukotasunak”, lekukotasun idatziak zein ahozkoak (eta horien artean foru aldundi honek lagundutako *Ahotsak* ekimenean, Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea bildu eta sareratzten duenean, jasotakoak). Eta, azkenik, “etimologia”. Etimologiaren bidez hitzen etorkia eta haien existentziaren, esanahiaren eta formaren arazoibidea erakusten dira. Azken batean, beren herria maite duten askok maiz egiten dituzten galderak erantzuten saiatu dira egileak, esaterako, zer esanahi duen halako edo bestelako herri edo auzok, esanahi argirik baldin badu behintzat.

Hartara, egileek azalpen argi eta zehatzak eman dituzte, tentuz doituak eta froga idatzi zein ahozkoetan oinarrituak, intuizio hutsari aterik ireki gabe azalduak. Hori dela-eta, egileen beren hitzak hona ekarriz, aurreko ikertzaileek azaldu gabekoak azaltzen saiatu dira, beste azalpen batzuk erdibidean gelditu dira eta, halakoetan usu gertatzen denez, beste batzuk etorkizunean argitu beharko dituzte ikertzaileek.

Dena dela, biziki eskertzekoa da Patxi Salaberri nafarrak eta Luis Mari Zaldua gipuzkoarrak egin duten lana, lurralde honen gaineko herri izenen gainean sekula egin den lanik osoen eta zehatzena baita.

Espero dut, bukatzeko, liburu hau ikaşgai bikaina izatea, batetik, gure herri eta auzoen gaineko ezagutza sendotzeko, eta, bestetik, zalantza edo ezbai asko argitzeko edo, gutxienez, argitze-bidean jartzeko. Beraz, irakurle, gonbita egiten dizut liburu hau hartu eta hartan murgiltzera. Ez zaizu damutuko.

Atariko hitzak

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia

Aspaldiko lana du Euskaltzaindiak toponimiarena. Izan ere, Onomastika batzordea da horren eramailea eta sustatzailea. Horren ingurura ere, hainbat arau, irizpen eta gomendio eman ditu Euskaltzaindiak, ehun urteetan zehar, euskararen lurraldeetan diren toponimoak modu duin bati dagokion moduan finkatu ahal izateko, herritarren mesederako. Zeregin horietan ezagutu ditut betidanik murgildurik esku artean irakurle abisatu horrek duen argitalpenaren bi egileak: Patxi Salaberri Zaratiegi eta Luis Mari Zaldua Etxabe.

Beste behin ere, aukera aparta ematen didate bi-biok euskal toponimiari buruzko lan esanguratsu eta azpimarragarri baten atariko egiteko. Lan sakona, ikerketa zientifikoaren erroetan sustriak dituena eta asmakerietatik aldentzen dena. Gipuzkoako toponimia nagusia dute abiapuntua eta zer esanik ez, baita xedea eta jomuga ere, tokian tokiko lekukotasunak eta etimologia ere gehituta.

Lan txukuna, erraz moldatzen eta egokitzen dena, euskararen Akademiaren ikuspegitik, euskal toponimia batzeko asmoarekin. Hortxe dago, besteak beste, Akademiaren *Euskal Corpus Onomastikoa*, bertatik bertara biltzen dituena euskararen herrialdeetako euskal toponimoak, egungo baliabide informatikoen bidez.

Biltzea, nolahi ere, ondoriorik gabekoa izan daiteke, baldin eta biltzaileek bilketaren emaitzak gizarteratzen eta jendearen eskuetan jartzen ez badituzte. Alderantziz egin dute Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzain osoak eta Luis Mari Zaldua Etxabe euskaltzain urgazleak, Gipuzkoako toponimia nagusia aztertzen duen liburu ezin egokiago honetan. Behinola idatzi nuena, alegia, Onomastika *in vitro* egin beharrean, egileok Onomastika *in vivo* egin dutela berresten dut, bizirik dagoena nahiz agirietan agertzen dena biltzen, sailkatzen, ikertzen eta berriro gizarteratzen saiatu baitira.

Egun euskal lurraldeetan nabarmena da gizarteak duen premia, toponimia gaiak ezagutzeko eta gogoetatzeko, asko eta asko konturatu baitira beren zuztarrak eta historia hortxe islatzen direla eta esandakoaren harira, nortasuna eta izaera bera ere, hortxe dagoela bilduta. Eta biltze horrek etorkizuna du bere barnean, hurrengo

belaunaldiei eskualdatu behar baitzaizkie toponimiaren ezagutza eta jakituria, herriaren identitatea gordetzeko.

Egun tresna berriak ditugu toponimia gaitan. Horietan murgilduta dago euskararen Akademia mendeurrenaren ospakizunetan eta bereziki Gasteizen eginiko jardunaldian nabarmen ageri denez. Han ere, berebiziko urratsak eman ziren, egungo baliabide informatikoen bidez, Euskaltzaindiak bilduriko informazio toponimikoa guztion eskura jartzeko. Horretarako, alabaina, eskura dugun lan honen modukoak behar dira etengabe, horien bitartez bermatzen baita toponimiaren lana kalitate handikoa izatea.

Izenak bilduma honen 9. liburura etorri da lan berria. Seguru nago, bestalde, egileak aspalditik ezagutzen baitituz, lan eskerga horretan jarraituko dutela eta berehala ekarriko dizkigutela emaitza berriak eta egokiak, bilduma hau aberastuko dutenak.

Eskerrak eta goresmenak, beraz, egileei, Euskaltzaindiaren izenean eta, oro har, euskal gizartearen izenean. Eskerrak, orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiari, argitalpen hau gauzatzeko baliabideak ekarri dituelako, Akademiaren eta Aldundiaren betidaniko elkarlana berretsiz eta eskerrak, nola ez, gipuzkoarrei eta euskaldun orori, euskararekiko atxikimenduan euskararen Akademiaren *Ekin eta Jarrai* goiburuekin bat egitearren. *Obrak mintzo!*

Hitzaurrea

Lan honek, tituluak dioen bezala, Gipuzkoako herrien izenak jasotzen ditu, izen horiek historian zehar aurkezten dituzten formak eta duten edo duketen etimologia azalpena, eta «duketen» diogu hau eremu labain-limurkorra delako, kontu handiz ibiltzea eskatzen duena, irrist egin nahi ez bada behintzat. Egileok zuhurtziaz jokatzeko saiatu gara, eta onimoen¹ hastapeneko adiera emateko denboran agiri aldaerek, euskal fonetika historikoak, lekuaren nolakoak eta gaurdaino izan dugun esperientziak erakutsi dizkigutenetan oinarritu gara. Honek ez gaitu libratu izango, segur aski, tarteka laprast egin eta erroz goiti erortzetik, baina bai, ezbairik gabe, zenbait «onomastikarik» duten ziurtasun erabatekoa agertzetik.

Liburu baten tituluak lanaren funtsa biltzen du; haatik ez beti mami osoa, horren laburpen gisakoa—edo baizik, eta horixe da honenari gertatzen zaiona: hemen Gipuzkoako herrien izenak ez ezik, auzo askorenak ere jasotzen dira, populazio sakabanatua duen gurearen moduko herrialde batean «auzo» zer den eta zer ez den zehaztea batzuetan erraza izan ez arren. Horrekin batean, probintziaren deizioa ere —hots, Probintziarena— ahotan darabilgu, eta halaber hiriburuarena.

Gurean ongi ezagunak dira herri bateko oikonimia edo toponimia biltzen eta, zenbait aldiz, aztertzen duten lanak, baita euskal leku izenetan ediren ohi diren atzizkiak ikertzen dituztenak ere, hauek haien aldean askoz gutxiago izanagatik. Deiturez mintzo direnak franko urriagoak dira: bakarren bat hona ekarri behar izanez gero, Mitxelenaren *Apellidos Vascos* baitezpadakoa genekarke aurrena, Irigoienen liburu-artikulu batzuk gero, eta Salaberriren beste bakan zenbait azkenik. Nolanahiko gisan, ezaguna da gure onimo guztien artean dagoen erlazio estua: oikonimoek, sarri, antroponimoetan dute etorki, hipokoristikoetan (*Txoipe* → *Txoperena*), ponte izen neutroetan (*Martie* → *Martierena*), izen-deituretan (*Juan de Errotz* → *Juanderrotzena*), abizen hutsetan (*Anduetza* → *Anduetzarenekoa*), mota bateko edo besteko izengoitietan (*Arotza* → *Arotzarena*, *Olatzarra* → *Olatzarranekoa*, *Lopezarra* → *Lopezarrarena*) eta bestetan.

Gero, oikonimoak usu deitura bilakatu dira, zuzenean edo etxe izengoitien bitartez: *Iriberria* etxeoari, demagun, *Iriberr*i esan izan zaio, eta abizenak oraino finkatzeko zirelarik, hortik atera bide zen arras ezaguna den familia izena. Era berean, *Andikoberria* oikonimotik *Andikoberri* deitura irten zen, *Barrenetxea*-tik *Barrenetxe(a)*, *Doraia*-tik *Dorai*, *Zubiria*-tik *Zubiri(a)* eta abar.

¹ *Onimo* terminoa 'izen berezia' adierarekin darabilgu lan honetan, hau da, toponimoa, antroponimoa, oikonimoa eta beste izan daiteke.

Toponimoen sorreran, bestalde, anitz aldiz lurraren edo etxearen aurreneko jabearen izena aurkitzen dugu, nor zen ez jakinik ere, *Andoain*-en edo *Zestoa*-n, konparazio baterako. Honelakoetan deantroponimikoa dela esaten dugu, edo antroponimioa² dugula esku artean. Sail honetan sar daitezke, berebat, lehen jabearen izena ez, baizik lekua edo herria eskaini zaion santuarena dutenak, *Donostia*, adibidez, deizioa gehienetan tokiko elizaren hasierako donearena bada ere. *Gipuzkoa*-ren sus-traian, bestalde, eta Azkueri sinestera, herritarren izena dago, gutxienez berriki arte *gipuzkera* esan izan zaion hori erabiltzen zuten herritarrena, *giputz* alegia.

Orobat, herri izenak deitura bilakatu dira anitzetan: hasmentan Azpeitiko Joanesi *Joanes Azpeitikoa* edo *Joanes Azpeitia* esaten ahal zitzaion, eta Zumarragako Loperi *Lope Zumarragakoa* edo *Lope Zumarraga*, konparazione; gero, hondarkia kendurik, denbora bat igarota, *Azpeitia* eta *Zumarraga* deituratzat finkatuko ziren. Ondoren, abizen horiek zituztenek etxea goratu edo erosi eta *Azpeitiarena*, *Zumarragarena* bataiatuko ziren erai-kinak. Hortaz, garbi dago onimoen arteko harremanak hertsu, usu eta tinkoak izan di-rela, baina gaia ez da asko landu gurean. Beharbada «ulertutzat» eman dira harreman horiek, gauzak nola ziren eta diren xeheki eta sakonki, zutean eta zeharreen ikertzeko partez.

Gipuzkoako hau ez da idatzi eta kaleratu dugun mota honetako lehen argitalpena. Aurretik Nafarroa Behereko herrien izenak aztertu zituen Salaberrik 2004ko lanean, eta urte batzuk geroago, 2015ean, Arabakoak. Egia esan, herrialde osoa hartzen dutenak aipatutako bi horiek, Gifforden Nafarroa Garaiko herri izenen inguruko 1954ko doktore tesi karrikatu gabea, eta Belaskoren liburu (1999) besterik ez dira. Gipuzkoa mutur batetik bestera ukitzen zuen lanik ez zegoen egundaino, eta Bizkaikoa eskas dugu oraindik. Iparralde bururen buru besarkatzen duen Orpustanen obra 1990ean atera zen moldiztegitik lehendabiziko aldiz; autore honek ematen dituen azalpenak, ordea, *cum mica salis* hartu behar dira askotan, fedea behar da han esaten diren guztiak sinesteko, bortxatuak baitira ardura, eta, esaerak dioen bezala, «bortxaz ez du balio». Zernahi gisaz, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garaian, liburuak izanda ere, badago zer gehitu eta zer osatu, egun. Bestalde, ezin ukatu Caro Barojak franko idatzi zuela hango eta hemengo euskal toponimo nagusiez.

Liburu honen egileoi dagokigunez, izenen azterketa izan da bien iker-jardunbide nagusia, doktore tesia egiteko tenorean eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko kide gisa, besteak beste. Beraz, ez gara hasi berriak lantegi honetan: urteak aurrera doaz, eta, horrekin batean, bihotz-altxagarri edo kontsolagarritzat, baita argitaratu ditugun onomastika ikerketen kopurua ere. Hauetan denetatik dago: pertsona izenen

² *Antropotoponimo* forma osoagoa ere erabili ohi da.

gainekoak, deituren ingurukoak, herri izenez arduratzen direnak, hagiotoponimia eta hagianimia mintzagai dituztenak, kaleak izendatzeari buruzkoak, eskualdeak aztergai dauzkatenak, onimoen eta ondare materiagabearen arteko harremanak solasgai hartzen dituztenak eta beste hainbat. Esan daiteke, literatura onomastika eta krematonimia –botiga, saltoki, taberna eta besteren deizioak ukitzen dituen onomastikaren adarra-, alde batera uzten badira bederik, Euskal Herrian usaiakoak diren onomastika afera gehienak igaro direla gure eskuetatik, izan daitezen toponomastikakoak, izan daitezen antroponomastikakoak. Beharrik, aspaldidanik ez baita giro, nornahi ez baita makila hautsi-kraskatu batekin honelakoetan sartzen ahal!

Liburuaz kestone, sarrerak alfabetoaren ordenaren arabera sailkatu ditugu, baina auzoak herri izenaren ondoan eman ditugu, ez hurrenkera hari jarraikiz legokiekeen tokian. Jokabide honek toponimoak kausitzeko orduan sorraraz litzakeen arazoak saihesteko, obraren bukaerako aurkibide alfabetikoa kontsulta daiteke. Gero, sarrera bakoitzean, izenburuaren azpian, izen ofiziala eman dugu (IzenOfiz.), dokumentazioko testigantzak (Dok.), toponimiakoak (Top.) eta antroponimiakoak (Antrop.), eta euskal testuetako lekukotasunak (EuskalTes.), hau eremu zabala izanik sustraitik bururaino arakatu ez dugun arren, jakina. Udaletik beheitiko entitateen kasuan, zein udalen barenan diren zehazten dugu (Udala), fitxaren hasieran. Dokumentazioaren atalean Eusko Ikaskuntzaren *Fuentes documentales medievales del País Vasco* bilduma ederra aipatu nahi genuke, onomastikan aritzen garenondako ezinbesteko eta ezin utzizko lanabesa delako.

Agiri testigantzen ondotik ebakera dator, dialektologia lanetan aurkitu ditugunak batzuetan, geronek jasotakoak bakan zenbaitetan, *Ahotsak.eus* artxibategi aberatseko grabazioetan dauzkagunak gehienetan. Toponimoarekin berarekin batean, hura dagoen kasua ere sartzen dugu, nahasmendurik izan ez dadin. Ondoren etimologia azalpena heldu da (Etimol.), gentilizioa (HerritarIz.) eta, hondarrean, herritarren ezizena (HerritarEz.). Zenbait aldiz azken hau ez da ageri, izengoiti ezagunik ez denean edo autoreek jaso ez dutenean, eta, aitzitik, inoiz edo berriz herriaren beraren ezizena gaineratu dugu, baita oharren bat ere, baitezpadako edo interesgarri iruditu zaigunean. Toponimo gutxi batzuetan, bestalde, alonimoa ere eman dugu, alegia, leku bera izendatzeko erabiltzen den beste deizioa.

Ebakera atalñoan nazioarteko alfabeto fonetikoa erabili dugu, gaur egin ohi den moldean. Salbuespen bakarra azentuari dagokiona da: NAF edo IPA delakoan ez bezala, guk azentu nagusia (´) eta bigarrenkaria (˘) horrela irudikatu ditugu, eta dagozkien bokalen gainean ipini; hots, ez ditugu (ˈ) eta (ˌ) azentudun silabaren aitzinean ezarri, hau aipatu alfabetoan ohikoa izanagatik. Irakurle ikasiarentzat bata edo bestea ibiltzea berdintsu da, eta fonetika kontuetan eskarmenturik ez duenak gure sistema, ustez behintzat, aisekiago ulertuko du.

Etimologia azalpenetan, gorago esan bezala, zuhur eta burutsu jokatzera entseatu gara, dugun esperientzian oinarri harturik. Lanari lotu gintzaizkionean bagenekien toponimo guztien barne-muinak bistaratzea zaila eta are ezinezkoa izanen zela, eta hola agitu da, agitu ere. Edozein modutan, gaiaz mintzatu diren aurreko ikertzaileen-dako ilun ziren zenbait toponimo argitara ekarri ditugula uste dugu; beste batzuen azalpena zalantzazkoa da, eta hirugarren multzo batean, azkenik, oraino esplikatzeko daudenak dauzkagu. Beste ikertzaile batzuek argitu beharko dituzte, bada, ilun beltzean gelditu diren horiek.

Liburu osoaren egituraz denaz bezainbatean, lehenik aurkibide orokorra dugu, gero hitzaurrea, ondoren zatirik luzeena den toponimoen azterketa dator, goitixeago zehaztu dugun fitxaren arabera antolatua. Jarraian, gure lanetik atera daitezkeen ondorioak dauzkagu, eta segidan erabilitako iturriak heldu dira: laburtzapenak, liburu eta artikuluen erreferentziak, webguneenak, mapenak eta berriemaileenak. Bukaera-bukaeran populazio entitateen aurkibide alfabetikoa sartu dugu, bilaketak errazteko, eta irudien zerrenda.

Ez dugu atariko hau amaitu nahi modu batera edo bestera lagundu digutenak nor izan diren adierazi gabe. Aurrena lankide ditugun Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri irakasleak, euskararekin, hizkuntzalaritza gaiekin edota toponimoen barrenekin nahastu, nahastekatu eta nahaspilatu garenean, auzia trenkatzeko, korapiloa askatzeko, zirizitiloa laxatzeko beti prest izan ditugulako. Gero, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Akademiako argitalpen batzordeko kideak ekarri nahi ditugu hona, edizioa bideratu dutelako, eta azkenik baina ez gutxienik, hainbat ohar baliagarri egin dizkiguten Roberto González de Viñaspre Onomastika batzordeko burua eta Euskaltzaindiaren barnean HIZBEAko arduraduna den Paskual Rekalde aipatu nahi ditugu, baita beti laguntzeko gertu egon den Mikel Gorrotxategi onomastikaria ere. Denei gure esker on bizienak ematen dizkiegu hemendik.

Gipuzkoa osoa hartzen duen estreinako lana da hau, beraz, irakurle. Axularrena pixka bat aldatuz, honela diotsugu egileok: «Honetaz kontent ez bazara, egizu zuk zeure moldera, zeren ez gara gu hargatik bekaiztuko, eta ez muturturik gaitzez jarriko. Aitzitik, hau da guk nahi genukeen gauzetarik bat: gure entsegu apur honek kilika zintzan eta gutizia bertze entsegu hobe baten egitera, eta gure hemengo falten ere erremediatzera. Zeren, halatan, ez litzateke euskal onomastika hain labur, eskas eta hertsia, nola munduak uste baitu eta baitauka dela».

Gipuzkoako herrien eta auzoen izenak, alfabeto ordenan

Abaltzisketa

IzenOfiz.: *Abaltzisketa*.

Dok.: (Top.) *Aualcisqueta* (1232, Jim., 1970: 247), «*Otro bustal que a nompne Çuuelldi çaua que es en la carrera, como uan a Ualçisqueta Aralar*» (XIII. m., *ibid.*, 262), «*vezinos e moradores de Amezqueta e de Abalazqueta*» (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 235), «*las dichas collaciones de Abalazqueta y Amezqueta*», «*los dichos de Avalazqueta e Amezqueta*» (1390, *ibid.*, 309–310), «*collaciones de Amezqueta e de Avalçizqueta*» (1409–1410, Ayer. eta S.M., 2013: 44), «*vecinos e moradores de la universidad de Sant. Joan de Abalcisqueta*» (1451, Arin, 1929: 53), «*las dichas universidades de Amezqueta e Abalçizqueta*» (1519, Ayer., 2006: 355), *Abalcizqueta* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Abaleisqueta* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Abalçizqueta* (Tolosa, 1595; Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Avalçizqueta* (1615, *ibid.*, 673), *Abalcisqueta* (Isas., 1850 [1625–26]: 28), *Abalcizqueta* (*ibid.*, 231), *Abalzisqueta* (Larra., 1985 [1754]: 56), *Abaleisqueta* (*sic*) (*vi.*, López, 1770), *Abalcisqueta* (DRAH, I, 1802: 2), *Abalcisqueta* (*vi.*, Mad., I, 1846: 36; Go., 1862: 1).

(Antrop.) «*Jaun Sanso Aceariz de Berama et Petro Aceariç de Aualcisqueta*» (1134–1150, Goñi, 1997: 172).

EuskalTes.: «*Abalcizquetaco mendian ere badira arrobiac carezco arri urdin piña ugari ematen dutenac*» (Izt., 1847: 59), «*Abalcizquetaco mugapean badira iturri guezagozo onac; baita erreca ciztorrac ere*» (*ibid.*, 77), «*Erri au* (Amezqueta), *Orendain*, *Baliarrain*, *Abalcizqueta* eta *Alzo biac escurirontz laçaric igarotzen da Otsaingo errotaren ondora*» (*ibid.*, 115), «*Anaia orrek beste anaia gazteari eta guarda Gurrutxaga'ri, Abaltzisketan egon zanean, biai jokatu zien*» (Uztapide, 1975: 49), «*Abaltzisketara ere joaten giñan*» (*ibid.*, 131).

Ebak.: *Abaltziketatio*, *Abaltziketati* (abl.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 62, 71), *Abaltziketako* (lek.g.+ dat.) (*ibid.*, 44), [a.βál.ʦiʂ.ke.tà] (abs.), [a.βál.ʦi.ke.ta.ko.à] (lek.g.+ abs.) (Abl-002), [a.βál.ʦiʂ.ke.ta.tí] (abl.) (Lgo-001³).

Etimol.: Mitxelena (AV, 4) Larramendik jasotzen duen *abariz* ‘carrasca, coscoja’ zuhamu izenaren eratorrietan sartzen du, baina ziurtasunik gabe. Amaierako *-keta* hori leku-ugaritasunezko *-eta* atzikiaren txistukari ondoko aldaera da, *Amezqueta*-n dugun bera (ikus). **Abaltzis-* oinarria iluna da guretzat.

Cfr. Andoaingo *Baltzusketa* baserria: «*Juangui de Valçusqueta dicho “Velça”*», *Juan de Valçisqueta* (1459, Ayer. eta Dz.S., 1996: 478), *Miguel de Balçuzqueta* (Urnieta, 1575; Ayer., 2015: 813), *Abalçuzqueta* (1615, Usa., 1993: 153–154), «*monte que se llama Balçuzquibizcar*» (Andoain, 1434; Ayer. eta Dz.S., 1996: 475).

³ Berriemaileari dagokion kodea. Ikus lan honen bukaera, *Iturriak* atala.

HerritarIz.: *abaltzisketar*⁴.

HerritarEz.: *zapaburuak (txalburuk), harrikariak (arrikarik).*

⁴ Euskaltzaindiaren *Euskal Onomastikaren Datutegia*-n eta *Euskal Herriko Leku Izendegia*-n biltzen den herritar-izena.

Aduna

IzenOfiz.: *Aduna*.

Dok.: (Top.) *Aduna* (1340, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 224; 1370, 1371, c. 1374-1375, *ibid.*, 1996: 18, 33), «*ateniendo al termino de Tolosa con el monte de Vedayo, e Aduna e Beotibarr e otros terminos*» (*ibid.*, 85), *Santa Maria de Ahaduna, Sancta Maria de Haduna* (1450, Le. eta Ta., 1996: 21, 26), *tierras de Haduna* (Billabona-Amasa, 1494; Ayer. eta Dz.S., 1996: 498), «*Martin Perez de Unanberro, vezino de la tierra de Aduna*» (Urnietia, 1572; *ibid.*, 576), *Aduna* (1575, Ayer., 2015: 818), *Aduno (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Aduna* (1617, Ayer., 2015: 877), *Aduna (lu., Mad., I, 1846: 101; Go., 1862: 2)*.

(Antrop.) *Iohan Rruiz d'Aduna* (Zumarraga, 1390; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 305), *Esteban de Aduna* (Getaria, 1499; Le. eta b., 2002: 249).

EuskalOnom.: *Adunamendi, Adunibarbaso* (Adunako aurk., 2000, AduM).

EuskalTes.: «*Adunan unetic unera daude ur garbia iori ematen duten iturriac*» (Izt., 1847: 77), «*Villabona escuitara eta ezquerrerontz Asteasu, Cizurquil, Aduna eta Sorabilla utziric igarotzen da Andoaingo Santa Cruzco zubiaren ondora*» (*ibid.*, 116), «*Adunan ere bai, izan gera lau-bost bat aldiz*» (Uztapide, 1975: 160).

Ebak.: [a.ðú.nàn] (in.), [a.ú.ná] (adl.) (Adu-006).

Etimol. Honela mintzo da Salaberri (2011b: 141-142), *Anoeta*-z ari delarik:

Anoeta aparece escrito en la documentación como *Ahanoeta* [...], si bien el primer testimonio documental que conozco corresponde a *Hanoeta* [...]. Partiendo de este último testimonio podríamos pensar que la base es el antropónimo *Hanno* y el sufijo el conocido *-eta*, pero en ese caso no sería fácil explicar la variante *Ahanoeta*, ya que la aspiración no parece que esté separando morfemas como en *Elgueheta* [...]. Caso parecido es el de *Ahaduna* (1450, Lema eta Tapia, 1996: 21), *Aduna* (G) en la actualidad.

Antrotoponimotzat hartzea izango da, seguru asko, toponimoa esplikatzeko biderik egokiena, **Adunus*-en moduko batetik abiatzea, alegia, *(*uilla*) *adunana*-ren erako batetik. Hemendik **AduNãñã*⁵ aterako zen lehenik, hasperenaren eta inguruko bokalen sudurkaritasunak aurreko kontsonante sudurkaria nolabait lauzkatu, berez ahula (/n/) zena indarturik (/N/) (ikus Sala., 2015a: 156, adibidez). Alegiazko **AduNãñã* horretatik, hasperena hitzaren lehen silabetara murriztu zen garaian, apika dokumentazioa *Ahaduna* aterako zen, eta honetatik lekukotzen ere den *Haduna*.

⁵ Lan honetan ez gara sudurkaritasunaren goiti-beheitez zehazki mintzatuko; nahi duenak Salaberri eta Salaberri (2016) ikus dezake. Bokal arteko sudurkari ahularen hasperentzeaz eta ondoko bokalen sudurkaritzeaz lan bat baino gehiago aipa daitezke, partikularki Hualde (1993) eta Igartua (2008, 2015). Hauen ildotik orain Egurtzegi (2018) daukagu. Hualdek (2018) berriki karrikatu artikulua batean, Chambonek eta Greubek (2002) gaskoirako ematen duten azalpenean oinarriturik, beste gisa batez esplikatzen du euskarazko VnV > VhV aldakuntza, ez lan honetan egiten dugun eran. Planteamendu honen inguruan gehiago jakin nahi duenak Chambon eta Greub (2002: 477-478) eta Hualde (2018: 15-18) ikus ditzake.

Oinarriko izenaz den bezainbatez, Albertosek (1966: 8) iberiar karakterez idatzitako Castelló de la Planako *A.du.n.i.u* dakar, baina ez dugu berriz ediren, eta Hesperia datu basean ez da jasotzen.

HerritarIz.: *adunar*; *adunatar* ere erabiltzen da egun.

Aia

IzenOfiz.: Aia.

Dok.: (Top.) «...villa que dicitur Haya Ethelcano» (1025⁶, Ubieto⁷, 1963: 115; Bar., 1989: 419; *cf.* Mú. eta Aro., 1931: 369), *San Esteban de Aya, Aya* (Zarautz, 1420, 1502-1528; Ayer., 1997: 292, 589), *tierra de Aya* (1515, *ibid.*, 571), «don Joan de Çarauz, rector de la yglesia de Aya y vezino de la dicha tierra de Aya» (1520, Iri., 2013: 376), *Aya* (Gari., II, 1628 [1571]: 341; Ortelius, 1588, mapa; 1614, Ayer. eta Dz.S., 1996: 667), «San Juan de Iturrioz en la montaña de Hernio, jurisdiccion de Aya, Rexil, Asteasu, Goyaz, Vidania y Albistur» (Isas., 1850 [1625-26]: 210), *Aya* (*pu.*, López, 1770), *Aya* (*univ.*, DRAH, II, 1802: 210), *Aya* (*ayunt. o univ.*, Mad., III, 1847: 191), «Aya: universidad del partido judicial de Azpeitia, union de Sayaz» (Go., 1862: 71).

(Antrop.) *Marco de Aya* (1149, Zum., 1994: 8), «don Pedro Aiha carnicero, Miguel de Ainorbe carnicero» (1230, Gar.Lar., 1957: 220; *cf.* Arzamendi, 1985: 89), *Iaymes d'Aia* (Tutera, 1308; Zab., 1997: 212), «Miguel de Larraul e Miguel de Haya» (Andoain, 1475; Le. eta Ta., 1996: 66).

EuskalOnom. *Cfr.* *Ayagotia* (Zarautz, 1420; Ayer., 1997: 292), *Martin de Ayalde* (Orio, 1554; *ibid.*, 279), *Martin Ruiz de Ayaldeburu* (Tolosa, 1595; Ayer. eta Dz.S., 1996: 641), «...batez ere Ayamendian, non topatzen diran chit zulo asco ta andiac» (Izt., 1847: 64), *Aialdeko mendia* (Larraulgo aurk., 2011, LulM).

EuskalTes.: «Ayaco erribarruan arquitzen dira iru iturri, edari on garbia naroró ematen dutenac» (Izt., 1847: 81), «...erri au (Usurbil) escuirontz lagaric jarraitzen da Aguiñagatic aurrera, ezquerretaraco aldatsean Aya icusten dabela» (*ibid.*, 116), «Ayako eraso ontan argi aski ageri da, Santa Kruzec etziola Lizarragari onik egiten» (Orixe, 1985 [1929]: 45), «Gero Ayan egindakoaren txeetasunak ematen dizkio» (*ibid.*, 49), «...eta Ayako Andazarrate ingururaño bayunate begiek zer ikusi» (*ibid.*, 1987: 43), «Berela (*sic*) zabaldu zinan Beizama aldera ta Aya aldera» (*ibid.*, 74), «Jendia pranko Astiasu'tik / juan zan Aia'ko partera» (Zabala, 1992: 380), «Asteasun da Aian badakite oraindik ere lengo dantza zarra» (Uztapide, 1975: 24).

Ebak.: [á.jà] (abs.) (Alk-001), [a.já.ko] (lek.g.) (Azk-011), [á.jà] (abs.) (Bid-008).

⁶ Testua *Donemiliagako kartularioa* deritzon bildumakoa da. Bi ale ezagutzen dira: bata XII. gizaldian ateratako kopia da, eta Zaragozako Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko liburutegian gordetzen da; bestea XII-XIII. mendeetan egindako lekualdatzea da, eta Madrilgo *Archivo Histórico Nacional* delakoan dago. Múgicak eta Arocenak (1931) plazaratu zuten estreina, Madrilen dagoen lekualdatzea baliatuz. Ubietok (1963) eta Agudek (1968), berriz, Zaragozako aldakia darabilte euren argitalpenean, eta gauza bera egiten du Barrenak (1989) Gipuzkoaren osaketa historikoari buruzko doktore tesian. Zaragozako kopia Madrilgoa baino zuzenago transkribatua dago, eta, oro har, balizko jatorrizko testuarekiko ezberdintasun gutxiago dituela ematen du.

⁷ 1055eko data ezartzen dio.



Aia

Etimol.: Moglek (1854: 731) *Aia*-k ‘toki gora’ esan nahi duela uste du. Grierak (1950: 245) azaltzen zailak diren erromatarren aurreko toponimoen artean sartzen du Cerdañako hau: «*All* 839: *Alli*; Capbreu *All* al lado de *Aja*; 1280: *Aya*» (*sic*); egun eskualde horretan, dakigula, ez dago ez *Aia*-rik, ez *Alli*-rik.

Arinek (1951: 132), Ataungo toponimia aztertzean, garbi dakusa *Aia*-k ‘aldapa’ adiera duela: «*Aya* es nombre toponímico que significa “cuestas” y está muy en consonancia con la topografía de su suelo, el cual es del todo accidentado, hasta el extremo de que no contiene un trozo de tierra que pueda llamarse llano». Mitxelenak ere (AV, 16), ataundarraren gibeletik, *ai* ‘aldapa’ dakusa izen honetan.

Irigoienek (1990: 184-185), aldiz, *Aio* (*Agoitz* toponimo nagusian dagoen bera) edo *Aya* antroponimo dokumentatuak dakuski Lizarra ondoko *Aiegi* herri izenaren oinarrian, eta Gipuzkoako *Aia*-n ere egon daitekeela iradokitzen—edo du, argi eta garbi esaten ez duen arren: «No debe olvidarse, por otra parte, la conocida localidad guipuzcoana de *Aya*».

Guk (Sala., 1997: 8-9) honela genioen orain dela hogeitau urte eta gehiagoko lanean: Era berean, *aiher* izenaren gainean oinarriturik dagoen *Ayesa* / *Ageza* Nafarroako herriaren izena anitzez modu erosoagoan azal daiteke *aiher* (‘malda, aldapa’ toponimian) izenaz gainera *-tza* (edo *-za* agian, soinu igurzkariz) tokizkoa dugula kontu egiten badugu, eta ez *-tza* ugaritasunezkoa, ‘aldapa ugari’ baino egokiagoa baita, ezbairik gabe, ‘aldapan dagoen tokia’ (herria, kasu honetan) adiera. Izen honekin loturik bide daude Zubietako *Aiáza* toponimoa (*Ayaz* dokumentazioan, berriki arte [...]) eta honen eratorria den *Aiázamaldà*, kasu

honetan *aiher* gabe *ai* badukegu ere: cf. *Aierdi* / *Aiardi*, *Aierza* / *Aiarza*... *Aldabea* (arrunta) eta *Aldagora* (bakana) aldapatsuak ere aurkitzen ditugu gure leku izendegian, mendi hegalak aditzera eman ohi dituen *Aldaia* ezagunaren aldamenean, eta *Pikarana* toponimoa eta *Ikarana* deitura ere bai, *Ikaiburu*, *Ikaiburuondoa*... toponimoen aldean, *Aia* eta *Aiegi* herri aldapetan kokatuak ez aipatzeagatik.

Oraino ere lehenagoan gaude, *Aia* toponimo deskribatzailea dela uste dugu, aurkintza aldapan egoteari zor zaiona. Egia da, zernahi gisaz, *Gabiria*, *Orio*, *Oria*, *Orexa*, *Ordizia* eta beste izen franko deantroponimikotzat jotzen ditugula lan honetan, eta *Aia*-ren kasuan, *Aio* eta *Aya* lekukotuak baitira (Irig., 1990: 184–185), arazo larririk ez dela **(uilla) aiana* ‘Aio edo Aia izenekoaren bazterretxea, lurra’ > **Aiãñã* > **Aiãñã* > *Haia* (1025) > *Aia* etimoa eta bilakaera onesteko.

HerritarIz.: *aiar*, *aiatar* ere erabiltzen da egun. Ataungo Aiakoak *aiatarrak* dira: «*Jentil arrazakoak emendie ayetarrak* (= que los de Aya son de raza de gentiles) se suele decir» (Arin, 1951: 135).

Altzola

Udala: Aia (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Altzola*.

Dok.: (Top.) *Azola* (*ba.*, López, 1770), *Alzola* (*ai.*, *ba.*, DRAH, I, 1802: 66, 133), *Alzola* (*ai.*, Mad., II, 1845: 216), *Alzola* (*bada.*, Nopgui, 1857: 2), *Alzola* (*Aia*, *ba.*, Go., 1862: 74).

EuskalOnom.: (Top.) *Alzola de abajo*, *Alzola de arriba* (Zumarraga, *ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 143), *Altzola* (Bidania-Goiazko aurk., 2000, BidM), *Altzolaran* (Irungo bas., 2008a, IrnM), *Altzolaranberri* (*ibid.*), *Altzola*, *Altzolaerrika*, *Altzolasakona*, *Altzolazabal* (Legazpiko aurk., 2014, LgaM).

(Top.) *ferrería de Alçolaraz* (Zestoa, 1385; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 239), «*valles de Alçolaras y Herarriçaga e Arrona*» (1484, Ayer., 1997: 550), *Valle de Alzolaros* (López, 1770), *Alzolarás* (Zestoa, *ba.*, DRAH, I, 1802: 66).

EuskalTes.: «*Altzolan ere izan naiz bi aldiz*» (Uztapide, 1975: 156). Cf. «*Ayaco* [...] *baserrieheric gueienac dituzte norc bere iturri jaquiñac atari inguruan, ceintzubetatic eguiñeratzen diraden lau erreca azichoac, ezagutzen direanac izen oequin: Guilzur-iturri, Erreca, Anzubieta, Alzolaras*» (Izt., 1847: 81).

Ebak.: [ál.t̥so.lá] (abs.), [ál.t̥so.lân] (in.) (Aiz-001) (Zar-009).

Etimol.: Osagaiak *haltz* zuhaitz izena eta *ola* ‘artzain etxola’, ‘burdinola’ direla dirudi, *Altzo* + *ola* ere proposa daitekeen arren (ikus *Altzaga* eta *Altzo* sarrerak). Zernahi gisaz, *Aritzola*, *Pagola*, *Urkiola*-k eta bestek lehen azalpenaren alde egiten dute, argiro. Ikus *Olatz*.

Oharra: *Altzolaren* peko aldean den erreka izena *Altzolarats* dugu. Aizarnan (Zestoa) izen bereko jauregia dago; Madozek (II, 1845: 216) *Alzolaras* auzo izena jasotzen du.

Andatza

Udala: Aia (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Andatza*.

Dok.: (Top.) «...el ospital de santa maria de roncesualles que auia sus bustalizas en *andaça*» (1368, Mutiloa, 1976, II: 7), «...moiones en ca suso en ca parte de *Andaçça*» (*sic*) (1389, Mora, 2005: 52), *Sierra de Andaçça* (1419, Mutiloa, 1976, II: 145), «...termino de *yiria y andaça*» (1573, *ibid.*, 151), «*Andatsa en la jurisdiccion de Usurbil y Aya, de donde se sacan las ruedas de los molinos*» (Isas., 1850 [1625-26]: 231), *término de Andaza* (1693, Mutiloa, 1976, II, 134), «*Andatza, en jurisdiccion de Usurbil y Aya*» (Larra., 1985 [1754]: 57), *Andaza* (*ba.*, DRAH, I, 1802: 71, 133; Mad., II, 1845: 283; Go., 1862: 71), *Andatza bailara* (Aiako auzoa, 2002a, AiaM).

(Top.) *herreria de Harreyzterreyçu* (1502/1528, Ayer., 1997: 592), *Arreizterreyçu* (1613, *herreria, ibid.*, 721), «*San Pedro de la casa solariega de Aristerrezu en Aya*» (*ai.*, Isas., 1850 [1625-26]: 210), «*Aristerrezu con martinete*» (*burdinola, ibid.*, 235), *Aizterrazu* (Aia, *bada.*, Nopgui, 1857: 2), *Arizterrazu* (Aiako bas., 2002a, AiaM).

EuskalOnom.: «...*muga que esta en el çerro de Andaçarramendia*», «...*logar clamado Andaççasoroa*» (Zizurkil, 1389; Mora, 2005: 51, 52), «*Andatzabea: union que se compone de las villas de Cizurquil, Orio y Usurbil; llamada asi por razon del monte de Andatza, proximo a ellas. Se constituyo en virtud de escritura de concordia celebrada a 20 de abril de 1826*» (Go., 1862: 33).

EuskalTes.: «...*Pagoeta, Irumendi, Zarate, Andatza, Azarrain*» (Izt., 1847: 36), «*Aizterrazu edo San Pedron ere izanda nago beste iru bat aldiz*» (Uztapide, 1975: 156). Cfr. «...*eta Ayako Andazarrate ingururaño bayunate begiek zer ikusi*» (Orixe, 1987: 43).

Ebak.: [aŋ.dá.tʃa.á] (adl.) (Usu-018), [aŋ.dá.tʃa.ti.kàn] (abl.) (Usu-027).

Ebak.: [ajf.té.ri.ʃù] (abs.), [ajf.té.ra.tʃu.kò] (lek.g.) (Urn-009).

Etimol.: Arabako *Anda* eta *Andagoia* toponimoentzat jatorri antroponimikoa proposatu genuen (Sala., 2015a, 67-68), baina garbi dago Gipuzkoako hau bestelakoa dela, eta Arabako horien azalpena ere zalantzan paratzen duela. Irudi du oinarria **anda* ezezaguna dela, beharbada Arabako herri izen horietan dugun bera; atzizkia *-tza* lekuugaritasunezkoa dukegu.

Etimol.: *Aristerratzu*-n, *itxuraz, hareitz, haritz* zuhaitz izena dugu, eta Baztango herriaren izenarekin bat datorren *-erratzu*, hau da, *erratz* landare izena eta *-zu* lekuugaritasuneko berrekailua (Mitx., AV, 218; Irig., 1992: 210 eta 1995: 170).

Nolanahi ere, lehen testigantzetan aurreneko osagaia dirudien horretan *-rr-* dago, ez *-r-*, *hareitz, haritz* balitz izanen genukeen bezala, eta, bestalde, bigarren osagaia, testigantza zahar horietan, *erre(t)z*u dela irudi du. Ez dakigu arazo grafiko hutsa den edo ez, baina erka bedi pare bat aldiz gutxienez <tz>-rekin idatzirik edireten dugun Deierriko *Errezu*-rekin (*Riezu* erdaraz). Mitxelenak (AV, 218), *erratz* landare izenaren eratorriak aztertzean (*Erratzu*, besteak beste), honela dio: «No sé si tendrá relación con ésta una forma *erre(t)z-* que aparece en *Errezaeta, Errezola (Rezola), Rezabal, Rezu, Rezusta (Resusta)*».

Alonimoa: *Aristerratzu*.

Aristerratzu (ikus *Andatza*)

Elkano

Udala: Aia (bizt. ent. ber.; auzoa), Zarautz (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Elkano*.

Dok.: (Top.) «...*in finem mazaneto de senior Garçia Açenariç, haralarre Heziza zaval, alia Hezi caray cum arrandari Sansoiç, maçaneto de Ugarte Zuhaz nabar [...] que comparavi villa que dicitur Haya Ethelcano et manzanetos VI balcas comparavi suo vita*» (1025, Ubieta,⁸ 1963: 114-115; Bar., 1989: 419), *Helcano* (1025, Mú eta Aro., 1931: 369), *Helcanno* (1025, Agud, 1968: 234), *Elcano* (1464-1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 168; Ortelius, 1588, mapa), *Elcano* (*va.o.ba.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Elcano* (*ai.*, *ibid.*, 212), *Elcano* (*ba.*, López, 1770), «*un coto llamado Elcano*» (DRAH, II, 1802: 526), *Aramburu-berri de Elcano* (Aia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 2), *Aramburu de Elcano* (*ibid.*), *Elcano* (*bada.*, *ibid.*, 3), *Elcano-goena* (Zarautz, *ca.d.l.*, *ibid.*, 35), *Elcano* (*ba.*, Go., 1862: 71), «*Elcano: coto dependiente de la jurisdicción civil de la universidad de Aya*» (*ibid.*, 142).

(Antrop.) *Joan Martinez Elcano* (Tolosa, 1309; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 111), *Lope d'Elcano* (Zumarraga, 1390; *ibid.*, 1996: 303).

EuskalOnom.: *Elcanogastanari* (Antzuolako aurk., 1855; Pavo, 2005: 245), *Beristáin de Elcano* (Azpeitia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 10), *Elcano* (Donostia, *ibid.*, 66), *casa titulada de Elcano* (Arrasate, 1860; Orma., 1996: 54). Eguesibarren, Iruñetik hurbil, *Elkano* izeneko herria dago, Joakin Lizarraga nafar idazlearen sorlekua.

Ebak.: [él.ka.no.ku.àk] (lek.g. + abs.) (Zar-013), [él.ka.nò] (abs.) (Zar-023).

Etimol.: Toponimoaren osagaiak *elge* 'alorra', 'lur landua' izenaren *elke* aldaera eta *-no* atzizki txikigarria dira (ikus Mitx., AV, 47, 203). Lehena, *elke*, Arabako 1025eko *Helkeguren* herrirka izenaren oinarrian eta Iruñerriko *Elkarte*-rean dugu (ikus *Elgea*, Sala., 2015a: 167; ikus, orobat, Gipuzkoako *Elgeta* aztertzean lan honetan dioguna). Jatorrizko *elke*, elkarketa-eratorpenean, *-no* atzizkia hartzean, *elka*- bihurtu da, *etxe* adibidez *etxa*- bilakatu den bezala, Bizkaiko *Etxano* toponimoan.

Laurgain

Udala: Aia (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Laurgain*.

Dok.: (Top.) «...*Laurcain con Rista un fuego*» (1464-1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 168), «...*tierras de Aya e de Laurrcayn*» (1515, Ayer., 1997: 573), «*juridición de San Miguel de Laurcaya*» (1502/1528, *ibid.*, 587), *Laucaín* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), «*San Miguel de la casa solariega de Laurcain*» (*ai.*, Isas., 1850 [1625-26]: 210), *Laurcain* (*ba.*, López,

⁸ 1055eko data ezartzen dio.

1770), *Laurgain* (ba., DRAH, I, 1802: 133), *Laurcain* (ai., *ibid.*, 424), *Laurgain* (ba., Mad., X, 1847: 101), *Laurgáin* (bada., Nopgui, 1857: 3), *Laurgain* (ba., Go., 1862: 71).

(Antrop.) «...*Pedro de Laurgay et Martin d'Orexa vesinos de Guetaria*» (1397, Bar., 1982: 47), *Pero de Laurcayn* (1453, Le., Cr. eta Lar., 2002: 81), *Martin de Laurcayn* (Aia, 1515; Ayer., 1997: 36, 571).

EuskalOnom.: *Cfr. Laurquin* (Oiartzun, *ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 57).

EuskalTes.: «*Bezperan Laurgaiñen giñan Basarri ta biok [...] da goizean lo piska bat egiteko nik geiago, eta bertara etorriko zala Laurgaiñera*» (Uztapide, 1975: 93).

Ebak.: [láur.kaj̥.ná] (adl.) (Zar-011), [láur.kin], [láur.ɣaj̥n] (abs.) (Zar-130).

Etimol. Mitxelenak (AV, 400) honela dio: «*lau(r)* “cuatro”: *Laumeta, Lausagarreta* (cf. top. *Laurhibar* en B.-Nav. y v. n. 200). Quizá en *Laurcain, Lournaga*, o en *Lauzurica?*».

Gure iritzian *Lauzurika, Lauzirika* deantroponimikoak dira (ikus Sala., 2011b: 164). *Lournaga*-n, *Aizarna* iruzkintzean diogun eran (ikus *Aizarnazabal* sarrera), *Laurna* + *-aga* dituzkegu, eta *Laurna*-n menturaz *laur* + *-na*, baina kontua ez da argia, eta *Sagarna sagar* + *-na* zatituko bagenu ere, *Aizarna*-rekin ezin genezake gauza bera egin eta, edonola ere, ez genekike *-na* hori zer ote den.

Bigarren osagaia *gain* izen arrunta izan daiteke. Ezaguna da zenbait aldiz, eta aspaldidanik (XII. mendearen hastapenetik), bigarren osagaiaren lehen kontsonante ahostuna ahoskabe daitekeela, elkarketan. Mitxelenak (1957: 130) Amikuzeko *Sorhapuru* aipatzen du (< *sorho* + *buru*; ikus Sala., 2004: 301), iberierako *Estopeles* (vs. *Beles, Vmarbeles*) eta akitanierako *Seniponnis* (gen., eskuarki *-bonn*) mintzagai hartzen dituenen, eta honela jarraitzen:

Dicho de otra manera, puede pensarse que la oclusiva labial *lenis* era susceptible de realizarse como sorda en inicial -que suponemos acentuada- del segundo miembro de compuestos, es decir, en posición fuerte. Y esto nos trae a la memoria hechos vascos análogos, no infrecuentes, cuyo ejemplo más antiguo quizá sea *Sorhapuru*, ya en el siglo XII (de **sora-buru*), junto a *Sorhaburu*, ambos en la Baja Navarra.

Badaiteke, nolana ere, bigarren osagaiaren hastapeneko herskari ahoskabea bi elkargaien artean sartutako *glottal stop* deitzen denaren ondorena izatea. Honetaz ikus orain Hualde (2018: 9).

Aurreneko osagaia latineko *planu*-tik ateratako *laun* ‘laua’, ‘eremu zelaia’ izenaren elkarketako **laur*- dela pentsa liteke, proposamen hau arazogabea ez izanik ere. Ikus *Usurbil* toponimoa aztertzean dioguna.

Urdaneta

Udala: Aia (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Urdaneta*.

Dok.: (Top.) «*Martin d'Urdaneta, morador en Hurdaneta*» (Zestoa, 1398; Ayer. eta E., 2008: 63), «*El poseedor de Alzolaras es patron merelego de la parroquial de San Martin de*

Urdaneta» (Isas., 1850 [1625–26]: 556), *Urdaneta* (ba., López, 1770), *Urdaneta* (ai., DRAH, II, 1802: 12, 410), *Urdaneta* (ba., Mad., XV, 1849: 222), *Urdaneta* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 5), *Urdaneta* (ba., Go., 1862: 71).

(Antrop.) *Miguell de Vrđaneta* (tolosarra, 1349; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267).

EuskalOnom.: (Top.) *Urdaneta* (Hernani, ca.d.l., Nopgui, 1857: 47), *Urdaneta-azpicóa*, *Urdaneta-garaicóa* (Legorreta, *ibid.*, 100), *Urdaneta* (Tolosa, *ibid.*, 106), *Urdaneta* (Bidania-Goiazko aurk., 2000, BidM). *Cfr. Urdanoeta* (Amezketako aurk., 1998, AmeM). *Iztuetak* (1847: 36) *Urdanarrobi* mendia aipatzen du.

(Antrop.) *Yennego (Domengo) d'Vrdaneta* (Aramaio, 1388; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 261).

EuskalTes.: «*Urdanetan ere izan naiz beste urte batean [...]. Au ere Aiako ballara da*» (Uztapide, 1975: 156).

Ebak.: [úr.ða.ne.tà] (abs.), [úr.ða.ne.tàn] (in.) (Aiz-001), [ur.đá.ne.ta.ku.àk] (lek.g. + abs.) (Zar-023).

Etimol. Pott-ek (1875: 33–34) honela dio: «De (*sic*) *Urdaneta* mit den anklingenden *Urdaniz* und *Udariz* weiß ich auch nicht recht zu deuten, da man mit *urde* Cochon, *urdain* Porcher nur schwer durchkommt. *Urdariz* könnte Schweine-Eiche (*aritz*) sein, insofern sie etwa Schweinemast liefert»⁹.

Mitxelenak, 1953koa den AVen lehen argitalpenean, *urde* animalia izenaren el-karketako aldaera dakusa *Urdaneta*-ren oinarrian dagoen *Urdan*-en (585), baina 1955eko edizioan, bigarreanean, *Urdan*- hori *urdain* ‘urdezaina’ hitza izan daitekeela dio, nahiz Caro Barojak egiten duen proposamena, izen berezia dakusana, berearekin ongi ezkon eta batera daitekeela pentsatu.

Gure ustez, Caro Barojaren aipatu proposamena ez da hain garbia: Nafarroako *Urdaniz* herri izenean (*Urdaitz* euskaraz) *Urdanicus* antroponimoa dagoela dio (1945: 103), eta *Urdanoz*-en (*Urdotz* euskaraz) (*ibid.*, 111) lehenago bestek eman azalpenak arbuiaitu baizik ez du egiten, toponimoan ‘hotza’ eta ‘ugaritasuna’ ez daudela besterik ez baitu esaten. Aurrerago (*ibid.*, 113), horiek *Urdiain* eta *Urdanegui*-rekin lotzen saiatzen denean, honela dio: «...si había leyes que rigieran la elección de un sufijo u otro al dar los nombres: ¿Qué diferencia exacta (aparte de la cronológica posible) podía existir entre “Urdaniz”, “Urdanoz” y “Urdiain” (e incluso “Urdanegui”)?». Aitzinago (*ibid.*, 219) *Urde* ‘basurdea’ dakusa, izen berezizat erabilia, *Urdanegui*, *Urdaniz*, *Urdanoz*, *Urdax*, *Urdiroz* eta *Urduliz*-en, baita *Castro Urdiales*-en bigarren zatian ere.

Toponimo horiek guztiak *Urde* pertsona izenarekin estekatzea gehiegi dela garbi dago, baina ez da hau lekua denak argitzera entseatzeko. *Urdaneta*-ra etorritz, bistan da *Urdanegi*-rekin, *Urdanitz* > *Urdániz* / *Urdaitz*-ekin eta *Urdanotz* > *Urdánoz* / *Urdotz*-

⁹ Honela itzultzen du E. de Ugartek (1887: 35), ez guztiz era zuzenean: «De (*sic*) *Urdaneta* y sus análogos *Urdaniz* y *Urdariz* no los entiendo bien, ya que sería muy difícil el aplicar aquí *urde* Puerco, *urdain* Porquero. *Urdariz* podría ser Encina de puercos, en tanto que la encina (*aritz*) suministra el alimento de los cerdos».

ekin erlazionatua dagoela, eta ez dugu arazo handirik ikusten Mitxelenak AVen 1955eko edizioan ematen duen **urdani* > *urdain* ('txerrizaina' lehenik, pertsona izena gero) azalpena onesteko; *cf.* *armentarius* 'azienda larrien zaintzailea', 'unaia' → *Armentarius* > *Armentari* eta *asinarius* 'astazaina' > *Azenari* > *Azeari*, adibidez (ikus Kajanto, 1966: 17-18 eta 1982 [1965]: 110; ikus, orobat, Irig., 1995: 85-90). Erka bedi, berebat, *igurain* 'basozaina' eta *unai(n)* 'behizaina' izen arruntekin.

Irigoierek (1992: 160) *Urdaneta*-n oinarria *urdain* 'urdezaina' edo honetatik ateratako izengoitia edo pertsona izena izan daitekeela uste du, baina gehitzen du hor animalia-izen ere egon daitekeela, *urdandegi* 'zerritegia' izen arrunta bildua delako. Bizkaitar euskaltzainak bigarren elementutzat *Garin* daraman Ataungo *Urdangarin* ere hartzen du ahotan.

Gai nahasiea da hau gure irudiz: aldera bedi Iturengo *Urdaiarena* > *Urdaienea* oikonimoarekin (Iñigo, 1996: 545), eta Goizuetako *Zerriurdanetako hegia* toki izenarekin (Jim. zuz., 1997f: 144). Akabaila leku-ugaritasunezko *-eta* atzizki ezaguna da, pertsona izenen lagun ere ager daitekeena (AV, 87).

Nolanahiko gisan, ez dirudi *urdan*- beti *urdani*, *urdai(n)*-en elkarketako aldaera den, edo horren bertsio antroponimikoa (**Urdani*, *Urdai(n)*), Zudairin 1665ean *Barranca de Urdançarana* dugulako (NEAN, Artabiako pr., 2, I. Perez) eta 1646an Ezkurran *Urdanza* eta *Urdanza garaicoa* (NEAN, Goizuetako pr., 15587, 2, 64), *Urdanssa* 1709an, *Urdansagoicoa* 1711n, *Urdansachiquia* 1714an, *Urdansaco-alorra* 1820an, *Urdantsa* eta *Urdantsako gurutzea* egun (Jim. zuz., 1999: 132). Esan nahi dugu *-tza* atzizkia -hau baldin bada hor dagoena- ez dela usaian animalien izenekin edo antroponimoekin azaltzen (baina *cf.* *Apotzaga*, lan honetan bertan).

Bihurrixegoa da oraindik, gure irudiko, Nabaskozeko *Urdani* (Jim. zuz., 1995c: 72; 1778tik aitzinako testigantzak), 1683an *Urdain* lekukotzen baita: «*Mas una viña en Urdain*», «*Mas sobre un linar en el pontarron una vina en ValdeUrdain [...] afrontada con rio de Urdain*» (NEAN, Zaraitzuko pr., 4, 40, R. de Algarra).

Aizarnazabal

IzenOfiz.: *Aizarnazabal*.

Dok.: (Top.) *yglesia de Sant Miguell d'Ayçarnaçauval* (1393, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 364), «*las collaciones de Santa Maria d'Ayçarna e de Sant Miguel de Ayçarnaçauval*» (1394, Ayer. eta E., 2008: 34), «*Ayçarna e Arrona e Ayçarnaçabal*» (1483, Le. eta b., 2002: 228), *Avarnacobal (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Aizarnazabal (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 28)*, *Ayzarnazaval (ba., López, 1770)*, «*Ayzarnazaval, conc[ejo] del part[ido] de Zumaya*» (DRAH, I, 1802: 137), «*Aizarnazaval o Ayzarnazaval*» (ai., con., Mad., I, 1846: 175), «*Aizarnazabal: concejo dependiente de la jurisdiccion de la villa de Zumaya*» (Go., 1862: 7).

(Antrop.) *Iohan Lopes de Ayçarnaçaval* (Aizarna, 1380; Ayer. eta E., 2008: 9), *Iohan Lopez de Ayçarnnaçauval* (Azkoitia, 1384; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 196), *Iohan Lopez d'Ayçarnaçaval* (Zumarraga, 1390; Dz.S., 1985: 150).

EuskalTes.: «*Aizarnazabalen ere izan gera. Gerra aurretik Txapel zenarekin izan nintzan, eta geroztik Lasarterekin ere bai*» (Uztapide, 1975: 146).

Ebak.: [aj.şár.na.şa.βa.lá] (adl.) (Aiz-001), [aj.şár.na.şa.a.lén] (in.) (Bea-019), [aj.şár.na.şa.βal.go.à] (lek.g. + abs.) (Orm-001).

Etimol.: Osagaiak *Aizarna* eta *zabal* 'zabaldia', 'ordokia' dira. Lehenaz Mitxelenak (AV, 461) honela dio, *-na* bukaera ukitzen duenean: «Terminación de *Aizarna, Altuna, Sagarna.V. -no*. En la toponimia riojana *-arna* es terminación abundante: véase Merino Urrutia, op. cit., p. 49 s. Al menos en algunos casos parece proceder de síncopa, de *barrena*, por ejemplo». Aitzintxeago (470. sarrera) *-no* atzizki txikigarriari eskaini atalñoan «no sé cuál puede ser la relación entre los sufijos *-na* y *-no*» dio. Halarik ere, ez dirudi *Aizarna*-n *barrena*-ren aldaera laburtu edo itxuragabetua dugula. Cf. Nafarroako Basaburu Nagusiko *Aizarotz* herri izena.

Aski toponimo iluna da guretzat, eta ezin dugu gauza handirik esan. Azken zatiak, *-rna-k*, Iruritako *Laurnaga* eta *Laurnagaraia* (< *Laurnaga* + *garaia*, haplologiaz sortua hain segur) oikonimoen azpian bide den **Laurna-* dakarkigu burutara, baina Baztango etxe izenaren kasuan dardarkaria oinarriaren zati izan liteke, hori *laur* dela onetsiko balitz. *Sagarna*-n oinarria *sagar* 'sagarrondo' dela kontu egin daiteke; *Aizarna*-n, ordea, *Aizar-na* ulertzen bada, ez genekike *aizar-* hori zer ote den. Cf., hala ere, Mortua-Orokietako *Aizarbil* oronimoa (Jim. zuz, 1997b: 43: 157 eta 1997c: 102); kontuan har bedi Trebiñun *Arna* herrixka izan zela (González de Viñaspre eta Uribarrena, 2012: 433).

HerritarIz.: *aizarnazabaldar*.

Aiztondo

Udala: Alkaterrri nagusia, Asteasuk, Larraulek eta Sorabillak osatua; burua aurreneko herrian zegoen. Urnieta eta Astigarragako zati batzuk eta Zizurkil herria ere kide izan ziren. 1843an desegin zen.

Dok.: *alcalde Aiztondo* (1382, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 181), *alcallia Aeztondo* (1387, *ibid.*, 251), *alcallia de Aeztondo* (1390, *ibid.*, 303), *alcallia d' Aeztondo* (*ibid.*, 305), «*alcaldias de Seyaz e de Areria e de Aeztondo*» (1397, *ibid.*, 423), «...*alcaldias de Seyaz e de Areria e de Ayztondo*», «...*Tolossa con sus vezindades, con Ayztondo y Hernani*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 47 eta 61), «...*e de la Alcaldia de Haystondo Juan de Çavala, procurador de la dicha alcaldia, e Juan Lopes de Yheribarr, alcalde de la dicha Alcaldia*» (1455, Le. eta b., 2002: 195), *La Alcaldia de Aiztondo* (Isas., 1850 [1625-26]: 49), *Ayztondo* (*Alcaldia Mayor*, López, 1770), «*Aiztondo, alcaldía de la pr[ovincia] de Guipuzcoa, y una de las tres mayores, que se compone de la villa de Asteasu y lugares de Larraul y Soravilla*», «*Asteasu, v[illa] cabeza de la alcaldía mayor de Aiztondo*» (DRAH, I, 1802: 12, 126), *Aiztondo* (*alcaldía*, Mad., I, 1846: 176), *Aiztondo* (Go., 1862: 9).

EuskalOnom.: Larraungo Aldatz eta Iribas herrietan bada *Aiztondo* mendia (Jim. zuz., 1997d: 39, 147). Soraluzen aurkintza da eta Ataunen mendi mazela (EJ).

Etimol.: Osagaiak *haitz* 'harkaitza', 'harria', 'malkorra' eta *ondo* 'hurbileko alderdia', 'aldamena' dirateke. Lehenaz ikus *Azkoitia* sarrera. **Aitzondo*-tik *Aiztondo*-rako pausoa azaltzeko bi bide ditugu: a) txistukari afrikatuan interbertsio modukoa gauzatu dela kontu egitea (*tz > zt*), eta b) tarteko soinua sartu dela pentsatzea (*aitz-t-ondo > Aiztondo*). Aurrenekoak duen arazoa da idatziz irudikatzean digrafoa izanik ere soinu bakarra dela, eta soinua erdibitzea bitxia edo are ezinezkoa dela. Mitxelena (1977a: 344) honela dio: «En lo que sigue se consideran las sibilantes africadas como sonidos simples, es decir, monofonématicos». Guztiaz ere, afrikatuek fonema eta erdiren balioa-edo dukete, besteak baino luzeagoak dira eta, alderdi horretatik, aukera badagoke aipatu interbertsioa buru dadin. Honetaz Lombardi (1990: 378-379), Crystal (2008: 16-17) eta Nasukawa (2015: 188) ikus daitezke.¹⁰

¹⁰ Honela diosku Iker Salaberri irakasleak (a.a.): «Nire ustez egokiena afrikatuak segmentu bat eta erditzat kontatzea da. Egoeraren arabera bakartzat edo bitzat joka dezakete: ingelesezko [dʒ] afrikatua, adibidez, horrelako soinurik ez duen hizkuntza batean, errusieraz, elkarren ondoan dauden bi soinu balira bezala ahoskatzen da, hots, [dʒ]. Beraz ingelesezko [dʒo{dʒ}] 'George' errusieraz [dʒo{dʒ}] egokitzen da. Laburbilduz, nahiz eta afrikatua segmentu bakarra edo bi diren ez dagoen garbi, argi dago metatesi bidez bi soinu eman ditzakeela».

Albiztur

IzenOfiz.: *Albiztur*.

Dok.: (Top.) «*Alvizt urre, super Lascurende*» (1025, Ubieto¹¹, 1963: 114-115; Bar., 1989: 419; *cf.* *Alvizturre*, 1025, Agud, 1968: 369), *aldea de Aluisturr, lugar de Aluisturr, conçeio de Aluisturr* (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 229-230), *aldea d'Aluisturr* (1389, *ibid.*, 283), *Albiztur* (1510, Her., Ach. eta Mo., 1998: 179), *Albistur*, «...*al dueno de la casa de Alvistur, vezino d Eybar*» (1532, 1536, Le. eta b., 2002: 399, 451), *Albistur* (Gari., II, 1628 [1571]: 341), *Alvistur* (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Albiztur* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Alviztur* (1615, *ibid.*, 673), *Albistur* (*vi.* Isas., 1850 [1625-26]: 28), *Albiztur* (Larra., 1985 [1754]: 56), *Albistur* (*vi.*, López, 1770), «*Albistur, v[illa] de la alcaldía de Sayaz*» (DRAH, I, 1802: 56), *Albistur* (*vi.*, Mad., I, 1846: 327; Go., 1862: 11).

(Antrop.) *Yenego Sanchez d'Alviztur* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 268), *Martin d'Aluisturr* (Tolosa, 1385; *ibid.*, 1996: 242), «*Joan Martines de Alviztur dicho "Crespo"*» (*ibid.*, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488), «*Pedro de Arbiztur, alcalde de la Hermandad en Mondragon*» (*ibid.*, 1521; Le. eta b., 2002: 350).

EuskalOnom.: *Albisturrenea* (Hondarribiko bas., 1769; Fur., 2002: 65), *Albisturrenéa* (Hondarribia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 41), *Albístur* (Oiartzun, *ibid.*, 54).



Albiztur

¹¹ 1055eko data ezartzen dio.

EuskalTes.: «*Albizturco mendi Urlis icendatuan dago arrobi bat [...]*» (Izt., 1847: 54), «*Albizturco mugapean iturri on asco dira*» (ibid., 77), «*...igarotzen da Otsaingo errotaren ondora, non itsasten zaiion Albiztur aldetic amiltzen dan ibaichoa*» (ibid., 115), «*Albisturco errian arquitzen da*» (ibid., 451), «*Albizturko baserri batean Santa Kruzen adiskide aundi bat bizi zan, Mugertza izena*» (Orixe, 1985 [1929]: 67), «*Aralar, Urbietta, Narbaitzu, Agiñegi, Beizamako basoak, Albiztur, Urkizu [...]*» (ibid., 1987: 43), «*Espuru gañetik zer ageri din? Beizamako baserri bat, Albiztur, Ernio, Urkizu, Ermialde [...]*» (ibid., 64), «*Santa Marinaran ere izan giñan Zepai eta biok. Bi aldiz ere izan naiz. Ori Albizturko ballara bat da*», «*Albizturren bertan ere izan naiz*» (Uztapide, 1975: 155).

Ebak.: [al.bĩş.tu.rèn] (in.) (Ano-002), [al.bĩş.tur.kù.a] (lek.g. + abs.) (Bid-008), [al.bĩş.tur.ʝo.á] (lek.g. + abs.) (Lga-043).

Etimol. Mitxelena (AV, 30), *Albi*-z osatutako deiturak aztertzean, honela dio: «Parece haber sido un nombre personal a juzgar por el ap. *Albirena. Albiz*, que parece un patronímico, en *Albiz, Albiztegui (Albistegui), Albiztur (v. torre)* y acaso *Albizuri*, si su elemento final es *-uri* y no *-zuri*. Cf. el top. *Albia*». Hizkuntzalari berak (1956a: 171; AV, 560), hitz bukaerako bokalen erortzeaz eta atxikitzeaz ari dela, esaten du *-e*, zenbait alderditan, usu galdu dela: *Albistur, Albiztur / aluiz turre* (1025), *türre-tik, Aralar / haralarre* (1025), *Aralarre Bedayça* (XI. m.), *larre-tik* (irudiz; testua ez da argia), *Eguiluz* (A), *Sorholus* (Z), *luze-tik* (ikus Eleizalde, 1916: 24). Beste lan batean zabal mintzo da Mitxelena (1956b: 93-94) toponimoaz:

En la donación del monasterio de Olazabal hecha en 1025 [...] se lee *Aluizturre (Aluizturre)* [...]. Parece, pues, tratarse de un compuesto: *Albiz-turre* «torre de Albiz». J. Caro Baroja recordaba, a propósito de las casas-torres vascas, las referencias de los autores clásicos a «turres» y «castella» que servían de centro y refugio a una «unidad social», en la Hispania antigua, así como los «castella» a que alude Hidacio [...]. Los representantes vascos (*dorre, torre*) del lat. *turris* presentan el vocalismo románico. El segundo elemento de *Albizturre*, con la conservación de *u* latina, supone sin duda una gran antigüedad, mucho mayor que la de las formas actuales.

Oin-ohar batean (94. or.) hau gehitzen du errenteriarrak: «Podría pensarse en una etimología análoga por ejemplo para *Lastur* (**Lasturre*), barrio de Deva. Cfr. también *Uzturre*, monte de Tolosa». Erka bedi *Zubitur* deiturarekin.

Irigoienek (1983: 15) erromatarren garaiko *Albi Vitalionis* deizioa darabil ahotan, ezaguna baita *Albius* franko izen usaiakoa zela denbora haietan (orobat *Albinus*; ikus EDH). Badakigu Erdi Aroaren bukaeran (1481ean), Markinan, *Albi* jende izenaren eratorria den *Mari Albiz* lekukotzen dela (Sala., 2003: 150), eta, geroztik, ez dago arazo handirik *Albiztur* (< *Albizturre*) toponimoan *Albiz* patronimikoa eta *turre* ‘dorrea’ ditugula pentsatzeko, alegia, hastapenean ‘albiztarren dorrea’ zela onesteko.

Aintzat har bedi, nolana ere, *albitz* landarea *Bromus erectus* dela (Izaguirre, 1994: 38, 48; ikus OEH), eta, beraz, lehen osagaian horixe dugulako ustea ezin dela guztiz baztertu. Kasu honetan ‘albitz belarra dagoen lekuko dorrea’ zatekeen *Albiztur* hasmentan. Aldera bedi Arantzazuko *Albistui* toponimo txikiarekin (Izaguirre, 1994: 48).

Irigoienek (1986: 148), Zeberioako *Albitzu*-z dihardukala, oinarria *albitz* ‘belar ebakia’ datekeela dio: «...habiéndose apuntado que en este caso podría tratarse de *albitz* ‘heno’, es decir, **albitzu* ‘henar’, lo que, con toda probabilidad, encuentra apoyo en la existencia del paralelo románico *Alcalá de Henares*, Madrid». Ikus bedi autore beraren 1995eko lana (227–228).

HerritarIz.: *albitzurtar*.

HerritarEz.: *kunplituak*.

Argisain

Udala: Albiztur (auzoa), Errezil (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Argisain (Santa Marina)*¹².

Dok. Eliasek (1975: 43–44) biltzen duenez, *Santa Marina de Arguisain* eliza 1353. urtean ageri da estreinakoz, eta bada 1431ko testigantza idatzia ere. Azken gizaldietako lekukotasun batzuk: *Santa Marina de Arguisain* (ba., Albiztur, DRAH, I, 1802: 56 eta II, 355), *Sta. Marina de Arguisain* (ba. eta erm., Albiztur, Mad., II, 1845: 555), «(Albistur) *Tiene una iglesia filial o aneja, que es la de Santa Marina de Arguisain*» (Go., 1862: 13), «*Santa Marina: denominada de Arguisain, barrio perteneciente a las jurisdicciones temporales de la villa de Albistur y universidades de Vidania, Rexil, Beizama y Goyaz, situado en medio de los mismos pueblos*» (*ibid.*, 492).

(Top.) *Santa Marina* (Albiztur, *iglesia y casa*, Nopgui, 1857: 76), *Santamarinaundi* (Errezilgo etxea, 2000b, ErzM), *Santa Marina* (Beizamako auzoa, 2002b, BeiM).

(Antrop.) *Juan Martines de Santa Marina* (Oñati ingurua, 1390; Cres., Cr. eta Go., 1992: 71).

EuskalOnom.: *Argisainiturri* (Errezil, iturria, 2000, ErzM), *Santa Marina* (Asteasuko erm., 2012, AstM). Badakigu, Gorosabeli esker (1862: 166), 1663an Zumarragak, Ezkiok eta Gabiriak *Santa Cruz de Argisano* batasuna eratu zutela.

Beste testigutza batzuk: «*Arguisain o Arguisano*» (1609, Ugarte, 1998: 238), *Arguisano* (1614, 1815, auzoa, *ibid.*, 238–239), «*Arguisano, ó Sta. Cruz de Arguisano*» (*ant. unión*, Mad., II, 1845: 555), *Arguisano* (mendia, Izt., 1847: 36), *Argisao* (Gabiriako aurk., 2005, GabM), *Argisaogain*, *Argisaoko lepoa* (Zumarragako aurk., 2005, GabM; 2015, ZmgM), *Argixao* (Zumarragako auzoa, 2015, ZmgM).

Nafarroako toponimia txikian *Argisoain* eta *Arguisano* ditugu: *Aruissano* (*sic*) (Me-tauten, 1283; Gar.Lar., 1957: 510), *Arguissano* (1300, *ibid.*, 556), *Arginsáno* (Jim. zuz., 1995a: 219), *Arguisoayn* (Imarkoain, 1611; *ibid.*, 1996b: 247), *Arguisoain*, *Arguisain*, *Arguisuain videa* (Murugarren, 1700 eta 1741; *ibid.*, 1995b: 237).

EuskalTes.: «*Santa Marinan ere izan giñan Zepai eta biok. Bi aldiz ere izan naiz. Ori Albizturko ballara bat da*» (Uztapide, 1975: 155).

¹² EHLIn eta EODAn Errezilgo auzotzat jotzen da. Albizturko Udalak *Santa Marina* darabil auzorako, eta *Argisaingo Santa Marina* elizarako.

Ebak.: [s̺a̺. ta. ma. n̺a̺] (in.), [s̺a̺. ta. ma. r̺i. na] (abs.) (Ano-002).

Etimol.: Irudi du jabegoa adierazten duen *-ain* atzizkia daukan toponimoa dela, hots, etorkiz *Argis(o)*, *Argix(o)* zeritzan norbaiten lurra edo baserria zela. *Argisoain*, *Argisao* eta bestek ere *Argisain* antrotoponimo ugarietako bat dela pentsarazten digute. *Argisain* eta *Argisoain*-en artean dagoen aldea, segur aski, oinarriko izena **Argis*, **Argix* edo *Argiso*, *Argixo* izateari zor zaioke; erka bedi hau *Garbiso*, *Garbixo* / *Garbix*-ekin (Sala., 2009: 188, 227).

Argiso, *Argixo* Burgosko dokumentazioan azaltzen da pertsona izentzat: Valpues-takoan «*Abita signum. Argisso hic signum. Gemellus hic signum*» dugu 875. urtean (Pérez Soler, 1970: 22), eta Cardañakoan «*Ego Alvaro una pariter cum uxor mea et filiis nostris Obeco et Argisco*» daukagu 949an (Mtez.Dz., 1998: 94), eta «*Ego Trasmondo et uxor mea Emilo [...] et testibus ad roborandum tradimus. Argisso hic. Gomiz hic. Abolmondar hic. Placenti testis. Tello testis. Uincenti testis*» 962an (*ibid.*, 137). *Argisco* / *Argisso* pareta lan bereko *Garbisco* (969, *ibid.*, 179. or.), *Garuisso* (972, *ibid.*, 187. or.) bikotearekin aldera daiteke. Honetaz ikus Mitxelena (AV, 261) eta Salaberri (2009: 186-190).

Argindoain Arakilgo (N) herrixka izan zen Erdi Aroan, eta *Argindain* egungo Amatriaingo (Orbaibar, N) aurkintza baten izena da (Jim. zuz., 1997a: 63). *Argis(o)ain* eta *Argind(o)ain*-en arteko erlazioa *Zuriain* (Esteribar, N), *Zurikoain* (*Zurukuain* egun, Deierrin, N) eta *Zurindoain* (Gesalazko herri hustua; Sala., 2017, 242-243, N) toponimoen artean dagoenaren parekoa da, oinarritako haietan *Argi(a)* eta hauetan *Zuri(a)* badugu ere.

Santa Marina (ikus *Argisain*)

Alegia

IzenOfiz.: *Alegia*.

Dok.: (Top.) *Alegria* (1390, Dz.S., 1985: 153; 1502-1528, Ayer., 1997: 588), «*veçindad de Alegria, en el rio que dize Urçuriaga*» (1514, *ibid.*, 176), *Alegria* (Ortelius, 1588, mapa), *villa de Alegria* (1590, 1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 623, 639), *Alegria* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 28), *Alegria de Areria* (*ibid.*), «*Alegriam attingit*»¹³ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), «*Alegria, v[illa] de la union de Aizpurúa*» (DRAH, I, 1802: 62), *Alegria* (vi., Mad., I, 1846: 524; Go., 1862: 15).

(Antrop.) *Ochoa Lopez de Alegria* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 266), *Iohan Lopez de Alegria* (Tolosa, 1385; *ibid.*, 1996: 243), *Iohan Lopez d' Alegria* (1391, *ibid.*, 324), «*Joan de Alegria, bastero, fiel de la Cofradia de San Joan de Arramele*» (*ibid.*, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488), «*Lope Lopes de Alegria, escribano defuncto*» (1499, *ibid.*, 501), *Miguel Lopez de Alegria* (*ibid.*, 1533; Ayer., 1997: 178).

EuskalOnom.: *Aleguiri-echéa* (Amezketeta, ca.d.l., Nopgui, 1857: 79), *Alegia* (Amezketako bas., 1998, AmeM), *Alegietxea* (*Aletxe*) (*ibid.*), *Alegietxeko borda* (*ibid.*). Gaborian eta Itsason *Alegía* eta *Itsaso-Alegía* izeneko auzoak ditugu.

EuskalTes.: «*Alegueriaco erri barrutic arricada bateco bidastian dago*» (Izt., 1847: 78), «*...eta bestea Alegueriaco echadiatic datorrena*» (*ibid.*, 102), «*erri oec biac escuirontz lagaric iristen da Alegueriara*» (*ibid.*, 115), «*Alegueriaco elizan*» (*ibid.*, 452), «*beren izena "Gazte Alayak" / puntuz dago Alegrian*» (Urdangarin, 1932a: 228), «*Alegi'ko Gazte Alayak*» (*ibid.*, 1932b: 289), «*iñoiz Alegriara ta / Tolosara juana*» (J.J. Sarasola, 1932e: 269), «*Kapea artu ta joango giñan Alegriara autobusean, eta andikan Beasaiña*» (Uztapide, 1975: 58).

Ebak.: [á.le.γri] (abs.) (Alk-001), [á.le.γri.á].de.à] (adl.) (Bil-012), [á.le.γri.á] (adl.), [a.lé.γri.ti.kàn] (abl.) (Hra-001), [á.le.γri] (abs.), [á.le.γrin] (in.) (Lgo-001), [á.le.γri.ko.à] (lek.g. + abs.), [á.le.γri.kòk] (lek.g. + abs.) (Ord-031).

Etimol.: *Alegria* izena hartu zuen hasiera batean. Gero, XIX. mendean, *de Oria* gehigarria erantsi zitzaion, bertatik igarotzen den ugaldeari erreferentzia eginez, *Alegria de Álava*-tik eta gainerakoetatik bereizteko. Mitxelenak (1976: 55), beste gai batez ari dela, esaten du modaren aldakuntzek toponimoak antroponimoak baino gutxiago ukitzen dituztela, haiek ere modatik libre ez izanagatik; esaterako, gehitzen du, denbora batean ohikoak (modaren fruitu) izan ziren *Alegria*, *Miranda*, *Mondragón*, *Monreal*, *Salvatierra*, *Segura* hiribildu izenak ugariak dira euskara mintzatu edo mintzatzen den eremuan.

Arabian *Alegria-Dulantzi* dugu egun eta, dokumentazioari esker, badakigu euskaraz *Alegeria* esan izan zaiola. Gainera, herrialde bereko *Andollu* herririka *Villa-Alegre de Andollu* gisa ere lekukotzen da (DRAH, II, 1802: 450). Garaziko Arnegi herrian XVIII. mendean gerozko *Aleira* etxe izena *Allegria* eta *Alegria* ere edireten dugu, gizaldi ho-

¹³ «Alegia iristen du».

rretan; hemen bilakaera *Alegria* > **Aleria* > *Aleira* izan da. Ikusten den eran, joera izan da, gure hizkuntzan, *-gr-* multzo «deserosoa» modu batera edo bestera itxuraldatzea, onimoa irensgarriago egiteko, nonbait: *-gr-* > *-g-* (G), *-gr-* > *-ger-* (A), *-gr-* > *-r-* (NB). Zernahi gisaz, Gipuzkoakoan *Alegria* > *Alegeria* > *Alegia* izan bide da bilakaera. Aintzat har bedi, alabaina, bildutako ahozko lekukotasun guztietan *-gri-* [γri] arazorik gabe atxikitzen dela.

HerritarIz.: *alegiar*. Baina *alegitar* aldaera gero eta erabiliagoa da: «*Lagundutzeko alegitarrak / artu zituen iru gazte*» (Urdangarin, 1932b: 290), «*Alegitarrak, txintzarriak; Tolosarrak, aizeak*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

HerritarEz.: *txintzarrik* (zintzarriak¹⁴).

¹⁴ Behinola herrian zintzarri eta joare lantegiak zeudelako, menturaz.

Alkiza

IzenOfiz.: *Alkiza*.

Dok.: (Top.) *Alquiça* (1348, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 256), *Sant Martin de Alquiça* (1396, *ibid.*, 1996: 420), *Alquiça* (1450, Le. eta Ta., 1996: 21), «*universidades de As-teasu e de Larraul e de Alquiça e de Çiçurquill*» (1492, Ayer. eta Dz.S., 1996: 496), *Alquiça* (1572, *ibid.*, 571), *Alquiça* (Ortelius, 1588, mapa), *Arquiça* (*univ.*, 1613, Ayer., 1997: 710), *Alquiça* (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 28), «*la (ferrerria) de Arizmendi en el rio de Hernio jurisdiction de Alquiça debajo de las casas de Solarain*» (*ibid.*, 235), *Alquiça* (*pu.*, López, 1770), «*Alquiça, v[illa] de la union de Ainsu de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, I, 1802: 64), *Alquiça* (*vi.*, Mad., II, 1845: 204; Go., 1862: 17).

(Antrop.) *Miguel Lopiz de Alquiça* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 140), *Miguell d'Alquiça* (Tolosa, 1348; *ibid.*, 256), *Domingo de Alquiça* (*ibid.*, 1521, Le. eta b., 2002: 346; 1528, Ayer. eta Dz.S., 1996: 512).

EuskalOnom.: (Top.) *Alquicenéa* (Hondarribia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 41), *Alquiça* (Donostia, *ibid.*, 63), *Alkitzeneko muntoa* (Hernani, Zaldúa, 2012a: 449).

(Antrop.) *Martin Yuanez d'Alquiçalahere* (*sic*) (Tolosa, 1348; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 256), *Martin Perez de Alquiçalehete* (Alkiza, 1396; *ibid.*, 1996: 420), «*Eluira de Alquiçamendia e Iohan Miguellaz de Alquiçalehete*» (*ibid.*, 421).

EuskalTes.: «*Alquizaco mugapean badira iturri onac iori*» (Izt., 1847: 79), «*Anoetan iturri on anitz dira chit, baita erreca bat ere Alquizatic datorrena*» (*ibid.*), «*Hernalde, Alquiça, Larraul eta Anoeta ezquerrerontz eta Inura ezcuitara* (*sic*) *lagaric, joaten da Amasa Villabonacora*» (*ibid.*, 116), «*Prenda ederra ori Alkizakua, / Pasayan dago serbitzen*» (Xenpelar, 1932e: 264), «*Asteasuko kanpaiak galde egin zuan: ¿Duruá nun? -Alkizakoak erantzun zuan: Leten¹⁵ ta Perun*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 140).

Ebak.: [ál.ki.șà] (abs.) (Alk-001), [al.kí.șa.ti.kàn] (abl.) (Ano-002).

Etimol. Jimenok eta Salaberrik (2018: 58) honela diote Artaxoako *Alkizmuga* toponimoa aztertzean: «El primer elemento es *Alki(t)z*, probable topónimo que podría ser un compuesto de *-haitz*, pero también de *alka* ‘avena silvestre’, según Azkue, con el sufijo locativo abundancial *-itz* (Cf. *Oteitza*)». Ikus bedi, halaber, Salaberrik (2011a: 42) Ultzamako *Alkotz* herriaren izenaz dioena. Aldera bedi, bestalde, Arrarasko *Alkieta* (Jim. zuz., 1997c: 35) aurkintza izenarekin.

Zernahi gisaz, Artaxoako toponimoa azaltzeko *Alcius* antroponimotik ere abia gaitzke, zehazkiago, **Alci-* aldaeratik (cfr. *armentarius* → *Armentarius* > *Armentari* → *Armentaritz(e)*, *Aurius* → *Auritz*, adibidez), eta Gipuzkoakoa argitzeko *Alcius* horren **Alcisius* eratorri batetik (cfr. *Acrius* - *Acrisius*, *Albius* - *Albisius*, *Alfius* - *Alfisius*, *Apius*

¹⁵ Alkizako etxea, segur aski dokumentazioko *Alquiçalehete* bera. Hemen Nafarroako zenbait lekutan eta Iparraldean dagoen erabilera dakusagu; cfr. egungo *Lasa Karrikaburua* ‘Lasa herriko Karrikaburua etxea’.

- *Apisius, Arius - Arisius, Atius - Atisius, Calvius - Calvisius, Carius - Carisius, Comius*
- *Comisius, Cotius - Cotisius* eta beste hamaika), alegia, *(*uilla*) *alcisiana* ‘*Alcisius izenekoaren lurra, bezterretxea’ formatik, hau arazogabea ez bada ere.

HerritarIz.: *alkizar*.

HerritarEz.: *oilok*.

Altzaga

IzenOfiz.: *Altzaga*.

Dok.: (Top.) *Alzaga, Alçaga* (1399, 1409-1410, Ayer. eta S.M., 2013: 11, 45), *Alega (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Alçaga* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Alzaga (vi., López, 1770)*, «*Alzaga, v[illa] del part[ido] llamado union del rio Oria*» (DRAH, I, 1802: 65), *Alzaga (vi., Mad., II, 1845: 215; Go., 1862: 22)*.

(Antrop.) *Pero Martiniz de Alçagua* (1319, Zab., 1997: 507), *Martin Perez d'Alçaga* (Azpeitia, 1348; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 254), *Martin Perez de Alçaga* (1363, *ibid.*, 321), *Iohan Martinez d'Alçaga* (1385, Rol., 1991: 83), *Pero d'Alçaga* (Zumarraga, 1390; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 305), *Juan Martinez de Alzaga* (Segura, 1401; Urz., 1990: 345), *Pero Lopez de Alçaga* (Tolosa, 1409-1410; Ayer. eta S.M., 2013: 52), *Martin de Alçaga* (1475, Ayer. eta Dz.S., 1996: 492).

EuskalOnom.: *Álzaga* (Azpeitia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 10), *Álzaga-saleche (ibid.)*, *Alza-gárate* (Altzaga, *ibid.*, 78), *Alzaga* (Eibar, *ibid.*, 117), *Altzaga* (Aramaio, Erandio eta Zeberioako auzoak). *Cfr.* Donostiako *Altza* auzoa (berandu arte herria izandakoa), *Altzabaso* barrutia (Zaldua, 2012a: 435) eta Oiartzungo *Altza*, *Altzandia*, *Altzatxiki* baserriak (Goik. eta Lek., 2007: 64). Hondarribian *Alzamachiqui* bazterretxea lekukotzen da (1884, Fur., 2002: 77).

EuskalTes.: «*Alzagaco erriac baditu iturriac, onac eta garbiac*» (Izt., 1847: 79), «*...erri au (Zaldibia) Gainza, Alzaga eta Arama escuirontz lagaric igarotzen da Isasonora*» (*ibid.*, 115), «*Altzagan ere izaten giñan bertsotan*», «*Bi erri txiki alkarren ondoan daude Altzaga eta Gaintza, eta biak San Migeletan pestak*» (Uztapide, 1975: 125).

Ebak.: [ál.tʃa.à], [ál.tʃá] (abs.) (Alg-002), [ál.ʃàn] (ín.) (Lei-009).

Etimol. Pottek (1875: 40-41) honela dio: «Baskisch *haltz* Aulne (arbre), bei Larr. *altzá*, Span. doch kaum davon verschieden *aliso*, und daher *altzaga* Alisal (alnorum locus)»¹⁶.

Mitxelenak (AV, 11, 10, 36) *haltz* zuhaitz izena eta *-aga* leku atzizkia dakuski toponimoan; etorkizko adiera 'haltz ugari dagoen tokia', 'haltza dagoen lekua' zatekeen. Ikus *Altzo*-n dioguna.

HerritarIz.: *altzagar* da, baina *altzagatar* ere dokumentatua dago. Ikus hurrengo atalñoa.

HerritarEz.: *zakurrak*. «*Altzagatarrak zakurrak, Aramarrak idiik*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 139).

¹⁶ Ugartek (1887: 42) honela iraultzen du gaztelaniara: «El vasco *haltz*, Aulne (arbre), es en Larramendi *altzá*, en español la voz análoga *aliso* y de aquí *altzaga*, Alisal (alnorum locus)».

Altzo

IzenOfiz.: *Altzo*.

Dok.: (Top.) «*Alço, Olaçabal*» (1350, elizak; Insausti, 1974: 226), *Alço* (1519, Ayer., 2006, 336), *tierra de Alço* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Alzo* (1615, *ibid.*, 673), «*Alzo, dos Barrios*» (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 28), *Alzo* (*vi.*, Go., 1862: 24).

(Antrop.) *Miguell Martinez d'Alço* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 266), *Lope Garcia de Alço* (Orendain, 1384; *ibid.*, 1996: 236), *Lope Garcia de Alço* (1390, *ibid.*, 309).

EuskalOnom.: «*Ia beti odeia Altzo mendik naiz Gaztelu mendik erakarri oi yunate berengana*» (Orixe, 1987: 74), *Altzomendi* (Altzoko aurk., 2009a, AloM), *Altzozubieta* (*ibid.*), *Altzoiturri* (Zumarragako iturria, 2015, ZmgM).

EuskalTes.: «*Alzo azpicoa eta goicoa, biac dira iturri garbi onaquin guztiz ondo janciac*» (Izt., 1847: 79), «*Erri au (Amezqueta), Orendain, Baliarrain, Abalcizqueta eta Alzo biac es-cuirontz lagaric igarotzen da Otsaingo errotaren ondora, non itsasten zaion Albiztur aldetic amiltzen dan ibaichoa*» (*ibid.*, 115).

Ebak.: [ál.t̺o.kín] (soz.) (Alo-003), [ál.t̺òn] (in.) (Gaz-001).

Etimol.: Mitxelenak (AV, 37) *Alzo* herri-izena (*h*)*altzu*-ren eratorrietan sartzen du eta esaten hondarrekoan *(*h*)*altz-zu* dagokeela (*haltz* zuhaitz izena + *-zu* ugaritasunezkoa, ustez), baina badela, halaber, *altzu* 'belar mukuru' izena zubereraz. Errenteriarak (*ibid.*, 622) *-zo* ere badarabil ahotan, *-zu* atzizkia aztertzean; ordea, bokala irekia duen aldaera hori usaian erromantzearen eraginari zor izaten zaio, Arabako *Zuhatzu* > *Zuazo*-n esaterako (Sala., 2015a: 401-402). Cfr. Hernaniko *Altzuet*a baserri izena (Zaldua, 2012a: 740) eta *Altza*, *Altzaga* toponimoak.

Altzo esplikatzeko bideetako bat, *Altza*-rekin alderatzen denean partikularki, *haltz* zuhaitz izena eta gradu hurbileko *-o* artikulua dugula pentsatzea da. Ustekari horren arabera, *Altza*-n *haltz* hori bera eta gradu urruneko *-a* artikulua geneuzkake.

HerritarIz.: *altzotar*.

HerritarEz.: *tipulak*.

Altzoazpi

Udala: *Altzo* (auzoa¹⁷).

Dok.: (Top.) «*Alço, Olaçabal*» (1350, elizak; Insausti, 1974: 226), *Alco, Olocauel* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Alzo azpicoa* (Isas., 1850 [1625-26]: 223), *Alzo de Abajo, Olazaval* (*vi.* eta *ba.*, hurrenez hurren; López, 1770), «*Alzo de abaxo, v[illa] de la union de Aizpurua*» (DRAH, I, 1802: 66), «*Alzo de abajo u Olazabal*» (*aldea*, Mad., II, 1845: 216), «(*Alzo*) *Su termino municipal se compone de dos poblaciones, que en algun tiempo fueron independientes*.

¹⁷ Ez da Euskaltzaindiaren EHLIn eta EODAn ageri.

La una se llama Alzo-muño, o sea Alzo de arriba, la otra Alzo de abajo (Go., 1862: 24), *Altzoazpi* (2009, AloM).

EuskalOnom.: *Alçolayuso* (Zumarragako bas., 1543; Ugarte, 1998: 226), *Alzola-béa* (Elgoibar, ca.d.l., Nopgui, 1857: 117), *Alzola de abajo* (Zumarraga, *ibid.*, 143).

EuskalTes.: «*Alzo azpicoa eta goicoa, biac dira iturri garbi onaquin guztiz ondo janciac*» (Izt., 1847: 79), «*Erri au (Amezqueta), Orendain, Baliarrain, Abalcizqueta eta Alzo biac es-cuirontz lagaric igarotzen da Otsaingo errotaren ondora, non itsasten zaion Albiztur aldetic amiltzen dan ibaichoa*» (*ibid.*, 115), «*Alzo-azpico erriac ere badu seme bat*» (*ibid.*, 453), «*Bertsolari zar bat ere bada Zaldibiko semea, orain Altzo-beian bizi da baña*» (Uztapide, 1975: 79).

Ebak.: [ál.tʃó.aʃ.pí] (Alo-005), [al.tʃó.aʃ.pì] (Alo-031).

Etimol.: Osagaiak *Altzo* herri izena (ikus sarrera hau) eta *azpi* ‘beheko aldea’ dira, hots, ‘beheko Altzo’ da honen adiera, *Altzomuño*-ren aurkez aurke.

HerritarIz.: *altzotar*.

Altzomuño

Udala: Altzo (auzoa¹⁸).

Dok.: (Top.) «*Alço, Olaçabal*» (1350, elizak; Insausti, 1974: 226), *Alzo garaicoa* (Isas., 1850 [1625–26]: 223), *Alzo de Arriba* (*pu.*, López, 1770), «*Alzo de arriba ó Altzomuñoa, v[illa] de la union de Aizpurua*» (DRAH, I, 1802: 66), *Alzo de Arriba* (*aldea*, Mad., II, 1845: 216), «(Alzo) *Su termino municipal se compone de dos poblaciones, que en algun tiempo fueron independientes. La una se llama Alzo-muño, o sea Alzo de arriba, la otra Alzo de abajo*» (Go., 1862: 24), *Altzomuño* (2009a, AloM).

EuskalOnom.: *Alzola* (Elgoibar, ai., Nopgui, 1857: 117).

EuskalTes.: «*Alzo azpicoa eta goicoa, biac dira iturri garbi onaquin guztiz ondo janciac*» (Izt., 1847: 79), «*Erri au (Amezqueta), Orendain, Baliarrain, Abalcizqueta eta Alzo biac es-cuirontz lagaric igarotzen da Otsaingo errotaren ondora*» (*ibid.*, 115), «*Altzo-goian ere izaten giñan. Karolina edo orrelako zerbaít ateratzen zuten mina bat izan bear zuan an, Altzo-goian*» (Uztapide, 1975: 132).

Ebak.: [ál.tʃó.mu.ño] (Alo-031).

Etimol.: Osagaiak *Altzo* herri izena (ikus sarrera hau) eta *muino* ‘mendixka’ izen arrunta dira. Ikusten den bezala, *garaikoa* eta *goi(ko)a* ere erabili dira euskaraz, *muino*-ren ordeaz, *Altzoazpi(koa)* edo *Altzobehea*-ri kontrajarririk.

HerritarIz.: *altzotar*.

¹⁸ Ez da Euskaltzaindiaren EHLIn eta EODAn ageri.

Amezqueta

IzenOfiz.: *Amezqueta*.

Dok.: (Top.) «*vezinos e moradores de Amezqueta e de Abalazqueta*» (Orendain, 1384; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 235), «*las dichas collaciones de Abalazqueta y Amezqueta*», «*los dichos de Avalazqueta e Amezqueta*» (1390, *ibid.*, 309-310), «*collaciones de Amezqueta e de Avalazqueta*» (1409-1410, Ayer. eta S.M., 2013: 44), «*las dichas universidades de Amezqueta e Abalazqueta*» (1519, Ayer., 2006: 355), *Amezqueta* (1572, Ayer. eta Dz.S., 1996: 571), *Amesqueta* (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Amezqueta* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Amezqueta* (1615, *ibid.*, 673), *Amezqueta* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 28), *Amezqueta* (vi., López, 1770), *Amezqueta* (vi., DRAH, I, 1802: 69; Mad., II, 1845: 247), *Amezqueta* (vi., Go., 1862: 31).

(Antrop.) *Iohan Miguellez d'Amezqueta* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267), *Iuan de Amezqueta* (Segura, 1374; *ibid.*, 1996: 58), *Martin Lopez de Amezqueta* (Tolosa, 1528; Ayer. eta Dz.S., 1996: 512). Cfr. hau: «*Iohan Ochoa d'Amezqueta procurador de las villas de Sant Savestian e de Hernani e de Velmont d'Usurrbil*» (1390, Dz.S., 1985: 69).

EuskalOnom.: *Amezqueta-Lardi* (Aia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 2).

EuskalTes.: «*Amezquetaco mugape guztia da care-aitzez betea*» (Izt., 1847: 59), «*Amezquetaco mugape guztia da iturriz aberatsa*» (*ibid.*, 79), «*...iristen da Alegueriara, ceñaren escuico aldetic sartzen zaion Amezquetatic datorren ibai bicichoa*» (*ibid.*, 115), «*Amezquetaco jatorri bat Guipuzcoan jaioa*» (*ibid.*, 453), «*Amezketatikan / ta Azkotatikan*» (sic) (J.J. Sarasola, 1932c: 236), «*Amezketan yaio, Zaldibian bataiatu, Ataunen bizi, lapurra il da bizi*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 139), «*Agoztuaren ogei ta lauana, San Bartolome eguna, Amezketara joan izan giñan*» (Uztapide, 1975: 45).

Ebak.: *Amezketan* (in.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 44), [a.méʃ.ke.tà] (abs.) (Alo-003), [a.méʃ.ke.ta.kò] (lek.g), [á.meʃ.ke.ta.kòk] (lek.g + abs.) (Its-002), [a.méʃ.ke.ta.ko.à] (lek.g. + abs.) (Liz-001).

Etimol.: Moglek (1854: 733) *ameza* zuhaitz izena dakusa toponimoan. Vinsonen iritzian (1909: 350) *Amezqueta* «*les chènes tauzins*» iraul daiteke, «*ametzak*» alegia. Azkuek (1927: 183) *ametz* + *-eta* esplikatzen du *Amezqueta*, eta Mitxelenak (AV, 40) *ametz* zuhaitz izena dakusa *Amezaga*, *Amezqueta* eta *Amezti*-n. Hortaz, toponimo argia da, oinarrian aipatu *ametz* daukana; atzizkia *-eta* toki-ugaritasunezkoa dugu (*-tzeta* > *-zketa* pausorako ikus *Aiztondo* eta *Gipuzkoa* sarreretan dioguna), eta hastapeneko adiera 'ametz gunea', 'ametz ugari dauden tokia', 'ametzaren lekua'.

HerritarIz.: *amezketar*.

HerritarEz.: *elbik* 'euliak' (Zdb-1). «*Amezketarrak, elbiak; Orendainarrak, eltxoak*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Ugarte

Udala: *Amezqueta* (bizt. ent. ber. [Eustat]; elizatea¹⁹).

IzenOfiz.: *Ugarte*.

¹⁹ Euskaltzaindiaren EHLIn eta EODAn aitortzen zaion izaera.

Dok.: «*Santa Marina de Ugarte, que esta sita en tierra de la casa solar de Ugarte andia en la jurisdiccion de Amezqueta*» (ai., Isas., 1850 [1625-26]: 210), *Ugarte* (ba., López, 1770), *Ugarte* (ai., Mad., XV, 1849: 205), *Errota de Ugarte* (Amezqueta, m.h., Nopgui, 1857: 80), *Nuestra Señora de Ugarte* (Amezqueta, iglesia aneja y casas, ibid., 81), *Ugarte-aundia* (ca.d.l., ibid.), *Ugarte-jáuregui* (ibid.), «(Amezqueta) *Comprende en su jurisdiccion un barrio, que es el titulado Ugarte, compuesto de unos pocos caserios esparramados de labranza*» (Go., 1862: 32).

EuskalOnom.: Euskal Herrian ugariak dira *Ugarte* izena duten etxe eta tokiak. Gipuzkoako 1857-1864ko izendegi anonimoan herri hauetan edireten dugu *Ugarte* oikonimoa, bakarrik edo *berri* - *zahar*, *handi* - *txiki*, *behekoa* - *erdikoa* - *goikoa*, *borda*, *erota*, *etxeberr*i eta *torre* gehigarriak dituela: Antzuolan, Asteasun, Azkoitian, Azpeitian, Bergaran, Deban, Elduainen, Elgetan, Errenterian, Gabirian, Mutiloan, Oiartzunen, Oñatin, Ormaiztegin eta Zizurkilen. Bestalde, Aiaran, Amurrion, Arrankudiagan, Arteagan, Basaurin, Bedian, Erandion, Gatican, Gordexolan, Orozkon, Trapagaranen, Urduñan, Zaratamon eta Zeberion badaude *Ugarte* auzoak.

Ebak.: [u.ár.té] (abs.) (Tol-006).

Etimol.: Toponimoaren osagaiak *ur* ‘ugaldea’, ‘erreka’ eta *arte* ‘bitartea’ dira. *Ugarte*-k, aldaera duen *Uharte*-k bezala (ikus Salaberri eta Salaberri, 2016: 374), bi uren, bi erreka arteko gunea adierazten du, edo erreka baten eta ibai baten artekoa (ikus Mitx., AV, 572). Gune horretan goratutako etxea ere izan daiteke, edo herria.

Andoain

IzenOfiz.: *Andoain*.

Dok.: (Top.) *Aindoayn* (1397, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), *Ahindoayn* (1404, Ayer., 1997: 501), *Sant Martin de Ahinduayn* (1452, Ayer. eta Dz.S., 1996: 477), *Ahinduayn* (*sic*) (1468, A. Agirre, 1988: 560), *Tierra de Aynduayn* (1475, Ayer. eta Dz.S., 1996: 489), *Ayndoayn*, *Aynduayn* (1475, Le. eta Ta., 1996: 65), *Ferreria de Aynduayn* (1480, Ayer., 1997: 541), *Ahinduayn* (1480, *ibid.*, 543), *Aynduayn* (1502-1528, *ibid.*, 582), *Universydad de Ahynndoayn* (*ibid.*, 592), *unibersidad de Aindoain* (1571, Ayer. eta Dz.S., 1996: 560), *Aynduayn* (Gari., II, 1628 [1571]: 378), *Ayndoayn* (1581, Ayer., 2015: 829), *Aindom* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Aynduayn* (1592, Ayer. eta Dz.S., 1996: 630), *Andoain* (1614, *ibid.*, 666), *Ayndoain* (1615, *ibid.*, 673), «*Lizaur. Andoain*» (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26] 29), *Andoain* (Larra., 1985 [1754]: 33-34), *Andoain* (*vi.*, López, 1770), *Andoain* (*vi.*, DRAH, I, 1802: 71), «*Antiguamente se llamó Leyzaur por la torre y casa fuerte del mismo nombre, dicha así del rio Leyza, abundante de exquisitas truchas, que se junta con el Oria cerca de la torre*» (*ibid.*, 72), *Andoáin* (*vi.*, Mad., II, 1845: 286), *Andoain* (*vi.*, Go., 1862: 34).

(Antrop.) *Domingo d'Ahindoayn* (Donostia, 1388; Lar. eta Le., 1995: 62), *Iuan de Ainduain* (Donostia, 1492; *ibid.*, 140), *Miguel de Andoain* (Tolosa, 1539; Le. eta b., 2002: 459).

EuskalTes.: «*Andoaiñeco, edó Andoaingo portitzac*» (Larra., 1979 [1729]: 327), «*Andoaingo mugapean badira arrobi asco*» (Izt., 1847: 52), «*Andoaingo mugape guztia da iturri guezazago ascorequin chit ondo jancia*» (*ibid.*, 79), «*Devaco ibaian igotzen dira Mendaro-raño (izoqui) samalda andiac; Urolacoan orobat, Iraetara; Oriacoan Usurbilla ugari chit, eta Andoaina ere bai ascotan*» (*ibid.*, 203), «*Andoaingo semea zan Aita Larramendi gogoangarria*» (*ibid.*, 454), «*...luzarago, berri, (bizi izan zen) Nangleten, Andoaingo Larretatarrak zuten etxe batean*» (Orixe, 1985 [1929]: 91), «*Gora Andoain'go Aita Larramendi / Astarloa eta Erro*», «*Seme jatorrak azitzen ditu / gora Andoain'go erria*» (Erauskin, 1932c: 268), «*Zumarraga'ko euskal-egun oroigarria, Andoain'goa, Segura'koa, Errenderi'koa, laster Bergara'koa ere ta Otxandio'koa*» (Lizardi, 1972 [1934]: 134), «*Andoain'go aur euskaldunaren eguna larunbatez*» (*ibid.*, 137), «*Laborde ori edo oiek Andoaiñen dauzkate tallerrak*» (Uztapide, 1975: 134).

Ebak.: [ándoàjn] (abs.), [ándoáingwàn] (lek.g. + in.) (Zaldua, 2012a: 748), [áj̃.doàjn] (abs.) (And-063), [áj̃.do.áj̃n.di.kàn] (abl.) (Iru-001), [áj̃.do.áj̃n.dik] (abl.) (Tol-019), [áj̃.do.áj̃n] (abs.) (Urn-017).

Etimol.: Mogelen arabera (1854: 735) 'lurpeko enbor asko' esan nahi du *Andoain*-ek: «*Andu-ain-* Significa *mucho tronco enterrado*. Cuando se cortan por pié los árboles, quedan aun en tierra parte fuera y parte enterrados con sus raíces algunos troncos, y á estos llamamos *anduiac*. De aquí la casa y apellido de *Anduitza*, del mismo significado que *Anduain*».

Mitxelena (AV, 51) esaten du, Caro Barojaren (1945: 84) bidetik, *Andoain* (G) eta *Anduiahin* (1025, A, *Andoin* egun) herri izenen erroan beharbada antroponimoa

ikusi behar dela. Menéndez Pidalek eta Tovarrek (1962: 396) *Andoain* toponimoa *Antonianu*-tik eratortzen dute.

Gorrotxategik ere (1984: 139) uste du *Andoain* eta *Anduiahin*-en oinarrian pertsona izena dagokeela, eta orobat *Andelos*-enean (Mendigorría, N), baina ez du argitzen bera ote den hirurotan. García Ariasek (2005: 454) *Andus* antroponimoa ematen du Asturiasko *Andés*-en iturburutzat, eta eskualde bereko *Priendes* ere *Andus* edo *Andius* pertsona izenetik eratortzen du: **Per (villam) Andüis > *Priandis > Pirendes* ‘*Andius*-en bazterretxearen ondoan’.

Gipuzkoako herriaren izenaren agiri testigantzak ikusirik, oinarria **Ahindo* dela dirudi. Sudurkari baten ondoan zenbaitetan bokal palatala sortzen dela gauza ezaguna da (*aingeru*-n konparazioe; ikus Mitx., 1977a: 159), baita toki izenetan ere (*Ainhize*-n adibidez; Sala., 2005b), eta, Nafarroan eta Iparraldean Erdi Aroan kausitzen dugun *Anto* antroponimoan oinarri harturik, **Antoain* ‘*Anto* izenekoaren etxea, lurra’-ren moduko batetik abiatuta *Andoain*, *Aindoain*-era iristea ez da neke, baina ongi dokumentaturik dagoen tarteko <h> hori azaldu gabe gelditzen zaigu horrela. Beste azalbidea **Ahindo* lekutugabea eta jabegoa adierazten zuen *-ain* atzizkia ditugula kontu egitea da.

Alabaina, Menéndez Pidalen eta Tovarren (1962: 396) ideari jarraikiz, epigrafiak latinoan behin baino gehiagotan edireten dugun *Antonianus* izenean ere (ikus EDH) oinarri gaitzke toponimoaren berri emateko, zehazkiago esan, haren *Antoniani* genitiboan, **(uilla) antoniani* ‘*Antonianus* deritzanaren bazterretxea, lurra’ forman. Aurrera baino lehen, eta azalpena errazteko, sudurkari disimilazioa gertatu zela pentsatu behar dugu (ikus *Bedoña* eta *Zendoia*)²⁰, honela: **(uilla) antoniani > *Antoiani*. Geroko bilakaera hau izanen zen: **Antoiani > *Aindojãñ* (*nt > nd*, euskaraz usaiakoa den moduan; sudurkari ahula hasperendu eta sudurkarituko zen, eta inguruko bokalak ere sudurkarituko ziren)²¹ *> *Aindojãñ (-nC-* taldearen aitzinean zenbait aldiz agertzen den bokal palatala garaturik eta hasperenaren sudurkaritasuna galdurik) *> *Aindojahin* (bokalen sudurkaritasuna galduko zen, *-n* sudurkaria garatu eta gero) *> *Aindoahin* (palatal disimilazioa) *> Ahindoain* (hasperena aitzina igarorik, garai batetik aurrera ez baitzen bigarren silabatik eskuin agertzen ahal) *> Aindoain* (hasperena galdurik, denbora batetik aitzina) *> Andoain* (*i - i > ø - i*, palatal disimilazioz, 1614rako).

²⁰ Disimilazioa edo haplogia gauzatu dateke, berebat, Nafarroako *Zenborain* (Untzitibarko herria) eta *Zenboro(t)z* (Galipentzuko aurkintza, antzinako herrixka, hain segur; ikus Sala., 1994: 483) toponimoetan, lehenak **(uilla) semproniani* baituke etorki, eta bigarrenak **(uilla) sempronionis*. Aurrenekoaren oinarriko antroponimoa Iberiar penintsulan ongi dokumentatua dagoen *Sempronianus* da (EDH), baina *Sempronius* izen hedatua ere izan daiteke, bigarrenaren bezala, honetan ordea *Sempronio*, *Sempronionis* ereduaren arabera deklinatua (ikus Sala., 2011a: 56).

²¹ Ez dakigu ongi aldakuntzen kronologia erlatiboa zein den. Hortaz, goiti-beheitikotzat eman behar da hau.

Emaizta bera eta antzetsuko bilakaera izanen genukeen sudurkari disimilazioa ez, baizik haplogogia egon balitz: **(uilla) antoniani > *Antoani > *Andoãñĩ > *Aindoãñĩ > *Aindoahin > Ahindoain > Aindoain > Andoain*.

HerritarIz.: *andoaindar. Andoaindárta* (Larra., 1979 [1729]: 369), [á.ñ.d.ɔ.á.ñ.d.a.rà] (And-047).

HerritarEz.: *hontzak*.

Sorabilla

Udala: Andoain (bizt. ent. ber.; lekua).

IzenOfiz.: *Sorabilla*.

Dok.: «...*Sorabilla çinco fuegos*» (1464–1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 166), «...*Joan Martines de Açelayn*²², *mi padre legitimo, que fue vesino de dicha tierra de Soravilla, defunto*» (1494, Ayer. eta Dz.S., 1996: 498), *tierra de Soravilla* (1546, Ayer., 1997: 637), *Saravilla* (Ortelius, 1588, mapa), *Soravilla* (lu., Isas., 1850 [1625–26]: 29), «*Aiztondo, alcaldía de la pr[ovincia] de Guipuzcoa, y una de las tres mayores, que se compone de la villa de Asteasu y lugares de Larraul y Soravilla*», *Soravilla* (pu., López, 1770), *Soravilla* (lu., DRAH, II, 1802: 12, 137), *Soravilla* (lu., Mad., XIV, 1849: 10; Nopgui, 1857: 103–104), «*Soravilla desde tiempo inmemorial perteneció á la alcaldía mayor de Aiztondo, y no tuvo alcalde propio, ayuntamiento, ni administracion económica*» (lu., Go., 1862: 505).

EuskalOnom.: «*la casa e caseria de Sorabillaecha*» (Billabona–Amasa, 1494; Ayer. eta Dz.S., 1996: 498). Egun ere aski toponimo ohikoa dugu: *Sorabilak* (Orendaingo aurk., 1998, OrnM), *Sorabilla* (Itsasondoko bas., 2007, ItsM), *Sorabil*, *Sorabilberri* (Zes-toako bas., 2010, ZesM), *Sorabilbarutierreka* (erreka, *ibid.*), *Sorabilberrierreka* (*ibid.*).

EuskalTes.: «*Cosc, Erregue, capela gorri. / Achul ona. Sorabilan bost eche; / Bost echeac, bost urre. / Erregue jauna, eguiezu / Alcabalez merchede*» (XVI. m., Mitx., 1964: 106–107), «*Sorabillaco mugape laburrean badira iturri garbi onac ugari*» (Izt., 1847: 104), «*Villabona es-cuitara eta ezquerrerontz Asteasu, Cizurquil, Aduna eta Sorabilla utziric igarotzen da Ando-aingo Santa Cruzco zubiaren ondora*» (*ibid.*, 116), «*Sorabillan ere bai; iru bat aldiz-edo izan naiz*» (Uztapide, 1975: 158).

Ebak.: *Soabilla, Sorabilla* (Usa., 1993: 315), [s̺o.rá.βi.ɫá], [s̺o.á.βi.ɫa] (abs.) (Adu-006), [s̺o.rá.βi.ɫan] (in.) (Ast-001).

Etimol.: Osagaiak *soro* ‘belar soroa’, ‘alorra’ izenaren elkarketako *sora-* aldaera, *-bil* ‘biribila’ adjektibo eta *-a* artikulua dira, hots, hasierako adiera ‘pentze biribila’, ‘alor biribila’ zatekeen. Cfr. *Artabilla, Artavilla* (Arrasate, Leintz Gatzaga, Zumaia; *ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 36, 125, 137) edo *Mendibil* (A, N), *Mendibile* (Z). Ikus *Urrestilla*.

²² Bertako eliza ondoko *Azelain* jauregiarena izan da. *Johan Martines de Çelayn* (Donostia, 1404, Ayer., 1997: 501), «*Pedro de Açelayn, vezino de Hernani*» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 205), *Domingo de Açelayn* (1502/1528, Ayer., 1997: 592).

Anoeta

IzenOfiz.: *Anoeta*.

Dok.: (Top.) *Ahanoeta* (1396, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 422), *Sant Joan de Ahanoeta*, *Sant Juan de Ahanoeta* (1450, Le. eta Ta., 1996: 21, 26), *Sant Juan de Anueta* (*ibid.*, 21), *Ahanoeta* (1510, Her., Ach. eta Mo., 1998: 179), *Anoeta* (1532, Le. eta b., 2002: 399), *Ahanoeta* (1547, Elozegi eta Goikoetxea, 2006: 277), *Anoeta* (Gari., II, 1628 [1571]: 340; Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Anoeta* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Anoeta* (1615, *ibid.*, 673), *Anoeta* (*vi.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Anoeta* (*vi.*, López, 1770), «*Anoeta, v[illa] de la union de Ainzua*» (DRAH, I, 1802: 73), *Anoeta* (*vi.*, Mad., II, 1845: 322; Go., 1862: 39).

(Antrop.) «*Iohan Adameç e Maria Eyneguez de Hanoeta*» (Tolosa, 1312; Lar. eta Le., 1995: 19), *Martin Eynneguez de Hanoeta* (*ibid.*, Zab., 1997: 242), *Yenego Lopez d’Ahanoeta* (*ibid.*, 1348; Rol., 1991: 41), *Pero Lopez de Hanoeta* (Getaria, 1397; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), *Pero Lopes de Haanoeta* (*sic*) (*ibid.*; Bar., 1982: 47), «*Joan de Ahanoeta dicho “Joane Ona”*» (Andoain, 1475; Le. eta Ta., 1996: 67). Cf. *Lope d’Ahaneta* (tolosarra, 1349; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 266).

EuskalOnom.: *Anoeta* (Donostia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 63).

EuskalTes.: «*Anoetaco Irumendin arqitzzen da meatze zulo andi bat*» (Izt., 1847: 66), «*Anoetan iturri on anitz dira chit, baita erreca bat ere Alquizatic datorrena*» (*ibid.*, 79), «*Hernalde, Alquiiza, Larraul eta Anoeta ezquerrerontz eta Irura ezcuitara* (*sic*) *lagaric, joaten da Amasa Villabonacora*» (*ibid.*, 116), «*Anoetan ere bai; askotan izan naiz*» (Uztapide, 1975: 160).

Ebak.: [a.nó.tàn] (in.) (Ano-002), [á.no.tà] (abs.) (Alk-001), [a.no.é.tàn] (in.) (Irn-007).

Etimol.: Moglek (1854: 733) *Añoeta* idatzi behar dela uste du, oinarria *añoa* ‘cosa sombría’ delako: «*Así Añoeta viene á ser “sitio sombrío”*. *Lecu añubia* se llama á paraje (*sic*) que está *bajo de sombra*. De aquí los apellidos de *Añoa*, *Añibarra* y otros varios».

Mitxelena (AV, 46) *Anabitarte*, *Anacabe*, *Anasagasti* eta bestetan agertzen den *Ana* «de origen impreciso» dela dio, eta *Anoeta*-n *Ano-* dagoela. *Ano*, *anu* Omaetxebarriaren arabera ‘aziendentzako jana’, ‘arrazioa’, ‘puska’ dela eranstean du, latineko *annona*-tik. «Cf., además *Aniz*, *Anizqueta*» ere badakar. Salaberrik (2011b: 141–142) honela dio:

Mitxelena (AV, 46) [...] en *Anoeta* ve *ano-* y cree que se puede comparar con *Aniz* y *Anizketa*. Añade que *ano*, *anu* es ‘comida para el ganado’, ‘ración, porción’, del latín *annona* segun Omaetxebarria. De nuevo, deriva Mitxelena (1957–58: 224) en otro trabajo la palabra *anho* ‘la pitance du pasteur’ empleada por Oihenart del latín *annōna*, pero no la pone en relación con el topónimo que nos ocupa [...]. En cuanto al parentesco que pueda tener el topónimo guipuzcoano con *Aniz* y *Anizketa* que menciona Mitxelena, este no puede ser, en principio, descartado, y podríamos añadir a la comparación *Anotz* (vasco) o *Anoz* (castellano), nombres de sendas localidades del valle de Ollo (N) y Ezkabarte (N), con

base antroponímica en mi opinión. El problema estriba en que *Anoeta* aparece escrito en la documentación como *Ahanoeta* [...], si bien el primer testimonio documental que conozco corresponde a *Hanoeta* [...]. Partiendo de este último testimonio podríamos pensar que la base es el antroponimo *Hanno* y el sufijo el conocido *-eta*, pero en ese caso no sería fácil explicar la variante *Ahanoeta*, ya que la aspiración no parece que esté separando morfemas como en *Elgueheta* [...] cf. *Gazaheta*, *Sagassaheta*, *Erroheta*, *Azazaheta* [...] y no sabemos si es etimológica como en *Hondarroa* [...], *Harriaga* [...], *Uhalde* [...]. Caso parecido es el de *Ahaduna* [...], *Aduna* (G) en la actualidad.

Orain uste dugu *Anoeta*-ren etimoan *Hanno* antroponimoa²³ eta *-eta* atzizkia daukeela, hots, etimoa **Hannoheta*-ren moduko bat zatekeela. Ongi ezaguna da, Arabako eta bestetako dokumentazioa ikusirik, *-eta* leku-ugaritasunezko atzizkiak *h* izaten zuela aitzinean, oinarria bokalez azkentzen zenean (adibidez *Elgueheta* da *Elgeta*-ren testigantza zaharretako bat; ikus Sala., 2015a eta 2018a). *Ahanoeta* aldaera **Hannoheta*-ren ondorengotzat hartu beharko da, eta *Hanoeta* hondarreko horretatik hasperen disimilazioz ateratakotzat, segur aski hasperena bigarren silabatik eskuin agertzeko debekuak lagundurik. Bokal arteko sudurkariaren presentzia azaltzeko sudurkariaren bortiztasuna (*nn* irudikaturik, grafian) aurreko bokalera tokialdatu zela pentsa daiteke, metatesi moduko aldaketa baten ondorioz-edo. Honek bokala luzatzea ekarriko zuen (cf. *handi* > *haundi* eta ikus *Cammarus* antroponimoan oinarri harturik *Gamarra* azaltzeko dioguna, Sala., 2015a: 190). Atzizkiari doakionez, badakigu antroponimoekin ere azal daitekeela (*Marieta*, *San(t)soeta* Araban, *ibid.*, 39), arruntean bestelako oinarriak nahiago izaten baditu ere.

HerritarIz.: *anoetar*.

HerritarEz.: *kukuak*.

²³ Cardeñan *Hanne*, *Hanni* izenak eta *Hanniz* patronimikoa ditugu (Mtez.Dz., 1998: 72, 83, 99, 133) eta Valpuestan *Hanni* (Pérez Soler, 1970: 16). *Hanno*, *Anno* Menéndez Pidalek (1986 [1926]: 209, 4. oin-oharra) eta Albertosek (1966: 27-28) aipatzen dute.

Antzuola

IzenOfiz.: *Antzuola*.

Dok.: (Top.) «...en termino de Vergara en Ançuela» (1307, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 109), *Ançuela*, *Ançuola* (1540–1590, Pavo, 2005: 115), *Ançuola* (Gari., II, 1628 [1571]: 338), *Anevola* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Anzuola* (*lu.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29, 116, 604), «*Anzuola alias Usarraga*» (*vi.*, López, 1770), *Anzuola* (*vi.*, DRAH, I, 1802: 78; Mad., II, 1845: 349; Go., 1862: 40).

(Antrop.) *Fortunno d'Ançuela* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 294).

EuskalOnom.: *Anzuolaco-mendiac* (1897, Pavo, 2005: 119), *Antzula* (Arrasateko aurk., 1945; Orma., 1996: 334).

EuskalTes.: «*Anzuolaco erri inguru ta mendi guztiaç dira iturri garbiz beteac*» (Izt., 1847: 79), «...jarraitzen du Vergaraco errira, Anzuola bide andiaren gañean escuirontz eta ezquerretaraco chunchurrean Elgueta dituela» (*ibid.*, 111), «*Antzuolan sedea, Bergaran koipea, Elorriõn buskantza, Durangõn tronpaa*» (Azkue, 1989 [1935–1947], III: 140), «*Antzuolan ere banaka batzuetan izan naiz*» (Uztapide, 1975: 138).

Ebak.: *Antzuolan* (*in.*) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 45), *Antzuóla*, *Antzuéla* (Antzuola, Pavo, 2005: 114), [án.tʃwe.là] (*abs.*), [an.tʃwé.la.kò] (*lek.g.*) (Ant-045), [an.tʃú.e.là] (*abs.*) (Ber-152).

Etimol.: Eleizalderen ustez (1916: 11) -baina galdera marka ezartzen dio, ez baitzen honetaz batere segur- *Antzuola*-n dagoen *antzu* osagaia *aintzi* 'aintzira', 'zingira' da. Mitxelenak (AV, 19, 60, 483) esteka hori ezesten du, eta Aizkibelen *antxuola* «choza de borregos»-ekin zuzenki erlazionatua dagoen *antzu*-rekikoa baiesten. Errenteriako-arentzat *ola*-ren 'etxola' adiera gero hitzak hartu zuen 'burdinola' baino zaharragoa dakeke.

Nolanahiko gisan, ikusi bezala, *Ançuela* dago 1307an, *Anzuelaco* dugu 1825eko dotrinan (Uribe-Etxebarria, 2008: 190), eta egun ere, Ana Toledo euskaltzain antzuolarrak dioskunez (a.a.), *Antzwéla* esaten da *in situ*. Honek zerikusia izanen du, hain segur, -uo- diptongoaren bilakaerarekin: *çfr.* Arabako *Zalduõdo* / *Zalduõdo* herri izena (Sala., 2015a: 392–393), Ataungo *Urkuelako etxaburuaño* (Arin, 1951: 140), autoreak “hasta Etxaburua de Urkuola” itzulua, eta Hernani-Urrietako *Amunola* saroi izena, *Amuela* bilakatua orain (Zaldua, 2012b: 304–305). Zernahi gisaz, osagaiak *antzu* 'ernari gelditu ez den azienda' eta *ola* 'etxola' direla aski garbi dago.

HerritarIz.: *antzuolar*.

Uzarraga

Udala: Antzuola (auzoa).

IzenOfiz.: *Uzarraga*²⁴.

²⁴ EHLIn eta EODAn ez da azaltzen.

Dok.: (Top.) *Yçarraga* (1305, monesterio, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 104), *monesterio de Uçarraga* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 125), «...*Pedro Lopez de Gallaitztegui, presbytero e cura en la yglesia parroquial del sennor San Juan de Uzarraga, que es en esta tierra de Vergara*» (1489, Le., Cr. eta Lar., 2002: 3), «...*anteyglesias de Santa Marina de Oxirondo e San Juan de Uçarraga*» (1497, *ibid.*, 8), «*Vergara Santa Marina de Osirondo e Sant Juan de Uçarraga*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), «...*el procurador de Vergara por la anteyglesia de Uçarraga*» (1536, Le. eta b., 2002: 440), *Vcaraga* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Uzarraga* (*va.o.ba.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), «*San Juan de Usarraga en la jurisdiccion de Anzuola*» (*ai.*, *ibid.*, 210), «*San Juan de Usarraga y Nuestra Señora de la Piedad, parroquias*» (*ibid.*, 211), «*Anzuola alias Usarraga*» (*vi.*, López, 1770), *Uzárraga* (*ba.*,²⁵ DRAH, II, 1802: 424), *Uzarraga* (*ba.*, Mad., XV, 1849: 250; Nopgui, 1857: 111), «*La primitiva poblacion de esta [Anzuola] fue la que en el día es barrio de Uzarraga, cuya iglesia de San Juan Bautista era en lo antiguo la unica parroquia de su territorio*» (Go., 1862: 41).

(Antrop.) *Martin Sanchez de Uçarraga* (1307, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 109).

EuskalOnom.: «*Yten al conçejo San Sebastian por el llamamiento que hizo a Usarraga*» (Bidania, 1521; Le. eta b., 2002: 342), *Usarraga-aundía*, *Usarraga-berri*, *Usarraga-chiqui*, *Usarraga-maisacóa*, *Usarraga-santi* (*sic*) (Deba, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 23), *Usarraga-zar*, *Usarraga-berri* (Bidania, *ca.d.l.*, *ibid.*, 34–35).

Erka bedi *Usardi* (Gabiriako aurk. eta erreka, 2005, GabM), *Usarrain* (Imotz Latasako aurk.; Jim. zuz., 1997c: 160), *Usarralde* (deitura) onimoekin.

EuskalTes.: «...*Ichumendi, Gorostiaga, Usarraga, Elosu, Apozaga, Zarimus*» (mendia, Izt., 1847: 35).

Ebak.: *Us/zarra(g)á* (Pavo, 2005: 672–674), [u.şá.ran] (in.) (Ant-041), [u.şá.ra] (abs.) (Ant-067), [u.şá.ra] (abs.), [u.şá.ra.ti.kàn] (abl.) (Ant-070).

Etimol.: Jatorria, segur aski, 1305ekoa den *Yçarraga* lehen lekukotasunean bilatu beharko dugu, alegia, *Uzarraga* forma hasierako bokal palatalaren ezpainkaritzearen ondorioa izango da. Mitxelenak (1977a: 73), gai honetaz ari dela, honela dio: «Los ejemplos de permutación de *i* con *u* son abundantes y su clasificación por contextos, que permitiría acaso precisar las causas, no siempre fácil».

Hor berean honela jarraitzen du: «Entre los primeros (*i*- > *u*-) han merecido siempre especial atención aquellos casos en que a *i*- inicial en los demás dialectos corresponde *u*- en vizcaíno, o al menos en algunas zonas vizcaínas, ya que las áreas no están determinadas con exactitud. No hay una explicación de conjunto de esta correspondencia [...]».

Izarraga > *Uzarraga*-ren elementu osagarriak, hortaz, *izar* landare izena (ikus *Izarraitz* sarrera) eta toki-ugaritasunezko *-aga* berrekailua dirateke, eta hasmentako adiera 'izar belarra dagoen lekua'.

²⁵ «...llamado antiguamente anteiglesia de S. Juan de Uzarraga».

Arama

IzenOfiz.: *Arama*.

Dok.: (Top.) «...nos los moradores de las collaciones de Atavn e de Beasain [...] e de Legorreta e de Alzaga e de Arama» (Ordizia, 1399; Ayer. eta S.M., 2013: 11), «...el dicho conçejo de la dicha Villafranca, con todas sus vezindades, es a saber: las collaciones de Legorreta [...] e Arama e Gaynça» (Tolosa, 1409-1410; *ibid.*, 45), *Arama* (Gari., II, 1628 [1571]: 378; Ortelius, 1588, mapa), *Arama*, «*Arama. Villa*» «99. La casa de Arama Jauregui» (Isas., 1850 [1625-26]: 29, 111), *Arama* (vi., López, 1770, DRAH, I, 1802: 84), *Arama* (pobl., Mad., II, 1845: 406), *Arama* (vi., Go., 1862: 46).

(Antrop.) *Domingo Dieç de Arama, Domingo Diotz de Ariama* (Egino, 1261; Gar.Ar., 1996: 55), *Sancho d'Arana* (Arrasate, 1374; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 57), *Iohan Lopez d'Arana* (Tolosa, 1384; Rol., 1991: 78), «*Martin Ybañez de Arama e Lope Ybañez de Arama e Martin Lopez de Arama e Juan de Arama, moradores en la dicha collacion de Arama*» (Ordizia, 1399; Ayer. eta S.M., 2013: 13), *Juan de Arama* (Lazkao, 1462; *ibid.*, 2009: 49).

EuskalOnom.: *Aramanéa* (Andoain, ca.d.l., Nopgui, 1857: 81), *Aramamendi* (Mutriku, *ibid.*, 128); *Aramania* (1862), *Aramanea* (1897, 1910, 1937), *Aramaneco soroa* (1945), *Amane*, *Amanea* (ahoz) (Andoain, Usa., 1993: 202).

EuskalTes.: «*Aramaco erria laburra eta medarra bada ere, iturriz ondo ornitua arquitzen da beraren mugape cerrenda guztia*» (Izt., 1847: 79-80), «...iristen da erri onen (Villafrancaren) eta Aramaren mugaco Arcarte esaten zaion toquirá [...] erri au (Zaldibia) Gainza, Alzaga eta Arama escuirontz lagaric igarotzen da Isasondora» (*ibid.*, 115), «*Araman ere izanda gaude*» (Uztapide, 1975: 126).

Ebak.: [a.rá.má], [a.rá.mà] (abs.) (Arm-002), [a.rá.màn] (in.), [a.rá.ma.kò] (lek.g.) (Arm-003).

Etimol.: Mitxelena lan batean baino gehiagotan (AV, 39; 1959-60: 248, 1968: 485-486...) azaltzen du *Arama*, *Beizama*, *Zegama* eta beste irudi dutena direla, hots, indoeuropar etorkiko toponimoak (ikus *Beizama* eta *Zegama*).

Lafonek (1954: 251; 1962: 287-288) bestalde, Bearnoko *Aramits* aztertzen ari delarik, esaten du leku izen horretan euskal toponimo anitzen bukaera den *-itz* atzizkia dagoela, baina ez du uste *aram(a)* oinarria *aran* «vallée» euskal hitzaren aldaera denik. Autore honen arabera, Gipuzkoako *Arama*-n pentsatu beharra dago, jatorrizko adiera zein den ez jakin arren. Nolanahi ere, Probintziako toki izenak *-ma* edo *-ama* atzizkia duela dio Lafonek, *Aramamendi* (Mutrikuko baserria), *Aramanea* (Andoaingo baserria), *Aramangelu* (Arabako Ihurretik hurbil dagoen uharteñoa, Zadorra ibaikoia) eta (menturaz) *Aramotz* (Lemoako mendia) etxe eta toki izenetan dugun bera.

Zalduak (2016: 190-191), bestalde, honela dio:

Mencionado varias veces por Mitxelena (AV, 39; 1960: 247-248; 1968: 485-486), *Arama* no es un nombre de lugar transparente [...]. Sea como fuere, al igual que en los dos topónimos anteriores (*Amiama* y *Arakama*), es probable que la base de *Arama* sea un antropó-

nimo, relacionado seguramente con el genitivo *Araica Ara* de Kontrasta y el segundo elemento de *Aunia Ara* de Ilarduia.

Aitzinago honela jarraitzen du (*ibid.*, 223):

Es más, puede pensarse que, además de *Aracus* y *Amius*, hay otras bases que se combinaron con *-ama* y con sufijos latinos empleados para crear topónimos que indican posesión, en vista de lo cual no parece que *-ama* tenga en todos los casos la misma relación con la base antecedente. En varios casos, a semejanza de algunos sufijos latinos (*-[i]/[t]z*, *-ain...*), puede pensarse que *-ama* se desligó, en cierto modo, del étimo, se hizo independiente del canon *adjetivo + grado superlativo* y se pudo añadir a bases antroponímicas indoeuropeas (para crear unos nombres que designen su hacienda o propiedad).

Arama esplikatzeko era itxuraz erraza akabaila bera bide duten beste toponimotatik (*Beizama*, *Zegama...*) bereizi eta ongi dokumentatua dagoen *Arabus* pertsona izen latinoan (EDH; ikus, baita ere, Vallejo, 2005: 541) oinarritzea da: **(uilla) arabana* ‘*Arabus* izenekoaren lurra, bazterretxea...’ > **Aramana* (sudurkari asimilazioz) > **Aramãhã* > **Aramãhã* > **Aramaa* (denbora batetik aitzina, hasperena bigarren silabatik eskuin ezin ager zitekeelarik) > *Arama*.

Nolanahi ere, Probintzian *Beizama* eta *Zegama* izanik (ikus), eta Nafarroan etorkizko esanahiari doakionez elkarren iruditsuak diren *Berama* eta *Ultzama* ‘gorena’ (Arabako eta bestetako *Osma* herri izenak *Utzama* > *Untzama*, *Ultzama*-ren jatorrikideak dira) egonik, *Arama* ere indoeuropearen bidez esplikatzeko nahiari ezin itzuri egin.

Aukera bat, menturaz eta tartean superlatiborik ez den arren, Matasoviček (2009: 39) biltzen duen aitzin-zeltako **aramo-* ‘isila, lasaia, zarata gabea’ adjektiboa ikustea da, ezabatu den *uilla*-ren balioko izen femenino bati lagun egiten ziola onesten bada. Has tapeneko adiera ‘leku, aurkintza, bazterretxe... lasaia’ zatekeen. Egia da euskal toponimian lasaitasuna adierazten duen izenik ez ohi dela agertzen, baina hemen zeltan iturri dukeen toponimoa dagoke. Aintzat har bedi *Zegama*-ren jatorrizko adiera ere (ikus) gure artean ez dela batere usaiakoa.

HerritarIz.: *aramar*.

HerritarEz.: *idiak, idiezizale; fruterozale*. «*Altzagatarrak zakurrak, Aramarrak idiik*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 139).

[...] *Antiguamente se llamo valle de Araria*» (DRAH, I, 1802: 97), *Arería (alcaldía mayor, Mad., II, 1845: 528)*, *Areria (Go., 1862: 50)*.

(Antrop.) *Martin Lopes de Harerea* (ordiziarra, 1402; Dz.S., 1993: 14).

EuskalTes.: «*Idiazabal erriaren guertura [...] andic igarotzen da Beasaingo Yarzaco echadiara, non sortaitz-aldetik bereganatzen daben Areriaco ibarretic jachitzen dan errecachoa*» (Izt., 1847: 114).

Etimol.: Toponimoa ez da argia guretzat. Testigantzak ikusirik, oinarriak hasierako lekunean hasperena zuela irudi luke, baina hau ere ez dago garbi, eta ez gara *harea* izen arrunta eta *iria* 'aldamena' proposatzera ausartzen. Hasmentako hasperen alegiazko horrek berorrek oinarrian latinaren munduko pertsona izena ikustearen kontra hitz egiten duela ematen du. Ez gaude segur, halarik ere, hola denetz.

Aretxabaleta

IzenOfiz.: *Aretxabaleta*.

Dok.: (Top.) «...vezindades e parrochias de Marin e Çarimuz e Mazmela e Ezcoriaça e Mendiola e Arcaraso e Çahalgo e Coroaeta e Aocaraça e Larrino e Areyzchabaleta e Galarça e Guillano e Apoça» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 208), *Arechaualeta*, *Juan de Aguirre de Cabo Arechaualeta* (1511, Her., Ach. eta Mo., 1998: 194, 195), *Arechaualeta* (Gari., II, 1628 [1571]: 338), *Arichaualeta* (Ortelius, 1588, mapa), *Arechavaleta* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 117), *Arechavaleta* (*pu.*, López, 1770), *Arechavaleta* (*lu.*, DRAH, I, 1802: 95-96 eta II, 27), *Arechavaleta* (*ayunt.*, *vi.*, Mad., II, 1845: 503), «*Arechavaleta: lugar del valle y arciprestazgo de Leniz [...]. Comprendense en su jurisdiccion las anteiglesias de Aozaraza, Arcaraso, Arenaza, Bedoña, Galarza, Goronaeta, Isurieta y Larrino*» (Go., 1862: 47).

(Antrop.) *Martin Garçia d'Arechaualeta* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 137), *Sancho de Areyzaualeta* (Azpeitia, 1348; *ibid.*, 254), *Lope Martinez d'Areçaualeta* (1348, *ibid.*, 1991: 259), *Juan Ortiz de Arechaualeta* (1348, *ibid.*, 1996: 451), *Iohan Perez de Arechaualeta* (Zumarraga, 1390; *ibid.*, 303).

EuskalOnom.: *Arechabaleta* (Azkoitia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 5), *Achabaleta-zar* (Azpeitia, *ibid.*, 9), *Arechavaleta* (Ezkio, *ibid.*, 24), *Archabaleta* (Oiartzun, *ibid.*, 54), *Aretxabaletabekoa*, *Aretxabaletabekoaberri*, *Aretxabaletagoikoa* (Azpeitiko bas., 2014, AzpM).

EuskalTes.: «*Arechabaletaco mugapean ere badirá arrobiac*» (Izt., 1847: 56), «*Arechabaletaco mugapean arqúitzen da meatze bat cillar bicia ematen dabena*» (*ibid.*, 74), «*...igarotzen da Arechabaletan erria escuitara utziric, eta badoa Mondragoico errian ezquerrerontz*» (*ibid.*, 111), «*Aretxabaletan andre bat tiroz jotzen du [...]. Andik illebeta batzutara berriz arrapatzen dute Aretxabaletan, saski bat ogi zeramala*» (Orixe, 1985 [1929]: 60), «*Bi gertaera oek, Aretxabaletakoa ta Lekunberrikoa, puztu ditute ta arrotu ditute ta itxuragabetu ditute beltzak, nai duten bezela*» (*ibid.*, 61).

Ebak.: *Atxábaleta* (Aramaio, Orma., 2006: 205), [a.tjá.βal.tá] (adl.), [a.tjá.βa.le.tàn] (in.) (Are-010), [a.tjá.βal.tá] (adl.) (Esk-014), [a.tjá.βal.ta.kò] (lek.g.) (Lei-001).

Etimol.: Osagaiak *aretx* 'haritza', 'zuhaitza' (< *hareitz*) (Mitx., AV, 77 eta 1956a: 177), *zabal* adjektiboa eta *-eta* leku-ugaritasunezko atzizkia dira, eta etorkizko adiera 'haritz zabalaren lekua', 'zuhaitz zabalaren lekua', 'haritz zabalaren tokia', 'zuhaitz zabalaren tokia' dateke. Guztiaz ere, ezin txoil baztertu *zabal* hor izena ('zabaldia', 'ordokia') delako ustea. Hala izatekotan, jatorrizko esanahia 'haritza dagoen ordeka', 'haritzak dau den ordeka tokia' litzateke. Ikus orain, Arabako izen bereko herri izenaz, Salaberri (2015a: 39, 89-90).

HerritarIz.: *aretxabaletar*. Egun *aretxabaldar* (*atxabaldar* laburtua) ere erabiltzen da. «*Ikus zer dioen Pedro Zubizarreta Aretxabaletarrak 1921garren urteko Martxoaren 14garrenean [...]*» (Orixe, 1985 [1929]: 61).

Aozaratzza

Udala: Aretxabaleta (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Aozaratzza*.

Dok.: (Top.) *parrochia de Auçaraça* (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 208), «vezindades e parrochias de [...] Coroaeta e Aocaraça e Larrino» (Aretxabaleta, 1497, *ibid.*), «...e Areamça e Aocaraça e Goroneta» (Arrasate, 1500; Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Aozaraza* (*ai. o. par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 30), *Aozaraza* (*ibid.*, 118), «En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son [...] Aozaraza, Arenaza, Goronaeta [...]» (*ibid.*, 208), *Aocaraza* (*ba.*, López, 1770), *Aozaraza* (*ai.*, *pu.*, DRAH, I, 1802: 80, 431 eta II, 27), *Aozaraza* (*ai.*, Mad., II, 1845: 364; Nopgui, 1857: 111; Go., 1862: 47).

EuskalOnom.: (Top.) *Auzaraza* (Azpeitia, *ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 10).

Ebak.: [a.şá.tşan] (in.) (Are-010), [a.şá.tşa.ra] (adl.) (Are-019), [a.şá.tşá.ko] (lek.g.) (Are-029), [a.şá.tşá.ko] (lek.g.) (Are-033).

Etimol.: Mitxelena (AV, 71) izen honetan *-ara(t)z*, *-ara(t)s* ‘ederra’, ‘distiratsua’, ‘puruu’ dakusa, batere ziurtasunik gabe, ordea. *Cfr.* *Altzolarats*. Ez dakigu hasierako *Aoz-* hori zer den.

HerritarIz.: *aozaratzar*.

Areantza

Udala: Aretxabaleta (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Areantza*.

Dok.: (Top.) «...e Arcaraso e Areamça e Aocaraça» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Arenaca* (Ortelius, 1588, mapa), *Arenaza* (*ai. o. par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 30), *Arenaza* (*ibid.*, 118), «En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son [...] Arenaza, Goronaeta [...]» (*ibid.*, 208), *Arenaza* (*ba.*, López, 1770), *Arenaza* (*ai.*, *pu.*, DRAH, I, 1802: 97, 431 eta II, 27), *Arenaza* (*ai.*, Mad., II, 1845: 513; Nopgui, 1857: 111), *Arianza-aundía* (Aretxabaleta, *ca. d.l.*, *ibid.*), *Arianza-chiqui* (*ibid.*), *Arenaza* (*ai.*, Go., 1862: 47).

(Antrop.) *Ochoa Peres d’Arença* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 185).

EuskalOnom.: *Areatza* (Gabiriako aurk., 2005, GabM), *Areantza* (Gorlizko auzoa).

Ebak.: [a.rjén.tşan] (in.), [a.rín.tşa.rá] (adl.), [a.rjén.tşa.ra.nó] (m.adl.) (Are-010), [a.rjé.tşan] (in.) (Are-019).

Etimol.: Moglek (1854: 677) honela dio: «Arena (arena).- En vascongado *areia* Mucho antes que los romanos vinieran á España debió estar esta voz en uso en tantos puertos de mar donde no se conoce otra y sí varios compuestos de ella, como *ariatza*, que significa arenal, *are-churri* (*sic*), *arebeltz*, *areategui*...».

Hemen bestetako *Areatza*, *Areatzea* ‘hareadia’, ‘harea lekua’ bera dugu. Aldea bokal artetik lekututako *n* sudurkariaren ondokoa, Aretxabaletako toponimoaren kasuan, ja-

torrizko tokian ez agertzea da. Bilakaera hau izan izango da: *arenatz* > *arēhātza* > **arēhātza* > **arēātza* > *areantz*.

HerritarIz.: *areantz*.

Arkaraso

Udala: Aretxabaleta (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Arkaraso*.

Dok.: (Top.) *parrochia de Arcaraso*, «...vezindades e parrochias de [...] Mendiola e Arcaraso e Çahalgo» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 207, 208), «...e Arcaraso e Areamça e Aocaraça [...]» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Arcarazo*, *Arcaraca* (Ortelius, 1588, mapa), *Arcaraso* (*ai.o.par.*; Isas., 1850 [1625–26]: 29, 117), «*En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son [...] Azcaraso, Mendiola, Galarza [...]*» (*ibid.*), *Arcaraiso* (*ba.*, López, 1770), *Arcaraso* (*ai., pu.*, DRAH, I, 1802: 431 eta II, 27), *Arcaraso* (*ai.*, Mad., II, 1845: 467), *Arcarasu* (*ai.*, Nopgui, 1857: 111), *Arcaraso* (*ai.*, Go., 1862: 47).

(Antrop.) *Juan Ruys d'Arcaraso* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 72), *Iuan Rruyz d'Arcarazo* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 290), «...*la señora de Quando Martín Lopes de Arcaraso procurador de los escuderos omes buenos de Lenis*» (Arrasate, 1437; Her., Ach. eta Mo., 1998: 44), *Lope García d'Arcaraso* (*ibid.*), *Pedro Lopes de Arcaraso el Moço*, *Pedro Lopes d'Arcaraso* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 178, 185), *Pedro García de Arcaraso* (1502/1528, Ayer., 1997: 581).

Ebak.: [ar.ká.a.șò] (abs.) (Are-010), [ar.ká.a.șòn] (in.) (Are-012).

Etimol.: Mitxelena-ren arabera (AV, 81), *arkakarats* 'astorrosa' izenaren **arkarats* aldaera dago toponimo honen oinarrian. Honela dio:

**arkarats* "rosal silvestre" (Azkue *arkarakats*, *arkakarats*, *arkarakatxa*): *Arcaraso*. «Traen los de este apellido en oro con rosas blancas, entretegidas en lo verde de la mata y en los remates unos escaramuchos rojos. Esta mata se llama Mosqueta en los jardines, y la hay hortense y silvestre. Llámánla en Bascuence Arcasa y Arcosu [por *Arcasu*] quiere dezir lugar de muchas mosquetas» (Mendieta, 27). Según Azkue, *arkas* es quizá «cornejo» «árbol parecido al fresno, del cual se hacen comúnmente las ruedas de los carros»: *Arcasubi*.

Bukaeran *-tsu*, *-zu*-ren aldaera dirudien *-so* dagoke; ikus Mitxelena (AV, 545) eta lan honetako *Itsaso* sarrera.

HerritarIz.: *arkarasar*.

Galartza

Udala: Aretxabaleta (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: (Galartza²⁷).

²⁷ EODAn eta EHLIn ez da aipatzen.

Dok.: (Top.) *parrochia de Galarça*, «vezindades e parrochias de [...] *Areyzchabaleta e Galarça e Guillano e Apoça*» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 208), «*Guellano e Galarça e Surieta*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), «*Martin Sanches de Galarça, cuya es la casa e solar de Galarça, veçino de la dicha tierra e valle de Leniz*» (1505, Le., Cr. eta Lar., 2002: 26), *Galarca* (Ortelius, 1588, mapa), *Galarza* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Galarza* (*ibid.*, 118), «*En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son [...] Galarza, Guillano, Isurrieta [...]*» (*ibid.*, 208), *Galarza* (*ba.*, López, 1770), *Galarza* (*ai.*, DRAH, I, 1802: 431 eta II, 27; Mad., VIII, 1847: 268; Nopgui, 1857: 112), *Galarza* (*Go.*, 1862: 47).

(Antrop.) *Iohan Garçia de Galarça* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 138), *Juan Ruys de Galarça* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 125), *Pero Ochoa de Galarça* (Bergara, 1391; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 320).

EuskalOnom.: (Top.) *Galarza-azpicóa*, *Galarza-garaicóa* (Amezqueta, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 80), *Galarza* (Antzuola, *ibid.*, 110). Etxebarrin eta Zornotzan ere badira *Galartza* auzoak.

(Antrop.) *Sancho de Galarçaeche* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 197), *Galartzaetxe* (Eskoriatza, etxea [desagertua], 2014, EskM).

Ebak.: [ga.lár.tʃan] (in.) (Are-019), [ga.lár.tʃa.tik] (abl.) (Ara-070).

Etimol.: Oinarria *galar* 'adar iharra', 'zuhaitz iharra' (Eleizalde, 1916: 15; AV, 251) da, atzizkia leku-ugaritasunezko *-tza*, eta hastapeneko adiera 'adar / zuhaitz ihar asko dauden lekua'. Leitzan *galarzulo* ikatz egiteko egiten zen zulo handi samarra zen (Azpíroz, 1967: 11; Olano, 2005: 175) eta *galarreta* 'elurretan ez barnatzeko oinetakoan azpian ezartzen diren oholtoak' (Azpíroz, 1981: 242).

Goroeta

Udala: Aretxabaleta (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Goroeta*.

Dok.: (Top.) *casa fuerte de Goronaeta* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 68), «...*los de Mondragon que çercaron fio de Aluaro d'Eyça en la casa fuerte de Goronaeta*» (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 286), «...*vezindades e parrochias de [...] Çahalgo e Coroaeta e Aoçaraça*» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 208), *Goronaeta* (*ibid.*, 212, 220), «*Aoçaraça e Goroneta e Bedoña*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Goronaeta* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 30), *Goronaeta* (*ibid.*, 118), «*En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son [...] Goronaeta [...]*» (*ibid.*, 208), *Goronaeta* (*ba.*, López, 1770), *Goronaeta* (*ai.*, *pu.*, DRAH, I, 1802: 308 eta II, 27), *Goronaeta* (*ai.*, Mad., VIII, 1847: 450; Nopgui, 1857: 112), *Echeberri de Goronaeta*, *Echeluçe de Goronaeta* (*ca.d.l.*, *ibid.*), *Goronaeta* (*Go.*, 1862: 47).

EuskalOnom.: (Top.) *Corogaña* (Zare, 1610; Sala., 1994: 965), *Goronsarri-andicóa*, *Goronsarri-emeticóa* (Elgeta, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 121), *Goroabe* (Iruñeko auzoa, Jim. eta Sala., 2006: 208-209), *Goroa* (Asteasuko bas., 2012, AstM), *Goroabarrena* (*ibid.*), *Koroategi* (Azkoitiko bas., 2009b, AzkM), *Koroazpi* (Getariako aurk., 2012, GetM).

Ebak.: *Gorueta* (Mitx., AV, 287), [ko.rú.e.tà] (abs.) (Are-003), [ko.rwé.tan] (in.), [ko.rwé.ta.ra] (adl.) (Are-010), [ko.rú.tan] (in.) (Are-012), [ko.ru.é.ta.ra] (adl.), [ko.ru.é.tan] (in.) (Are-019).

Etimol.: Erdarazko *Corona* eta euskarazko *Koroa*, *Goroa* toponimoak metaforak dira, koroa itxura duten gain biribilak izendatzen baitituzte. Mitxelenak (AV, 287) honela dio: «*goro(n)a del lat. *corona*: *Goroa*, *Goronaeta* (la forma pop. del top. es *Gorueta*), *Goronsarri* (*Gorosarri*), *Gorosabel*. Cf., en el alto Aragón, top. *Corona*, *Coronar*, *Coron(i)eta*, etc. (M. Alvar. *El habla del Campo de Jaca*, 141). Med. *Goroaue* “sub corona”, término de Pamplona». Ikus Salaberri (1994: 965), Jimeno eta Salaberri (2006: 208-209).

HerritarIz.: *goroetar*.

Isurieta

Udala: Aretxabaleta (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Isurieta*.

Dok.: (Top.) «...e *Surieta e Bedarreta y Escoriaça*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Ysurieta* (1551, Dz.Bo., 1998: 382), *Isurieta* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 30), *Isurieta* (*ibid.*, 118), «En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son [...] *Isurrieta*, *Aozaraza*, *Arenaza* [...]» (*ibid.*, 208), *Ysurrieta* (*ba.*, López, 1770), *Isurieta* (*ai.*, *pu.*, DRAH, I, 1802: 388, 431 eta II, 27), *Isurieta* (*ai.*, Mad., IX, 1847: 466), *Iserguieta* (*ai.*, Nopgui, 1857: 112), *Isurieta* (*ca.d.l.*, *ibid.*), *Isurieta* (Go., 1862: 47).

(Antrop.) *Pero Martines d'Isurieta* (Arrasate ingurukoa, 1390; Cres., Cr. eta Go., 1992: 78), *Pero Martinez d'Yzurieta* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 294), *Juan de Ysurieta*, *Juan de Esurieta* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 197, 220).

EuskalOnom.: (Top.) *Ixurieta* (Gulibarko bas., N). Cf. *Isurola* (Aia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 3).

(Antrop.) Cf. *Juan Martines de Yçuria* (gasteiztarra, 1390; Cres., Cr. eta Go., 1992: 112).

Ebak.: [u.ší.ce.ku.èk], [u.ší.ce.kùk] (lek.g. + abs.) (Are-005), [u.ší.ca] (abs.) (Are-031), [u.ší.ca.ku.é] (lek.g. + abs.), [u.ší.ca.kò] (lek.g.) (Are-033).

Etimol. Isastik (1859 [1625-26]: 208-209) honela dio:

Cerca de la Iglesia de Isurrieta, y al contorno se hallan muchas losas de piedra, y debajo de ellas calaveras y huesos de hombres muy grandes; y es tradicion antigua, que en tiempo del Emperador Augusto Cesar la gente de Guipuzcoa se hizo fuerte á una legión de Romanos, donde pelearon, y hubo mucha matanza, y derramamiento de sangre de ambas partes: por lo cual pusieron nombre á aquel sitio *Isuri*, que en bascuence quiere decir, derramar, y despues corrupto el vocablo *Isurieta*.

Toponimoan Isastik aipatzen duen odola ez, baina badaiteke Mitxelenak (AV, 341) dakusan *isuri* aditz izendua egotea, dokumentazioan -s- edireten baitugu, ez -z-. ‘Ura

isurtzen den aldapa', 'ura isurtzen den maldaren tokia' edo iruditsuko zerbait zatekeen etorkizko adiera. Ez da, dena dela, ohikoa gure toponimian, dakigunez.

HerritarIz.: *isurietar*.

Larrino

Udala: Aretxabaleta (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Larrino*.

Dok.: (Top.) *parrochia de Larrino*, «...vezindades e parrochias de [...] Aocaraça e Larrino e Areyzchabaleta e Galarça e Guillano e Apoça», «Juan Martines d'Encotegui, de Larrino» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 208, 220), *Larrino* (1551, Dz.Bo., 1998: 384), *Larriño* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625–26]: 30), *Larrino* (*ibid.*, 118), *Larrino* (*ba.*, López, 1770), *Larrino* (*ai., pu.*, DRAH, I, 1802: 420, 431 eta II, 27), *Larrino* (*ai.*, Mad., X, 1847: 90), *Larriño* (*ai.*, Nopgui, 1857: 112), *Echeberri de Larrino* (*ca.d.l.*, *ibid.*, 127), *Larrino* (Go., 1862: 47). Orteliussek (1588, mapa) *S. Christobul* (*sic*) darabil.

(Antrop.) *Pedro de Larrinogaray*, *Martin de Uribelarrinoa* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 197, 208).

EuskalOnom.: Zigoitian *Larrinoa* herria dago (Sala., 2015a: 247).

Ebak.: [la.rí.no.tik] (abl.) (Are-008), [la.rá.nun] (in.) (Are-010).

Etimol.: Osagaiak *larrin* 'larraina' izena eta *-no* atzizki txikigarria dira (Mitx., AV, 394). Honetaz ikus bedi Irigoien (1986: 217).

HerritarIz.: *larrinotar*.



Gipuzkoako hegoaldea. A. Orteliusen 1584. urteko mapa. ELN.

Arrasate

IzenOfiz.: *Arrasate*.

Dok.: (Top.) «*Por saber que avemos de fazer bien e merced a todos los pobladores de la puebla que es en Leniz, que avie ante nombre Arressate, a que Nos ponemos nombre Montdragon*» (1260, Cres., Cr. eta Go., 1992: 7), «...*la puebla que es en Lenis que avia antes nombre Arrassate, a que el puso nonbre Montdragon*» (1334, Cres., Cr. eta Go., 1992: 26), «*Juan Ochoa e Juan Peres e Martin Garçia e Juan Ybanes dixieron que ellos fallavan yendo por Arrasate faz a Olandianno*» (1476, Cres., Cr., Go. eta Le., 1996: 478), «*Yten, entraron cabo la puente de Arrasate*» (1517, Le. eta Go., 1998: 214), *Arrasate* (Gari., II, 1628 [1571]: 203), *Arrasale* (*sic*) (Ortelius, 1588: 19).

(Top.) «...*a los que son veñinos e moradores en la villa de Mondragon*» (1281, Her., Ach. eta Mo., 1998: 2), *Mondragon* (1335, 1339, 1350, Le., 2007: 2, 6, 7, 8; 1390, Dz.S., 1985: 149), *Mond(r)agon* (1397, Lar. eta Ta., 1993: 62), *Mondragon* (1405, 1426, 1457, Le., 2007: 26, 27, 69, 181), *San Antolin de Mondragon* (1498, Le., Cr. eta Lar., 2002: 7), *villa de Mondragon* (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Mondragon* (1551, Dz.Bo., 1998: 365), *Mondragon* (Gari., I, 1628 [1571]: 59, eta II, 203; Ortelius, 1588, mapa), *Mondragon* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 117), *Mondragón* (Larra., 1985 [1754]: 59), *Mondragon* (*vi.*, López, 1770), «*Mondragon [...]. El recinto de la poblacion, ó cuerpo principal de la villa, está situado en terreno hondo, pero llano si no es en su extremidad occidental colocada en el declive y falda del montecito de Arrasate*» (DRAH, I, 1802: 27), *Mondragon* (*vi.*, Mad., XI, 1848: 493), «*Mondragon [...]. cuyo primitivo nombre era Arrasate*» (*vi.*, Go., 1862: 302).

(Antrop.) «...*Pero Garçia Mondragon, tenentlogar de porter*» (1334, Zab., 1998: 171).

EuskalOnom.: *Arrasateburu* (Antzuolako aurk., 1819; Pavo, 2005: 150), *Arrasate* (Antzuolako bas., 1842; *ibid.*, 149), *Arrasate* (*ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 110), *Arrasate-aldia* (Antzuolako aurk., 1945; Pavo, 2005: 151), *Arrásate* (ahoz) (Antzuolako bas., *ibid.*, 149), *Arrasate* (Larraulgo aurk., 2011, LulM).

EuskalTes.: «*Mondr<a>goeri artu deusat gorroto, / Guipuç andraoc artu ditu gaxtoto: / Iturrioc calean andra Maria Balda-co, / Arte calean andra Ojanda Gabiola-co, / Errebalean andra Milia Lastur-co*» (XV. m.? Mitx., 1964: 76-79) «*Bergararroc asi dira / Trajioe baten asmaçean, / Euroen artean dioela: / Erre deçagun Mondragoe*» (XV-XVI. m., *ibid.*, 81-88), «*Bizcaico Jabedearen alderontz dauzca gordetzalle Guipuzcoac, Arno, Bacue, Arrasate, Arranbizcar [...]*» (mendia, Izt., 1847: 35), «*Mondragoico mendi guztziac dira arrobi baliosoz beteac*» (*ibid.*, 56), «*Mondragoi-co Udala-cha* (*sic*) *deitzen zaion mendi goititu artan badira meatzeac*» (*ibid.*, 72), «...*Mondragoi-co alzairuari alderatzecoric eza gutzen etzala iñon ere*» (*ibid.*, 73), «*Mondragoico mugapean iturri guezagozo asco dira chit*» (*ibid.*, 99), «*Santiago egunean Seguraco mercatutic [...]. eta San Tomas-etan Azpeitian, Seguran eta Mondragoico errian eguiten direa-netic*» (*ibid.*, 186).

XX. mendeko testigantza batzuk: «*Urki zu Mondragura zan, Serrano an baitzegoan*» (Orixe, 1985 [1929]: 27), «*Jakin izan zun Santa Kruzec, karlistak Amorebietan utzi zituzten armakin, Bergaratik Mondraura zijoazela liberalak, beren mutil-sailentzako*» (*ibid.*, 32),

«Gañera, ba ziran liberalak Oñatin, Bergaran, Mondragun, Aramayon eta Elorrion» (*ibid.* 33), «Mondragoye'ko erri ederra» (Erauskin, 1932d: 301), «Ta zuek, Bergara'ko euskeltzale onak, bai-eta Eibar, Arrasate, Oñati, Elgoibar, Soraluze, Azkoiti, Azpeiti ta abarrekoak» (Lizardi, 1972 [1934]: 119), «Mutriku'ko, Elgoibar'ko ta Arrasate'ko euskozale apalak» (*ibid.*, 120), «Ainbestetaraño eze, ezpainintzan etorri ere egin Arrasate'ko euskal-egunera» (*ibid.*, 130), «...ta amaren begiek egun artan Arrasate'n etzuten seme-alaba onik baizik ikusi» (*ibid.*, 131), «Mondragoin ere izaten giñan» (Uztapide, 1975: 138), «Gabean kantatu genduan an, da Arrasaten edo Mondragonen ere bai» (*ibid.*, 140), «...eta Mondragoiko Ezkerra pelotaria nola da?» (*ibid.*, 244).

Ebak.: Mogelen iritzian (1854: 733) *Mondragon* ez da euskal izena, *Bilbao*, *San Sebastian* eta *Tolosa* ez diren era berean.

Azkuek (1933: 84) dio Arrasaten, bertakoek, elkarren artean hitz egiten dutenean, *Mundraue* erabiltzen dutela. Ormaetxeak (1996: 67) *Mundraue* (abs.) jaso zuen. Aramaion, beste lan batean (2006: 129, 205), «*Mundra* 'Mondragoe'» eta «*Móndra* (*Móndran*, *Móndra* 'Mondragoera', *Mondrátik*) (& *Mondraue*)» bildu zituen autore berak, baita pasartetxo hau ere (*ibid.*, 563): «*Ba, neu be ibilllte nau dantzian da ser gustien seretan... Mundran bar Loonso, esta?*».

Beste lekukotasun batzuk: [moɲ.drá.u.ná] (adl.), [moɲ.drá.u.tik] (abl.), [moɲ.drá.wèn] (in.) (Are-010), [moɲ.drá.u.e.ku.à] (lek.g. + abs.) (Are-041), [moɲ.drá.γòj] (abs.) (Ber-152), [moɲ.drá.u.e.rà] (adl.) (Lei-009) (Esk-014), [moɲ.drá.u.èn] (in.), [moɲ.drá.u.è] (abs.) (Oña-062), [moɲ.drá.u.e.á] (adl.), [moɲ.drá.u.èn] (in.) (Oña-066), [moɲ.drá.γo.ti.kàn] (abl.) (Sor-024).

Etímol.: Mitxelenak (1976: 55), beste gai batez diharduela, esaten du modaren aldakuntzek toponimoak antroponimoak baino gutxiago ukitzen dituztela, leku izenak aipatu aldakuntzetarik libre ez badaude ere. Konparaziorako, gaineratzen du, denbora batean ohikoak izan ziren (modaren fruitu, alegia) *Alegría*, *Miranda*, *Mondragón*, *Monreal*, *Salvatierra*, *Segura* hiribildu izenak ugariak dira euskara mintzatu edo mintzatzen den eremuan.

Caro Barojak (1982: 60-61), bide bertsutik, esaten du *Laguardia*, *Miranda*, *Mondragón* eta *Salvatierra*-ren erakoak Erdi Aroko garai jakin bateko Europako kultura zabalundearen eragitez sortu direla. Ondoko beste lan batean (1991: 58) honela mintzo da: «También presentan un asentamiento con especiales sentidos de posición, distancia y dirección los pueblos o poblaciones mayores fundados en época medieval y que, por lo general, llevan o han llevado nombres castellanos que corresponden a un "estilo" o gusto internacional propio de la época en que se fundaron», eta *Miranda*, *Salvatierra*, *Villafranca*, *Villarreal*, *Belmonte*, *Mondragón*, *Monreal* eta *Segura* aipatzen ditu.

Guk (Sala., 2010a) honela genioen, *Arrasate*-ren etimologiaz, orain bederatzirteko lanean:

Egungo *Arrasate* izenaren jatorri den *Arresate*-ren osagaiak *harri*-ren elkarketako *ar*- aldaera eta *esate* 'mendiko atea', 'mendietan izaten den lepo modukoa' dira. Bistan denez, *esate* bera ere elkartua da eta *ate* 'atea, borta' (euskara arruntean), 'mendiko pasabidea' (toponimian) du bigarren osagarritzat; beraz, ezagunak eta aski hedatuak diren *Arrate*, *Arrarte*,

Arratarte eta abarren antzekoa da. Izagirrek (1994:104) *Andartoko esatea* (*Andártoko esátie*, «Andartoren eta Gazteluko haitzaren [Ugastegi] bitarteko igarobidea») toponimoan dagoen *esáte* ‘igarobidea’ izena jasotzen du Arantzazu-Oñatin. OEHk ere Zegamako *esate* «mendiko portua edo esatea» biltzen du (*Andraizko esatea*), eta, denboraren poderioz izen arrunt honen hedadura asko murriztu den arren, garbi esan dezakegu oraindik bizirik dagoela antzinako *Arressate*-n bide zuen adiera berarekin.

Esatea izena Zarrakaztelu eta Uxueraino iristen zen, Euskal Herriko hego-ekialdean; lehen herrian *Essatea* ageri da 1692an, eta Uxuen *Esatea* herritik hurbil dagoen mendi-igarobide txiki baten izena da oraindik ere (Salaberri, 1994: 804). *Esate* izen arruntak *-arte*-dun aldaera zukeen (cf. *Arrate* eta *Arrarte*), Munetako *Esarte*a eta Aranaratxeko *Belaunesarte*a (*belaun* < *belar* + *un* ‘belardia’, ‘belar soroa’ + *esarte*a) toponimoek adierazten duten bezala. Postposizioak ere izan zitzaizkeen lagun, izendatu nahi ziren aurkintzak hobeki kokatzeko (cf. Zudairiko *Esateria* < *esate* + *iria* ‘mendiko igarobidearen ondoko aldea’ behar bada, *Zubiri* < *zubi* + *iri* ‘zubiaren aldamera’ edo *atari* < *ate* + *iri* ‘atearen ondoko eremua’ bezala), baita atzizkiak ere (cf. Esteribarko herri hustua bide zen Zaiko 1290eko *Esateaga* toponimoa) [...]. Diogun, adibide gutxi batzuk paratu behar eta, *Arrasatea* Biurrun-Olkozko (Itzarbeibar) aurkintza baten izena dela eta Argiñaon ere azaltzen dela, 1517an. *Arrasate*, bestalde, Intzako (Araitz) eta Ameskoako limitazioetako (*Arrasatea*, 1697an) eremu banaren izena ere bada, XIX. mendearen bigarren erdialdean eraikitako Etxalarko etxe batena ez ezik (Apezetxea eta Salaberri, 2009: 43).

Lan berean (ibid.), eta *Mondragón*-ez kestone, honela genioen:

Montdragon erdal izena, egun gaztelaniaz *Mondragón* bihurtu dena (1262, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 39), argia da: Europako beste leku batzuetan ere -Frantzia esaterako- ezauna den *mons draconis* ‘dragoiaren mendia’ dugu, bete-betean Erdi Aroan modan egon ziren izen arranditsuen taldean sartzen dena, Gipuzkoako bereko *Miranda de Iraurguy* (Azkoitia), *Montreal de Deva* (Deba), *Villamayor de Marquina* (Elgoibar) eta beste bezala. *Mondragón* izenak, aski goiz, *Arressate*-ren galera ekarri zuen, eta, toponimoa euskaraz ibiltzen baitzen, XV. menderako bokal arteko *-n-* sudurkari bigunaren galtzea erakusten duen *Mondragoe* aldaera sortua zen (cf. *Arrona* > *Arroa*, *Galdakano* > *Galdakao*, *Lazkano* > *Lazkao*, *Lemoniz* > *Lemoiz*, *Oikina* > *Oikia* eta beste anitz), leku kasuetako *-e* itsatsia zukeen **Mon-dragone*-tik abiatuta.

Cfr., gainera, Barandiaranen (1972b [1952]: 382) hau: «Con los nombres de Herensuge [...] Dragoi de Mondragón [...], se entiende una enorme serpiente legendaria que habitualmente vivía en ciertos antros del país. Sus residencias son [...] y Montekristo (Mondragón)». Cfr. orobat beste hau: «*Mas otra pieça* [...] *en la parte llamada Heransuguea*» (Getze Ibargoitia, N, 1647; NEAN, Eloko pr. 2, M. Vera gaztea), «*Otra pieça en Erensugue* [...] *que afronta con el mojon de Ydozin*» (ibid., 1761, Oibarko pr., 61, A. Redin).

Frantzia *Montdragon* dago Vaucluse departamenduan (*de montedraconis*, 1137an) eta *Montdragon* Tarnen (Dauzat eta Rostaing, 1983 [1963]: 467). Italian *Mon-dragone* herria dugu Campanian.

Herritarlz.: *arrasatear*.

HerritarIz.: *mondragoitar*. [moɲ.drá.ɣoi.ta.rèn] (gen.) (Ber-241a), [moɲ.dráɥ.ta.rà] (abs.) (Ber-241b), [moɲ.drá.ɣoi.ta.ràk] (abs.) (Zar-023).

Bedoña

Udala: Arrasate (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Bedoña*.

Dok.: (Top.) *las veneras de Bedoya* (1429, Orma., 1996: 90), «...e Goroneta e Bedoña» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142.), «...las heredades que yo he e tengo en Vedoya», *heredades de Bedoya* (1517, *ibid.*, 281-282), *Bedoya* (1581, Orma., 1996: 90), *Vedona* (Ortelius, 1588, mapa), *Bedoña (ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 30), *Bedoña (ibid.*, 118), *Bedoña (ba.*, López, 1770), *Bedoña (ai., pu.*, DRAH, I, 1802: 158, 431 eta II, 27), *Bedoña (ai.*, Mad., IV, 1846: 107), *Bedoña* (Aretxabaleta, *ai.*, Nopgui, 1857: 112).

(Antrop.) *Lope Yvannex de Bedoya* (1342, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 234), *Sancho Martinez de Bidunna* (1382, Le., Cr. eta Lar., 2002: 274), *Martin Yannes de Bedoya* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 78), *Joan de Bedoya* (1477, Zum., 1994: 84), *Martin Ruyz de Bedoya* (Aretxabaleta-Eskoriatza, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 220).

EuskalOnom.: «...arriba en Bedoyalarra» (1475, Orma., 1996: 305), «...prado que diz de Bedoyabe» (1476, *ibid.*, 303), *Bedoñabe Primero*, *Bedoñabe Segundo*, *Bedoñabe Tercero (ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 126), *Echeberri de Bedoña* (Aretxabaleta, *ibid.*, 112), *Mendivitzu de Bedoña (ibid.*, 113). Elorrión bada *Bedoña* baserria (BFA).

EuskalTes.: «Bizcaico Jabedearen alderontz dauzca gordetzalle Guipuzcoac, Arno, Bacue, Arrasate, Arranbizcar, Muru, Bedoñalarra» (Izt., 1847: 35).

Ebak.: *Bedoñe*, *Bedoña* (Orma., 1996, 91), [be.ró.ɲè] (abs.), [be.ró.ɲe.kò] (lek.g.) (Are-008), [be.ðó.ɲa.ku.è] (lek.g. + abs.) (Are-014).

Etimol.: Castrok eta Sachsek (1935) Gipuzkoako *Bedoña*-ren eta Bilboko *Begoña*-ren azpian *bedus* ‘lubakia, karkaba’, ‘erreka’ hitz zelta dagoela esaten dute. Ele beretik eratortzen dituzte Coruñaiko *Bedoja* (< *bedúcula*) eta Cuencako *Bedija* (< *bedicula*) ugalde izenak, eta orobat, handigarri batekin, Burgosko eta Asturiasko *Bedón* (< **bedo* + *-on*), eta txikigarri banarekin Kantabriako *Bedico* (*-ico* da atzizkia) eta Auvergneko *Bedat* (*-at* < *-attus* da berrekailua).

Aipatutako autoreen arabera, *Bedus* zuten oinarrian Astorga ondoan zegoen *Bedūnia* hiri desagertuaren izenak eta egungo Burgosko *Peñalba de Castro*-ren deizio zaharrak, bai eta, halaber, Gipuzkoako *Bedoña*-k eta Italiako *Bedonia*-k ere. *Bedoña*-rekin Kantabriako («Santander» darabilte) *Bedoya* eta Frantziako *La Boulogne* ugalde izena (*Bedonia* antzina) lotu behar dira Castro eta Sachsen iritzian, *-ñ-* > *-y-* aldakuntza zenbait aldiz burutzen delako, adibidez Nafarroako *sabayones* < *sabañones* ‘ospelak’ hitzean, baita, berebat, *-d-* > *-g-* txandakatzea (*sic*) duen *Begoña*-n ere. Hauetan denetan *bedus* ‘lubakia, karkaba’, ‘erreka’ eta funtzio zehatzik ez duen zeltako *-onia* atzizkia ditugu, aipatu autoreen irudiko.

Corominasen ustez (1972, I: 18), *Bedoya* toponimoa ezin *Bedunia*-tik atera zitekeen; bai ordea *Betullea* ‘urkidia, urki basoa’-tik. Hau aztertzen ari delarik *Begoña* hartzen du ahotan, baina ez dakusagu garbi zer esan nahi duen, alegia, *Begoña Bedoya*-rekin estekatzen duen edo *Bedunia*-rekin.

Lapesak (1984: 20), Castro eta Sachsi jarraikiz, uste du *Bedoña* izen zelta dela, eta Leongo *La Bañeza* (*Bedunia* lehen), *Begoña* (Bizkaia), *Bedoya* (Kantabria) eta *Bedoja* (Coruña) toponimoekin loturik dagoela. Etorkia denek *bedus* ‘lubakia’, ‘errekastoa’-n dute aipatu autorearen aburuz.

Gure iritzian antrotoponimoa dugu *Bedoña*. *Vedonius* (Solin eta Salomies, 1994: 199) dateke oinarriko pertsona izena, baina hori onartzeko *Andoain*-en eta *Zendoia*-n bezala (ikus sarrera hauek) sudurkari disimilazioa izan dela onetsi behar da. Alegia, **(uilla) vedoniana* ‘Vedoniusen bazterretxea, lurra’ > **Bedoiana* (sudurkari disimilazioz) > **Bedoiãñã* > **Bedoiãñã* > **Bedoiãã* > *Bedoia* > *Bedoña* izan dateke bilakaera, azken pausoa palatal nahasketaz, lehen testigantzetan *Bedoya* grafia aski garbia baita, *Bedoña* ere franko goizik agertuagatik. Zernahi gisaz, **Bedoiãã* eta *Bedoia* artean **Bedoiã* bat ere izan dela pentsa daiteke, eta hemendik gero **Bedoiã* > *Bedoña* atera dela (ikus Aretxabaletako *Areantza*).

Iturburu beretik abiatuak toponimoa azaltzeko beste bidea **(uilla) vedonia* batean pentsatzea da, alegia, adjektibo balioa duen etimoan, Nafarroako *Marcilla* (< **(uilla) marcëlla*, itxuraz) leku izenaren kasuan bezala. Ikus *Gabiria* sarreran dioguna.

Beste aukera bat, antroponimiaren barnean betiere, Akitanian lekukotzen den *Bedo* pertsona izenean (Delamarre, 2007: 38) oinarritzea da, alegia, *Oikia*-n bezala jabetzako *-ina* atzizkia zuen forman, **(uilla) Bedoia*-ren taxuko batean. Hemendik abiatuak bilakaera hau izango zen: **Bedoiãñã* > **Bedoiãñã* > **Bedoiã* (*Bedoya*, *Vedoya* izkiriatua) (> **Bedoia*) > *Bedoña*.

HerritarIz.: *bedoiãr*.

Garagartza

Udala: Arrasate (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Garagartza*.

Dok.: (Top.) «...en el aldea de Garagarça e en el aldea de Vdala», *Garagarça*, «... aldeas de Vdala e de Garagarça e de Guesaliuarr e de Vribarri» (1353, 1367, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 297, 342), *Logar de Garagarça*, «...Garagarça e Guesariuar e Erenuzqueta e Vdala e Muçibarr», «...aldeas de Garagarça e Guesaliuar e otras» (1388, 1390, *ibid.*, 1996: 262, 290), «los fijosdalgo moradores de Garagarça e Guesarivar e Erevusqueta e Udala e Muçibarr», «...moradores de Garagarça e Guesalivar e Hermosita e Ermudala e los otros lugares que son besinos en Modragon» (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 73, 74), «...e las iglesias e aldeas desta villa de Mondragon son Guesalibar e Garagarça e [...] Olibarri» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Garagarça* (Ortelius, 1588, mapa), «Esta villa [Mondragon]

tiene cuatro lugares en su jurisdiccion, Garagarza, Udala, Guesalibar, Uribarri» (Isas., 1850 [1625–26]: 117), «*Tiene cuatro lugares en su jurisdiccion, que son Garagarza, Udala, Guesalibar y Uribarri*» (*ibid.*, 611), *Garagara (sic) (ba., López, 1770)*, *Garagarza (ai., DRAH, I, 1802: 298 eta II, 26–27; Mad., VIII, 1847: 306; Nopgui, 1857: 126)*, *Echeberri de Garagarza (ca.d.l., ibid.)*, *Isasigaña de Garagarza (ibid., 127)*, *Garagarza (ai., Go., 1862: 303)*.

(Antrop.) *Iohan Martinez de Garagarça (1325, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 148)*, *Pero Garçia de Garagarça, Martin Iohan de Garagarça (azpeitiarrak, 1348; ibid., 254)*, *Pero Ynnigetz de Garagarça (1353, ibid., 297)*, *Iohan de Garagalça, Pasqual Perez de Galagalça (Aramaio, 1388; ibid., 1996: 261, 262)*, *Pero Ennigues de Garagarça (Arrasate ingurukoa, 1390; Cres., Cr. eta Go., 1992: 79)*.

Ebak.: *Gaartza (Orma., 1996: 128)*, [ga.rá.yar.tşa.ku.èk] (lek.g. + abs.) (Arr-015), [ga.rá.yar.tşan] (in.) (Arr-042), [ga.rá.yar.tşa] (abs.) (Are-029).

Etimol.: Osagaiak *garagar* labore izena eta leku-ugaritasunezko *-tza* atzizkia dira.

HerritarIz.: *garagartzar*.

Gesalibar

Udala: *Arrasate (bizt. ent. ber.; elizatea)*.

IzenOfiz.: *Gesalibar*.

Dok.: (Top.) «...*e en Guesalibar e en Huribarri*» (1353, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 297), «...*aldeas de Vdala e de Garagarça e de Guesaliuarr e de Vribarri*» (1367, *ibid.*, 342), «...*que los fijosdalgo moradores de Garagarça e Guesarivar e Erebusqueta e Udala e Muçibarr*», «...*moradores de Garagarça e Guesalivar e Hermosita e Ermudala e los otros lugares que son besinos en Modragon*» (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 73, 74), «...*Garagarça e Guesariuar e Erenuzqueta e Vdala e Muçibarr*», «...*aldeas de Garagarça e Guesaliuar e otras*» (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 290), *Guesalybarr (1440, Orma., 1996, 191)*, «*las iglesias e aldeas desta villa de Mondragon son Guesalibar e Garagarça e [...] Olibarri*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Guesalmor (sic) (Ortelius, 1588, mapa)*, «*Esta villa [Mondragon] tiene cuatro lugares en su jurisdiccion, Garagarza, Udala, Guesalibar, Uribarri*» (Isas., 1850 [1625–26]: 117), «*Tiene cuatro lugares en su jurisdiccion, que son Garagarza, Udala, Guesalibar y Uribarri*» (*ibid.*, 611), *Guesalibar (ba., López, 1770)*, *Guesalibar (ai., pu., DRAH, I, 1802: 317 eta II: 26–27)*, *Guesalibar, Santa Agueda (ai., Mad., IX, 1847: 72)*, «*Guesalibar ó Santa Águeda*» (*ai., Nopgui, 1857: 126*), *Guesalibar (ai., Go., 1862: 303)*.

(Antrop.) *Juan de Guesalibar (1353, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 297)*, *Pero Peres de Guesalivar (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 78)*, *Pero Perez de Guesaliuar (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 294)*.

EuskalOnom.: (Top.) *Guessaliuar (Estellerría, 1212; Lac., 1965: 286)*, *Gesalbizkar (Zegamako aurk., 1997, ZegM)*, *Gesaletxe (etxea, ibid.)*, *Gesalatz (ibarra, N)*, etab.

EuskalTes.: «*Guztietan ospatsuena eta maitagarriena da, erritic legua erdico bidastian Santa Aguedaren eliz-aurre Guesalibarcoan arkitzen dan sufreduna*» (Izt., 1847: 99).

Ebak. *Gesalibar* egun ihartua dago eta, haren orde, jendeak *Santa Ageda* erabiltzen du: [ʃaŋ.ta.ʎe.ra.ku.ék] (lek.g. + abs.) (Arr-015), [ʃaŋ.ta.á.ʎe.ða] (abs.) (Arr-042), [ʃaŋ.ta.ʎe.ðà] (abs.) (Are-029).

Etimol.: Toponimoaren osagaiak *gesal* ‘ur gazia’, ‘gatz duen lurra’ eta *ibar* ‘harana’ dira. Alegia, jatorriz ‘ur gaziko harana’, ‘lurrak gatz franko duen eremua’ zatekeen. Ikus Mitxelena (AV, 277) eta Salaberri (2017: 222).

HerritarIz.: *gesalibartar*.

Udala

Udala: Arrasate (birt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Udala*.

Dok.: (Top.) «...en el aldea de *Vdala* e en *Erenusqueta* e en *Ysasiganna*» (1353, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 297), *aldea de Vdala* (1367, *ibid.*, 342), «...que los *fijosdalgo* moradores de *Garagarça* e *Guesarivar* e *Erevusqueta* e *Udala* e *Muçibarr*» (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 73), «...*Garagarça* e *Guesariuar* e *Erenuzqueta* e *Vdala* e *Muçibarr*» (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 290), «...*moradores de Garagarça* e *Guesalivar* e *Hermosita* e *Ermudala* e los otros lugares que son besinos en *Mofn]dragon*» (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 74), *Udala* (1466, Orma., 1996: 362; 1551, Dz.Bo., 1998: 375), «*beneras conoçidas de Udala*» (1539, Ayer., 1997: 623), «*Esta notable y grande peña, que del nombre de vna pequeña poblacion, llamada Vdala, donde ay habitacion de algunos pocos caseros, que estan en medio della, se llama Vdalaacha (sic), que quiere dezir peña de Vdala*» (Gari., I, 1628 [1571]: 73), *Vdala* (Ortelius, 1588, mapa), «*Esta villa [Mondragon] tiene cuatro lugares en su jurisdiccion, Garagarza, Udala, Guesalibar, Uribarri*» (Isas., 1850 [1625-26]: 117), «*Tiene cuatro lugares en su jurisdiccion, que son Garagarza, Udala, Guesalibar y Uribarri*» (*ibid.*, 611), *Udala* (ba., López, 1770), *Udala* (ai., DRAH, II, 1802: 26, 27, 403; Mad., XV, 1849: 204; Nopgui, 1857: 127; Go., 1862: 303).

(Antrop.) *Sancho d'Udala* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 77), *Iuan Martinez d'Udala* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 290, 294), *Juan Martines de Udala* (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 197).

EuskalOnom.: «*Vdalaacha, que quiere dezir peña de Vdala*» (Gari., I, 1628 [1571]: 73), *Vdalaacha* (*ibid.*, 218-219), «*Udalacha, un cerro alto en jurisdiccion de Mondragon, de donde se saca el acero*» (Isas., 1850 [1625-26]: 231), «*Udalacha, un cerro muy alto, en jurisdiccion de Mondragón*» (Larra., 1985 [1754]: 57). Cfr. *Udaquiola Mayor*, *Udaquiola Menor* (Asteasu, Nopgui, 1857: 86), eta, antroponimian, *Juan Martines de Udalo* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 46, 75).

EuskalTes.: *Udalacha* (Izt., 1847: 35), «*Udalaco aitzaren erpiñetic icusten dira arguiró Cantabriaco erri anitz*» (*ibid.*, 37), «*Guztien gañecoa da Udalaco aitz*» (*ibid.*, 56), «...eta mendiac daucan aldaparen erditsuan arquitzen da Udalaco lurruspe aomen andicoa» (*ibid.*, 73).

Ebak.: *Udela* (Orma., 1996: 363), [u.ðé.la.tik] (abl.) (Arr-015), [u.ðé.lan] (in.), [u.ðé.la.tik] (abl.) (Are-036). Cfr. [u.ða.láj.tçe.tik] (abl.) (Arr-039), [ú.ða.laf] (abs.), [u.rá.la.tjén] (in.) (Arr-175), [ú.ða.laf.kò] (lek.g.) (Elo-033).

Étimol. Mitxelena (AV, 575) honela dio: «*udaletxe* “casa consistorial”: *Udalaecha* (Durango, 1675). Al menos en toponimia, ese *udaletxe* “hôtel de ville” resulta sospechoso. Hay top. *Udala*, *Udalatx*, etc., y hasta *Udalla* en la provincia de Santander; en Navarra, *la uinea de Udal ondo* en Larraga, s. XIII».

Errenteriarrek aipatzen duen *Udal ondo* hori beste oinarri bati dagokioke, *udare* ‘udareondoa’ zuhaitz izenari hain zuzen, hau da, *udare*, *ondo* eta *-a* artikulua ‘udare zuhaitzaren aldamera’ dukegu hor, *aizkora*, *euskara* edo *joare* elkarketa-eratorpenean aurkezten duten azken bokalaren galerarekin eta *-r* > *-l* aldaketarekin (*aizkolgile* edo *aizkoljoko*, *euskaldun* eta *joalko* ‘joare ttipia’ hitzetan, konparaziorako).

Arabian, Egino aldean bada *Udala* izeneko herrirka hustua, 1025eko Donemiliagako Rejan *Udalha* lekukotzen dena. Arabako lanean (Sala., 2015a: 116) elementu osagarriak *uda* izen arrunta eta *alha* ‘alhaduna’ izan zitezkeela idatzi genuen, hau da, udan ibiltzen den larrea, Asturiasko *braña* (< **veranea*) “pasto alto de montaña donde residen los ganados desde la primavera al otoño”, “aldea de *vaqueiros*” (García Arias, 2005: 677-680) eta Kantabriako *braña* edo *breña* (González Rodríguez, 1999: 38) hitzaren euskarazko baliokidea. Erka bedi Aralar 1410eko *Udaola*-rekin, Luzaideko egungo *Udasaro*-rekin eta Arnegiko *Negusaro*-rekin²⁸. Arinek (1951: 135) *Negusoo* jaso eta honela esaten du: «Existe un terreno conocido con el nombre de *Negusoo* (= sel de invierno). Hace referencia a alguna majada, que, residiendo en la sierra de Aralar durante la estación veraniega, inverna en *Negusoo* de Marumendi, por ser este sitio más bajo y resguardado para soportar los rigores del crudo invierno». Honi Asturiasen *Brañaverniza*, *Brañaverniz*, *Brañavernez*, *La Envernal*, *L’Envernalín*, *Les Envernaes*... esan izan zaio (García Arias, 2005: 680).

Mitxelena aipatzen duen Kantabriako *Udalla* hori franko goizik lekukotzen da, eta egun ere bizirik dago (Ampueroko herri baten izena da). Lehen aldiz, dakigunez, Laredoko foruan ageri da, 1200. urtean (González González, 1960: 212-213): «...*vado de Buxoa usque ad summum de Busquemado, et deinde usque ad Udalla*».

Euskal toponimo bat Kantabrian agertzeak, ezbaierik gabe, eman dugun azalpena onartzea zailtzen du, baina ez dakigu ezinezko egiten duen. *Udalla*-k egun duen *-ll*-palatal hori Arabako *Ollábarre*-k (*Olhauarri* 1025ean; Sala., 2015: 309-310), Burgosko *Zaballa*-k (euskal toponimian ongi ezaguna den *Zabala* bera da), Errioxako *Ollauri*-k (*Olhauri* 1185ean, *ibid.*) edo Nafarroako *Olleta*-k (*Oleta* euskaraz; Sala., 1994: 637) dutenaren modukoa da, alegia, aitzineko *L* bortitz baten edo honen parekoa den *lh* multzo heterosilabikoaren ondokoa da (*Zabala*, *Zaballa*-ren kasuan *Zabal-a* dugu). Alderdi honetatik, Rejan 1025ean ageri den Egino aldeko *Udalha* herrirka despopulatuaren izenak duen *lh* izan liteke, nahiz horren testigantzarik ez dugun, Kantabriako *Udalla*-ren soinu palatalaren sustraia. Alegia, etorki berekoak izan daitezke, eta berebat aztergai dugun Arrasateko *Udala*, honen *lh*-dun aldaerarik ere inoiz aurkitu ez dugun arren.

²⁸ Alabaina, ez bata ez bestea daude guztiz garbi (Kamino eta Salaberri, egiten ari).

Udalla toponimoaz honela diosku González Rodríguez kantabriar onomastikariak (a.a.):

«Respecto al topónimo **Udalla**, reconozco que es todo un problema. No existe ningún paralelo en toda la toponimia de Cantabria. Por esta razón, al ser digamos un *hápax* topónimo presente en la parte oriental, yo lo atribuí a préstamo de la vecina Bizkaia, con el probable significado de ‘ayuntamiento’, aunque no sé explicar su terminación. Lo mismo que otros topónimos únicos y de la zona oriental, como **Berría** (nombre de la playa de Santoña), que pueden ser explicados desde el euskera».

Kantabriako herria 44 metroko altueran da, eta, beraz, arras leku apala dela esan daiteke, ez mendian udan freskoa den alderdi garaia. Arrasateko *Udala*, aldiz, *Udalatx* haitzaren oinetan da, 490 metro gora, itsas mailatik. Zernahi gisaz, Bovesek (1956: 327-328) dioenez, *braña*-ren esanahia denborarekin aldatuz joan zela dirudi, eta badaiteke *udalha*-rekin beste horrenbeste gertatu izana. Honela dio aipatu autoreak: «El significado primero de *veranea* sería “lugar donde se lleva el ganado por el verano”, que pasó luego a “conjunto de ganado que se manda al puerto”, o bien el ganado de un sólo dueño (por una razón parecida a la que explica la expresión “la cabaña de ganado de..., o la camuña de ganado de...”»).

HerritarIz.: *udalar*.

Uribarri

Udala: Arrasate (auzoa).

IzenOfiz.: *Uribarri*²⁹.

Dok.: (Top.) «...e en *Huribarri e Oleaga*» (1353, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 297), «...aldeas de *Vdala e de Garagarça e de Guesaliuarr e de Vribarri*» (1367, *ibid.*, 342), «...en la dehesa de *Uribarri*» (1466, Orma., 1996: 408), «...e las iglesias e aldeas desta villa de *Mondragon son Guesalibar e Garagarça e [...] Olibarri [...]*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Vribarri (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), «Esta villa [Mondragon] tiene cuatro lugares en su jurisdiccion, *Garagarza, Udala, Guesalibar, Uribarri*» (Isas., 1850 [1625-26]: 117), «Tiene cuatro lugares en su jurisdiccion, que son *Garagarza, Udala, Guesalibar y Uribarri*» (*ibid.*, 611), *Ulivarri (ba., López, 1770)*, *Uribarri (ai., DRAH, II, 1802: 26, 412)*, *Uribarri de Mondragon (ibid., 27)*, *Uribarri (ai., ba., Mad., XV, 1849: 227)*, *Uribarri (ai., Nopgui, 1857: 127; Go., 1862: 303)*.

(Antrop.) *Rodrigo de Uribarri* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 196).

EuskalOnom.: *Uribarzubí* (Arrasate, *ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 127). Aramaion (A) ere bada *Uribarri*.

Ebak.: *Uribarri* (Orma., 1996: 409), [u.rí.βa.ri.kò] (lek.g.) (Arr-015), [u.rí.βa.ri] (abs.) (Arr-042).

²⁹ EODAn eta EHLIn ez da azaltzen.

Etimol. Mogelek (1854: 683) honela dio: «*Ulia* ó *Illia*, vocablos que significan á la letra “cabello” por su multitud ó poblacion, se acomodan por figura á pueblo ó lugar poblado. *Uliberri* ó *Illiberri*, poblacion nueva». Ikus Oñatiko *Uribarri*.

Asteasu

IzenOfiz.: *Asteasu*.

Dok.: (Top.) *Asteassu*, «logares de Alquiça e de Asteassu de ssusso»³⁰ (1348, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 256), *Asteasu* (1393, *ibid.*, 1996: 361), «Joan de Larrea, en nonbre de la tierra de Asteasu» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 71), *Asteassu* (1397, Ayer. eta E., 2008: 60), *Asteasu* (1492, Ayer. eta Dz.S., 1996: 496), *conçejo de Asteasu* (1542, Ayer., 1997: 630), «...en los conçejos de Larraul e Asteasu» (1552, *ibid.*, 204), *Asteasa* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Asteasu* (*lu.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), «San Juan de Iturrioz en la montaña de Hernio, jurisdicción de Aya, Rexil, Asteasu, Goyaz, Vidania y Albistur» (*ibid.*, 210), *Asteasu* (*vi.*, López, 1770), «Asteasu, v[illa] cabeza de la alcaldía mayor de Aiztondo» (DRAH, I, 1802: 126), *Astiasu* (*vi.*, Mad., III, 1847: 48), *Asteasu* (*vi.*, Go., 1862: 58).

(Antrop.) *Martin d'Asteasu* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 129).

EuskalOnom.: «San Juan de Asteasuaincarra, vecino de la dicha villa de Usurbil» (Urnieta, 1617; Ayer., 2015: 880), *Astiasaran* (Gabiria, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 25), *Asteasoinzar*, *Asteasoin aundía* (Usurbil, *ca.d.l.*, *ibid.*, 73), *Astiasu* (Izurdiaga, Jim. zuz., 1993b: 94).

EuskalTes.: «Dichazco andre au Ama Maria Urdinaran, Aldariaga-ra ezcondua, Asteasuco erri noblean adiñ andicoa, eta sona andiagocoa [...]. Onen espiritu miragarria, Donostiatic Asteasura etorri, eta zucendu oi zuen Aita Miguel Elizalde, jesuita, eta esan albaño jaquintsuagoa zan teologo sonatuac» (Kard., 1882: 48), «Lenengoa: ez aitac ez alabac Asteasuraco bideric zequitzen» (*ibid.*, 50), «...eracusaldiac Don Juan Bautista Aguirre Asteasuco erretore, eta Guipuzcoaco Arciprestazco nagusian diputadu generalac, cristatu aciai meza nagusietan eguiñac» (J. B. Agirre, 1978 [1850], I: 1 eta II: 1), «Asteasuco mugapean ere badago quisua iori» (Izt., 1847: 53), «Asteasuco mendietan arquitzen da cobrea» (*ibid.*, 66), «...erreca bat, Ibeltz esaten zaiona, eta au errico errota bat erabilliric igarotzen da Asteasura» (*ibid.*, 97), «Asteasu aldetic datorrena» (*ibid.*, 116), «Illaren 30garrenean Santa Kruz Soroetarekin Asteasuco Illurdi deritzaion baserrian gertatu zan» (Orixe, 1985 [1929]: 44), «Asteasu alde artan egonari ederretsi omen zion» (*ibid.*, 65), «Artzen du preso Iturbe Villabonan, eta bialtzen ditu lau mutil-mordoska Asteasura» (*ibid.*, 90), «Jendia pranko Astiasu'tik / juan zan Aia'ko partera» (Zabala, 1992: 380), «Asteasuco kanpaiak galde egin zuan: ¿Durua nun? -Alkizakoak erantzun zuan: Leten³¹ ta Perun» (Azkue, 1989 [1935–1947], III: 140).

Ebak.: [aʃ.tí.a.ʃu.á] (adl.) (Ast-001), [aʃ.tí.a.ʃù] (abs.) (Adu-006), [aʃ.té.a.ʃu.kò] (lek.g.) (Bal-001), [aʃ.tí.a.ʃùn] (in.) (Bil-003), [áʃ.ti.a.ʃùn] (in.) (Bil-011).

Etimol. Mitxelena (AV, 98) *-asu*, *-azu* bukaera zenbait deituratan agertzen dela dio: *Arrazua*-n, *Lizarazu*-n (**leizar-ara(t)zu*-tik ez badator) eta *Ichaso*, *Ichasu*-n, eta bere buruari galdegiten dio *Asua* ez ote den *har(ri)* + *-zu*-tik atera (< *har-* + *-zu* + *-a* alegia), baina gaineratzen du arrunt dudazkoa dela sarrera honetan esaten dena (ikus orain Sala., 2015a: 100).

³⁰ Elizmendi auzoa dateke.

³¹ Alkizako etxea.

Guk ere geure buruari galdegin diezaiokegu *Asteasu*-k ere ez ote duen *antropónimo* + *-asu* (< *harzu* ‘harridia’) egitura, *Albiasu*-n (> *Albisu*) *Albi* pertsona izena (ikus *Albiztur* sarrera) eta *-asu* egon daitezkeen bezala. *Asteasu*-ren kasuan *Gaste*-n pentsa liteke, *Gasteiz*-en oinarrian dagoenean hain zuzen; kontrako argudioa da pertsona izen honek, enklisian ez badago, ez duela hastapeneko *g-* galtzen. *Cfr.*, dena dela, *Altsasu*, *Elizasu* (deitura) eta *Soreasu* (Azpeitia). Laburbilduz, toponimo iluna da guretzat.

HerritarIz.: *asteasuar*.

HerritarEz.: *tranpazulo*. «*Asteasuarra / ez dala kaxkarra*» (J. Zabaleta, 1932b: 297), «*Asteasu tronpa-zulo; Larraul tabako erretzaileak*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Astigarraga

IzenOfiz.: *Astigarraga*.

Dok.: (Top.) «*vecinos e moradores de Astigarraga, que es Guipuzcoa cerca de Murguia*» (1382, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 180), *Astigarraga* (1397, Lar. eta Ta., 1993: 62), «*yglesia de Sennora Santa Maria de Murguia ques acerca de la tierra de Astigarraga*» (1478, Cres., Cr. eta Go., 1997: 68), «*Dentro en la casa d'Ergovia, que es en la tierra de Astigarraga*» (1509, Ayer., Iri. eta S.M., 2012: 113), *Astigarraga* (Gari., II, 1628 [1571]: 378), *Astigarraga* (lu., Isas., 1850 [625-26]: 29), *Astigarraga* (vi., López, 1770), *Astigarraga* (vi., DRAH, I, 1802: 126; Mad., III, 1847: 49; Go., 1862: 61).

EuskalOnom.: *Astigarraga* (Ataun, ba., DRAH, I, 1802: 128; Nopgui, 1857: 86), *Astigarran-Borda* (Irun, ca.d.l., *ibid.*, 48), *Astigarraga* (Errezilgo aurk., 2000, ErzM), *Astigarragaerreka* (erreka, *ibid.*), *Astigarragako zokoa* (Irungo aurk., 2008, IrnM).

EuskalTes.: «*Astigarragaco Santiago mendian arquitzen dira Mascorra idurin (sic) duten arriac*» (Izt., 1847: 50), «*Astigarragaco erriaren guertuan arquitzen da iturri bat ur garbi ona iori ematen dabena*» (*ibid.*, 80), «*...baciran onciteguiac Ergobiaco zubia-ren aldechoan, Unumeaco ibai bazter Donostiarequin Hernani eta Astigarraga mugatzen diraden toquian*» (*ibid.*, 127), «*Lenengo erromeriya / Astigarragan zan*» (Txirrita, 1932: 142), «*Astiarrá'ko Begi-Txikiyak / ederki neurtu dizkizu*» (Zabala, 1992: 380), «*Astigarrá'ko Begi-Txikiya, / Kortajarena bestia*» (*ibid.*, 386), «*Epel-errekatican / Astigarra'raño, / Astigarraga'tikan / Pardiola'raño*» (*ibid.*, 115).

Ebak.: [ástiarrà], [ástiarrá] (Zaldúa, 2012a: 806), [aș.tí.a.ràn] (in.), [aș.tí.ȳa.ra.kò] (lek.g.) (Atg-030).

Etimol. Etxabek (1970 [1607]: 22), Logroño ondoko *Cantabria* muinoaz ari delarik, honela dio:

...a quien aviendola poblado llamaron *Canta Uria*, que quiere dezir *ciudad* ò *pueblo* de *canto*, ò *canta*, por que ya lo sabeis que a la ciudad, ò poblacion, en nuestro language llamamos *Yria* y *Uria* [...] mas añadiendole la dicion *Ga* ò *Aga*, a cualquiera nombre propio ò comun, particularmente de puesto, poblacion ò monte, rio ò casa, comprehende no tan solamente la cosa asi nombrada, mas tambien la comarca, asi como *Ori Arriaga*, *Astigarraga*, *Çumarraga*, *Uriaga*, y otras muchas.

Humboldték (1990 [1821]: 49) *Astigarraga*-n *acha* 'haitza'-ren aldaera den *asta* da-goela dio, baina oraingoan ez aipatu adierarekin, *astuna* 'pisua' hitzean dugunarekin baizik.

Esanak esan, *Astigarraga*-ren azalpena argia da, Mitxelenak (AV, 103) ikusi zuen moduan: *astigar* zuhaitz izena da oinarria, eta *-aga* leku-ugaritasunezkoa atzizkia. *Astigar* hori *Astigarribia*-n (Mutriku) eta *Astigarreta*-n (Beasain) ere badago, bistan denez. Errenteriarren arabera (*ibid.*), *astigar* bigarren osagaitako *ihar* (*Acer hispanicum*) izena duen elkartua dateke, segurutzat ematen ez badu ere.

HerritarIz.: *astigartar*.

Ataun

IzenOfiz.: *Ataun*.

Dok.: (Top.) *Athavit, Athagun* (c. 1200, Jiménez de Rada;³² ikus bedi DRAH, I, 1802: 129), *castieillo d'Ataur* (1261, Gar.Ar., 1996: 53), «*Roy Periz d'Ipuzcoa, tenient el castieillo de Ataun*» (1277, Zab., 1997: 62), «*Por despens de compaynnas que fueron plegadas en acorro del castillo de Ataun*» (1280, Zabalo, 1972: 83), «*...por las obras que fizo en el castieylo de Atahun*» (1336, Zab., 1998: 191), «*nuestro castieillo de Ataun*» (1351, Ru.S.P., 1997: 59), «*nos los moradores de las collaciones de Atavn e de Beasain e de Zaldivia*» (1399, Ayer. eta S.M., 2013: 11), «*vecinos e moradores e parrochianos de la yglesia de Sanct Martin de Ataun*» (1404, *ibid.*, 21), «*Beasayn e Ataun*», «*Atahun e Lazcano*», *montes de Atahun* (1409-1410, *ibid.*, 45, 46, 47), «*el dicho alcalde Juancho de Axarrista, jurado de la vezindad de Atahun*» (1448, *ibid.*, 87), «*Juan de Alchiuitia, jurado que dixo ser de la tierra e vniuersydad de Atahun*» (1517, *ibid.*, 259), «*Martin Fernandes de Auzmendi, veçino de Ataun*» (1536, Le. eta b., 2002: 440), «*...por la muerte del aleman que fue muerto en Ataun*» (*ibid.*, 452), *Ataun* (Gari., II, 1628 [1571]: 340; Ortelius, 1588, mapa; 1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Ataun* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Ataun* (vi., López, 1770), «*Ataun, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa [...]. Se compone de muchos barrios, á saber, Erbarrena, que forma el cuerpo de la plaza pública, Astigarraga, Arrondoa, Arin, Olaldea y Ergoyena, colocados á lo largo de la dicha encañada, y á un lado de esta por e[ste] los que llaman Aiztarte, Aiztarte-Erreca y Aya, y a la banda opuesta los de Urrusua, Lauztierreca y Murcondo*» (DRAH, I, 1802: 128), *Ataun* (vi., Mad., III, 1847: 90; Go., 1862: 67).

(Antrop.) «*Miguel de Ataun, en nonbre del concejo de la Villa Real de Urrechoa*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 71), *Lope Ochoa de Ataun* (Getaria, 1397; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), *Don Miguel de Ataun* (Ordizia, 1404; Ayer. eta S.M., 2013: 21), «*Maria de Ataun, natural de Ataun*» (1617, Ayer., 2015: 877).

EuskalOnom.: *Ataumbide* (Aralar, XVIII. m. [1413], sel; Moraza, 2010: 18), *Ataun-soro* (Ataungo aurk., 1999, AtaM).

EuskalTes.: «*Ataungo mendietan arquitzen dira arrobiac*» (Izt., 1847: 58), «*Ataungo Arzate-erreca deitzen zaion aitzean badira meatzeac beruna, eztañua, cobrea [...] ematen dituztenac*» (*ibid.*, 69), «*Ataungo mugapean badira iturri guezagozoac iori*» (*ibid.*, 80), «*...andic laster itsasten zaiozca Aralarco mendi ospatsuan jaiotaco ibai Agauntzacoa, Ataun eta Lazcau igaroric Olaberrico itur-uraquin datorrena escuico aldetic*» (*ibid.*, 115), «*Ataungo basagizonak, Ataunen*» (1913an Lizartzako J. Goikoetxeaundiak esana; Etxebarria, 1992: 615), «*Ataunen, Lazkaun, Beasainen, erri ontako estazioari su ematea zijoala [...]. Gu Ataunen geundela jakitea, naikoa izan zuten liberalak, andik Villafrankara usu ta arin aldegitteko. Ataundik ateratzean, bildu zitun Santa Kruzec egundañoeko esku-zartak eta aupak eta oyuaak*» (Orixe, 1985 [1929]: 79), «*Amezketan yaio, Zaldibian bataiatu, Ataunen bizi, lapurra il da bizi*»

³² Argitalpen konplutuarrean; ikus Gorosabel (V, 1868: 37).

(Azkue, 1989 [1935-1947], III: 139), «*Ataun erreta yan za(g)un*», «*Ataunen eta Zegaman, egunez ikusi ta gauzez eraman*» (*ibid.*, 140), «*Ataungo pruduä, ez olaxe oituä: iru pregoi eginda soldadu eraman gaitue*» (*ibid.*, 141), «*Ataunen, berriç, San Martiñetan egiten dira pestak*» (Uztapide, 1975: 133).

Ebak.: *Ataungoa* (lek.g. + abs.) (Zegama, Azur., 1997: 47), *Ataundi* (abl.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 45), *Ataunen* (in.) (*ibid.*, 44), [á.taŋ.nèn] (in.) (Alg-002), [á.tàŋ] (Bea-019), [a.táŋ.gòk] (lek.g. + abs.) (Ord-031), [á.taŋ.gu.á] (lek.g. + abs.) (Ziz-006).

Etimol.: Arinek (1951: 129-130) 1200eko *Athavit* horren azpian *Atavu* dagoela uste du, hots, *Ataun* bera, baina beste grafia batekin idatzia, eta aldaketa eskuizkribua izkiriatu zuenaren huts baten hobena dela. Autore honek arras garbi du *Ataun*-en (jatorrizko) adiera zein den, honela baitio: «El nombre Ataun se descompone en Ata-un. *Ata* significa portillo o paso y *un* es sufijo locativo cuyo significado es “sitio de”, “punto de”. En la toponimia de Ataun es muy frecuente el uso del componente *ata* o *ate*, apareciendo en esta última forma cuando es pospuesto a otro elemento».

Mitxelena (AV, 107) *Ataun* toponimoa *at(h)e* ‘borta’, *atea* ‘zintzurra, botxea, me-haka’ izenetik eratortzen du, eta dio, Arini jarraikiz, hainbat toponimotan ‘iraganbidea’, ‘portua’ adiera duela. Duela urte batzuetako lan batean honela genioen guk (Sala., 1997: 9): «Orain azalpen egokia izan dezakeen beste toponimo bat Nafarroako *Atetz* (bailara izena) dugu; honen etimologia *ate* ‘portilua, harratea’ oinarria eta *-tz* atzizkia da, eta hasierako adiera ‘ate tokia, portilu lekua’, Gipuzkoako *Ataun*-ek duen berbera. *Ateta, Ateaga, Ataketa...* moduko toponimoak, bestalde, ugariak dira».

XV. mendetik aitzina zenbaitetan agertzen den tarteko *-h-* hori grafema hutsa dela pentsatu beharko dugu, holakorik ez duten aurreko testigantzak ikusirik. Grafema horren xedea, elkartuaren bi osagaiak bereiztea baino gehiago, bata bestearen ondoan diren *a* eta *u* hiatoan daudela adieraztea dateke. Nolanahiko gisan, ezin da arras baztertu grafemak soinua irudikatzen duelako ustea, elkartuen osagaien artean hori ongi eza-guna delako (Salaberri eta Salaberri, 2016: 383).

HerritarIz.: *ataundar*.

HerritarEz.: «*Lazka(n)otarrak antzarrak; Ataundarrak otsoak* (hay quien dice *lapurrak*)» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Aia

Udala: Ataun (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Aia*.

Dok.: (Top.) «*Aya, univ[ersidad] de la alcaldía de Sayaz*» (DRAH, I, 1802: 128), *Aya* (ba., Mad., III, 1847: 191), *Aya* (ai., Nopgui, 1857: 86), «*Tiene dos anteiglesias; que son la llamada de San Gregorio con la advocacion de este mismo nombre, y la de Aya con la de Santa Isabel*» (Go., 1862: 68), *Ayabelaun* (1733, Arin, 1928: 123), *Ayaturrieta, Ayiturrieta Erreka* (1733, *ibid.*, 123, 138), *Aya Bideta* (1928, *ibid.*, 96), *Ayeko Elizbidea* (*ibid.*,

123), *Aia* (Ataungo auzoa, 1999, AtaM), *Aiaugaldeandi*, *Aiaugaldetxiki* (Ataungo bas., *ibid.*).

EuskalTes.: «*Santa Isabeletan ere bai, Ataungo Aian izan gera banaka batzuetan Lasanterekin*» (Uztapide, 1975: 133).

Ebak.: [á.jà] (abs.), [á.ja.kò] (lek.g.) (Ata-006).

Etimol.: Ikus *Aia* (herria).

HerritarIz.: *aiar*. [a.jé.ta.rak] (abs.) (Ata-006), [a.í.ta.rak] (abs.) (Ata-023).

Elbarrena (-a) (ikus *San Martin*)

San Gregorio³³

Udala: Ataun (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *San Gregorio*.



San Gregorio (Ataun)

³³ EODAN eta EHLIn *Arrate*-ren alonimotzat jotzen da, eta M. Gorrotxategik (2000) apailaturiko bilduman ere ageri da. *Arrate* «auzoaren» aipamen bakarra, baina, Etxegararen 1926ko “Euskal erriko etxeen izenak” artikuluan bide dago. 1857-1864ko Gipuzkoako izendegian (86) *Arratenéa* deituriko *barriada* azalduagatik, Ataungo kasuan, beste batzuetan bezala, baserri bati dagokio, ez auzo bati. Oroit bedi irakurlea *San Gregorio* eta *Aia* elizatzetat aipatzen direla; *cf.* *Miguel de Arrateguibel* (Ataun 1511, Ayer. eta S.M., 2013: 238).

Dok.: *San Gregorio* (par., Mad., VIII, 1847: 592 eta XV, 1849: 233), *San Gregorio* (ai., Nopgui, 1857: 87; Go., 1862: 68).

EuskalOnom.: Zumarragan bada *San Gregorio* auzoa, eta Beasainen ermita.

Ebak.: [s̺aŋ.gre.ɣo.rjò] (abs.) (Ata-006).

Etimol.: *Gregorio* izena grekoa da jatorriz, eta ‘ernea’ esan nahi du; gero latinera igaro zen eta, hortik, gurean barreiatu. Izen bereko done eta aita santu mordoxka izan dira historian zehar (ikus Ferro zuz., 1992: 289-291).

HerritarIz.: *sangregoriotar*. [s̺aŋ.gré.ɣo.rjo.ta.rák] (abs.) (Ata-006).

San Martin³⁴

Udala: Ataun (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *San Martin*.

Dok.: «*vecinos e moradores e parrochianos de la yglesia de Sanct Martin de Ataun*» (1404, Ayer. eta S.M., 2013: 21), «...*nos la huniuersydad, escuderos, hijosdalgo de la collaçion de sennor Sant Martin de Atavn, que es en la juridición de la villa de Villafranca*» (1511, *ibid.*, 236), «(Ataun) *Se compone de muchos barrios, á saber, Erbarrena, que forma el cuerpo de la plaza pública*» (DRAH, I, 1802: 128), *Erbarrena* (ba., Mad., III, 1847: 90), *La plaza* (ba., Mad., X, 1847: 75), *Elbarrena* (ba., Nopgui, 1857: 86), *Erbarrena* (ba., Go., 1862: 68).

EuskalOnom.: *San Martin* arrunt deizio hedatua da; 1857-1864ko Gipuzkoako izendegi anonimoan herri hauetan ageri da: Amezketan, Aretxabaletan, Azkoitian, Azpeitian, Beasainen, Bergaran, Deban, Donostian, Eibarren, Leintz Gatzagan eta Zaurutzen. *San Martin-eche*, bestalde, Orioko *casa de labor* da, aipatu izendegian.

Beste izendapenari dagokionez, hona Probintziako testigantza gutxi batzuk: *Elbarrena* (Zizurkil, *ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 92), *Elbarrena* (Adunako auzoa, 2000, AduM), *Elbarren bailara* (Bidania-Goiatz, eremua, 2000, BidM). Nafarroan Leitzako *Elbarren* aipa daiteke (Olano, 2005: 75), edo Bakaikuko *Elbarrena* (Ondarra, 1965: 22).

Ebak.: [s̺án.mar.tìn] (abs.) (Ata-006).

Etimol.: *Martin* izena *Martino*-tik atera zen Erdi Aroan, proklisian egotearen ondorioz; iturria latineko *Martinus* da. Hau, berez, *Mars*, *Martis* jainko izenaren eratorria dugu, eta hastapenean ‘Marterena’, ‘Marte jainkoari eskainitakoa’ esan nahi zuen (ikus Ferro zuz., 1992: 369-372).

Beste deizioaz, *Elbarrena*-z, honela dio Mitxelenak (1956a: 349): «*Ergoen*, barrio de Ataun (Guip.), de los más distantes de *Elbarrena*, núcleo principal (AEF 7, 1927, p. 2), ambos de *erri* “pueblo”». Hots, *Elbarrena*-ren osagaiak *herri*-ren elkarketako *her*-aldea, *barren* ‘behereneko alderdia’ eta *-a* artikulua dira, beste leku batzuetako *Hiribarrena*, *Iribarrena* bera, ‘beheko auzoa’ alegia. *Erbarrena* > *Elbarrena* pausoa dardarkari disimilazioaren ondorena da ($r [r] - rr [r] > l [l] - rr [r]$). Datuen arabera, egungo aldaera

³⁴ EODAn eta EHLIn *Elbarren* hobesten da; *fr.* M. Gorrotxategi (2000).

XIX. mendearen erdialdean sortu zen, 1857rako, baina Gorosobalek 1862ko bere lanean *Erbarrena* dakar artean ere.

Ebak.: *sanmartindar*. [san.már.tiŋ.da.rák] (Ata-006).

Alonimoa: *Elbarrena*.

Azkoitia (-a)

IzenOfiz.: *Azkoitia*.

Dok.: (Top.) *Yraugui* (1007 [c. 1032]³⁵, Goñi, 1997: 28), *Yraugui* (1186-1189, Mtez.Dz., 1975: 4; Bar., 1989: 434), *Yraugui* (1186-1193, Lac., 1949: 425), *Aezcoytia*, *Azcoytia* (1319, Ayer., 1993: 11), *Aezcoytia* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 136-137), *Ahezgoytia* (1319, *ibid.*, 138), «*la mi puebla de Sant Martin d'Ahezcoytia de Yraugui*», «*la dicha mi puebla de Sant Martin d'Ahezcoytia de Yraugui*» (1324, Ayer., 1993: 13), «*las ferrerías d'Iraugui e d'Ahezcoytia que sean en esta villa que dicen Sant Martin de Yraugui*» (*ibid.*, 14), «*las ferrerías d'Iraugui e d'Ahezcoytia*» (1324, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 146), «*...que fagan la dicha puebla en el dicho lugar de Miranda, e mando que le llamen de aqui adelante la puebla de Miranda d'Iraugui*», *conçeo de Sant Martin d'Iraugui*, «*... Monesterio de Santa Maria de Valda que es en el termino del dicho lugar de Sant Martin, que dezian Miranda d'Iraugui*» (1331, *ibid.*, 171), *Aizcoitia* (1346, Ayer. eta Etxe., 1999: 52), *villa de Miranda d'Azcoytia* (1383, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 186), «*las villas de Miranda d'Iraugui e de Saluatierra d'Iraugui e de Villamayor de Marquina*» (1394, Ayer. eta E., 2008: 40), «*Iohango de Sustaeta, vesino de la tierra de Ayscoytia*» (1397, *ibid.*, 60), «*ommes buenos de la villa de Miranda de Yraugui, Azcoytia, vezinos e moradores de dentro de la çerca de la dicha villa*» (1413, Ayer., 1993: 42), «*Salvatierra d'Iraugui Aspeytia e Miranda d'Iraugui Ascoytia*», «*la villa de Miranda d'Ascoytia*» (1417, *ibid.*, 85), *Miranda de Yraugui Ayscotia* (1434, Cres. eta b., 1995: 60), «*la casa de Mendiçabal que es sytuada en termino e juridiçion de la villa de Miranda de Yraugui e tierra de Azcoytia*» (1458, *ibid.*, 94), *Yraugui* (1479, Ayer. eta E., 2008: 143), «*Ayzcoitia e Ayzpeitia*» (1497-1519, Zum., 1999: 52), *Aizcoitia* (1520, Le. eta b., 2002: 335), *San Martin de Hiraugui Azcoytia*, *Hiraugui Azcoytia* (Gari., II, 1628 [1571]: 164), *Ascorlia* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Azcoitia* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 113), «*Vrola [...] per Legazpíam vallem ac per Azcoytíæ, Azpeytíæ, & Sancte Crucis Cestonæ vrbium [...]*»³⁶ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), *Azcoytia* (*vi.*, López, 1770), «*Azcoitia, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa. Llamóse antiguamente Miranda de Iraugui y S. Martin de Iraugui*» (DRAH, I, 1802: 138), *Azcoitia* (*vi.*, Mad., III, 1847: 210), *Azcoitia* (*vi.*, Go., 1862: 77), «*Iraugui: valle antiguo, que comprendía los territorios de las actuales villas de Azcoitia y Azpeitia*» (*ibid.*, 235).

(Antrop.) *Iohan d'Iraugui* (Segura, 1372; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 57).

EuskalOnom.: «*el cuvillar de [Yreugui] de Suso et de Iuso*» (Oiartzun, 1389; Le. eta b., 2000: 223), *Pedro de Ayzcoytiaga* (Galartza parrokia, 1497; Leintz, Le., Cr. eta Lar., 2002: 212), «*Azcoyti o Leete*» (Arrasateko aurk., 1778tik aurrera, Orma., 1996: 114), *Azcoitiaga* (Aretxabaleta, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 112), *Iraugui*, *Iraugui-chiqui* (Oiartzun,

³⁵ Barrenak (1989: 432), doktore tesian, 1186-1189koa dela dio.

³⁶ «*Urola [...] Legazpiko ibarrean gaindi eta Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa hirietan barna [...]*».

ca. d.l., *ibid.*, 57), *Azcoitiena*, *Azcoitiena de Narriá* (Oñati, *ibid.*, 131), *Axkoiti* (Eskoriatzako aurk., 2014, EskM). Diman *Iraurgi* auzoa dago.

EuskalTes.: «*Oec Azcoitico calean vici ciran*» (Kard., 1882: 1), «*Azcoitira biurtzeco escua ceucala esan cioten*» (*ibid.*, 101), «...*eta ezaguturic guztia onen vertuteen otsa, alabaten zutela Azcoiti-Azpeitietaco ehandre andizqui guciac bereala joan ciran Josefa icustera*» (*ibid.*, 103-104), «*Guero Azcoiti eta Azpeiticoac beren egunetan onra guciiz ederrac beren jayera eta estimacioaren siñalean, musica eta sermoyacquin Santa Cruz-en eguin ciozcaten*» (*ibid.*, 231), *Azcoitico erriac* (*ibid.*, 129), «*Azcoitico mugapean ere arquitzen dira colore ascotaco nabarria iori ematen duten arrobi aberatsac*» (Izt., 1847: 55), «*Azcoitico mugapean iturri guezagozo asco dira chit, bai ta osasunguilletzat ondo ezagutuac dauden ugaiotarrak*³⁷ *ere bi*» (*ibid.*, 81), «(Urolak) *jarraitzen du bere joaira Azcoitira eta Azpeitira [...] lagatzen du ezquerrerontz Azcoitia eta escuitara Loiolaco jauregui eta eliza andi ospatsu erri bien artean dagoana. Azpeitico erriaren ondoan artzen ditu [...]*» (*ibid.*, 113), «*Santiago egunean Seguraco mercatutic, San Andres-coan Azcoititic*» (*ibid.*, 186), «*Azcoitico erri gozatsuan jaio izan dira seme arguidotar anitz arma eta letra-etaraco*» (*ibid.*, 455), «*Seme jatorrak beti baditu / Azkoitiako erriak*» (Erauskin, 1932a [1920]: 154), «*nork uste zuan Azkoitiarra / iristen zanik ortano*» (*ibid.*, 154), «*Ba zitun etsaiak Azpeitin, Azkoitin, Zumarragan, eta gizatalde bat atzetik zetorkion*» (Orixe, 1985 [1929]: 66), «*Azkoitiarra JOSE TOMAS ta / abizenez ETXANIZ naiz*», «*Azkoiti'ko bi gizon jatorren oroimenean*» (Urreta, 1931: 58), «*Amezketatikan / ta Azkoititikan*» (J. J. Sarasola, 1932c: 237), «*Atano deitzen zayon / azkoitiar orri*» (Xardia, 1932: 292), «*Ta zuek, Bergara'ko euskeltzale onak, bai-eta Eibar, Arrasate, Oñati, Elgoibar, Soraluze, Azkoiti, Azpeiti ta abarrekoak*» (Lizardi, 1972 [1934]: 119).

Ebak.: *Askóitti* (abs.) (Antzuola, Pavo, 2005: 175), [aʃ.kó.i.ti.fén] (in.), [af.kó.i.ci.ku.è] (lek.g. + abs.) (Azk-011), [aʃ.kó.i.ti.fè] (abs.), [aʃ.kó.i.ti.fèn] (in.) (Azk-014), [af.kó.i.cìn] (in.) (Azk-040), [áf.ko.i.ti] (abs.), [áf.ko.i.tin] (in.) (Aiz-001), [aʃ.kó.i.ti.ko.á] (lek.g. + abs.), [áʃ.ko.i.ti] (abs.) (Alo-003), [af.ko.i.ti.rè] (adl.), [af.ko.i.ti.jèn] (in.) (Azp-029), [aʃ.kó.i.cìn] (in.) (Ord-025) (Ord-031), [áj.ʃ.ku.tí] (abs.), [áj.ʃ.kwi.tí] (abs.) (Zmg-030).

Etímol.: Ortelius-ek (1588: 19) euskara gaztelaniaz arras bestelakoa dela esaten du, eta leku anitzek bi izen dituztela, *Aspeitia*-k adibidez, bestela *Vrazueitia* eta *Saluaterra de Yraugui* dena, eta *Azcoytia*, beste izenez *Vraz goitia* eta *Miranda de Yrargui* (*sic*) deritzana. Larramendik (1985 [1754]: 51-52) honela dio: «*Izoarritz*, montaña altísima, en la jurisdicción de *Azpeitia* y *Azcoitia*, de la cual tomaron ambas villas sus nombres, y significan *Monte Arriba* y *Monte Abajo*».

Humboldték (1990 [1821]: 49), Astarloaren (1803: 233) jazetaniarren *Ascerris* (Ptolomeok dakar) aztertzean, esaten du durangarraren arabera osagaiak *erria* 'tierra, país' eta *acha* 'peña' direla³⁸. Gero, honela jarraitzen du Humboldték (*ibid.*, 49-50): «No es preciso creer que aquí *acha* se ha convertido en *asc*, pues la *c* en los nombres antiguos

³⁷ 'Metal urak'.

³⁸ Astarloaren liburuan *Lacetanos* heldu da, ez *Jacetanos*.

tenía el sonido *k*. El nombre se descompone en *Asc-erris*. A la sílaba radical *asta*: peña, le corresponde sólo *as*; *c* (*co* y también *go*) expresa la idea de altura, y el conjunto significa: lugar en lo alto de la peña». Ondoren dio Astarloaren arabera *As-coitia*-k 'goian kokatua dagoena' («situada en la altura») eta *As-pe-itia*-k 'mendiaren oinean kokatua dagoena' («[situada] al pie de la montaña») esan nahi dutela.

Vinsonen ustez (1909: 353), *Askoitia*-n eta *Aspeitia*-n (*sic*) *haitz* 'roc', 'montagne' dugu; bi toponimo horien adiera, aipatu autorearen iritzian, «le bas et le haut de la montagne» da, hots, «le haut de la montagne» lehenaren kasuan, eta «le bas de la montagne» bigarrenarenean. Azkuek (1927: 183) *aitz* 'haitza' eta *goiti* dakuski *Azkoitia* izenean, *Azkarai*-n *aitz* eta *garai* dakuskien era berean.

J. de Yrizarrek (1935: 563) Larramendiren *Corografía*-ko erreferentzia (ikus goraxeago) eta B. de Arregiren artikulua batena ematen ditu, non klasikotzat har dezakegun azalpena ageri baita. B. de Arregik, Larramendiren ildotik, «arriba de la peña» eta «debajo de la peña» iraultzen ditu *Azkoitia* eta *Azpeitia* gaztelaniara, oraingoan ere *peña*-tzat Izarraitz hartzen duela. Yrizar bera, ordea (*ibid.*, 564), ez dago ados iritzi klasiko edo hedatu horrekin, *Azkoitia* eta *Azpeitia* herriak Izarraitz gainean eta azpian ez daudelako, behean baizik, haren hegoaldean, eta, horregatik, *haitz* (*aitz* edo *aiz* darabil ahotan) izenean oinarritutako azalpenek ez dute gogobetzen. Haren ustean hiribilduek ugaldearen aldean duten kokalekua garrantzizkoagoa da, eta etimologia hor xerkatu behar da, Orteliusen 1588an emandako datuen oinatzetan-edo.

Caro Barojak (1945: 133) «bajo la peña» itzultzen du *Azpeitia*. Mitxelenak (AV, 21) (*h*)*aitz*-en eratorrien artean sartzen ditu *Azpeitia* eta *Azcoitia*; bigarren osagaiak *be(h)eiti*-ren *-peiti* (*ibid.*, 141) aldaera eta *goiti* (*ibid.*, 285) dira erreteriarren arabera. Irigoienek (1990: 189–190 eta 1995: 167), aldiz, 1319ko *Aezcoytia*, *Ahezgoytia* eta 1348ko *Aezpetia* aldaerak oinarri hartuz, oztopo zerbait dakusa aipatu *haitz* + *beheiti*, *haitz* + *goiti* azalpen horietan, baina ez ditu argi eta garbi baztertzen. Probintziako toponimoak Nafarroako *Aezcoyen*-ekin eta Lapurdiko *Hasparren* (izen ofiziala) / *Hazparne*, *Ahazparne* (euskal izena) eta *Ahetze*-rekin estekatzea entseatzeko da.

Gure ustez, Mitxelenak (1950: 458) nahi zuen bezala *haitz* izena erdiesteko **ani(t)z* edo **ane(t)z* batetik abiatu behar badugu, ez dago arazorik dokumentazioko *Ahezgoytia* (1319), *Ahezcoytia* (1324), *Azpeitia* (1340), *Aezpetia* (1348), *Aizpeytia*, *Azpeitia*, *Azcoitia* (1497–1519) eta beste esplikatzeke tenorean, sudurkaria ahula zela eta hasperendu zela onesten bada. **Anetz* hartzen badugu oinarritzat, **ahetz* aterako zen lehenik gure toponimoetan, *Ahez*- bihurtua euskaraz afrikatua igurzkaritu egiten delako, ondoren herskaria dagoenean (*fr. Zarautz* baina *Zarauzkoa*). Garai batetik aitzina hasperena galduko zen, eta *Aez*- segida *Aiz*- bilakatuko, lepokariak (ikus Mitx., 1977a: 68) eta bigarren osagaiko palatalak lagunduta. Gero, ongi ezaguna da gure toki izenetan ardura *Aiz*- > *Az*- diptongo bakuntzea gauzatu izan dela, Nafarroa Garaiko eta Behereko *Azkarate*-n, konparaziorako.

Zein *haitz* den toponimoen oinarrian dagoena ez da erraz esatea, baina zentzuzkoena da bi herrien artean den edo zen harkaitz zenbait zatekeela pentsatzea, Loiola

aldekoren bat menturaz. Hau erreferentzia harturik bereiziko ziren herriak: *Azkoitia*-k, goitixeago dagoenez geroztik (113 metro gora), *goitia* hartuko zuen, eta *Azpeitia*-k (80 metro gora), beherago baita, *beheitia*.

HerritarIz.: *azkoitiar*. [aʃ.kó.ji.a.ràk] (abs.) (Azk-014). «Etxen[agusia]: *Azkoitiarra al zera?* / Alkatea: *Ez jauna ez! azpeitiarra*» (Labayen, 1976, II: 63).

HerritarEz.: *xakelak* ('igelak'). J. Goikoetxeak (1967: 30) honela dio: «BEBA-RRU. Hall, vestibulo. Voz naturalizada en Azkoitia, tanto que sus convecinos los llaman *bebarrutarrak* no sin cierto dejo irónico».

Arrietamendi

Udala: Azkoitia (birt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Arrietamendi*³⁹.

Dok.: *Arrietamendi* (ai., Mad., III, 1847: 17), *San Martin de Arrietamendi* (erm., ca., Nopgui, 1857: 8).

Dok.: *Martirieta* (Azkoitiko auzoa, 2009b, AzkM), *Martirieta* (Azkoitiko bas. [galdua], *ibid.*). Cfr. Santos Emeterio y Celedonio Mártires (*par.*, Donostiako elizbarrutiko artxibo historikoa).

Dok.: (Top.) «...*la Iglesia de Sant Meder de Cendoia de tener he mantener dos bacas pazideras suias en quada año fasta que se doblen*» (Azkoitia, 1496; Ayer., 1993: 44), *Aguirre de Cendoya*, *Cendoya* (Isas., 1850 [1625-26]: 113), «*San Medel de Cendoya, iglesia devota y rectoria, en jurisdiccion de Azcoitia*» (ai., *ibid.*, 211), *Cendoya* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 6), *Zendoia* (Azkoitiko bas., 2009b, AzkM).

(Antrop.) *Sancho Yvannes de Çendoya* (Azkoitia, 1413; Ayer., 1993: 44), «...*e de la villa de Hayscoytia Martin Lopes de Çendoya, procurador de la dicha villa*» (Oiartzun, 1455; Le. eta b., 2002: 195).

EuskalOnom.: *Juan Sanches de Arrieta*, *Pero Sanches de Arrieta* (Azkoitia, 1413; Ayer., 1993: 43, 44), *Arrieta-arrasa*, *Arrieta-astarbe*, *Arrieta-munúa*, *Arrieta-ubayar* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 6), *Arrietarraza*, *Arrietaetxetxo*, *Arrietamunoa* (Azkoitiko bas., 2009b, AzkM).

Arrieta Gipuzkoan (Zegamako biztanle entitate berezia), Araban (Iruraiz-Gauna eta Trebiñu), Bizkaian (Mungialdea) eta Nafarroan ere (Artzibar) badago.

EuskalOnom.: *Martires* (Bergara [barrio Munao], *casa con molino*, Mad., XI, 1848: 265).

EuskalTes.: «*Otsolarre ori Azkoitiko partean dago; Aitzburutxotik gora joan Martirita aldera eta azkeneko basarria. Oso mendian dago*» (Uztapide, 1975: 271).

³⁹ Biztanle entitate bereziaren izen ofiziala izanagatik, Administrazioaren arloaz landara, inork gutxik darabil *Arrietamendi*; hain zuzen, *Martirieta* da egun gailentzen den animoa. Elizatearen jatorrizko deitura, baina, *Zendoia* da, baserri izentzat dirauena.

Ebak.: [már.ti.càn], [már.ti.cèn] (in.), [már.ti.cà] (abs.) (Azk-009), [már.ti.i.tà] (abs.) (Azk-020), [már.ti.tʃe.kó.ʃeɲ.dó.j.ku.à] (lek.g. + abs.) (Azk-034).

Ebak.: [ʃeɲ.dó.jà] (abs.) (Azk-016), [ʃeɲ.do.jà] (abs.), [ʃeɲ.dó.j.ku.è] (lek.g. + abs.) (Azk-034).

Etimol.: *Arrietamendi*-ren jatorria bistakoa da: osagaiak *Arrieta* aurkintza izena eta *mendi* izen arrunta dira; *Arrieta*-renak, bestalde, *harri* izena eta leku-ugaritasunezko *-eta* atzizkia ditugu. Alegia, hasieran *Arrieta* ‘harri lekua’, ‘harria / haitza dagoen tokia’, ‘harriak dauden gunea’-edo zatekeen.

Etimol.: *Martirieta*-n *martiri* ‘kristau fedeari uko ez egiteagatik hil dena’ izen arrunta eta *Arrieta*-n den leku-ugaritasunezko *-eta* berrekailua ditugu. Hemen notatzekoa da oinarria biziduna dela, eta ez da kasu bakarra, ezagunak baitira sorburuan pertsona izena duten *Marieta* (*Mariaeta* 1025ean) eta *San(t)soeta* Arabako herri izenak (bigarrena despopulatu; Sala., 2015a: 270–271), besteak beste.

Etimol.: *Zendoia*-ren azalpena ez da hain erraza. Berehala Zestoako *Endoia* toponimoa datorkigu burutara, eta gero Arrasateko *Bedoña*, hau aurreneko testigantzetan *Bedoya* baitzen. Jakina da, izan ere, toponimoak egoki esplikatzeko biderik onenetakoa sail batean sartzea dela, era honetara argi zerbait egiteko edota etorkiaz eta eremu banaketaz zerbait esateko aukerak berretzen direlako, toponimoak ilunak izanik ere.

Zendoia-ren kasuan ezin diogu euskararen barneko azalpenik eman, eta beraz beste bidea, antroponimikoa, saiatu beharra dago. Hautagaiak Eslovenian edireten dugun *Sentonius* eta Frantziako Itsas Alpeetan lekukotzen den *Centonius* dira (EDH), oraingoan egokiena lehena hain segur. Bestetan bezala (ikus *Gabiria* sarrera), *(*uilla*) *sentoniana* ‘Sentoniusen bazterretxea’ moduko batetik abiatzen bagara, **Zendonia* litzateke emaitza segur aski, ez *Zendoia*. Arazoa gainditzeko dauden bide ez-kanonikoetako bat hasierako *(*uilla*) *sentoniana* ustezko hura sudurkari disimilazioz **Sentoiana* bilakatu zela kontu egitea da; ondoko **Sentoiana* > *Zendoia* bilakaera guztiz arauzkoa litzateke (ikus *Andoain* eta *Bedoña*). Bi sudurkari ahulak aldi berean hasperendu eta erori direla ere kontu egin liteke, apika.

Adjektibo balioa zukeen *(*uilla*) *sentonia*-ren moduko bat ere eman liteke iturburutzat, eta hola disimilazioaren beharrik ez legoke, **Zendōhīa* > **Zendōfīa* > *Zendoia* izango bailitzateke bilakaera.⁴⁰ Ikus *Gabiria* sarrera. Arazoa da adjektibo batean oinarriturik bide dagoen Nafarroako *Marcilla*-tik hurbil *Berbinzana* dugula, eta iparralde-rago *Markalain*, eta, oro har, Hegoaldeko toponimoek berrekailuen laburtzearen alde hitz egiten dutela (*Audika* / *Audicana*, *Baternia* / *Paterniana*, *Buia* / *Bujana*, *Sopela* / *Sopelana*...). Bi bideak batean ere bizi zitezkeen, ez dago horretan ezinkizunik.

⁴⁰ Ez dakigu aldakuntzen kronologia erlatiboa xuxen zein den, eta, geroztik, hemengo hau goiti-beheitiko bilakaeratzat hartu beharko da.

Izarraitz

Udala: Azkoitia (bizt. ent. ber.; elizatea).

Dok.: *Yçarrizpe*, «moiones por Yçarrizpe arriba» (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 194, 195), *sierra de Yçarriz* (1458, 1487?, Ayer., 1993: 33, 64), *Izarritz* (Isas., 1850 [1625–26]: 231), «Izarritz, montaña altísima, en jurisdicción de Azpeitia y Azcoitia» (Larra., 1985 [1754]: 57), *Monte de Yzaraiz* (López, 1770), *Izarritz* (Izt., 1847: 36), *Itzarritz* (monte, DRAH, I, 1802: 208, 390), *Itzarritz* (ai., Azpeitia, Mad., IX, 1847: 469–470), *Izarritz* (Azpeitia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 12), *monte de Izarritz* (Go., 1862: 77), *Izarritz* (Azpeitia, ba.ru., *ibid.*, 88).

EuskalTes.: «Gure Izarritzco arri nabar edo jazpe ederraquin emen Loyolan guertatcen dana» (Kard., 2004 [1761]: 45), *Izarritz*, «Izarraizco aitzaren gañetic aguiri dira», *Izarraitzen* (Izt., 1847: 36, 37, 38), «Cestonaco mendi Izarraitz, eta Erchina deitzen zaiotenean badirá arrobiac [...] Azpeitico mendi ospatsu Izarraitzcoan arquitzen dira arrobi balio andico asco» (*ibid.*, 55), «Guisa berpereco arri puscac topatzen dira erri onetaco (Zestoako) mendi Izarritzcoan ere» (*ibid.*, 74), «Loiolaco atari aurea, barrumpeco ibiltoqui, sualde eta guela-etarañooc daude iturri eder garbiaquin ondo janciac. Erri onen mugapeco mendi Izarraitzcoan dago iturri bat miraritsua chit» (*ibid.*, 82) «Carga la Izarraitz, / Descarga la Erniyo, / Guarda la Altzola, / Endemás la Semeola» (Barandiaran, 1972a [1923]: 300; Aiako Semeola baserrian jasotako konjuroa).

Ebak.: [i.ʃá.raj̥.ʦ̥i.kèn] (abl.) (Azk-025), [i.ʃá.raj̥.ʦ̥èn] (in.) (Azk-036), [i.ʃá.raj̥.ʦ̥èn] (in.), [i.ʃá.raj̥.ʦ̥i] (abl.) (Ant-045).

Étimol. DRAHk (I, 1802: 223) *Deva* sarreran honela dio: «Entre sus varios montes se distinguen el citado de Anduz, que significa *grande frío*, el de Izarraitz, esto es, *peña de Izlar*, é Izarra, que quiere decir *Estrella*».

Azkuek (1969 [1905]: 449) *izar*-ek toponimian ‘gaina’ adiera duela dio:

En toponimia significa “altura”, en *toponymie signifie “hauteur”*. = En Alaba hay un pueblo muy elevado llamado *Izarra*; en Gipuzkoa es muy conocido el monte pelado *Izarraitz*, “peña de la altura”, situado entre Azpeitia y Azkoitia. En Nabarra siglos atrás tradujeron al latín el nombre *Izarra*, que sin duda llevaba Estella y conserva actualmente una montaña contigua a la villa; solo que, confundiendo las acepciones, tomaron por “estrella” lo que significaba “altura”.

Beste autoreek esan dutena jakiteko ikus Arabako *Izartza* herri izena (Sala., 2015a: 223–224). Hor diogunez, Lacoizquetari (1994 [1888]: 57, 69, 136) jarraikiz, uste dugu oinarria *izar* belar izena dela, eta Gipuzkoako mendia kasuan ere hori bera dukegu. Iztuetak (1847: 45), Lacoizquetaren aitzinetik, *izarberarra* ‘hierva estrella’ eta *izarberar ezea* ‘estrellamar’ dakartza.

Atzikia hemen *-itz* leku-ugaritasunezkoa dateke, Nafarroako *Ziaurritz* herri izenean eta Iruñeko *Zeapeitz* aurkintza izenean dugun bera (oinarriak *ziaurri* eta *zeape* ‘ziapea’ landare izenak dira), testigantza zaharretan *-aitz* ez, baizik *-itz* azaltzen delako. Uste izatekoa da egungo *-aitz* bukaera herri etimologiari zor zaiola. Bestalde, lekukotasun zaharrei eta egungo ebakerari oharturik, biziki argi ageri da oinarria *izar*-dela,

ez *itzar*-. Beraz, eta laburbilduz, jatorriz '*itzar* deritzan belarra ugaria den lekua' zatekeen oronimoaren adiera.

Martirieta (ikus *Arrietamendi*)

Zendoia (ikus *Arrietamendi*)

Azpeitia (-a)

IzenOfiz.: *Azpeitia*.

Dok. (Top.) Orellak (1982: 717) honela dio:

El nombre primitivo de la población que existía anterior a la villa burguesa de **Azpeitia** era el de Garmendia. El privilegio real de 1310 crea la nueva villa burguesa y se le impone el nombre de Salvatierra de Iraurgui. El mismo texto lo reconoce: “todos...que quieren venir poblar a Garmendia... que tengo por bien de facer y puebla agora”. Y en otro momento: “Por fazer bien y merced a los mis pobladores de Garmendia que es en Iraurgui”.

Lekukotasunak: «*el solar de Elorrmendi, que es ateniendose al termino de Ayzpeitia*» (1340, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 224), «...tierra de Aezpetia, que es comarca e iuridición del monesterio de Soreassu», «...tierra de Azpetia, que es comarca e iuridición del monesterio de Suriasu» (1348, 1363, *ibid.*, 254, 319), *tierra de Haezpetua / Haezpatia* (1371, *ibid.*, 1996: 32), «*Azpeytia e Azcoytia*», «*Azcoytia e Azpeitia*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 51, 61), *Aspeytia* (1397, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), «*Villagrana de Çumaya e Belmonte de Usurbill e Santa Crus de Çestona e Salvatierra d'Iraurgui Aspeytia e Miranda d'Iraurgui Ascoytia e Montreal de Deva e Villamayor de Marquina e Sant Andres d'Eyvarr*» (1417, Ayer., 1993: 85), «*las villas de Azpeitia e Azcoitia*» (1460, Lar. eta Ta., 1993: 173), *Ayspeytia, Aispeytia, Azpeytia, Aizpeytia, Aspeytia* (1479, Ayer. eta E., 2008: 93, 134, 138, 152), *juridición de Yraurgui-Azpeytia* (1489, Ayer., 1997: 561), «*Ayzcoitia e Ayzpeitia*» (1497-1519, Zum., 1999: 52), *Salvatierra de Yraurgui-Azpeytia* (1502-1528, Ayer., 1997: 582), «*juridición de Ayzpeytia e Azcoytia*» (*ibid.*, 584), «*Agora esta villa se dize Azpeytia, dexando los nombres de Saluatierra e Iraurguy*», *Saluatierra de Iraurgui Azpeytia* (Gari., II, 1628 [1571]: 250), *Aspetia (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Azpeitia (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29, 114)*, «*Vrola [...] per Legazpium vallem ac per Azcoytia, Azpeytia, & Sancte Crucis Cestonæ vrbium [...]*»⁴¹ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), *Azpeytia (vi., López, 1770)*, «*Azpeitia, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa [...]. Llamóse antiguamente Iraurgui*», «*Usa por armas la villa en campo de plata una caldera negra colgada [...] y letrero que dice ARMA IRAVRGVI AIZPEITIAE*» (DRAH, I, 1802: 140-141), *Azpeitia (vi., Mad., III, 1847: 215-218; Go., 1862: 87)*.

EuskalTes.: «...eta ezaguturic guztia onen vertuteen otsa, alabatzen zutela Azcoiti-Azpeitietaco ehandre andizqui guciac bereala joan ciran Josefa icustera» (Kard., 1882: 103-104), «*Bigaramonean Parroquián Cabildoco entierroa zuten, eta Azpeitico sei Apaiz Jaun, errico al zutenacquiñ etorri, eta elizquizunac, oi becela, eguin cituzten. Guero Azcoiti eta Azpeiticoac beren egunetan onra guciz ederrac beren jayera eta estimacioaren siñalean, musica eta sermoyacquin Santa Cruz-en eguin ciozcaten*» (*ibid.*, 231), «*Beretatic aterataco arriquin Azpeitico seme Don Francisco Ibero [...]*» (Izt., 1847: 52), «*Azpeitico mendi ospatsu Izarraitzcoan arquitzen dira arrobi balio andico asco*» (*ibid.*, 55), «...ibai chiqui pizcor bat, eta au bi ola ta

⁴¹ «Urola [...] Legazpiko ibarrean gaindi eta Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa hirietan barna [...]».

zortzi errota erabilliric jachitzen da Azpeitiara, Urolaco ibai andiarequin bat eguitera» (ibid., 91), «...eta emen bertara biribillatzen direanaquin bat eguiñic, zortzi ola darabiltzatela sartzen dira Azpeitian Urolaco ibai andira» (ibid., 106), «(Urolak) jarraitzen du bere joaira Azcoitira eta Azpeitira [...] lagatzen du ezquerrerontz Azcoitia eta escuitara Loiolaco jauregui eta eliza andi ospatsu erri bien artean dagoana. Azpeitico erriaren ondoan artzen ditu [...]» (ibid., 113), «San Iñazioetan Azpeititik nendorrela bide-ertz batean arkitu nituen» (Urruzuno, 1988: 228), «Azpeitian galdu zitzaizkion joia guzien izenak» (ibid., 228-29), «Gañera, Primo de Rivera, iru milla liberekin Azpeiti aldetik Santa Kruzengana zetorrela, Lizarraga ondo-ondotik pasa, ta su egin-bearrean agur eginda utzi» (Orixe, 1985 [1929]: 47), «Ba zitun etsaiak Azpeitin, Azkoitin, Zumarragan, eta gizatalde bat atzetik zetorkion» (ibid., 66), «Azpeitiko saillera aldatzeko» (ibid., 67), «Azpeitiyako San Inaziyon / bixita egin du sarri» (Xenpelar, 1932b: 108), «Azpeitiyako premiyuen gañian», «Azpeitira dirate / bersuetara deitu», «Ordu-ban Azpeitiyan / zan Alkate Jaunak» (Udarregi, 1932: 176), «zer notizi nituen / Azpeititikan» (ibid., 177), «Onrak merezi ditu / Azpeitiko erriyak» (ibid., 178), «Ta zuek, Bergara'ko euskeltzale onak, bai-eta Eibar, Arrasate, Oñati, Elgoibar, Soraluze, Azkoiti, Azpeiti ta abarrekoak» (Lizardi, 1972 [1934]: 119).

Ebak.: *Azpeitikue* (lek.g. + abl.) (Hualde eta Beristain, 2017: 68), [ajf.péj.tj.ré] (adl.) (Azp-008), [aš.péj.ti.jèn] (in.), [aš.péj.ti.kò] (lek.g.) (Azp-025), [aš.pej.ti.rè] (adl.) (Azp-029), [aš.péj.ti.jèn] (in.) (Azp-071), [aš.péj.ti.ku.á] (lek.g. + abs.), [aš.péj.ti.jàn] (in.), [ajš.péj.ti.jàn] (in.) (Aiz-001), [áš.pej.ti] (abs.) (Alo-003), [aš.péj.ci.ku.é] (lek.g. + abs.) (Azk-011), [aš.pej.ci.rà] (adl.), [aš.pej.ti.jèn] (in.), [aš.pej.ci.kò] (lek.g.) (Azk-041), [aš.péj.ti.rà] (adl.), [aš.péj.ti] (abs.) (Bea-008), [aš.péj.cìn] (in.) (Bei-021), [aš.péj.ti] (abs.) (Brs-028), [aš.péj.cin] (in.) (Ord-025), [aš.péj.ti] (abs.), [aš.péj.ti.jàn] (in.) (Zes-001).

Etimol.: ikus *Azkoitia*.

HerritarIz.: *azpeitiar*. «Etxen[agusia]: Azkoitiarra al zera? / Alkatea: Ez jauna ez! azpeitiarra» (Labayen, 1976, II: 63).

HerritarEz.: *xapoak* (zapoak).

Loiola

Udala: Azpeitia (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Loiola*.

Dok.: (Top.) *Lohiola* (1380, Ayer. eta E., 2008: 11), «Yo Veltran Ybanes de Honnas sennor del solar de Loyola» (1474, ibid., 91.), *La casa de Loyola* (Isas., 1850 [1625-26]: 114), *San Ignacio de Loyola* (López, 1770), *Loyola* (santuario, DRAH, I, 1802: 141, 457; Mad., X, 1847: 398), *Loyola* (convento, Nopgui, 1857: 12), *Loyola-ventacho* (Azpeitia, casa-posada, ibid., 13), *Loyola* (ba.ru., Go., 1862: 88).

(Antrop.) *Garçia de Loheyola* (azpeitiarra, 1363; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 321), *Beltran Yvanez de Loyola* (1378, Bar., 1982: 19), *Beltran Yuanez de Loyola* (Arrasate, 1378; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 95), *Lope Loyola* (Aramαιο, 1388; ibid., 261), *Lope Sanchez*

de Loyola (Begara, 1391; *ibid.*, 322), *Juan Peres de Loyola* (Azpeitia, 1449; Dz.S., 1993: 307), *Juan Peres de Loyola* (1502/1528, Ayer., 1997: 582).

EuskalOnom.: *Loiola* Donostiako eta Arratzuko (B) auzo banaren izena da; Aralarren, bestalde, *Loyola saroea* zegoen 1452an (Ayer. eta S.M., 2013: 123). Iparraldean, *Lohiola* eta *Lohiolaxaharrea* etxeak ditugu Kanbon (L), *Lohiola Oztibarre* Ibarrolan (NB) eta Altzürükün (Z); Iholdin (NB) aurkintza baten deizioa da *Lohiola*.

Euskal Autonomia Erkidegoan franko izan dira eta dira *Loiola* derizten baserriak. Honako herrietan dauzkagu: Aian, Berrobin, Eibarren, Gernika-Lumon, Irunen, Legorretan, Oiartzunen, Sopelan eta Zegaman. Eibarren *Loyola-abeleche* ageri da, Irunen *Loiolalde*, Amezketan *Loyola-zar* eta *Loiolaberri*, Zegaman *Loiolaburu* eta *Loiolako iturria* (EJ / Nopgui / IrnM / ZegM). Urumeako zilegimendietan badira *Zillegiko loia* (*Silleguico Loya*, 1773) eta *Barrako loia* (Zaldua, 2012a: 150) dermioak.

Nafarroan *Loiola* bat baino gehiago dauzkagu: Betelun (aurk.), Etxalarren (bas.), Zubietan (hiru borda), Artikutzan (mintegia) eta Orreagan (iturria), besteak beste. Intzan 1608an hau dugu: «*Ytten otro (castañal) en el termino de Inca en la endrecera llamada Loyola afrontada con el rrio caudal*» (NEAN, Ihabengo pr., 3, J. de Labayen), eta badirudi azken honetan, Donostiako auzoaren izenean bezala (Urumearen ondoan baita), lohia izatea ibaiaren hazialdiei zor zaiekeela.

EuskalTes.: «*Sant Ignatio Lohyolacoari esquerrac*», «*Ceure iaiat etchean, / Lohyola Iau-reguico / Aldare aiticñean*» (J. Etxeberri Ziburukoa, 1697: 236, 239), «*Escual-herritic hautatu eta athera tu millaca hambat presunaja vertutetsu eta legue sainduaren cridari eta sostengari: Ignacio Loiolacoaren eta Francisco Xauierco bi saindu hauquien presunetan*» (J. Etxeberri Sarakoa, 1907 [1712]: 38), «*Ignacio Loyolacoac, Escual-herrico edergaillu dohatsuac, preparatu cituen bere compainiaco ordenantçac*» (*ibid.*, 41), «*Gure Izarrizco arri nabar edo jazpe ederraquin emen Loyolan guertatcen dana*» (Kard., 2004 [1761]: 45), «*Egun oietan emen Loiolaco auzoan celo andico abade batec iltceco cegoen bati ta echecoai esan die [...]*» (*ibid.*, 1816 [1762], «bigarren abisoa»), «*Agustin Cardaveraz-ec Loyolaco Eche Santuban animen oneraco Euscaraz ipiñia*» (1882, azala), «*...eta guero Loyolaco colegiora bildu zan atsedetera*» (*ibid.*, 127), «*Loyolaco Aita S. Ignacioren eguneco iracur-aldia*» (Mendiburu, 1982 [1740-67], II: 153), «*Senda cedín, Frances berac artu tà eraman edo vidaldu zutèn Loyolaco bere ichera*» (*ibid.*, 155), «*Ordenatuze mezas, ta erranzue lembicicoa Loiolan S. Ignaciorí zión devócios*» (Lizarraga, 1994: 268), «*Jaióze S. Ignacio Loiolaco jaunengánic Guipúzcoan*» (*ibid.*, 485), «*Emén ordenaturic sacerdote lembicico meza erránzue Loiolan*» (*ibid.*, 521), «*...eta Loyolaco equida andi bitore gaiñ gañecoa [...] eta oetatic aterataco arriaquin eguiña arquitzen da Loyolaco aldare nagusico erretablo eder icusgarria*» (Izt., 1847: 55), «*Loiolaco atari aurrea, barrumpeco ibiltoqui, sucalde eta guela-etarañocoac daude iturri eder garbiaquin ondo janciac*» (*ibid.*, 82), «*(Urolak) lagatzen du ezquerrerontz Azcoitia eta escuitara Loiolaco jauregui eta eliza andi ospatsu erri bien artean dagoana*» (*ibid.*, 113), «*Il zan baño len atera zuten, jesuita zala, eriotz-ordurako Loiolara etorri nai zula*» (Orixe, 1985 [1929]: 57).

Ebak.: [ló.ʝo.làn] (in.) (Azk-023), [lój.o.lá] (adl.) (Azk-025).

Etimol. Etxabek (1970 [1607]: 57) honela dio, burdina kontuez ari dela: «...que en mi language nombramos en estas prouincias con *Olea*. Que es herreria, como *Olaçual*, *Olauerria*, *Çuazola*, *Gaiiola*, *Mendiola*, *Egurrola*, *Balçola* y *Loiola*, con otros infinitos que seria cansancio referirlos». Mogelek (1854: 675) hau dakar: «Si se dice *Loidi* significa “paraje de cieno”, lo mismo que *Loiola*».

Mitxelena (AV, 412, 483, 484) *lohi* ‘lokatza’ eta *ola* edo *olha* dakuski osagaitzat. *Ola*-z ari dela (484. sarrera), Azkueren «sufijo derivativo local» azalpena jasotzen du, eta *Iraola*, *Loyola*, *Otaola*, *Urquiola*, *Zubiola* eta bestetan *ola* ‘etxola’, ‘burdinola’ edo ‘leku’ den jakiten saiatzea alferreko gauza dela gaineratzen. Nolanahi ere, aurreko sarreran (483) *ol(h)a* ‘burdinola’ dela dio, eta erronkarietaz (*ōla*) eta zubereraz ‘etxola’ esanahia duela. Orreagako 1284ko agirian *ol(h)a* «bustaliza» dela gehitzen du, alegia, -hauek gure hitzak dira- beste gisan *eli* esan izan dena dela.

Irigoienek (1990: 60, 79) *Lo(hi)ola* toponimoa *Loidi*-rekin lotu eta esaten du osagaiak *lo(h)i* ‘barro, lodo’ eta *ol(h)a* ‘sel’ direla. Honetaz ikus Zaldia (2015) eta Salaberri (2015a: 146).

Nuarbe

Udala: Azpeitia (bizt. ent. ber.; auzoa), Beizama (auzoa).

IzenOfiz.: *Nuarbe*.

Dok.: *Nuarao* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Huarbe* (*sic*) (*va.o.ba.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Nuarbe* (*ai.*, *ibid.*, 211), *Huare* (*sic*) (*ba.*, López, 1770), *Nuarbe* (*ba.*, Mad., XII, 1849: 191), *Nuarbe* (*ba.*, Nopgui, 1857: 13), *Echeverría-Nuarbe* (Beizama, *ca.d.l.*, *ibid.*), *Nuarbe* (*aldea*, Go., 1862: 88).

EuskalOnom.: *Nuarbeco-ostatúa* (Beizama, *casa posada*, Nopgui, 1857: 15), *Nuarberreca* (*regata*, Go., 1862: 566).

EuskalTes.: «*Nuarben ere izan gera, askotan ez baña*» (Uztapide, 1975: 151).

Ebak.: [nu.ár.βe.kò] (lek.g.) (Azk-018), [nú.ar.βè] (abs.) (Bea-008).

Etimol.: Ez dugu testigantza zaharrik eta, egoera honetan, zaila da deus zentzuzkorik esatea. Amaia *be* ‘pea’ nahiz *arbea* ‘harpea’ izanenez gertatzen da, baina ezin seguruki jakin.

Urrestilla

Udala: Azpeitia (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Urrestilla*.

Dok.: *Vrestilla* (Ortelius, 1588, mapa), *Urriztilla* (*va.o.ba.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*En Urriztilla jurisdiccion de Azpeitia*» (*ibid.*, 115), *Santa Maria de Urriztilla* (*ai.*, *ibid.*, 211), «*En Azpeitia en el barrio de Urriztilla*» (*ibid.*, 644), *Urrestilla* (*ba.*, López, 1770), *Urrestilla* (*pob.*, DRAH, II, 1802: 413), *Urrestilla* (*ai.*, Mad., XV, 1849: 233), *Urrestilla* (*ba.*, Nopgui, 1857: 14), «*La jurisdiccion se compone del cuerpo de la villa, sus arrabales, la*

poblacion de Urrestilla, la aldea de Nuarbe» (Go., 1862: 88), «Urrestilla: poblacion dependiente de la jurisdiccion temporal de la villa de Azpeitia [...]. Se halla situada en la confluencia de las regatas denominadas Nuarbe-errecá y Araz-errecá» (ibid., 566).

EuskalTes.: «*Erri onetaco (Beizamako) mugapean bi errota iringuille erabilliric jachitzen dira ur oec Urrustillaco echadiara» (Izt., 1847: 106), «(Urolak) Azpeitico erriaren ondoan artzen ditu escui aldetic Beizama, Urrustilla, eta Erreciltic jachitzen diran urac» (ibid., 113), «Duntziñeroak ere askotan izaten ziran Santa Anatan Arruan. Urrustilko Xaxurra askotan etorri oi zan bere lagunakin» (Uztapide, 1975: 111), «Urrustillen ere izan gera» (ibid., 151).*

Ebak.: [u.rúʃ.til.ku.é] (lek.g. + abs.) (Azk-018), [u.rúʃ.ti.ʎà] (abs.) (Azk-045).

Etimol.: Dugun lekukorik zaharrena *Urriztilla* da eta, beraz, azalpena emateko tenorean hortik abiatu beharko dugu. Garbi dago lehen osagaia *hurritz* 'hurritz basoa' dela. Bigarrena ere, nahiz osorik ez dugun aurkitu, *-bil* 'biribila' adjektiboa izango da, eta bukaerako bokala artikulua. Horzkari ahoskabe aurrean *z > s* pausoa (*Urriztilla > Urristilla*) ongi ezaguna da, baita *urri- > urru-* bokal asimilazioa ere, *hurritz* (*hurreiz, urretx*) izenaren eratorrietan (ikus bedi *Urrexola* sarrera).

Bestalde, bokal arteko lekunean *b* igurzkaria erortzea ohikoa da, baita bokal errepikatuen bat-egitea ere (adibidez **Sorabakoitz > Sorakoitz*, Mañeruibar, N). Iturenen (Iñigo, 1996: 309) egungo *Pagólla, Pabólla* toponimoa, *Pagoyl* zen 1591n, *Pagolla* 1617an, *Pagobil, Pagobilla* 1618an (< *pago* zuhaitz izena, *bil* 'biribila' eta *-a* artikulua). Ikus *Sorabilla* aztertzean dioguna.

HerritarIz.: *urrestildar*. [u.rúʃ.ti̯.da.ràk] (abs.) (Ord-034).

beratze), *Sastarrain* (Deba, Zestoa), *Zenborrain* (Orbaibar), *Zuriarrain* (Amezketeta), e.a. Hauetan denetarik dago, zaharrak (Erdi Arokoak), XVII. gizaldikoak eta egungoak, hangoak eta hemengoak. Bukaera hau aski iluna da oraindik, eta franko dago ikertzeko, argi zerbait eginen badugu.

Gure ustez garbi dago *Baliarrain*-ek ez duela *Valeriani*-rekin eta *Valerius*-ekin zerikusi handirik, ezta, hain segur, *Ballariain*-ekin ere (honetaz ikus Sala., 2010c). Ikusi bezala, Gipuzkoako herriaren izena oinarri ilunxkoa duten *-arr(i)ain*-dunen sailean sartzen da, oraino ongi ikertzeko eta argitzeko dagoen toponimo interesgarrien multzoan. Bestalde, *tap*-aren indartzea kasuren batean menturaz onar liteke, baina *-arr(i)ain*-dun toponimoek saila osatzen dute, esan moduan, eta gehiegi irizten diogu denetan dardarkariaren lauzkatzea gauzatu dela pentsatzeari, batez ere lehen osagaiak, ardura, argiak ez direnean.

HerritarIz.: *baliarraindar*.

HerritarEz.: *zartaginak, zartagin zaharrak*.

Beasain

IzenOfiz.: *Beasain*.

Dok.: (Top.) «...nos los moradores de las collaciones de Atavn e de Beasain e de Zaldivia» (1399, Ayer. eta S.M., 2013: 11), *Beasayn* (1409–1410, *ibid.*, 145; 1464–1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 167), «collaçion de Santa Maria de Beasayn» (1483, Ayer. eta S.M., 2013: 149), «Martin “Sendoa”, bezino de Veasayn» (1536, Le. eta b., 2002: 456), *Beasain* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), «*Beasain y Yarza*» (vi., Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Veasayn* (vi., López, 1770), «*Beasain, part[ido] en la pr[ovincia] de Guipuzcoa, comprehende la villa del mismo nombre, y sus tres barrios Garin, Yarza y Araz*» (DRAH, I, 1802: 156), «*Beasain, v[illa] del part[ido] de este nombre, pr[ovincia] de Guipuzcoa, dió[cesis] de Pamplona*» (*ibid.*), *Beasain* (vi., Mad., IV, 1846: 97), «*Beasain [...] confina por oriente con Villafranca, por poniente con Gudugarreta, por sur con Lazcano, por norte con Beizama y Azpeitia [...] y tiene ademas tres barrios denominados Yarza, Garin y Araz*» (vi., Go., 1862: 100).

(Antrop.) *G[arcia] Ramirez de Bessain* (1211, Lac., 1949: 279. Irudi luke Goierriko herriaren izena dugula hemen), *Iohan de Beasayn* (Segura, 1424–1427; Dz.S., 1993: 135).

EuskalOnom. Cfr. *Leasáin* (Astigarreta [Beasain], ca.d.l., Nopgui, 1857: 1857: 1), *Leasáingo-errot*a (Astigarreta [Beasain], casa, m.h., *ibid.*), *Leasain* (Beasaingo bas., 2007, BeaM), *Leasainerreka* (erreka, *ibid.*).

EuskalTes.: «...bi erreca pizcorchoac; oetaco bat igarotzen da erriaren erditic, eta bestea Beasaingo erriarequin mugatzen dan toquitic» (Izt., 1847: 80), «*Beasaingo erri-inguruan badira amalau iturri, eta beraren mendietan asco chit*» (*ibid.*, 84), «...Arriaran, eta Gudugarreta, igarotzen da Beasaingo erriaren escui-aldetic» (*ibid.*, 115), «...cergaitic berroquei ta amar urtez onontz guertatu izan dan Beasaingo errian lambide au berpera» (*ibid.*, 161), «*Andic urte betera bezalatsu Irizar jauna etorri zan Beasaina*» (*ibid.*, 163), «...alacuc aurquituten dira San Martin de la Ascensionen jajotterriyaren ganian. Vergaracuc diñue ango semia dala, Beasainguac bertacua dala, eta Ibarranguelucuc ango semia dala [...]. Nic ez ditut iracurri, ez entzun, celacuc diran Beasainguac dauquezan errazoyac; Vergaracuc bai, baita Ibarrangueluco (batzuc batzuc bere): eta irurai entzun bagaric ecin emon leyan leguez erabaguija» (1862, Urkixo, 1935: 759), «*Beasaingo estazioa kixkaltzea [...]. Ataunen, Lazkaun, Beasainen, erri ontako estazioari su ematea zijoala [...]. Lazkaura joan zan petrolio billa, ta ango erriarrez inguratuturik, ba zijoan Beasain aldera [...] Illunabarrean sartu zan Beasaiñen*» (Orixe, 1985 [1929]: 79), «*Aita San Martin jaio zanean / Beasain'go partean*» (Zabala, 1992: 273), «*Bat, bi, iru lau, amar, hamalau: aitak saldu nau, amak erosi nau, Beasaingo alkate zarrak preso sartu nau*» (Azkue, 1989 [1935–1947], III: 142), «*Goiz baten nerekin etorri zan Beasaindik onera, Oiartzuna*» (Uztapide, 1975: 43), «*Kapea artu ta joango giñan Alegirra autobusean, eta andikan Beasaiña*» (*ibid.*, 58).

Ebak.: *Beasaiña* (adl.) (Zegama, Azur., 1997: 216), *Beasaingokin* (soz.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 44), [be.á.şaj̃n] (abs.), [be.á.şaj̃n.gon.tşàt] (dest.) (Bea-008), [bəá.şa.ɲèn] (in.) (Bea-019), [be.á.şa.ɲèn] (in.) (Ord-025).

Etimol.: Mitxelena (AV, 150) *Beraxa* antroponimoari eskaini ataltxoan *Berasategui* eta *Berastegui* sartzen ditu, eta «cf. top. *Barasoain*, *Berasain*, *Beasain*» gehitzen, seinale haren ustez elkarrekin nolabaiteko lotura bazuketela.

Itxuraz, bukaeran *-ain* atzizkia duen antroponimo baten aitzinean gaude, baina ez dugu **Bearzo*, **Bearso*-ren erakorik aurkitzen. Nolanahiko gisan, argi dago formaz Nafarroako *Beasoain*-etik hurbil dela, eta hau *Amatriain* (*Amatraeus*), *Garinoain* (*Garino*) eta *Makirriain* (*Macer*) dauden Orbaibarko *Barasoain*-ekin eta *Orisoain*-ekin lot litekeela, toponimo osoaren egitura eta Erdiko *-so-* hori aintzat edukirik. Ez dakigu, dena dela, Gipuzkoako herriaren kasuan inoiz tarteko *-o-rik* izan duen. Ikus *Berastegi* sarreran dioguna.

HerritarIz.: *beasaindar*.

HerritarEz.: *bareak*. «*Beasaindarrak*, *bareak*; *Idiazabdarrak*, *azeriak*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Aratz-Matxinbenta

Udala: *Beasain* (bizt. ent. ber.; auzoa), *Ezkio* (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Aratz-Matxinbenta*.

Dok.: *Araz* (*Beasain*, *ba.*, DRAH, I, 1802: 90), *Araz* (*ai.*, *Beasain*, *Mad.*, II, 1845: 456), *Araz* (*Azpeitia*, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 10), *Araz del cura* (*Azpeitia*, *casa de vivienda*, *ibid.*, 10), *Istinga de Araz* (*Azpeitia*, *ca.d.l.*, *ibid.*, 12), «*Araz, ó Machinventa*» (*Beasain*, *ai.*, *ibid.*, 87), *Araz* (*ba.*, *Go.*, 1862: 100), *Aratzerrota* (*Azpeitiko bas.*, 2014, *AzpM*), *Aratzerreka* (*auzoa*, *ibid.*).

EuskalOnom.: *Araz-erreca* (*Azpeitia*, *ba.ru.*, *Go.*, 1862: 88), *Araz* (*ba.*, *ibid.*, 100), *Araz-erreca* (*regata*, *ibid.*, 566), *Aratzerrota* (*Azpeitiko bas.*, 2014, *AzpM*), *Aratzerreka* (*auzoa*, *ibid.*). Aizkorri ondoan *Aratz* mendia dago.

EuskalTes.: «*Aratz-errekan ere izan giñan Jose Lizaso eta biok*», «*Matxinbentan ere bai, izan naiz*» (Uztapide, 1975: 151), «*Aiek Matxinbentakoak ziran, nagusia beintzat, eta bazkalondoan bertsotan eragin ziguten*» (*ibid.*, 314).

Ebak.: [ma.tʃi.me.ɲ.ta], [ma.tʃi.me.ɲ.tà] (abs.) (Bea-008), [ma.tʃi.me.ɲ.ta.ko.à] (lek.g. + abs.) (Bea-023), [ma.tʃi.me.ɲ.tàn] (in.) (Bea-047), [man.tʃi.mé.ɲ.tàn] (in.) (Azp-068).

Etimol.: Toponimo batean adjektibo hutsa ediretea ez da ohikoa; arruntena era bateko edo besteko izena eta adjektiboa aurkitzea da. *Aratz*, *arats* ‘ederra’, ‘purua’, ‘distiratsua’ izenondoa irudi duenaren kasuan ere hola ohi da; *cf.*, adibidez, *Altzolarats* edo *Lope González de Ydoyaraz* (Aramaio, 1388, *Mtez.*, *Glez.* eta *Mtez.*, 1996: 261). Bestela, atzizki batekin azaltzen zaigu adjektiboa (*Andiaga*, *Berdeaga* eta, beharbada, *Zuriza*), eta holakoetan *mendi*, *lur* edo paretuko bat ezabatua, isildua dagoela pentsatu behar izaten da, eskuarki. Kasu honetan dugun dokumentazioa ez da ez zaharra eta ez ugaria, eta ez dakigu xuxen gauzak nola diren.

Matxinbenta izendapenaren kariaz, irudi luke hasierako *Matxinen benta*, erabiltzearen poderioz eta bortxaz, *Matxinbenta* bihurtu dela, baina oraingoan ere eskas ditugu

testigantzak. Ongi ezagunak dira, zernahi gisaz, *Pettiriberro*, *Semeroaran* eta hauen irudiko toponimoak, *pertsona izena + izen arrunta* egitura dutenak.

Arriaran

Udala: Beasain⁴² (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Arriaran*.

Dok.: (Top.) *Arriaram (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Arriaran (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, «*San Pedro de Gudugarreta, parroquia con vicario, donde esta el palacio de Arriaran*» (*ai., ibid., 212*), *Arriaran (pu., López, 1770)*, *Arriarán (vi., DRAH, I, 1802: 121)*, *Arriaran (con., Mad., III, 1847: 216)*, «*Arriaran: concejo dependiente en lo temporal de la jurisdiccion del de Ichaso, perteneciente al partido judicial de Azpeitia, union de Azeria*» (*Go., 1862: 54*), *Arriarán (Itsaso, ba., ibid., 228)*.

(Antrop.) *Lope Garçia d'Arriaran* (Ormaiztegi, 1384; Dz.S., 1985: 123), *Lope Garçia d'Arriaran* (Beasain, 1384; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 211), *Lope Garcia d'Arriaran*⁴³ (1384, *ibid.*, 210), *Lope Garçia de Arrieran* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 130), *Lope de Arriaran* (1457, Orella, 1983: 47-48).

EuskalOnom.: *Arriaran* (Beizama, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 15), *Arriaran* (Itsaso, *ba., ibid.*, 27), *Arriaran* (Irun, *ibid.*, 48), *Arrearan* (Arrasate, *ibid.*, 125), *Arriaran* (Leitzako bas.; Jim. zuz., 1997g: 63), *Arriaranerreka* (Beasaingo erreka, 2007, BeaM).

EuskalTes.: «...lagatzen dituelaric ezquerrerontz bidasti aldi batean Astigarreta, Ichasoleorra, Arriaran, eta Gudugarreta» (Izt., 1847: 114-115), «*Arriarango mendian iturri guezagozo asco dira chit, baita ugaiotarrac ere; ceintzubetatic eguiñerutzen diraden erreca ciztor anitz*» (*ibid.*, 80), «*Ori ola pasa zan, eta urrengo igandean Erreterin trena artu nuan Arriarana joateko, eta Emilio Pasaian sartu zan trenera*» (Uztapide, 1975: 26-28), «*Anaia oiek ziralako joango giñan gu, seguru, Arriarana*» (*ibid.*, 39), «*Oiek ere Arriarango zerrari oien lagunak ziran*» (*ibid.*, 44).

Ebak.: [á.ri.a.ná] (adl.), [á.ri.a.nèn] (in.), [á.ri.a.ñ.dik], [á.ri.a.ñ.di.ó] (abl.) (Bea-003), [a.ri.á.ra.ná], [a.rí.a.nà] (adl.), [a.rí.a.ràn] (abs.) (Bea-043), [á.ri.a.ra.nèn] (in.) (Bea-047), [á.ri.a.ràn] (abs.) (Ano-002).

Etimol.: Osagaiak *harri* eta *haran* izen arruntak dira (AV, 89), hau da, hasmentan 'harri franko dituen harana, ibarra' zatekeen hau.

Astigarreta

Udala: Beasain (bizt. ent. ber.; auzoa, kontzeju zaharra).

IzenOfiz.: *Astigarreta*.

⁴² 1927 arte Itsasokoa zen.

⁴³ Agiri berean «...*eglesia de Sant pedro d'Arratran*» (*sic*) dago.

Dok.: (Top.) «vezindades de Gudugarreta e Astigarreta» (Beasain, 1384, 1393; Dz.S., 1985: 124, 178), «vezindades de Gudugarreta e Astigarreta», «e de Gudubarreta e de Astigarreta», «vezindades de Gudugarreta e de Astigarreta» (1384, 1387, 1393, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 210, 249, 374), «...Astigarreta e Guduarreta ocho fuegos» (1464-1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 167), *Astigarreta* (Ortelius, 1588, mapa), *Astigarreta* (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*Astigarreta. San Martin. Villa*» (*ibid.*, 112), *San Martin de Astigarreta* (ai., *ibid.*, 212), *Astigarreta* (pu., López, 1770), *Astigarreta* (vi., DRAH, I, 1802: 127), *Astigarreta* (con., Mad., III, 1847: 49), *Astigarreta* (vi., Nopgui, 1857: 1), «*Astigarreta* [...] *Confina con Beasain, Arriaran, Ezquioga, Ichaso y Azpeitia*» (vi., Go., 1862: 66).

(Antrop.) «...quemaron la casa de Miguel Peritz de Astiguareta, e tornaronse en la noche Arbiçu et a Morguindota» (1261, Gar.Ar., 1996: 52), *Ochoa d' Astiguareta* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 141), *Martin de Astigarreta* (Tolosa, 1528; Ayer. eta Dz.S., 1996: 514).

EuskalOnom.: *Astigarreta* Erroibarko (N) herria ere bazen (1280, Zabalo, 1972: 66, 142).

EuskalTes.: «*Astigarretan daude erriaren inguruan lau iturri ur guezagozo garbia naroró ematen dutenac*» (Izt., 1847: 80), «...lagatzen dituelaric ezquerrerontz bidasti aldi batean *Astigarreta, Ichasoleorra, Arriaran, eta Gudugarreta, igarotzen da Beasaingo erriaren escui-aldetic*» (*ibid.*, 114-115), «*Lizarraga Astigarretan omen zegoan 1.600 gizonekin*» (Orixe, 1985 [1929]: 66).

Ebak.: [aʃ.tí.ɣa.re.tàn] (in.) (Bea-047) (Ord-036).

Etimol.: Osagaiak *astigar* zuhaitz izena eta leku-ugaritasunezko *-eta* atzitzia dira, alegia, hastapenean 'astigarra dagoen lekua', 'astigar ugari dauden tokia' zatekeen. Ikus *Astigarraga* eta *Astigarribia*.

Garin

Udala: Beasain (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Garin*.

Dok.: (Top.) «...*abaxo de Garyn*» (Beasain [Astigarreta], 1471; Ayer., 2006: 144), *Garin*, *Carin* (Ortelius, 1588, mapa), *Garin* (*casa*, Isas., 1850 [1625-26]: 112), *Garin* (ai., *ibid.*, 212), *Garin* (ba., López, 1770), *Garin* (lu., DRAH, I, 1802: 299), *Garin* (ba., Mad., VIII, 1847: 317), *Garin* (ai., Nopgui, 1857: 88), *Garin* (ba., Go., 1862: 100), *Garinarrese* (Beasaingo etxea, 2007, BeaM).

(Antrop.) *Cfr. Pedro de Garayn* (azpeitiarra, 1363; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 295, 321).

EuskalOnom.: (Top.) *Garin* (Azpeitia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 12), *Garin* (Orio, *ibid.*, 53), *Garinberri* (Azpeitiko bas., 2014, AzpM).

(Antrop.) *Garin Gartias* (Oñati, 1149; Omaetxebarria, 1957: 116), *Garin* (Mendi-gorria, 1366; Carrasco, 1973: 568). *Cfr. Santio Galin* (Iruñea, 1127-1142; Goñi, 1997: 158).

EuskalTes.: «Gariñen ere izan gera. An San Sebastian egunean dira pestak. Ori Beasaingo bailara bat da» (Uztapide, 1975: 134).

Ebak.: [gá.rin] (abs.), [gá.rin̄.gò] (lek.g.) (Bea-023), [ga.rín̄.go.á] (lek.g. + abs.) (Bea-043), [ga.rí.nen] (in.) (Bea-047).

Etimol. Honen etimologia azaltzeko bi bide dakuskigu: a) deskribatzailea, baldin eta 1363ko *Pedro de Garayn* azpeitiarrak etorki Beasaingo auzo honetan bazeukan, b) deantroponimikoa, oinarrian antroponimoa dagoela kontu egitea.

Lehenaren arabera, bukaerako *-n* noizbait barneko lekunean, bokal artean, egon zenaren ondorio dela pentsa daiteke, hots, oinarrian **garane* edo **garani*-ren moduko bat zegoela (cfr. **usani* > *usai* / *usain*) eta gero *Luquiain* > *Lukin* edo *Morentiain* > *Morentin*-en moduko bilakaera izan dela (ikus Euskaltzaindia, 1990: 213–214). Honek duen alderdi txarra da *Garain* ez dela han-hemen behin edo beste baizik azaltzen, eta gehiago irudi duela guk «bizkarroi» deitu dugun *-n*-dun aldaera, Nafarroako zenbait herritan edireten dugun *Urrutin(a)*-ren erakoa (hemen halarik ere *urrun* + *-ti* > *Urrutin* izan dezakegu, sudurkariaren metatesiarekin), beste ezer baino. Gainera, *Garain* behin bakarrik dokumentatzen da, eta, bestalde, ez dakigu *Pedro de Garayn* zeritzanak Beasainen ote zuen etorki. Guztiaz ere, *Urdangarin* deiturarekin batean (ikus *Urdaneta* sarre), *Urdangarin* ere bada egun.

Bigarren azalbidean *Garin* pertsona izena dela pentsatu behar genuke, hau da, germaniar zaizkikoa bide den *Galindo*-ren eta honen proklisiko *Galín* aldaeraren euskal



Garin (Beasain)

forma litzateke (*Garindo, Garino, Garin*). *Garindo* Zuberoako *Garindaine* herri izenaren oinarrian dago, *Garino* Nafarroako *Garinoain*-enean eta *Garin* Oñatiko *Garin Gartias* (1149, Omaetxebarria, 1957: 116) eta Mendigorriko *Garin* (1366, Carrasco, 1973: 568) bizilagunen izendapenetan dugu. Bigarren azalbide honek duen alderdi ustela da antroponimoak, huts-hutsak, ez ohi direla agertu, izen baten edo berrekailu baten la-guntzarik gabe.

Gudugarreta

Udala: Beasain (hiribildua izandakoa).

IzenOfiz.: *Gudugarreta*.

Dok.: (Top.) «*illas hereditates quas habeo in Imas et in Gudubarreta*», «...*illam hereditatem de Gudubarreta, que fuit de Andereçu Heresaiz*» (1211, Lac., 1965: 279), «*vezindades de Gudugarreta e Astigarreta Beasain*» (1384, Dz.S., 1985: 124), *Gudugarreta* (1384, *vezindad*, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 210), «...*e de Gudubarreta e de Astigarreta*» (1387, *collaciones*, *ibid.*, 249), «*vezindades de Gudugarreta e de Astigarreta*» (1393, Dz.S., 1985: 178), «*vezindades de Gudugarreta e de Astigarreta*», «*e de Gudubarreta e de Astigarreta*» (1393, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 374, 379), «...*Astigarreta e Guduarreta ocho fuegos*» (1464-1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 167), *Gudugarreta* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 112), «*San Pedro de Gudugarreta, parroquia con vicario, donde esta el palacio de Arriaran*» (*ai.*, *ibid.*, 212), *Gudugarreta* (*pu.*, López, 1770), «*Gudugarreta, v[illa] de la alcaldía mayor de Areria*» (DRAH, I, 1802: 311), *Gudugarreta* (*vi.*, Mad., 1845-1850: 53; Nopgui, 1857: 26), «*Gudugarreta [...]. No tiene iglesia parroquial propia, por cuya razon éstos tienen que asistir a la de Arriarán a oír misa*» (*vi.*, Go., 1862: 200).

EuskalTest.: «*Gudugarretaco mugape chiquian ere ezagutzen dira iru iturri*» (Izt., 1847: 94), «...*lagatzen dituelaric ezquerrerontz bidasti aldi batean Astigarreta, Ichasoleorra, Arriaran, eta Gudugarreta*» (*ibid.*, 114-115), «*Villa de Gudugarreta, ez eliza eta ez errota*» (Bea-035).

Ebak.: [gu.đú.ɣa.re.tà] (abs.), [gu.đu.ɣa.ré.tán] (in.) (Bea-035).

Etimol.: Formari doakionez, garbi samar dago aldaera zaharra *Gudubarreta* dela eta gero, aurreranzko asimilazioz ($g - b > g - g$), *Gudugarreta* sortu zela (ikus Mitx., AV, 314), XIV. gizaldiaren akaberarako, nahiz eta denbora hartan jatorrizko *Gudubarreta* ere bizirik izan, artean. Hitz barnean ez ezpainbikorik ez belarrrik ez duen *Guduarreta* daukagu XV. mendean (cf. Nafarroako *Murubarren* > *Murugarren* [ezpainbiko disimilazioz], eta *Muruarren*), eta XVII. gizalditik aurrera beti *Gudugarreta* dago.

Etimologia dela eta, Mitxelenak (1969: 5) ez du uste hasierako *Gudu*-n *gudu* 'borroka', 'gerra' dugula. Honela dio: «Nada tiene de seguro, naturalmente, que las dos primeras sílabas del nombre de población tengan que ver con el discutido vasc. ant. *gudu* 'combate'; sería más verosímil encontrarlo como apodo (cf. rom. *Guerra*) en *García Periz Gudu*». Azken hau Iruñeko bizilaguna bide zen, Erdi Aroan.

Mitxelenak berak AVeko *bake* 'paz' sarreran (127) honela dio: «*Baquea*. Cf. sobre-nombres medievales como *Gudu*, rom. *Baraylla* (*sic*), *Guerra*, *Rinna* (Navarra, 1280)».

Baraylla hori *Bataylla* dela zalantzarik ez dago, testuinguruagatik eta gero ere Vianan *Bataylla*, *Batailla* identifikatzailea *Garcia* edo *Garçia* baten lagun ageri delako (1350, 1366, Carrasco, 1973: 334, 641). Errenteriarrak aipatzen dituzenez lekora, *Borrocaria* (Artaxoa, 1330; *ibid.*, 301), *Burruca* (Hernani 1401; Her. eta Fdez., 2011: 17) eta *Luchabien* ere (Muetz, 1366; Carrasco, 1973: 589) ekar daitezke hona.

Mitxelenak esanak esan, guri bururutzen zaigun azalpen bakarra toponimoaren osagaiak *gudu* ‘borroka’, *ibar* ‘harana’ eta leku-ugaritasunezko *-eta* atzizkia ditugula pentsatzea da, hots, toponimoa jatorriz ‘borroka ibarraren lekua’ edo iduritsuko zerbait zela. Honek esan nahi luke hasierako **Guduiabarreta* forma *Gudubarreta* bilakatu zela lehenik, eta *Gudugarreta* ondoren, disimilazioz. Dena dela, bigarren osagaia dirudiena *barren* hitz arruntaren oinarrian bide den **bar* ere izan liteke (ikus Gorrotxategi eta Lakarra, 2001: 432; ikus orobat Irig., 1995: 164), osotasunaren adiera guztiz garbi ikusten ez den arren. Beste aukera **gudubar* oinarri ezezaguna eta leku-ugaritasunezko *-eta* berrekailua ditugula pentsatzea da.

Zernahi gisaz, aintzat har bedi Tolosan, 1349an, *Miguel Martinez de Gudura* izeneko kaparea bizi zela (Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267). Hondar deizioa, *Gudura*, beste anitzetan bezala etxe edo baserri baten izena zatekeen, eta ezin osotara baztertu aztergai dugun toponimoarekin lotura zerbait zuelako ustea. Guztiarekin ere, Roldanek (1991: 48) *Miguell Martinez de Gundura* edo *Miguell Martinez de Gondura* dakar, urte berean, *-n*-dun aldaera alegia, eta lausoa zen esteka ilunduago gelditzen da hola.

Beizama

IzenOfiz.: *Beizama*.

Dok.: (Top.) *Beyçama* (1384, Rol., 1991: 81), *Beyçama* (1467, Ayer., 1997: 360), *juridiçion de Beičama, Beyçama* (1536, *ibid.*, 361), «...*passando sus exercitos a las montañas, que estan entre las villas de Azpeytia y Tolosa, assentto sus reales en el lugar de Beysama, que muchos latinos escriuen Bagasama, aunque Ptholomeo y Orosio dizen Segisama, y Strabon Segesama, siguiendo a Polybio*» (Gari., I, 1628 [1571]: 176), «...*y tambien Veyçama, que ellos (los historiadores antiguos) nombran Vagasama*» (*ibid.*, II, 341), *Veicamo (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), «...*pues en solo escribir nuestros nombres, en pocas vezes los historiadores latinos y griegos los descompusieron de tal manera que agora casi no entendemos lo que quisieron dezir, como se ve [...] por dezir Beyçama dizen Bagasama, y Seguisama, si ya no es esta Seguisama Çegama, que no esta muy distante de Beyçama*», «...*la juridicion de Beyçama, á quien llaman los escriptores con su acostumbrada corrupcion Begasama*» (Etxabe, 1970 [1607]: 24, 49), *Beizama* (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*Beizama; o Bagasama la antigua*» (*ibid.*, 110), *Beyzama* (ba., López, 1770), «*Beizama, univ[ersidad] de la alcaldía de Sayaz, pr[ovincia] de Guipuzcoa, del arcip[restazgo] mayor y ob[ispado] de Pamplona. Llamóse antiguamente Beguizama ó Seguizama*» (DRAH, I, 1802: 159), *Beizama* (lu. o univ., Mad., IV, 1846: 112), «*Beizama: universidad del partido judicial de Azpeitia, union de Sayaz*» (vi., Go., 1862: 103).

(Antrop.) *Anton de Veyçama* (Tolosa, 1499; Le. eta Ta., 1996: 128), «*Miguel de Beyçama, escrivano publico*» (Getaria, 1499; Le. eta b., 2002: 261).

EuskalTes.: «*Veizaman icusten dira oguei ta lau iturri ur garbi ona iori ematen dabena*» (Izt., 1947: 105), «(Urolak) *Azpeitico erriaren ondoan artzen ditu escui aldetic Beizama, Urrustilla, eta Erreciltic jachitzen diran urac*» (*ibid.*, 113), «*Baso taru bat izandalako / Beizama'ko partian*», «*Telefonua Beizama'tikan / jo zuen gure errira*» (Errezilgo basomutila, 1932: 294), «*Aralar, Urbietta, Narbaitzu, Agiñegi, Beizamako basoak, Albiztur, Urkizu [...]*» (Orixe, 1987: 43), «*Espuru gañetik zer ageri din? Beizamako baserri bat, Albiztur, Ernio [...]*» (*ibid.*, 64), «*Berela (sic) zabaldu zinan Beizama aldera ta Aya aldera*» (*ibid.*, 74), «*Beizaman ere izan gera iñoiz*» (Uztapide, 1975: 153).

Ebak.: [beḷ.ṣá.mà] (abs.), [beḷ.ṣá.màn] (in.) (Bei-021), [béḷ.ṣa.mà] (abs.), [béḷ.ṣa.màn] (in.) (Bid-008).

Etimol. Honela dio Zalduak (2016: 200): «Es uno de los ejemplos que pone Mitxelena (1964: 133; 1969: 31) cuando diserta sobre nombres de lugar no explicados dentro del vasco mismo».

Bukaera, *-ama*, superlatibo indoeuroparra dateke, baina ez dakigu xuxen oinarria zein den. Menturaz, eta hipotesizat dakargu hona, Delamarrek (2007: 194-195) biltzen dituen *Ueniso*, *Uenisa*, *Uenissius*, *Uenix(x)amus*, *Uenix(x)ama* antroponimo zeltetatik abia gaitezke, Probintziako toponimoa argitzeko. Aurreko lan batean, aipatu autoreak (2003: 312) *ueni-* «clan, famille, lignée» ('ou celui du -') lexemari eskaini atalñoan hartzen ditu ahotan Lepontoko *Uenisa*, *Uenisamus*. Hauetan oinarriturik, dena dela, jatorrizko adiera zein zen ez da, gure irudiko, garbi gelditzen.

Prósperrek (2018: 123) dakarren Austriako Teufenbacheko *Vēnim[a]* (*coniux*) pertsona izenaren **Vēnisama* superlatiboa (Alpeetako *Vēnisamorvm* populu izena dokumentaturik dago, genitibo pluralean; *ibid.* eta Delamarre, 2007: 194) izan daiteke xerka gabiltzan oinarria, horren etimoa, Prósperrek (2018: 123) dioenez, **duen-isamo-* baita, hots, latineko *bonissimus* ‘arrunt ona’ superlatiboaren pareko forma.

**Vēnisama*-tik *Beizama*-rako pausoa onartzeko modukoa dela dirudi, hasierako *V-* gure hizkuntzan ezpainbiko bihurtu zela, bokal arteko sudurkari ahula hasperendu eta lekutu zela, eta txistukaria lepokaritzat geuretu genuela onesten bada. *Beizama* etorkiz, hola izatera, Gipuzkoako bereko *Billabona*, Arabako *Villabuena* edo Lapurdiko *Lekuine* (*Bonloc* erdaraz) herri izenen etorkizko adierari hurrari legoke. Ikus *Arama* eta *Zegama* sarrerek.

Zernahi dela, latin zaharrean *duenos*, *duonos*, *duonus* ‘ona’ bazen ere (*bonus* latin klasikoan; Ernout eta Meillet, 1994 [1932]: 73; Pokorny, 2002 [1959], I: 218), aitzinzelan ‘indartsua’ bide zen erroaren esanahia (Matasović, 2009: 110) eta, beraz, ezin txoil baztertu *Beizama* toponimoa *Billabona*-ren adierakide ez, baizik *Zegama*-rena (ikus sarrera hau) delako ideia, etorkiz.

HerritarIz.: *beizamar*.

HerritarEz.: *makilak*. Cfr. *Diego Vrtiz Maquilla* («Plasencia», 1370; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 17).

Belauntza

IzenOfiz.: *Belauntza*.

Dok.: (Top.) «...de Santa Maria de Gastellu e Sant Juan de Velaunça e de Sant Juan de Ahanoeta» (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), «los molinos de Ybarra e Belaunza» (1532, Le. eta b., 2002: 402), *Velaunça* (*univ.*, 1551, Ayer., 1997: 172), *Velaunça* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Belannea* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Belaunça* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Belaunza* (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Belaunza* (*pu.*, López, 1770), *Belaunza* (*lu.*, DRAH, I, 1802: 160), *Belaunza* (*vi.*, Mad., IV, 1846: 122; Go., 1862: 105).

(Antrop.) «*Miguel Martinez de Belaunça* [...] *Iohan Gonçalez de Belaunça*» (Tolosa, 1312; Lar. eta Le., 1995: 18), *Pero Miguell de Vel(h)ança, Pero Miguell de Belaunça* (1349, Rol., 1991: 51), *Martin de Velaunça* (Tolosa, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488), «*Johango de Liçavr, dicho “Velavñça”*» (Oiartzun, 1499; Iri. eta Le., 2011: 106), *Maestre Diego de Belaunça* (Tolosa, 1528; Ayer. eta Dz.S., 1996: 512), *Martin Diego de Belaunza* (Tolosa, 1532; Le. eta b., 2002: 368), *Juanot de Belaunza* (Tolosa, 1539; *ibid.*, 459).

EuskalOnom.: *Joseph de Belaunzaran* (Urnietia, 1660; Ayer., 2015: 897), *Belaunzaran* (*ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 71), *Belaunburu*, *Belaunburuazpia* (Alkizako aurk., 2005, AlkM).

EuskalTes.: «*Belaunzaco baserri-echeric gueienac dituzte beren iturri garbi jaquiñac atari inguruan*» (Izt., 1847: 85), «*Bereala artzen du Iraramendiren ondoan Araxes deitzen zaiion ibai Nafarroan jaio eta Lizarzatic datorrena, eta emendic chit guertu, Elduain-aldetic jachitzen diraden urac bereganaturic [...] lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza, Oreja, Gaztelu, Berrobi, Leaburu, Belaunza eta Ibarra*» (*ibid.*, 115-116), «*Beste (herri) bat Belauntza dago, Tolosatik joaten dana*» (Uztapide, 1975: 126).

Ebak.: [be.láun.tʂàn] (in.) (Bel-001), [be.láun.tʂà] (abs.) (Brb-005).

Etimol. Mogeleg (1854: 734) ‘bele bilkura’ dakusa toponimoan: «Belauntza, ó Belaunza. Congregación de cuervos, ó fecundo en estas aves negras: de *bela* “cuervo”, y *untza* “union, junta”. Seria la tierra fecunda en cuervos».

Mitxelenak (AV, 147) *belar* eta *une* dakuski oinarrian. Guk (Sala., 1997: 13), Aezkoako *belaun* ‘belaia’ aipatu ondoan, esaten dugu *Belauntza*-n *belaun* hori bera eta *-tza* lekuzkoa daudela, *Belarkuntze* Zuluetakoa toponimoan *belar* oinarria eta *-kuntze* lekuzkoa atzizkia dauden bezala. Cfr. Zaraitzu Espartzako *Belaunegia* aurkintza (Jim. zuz., 1995d: 34-35) eta Arrankudiaga eta Ugaoko *Belaunaga* basoak (BFA). Arinek (1951: 132) Ataungo *Aya-belaungo-illorra* jasotzen du.

HerritarIz.: *belauntzar*.

Berastegi

IzenOfiz.: *Berastegi.*

Dok.: (Top.) «*Lerin, Oiarzun, Lauaien, Berastegui, Arayñç, Larraun, Araria [...] et tota Ypuçcoa*» (1007 [c. 1032⁴⁴], Goñi, 1997: 28), *Verastegui* (1027, Llor., III, 1806-1808: 358), *Berastegui* (1141, Mtez.Dz., 1975: 203), *Berastegui* (1186-1189, *ibid.*, 4; Bar., 1989: 434), «*Blastegui e Eldua*» (1313, Lar. eta Le., 1995: 20), «...*por lo de Blastegui e de Eldua*» (*ibid.*, 29), «*los conçeýlos de Blastegui et de Elduayen*», «*los dichos conçeios de Blastegui et de Elduayen*» (1319, Zab., 1997: 496), *Blastegui* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 139), «*las dichas collaciones e vniversidades e personas singulares de [...] Sant Martin de Verastegui e de Santa Cathalina d'Elduayen e de Sant Pedro de Leaburu*» (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), *Verastigny (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Berastegui* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), «*Berastegui y su barrio de Eldua*» (1615, *ibid.*, 673), *Verastegui (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, *Berastegui (vi., López, 1770)*, *Estrecho de Berastegui (ibid.)*, «*Berástegui, part[ido] de la prov[incia] de Guipuzcoa*», «*Berástegui, v[illa] del part[ido] de este nombre*» (DRAH, I, 1802: 164), *Berastegui (vi., Mad., IV, 1846: 235; Go., 1862: 106)*.



Berastegi

⁴⁴ Barrenak (1989: 432), doktore tesian, 1186-1189koa dela dio.

(Antrop.) *Miguell Sanchez de Blastegui* (Tolosa, 1312; Lar. eta Le., 1995: 18), *Iohan Miguel de Berastegui* (Lesaka, 1320; Zab., 1997: 515), *Miguell Belça de Berastegui* (Tolosa, 1348; Rol., 1991: 40), *Miguell Martinez de Belastiguy* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267), *Garçia de Berastegui* (Donostia, 1379; *ibid.*, 1996: 104), *Pero Martinez de Velastegui* (Bergara, 1391; *ibid.*, 320), «*Ojer de Verastegui vezino de Verastegui*» (1459, Ayer. eta Dz.S., 1996: 479), *Martin de Berastegui* (Iruñea, 1485; Ciér. eta Ra., 1998: 125), *Juan Perez de Berastigui* (Andoain, 1528; Ayer. eta Dz.S., 1996: 539), *Lucas de Berastegui* (Tolosa, 1539; Le. eta b., 2002: 459).

EuskalOnom.: «*cum suo molino quod est circa Yhauar, et illo collaço de Berastegui Gaiz*» (Arakil, 1178; Goñi, 1997: 311), *Blastegui* (1268, Felones, 1982: 657). *Berastegigaitz* ez ezik, *Berastegi* ere bada, ibar berean: «...*in Uirizegui II, in Berastegui III, in Catizzau I*» (1143, Goñi, 1997: 215), «...*in Ocue [...] in Gatiçano, in Berastegui, in Urriçegui*» (1226, Gar.Lar., 1957: 193), *Blastegui* (1268, Felones, 1982: 657; 1280, Zabalo, 1972: 73), «*la vila de Blastegui*» (1388, J.J. Uranga, 1954: 269), «*el lugar desolado y termino de Verastegui*» (1575, NEAN, Hiriberri Arakilgo pr., 4, M. Ureta), «...*las de mas endreçeras y terminos de Verastegui e Madoz*» (1594, *ibid.*, 2, J. Mendivil). Ikusten den bezala, *Berastegi* eta *Berastegigaitz* bi herrixka ziren, ez bakarria, Idoatek (1967) Arakilgo herri hustuen gaineko lanean aipatzen ez baditu ere, ez 1534an ez 1800ean; egun *Berastegi* Hiriberriko dermioa da. Longidan ere bada *Berastegi* izeneko aurkintza, Meotz herrian, *Berastegui* lekukotua 1611n (NEAN, Agoizko pr., 13-bis, 624. bin., M. de Alli), eta Almandozen ere bada *go* izen bereko beste aurkintza bat. Irigoienek (1986: 233) Miraballesko 1375eko *Vrriberastegui* dakar, eta, Gipuzkoatik atera gabe, *Berastegui* zegoen Azpeitian (*ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 10) eta Zizurkilen (*ibid.*, 91), XIX. gizaldian.

EuskalTes.: «*Berasteguico erriac badu burni-meatzte ugaria chit*» (Izt., 1847: 67), «*Verasteguico plazaren erdian dago iturri eder bat ur garbi ona iori ematen dabela*» (*ibid.*, 105), «*Bereala artzen du Iraramendiren ondoan Araxes deitzen zaion ibai Nafarroan jαιο eta Lizarzac datorrena [...] lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza*» (*ibid.*, 115-116), «...*non laztantzen zaion gogoz Leizarango ibai pizcor Berasteguicoarequin batean Nafarraldetic datorrena*» (*ibid.*, 116), «*Manuel Santa Kruz Gipuzkoako Elduainen jayo zan, Berastegitik Tolosa alderako lenengo errian [...]. Erreka-zulo ori, Berastegitik Ibarrañoko ori, lapurzulotako polita dala esan diteke*» (Orixe, 1985 [1929]: 15), «*Santa Kruz Berastegin zegoala agindu zion alkateari goardi bakar batzuk ipintzeko Gaztelu-aldeko gañetan, liberalik ba zetorren ere*» (*ibid.*, 63), «*Espuru gañetik zer ageri din? Beizamako baserri bat, Albiztur, Ernio, Urkizu, Ernialde, Andazarrate, Izazkun, Leaburuko dorrea, Gaztelumendi, Berastegi-muga*» (*ibid.*, 1987: 64), «*Berastegira eraman zunaten soka-dantza erakustera*» (*ibid.*, 192).

Ebak.: [béastè] (abs.) (Zaldúa, 2012a: 836), *Beastin* (in.) (Labaien, 2017: 4), [be.áš.tèjn] (in.) (Brs-002).

Etimol.: Mitxelena (AV, 150) *Berastegui* deitura *Berastegui*-rekin lotzen du, eta dio oinarrian *Beraxa* izen berezia dagoela, (Nafarroako) dokumentazioko *Berastegui*-n *Beraxa* zeritzan zergapekoa bizi zelako (ikus Goñi, 1997: 202). Irigoienek (1983: 33),

Oñati-ren etimologia aztertzean, Elgoibarko *Oñastegi* etxea aipatu eta esaten du osagaiak *Oñas* pertsona izena eta *-tegi* ‘lekua’, ‘jabetza’ direla, eta *Berastegi*-renak *Beras(a)* edo *Berax(a)* eta *-tegi*. *Beratz* adjektiboarekiko erlaziorako ikus Gorrotxategi (1984: 163).

Gipuzkoako herriari doakionez, gogoan hartzekoa da 1313an eta 1319an *Blastegui* ageri dela. Honek esan nahi duke Nafarroako *Belascoáin* (*Blascoayn*, *Belascoayn*) / *Beraskoain*-en moduko harremana dugula, nahiz Probintziakoan, Etxauribarko herri izenean ez bezala, euskarazko aldaera nagusitu den. Oinarria **B(e)lats(a)* > *Berats(a)* antroponimoa dela garbi dago, Atezko *Beratsain* herri izenean dagoen bera (atzizkia *-ain* jabegokoa da). Aintzat hartu behar da Iruñerriko Subitza herrian, Galar zendea, *Beraxa* izenaren gainean eraturako *Beraxaiz* patronimikoa ageri dela (*Santius Beraxaiz*, 1080, Martín Duque, 1983: 159; ikus Sala., 2003: 163-164). Berrekailua *-(t)egi* lekuzkoa da *Berastegi*-n.

HerritarIz.: *berastegiar*.

Eldua (-a)

Udala: *Berastegi* (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Eldua (-a)*.

Dok.: (Top.) «...desde el m[olino] de Eldua fasta el arroyo que es entre Berrovi e Eldua e desde el agoa mayor de Elduaraxe» (1312, Lar. eta Le., 1995: 18), «*Verastegui y Eldua veinte e quatro fuegos*» (1464-1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 167), *varrio Eldua* (1539, Le. eta b., 2002: 459), *Eldua* (Ortelius, 1588, mapa), «*Berastegui y su barrio de Eldua*» (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Eldua de Verastegi* (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Eldue* (ba., López, 1770), *Eldua* (ba., DRAH, I, 1802: 241), *Eldua* (ai., Mad., VII, 1847: 464), *Eldúa* (ai., Nopgui, 1857: 89), «*En el termino jurisdiccional de esta villa se halla comprendido el barrio de Eldua*» (Go., 1862: 107).

EuskalOnom.: «...desde el m[olino] de Eldua fasta el arroyo que es entre Berrovi e Eldua e desde el agoa mayor de Elduaraxe» (1312, Lar. eta Le., 1995: 18), *Elduerrota* (*Berastegi*, m.h., Nopgui, 1857: 89).

EuskalTes.: «*Bereala artzen du Iraramendiren ondoan Araxes deitzen zaion ibai Nafarroan jaio eta Lizarzac datorrena, eta emendic chit guertu, Elduain-alde tic jachitzen diraden urac bereganaturic [...] lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza, Oreja, Gaztelu, Berrobi, Leaburu, Belaunza eta Ibarra*» (Izt., 1847: 115-116).

(Antrop.) «*Juan de Astina, dicho Eldua*» (Lizartza, 1450; Le. eta Ta., 1996, 20.).

Ebak.: [ẽ̞.dú.a] (adl.) (Brs-028), [ẽ̞.dú] (abs.), [ẽ̞.dú.à] (adl.) (Brb-001).

Etimol.: ikus *Elduain*.

Bergara

IzenOfiz.: *Bergara*.

Dok.: (Top.) «...*quam posui ego Sancius, frater de domno Ziannam ad Sancti Iohannis in mea terra que dicitur Bergara, in monasterio que vocatur Arezeta, id est Sancti Michaelis*», *Vergara* (1050, Llor., III, 1806–1808: 371), *Bergara* (1053, Ubieto, 1963: 101 eta Mtez.Dz., 1975: 183), «*que fagades dar al cabildo de Armentia en Leniz e en Vergara*» (1266, Rodríguez, 1989: 265), «*fazer una puebla en Vergara e sennaladamientre en aquel logar que dizen Ariznia a que ponemos nombre de Villanueua*» (1268, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 41), «*poblados en Villanueva de Vergara*» (1273, *ibid.*, 1996: 48), «*en termino de Vergara en Ançuela*» (1307, *ibid.*, 1991: 109), *Villanueua de Vergara* (1348, *ibid.*, 257), *Uillanueua de Uergara* (1373, *ibid.*, 1996: 47), «...*en nonbre del concejo de la Villa Nueua de Bergara*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 71), *Vergara* (1401, Urz., 1990: 344), «*Los conçejos de Vergara y Elgueta y Elgoibar y Segura e Mondragon e Motrico*» (1457, Le., 2007: 181), «*Yò, Juan Martines de Çabalotegui, escribano, vesino de la Villanueva de Vergara*» (1461, Ayer. eta E., 2008 31: 90), «*las villas de Segura e Vergara e Elgueta e Leniz y Villareal de Urrechú*» (1497–1519, Zum., 1999: 52), *Vergara* (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142; Gari., I, 1628 [1571]: 286; Ortelius, 1588, mapa), *Vergara* (vi., Isas., 1850 [1625–26]: 29, 116, 184, 231, 277), «*Hic agros vallium Leynzij & Elguete, necnon Vergaræ & Plasenciae vrbium decurrens [...]*»⁴⁵ (Oihenart, 1992 [1637]: 682), *Bergara* (vi., López, 1770), «*Vergara, part[ido] de la prov[incia] de Guipuzcoa, que se compone de la villa del mismo nombre, y de sus barrios Oxirondo y Elosua*», «*Vergara, v[illa] del part[ido] de su nombre*» (DRAH, 1802, II: 440), *Vergara* (vi., Mad., XV, 1849: 674–680; Go., 1862: 580).

(Antrop.) *Garcia Bergara* (N, 1249; Gar.Ar., 1998: 84; arizkundarra?), «*Pero García de Vergara, carbonero, morador en Ayçarna*» (1394, Ayer. eta E., 2008: 34), *Pero de Bergara* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 295), *Doña Margarita de Vergara* (Andoain, 1545; Ayer. eta Dz.S., 1996: 546).

EuskalOnom.: *la cassa de Bergara* (Arrasate, 1706; Orma., 1996: 46), *Vergara* (Eibar, 1789; etxea, E.U.-Ego.Ib., 1995: 136), *Vergarene* (Donostia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 70), *Vergareche* (Legazpi, *ibid.*, 125), *Vergara-Echeberri* (Bergara, *ibid.*, 142), *Bergaranea aundi* (Andoain, 1897; etxea, Usa., 1993: 86), *Vergara-echeverri-aldea* (Antzuolako aurk. 1918; Pavo, 2005: 205).

Bergara Arizkungo (N) auzoa ere bada; agirietan hau daukagu: «*Johanche el del palatio de Uergara*» (1366, Carrasco, 1973: 531), «*En la tierra de Baztan [...] El palacio de Vergara solar*» (1512, NEAN, Comptos, erregistroak 2. saila, 1 zk., 20 bin.). Etxalarren, bestalde, *Bergaira* toponimoa 1740rako ageri da, *Bergáia* eta *Bergári* bihurtua egun (Jim. zuz., 1997h: 136).

⁴⁵ «Ibai hau (*Deua*), *Leintz* eta *Elgeta* haranak eta *Vergara* eta *Plasencia* hiriak zeharkatuz, [...]».

EuskalTes.: «[G]aldidila Vnçqueta ta Vergara / [C]aldibarrec bere partea debala / [Ar]amayo, suac erre açala / [Ta] sumi a[...]la Gurayarra / Cerren ceuren jauna ezcencan empara» (XV-XVI. m., Mitx., 1964: 82), «Por la gente de algunos pueblos que naturalmente por disposicion de sus astros son inquietos y bulliciosos, dizen: Bergara, ceñatu, eta aygara / Bergara, santiguete y pasa» (Gari., 1854 [XVI. m.]: 640), «Erdaona Bergara / su obea ezara» (XVII. m., Muru., 1974: 417), «Porque en Bergara, uno de los buenos pueblos de la tierra bascongada, sucede entre los vezinos aver de ordinario muchos pleytos, dizen: Bergara, Santiguete y pasa / Bergara, Ceñatu eta ygara. Ygara se dice por ygaro, por el consonante, porque tambien la arte poética tiene en esta lengua estas licencias» (ibid., Urkixo, 1919: 28; ikus orobat Mitx., 1985), «Ordenatuze mezas, ta erranzue lembicicoa Loiolan S. Ignacióri zión devócius; bigarrena Vergaran campo aguérrian etorrién génde andiarén casos» (Lizarraga, 1994: 268), «Emén ordenaturic sacerdote lembicico meza erránzue Loiolan, S. Ignacioren sortuecheco oratorioan. Bigarrena erránzue Vergáran» (ibid., 521), «...ceintzun gañean itzeguiten dan garbiró ta lucequi, Vergara-co Euscaldun Lagunquidac [...] zabalduco izcribuetan» (Izt., 1847: 54), «Vergaraco mugapean ezagutzen dira irureun iturri eta geuiago» (ibid., 105), «...alacuac aurquituten dira San Martin de la Ascensionen jaijoterriyaren ganian. Vergaracuac diñue ango semia dala, Beasaingnac bertacua dala, eta Ibarranguelucua ango semia dala [...]. Nic ez ditut iracurri, ez entzun, celacuac diran Beasaingnac dauquezan errazoyac; Vergaracuac bai, baita Ibarrangueluco (batzuc batzuc bere): eta irurai entzun bagaric ecin emon leyan leguez erabaguija [...]. Vergaraco uri arguissuban bada gueure euscalerriyan iraillaren amaicagarrenian, milla bost eun eta iruroguetazazpijan jaijo zan San Martin» (1862, Urkixo, 1935: 759), «Askotan aipatzen zun lenengo karlista-gerraren joera: Marotoren saldukeria; Bergarako besarka edo lastana ta olakoak, ezin burutik uxatu» (Orixe, 1985 [1929]: 20), «Jakín izan zun Santa Kruzec, karlistak Amorebietan utzi zituzten armakin, Bergaratik Mondraura zijoazela liberalak, beren mutil-sailentzako» (ibid., 32), «Gañera, ba ziran liberalak Oñatin, Bergaran, Mondragun, Aramayon eta Elorrión» (ibid. 33), «letu zazuten Bergara dagon / konbeniyoko papera» (Txirrita, 1931a: 11), «Bergara'ra "Saski-Naski" "Eusko-Ikaskuntza"-k deitu zulakoan nago», «Guk Bergara'n egitea, ta euskal-egun batez egitea eskatu degu» (Lizardi, 1972 [1934]: 53, 54), «Diogun lan ortan, Bergara'ko "Saski-Naski"-aldia ere ikutzen du Urloa yaunak» (ibid., 61), «Antzuolan sedea, Bergaran koipea, Elorrión buskantza, Durangon tronpää», «Bergara, ikusi eta igara. Variante de Garibay: Bergara, zeñatu (signarse) ta igara» (Azkue, III, 1989 [1935-1947]: 140, 142).

Ebak.: Azkuek (1933: 84) dio Bergaran berean barrideek, elkarren artean hitz egiten dutenean, *Bergaa* erabiltzen dutela. Beste testigantza batzuk: *Bergaráko* (lek.g., Izaguirre, 1994: 47), *Bergaran* (in.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 45), *Bergáa soúa* (abs.) (Antzuolako aurk., Pavo, 2005: 205), *Bergarakúa* (lek.g. + abs.) (Hualde eta Beristain, 2017: 68), [ber.yá.á] (abs.), [ber.yán] (in.) (Ber-152), [ber.yán] (in.) (Ant-079), [ber.yá.rá] (adl.), [bé.ya.ra.kò] (lek.g.) (Are-041), [ber.yá] (abs.) (Elg-001), [ber.yá.ra.kò] (lek.g.) (Oña-066), [ber.yá.ra.rá] (adl.), [ber.yán] (in.) (Sor-024). Aramaion Ormaetxeak (2006: 205) *Bérga* (abs.) bildu zuen.

Etimol.: Mitxelena (AV, 257) *Bergara* «etimología zailekoa» dela dio, eta Arabako *Virgala* (*Birgala de suso* eta *Birgala de iuso* 1025ean, Donemiliagako Rejan; Gar.An., 2010: 977) aldaera zaharragoa datekeela, hiztun erdaldunek erabilitakoa. Nafarroako *Vergara* XI-XII. mendeetan *Virgala* dela gaineratzen du, baina hau, irudi duen bezala Leireko dokumentazioko 1110eko *Virgala*-z ari bada (Mar.Du., 1983: 236), ez da zuzena, *Virgala* horrek Arabako herriari egiten baitio aipu.

Irigoienek (1987: 159-164), *Garai*, *Calahorra*, *Garagorri* eta beste aztertzean, ez du *Bergara*-ren etimologian sartu nahi, baina izen honek bigarren osagaitzat *kala* ‘senadi txikia’, ‘babeslekua’, ‘berokia’-tik ateratako aldaera (-*gara*, alegia) ez ote duen galdegiten dio bere buruari, Corominas-Pascualen (1987-1991, *cala* sarrera) eta Hubschmiden (1951: 23, 59; 1960: 470) lanetan oinarriturik.

Albertosek (2004: 260), *Deva* hidronimoa aztertzen duenean (ikus *Deba* sarrera), esaten du *Deva* ibaiaren ertzean *Vergara* indoeuropar toponimoa dagoela eta Araban *Virgala Mayor* eta *Menor*, *Birgala* Erdi Aroko iturrietan. Aipatu autoreak toki izen hauek behiala *Bergantia*, *Bergantium* ziratekeen Arabako *Berganza*, *Berganzo* toponimoekin es-tekatzeten ditu, eta esplikatzen hemen beste zenbait leku izenetan ere agertzen den *r / nt* aldizkatze ezaguna dagoela, adibidez Arabako *Corcora* edo *Corcuera*-n eta Santanderko *Corconte*-n edireten duguna.

Salaberrik (2011c: 72-73) honela dio:

Bergara (o *Villanueva de Vergara* en la Edad Media en la documentación no euskérica) es según Mitxelena (1997: 257) un topónimo de etimología difícil que se repite en el *Bergara* navarro (Arizkun), y está relacionado en opinión del mencionado autor con el *Virgala* alavés (*Virgala Mayor* o *Birgaragoien* y *Virgala Menor* o *Birgarabarren*, escrito *Birgala de suso* y *Birgala de iuso* en la llamada reja de San Millán de 1025 y *Virgala* en un documento de Leire de 1110). Considera Mitxelena que el *Virgala* alavés es quizás una forma más conservadora que la actual *Bergara*. Sin embargo, esta última no es moderna, pues la encontramos usada en euskera en un texto de 1448, en el que también encontramos su gentilicio *bergarar*.

Parece que la *Bergara* de Gipuzkoa y la *Bergara* navarra son el mismo topónimo, pero no sabemos si este es el caso del alavés *Birgala*, aunque el parecido entre ambos nombres es muy grande. La evolución de este último topónimo habrá sido *Birgala* > *Birgara*, con paso, habitual en euskera, de lateral a vibrante en posición intervocálica. Podríamos pensar que *Bergara* procede, de manera similar, de un anterior **Bergala* no documentado, el cual deberíamos hacer derivar de *Birgala*, si intentáramos unir los dos topónimos. No hay, sin embargo, razón aparente que justifique la apertura *-i-* > *-e-* en el caso de los nombres de la localidad guipuzcoana y barrio de Arizkun en Navarra, sin que esta misma apertura se haya producido en el topónimo alavés cuyo contacto con el romance ha sido, sin duda, mucho mayor, por su situación geográfica más meridional.

Nieto (1997: 359) opina que el topónimo no parece vasco y que puede guardar una última relación con el radical *berg-* ‘montaña’, ‘colina’. Irigoiene (1987: 162), basándose al parecer en los trabajos de Hubschmid (1951: 23, 59, 1960: 470), se pregunta si el final de *Bergara*

y del *Birgara* / *Virgala* alavés no procede tal vez de *kala* en su versión vasca, es decir, con paso de lateral a vibrante en posición intervocálica. El significado de este término presente en *Calagorris*, *Calagurris* (hoy *Calahorra* en La Rioja) sería según Irigoien ‘ensenada pequeña’ o ‘lugar protegido del viento’, ‘ladera soleada’ que menciona Coromines o bien ‘refugio, abrigo’ citado por Hubschmid.

Arabako herriaren izenaren kariaz, ondoko lan batean (Sala., 2015a: 139), esaten dugu dokumentazioa ikusita *Birgara* izango dela toponimoaren aldaera zaharra, eta *Virgala* hartatik atera datekeela, dardarkari disimilazioz.

Orain, García Alonsoren lana (2006: 693-694) irakurririk, geure buruari egiten diogun galdeitza da *Bergara* ez ote den Iberiar penintsulan hainbestetan aurkitzen dugun *-briga* zeltikoaren euskal ordaina, hau da, adibidez *Sego-briga* ‘indar muinoa’, ‘indar gotorlekua’, ‘garaipen gotorlekua’-n dagoen *briga* horren euskal ordezkaria. **bhrgh-* edo **bhergh-*etik abiatuz gero (Gorrotxategi, 2005: 165), euskaraz **Berg-* izanzen genuke menturaz Gipuzkoan eta Nafarroan, eta *briga*-tik hurbilago *Birga*-Arabian. Oztopo nagusia amaierako *-ara* azaltzean datza: aukera bat zenbait euskal toponimok duten *-ara* argitugabea ikustea da, hau *haran*-ekin lotua dagoela onesten bada. Gipuzkoako herriaren eta Nafarroako auzoaren kasuan zilegi da hala pentsatzea, biak haranean edo toki zelaian daudelako, inguruan mendiak izanik ere, eta berebat Arabako *Birgarabarren* eta *Birragoien*-i doakienez.

Arabako Langara Ganboa aztertzean (Sala., 2015a: 242) *Haiztara* (*Aistara* > *Aistra*) eta *Larrahara* arabarrak darabiltzagu ahotan, baita Arrasateko *Alçuara* ere, ziurtasunik gabe izan arren. Ez dakigu xuxen azalbide honetan barna abiatu behar dugun *Bergara*-ren kasuan, zein ere baita oinarria.

HerritarIz.: *bergarar*. «*Begararrac así dirá*, “los vergareses han comenzado”: Guerra, 274 (c. gamb. Mondr., 1445?)» (Ag. eta Mitx., 1958: 46), «*Begararroc así dirá / Trajioe baten asmaçean / Euroen artean dioela: / Erre deçagun Mondragoe*» (XV-XVI. m., Mitx., 1964: 83).

HerritarEz.: *mokoloak*.

Angiozar

Udala: Bergara (biz. ent. ber.; auzoa, ibarra). XX. mende arte Elgetako zati izan zen.

IzenOfiz.: *Angiozar*.

Dok.: (Top.) «...monesterio de Sant Miquell d’Anguiçoçar que es del dicho Pero Beles» (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 132), *Anguiçoçar* (1447, Ayer. eta E., 2002: 65), «*Elguetta con Aynguiçoçar veinte e ocho fuegos*» (1450-1519, Le., 2007: 115), «...*Elgueta con Anguiçoçar (sic) veinte e ocho fuegos*» (1464-1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 168), «*Juan de Urrexolaegui e de los vesinos de Anguiçoçarr*» (1458, Ayer. eta E., 2002: 100), «*la villa de Elgueta y Angonçoçar*» (sic) (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), «...*el terçero año del valle de Anguiocarr*» (1527, Le. eta b., 2002: 361), *Anguiçoçar* (Gari., II, 1628 [1571]: 338), *Agiuotar* (sic) (Or-

telius, 1588, mapa), *Anguiozar* (va.o.ba., Isas., 1850 [1625–26]: 29), *San Miguel de Anguiozar* (ai., *ibid.*, 211), *Angueruzar* (sic) (López, 1770), *Anguiozar* (va., pu., DRAH, I, 1802: 73 eta II, 27), *Anguiozar* (va., Mad., II, 1845: 314), *Anguiozar* (Elgeta, ba., Nopgui, 1857: 121), «*Anguiozar: valle dependiente de la jurisdicción de la villa de Elgueta*» (Go., 1862: 32).

(Antrop.) *Pero de Anguioçar* (Azpeitia, 1527; Le. eta b., 2002: 360).

EuskalOnom.: (Top.) *Angiozar* bera ez da, dakigula, toponimian agertzen, baina harekin menturaz lotura duketen *Angiao* eta *Angiaundi* aurkintza izenak badira (Eskoriatza, 2014, EskM). Elorrion (BFA) *Angio* oikonimoa dago.

(Antrop.) *Martin Peres de Anguio* (Arrasate, 1451; Ayer. eta E., 2002: 70).

EuskalTes.: «*Elguetan iturri garbi guezagozo anitz dira chit, eta beretatic eguñeratzen dira iru erreca icendatzen direanac Ubegui, Ubera eta Ainguiozar (sic)*» (Izt., 1847: 90), «*Gere etxeakoandre?... Angiozar'koa da ta ango jendek mingaña zorrotza dute. Bai milla demonio!*» (Labayen, 1976, II: 155), «*Beste batean izan giñan Bergaran Xalbador, Mattin, Berasarte, Uranga eta ni, bertsotan. Da soñua jotzen, Angiozarko Pellis Aranzabal*» (Uztapide, 1975: 140), «*Angiozarren ere bai, izan giñan beste batean*» (*ibid.*, 141).

Ebak.: [aŋ.gjó.şa.rèn] (in.), [a.njó.şar.ku.é] (lek.g. + abs.) (Are-010).

Etimol.: Mitxelena (AV, 56) *angio* 'belaia', 'itxitako belar-soroa' dakusa *Angiozar*-en; bigarren zatia *zar* 'zaharra' da, bistan da. Izaguirrek (1994: 52) hau dakar: «*án-gixo, ángixua:* (el) cercado cubierto de malezas que sirven (sic) de pasto al ganado (Araoz, Graciano)».

HerritarIz.: *angiozartar*.

Elosua (-a)

Udala: Bergara (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Elosua*.

Dok.: (Top.) «*...desde el arroyo de Bassarte fasta la sierra d'Elossua*» (1369, Ayer., 1993: 13, 28), «*e tierra entre Elosu e Renten*» (1413, *ibid.*, 44.), *Elosua* (Ortelius, 1588, mapa), *Elosua* (va.o.ba., Isas., 1850 [1625–26]: 29), *San Andres de Elosua* (ai., *ibid.*, 210), *Elotsua* (sic) (*montaña, ibid.*, 230–231), *Elosua* (ba., López, 1770; DRAH, I, 1802: 246), *Elosua* (ai., Mad., VII, 1847: 470), «*Una de ellas es la titulada San Andrés de Elosua, dependiente de la de San Pedro*» (ai., Go., 1862: 594).

(Antrop.) *Iohan Sanchez d'Elosua*, *Iohan Perez d'Elusua* (Azpeitia, 1348; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 254), *Iuan Sanchez d'Elhosua* (1363, *ibid.*, 321).

EuskalOnom.: *Elosúa-echeberri* (Bergara, ca.d.l., Nopgui, 1857: 140), *Elosumendi* (Bergarako aurk., 2011, BerM). Beste onimo batzuk: *Elosu* (Azpeitia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 11), *Elosuamendi* (Azkoitiko aurk., 2009b, AzkM), *Elosukorta* (bas., *ibid.*), *Elosu* (Ezkioko aurk. 2015, EzkM). Legution bada *Elosu* (*Elhossu* 1025ean) izeneko herrixka, eta toponimioa errepikatu egiten da, han-hemen.

EuskalTes.: «*Arguisano, Irimo, Ipinarrieta, Descarga edo Escarca, Ichumendi, Gorostiaga, Usarraga, Elosu, Apozaga, Zarimus*» (*mendia*, Izt., 1847: 35), «*Elosuko apaizak ikusi eta aitortu*» (Orixe, 1985 [1929]: 66), «*Eibarko beltzak Elosura ta inguruetara atera ziran*» (*ibid.*, 70), «*Elosun ere izan giñan baten Basarri ta biok*» (Uztapide, 1975: 150).

Ebak.: [e.lú.ɟu] (abs.) (Ant-045), [e.lo.ɟu.rá.ko] (dest.) (Ant-070), [e.lú.ɟu] (abs.), [e.lú.ɟu.rá] (adl.) (Azk-016).

Etimol.: Mitxelenak (AV, 98, 205; 1977a: 362) 1025eko *Elhossu* aipatzen du (Arabakoa, ustez). Etimologia *el(h)orri* + *-zu* dela dio, eta *-rz-* > *-s-* pausoa lehen osagaiaren hondarreko bokalaren sinkoparen ondoren gauzatu dela. Ikus Irigoien (1995: 197) eta Salaberri (2015a: 168 eta 169). Geroztik, Bergarako *Elosua*-k eta Debako *Elorriaga*-k antzetsuko adiera zuten sortu zirenean.

Berrobi

IzenOfiz.: *Berrobi*.

Dok.: (Top.) «...*desde el m[olino] de Eldua fasta el arroyo que es entre Berrovi e Eldua*» (1312, Lar. eta Le., 1995: 18), *Verrovi* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Berrovi* (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Berrovi* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Berrobi* (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Berrovi* (pu., López, 1770), *Berrobi* (lu., DRAH, I, 1802: 174; Mad., XV, 1849: 11-12; Go., 1862: 112).

(Antrop.) *Sancho Martinez de Verroui* (1349, Rol., 1991: 51), *Martin de Verrobi* (1450, Le. eta Ta., 1996: 20), *Miguel de Verroui*, «*Martin de Berroui, dicho "Naguxi"*» (Andoain, 1475; *ibid.*, 67), «*don Joan de Berrovi, capellan*», «*don Joan de Verroui, clérigo*» (Tolosa, 1521; Le. eta b., 2002: 342, 346).

EuskalOnom.: *Berrobinea* (Andoaingo etxea, 1860; Usa., 1993: 56).

EuskalTes.: «*Berrobico mugape laburra ere ondo jancia arquitcen da ur garbi ona iori ematen dabeen iturriaquin*» (Izt., 1847: 85), «...*lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza, Oreja, Gaztelu, Berrobi, Leaburu, Belaunza eta Ibarra*» (*ibid.*, 115-116), «*Eta itzetik ortzera ara non azaltzen dan Santa Kruz Berrobin [...] itzal utsa balitz bezela, Berrobiko zokora jo du bere buruarekin*» (Orixe, 1985 [1929]: 90).

Ebak.: [bé.ro.βin] (in.) (Brb-001), [be.ró.βi] (abs.) (Brs-028).

Etimol.: Mitxelenak (AV, 156) *berro*, *ber(h)o* ‘xara’, ‘hezegunea’, ‘berriz lantzen den lurra’, ‘hesia’, ‘sasia’ dakusa *Berrobi*-n, *Berroeta*-n eta *Berroya*-n. Errenteriako hizkuntzalariak *-bi* bukaera *ubi* ‘ibia’ hitzean eta apika *zubi*-n daukagun elementu bera datekeela uste du, *bide* izen arrunta alegia, baina ez du deus esaten *hobi* ‘zuloa’ ‘barrun-bea’ izenaz, eta ongi ezaguna da gure leku izenetan. Hots, *berro* ‘basoa bota den alderdia’ eta *hobi* ‘zuloa’ ere izan litezke, menturaz, toponimoaren osagaiak. Orografiak ez du kontra hitz egiten. Cfr. Iruñe ondoko *Artika* eta Iparraldeko *Errobi* (*La Nive*) ibaia, eta ikus bedi orain *Berroztegieta* (Sala., 2015a: 133-134).

Irigoienek (1995: 143, 152) *-bi* inoiz ‘behea’, ‘lurra’ dela dio, *Urtebei* > *Urtubi* (Arratzuko eta Kortezubiko baserri banaren izena) oikonimoan adibidez⁴⁶, edo *Oñatibia*-n: «*Oñatibia* (el) vado de Oñati moduan explikatuz izan dut orain baino lehen, eta Mitxelenak ere “312- (*h*)ibi vado” epigraphean sarturik zuen *Apellidos vascos* delakoan, baina formari dagokionez ‘(el) suelo, (el) terreno de Oñati’ moduan ere berdin-berdin explika daitekeela uste dut orain» (*ibid.*, 153).

Guztiarekin ere, ez dirudi *Berrobi*-ren kasuan holakorik proposa daitekeenik, **Berrobei*, **Berrobe(e)*-ren erakorik behin ere dokumentatzen ez delako. Bestalde, esan moduan, *-obi* ‘hobia’ ere ezaguna da toponimian, eta ez bakarrik piztien izenekin

⁴⁶ Munitibarko *Uribe* eta Igorreko *Uribe* bazterretxe izenak ere badakartza, baita *Axpee* > *Axpe* ere (*ibid.*, 151). Autore honek berak *Ibarbia* ‘(el) suelo, (el) terreno del valle o de la vega’ iraultzen du gaztelaniara, eta *Iturbi* ‘suelo, terreno de la fuente’ (*ibid.*, 153).

(*Azkonobieta, Otxobi, Lupuobia...* Irig., 1995: 180). Ikertzaile honek berak (1995: 181) Arinek (1969: 498) bildutako *Urrizti obia* toponimoa ('la concavidad de la avellaneda' ataundarraren hitzetan) aipatzen du, *Urrestovya* 1410ean.

HerritarIz.: *berrobitar*.

Beterri

IzenOfiz.: *Beterri*.

Dok.: Etxabe (1970 [1607]: 31) Espainiako hiri eta alderdi askoren izenak euskaratik atera direla frogatu nahian ari denean mintzo da *Beterri*-z. Espainiara baino lehen, ordea, Frantziako *Armenac* ukitzen du (egungo *Armagnac*, itxuraz) eta Kaukasoko Armeniarekin estekatzen. Honela dio:

...como responderian por auer sido bascongados, Armeniac, era lo mismo que dezir de Armenia, de donde se precian tener su origen y dependencia. Este condado cae cerca de estas nuestras montañas, y a la parte meridional suya es la antigua y famosa Beterria, â quien comunmente llamaron *Beterra* (*sic*), que quiere dezir tierras de vacas como lo es.

Larramendik (1985 [1754]: 94-95), aldiz, honela dio:

Todos estos pueblos de Guipúzcoa tienen otro modo de división en tres distritos: *goyerri*, *beterri*, *costaldea* o *ichasalde*. El distrito desde Tolosa hasta Irún se tiene por *beerri* o *beterri*; y quiere decir país bajo o tierra inferior de Guipúzcoa [...]. Y sin más motivo que esos nombres se ponen tachas los de un distrito a los que son de otro diferente.

EuskalOnom.: Nafarroako Araitzen, Tolosatik ez urrun, balio bertso *Beierrria* (Arribe, Atallu...) eta *Goierria* (Azkarate, Gaintza, Intza, Uztegi...) bereizten dira (ikus Euskaltzaindia, 1990: 102 eta Zuazo, 2013: 16). Iduriak dira Ezkabarteko *Baserri* / *Lañerri*, eta Baztango *Baztangoiza* / *Erberea* pareak, honetan *Basaburua* ere izanagatik.



Gipuzkoako iparralde. A. Orteliusen 1584. urteko mapa. ELN.

EuskalTes.: «*Eta oraindic are goaicarriagoa (sic) da, charlari oec icustea ta aditzea nola dauden ishecaz ta muishinca euscaraz ederqui daquitenen jolasari, bein Nafarroaco mintzoa dala; guero Bizcaico berba donguea, batean ausaz ere goierrico itzqueta dezula; bestean nosquiro beeterricoa (resic)*» (Larra.; apud Izt., 1847:V), «*Eguia de beterrico toquietan onelaco oituraric ez dala*» (J. B. Agirre, 1803 eta 1823: 180), «*Atzenean: beisteguizula, beisteguiala arc, ascoc esan oi due, batezere Beterrri aldean, baina nere ustean eztaquie cer esan nai duen itz oec*» (*ibid.*, 1978 [1850], II: 32), «*Tolos-errian, Beterrin, Goierrin, zoko guzietan arto ta baba ta gari txeatu zetunan*» (Orixe, 1987: 74).

Ebak.: [be.té.ri.á] (adl.), [be.té.rìn] (in.) (Bea-006).

Etimol.: Larramendik (ikus Dok. atalñoa) ongi esplikatzen ditu *Goierrri* eta *Beterrri*. Osagaiak *behe* 'beheitikoa'-ren elkarketako *bet-* aldaera (ikus, alabaina, Sala., 2005a lanean dioguna [134-135. or.], Arabako *Betolatza-z* ihardukitzean) eta *herri* 'eremua' dira *Beterrri*-n, eta *goi* 'goitikoa' eta *herri*, aldiz, *Goierrri*-n (ikus Irig., 1986: 149).

Bidania-Goiatz

IzenOfiz.: *Bidania-Goiatz*.

Dok.: (Top.) «*vezinos de la collaçion de Vedania*» (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 231), «*las tres alcaldias de Azeria, Seyas e Vidania e Aystondo que son en tierra de Guipuscoa*» (1417, Ayer., 1993: 86), «...*el dicho lugar de Basarte es despoblado [...] en la tierra de Bidania*» (1460, Lar. eta Ta., 1993: 173), «*En Vydanía, en casa de Joan Ruys de Leyçaran*» (1481, Ayer., 2006: 163), «*Rodrigo Ruyz de Eleyçaran, vezino de Vidania*» (1511, Le. eta b., 2002: 318), *Vidania* (Ortelius, 1588, mapa), *herrería de Bedania* (1613, Ayer., 1997: 704), *Vidania* (vi., Isas., 1850 [1625–26]: 29), «*San Juan de Iturrioz en la montaña de Hernio, jurisdiccion de Aya, Rexil, Asteasu, Goyaz, Vidania y Albistur*» (*ibid.*, 210), *Bidania* (pu., López, 1770), «*Vidania, univ[ersidad] de la alcaldía de Sayaz [...]. Está situada en el centro de la provincia, y por su mayor parte en llanura: confina por n[orte] con la universidad de Regil, por s[ur] y o[este] con las de Goyaz y Beizama, y por e[ste] con la villa de Albistur*» (DRAH, II, 1802: 448), *Vidania* (univ., Mad., XVI, 1850: 35), «*Vidania: universidad del partido judicial de Azpeitia, union de Sayaz*» (Go., 1862: 604).

(Antrop.) *Pero Yeneguez de Vidannia* (Azpeitia, 1348; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 254), *Pero Yuanez de Vidania* (1349, *ibid.*, 267), «*Martin de Vidania, Pero de Vidania, bas-tero*» (Segura, 1374; *ibid.*, 1996: 57–58), *Juan Gonçalez de Bidani* (Oñati, 1389; *ibid.*, 271), *Andres Vidania* (Segura, 1401; Urz., 1990: 345), *Joan de Vidania* (Tolosa, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488), *Lope de Vidania* (*ibid.*, 1521; Le. eta b., 2002: 343), *García de Vidania* (*ibid.*, 1532, *ibid.*, 368).

Dok.: (Top.) *Goyaz* (1007, Mtez.Dz., 1975: 170), *Goayz* (1007 [c. 1032]⁴⁷, Goñi, 1997: 28), *Goyaz* (1186–1189, *ibid.*, 4; Bar., 1989: 434), *Oyaz* (1186–1193, Mtez.Dz., 1975: 141–143; Bar., 1989: 436), *Goyaç* (Gari., II, 1628 [1571]: 341), *Goias* (Ortelius, 1588, mapa), *Goiaz*, *Goyaz* (lu., Isas., 1850 [1625–26]: 29, 210), *Goyaz* (pu., López, 1770), «*Goyaz, univ[ersidad] de la alcaldía de Sayaz*» (DRAH, I, 1802: 309), *Goyaz* (univ., Mad., VIII, 1847: 454), «*Goyaz: universidad del partido judicial de Azpeitia, union de Sayaz*» (Go., 1862: 199).

(Antrop.) *Sancho Martinez de Goyaz* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 266), *Juanes de Goyaz* (Donostia, 1525; Ayer., 2015: 785), *Don Sebastian de Goyaz* (Urnietá, 1575; *ibid.*, 817), *Liçençiado Goiaz* (1580, Ayer., 1997: 688), *Martin Saez de Goiaz* (Zes-toa, 1589; *ibid.*, 701).

EuskalOnom.: «*Donostiaco baserrieche Goiatz-chiqui deitzen zaionaren mugapean*» (Izt., 1847: 143), *Goyaz-aundía*, *Goyaz-chiqui* (Donostia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 66), *Bidaniaren borda* (Leitza, Jim. zuz., 1997g: 75), *Bidania* (Zornotzako errota, BFA).

EuskalTes.: «*Goyaz Bidanietan badira carezco arri urdin piña iori ematen dabeen arrobiac*» (Izt., 1847: 54), «*Goiazco erri guztia da iturritz ondo jancia*» (*ibid.*, 94), «*Vidaniaco*

⁴⁷ Barrenak (1989: 432), doktore tesian, 1186–1189koa dela dio.

mugapean iturri on asco dira chit» (ibid., 106), «Asten dira aren atzetik, baño jjoanda arrapazak! Mendi aietan barrena, jo zak Bidanira. Illundu arte ango apaizak iduki zun gordeta» (Orixe, 1985 [1929]: 22), «Arengatik ere esaten ditue bada, liberalik etzula il alerik ere, baño bai lau karlista gutxienez tiroz josi: Patxi Arbelaitz, Esteban Indart, Goyaz-Bidaniko, Intxusa esaten ziotena, ta beste karlista gazte bat» (sic) (ibid., 67), «Bidanin ere izan gera, askotan ez baña» (Uztapide, 1975: 153).

Ebak.: [bí.ni.kò] (lek.g.) (Bid-008), [bi.á.ni.à] (adl.), [bi.á.nìn] (in.) (Bal-001).

Ebak.: [go.jáș.ku.à] (lek.g. + abs.) (Bid-008).

Etimol.: *Bidania* iluna da guretzat, baina irudi luke *Altzania* oronimoak duen amaiera bera duela; oinarriak *bide* eta *haltz* izan litezke toponimo hauetan, hola balitz. Zernahi ere den, *Gabiria*, *Zerain* eta Gipuzkoako beste herri izen batzuek bezala, honek ere iturri antroponimo batean duela proposa daiteke, oraingoan bilakaera hain gardena ez izanagatik.

Sustraian Lusitanian (EDH) lekukotzen den *Fidius* dagoela kontu egin daiteke: *(uilla) *fidiana* ‘Fidiusen bazterretxea, lurra’-tik abiatuz gero, **Bidiana* aterako zen lehenik (erka bedi Bizkaiko *Bedia*-rekin), eta gero metatesiz *Bidania*. Ondoren, **Bidāñā* > **Bidāhā* > **Bidāā* > **Bidaia* izanen zen bilakaera, eta azkenik, palatal nahasketa gertatu zela onesten bada, **Bidaña* aterako zen (ikus *Bedoña*), gero *Bidania* interpretatua.

Beste azalbide simpleago bat -eta beraz hobestekoa- tarteko ustezko **Bidāā* formatik **Bidaina*-ren moduko bat atera zela pentsatzea da, bokalen sudurkaritasunak kontsonante sudurkaria garaturik (cf. *Abadiano* > **Abadiō* [*Abadio* lekukotzen da] > *Abadiño*) eta ondoren, metatesiz, *Bidania* bihurtu zela.

Goiatz-en osagaiak, bestalde, *goi* ‘leku gora’ (ikus AV, 284) eta *-atz* atzizki lokatiboa dira, edo, nahiago bada, *goia* (cf. *Goia* Leaburuko aurkintza izena, eta deitura) forma mugatua eta *-tz* leku berrekailua. Hortaz, *Aranatz*, *Gesalatz*, *Loiatzea*, *Zabalatzea* eta besteren egiturakoa da (Sala., 1997: 28 eta hur.). Berdinu bedi Nafarroako *Baztan-goiza*, *Ibargoiti*-rekin, eta Gipuzkoako eta Nafarroako *Gaintza*-rekin. Irigoienek (1986: 63) «En Guipúzcoa existe *Goyaz* como localidad, cuyo topónimo tiene forma de patronímico» dakar, baina uste dugu bizkaitar euskaltzaina oraingoan oker dagoela, itxuraz haratagoko zerbaitez ari bada bederik.

HerritarIz.: *bidaniar*, *goiaztar*.

Billabona-Amasa

IzenOfiz.: *Villabona-Amasa*.

Dok.: (Top.) «*Miguelles d'Arbide procurador de la villa de Tolosa e de Villabona e de Alegria*» (1390, Dz.S., 1985: 153), *villa de Villabona* (1528, Ayer. eta Dz.S., 1996: 515), *Villa de Villabona* (1545, Ayer., 1997: 633), *Villa de Villabona* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), «*Domingo de Galardi, vezino de Villabona*», «*Joanes de Ynturia, vezino de Villabona*» (1572, Ayer. eta Dz.S., 1996: 571), *Villabona* (1613, Ayer., 1997: 721), «*lugares de Villabona y Amassa*» (1614, Ayer. eta Dz.S., 1996: 666), *Villabona* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Villabona* (pu., López, 1770), *Villabona* (vi., DRAH, II, 1802: 451; Mad., XVI, 1850: 98; Go., 1862: 606).

(Antrop.) *Sancho de Villabona* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 268).

Dok.: (Top.) *conceio de Amasa*, «*moradores de Amasa e de Yrura*» (1385, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 242), *vecindad de Amasa* (1434, Ayer. eta Dz.S., 1996: 474), «...*las dichas collaciones e vniversidades e personas singulares de Sancta Maria [...] Sancta Maria de Haduna e de Sant Martin de Amasa*» (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), *El concejo de Amasa* (1510, Her., Ach. eta Mo., 1998: 178), «*Juanes de Larrañaga, vezino de Amassa*» (1572, Ayer. eta Dz.S., 1996: 572), *tierra de Amasa* (1595, *ibid.*, 639), «*lugares de Villabona y Amassa*» (1614, *ibid.*, 666), *Amassa* (1615, *ibid.*, 673), *Amasa* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 28), *villa de Amassa* (1684, Ayer., 2015: 916), *Amasa* (vi., López, 1770), «*Amasa, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, I, 1802: 67), *Amasa* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 106), *Amasa* (ai., Mad., XVI, 1850: 98), «*Amasa: villa del partido judicial de Tolosa, arciprestazgo mayor, antiguo obispado de Pamplona. Se halla situada en una eminencia sobre la carretera general a medio cuarto de legua de la calle de Villabona*» (vi., Go., 1862: 28), «...*tenia en comun con Villabona los terminos publicos y concejiles, la iglesia parroquial, la herreria de Larbarrain o Amasola y los molinos de Arroa y Orocaiztegui*» (*ibid.*).

(Antrop.) *Ochoa Xemeniz d'Amassa* (Lesaka, 1320; Zab., 1997: 300), *Ochoa d'Amasa* (1345, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 247), *Joan de Amasa* (Astigarraga, 1382; *ibid.*, 1996: 183), *Miguel d'Amasa* (Errenteria, 1384; *ibid.*, 213), *Iohan Martinez de Hamasa* (Getaria, 1397; *ibid.*, 435), *Pedro de Amassa* (Andoain, 1590; Ayer. eta Dz.S., 1996: 624).

EuskalOnom.: *Herrerias de Amasaola* (Andoain, 1613; Ayer., 1997: 719), *Amasamendi* (Isas., 1850 [1625-26]: 230; Izt., 1847: 36), *Amasaundia*, *Amasecheberri*, *Amaserrota* (Aia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 2), *Amaserrotaberri* (m.h., *ibid.*), *Amaserrotazar* (ca.d.l., *ibid.*), *Amaserrotazarra* (m.h., *ibid.*), *Amasportuena* (ca.d.l., *ibid.*), *Amasaquerre* (Billabona-Amasa, ca.d.l., *ibid.*, 106), *Amaseche* (*ibid.*), «*la herreria de Larbarrain o Amasola*» (Go., 1862: 28), *Amasola* (Andoaingo aurk., 1877; Usa., 1993: 240), *Amasabarruti* (Billabona-Amasako aurk., 1994, BilM), *Amasaldea* (Getariako aurk., 2012, GetM).

Oikonimian ere ageri da: *Amassa*, *Amasarena* (Doneztebe, 1606, 1844, 1883; Iñigo, 1996: 436), *Amasa* (Lesaka, Caro Baroja, 1929: 73 eta Lesakako Euskara Batzordea), *Amaxan borda* (Andoain, Usa., 1993: 243).

Cfr. *Martín Rruyz d'Amas* (Errenteria, 1384; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 213), *Iohan Beltran d'Amas* (Getaria, 1397; *ibid.*, 435), *Amás*, *Amasáin* (Irun, ca.d.l., Nopgui,

1857: 48). Erka bedi, berebat, Aranaratzeko *Amaso* nahiz *Amasobide* aurkintza izenekin (Jim. zuz., 1994: 148), hemen *amaso* ‘amatxi’, ‘amona’ izan bagenezake ere. Aldera bedi, halaber, *Gregorio de Amasorrayn* deizioarekin (Urniet, 1575; Ayer., 2015: 817).

EuskalTes.: «*Amasa Villabonaco mendi Loazu esaten zaion batean*» (Izt., 1847: 53), «*Amasa Villabona-etan arquitzen dira iturri garbi guezagozo on asco chit*» (ibid., 79), «...erreca bat, Ibeltz esaten zaiona, eta au errico errota bat erabilliric igarotzen da Asteasura, non bertaco erreca batequin laztanduric jachitzen diraden biac Amasa Villabonacora» (ibid., 97), «*Hernialde, Alquiza, Larraul eta Anoeta ezquerrerontz eta Irura ezcuitara (sic) lagaric, joaten da Amasa Villabonacora [...]. Villabona escuitara [...] utziric igarotzen da Andoaingo Santa Cruzco zubiaren ondora*» (ibid., 116), «*Amasaco errian*» (ibid., 453), «*Billabonara dijuana / agertu dedilla / nigana*» (Urruzuno, 1988: 48), «*Andik arma batzuk eta bost edo sei kartutxo-pillo artuta Aranorantza jo-bearra zuten, Oria ibaia Villabonaren ondotik igarota [...]. Goizeko ordu bietan Leizarango ibaiean gerrirainoko uretan sartu, ta Ollokiegín barrena Villabonako zubira jo oin-zantzurik utzi gabe*» (Orixe, 1985 [1929]: 44), «*Artzen du preso Iturbe Villabonan, eta bialtzen ditu lau mutil-mordoska Asteasura*» (ibid., 90), «*Denak ez dira, orde, artarakoak. Berez bear du Billabona’koa*», «*Ez izan nonbait Billabona’koa*» (Lizardi, 1972 [1934]: 79), «*Berez bear Billabonakoa. Equivale a Quod natura non dat, Salmantica non praestat*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 142), «*Makiña bat aldiz Billabonaraño joan trenean da andik aurrera oñez joanda gaude. Lauren bat kilometro egongo dira, eta gustora gañera joan ere. Paraje zoragarria zan Billabonatik Asteasura*» (Uztapide, 1975: 21), «*Billabonako Turko zana ere laguna nuan, da arekin ere joaten nintzan, bai Asteasura ta bai Amasara*» (ibid., 22).

Ebak.: [bi.ʎa.βo.nàn] (in.), [bi.ʎa.βo.ná] (adl.) (bil-003), [bi.ʎa.βo.nàn.] (in.) (bil-011), [bi.ʎá.βo.ná] (adl.) (Adu-006), [bi.ʎá.βo.nà] (abs.) (Alk-001), [bi.ʎá.βo.ná] (adl.) (Ast-001), [bi.ʎá.βo.na].de.tik] (abl.) (Tol-019), [bi.ʎá.βo.nà] (abs.) (Usu-008), [bi.ʎá.βo.nàn] (in.) (Ziz-006).

Ebak.: [a.má.ʂà] (abs.) (Ame-005). Cfr. [a.má.ʂa.me.ɲ.di] (abs.) (Ziz-006).

Etimol.: Bistan da erdal toponimoa dela *Billabona*; osagai argiak *villa* ‘hiribildua’ eta *bona* ‘ona’ dira. Gavelek (1931: 45-46) gaskoitik hartua dela uste du, eta euskarazko *Irun* eta *Iruña*-ren baliakidea dela. Nolanahi ere den, badakigu ez dela gaztelaniatik zuzenean hartu, bestela *Villabuena* izanen genukeelako, Araban bezala (Sala., 2015a: 383). Hau aztertzean genioen moduan, zorte ona lortzeko leku izenetako bat dugu. M. Gorrotxategik (2017: 148) *Billabona* tokialdatze baten ondorioa ez ote den mahaigaineratu du oraigunean atera artikuluan; honela dio: «Seguramente *Billabona*, pequeña puebla enclavada en Amasa, es un caso similar y debemos pensar que es un traslado desde, tal vez, Haro, que en una época se denominó así».

Bestalde, Nafarroa aldean bada, itxuraz bederik, *Amasa*-ren bukaera bera duen toponimo sail bat, *Amasa* bezain ilunak denak ere: *Adantsa*, *Esa* edo *Yesa* (ikus Belaskok [1999: 46] dioena), *Arresa* (Sartaguda - Lodosa aldeko herrixka despolutua) eta *Urdantsa* (Ezkurrako toponimoa; ikus *Urdaneta* sarrera). *Adaxa* (gero toponimo txikitako *Adasa* gelditu da) Artzibarko beste herrixka baten izena zen.

Herritarlz.: *billabonatar*, *amasar*.

Deba

IzenOfiz.: *Deba*.

Dok.: (Top.) «*merindat de Yçciar e de la villa de Deva*» (1389, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 267), *Deva* (1502-1528, Ayer., 1997: 593; 1520, Le. eta b., 2002: 335; Ortelius, 1588, mapa), *Deva* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*non procul à cognomine sibi vrbe Deua, in oceanum peruenit*»⁴⁸ (Oihenart, 1992 [1637]: 682-683), «*Deba alias Monrreal*» (vi., López, 1770), «*Deva, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, I, 1802: 222-223), *Deva* (vi., Mad., VII, 1847: 383).

Monrreal edo *Monrreal de Deva* gisa ere azaltzen da, era batera baino gehiagotara idatzirik: *Monrreal de Deua* (Mendaro, 1335; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 247), *Monrreal* (1373, *ibid.*, 1996: 51), «*Villa de Monrreal de Deua et de Yçiar*» (1382, *ibid.*, 176), «*Miranda d'Iraugui Ascoytia e Monrreal de Deva e Villamayor de Marquina*» (1417, Ayer., 1993: 85), «*...muchos pueblos de España tienen sus cognomentos de sus rios aledaños, como le tenía la villa de Montreal, llamandose de Deua, pero dexando el nombre, ha quedado con solo el sobre nombre nombrandose tan solo Deua*» (Gari., II, 1628 [1571]: 339), *Monrreal, Dena* (sic) (Ortelius, 1588: 19), *Rio Dena* (resic) (*ibid.*, mapa), «*Deva, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa* [...] *Estuvo fundada esta villa en el monte llamado Monrreal de Izlar, y así aún es llamada Montreal de Deva*» (DRAH, I, 1802: 222-223), «*Deva (Monreal de) [...] comprehendese en su jurisdiccion la poblacion de Iciar y los barrios de Lastur y Garagarza del valle de Mendaro*» (vi., Go., 1862: 126).

(Antrop.) *Martin Yuanez de Deua* (1345, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 247), *Gonçalo Martinez de Deua* (Deba, 1391; *ibid.*, 1996: 327), *Juan Martinez de Deva* (1396, *ibid.*, 418).

Ptolomeok aipatzen du lehen aldiz (ikus Yarza, 2014: 1123, 10. oin-oharra) ibaia-izen izena, antzinatean: «*Καριστῶν Διοῦδα ποταμοῦ εκβολαί*» ‘karistiarren Deba ibaiaren ahoa(k), bokalea’. Erdi Aroan, 934. urtean aurkitzen dugu, Donemiliaga Kukulako monasterioko agirietan (Ubieto, 1976: 38), baina dokumentu izuna da, 1140-1143 artean egina: «*De rivo de Galharruaga usque in flumen de Deba, id est tota Bizcaglia, et de ipsa Deba usque ad Sanctum Sebastianum, de Ernanni*». García Andrevak (2010: 103), ordea, 934ko-tzat ematen du: «*De rivo de Galharraga usque in flumen de Deba, id est, tota Bizcaglia, et de ipsa Deba usque Sanctum Sebastianum d’Ernanni*».

Goñik ere (1997: 29) badakar *Deba* ugaldea, 1007ko agiri batean, baina hau ere izuna da, 1032koa, autorearen arabera, Barrenak (1989: 432) tesian 1186-1189koa dela esaten badu ere. Hona Goñik dakarrena: «*Et a Sancto Adriano usque ad flumen quod dicitur Bidaso et aliud flumen quod appellatur Deua, et de Deua usque Goriçica*».

Gero, jakina, badira beste testigantza franko; hona hemen horietako batzuk: «*çerca del agua de Deua*» (1343, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 236), «*Ytten en Erenozu un pedazo*

⁴⁸ «*Deba* deritzan hiritik ez urruti iristen da itsasora”.

de tierra [...] que ha por linderos: por devaxo el camino real que va por cave el rio Deva» (1452, Ayer. eta Etxe., 1999: 32), «*En el valle de Leniz, que está incorporado con la Provincia de Guipuzcoa, y es cerca del rio Deva hay diez y siete Ante Iglesias*» (Isas., 1850 [1625-26]: 208), «*El rio Deva nace en el valle de Leniz en la jurisdiccion de Salinas*» (*ibid.*, 227).

EuskalOnom.: *Domingo de Devayde* (Deba, 1518; Fdez. Mtez., Mon. eta Her., 2007: 534).

EuskalTes.: «*Iru oec ciran D. Juan Andonegui eta D^a Maria Gamboaren alabac Guipuzcoaco Provinci onetan Deva-co alabac*» (Kard., 1882: 132-133), «*Devaco mugapean ere badira arrobiac carezco arri urdin pin ederra iori ematen dabeenac*» (Izt., 1847: 56), «*Devaco erriac baditu bere mugapean iturri onac eta asco [...] ain iori ezen erreca pizcor larricho bat eguiñeraturic, berac bacarric Devaco ta Elgoibarco erri-en mugac berecitzten dituela*» (*ibid.*, 87), «*Sei ibai andi dira Guipuzcoan; lenengoa da Deva esaten zaiona*» (*ibid.*, 121), «*Itziarren. Deba erre-keiñua. “Tò, baño ekatzak”», «...eta goazen mutilak, Debako liberal-mordoa izutzerá, erriari su arrezazteko zurrian. Biaramon goizeko lanetan (sic), Kandelari egunean, meza entzun, gosaldú, ta elurraren gañetik Debara*» (Orixe, 1985 [1929]: 52), «*Zure anaiak Deba'n / esan ditu itz bi*» (Zabala, 1992: 354), «*Debatikan onara / etorritakua*» (P. Zabaleta, 1931a: 39), «*Deba ta Mendaro, eldu ta igaro*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Ebak.: [dé.βà] (Aiz-001), [dé.βàn] (in.) (Egb-042), [dé.βa.ku.à] (lek.g. + abs.) (Zar-014).

Etímol.: Larramendik (1985 [1754]: 35) izenari azalpen bat baino gehiago eman dakizkiokeela esaten du, baina ez funtsa duenik: «*El Deva o Diva se mantiene, sea que desde el principio el río tomase su nombre de la villa de Deva, donde entra en el mar, o que este pueblo se nombrase Deva por el río mismo. No puede darse etimología oportuna a este nombre, aunque por capricho se le pudieran dar algunas*».

Mogelek (1854: 732-733) *Deva* edo *Diva* ibaiaren izenak aspaldi itxuraldatze zerbait izan zuela uste du, edo, bestela, ez dela haren etimoa ikusten ahal. Etimologiarik ez duela eman nahi dio, baina, jarraian, hasierako *D-* kenduta gelditzen den *Iba* ez ote den *Ibai* 'ugalde ospetsua' galdegiten dio bere buruari. Honela dio, hasierako horzkarriaren kariaz: «*No hay radical en vascuence que principie con de. Veo sí en los pueblos de Durango en Vizcaya y Durana de Alava, que la D es pegada del artículo castellano villa D'urango, lugar D'urana, y con el tiempo se unió la de ó d, y salieron Durango y Durana en una voz*».

Hubschmidek (1960: 488) dioenez, Gipuzkoako *Deva* hidronimoa zeltatik datorrela D'Arbois de Jubainvillek azaldu zuen, baita latineko *divus* < **deivos*-en baliokidea zela esan ere. Suitzarraren arabera, Santanderko eta Ourenseko *Deva* ibaiak gehitu behar dira eta, orobat, Pontevedrako *Portela Deva* mendatea eta Bragako eskualdeko *portella de Deva* (1056). Honela amaitzen du: «*Los celtas se imaginaban o creían ver a las divinidades no solamente encarnando (sic) en corrientes de agua, sino también dominando el terreno desde las cumbres y los puertos de montaña*».

Moralejok (1977: 27) hau dakar:

Topónimos célticos son, por ejemplo, *Deva*, nombre de dos afluentes menores del Miño, uno en Trado (Orense) que lo da también a la parroquia y municipio de *Pontevedra*, y otro en Arbo (Pontevedra), que a su vez lo da al puerto de *Portela Deva*, cerca de su nacimiento, y a los lugares de *Ponte Deva* y *Deva de Abaixo*. Como hidrónimo o nombre de ríos se repite en Santander y Gipúzcoa y aquí también de pueblo, como el compuesto *Riodeva* (Teruel), y de lugar en Cervantes (Lugo). Cfr. otra *portella de Deva* (1059) en el distrito de Braga (Portugal). Este nombre es igual al latín *Diva* o *dea* “diosa” y se dio a los ríos divinizados. Su expansión se corresponde con la de los celtas.

Mitxelenak (1984: 281), gure artean V. eta X. mendeen artean dagoen dokumentazio gabeziak dihardukala, horren bi aldeetan ageri diren izenak darabilta ahotan, *Deva* besteak beste.

Albertosek (2004: 260) *Deva* ibaia aipatzen du, <v>-rekin, haren ustez -dun euskal grafiak jatorrizko izena itxuragabetzen duelako; deizioa, esan beharrik ez legoke, indoeuroparra da haren iritzian, argi eta garbi. Melak aipatzen zuen Asturiasko *Deva* izenarekin identifikatzen du Albertosek Gipuzkoako hidronimoa (eta toponimoa), eta Galesen, Eskozian, Irlandan eta zeltaratutako beste eskualde batzuetan dauden beste *Deva* ibaiei ere erreferentzia egiten die. Galeskoa eta Eskoziakoa Ptolomeok aipatzen ditu, baita horietako lehenaren bokalean zegoen *Deva* toponimoa ere, *Chester* egun. *Deva* ibaiaren ertzean *Vergara* indoeuropar leku izena dagoela gehitzen du Albertosek, eta Araban *Vírgala Mayor* eta *Menor* ditugula, *Birgala* Erdi Aroko iturrietan.

García Ariasek (2005: 753, 781) oroitarazten digunez, *Deva* ugaldea Asturiasko *Covadonga* edo *Cuadonga* entzutetsuan sortzen da. Ikertzaile honek uren gurtzarekin lotutako *Dēvā* ‘jainkozkoa’, ‘jainkosa’ «segur aski zelta» dakusa oinarrian. *Covam dom(i)-nicam* horretan kristau kultuak, Andre Mariarenak, aitzineko aztura pagano zenbait ordezkatu duke. Asturiasen bertan *Rivedeva* < *Riba de Deua* (*Deva* ugaldea bertatik igarotzen da) daukagu, baita *Deva* (Gijóngo parrokia) eta *La Peña la Deva* (Nalón ibaiaren bokalearen aurkezean den uharte tipia) ere.

Ramírezek (2002: 125) *Deva* Iberiar penintsulan ardura errepikatzen den ibai izena dela dio, eta herri zeltek urei zieten debozioa erakusten duela. Prósperrek (Villar eta Prósper, 2005: 238), zeltiberieran burututako *-ei- > -ē- monoptongatzeaz ari dela, Penintsulan dauden hiru *Deva* hidronimoak dakartza ahotara, Gipuzkoakoa, Kantabria eta Asturiasen artekoa eta Galiziakoa, eta dio lehen bien diptongatze faltak erromatarrek entzun zuten bokala /e:/ zela pentsarazten digula (< **deīwa*, ustez).

Gorrotxategik (2005: 157) honela dio Ptolomeok darabilen *Deua* onimoa aztertean: «This is the Celtic noun for ‘goddess’ used as a river name, which still survives in the modern river name *Deba* and in the name of town located at its mouth». Etimoa zeltako **dēuā* da, indoeuperako **deīwos* /-ā-tik, Eibarko irakaslearen arabera. Gero, egungo toponimoa antzinako /*Deua*/ ebakeratik datorrela dio, erdal eta euskal tradizioetan /e/ zuen formatik.

HerritarIz.: *debar*.

HerritarEz.: *tarinak* (*Carduelis spinus* hegaztiak).

Elorriaga

Udala: Deba (auzoa).

IzenOfiz.: *Elorriaga*⁴⁹.

Dok.: (Top.) «...en *Ellorria*(ga, que es en la tierra d'Içiar, delante de la iglesia de Sant Seuastian, que es en el dicho lugar» (sic) (1391, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 325), «camino que va de *Elorriaga* a Çumaya» (ibid., 328), «...Ynnigo de *Elorriaga* e Garsia de *Arteaga*, alcaldes ordenarios de la dicha villa [de Deba]» (1455, Le. eta b., 2002: 195), *Elariaga* (sic) (Ortelius, 1588, mapa), «38. *San Sebastian de Elorriaga*, jurisdiccion de *Deva*» (ai., Isas., 1850 [1625-26]: 212), *Válle de Elorriaga* (López, 1770), *San Sebastian* (erm., Nopgui, 1857: 23), *Elorriaga* (auzoa, 2007, ZumM), *San Sebastian ermita* (ibid.). DRAHn eta Madozen hiztegian ez da ageri.

(Antrop.) «*Lope de Elorriaga*, preuoste de la dicha villa [de Zumaia]» (Deba, 1391; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 325), «...e de la villa de Çumaya Martin de Yçeta, procurador de la dicha villa, e Ynnigo de *Elorriaga*» (1455, Le. eta b., 2002: 195).

EuskalOnom.: Gasteiz ondoan (A) bada *Elorriaga* deritzan herrixka, eta Korte-zubin (B) auzoa; jatorri bereko *Elgorriaga* Malerrekako (N) herria da.

EuskalTes.: «*Elorriagan* ere izan naiz bi edo iru aldiz [...]. *Au* ere *Debako ballara da*» (Uztapide, 1975: 146).

Ebak.: [e.ló.ri.já] (abs.) (Deb-036), [e.ló.ri.já], [e.ló.ri.já] (abs.) (Zum-008).

Etimol.: Osagaiak *elorri* landare izena eta leku-ugaritasunezko *-aga* atzizkia dira, eta toponimoaren jatorrizko adiera 'elorriaren lekua' edo 'elorri tokia'. Ikus Arabako *Elorriaga* aztertzean dioguna (Sala., 2015a: 168).

Itziar

Udala: Deba (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Itziar*.

Dok.: (Top.) *Ichiar* (1179, Bar., 1989: 413), *Titiar* (1186-1189, Mtez.Dz., 1975: 170; Bar., 1989: 434), *Yziar* (1186-1193, Lac., 1949: 425; Mtez.Dz., 1975: 209; Bar., 1989: 436), *Monrreal de Içiar*, *Yçiar* (1294, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 76), *termino de Yciarr* (1344, ibid., 1996: 441) «...en el termino de Içiar que es jurisdiccion libre et esenta del dicto conçeio de *Monrreal de Deua*» (1382, Bar. eta Her., 2005a: 35), «*En el termino de Yçiar*, en lugar que llaman *Lyly*» (1385, Ayer. eta E., 2008: 17), *termino de Yçiar* (1385, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 241), *merindat de Yççiar* ([1389], ibid., 267), *tierra d'Içiar* (1390, ibid., 314), «...villa de *Monte Real de Deua* e de la vnibersidad de la tierra de Içiar» (1390, Bar. eta Her., 2005a: 40), «...de la villa de *Monrreal de Deua* y su tierra de Yçiar» (1448,

⁴⁹ Ez da biztanle entitate berezia, eta ez da ez EHLIn ez EODAn ageri.

Iri., 2013: 21), *Yciar* (Ortelius, 1588, mapa), *Iziar* (*lu.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Nuestra Señora de Iciar* (*ai.*, *ibid.*, 211), *Yziar* (*ba.*, López, 1770), *Iciar* (*ai.*, DRAH, I, 1802: 369; Mad., IX, 1847: 382), *Iciar* (*ba.*, Nopgui, 1857: 22), «*Iciar: lugar dependiente de la jurisdicción de la villa de Deva*» (Go., 1862: 229).

(Antrop.) *Pedro Perez de Iziar* (Deba, 1396; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 415).

EuskalOnom.: «*Començando del mançanal de Lauietta, de Joangoxe de Erreten, fasya Yçiar Çaarra como van los setos del castañal del dicho Joan de Erreten*» (1482, Bar. eta Her., 2005b: 64), *Itziarbaso* (Zarauzko aurk., 1995, ZarM).

EuskalTes.: «*Okerreko aldera jo zak, Itziar aldera, Santa Kruz an utzita*» (Orixe, 1985 [1929]: 46), «*Itziarren. Deba erre-keiñua. “Tò, baño ekatzak” [...] Andik Itziarrera sartu dira, ez noski an su-ondoan ankazabal egoteko, elurrarekin su-ondo-giro bazegoan ere [...]. Biaramon goizeko lanetan (sic), Kandelari egunean, meza entzun, gosaldu, ta elurraren gañetik Debara. Itziaroko amalau gizonekin eun eta lau zeramazkin*» (*ibid.*, 52), «*Ara emen Malua ere! Au ere Itziaroko Ama Birjiñak seme ederra bota zuan mundura, da orain Arruako Amandre Santa Anak mantendu bear!*» (Uztapide, 1975: 107), «*Beste batean, berriaz, Itziartik Arruara korrika-apustua omen zan jokatzekoa*» (*ibid.*, 107), «*Itziarren ere izan gera aldi askotan, kopradixak dirala-ta*» (*ibid.*, 144), «*Eta, basoa bukatu genduanean, Itziarra joan giñan*» (*ibid.*, 267).

Ebak.: [i. tʃi. ar] (abs.) (Aiz-001) (Get-018).

Etimol.: Etxabek (1970 [1607]: 51) *Yçurun* Donostia dagoen lekua zela dio, eta ‘hiru aho’ esan nahi duela. Mogelek (1854: 683; ikus orobat 709. or.) latineko *Insula*, *Insulæ* ‘irla’ euskararen bitartez esplikatzeko du, honela: «Se compone de dos voces vascongadas, *ins*, ó como dice el castellano, *is* (mar), y *ulia* (poblacion): como si dijéramos “poblacion de mar” [...]. Decimos *is-paster* (rincon de mar), *is-ciar* (ladera de mar), *is-urdea* (cerdo de mar)». Lan berean, aurrerago (726) honela jarraitzen du, *Izurun*-ez dihardukalarik: «*Izurun*.- Segunda denominación de San Sebastian. Análisis de la voz *Iz-ur-un*. *Iz* radical proveniente de *ichaso*, mar, como en *iz-ciar*, *iz-baster*, *iz-urdea*, *iz-oquiña*, *iz-aro*: *Ur*, *uri*, pueblo; *un* ó *unea*, *espacio*, lugar [...]. Así *Izurun* se describe “pueblo marítimo y bueno», ó dejando á *ur* con su significación de agua, “agua marítima buena”, ó “espacio de agua de mar”. Nolanahi ere, ez du *Izurun* ‘hiru zulo’ azalpena baztertzen (*ibid.*, 748), *iz* ‘itsasoa’, *ir* ‘hiru’ eta *un* edo *unea* ‘hutsa’, ‘leku hutsa’ ulertzen bada.

Azkuek (1969 [1905]: 446), hiztegiaren *iz* sarreran, «‘ura’ esan nahi duen erroa» dela dio, baina gehitzen du ez dela hitz asketako erabiltzen, eta *Izaro*, *Izpatzer* eta *Iziar* toponimoak hartzen ditu ahotan, baita *izurde* izen arrunta ere. Vinsonek (1909: 353–354), euskal toponimoetan azaltzen diren *ur* eta *itz* aztertzean, lehena «eau courante, étroite» dela dio, eta bigarrena «eau permanente, large, étang, lac, mer».

S. Múgicak (1932: 622) Leireko dokumentazioan ageri den *Izurum* aipatzen du (Martín Duquek [1983: 36] *Izurum* irakurtzen du), Garibaik *iru-chulo* interpretatu eta Donostiaren izentzat eman zuena. Zumaian ere *Izurum* izeneko hondartza dagoela esaten du Múgicak, eta gaineratzen du bere ustez (Mogel eta Azkue aipatu gabe) *iz*

‘itsasoa’ edo ‘itsasoko ura’ dagoela hor (*Iz-ur-un* ‘itsasoko uraren lekua’, ‘itsasoko urak bustitzen duen lekua’), baita *Iz-ziar* ‘itsasoko mendi mazela’, *Izpaster*, *Izbaster* ‘itsaso ertza’ toponimoetan eta *iz-urdia* ‘itsasoko txerria’ izenean ere.

Agudek eta Tovarrek (1993: 85) lehenago Azkuek eta bestek esandakoa errepi-katzen dute, baina ez dute zalantzan jartzen hidronimoa dela, honela baitiote: «*Iz: radical que significa ‘agua’ y que no se usa como independiente».

Jordánek ere (1998), Agud-Tovarri jarraikiz, euskaraz **iz* ‘ura’ dela dio, eta **itz* ‘ura’, ‘itsasoa’ erroa ere badela (272. or.), ustez aurrekotik bereizi behar dena. Ikertzaile honek Kraheren (1962, 1964) *Alteuropäisch*-en **eis-* / **is-* ‘azkar, indarrez mugitu’ erro-arekin lotzen ditu bere iritzian euskarazkoak diren **iz*, **itz* horiek, baina mahaigaineratzen dituen argudioek ez gaituzte asebetetzen, adibidez **itz* erroa dukeen *itzaso* (*sic*) > *itsaso* bilakaerak (272. or.). *Izpazter* (270. or.), *Izpura* (271. or.), *Aiscaturri* (276. or.) eta abar ere hartzen ditu ahotan; horien dokumentazioko aldaera zaharrik, ordea, ez du ematen, ez bererik ez besterenik, eta hori metodologia huts larria da, toponimo baten etimologia argitu nahi denean lehen urratsa antzina eta ez hain antzina toki izena nola agertzen den, zer aldaera dituen erakustea delako.

Morvanek (2004: 22), bestalde, aurreko autoreen **iz* ‘itsasoa’ erroa faltsutat-edo jotzen du, eta *Itziar* ukitzen ez badu ere, *Izpegi* («*col d’Ispéguy*» hitzez hitz) deizioan *aitz* ‘haitza’-ren aldaera den *iz*, *pe* ‘sous, en bas’ eta *-egi* ‘crête, bord’ ditugula dio, ez **iz* ‘itsasoa’ eta *begi* ‘begia’, hola esan den arren.

Mitxelena (AV, 304) *ihar* ‘ihartua, zimeldua, hila’ dakusa *Iciar* (erd.) / *Itziar* (eusk.) toponimoan, *Abaiagar*-en eta *Egiarreta*-n dagoen adjektibo bera. Liburuaren izen aurkibidean (201. or.) oinarria *i*, *i(h)i* ‘txunka’ izan daitekeela iradokitzen du, baina galdera marka ezartzen dio.

Guk ez dakusagu garbi Mogel, Azkue eta besteren proposamena; askoz froga gehiago behar lirateke *iz*- hidronimo erroa dela onetsi ahal izateko. Aintzat eduki bedi, gainera, *Itziar*-en *itz*- dugula (1179ko testigantza *-ch-k* denbora hartan, egun bezala, afrikatua zegoela salatzen du), ez *iz-*, eta Zumaiako hondartza *Itzurun* dela egun (I. Azkue, 2008: 27, *passim*). Mitxelena ustekariari sinesgarriago irizten diogu: *ihitz(e,a)* ‘txunkadia’ eta *ihar* ‘ihartua’ izan daitezke osagaiak; honen oztoporik handiena daukagun lekukotasunetan *ihi-* behin ere ez ediretea da.

HerritarIz.: *itziartar*. [i.ʃi.ar.tá.rak] (abs.) (Eib-043).

Donostia

IzenOfiz.: *Donostia / San Sebastián.*

Dok. Erdi Aroan lekukotasun hauek ditugu, besteak beste: «*De rivo de Galharraga usque in flumen de Deba, id est, tota Bizcaglia, et de ipsa Deba usque ad Sanctum Sebastianum d'Ernanni, id est, tota Ipuzcua, a finibus Alava usque ad ora maris*» (934, Gar.An., 2010: 103), «...*in finibus Ernani ad litus maris monasterium unum quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua et illam villam que antiqui dicebant Içurun cum ecclesiis suis scilicet beate Marie et sancti martiris Vincentii cum illo cubilare de Irurdita*» (1014 = c. 1030⁵⁰, Goñi, 1997: 25), «*Ex de Belate usque ad Sanctum Sebastianum, quod est situm super ripam maris Oceani cum vallibus subscriptis*» (1007 [c. 1032⁵¹], *ibid.*, 28), «*Et confirmo uobis vniuerso concilio de Sancto Sebastiano*» (1202, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 19), *Sancto Sebastiano* (1203, *ibid.*), *Sancti Sebastiani* (1209, *ibid.*, 21), *Sanctum Sebastianum* (1234, *ibid.*, 22), «*Las dos villas de Sant Sebastian et de Ffuenterrabia*» (*sic*) (1256, *ibid.*, 34), *Sant Sebastian* (1286, *ibid.*, 59), *San Çabastian* (1303, Lar. eta Le., 1995: 14), «*En el puerto de San Sebastian ante la villa*» (1318, *ibid.*, 129), «*Iohan Ochoa d'Ameçeta procurador de las villas de Sant Savelstian e de Hernani e de Velmont d'Usurrbil*» (1390, Dz.S., 1985: 69).

Hamaseigarren mendetik aurrera beste testigantza hauek aipa daitezke: «*A dos leguas de Orio [está] la villa de San Sebastián que los naturales llaman Donostien*» (1544, Florian de Ocampo, *Crónica General; apud Banus*, 1990: 540), «*Oeaso ciudad agora San Sebastian, Oeaso promontorio del Pirineo*» (Zald., c. 1560, 5. atala), «*Esta villa en lengua de la mesma terra se dixo en su primitivo nombre Hiçurun, y despues de Don Bastian, y por corrupción Donostia, que es lo mesmo que San Sebastian*» (Gari., II, 1628 [1571]: 341), «*S. Sebastian, que es la mayor [ciudad], y la mas poblada d'esta prouincia. Aqui ay commercio de muchas y diuersas gentes, esta se llamaua primero Hiçuru, despues Don Bastia, y con vocablo corruto Donastia, que quiere dezir lo mesmo que S. Sebastian, por que Don en Basquense es lo mesmo que Santo en Castellano. Llama se tambien esta ciudad communmente por los naturales d'ella Vrumea*» (Ortelius, 1588: 19), *S. Sebastian* (*ibid*, mapa), «*San Sebastian. Donostia*» (*vi.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), «...*á San Pedro [llamamos] Jaun done Petri, á San Estevan Jaun done Estebe, á San Sebastian Jaun done Sostie, á San Martin Jaun done Martie [...]. Advirtio esto Garibai sobre la villa de San Sebastian, diciendo que se llama Donostie*» (*ibid.*, 166), «*Vrbium Ipuscoç quas referre conueniat, solę sunt Sanctus Sebastianus, indigenis corruptè Don ostia dictus, Tolosa atque Fontarrabia. Sancti Sebastiani oppidum in ipso maris littore positum est, cui olim Ycurum nomen fuisse*»⁵² (Oihenart, 1992 [1637]: 684), «*Præter*

⁵⁰ Barrenak (1989: 437), doktore tesian, 1197koa dela dio.

⁵¹ Barrenak (1989: 432), doktore tesian, 1186–1189koa dela dio.

⁵² «Gogoan atxiki behar diren Gipuzkoako hiriak *Sanctus Sebastianus*, bertakoek izena itxuragabeturik *Don ostia* esaten dutena, *Tolosa* eta *Fontarrabia* besterik ez dira. Itsasoaren ertz-ertzean dagoen *Sanctus Sebastianusi* behiala *Ycurum* deitu zitzaion”.

*santi Sebastiani portum, habet Ipuscua alium egregium Passagij nomine notum*⁵³ (*ibid.*, 686), *San Sebastian (ciudad, López, 1770)*, «*Lo único que sabemos es haberse llamado este pueblo mucho tiempo ántes del siglo XI y X con el nombre de Izurun, que quizá seria corrupcion de Oeaso ú Oyarzun*» (DRAH, II, 1802: 319), *San Sebastian (ciudad, Mad., XIV, 1849: 9-54; Go., 1862: 429)*, «*Pertenecen á su jurisdiccion los lugares de Aduna, Alza, Igueldo y una parte de la comunidad de Zubieta*» (Go., 1862: 435).

EuskalOnom.: *Donosti-baso* (Hernani, 1920; Zaldua, 2012a: 156), *Donostiarkaitza* (Irura, gailurra, 2015, IruM). Cfr. *Orendaingo Jaun-donostia (ca. d.l., Nopgui, 1857: 103)*, *Jaundonosti* (aurk., 1998, OrnM), *Jaundonosti ermita* (baseliza, *ibid.*) eta *Aranoko Jaun Donosti* (erm., Jim. zuz., 1997f: 39).

EuskalTes.: «*Conde andiorrec : juntaduditu laster / Donostiaco yrian : Passagen embarcatu / Onci andiac chipiaquin : flota andia atera [...] Donostiaco murruan : Islaren goyenean*» (1491 ingurukoa, Otazu, 1975: 44; ikus orobat I. Sarasola, 1983: 78), «*Donostiaco san franciscuan / agoan giçon soldadua*» (Lazarraga, 1567-1602: 39 bin.), *Donoztia* (Pouvreau, 1892 [XVII. m.]: 8), «*Esta posible zuen soldaduce Irunen eta berzetan eguiten tusten fripon-queriac geiago soufritzea, Haristegui hemengoa Donostiatic*⁵⁴ *helduzella [...]*» (Urruña, L, - Hondarribia, 1680; S. Múgica, 1899: 456), «*Haren [‘haran’] ceina deitzen baita Oiarçun Donostiarainocoa*» (J. Etxeberri Sarakoa, 1907 [1712]: 78), «*Donostian: Pedro de Ugarte, ren Echean*» (*sic*) (Otxoa de Arin, 1713, azala).

Larramendik (1979 [1729]) hauek dakartza: «*Pero los nombres propios, que se acaban en vocal, añaden solo una n, v.g. non vici da, donde vive? Erromán; Donostián, Hernanin, Bilbaon, Salamancan, etc.*» (324. or.), «*Hernanític, Donostiatic, Sevillatic, Toledotic*» (325. or.), «*Los [nombres] propios, que se acaban en vocal, añaden coa, nongoa zaré de dónde eres? Bayonacoa, Donostiacoa, de Bayona, de San Sebastian [...]. Donostiaco semé bat, un hijo de San Sebastián*» (327. or.), «*Donostiacoa, Donostiacoarena, Donostiacoarí, etc. [...]. Si el nombre se acaba en vocal, se añade ra, Donostiara, Chinara, Bayonara, echerà, errira*» (328. or.), «*Los nombres propios mantienen el acento, donde le tienen sin la final, Búrgoseco, Donostiáco, Cádizco, aunque tambien pueden tenerle en la ultima, Búrgosecó, Donostiaco, Bayonacó [...]. Búrgosera, Donostiara, Hernánira, Salamáncara*» (369. or.).

Hiztegi ezagunean (1984 [1745], I: XLVIII) honela dio andoaindarrak: «*Santua, santidadea, que en Bascuence proprio es donea, doneera, y se han conservado en el dialecto labortano, y aun en Guipuzcoa en parte, pues á San Sebastian, San Juan de Luz, San Esteban, tres Pueblos del Bascuence llamamos Donostia, Done Joane, Don Estebe*».

Kardaberatzek hauek dakartza: «*Au galaia! Au jóia preciatua! Ause bai gure Donostiaco semea degula!*» (2004 [1761]: 43), «*Onen espíritu miragarria, Donostiatic Asteasura etorri,*

⁵³ «Donostiako portuaz landara, Gipuzkoak badu beste portu nabarmen bat, *Passage* izenarekin eza-gutzen dena».

⁵⁴ 1899ko testuan *dotiostiatic* dago, baina zalantzarik gabe *donostiatic* irakurri behar da. 1908ko bertsiotan *donostiatic* ageri da.

eta zucendu oi zuen Aita Miguel Elizalde, jesuita, eta esan albaño jaquintsuagoa zan teologo sonatuac» (1882: 48), «Jayo zan Donostian» (ibid., 146). Antzera J. B. Agirrek: «Onelaco erac izan oi ciran dembora batean Madriden, Bilbaon, Donostian, eta beste comercioco erri andietan» (1978 [1850], II: 189), «Zu, gaztea Tolosara, Donostiara, edo beste lecuetara sarritan joan cera» (ibid., 359).

Iztuetaren lanetan sarritan aurkitzen dugu hiriburuaren izena: «Donostian, Ignacio Ramon Baroja-ren moldizteguien» (1824, azala), «Donostian. Ignacio Ramon Baroja-ren moldizteguien» (1847, azala), «Donostiaco mugapean Echazar icendatzen dan baserri-echearen lurretan» (ibid., 27), «...eta nolaco ontziac Donostiaco caian arquitzen diran ere» (ibid., 37), «Donostiaco mugape guztia da arrobi areartsu (sic) aberatsez betea» (ibid., 51), «Donostiatic Puerto Rico-ra» (ibid., 52), «Donostiaco uriac» (ibid., 87), «Donostiaraco bide andiaren bazterrean escui-adetic» (ibid., 95), «Donostiaco andizquiac» (ibid., 117), «Felipe II-garrenaren erreinaldian asmoa artuzan ibai au Oriarequin bat eguiñic Donostiatic Tolosara urezco ibilbidea ifinteco» (ibid., 118), «Donostiaco Santa Catalinan [...] Donostiaren andigarri [...] baciran onciteguiac Ergobiaco zubia-ren aldechoan, Urumeaco ibai bazter Donostiarequin Hernani eta Astigarraga mugatzen diraden toquian [...] Donostiaco inguruan» (ibid., 127), «...biraldu cidan neurri Zaldiviaco adisquide batec Donostiara» (ibid., 157), «Milla baserri-eche bezalatsu contatzen dira Donostiaren mempecoac» (ibid., 181), «Donostiatic irteten diranac» (ibid., 202).

Geroago ihaurri dira lekukotasunak: «orren bizi modua / Donostiko erriyan», «Donostiyatik dator / jendia ugari» (Bilintx, 1932: 156), «Donostian zuten diru puxka bat jaso bearra» (Urruzuno, 1988: 39), «Donostiaren erdia gortu zuten, belarrietako miña egiteraño» (ibid., 40), «Donostian artutako diruak ere kolkuan» (ibid., 43), «Donosti-kontubak / -Aspaldiko Joxepantoni! Zu ere Donosti alde? / -Bai, emakumea: zer uste dezu ba, Donostiya zuentzat bakarrik dala?» (ibid., 119), «Erdaldun asko da ordia Donostiyan» (ibid., 123), «Donostiara eldu zan» (ibid., 208), «Donostiyara etorri zaigu» (Otaño, 1931 [1889]: 59), «Donostiyako iru damatxo / Erreterriyan dendari», «Donostiyako iru damatxo / Erreterriko kalian» (ezezaguna1, 1931 [XIX. m.]: 23).

Hogeigarren mendean ere anitzetan kausitzen dugu toponimoa, ez baita harritzeko: «An egun batzuk eginda, alkatea lagun zula, kotxean Donostira jo zun. Alkate ori liberala zan, baño etzion oztoporik jarri. Donostitik, ordu gutxiren buruan, Prantzian sartu zan trenaz, gerra-gaiak inguratzeraz» (Orixe, 1985 [1929]: 23), «Donostiyara bueltak egiñaz / bere fameli ta guzti» (Txirrita, 1931a: 11), «Erreteritik dantzara gatoz / Donostiyara pozikan» (J. I. Uranga, 1931: 36), «Uste gabian juan dirade / Donostiyatik Irun'a» (P. Zabaleta, 1932a: 101), «Donostiyako Kontxan / Bi gizon famoso» (J. J. Sarasola, 1932a: 207), «Zu-marragatik Donostia-ra / neska ori etorriya» (ezezaguna4, 1932: 304), «Tranbi ortan sartuta / jo degu Donosti» (A. Mitxelena, 1932: 316), «Gu ere abia gera noi zpait, Donosti'runtz» (Lizardi, 1972 [1934]: 39), «Asmoaren gorabera nagusienak aztertu dira, ta ezagun arazi ere, Donostia'n» (ibid., 76), «Igaro-udaberriz entzun genion itzaldi eder-askoa Donostia'n» (ibid., 84), «Gizon ori eskuratua baitegu, billa dezagun orain Donostia'ko erdi-samarrean» (ibid., 106), «Donosti'ko antzokirik ederrenean» (ibid., 135), «Donostian Donosti, Gorostian gorosti. Equivale al clásico: *Dum romae fueris romano vivito more*» (Azkue, 1989 [1935-1947],

III: 143), «*Donosti, Donibane, Miarritze politik ditxin inñon politik bada*» (Orixe, 1987: 48), «*Donostiko karriketan erruz itsatsi zunaten paper aundietan bi buruko erensugea*» (*ibid.*, 79), «*Lenbizi esan dutan yaun arek, eltzerako txartel bakar batzuk atera zetunan Donostin apezpikua irainduz*» (*ibid.*, 80), «*1930'n Donostiko antzerki-batzaldian lenengo saria irabazia*» (Labayen, 1976, II: 57), «*Donostitik datorren beste "papera" artu degu*» (*ibid.*, 77), «*Donostia'ko kai aurean*» (*ibid.*, 127), «*Gorostian gorosti, Donostian Donosti*» (Garate, 2003, 7064 zk.).

Ebak.: *Donosti* (abs.) (Zegama, Azur., 1997: 187), [do.nós.ti.á].di.án] (in.) (Adu-003), [do.nós.ti.jà] (abs.), [do.nós.tin] (in.) (Aiz-001), [do.nós.tin] (in.) (Alk-001), [do.nós.ti.kò] (lek.g.) (Ano-002), [do.nós.ti.tik] (abl.) (Atg-030), [do.nós.ti.rà] (adl.) (Err-051), [do.nós.ti.kò] (lek.g.) (Lgo-001), [do.nós.ti.a].de.á] (adl.) (Oia-011), [do.nós.ti.rá] (adl.) (Oia-020), [do.nós.ti.rà] (adl.) (Oña-062), [do.nós.ti.jàn] (in.) (Ori-005), [do.nós.ti.jàn] (in.) (Pas-003), [do.nós.ti.á] (adl.) (Usu-008), [do.nós.ti.tik] (abl.) (Zar-014), [do.nós.tin] (Zmg-029). Ormaetxeak (2006: 564) *Donostiaño* 'Donostiaraino' jaso zuen Aramaion.

Etimol. Mogelek (1854: 726) honela dio: «Donostia.- Tercer nombre de dicha ciudad aplicado en honor de su patrono, y significa San Sebastian. *Done* en vascuence es bienaventurado, dichoso; *dontsua*, como *zorionecua*. *Donesteve*, San Estevan; *Doneanea*, San Juanes, ó fiestas de San Juan; *Jaundone Petri*, Señor San Pedro». Jarraian (*ibid.*, 727) hau gaineratzen du: «Yo no sé cómo del nombre propio Sebastian se ha podido alterar hasta *Ostia*».

Mitxelena (AV, 403) **Donasa(b)astiai > *Donasastia > *Donastia > Donostia* bila-kaera txistukari disimilazioz justifikatzen du:

En cuanto a *Eleazarraga* (*Leazarraga*, *Lazarraga*) I. Zumalde ofrece una etimología satisfactoria partiendo de **Eleiza-zar-aga*: la pérdida disimilatoria de la primera consonante sería análoga a la que tenemos por ejemplo en doc. *Sarassaz(u)*, *Saresazo*, vasc. mod. *Zaraitzu* [...] y sin duda a la que ha dado como resultado el nombre vasco de *San Sebastián*, cuya evolución aproximada habrá sido **Donasa(b)astiai*, **Donasastia*, **Donastia*, *Donostia*.

Donostia-ren lehen elementua den *done*-z Errenteriako hizkuntzalari handiaren 1961eko artikuluxka ikus daiteke.

Rohlfsek (1966: 422) hurrengo hau dakar: «*Saint-Sébastien*, esp. *San Sebastián*, en basque *Donosti* = dominus Sebastianus». Lan berean, aitzinxeago (*ibid.*, 426), hizkuntza sistema bana duten hizkuntzetan sortu bilakaera beregaineko pareen artean sartzen du *Saint-Sébastien*; bistan denez, bikoteko beste kidea *Donosti* da.

Euskal eta erdal izenen antzinatasunaren kariaz, Irigoienek (1992: 204) esaten du *Donibane*, *Donostia*, *Doneztebe* formak *San Juan / Saint-Jean*, *San Sebastián*, *Santesteban* baino zaharragoak direla, baita *Jaun* eta *done* batera daramatzatenak baino areago ere: *Donibane*, adibidez, *Iondone Ioannes* (Axular) eta *Iandoneanez* (Betolatza) *praenomen*-dun formen aurrekoa da, bizkaitar euskaltzainaren irudiko.

Toponimoaren etimologiaz, aurreko autoreek esana jasoz, honela diogu orain urte batzuetako lanean (Sala., 2011c: 87):

El nombre vasco de la ciudad es un compuesto con *done* 'san, santo' procedente en última instancia del latín *domine*; la evolución pudo ser la siguiente: **Done Sebastiani* > **Donasebastiai* > **Donasa(b)astiai* > **Donasastia* > **Donastia* > *Donostia* (Mitzelena, 1997: 403), forma esta última utilizada en la actualidad y que ya encontramos en los poemas del alavés J. Perez de Lazarraga (c. 1567). Otra posibilidad sería partir de **Done Sebastiane*, de donde habría salido **Done Sebastiae* y de aquí **Done Sebastie*, ya que el antropónimo *Sebastie* está documentado. La evolución posterior habría sido en este caso similar a la mencionada más arriba, es decir, **Donasastia* > **Donastia* > *Donostia*. Existe la tendencia, en el euskera hablado, a suprimir la *-a* final del topónimo, como en muchas otras palabras del léxico común, tal vez porque se ha identificado con el artículo.

Garbi dago, zernahi gisaz, bukaerako *-a* ez dela euskal artikulua, eta, berebat, amaierak ez duela latineko *ostium* 'atea', 'sarrera', 'ibai ahoa', 'bokalea' (*ostia* pluralean) izenarekin edo «portukoarekin» zerikusirik, Banusek (1990: 546-547) hola idatzi badu ere.

Izenaren deklinabidea dela eta, honela dio Mitxelenak (*apud* Villasante, 1972: 65): En suletino moderno se dice *Xibe(r)u*, pero con *-ú* (creo que nasal), lo que supone que la forma subyacente es *-óa*. *Zibero* es tan moderno como *Donosti*. No estará de más (dice el mismo Michelena) recordar algunos ejemplos, dada la tendencia a suprimir la *a* orgánica: 'Iru damatxo Donostiako'. 'Donostiarrak ekarri dute Getariatik akerra / kanpantorrean jarri digute Aita Santua dutela'. 'Pasaiaiko Lagun Ederrak' fue el nombre de un conocido equipo de fútbol, etc.

Etimol.: Garibaik (1628 [1571]: III: 43) Leireko dokumentazioan ageri den *Izurum* (*Izurum* Martín Duqueren arabera; ikus *Itziar* sarrera) *Iru-chulo* 'hiru zulo' 'hiru (itsaso) sarrera' interpretatzen du, eta Donostiarekin identifikatzen. S. Múgicak (1932: 622-623) *Izurum* Zumaiako hondartza dela dio (berez *Itzurum* da; ikus *Itziar* sarrera), eta *Iz-ur-un* 'itsasoko uraren lekua', 'itsatsoko urak bainatzen duen lekua' ulertu behar dela. Donostia inguruko landa guztiei dagokien hitza dela gaineratzen du, antzina, egungo trabak ukan gabe, urpean geldituko zirelako, itsasgoran. *Irutxulo* oraindik ibiltzen dela gehitzen du (*ibid.*, 623), *Donostia* esateko, ustez.

HerritarIz.: *donostiar*. *Donostiarra* (Larra., 1979 [1729]: 369), «*esadazute: nondic donostiar ta beste bizcaitar onec izcunde dontsu eta erretorica añ bici ta egoquia icasi zuten edo nor eracatsi cien?*» (Kard., 2004 [1761]: 44), «*Donostiarrak ekarri dute / Getariyatik akerra*» (ezezaguna1, 1931 [XIX. m.]: 23), «*Ni naiz Agustin, Donostiarra / orren nobiyo izana*» (ezezaguna4, 1932: 304), «*Donostiar oriek erri ontan jai aundiak eratzeko asmoa dutela badakizu*» (Labayen, 1976, II: 68).

HerritarEz.: *koxkeroak* (San Bizente elizan bataiatuak), *joxemaritarrak* (Koruko Andre Mariaren elizan bataiatuak) eta *kaxkarinak* (guztiak). «*Akabatu da atakia: Joxe-Maritarrak Donostiara eta Ganbelu anayak beren errirontz*» (Urruzuno, 1988: 40), «*Donostiar kaskariñak*» (Labayen, 1976, II: 82).

Altza

Udala: Donostia (herri beregaina, 1940 arte).

IzenOfiz.: *Altza*.

Dok.: (Top.) «...cum tota sua pertinentia, et Alça et Soroeta cum suis pertinentiis» (1141, Lac., 1949: 423; Mtez.Dz., 1975: 25; Bar., 1989: 430; Goñi, 1997: 202), «...Alza et Soroetha cum tota sua pertienentia» (c. 1178, Mtez.Dz., 1975: 26; Bar., 1989: 431), «...segunt uso e costumbre de la dicha villa de Santa Savastian (sic), vos do por ferme a Martin d'Estibares, morador en la artiga d'Alça, vesino de la dicha villa» (1439, Lar. eta Le., 1995: 96), *Alza S. Marcial* (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 28), *Alza* (ba., López, 1770), *Alza* (lu., DRAH, I, 1802: 65; Mad., II, 1845: 215; Nopgui, 1857: 37), «Alza: poblacion dependiente de la jurisdiccion de la ciudad de San Sebastian» (Go., 1862: 20).

(Antrop.) *Pero Yuannez d'Alça* (tolosarra, 1349; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267), *Iohango d'Alça* (Errenteria, 1384; *ibid.*, 1996: 213).

EuskalOnom.: (Top.) *Alza* (Oiartzun, ca.d.l., Nopgui, 1857: 54), *Alza-chiqui* (*ibid.*), *Alzaurruti* (Arrasate, *ibid.*, 125), *Altzamuño* (Amezketako aurk., 1998, AmeM), *Altzabaso* (Donostia; Zaldúa, 2012a: 156, 435, 738). Cfr. *Altzo*, *Alzaga* herriak eta *Altzaa* auzoa (Etxebarria).

EuskalTes.: «Alzaco mugapean badira iturri guezagozo anitz» (Izt., 1847: 79), «...ceña dagoen Loiolaco echadia buruan Urumeaco ibaiaren escui-aldeco bazterrean Alzatic Piñuetaraco mendiscan aldatsaren erdian» (*ibid.*, 89), «...Astigarragara; au escuitara lagaric jarraitzen du bere joaira legua bateco bidastian Alzaren azpico aldetic Loiolaco echadi andi ospatsura» (*ibid.*, 117), «Altza'n jaió ta bataiatua, / bertan bizitzen naizena» (Zabala, 1992: 394), «Altzan ere izan oi giñan [...]. Ori Donostiako ballara da orain» (Uztapide, 1975: 167).

Ebak.: [ál.t̪ə] (abs.) (Don-048), [ál.t̪i.ki.tik] (abl.) (Oia-075), [ál.t̪ə] (abs.) (Zar-023), [ál.t̪i.ki] (abs.). Bigarren eta laugarren ebakeren oinarrian *Alzatxiki* forma dago.

Etimol.: Mitxelenak (AV, 36) toponimoan *haltza* zuhaitz izena dakusa. Egia esan, ez da ohikoa atzizkirik, adjektiborik edo bestelako gehigarririk gabeko zuhaitz izenak toponimotzat ediretea, baina inoiz bada holakoren bat, konparaziorako Nafarroako *Ezkurra*; honetan, ikusten den eran, *ezkur* izena eta *-a* artikulua besterik ez dago. *Altza*-ren osagaiak, beraz, *haltz* eta *-a* izan daitezke, baina ezin txoil baztertu *haltz* eta lekuugaritasunezko *-tza* atzizkia ditugulako ideia.

Igeldo

Udala: Donostia (bizt. ent. ber.; lekua).

IzenOfiz.: *Igeldo*.

Dok.: (Top.) *Iheldo* (1141, Lac., 1949: 423), *Iheldo Bizchaya* (1141, Mtez.Dz., 1975: 25; Bar., 1989, 430), «...vecinos y conçejo del lugar de Ygueldo» (1516, Her. eta Fdez., 2011: 130), *Ygueldo* (Ortelius, 1588, mapa), *Igueldo* (lu., Isas., 1850 [1625-26: 29]), *Ygueldo* (ba., López, 1770), «*Igueldo, [lugar] en el término y jurisdiccion de ciudad de S. Sebastian*» (DRAH, I, 1802: 372), *Igueldo* (lu., Mad., IX, 1847: 402), *Igueldo* (ba., Nopgui, 1857:

67), «*Igueldo: poblacion dependiente de la jurisdiccion de la ciudad de San Sebastian*» (Go., 1862: 234).

(Antrop.) «*Petri de Ygueldo escriuano de camara del rey*» (Donostia, 1467; Her. eta Fdez., 2011: 70), *Pero Martines de Ygueldo* (Segura, 1536; Le. eta b., 2002: 442).

EuskalOnom.: «*Igeldomendi entre la villa de San Sebastián y Orio*» (Isas., 1850 [1625-26]: 230), «*Igueldomendi, entre San Sebastián y Orio*» (Larra., 1985 [1754]: 56), «*Igueldo-mendi, montaña elevada entre la ciudad de S. Sebastian y la villa de Orio de la provincia de Guipuzcoa, llamada así por el pueblo, ó aldea de Igueldo*» (DRAH, I, 1802: 372).

EuskalTes.: «*Guipuzcoac itsasorontz zaintzalle ta murrutzat dauzcan mendi eta aitzac dira [...] Arrobi, Igueldo-mendi, Chubillo [...]*» (Izt., 1847: 33), «*Orobat arquitezen dira Antigua deitzen zaion echadia alderontz, Igueldoco mendiaren muno andiac ishurten dituen ur garbi bitoreac iori chit*» (*ibid.*, 90), «*Igeldon ere bai, izaten giñan*» (Uztapide, 1975: 164).

Ebak.: [i.ɣé].do] (abs.) (Don-003) (Brs-009), [i.ɣé].do.á] (adl.) (Zdb-004).

Etimol.: Mogelek (1854: 727) honela dio: «*Igueldo.- De mucha rana: iguel asco dago, hay mucha rana. Edo es frecuencia, multitud, como Lar-edo, mucha zarza*».

Badaiteke irudi duena izatea, hau da, *igel* animalia urlehortarraren izena eta lekua adierazten dukeen *-do* atzizkia, Pasaiako *Arandoa*-n eta *Bizkardo*-n ere badatekeena (ikus Elor., 1992: 68-69, 82, eta Sala., 1994: 202, *Bizkarda* sarrera), hots, Mitxelenak (AV, 194) aipatzen duen erdarazko *Raneto*-ren euskal baliokidea (ikus Sala., 2015a: 163; DRAHk [II, 269] «*Ranero, I[ugar] del valle de Carranza*» dakar). Zernahi dela, lehen testigantzetan *-h-* dugu, ez *-g-* (*cf. Larrahona > Larragoa* [eus.] / *Larraona* [erd.], Nafarroan). Ikus Irigoien (1995: 68-69 eta 182).

Zubieta

Udala: Donostia (bizt. ent. ber.; auzoa), Usurbil (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: Zubieta.

Dok.: *vezindad de Zubieta* (1429, Mutiloa, 1976, II: 145), «*Usurbill con los vezinos de Çubieta dezisiete fuegos*» (1464-1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 166), *Zubieta (va.o.ba., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, «*Los barrios que tiene demas de la villa son cuatro, Zubieta, Aguinaga, Elizalde y Urdaiaga*» (*ibid.*, 582), *Zubieta (pu., López, 1770)*, *Zubieta (Donostia, lugar ó comunidad, DRAH, II, 1802: 417)*, *Zubieta (ba., Mad., XVI, 1850: 674)*, *Echenagusi de Zubieta (Donostia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 66)*, *Tejería de Zubieta (ibid., 69)*, *Zubieta (comunidad, ibid., 70)*, *comunidad de Zubieta (Go., 1862: 644)*.

EuskalOnom.: *Zubieta* (Hondarribia, Oiartzun, Zaldibia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 44, 60, 109). Malerrekan (N) bada *Zubieta* izeneko herria, eta Gordexolan *Zubieta* auzoa. Nafarroako *Goizueta*, ezaguna den bezala, *Goizubieta*-tik (< *goi* + *zubi* + *-eta*) dator.

EuskalTes.: «*Ubalateguico atarian artzen du bertaco itur-uraquin eguiñeratzan dan erre-choa, eta igarotzen da Lasarteren erditic Zubietara*» (Izt., 1847: 116).

Ebak.: [sú.βi.tàn] (in.) (Don-045) (Usu-029).



Zubietta (Donostia)

Etimol.: Osagai argiak *zubi* izen arrunta eta leku-ugaritasunezko *-eta* atzizkia dira. Hasierako adiera, beraz, ‘zubia dagoen lekua’, ‘zubiak dauden tokia’ izango zen.

Eibar

IzenOfiz.: *Eibar*.

Dok.: (Top.) *Eyuar* (1387, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 251), «*Villas de Saluatierra d'Iraurqui e de Plasencia e de Sant Andres d'Eybarr*» (1390, *ibid.*, 305), *Heibar, Sant Andres de Heibar* (1397, Lar. eta Ta., 1993: 51, 70), «*Los conçejos de Vergara y Elgueta y Elgoibar y Segura e Mondragon e Motrico [...] se ençerraren o fueren a Alaba ho Vizcaya o Onnati ho Aramayona ho Urquiçu o a Marçana ho ha Heibargoyen o a Çaldibar*» (1457, Le., 2007: 181), *Ehibar* (1493, S.Mar., 2000: 31), *Heybar* (1494, *ibid.*), *Eybar* (1520, 1536, Le. eta b., 2002: 335, 451), *Eibar* (Ortelius, 1588, mapa), *Eibar* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Eybar* (*vi.*, López, 1770; DRAH, I, 1802: 274; Mad., VII, 1847: 629-630), *Eibar* (*vi.*, Go., 1862: 138).

(Top.) *Marquina de Suso* (Eibar eta Soraluze) (1335, S.Mar., 2000: 36), «*en el val de Mendaro e en el val de Ego*» (1335, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 188), *Villanueva de San Andres* (1346, S.Mar., 2000: 31).

EuskalTes.: «...*onelango frescurea / guztiz obalengue Heibarrec*» (*sic*) (XVII. m., Muru., 1974: 416), «*Eibarco mugapean jaiotzen dira aimbeste iturri ezic esan leique erri au guztia dala iturrizco itsaso bat*» (Izt., 1847: 91), «...*Vizcaiatic jachi eta Eibarco erria ezque- rretara guertuan lagaric datorrena*» (*ibid.*, 112), «*Zoaz Eibarrera nik emango dizudan eskutitz batekin*» (Urruzuno, 1988: 228), «*Gipuzkoako armak egiten / erri ospatsu Eibarren*» (Eraus- kin, 1932a [1920]: 109), «*Eibartikan irabazita / Azkoitin sartu zanean*» (*ibid.*, 154), «*Ei- barko liberalak jakin, norbaitek aopetik esanda, Lizarraga an gelditu zala gaixorik*» (Orixe, 1985 [1929]: 66).

Ebak.: [ẽ̞.βá.re.rá] (adl.), [ẽ̞.βá.rèn] (in.) (Eib-027), [ẽ̞.βá.rèn] (in.) (Eib-034), [ẽ̞.βá.rèn] (in.), [ẽ̞.βá.re.rá] (adl.) (Eib-079), [ẽ̞.βár.tik] (abl.) (Ant-079), [ẽ̞.βá.rèn] (in.), [ẽ̞.βá.re.rà] (adl.) (Are-041), [ẽ̞.βá.rén] (in.) (Azp-071) (Bil-013), [ẽ̞.βár.tik] (abl.) (Elg-001) (Elg-011), [ẽ̞.βá.rén] (in.) (Esk-036), [é̞̃.βa.rá] (adl.), [é̞̃.βa.re.à] (adl.) (Zum-054). Ormaetxeak (2006: 568) hau jaso zuen Aramaion: «*Da gu Angusarren gengosen. Ba Angusarti Elgetaa, Elgetatik Eibarrea, Eibartik e Kalamua*».

Etimol.: Mitxelenak (1956a: 176), euskal toponimian azaltzen diren diptongoez ari delarik, *Eibar* eta *Aibar* (*Agibar* ere ageri da dokumentazioan, errenteriarren ara-bera) bata bestearen aldamenen ezartzen ditu, elkarren artean erlazio zuzena balego bezala, baina bistan da bukaerako *-ibar* hori alde batera utzita gauza bana direla, biga- rrena *Oibar* baita euskaraz, Euskal Herrian gaindi behin baino gehiagotan aurkitzen dugun leku izena.

Irigoienek (1986: 62-63), lehenik, *Eibar* eta egungo toponimoa eta deitura den *Egibar* gauza bera diratekeela uste du, hots, (*h*)egi 'mendi mazela' eta *ibar* 'harana' osa- gaiak dituen toponimoa dela, baina ez du segurutzat ematen. Ondoko beste lan batean (1995: 193), ordea, *Eibar*-en (*h*)egi eta *ibar* daudela dio, heraberik gabe.

Gure irudiz, beste aukera bat herritik igarotzen den *Ego* ibai izena eta aipatu *ibar* 'harana' ditugula pentsatzea da, hau da, etorkiz 'Ego ibaiaren ibarra' dela (ikus Nieto,

1997: 152). Honek duen oztopoa Irigoienen proposamenak duenaren parekoa da, ez kasu batean ez bestean -g-dun aldaera lekukotu ez delako. Are handiagoa izan daiteke oztopoa gure azalpenean, *Eibar*, ikusi dugun eran, XIV-XV. gizaldietako testigantza batzuetan *h-* duela azaltzen baita, eta *hegi*-k hasperena baitu hastapenean, soinu hori atxiki den Euskal Herriko alderdian. *Ego*, berriz, izen berezi hutsa da, pareko izen arrunt baten erreferentzia eskas duena.

Puntu honetan aintzat eduki behar da Asturiasen *Eo* ibaia dugula. García Ariasek (2005: 186, 213) *Barres* toponimoan *Eo*-ren inguruan bizi zirenen *Egovarri* izena dakusa, edo, haren ustean gauza bera dena, **Egovarres*, hots, 'Eo (< *Ego*) ibaiko *varres*-ak'. *Eo*-rekin edo **onno* 'ur korrontea'-rekin lotua (ikus *Oñati* sarreraren dioguna) dagokeen *Valdeón* ere bada (*ibid.*, 200), baina dokumentazioko *Eigon*-ek, *Eione*-k ez dute asko laguntzen, Asturiasko ikertzailearen aburuz. H. Iglesiasen proposamena ere iruzkintzen du García Ariasek (*ibid.*, 214): biarritzarraren arabera, *Egovarri* hori *Nauarri*-ren antzeko eraketa da, berez *Egob(e)-arr*, alegia, osagaitzat *Ego*, euskarazko -*be* postposizioa, etorkia adierazten duen -*arr* eta -*i* latineko kasua dituen. Honi «irismen handiko» irizten dio García Ariasek. Autore honen iritzian, beste zenbait ikertzaileentzat *Ego* hori zelta da, eta indoeuropar hizkuntzak mintzatu ziren beste alderdi batzuetako ugaldetako izen frankorekin loturik dagoke. Erroak 'ura' adiera duke, eta latineko *aqua*-rekin erlazioatua dateke.

HerritarIz.: *eibartar*. [e̞.βár.ta.ràk] (Eib-027).

HerritarEz.: *txaputxeruak* ('lehorrekoak'), *xapu herrikuak*, *armaginak*.

Agiñaga

Udala: Eibar (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Aginaga*.

Dok.: (Top.) *Aguinaga* (1602, ai., S.Mar., 2000: 26), *Aguinaga* (pu., López, 1770), *Aguinaga* (ai., DRAH, I, 1802: 9), *Aguinaga* (ai., Mad., I, 1846: 157), *Aguinaga-azpicóa* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 114), *Aginaga-gañecóa* (sic) (*ibid.*), *Aguinaga-sacristanil* (*ibid.*), *Aguirre de Aguinaga* (*ibid.*), denak ere Eibarren. «*Esta iglesia* (Eibarkoa) *se halla servida por un cura párroco y siete beneficiados; y tiene una aneja, que es la de San Miguel de Aguinaga, con un párroco llamado rector, cuyo cargo desempeña otro beneficiado*» (Go., 1862: 139).

(Antrop.) *Juan Martines de Aguinaga* (eibartarra, 1493; J. Elorza, 2000: 10), *Andres de Aguinaga* (1597, S.Mar., 2000: 47).

EuskalOnom.: *Aguinaga* (Azkoitia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 5), *Aguinaga de Mugica* (*ibid.*, 5), *Aguinaga-zar* (*ibid.*), *Aguinagabarrena* (*ibid.*), *San Martin de Aguinaga* (erm., ca., *ibid.*, 8), *Aguineche* (Azpeitia, ca.d.l., *ibid.*, 9), *Aguinagacho* (*ibid.*), *Aguinaga* (Beizama, *ibid.*, 15), *Aguinagacho* (*ibid.*), *Aguinagalde* (*ibid.*), *Aguinaga-berri* (Hondarribia, *ibid.*, 41), *Aguinagasasi* (*ibid.*), *Aguinagasasi-berri* (*ibid.*), *Aguinaga* (Oiartzun, *ibid.*, 54), *Aguinaga* (Soraluze, *ibid.*, 136), *Aguinaga* (Zestoa, *ibid.*, 17).

Beste onimo batzuk: *Agiñastegi* (Astigarragako bas., 1992, AtgM), *Aginagalde* (Ibarrako bas., 1993, IbaM), *Aginaga azpi* (Anoetako bas., 1997, AnoM), *Aginagalde* (Erre-

zilgo bas., 2000, ErzM), *Aginagamendia* (Beizamako auzoa, 2002b, BeiM), *Agiñetagaña* (Mendaroko aurk., 2003, MenM), *Agiñaldats* (Alkizako aurk., 2005, AlkM), *Agiñetako punta* (Beasaingo aurk., 2007, BeaM), *Agiñazabalaundi*, *Agiñazabaltxiki* (Larraulgo bas., 2011, LulM), *Aginagabekoa* (Lizartzako bas., 2012, LizM).

Beste hauek ere baditugu: *Agiñaga* (Aiara, A, kontzejua, auzoa; herritarren izena: *agiñagar*), *Aginaga* (Itza, N, kontzejua), *Aginaga* (Lizoain-Arriasoiti, N, herri hustua), *Agiñaga* (Usurbilgo biztanle entitatea), *Aginaga* (Zumarragako biztanle entitatea, 2015, ZmgM).

Ebak.: *Agiña* (Eibar, S.Mar., 2000: 47), [a.γi.ná.tik] (abl.) (Eib-038), [a.γí.ɲa.γa.kó] (lek.g.) (Eib-079).

Etimol.: Osagai argiak Gipuzkoako armarran ageri den zuhaitzaren izena, *hagin* (*Taxus baccata*), eta leku-ugaritasunezko *-aga* atzizkia dira. ‘Haginaren lekua’, ‘hagin tokia’ zen *Agiñaga* hasieran.

Elduain

IzenOfiz.: *Elduain*.

Dok.: (Top.) «*Los conçeiyos de Blastegui et de Elduayen a los del conçeio de Leyça*», «*Et el conçeio de Leyça fazia a los dichos conçeios de Blastegui et de Elduayen*» (1319, Zab., 1997: 496), *Elduayen* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 139), «...*las dichas collaciones e univrsidades e personas singulares de Sancta Maria d'Ernialde [...] Sant Martin de Verastegui e de Santa Cathalina d'Elduayen e de Sant Pedro de Leaburu*» (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), *Elduayen* (1464, Le. eta b., 2002: 167), *Elduaten* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Elduayen* (1595, 1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639, 673), *Elduayen* (*vi.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Elduain* (*vi.*, López, 1770), *Estrecho de Elduain* (*ibid.*), *Elduayen* (*vi.*, DRAH, I, 1802: 241; Mad., VII, 1847: 464–465; Go., 1862: 143).

(Antrop.) *Pedro d' Elduayen* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 266), *Garçia Martinez d'Elduayen* (Getariako alkatea, 1397; Le., Cr. eta Lar., 2002: 81), «*Garcia Martines de Elduayen, Alcalde Mayor de Guipuzcoa*» (Segura, 1401; Urz., 1990: 343), «*Lope Saes d'Elduayen, procurador de la dicha Probinçia*» (1457, Le., 2002: 129), *Juanes d'Elduayen* (Donostia, 1475; Cres., Cr. eta Go., 1997: 50), *Joan Martines d'Elduayen* (Tolosa, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488), «*el bachiller Juan Sanches d'Elduayen e Martin Ruiz d'Elduayen*» (1497, Le., 2002: 182), «*Juan Martinez de Elduain, letrado del dicho concexo*» (Tolosa, 1539; Le. eta b., 2002: 459).

Elduarayen forma ere lekukotzen da: «*Lope Sanches de Yhurremendi e Martin Garçia de Elduarayen procuradores del conçeio de la dicha villa de Tolosa*» (1341, Rol., 1991: 34), *Martin Garcia d'Elduarayen* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 266), *Garçia Martinez d'Elduarayen* (Errenteria, 1384; *ibid.*, 1996: 213), *Garcia Perez d'Elduarayen* (Elduain, 1450; Le. eta Ta., 1996: 39).

Elduain aldaera laburtua ere zaharra da, 1467tik aurrerakoa, ditugun datuen arabera: *Domingo de Elduayn* (1467, Zaldua, 2012a: 326), «*el bachiller Juan Sanchez d'Elduayn*» (Donostia, 1474; Cres., Cr. eta Go., 1997: 21), «*Miguel Garçia de Berastigui e Juan Martinez d'Elduain*» (Tolosa, 1475; Ayer., 1993: 124), «*Anton Martinez d Elduayn e Anton Goncalez de Andia, vezinos de la dicha villa de Tolosa*» (1511, Le. eta b., 2002: 318), «*Juan Lopes d Elduayn, vecino de la villa d Ermani*» (Ordizia, 1511; *ibid.*, 311), *Juan Martinez d'Elduayn* (Tolosa, 1528; Ayer. eta Dz.S., 1996: 521), *Elduayn* (Gari., II, 1628 [1571]: 340).

Orteliusen (1588, mapa), beste anitzetan bezala, aldaera desitxuratua dauka oraingoan ere: *R[io] El Duarzo*.

EuskalOnom.: *Elduarain* (Ibarra, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 95), *Elduainsoro* (Elduaingo aurk., 1999, EldM), *Elduainsoro* (Belauntzako aurk., 2007, BelM). Berastegin, Elduaindik gertu, aspalditik lekukotzen den *Eldua* auzoa dago.

EuskalTes.: «*Elduayengo mugapean*» (Izt., 1847: 67), «*Elduaingo plazan arquitzen da iturri bat ioria chit*» (*ibid.*, 90), «...*eta emendic chit guertu, Elduain-aldetic jachitzen diraden urac bereganaturic [...] lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza [...]*»

(*ibid.*, 115–116), «*Manuel Santa Kruz Gipuzkoako Elduainen jayo zan, Berastegitik Tolosa alderako lenengo errian*» (Orixe, 1985 [1929]: 15), «*Elduaingo Parrokiak zerbait lagundu izan bear zion*» (*ibid.*, 16), «*Santa kruz Olagan zegoan, Elduain-inguruan*» (*ibid.*, 44).

Ebak.: [é̃.dwãj̃n.gò] (lek.g.) (Eld-001), [é̃.dwã.ɲe.á] (adl.) (Brs-028).

Etimol. Salaberrik (2012: 328) honela dio, Arabako *Urabain* aztertzean:

Es posible que estemos ante un topónimo con *-ain*, con aspiración representada por <g> y por <h>, dado que existió, como se ha visto, el despoblado de *Urabiano*. Otra cuestión diferente es la relación con los topónimos en *-ien*: *Elduaien* (hay *Eldua*) (G), *Labaien* (N), *Oreien*, *Oraien* (existió también *Orai*, en Artzibar, N), y *Orkoien* (< *Orkeien*) (N). De ser antroponímico, la base sería algo como **Hurabus*, **Hurabius*, **Hulabus*, **Hulabius*. En Okondo hay un barrio llamado *Irabaien*.

Toponimoaren nondikakoa argitzeko tenorean aintzat hartu behar da formarik zaharrena *Elduaien* dela, eta franko goizik, 1467rako, *Elduain* aldaera laburtua sortu zela (erka bedi *Labaien* > *Labain*-ekin [N] eta *Urabain* [A, herri izena] / *Urabaien* [deitura] bikotearekin). Gero, luzaz, biak elkarren aldamenean bizi izan ziren, aldaera zaharra, *Elduaien*, erdaraz finkaturik (*Elduayen*) eta aldaera laburtua, *Elduain*, euskaraz erabilirik.

Horretaz landa, garbi samar dago *Elduai(e)n* herri izena, Berastegiko *Eldua* (*Eldua* -a arautua) eta Ibarako *Elduarain* etxe edo baserri izena etimologiaz estekaturik daudela. Azken hau, bestalde, *Elduarayen* lekukotzen da 1341erako eta, hortaz, *Elduáien* > *Elduáin*-en dugun bakuntze bera dugula pentsatu behar dugu, *Elduaráien* > *Elduaráin* bilakaera izan dela, [-á.jen] > [-áj̃n] alegia.

Mitxelenak (AV, 248. or.) esaten du euskaraz elkartuaren bigarren osagaiko hasierako herskari ahostuna galtzeko joera argia dagoela, Erdi Aroko lehen testigantzetatik aurrera, eta etsenpluzat *Echarren* (N), *Murugarren* (N, *barren*-etik), *Echarri* (N, *berri*-tik) eta *Sorauren* (N, *guren*-etik) paratzen ditu, besteak beste. *Labayen*-en ere antzetsuko zerbait gerta zitekeela gaineratzen du, eta jatorria *labe*-ren elkarketako aldaera den *laba* eta *-goi(h)en* izan daitekeela. AVen berean (207 sarrera), *-en* akabaila aztertzean, *Ituren* (N), *Labayen* eta *Yaben* (N) darabiltza ahotan, besteak beste, eta dio ez dela batere segurua denetan *-en* genitiboa ote dagoen.

Badirudi hor Errenteriako hizkuntzalariak *-en* superlatiboa eta *-en* genitiboa babetzat hartzen dituela, eta, izan, etorkikideak bide dira. Alabaina, arras gauza desberdinak dituzkegu *Ituren*-en, *Labaien*-en eta *Ihaben*-en, eta uste dugu hobe dela horiek ez nahastea; *Lauaien* 1032 aldeko agiri batean dago (Goñi, 1997: 28), eta gero beti aldakuntzarik gabe azaltzen da. Beraz, esan dezakegu *labe* + *goihen* analisisa ez dagoela frogatua. *Labaien*, beharbada, hemen aztertzen ari garen *Elduaien*-ekin, *Orkoien*-ekin eta *Oreien*, *Oraien*-ekin doake, amaiera bera baita denetan. Zailagoa da toponimo deskribatzaileak diren edo antroponimoak diren zehaztea, ikusi dugun eran *Urabaien* deiturak aldamenean *Urabain* eta *Urabiano* deantroponimikoak dituelako, baina *Elduaien* *Eldua*-rekin erlazionatu beharko da, *Oraien* edo *Oreien* apika *Orai* toponimoarekin (N), eta *Labaien* menturaz *labe* izen arruntarekin, bukaeran *goihen* ez egonik ere.

Egia da *Eldua*-k baduela Oiartzungo *Eldotz* oikonimoaren antza (*Eldotzerreka*, *Eldotzerrota*, *Eldotzmakinexea*) (Goik. eta Lek., 2007: 120) eta hau izen zaharra dela: *Martin Martinez d'Eldos* (Erreterria, 1384; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 213), *Esteban d'Eldoz* (Zestoa, 1509; Le. eta b., 2002: 279), *Eldos* (Isas., 1850 [1625-26]: 93). Alegia, *-otz* akabaila duten beste toponimo anitzek bezala (Sala., 2011a), *Eldotz*-ek ere pertsona izena izan lezake oinarrian, eta honek beharbada *Elduaien*-en ere antroponimo hori bera ikustera eraman gintzake, esteka begi bistakoa ez den arren.

Horretarako, jakina, beste toponimoen oinarriko antroponimoak zein diren zehaztu behar genuke, eta, berebat, atzizkia zein den eta zer funtzio zuen. *Orkoien*-en kasuan (N) forma zaharra *Orkeien* –grafiak grafia– zela aintzat harturik, *Orceiu(s)* proposa daiteke (EDH; Grezian ageri da), ez Menéndez Pidalek (1940: 27) aipatzen zuen *Orcuius*, eta *Labaien*-entzat *Labbaeus* (Solin eta Salomies, 1994: 99) izan liteke egokia.

Gulibarko herria *Oreyen* zen 1280an (Zabalo, 1972: 72), *Oreain* 1366an (Carrasco, 1973: 559) eta beste aldaera batzuk ere bazituen (*Orayan*, *Oreyan*, esaterako), toponimo askok bezala, baina herritarren izena *oreiendarra* zen, seinale herriaren izenaren forma zaharra *Oreien* zela. Menéndez Pidalek (1940: 27; 1952: 141) *Oreyen* beharbada *Oreius* antroponimotik atera dela dio; atzizkia, haren irudiko, *-ianu*, *-enu*-tik irtendako *-en* da, Espainiako beste alderdietan bezala, baina bilakaera hori gurean izatea zaila dela dirudi.

Bestalde, *Elduaien* antroponimoa dela pentsa bageneza, zein litzateke *Eldua*-reko erlazioa? Ibarrako *Elduaraien* ere ez da garden-gardena: lehen elementua *Eldu(a)* izanen da, baina zer da *-(a)raien*? Toponimian *-arain* usaian *-aran* 'harana'-ren aldaera ohi da (ikus Sala., 2000: 127-128)⁵⁵; ordea, ez da sekula, gure oroitean, *-araien* gisa lekukotzen.

HerritarIz.: *elduaindar*.

⁵⁵ Irigoienek (1995: 168) hiztegiek jasotzen ez duten **(h)arain* forma dakar, *(h)onaindi(a)* 'aquende'-ri kontrajartzen zaion *(h)araindi(a)* 'allende'-n dagoena (< *(h)arain* + *-ti* lekuzko berrekailua).

Elgeta

IzenOfiz.: *Elgeta*.

Dok.: (Top.) *Elgueta* (1335, Le., 2007: 2), *Elgueta* (1335, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 191), *villa de Elgueta* (1338, *ibid.*, 200), «*la villa d'Elgueheta [...] la villa de Santa Maria d'Elgueheta [...] nuestros parientes que son de los d'Elgueheta [...] fñiosdalgo d'Elgueheta*» (1348, *ibid.*, 257), *Elguet* (1373, S.Mar., 2000: 94), «*Los conçejos de Vergara y Elgueta y Elgoibar y Segura e Mondragon e Motrico*» (1457, Le., 2007: 181), «*las villas de Segura e Vergara e Elgueta e Leniz y Villareal de Urrechu*» (1497-1519, Zum., 1999: 52), *villa de Elgueta* (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *termino de Elgueta* (1613, Ayer., 1997: 716), *Elgueta Maya* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*Elgueta alias Maya*» (vi., López, 1770), *Elgueta*, «*Elgueta, v[illa] de la prov[incia] de Guipuzcoa, diócesi[s] de Calahorra, dicha en lo antiguo Maya*» (DRAH, I, 1802: 243 eta II, 27), *Elgueta* (vi., Mad., VII, 1847: 467; Go., 1862: 155).

(Antrop.) «*Martin Aguilar d'Elgueheta [...] Garçia Yuanez de Elgueheta*» (1348, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 257), *Miguel Yvañez d' Elgueta* (Arrasate, 1375; *ibid.*, 1996: 78).

Elgeta Maya izeneko aurkintzan sortu zen, 1335. urtean (Le., 2007: 2): «*...por fazer bien y merçed a todos los que quisieren venir poblar y morar en la puebla nueva que se faze en los campos de Maya, la qual puebla nueva ponemos nombre Elgueta, qu'es frontera de Vicaya*», «*villas de Mondragon e de Salinas de Leniz e de Maya*» (Zumarraga, 1390; Dz.S., 1985: 149), *conçeio de Maya* (Getaria, 1397; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), «*Martin Sanchez de Arançaeta, en nonbre del conçejo de Maya*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 70), *Maia* (Ortelius, 1588, mapa).

EuskalTes.: «*Elguetan iturri garbi guezagozo anitz dira chit*» (Izt., 1847: 90), «*Jarraitzen du Vergaraco errira, Anzuola bide andiaren gañean escuirontz eta ezquerretaraco chunchurrean Elgueta dituela*» (*ibid.*, 111), «*Beste onelaco (arech) bat, edo are gueiagocoa ezagutu izan neban Elguetaco erriaren mugapean*» (*ibid.*, 136), «*Eriotz auek eginda Elgetara jo zun*» (Orixe, 1985 [1929]: 76), «*Elgetan ogi bero diruetan, aize otza doan*», «*Orekan da kontuetan, ogi beroa diruetan, otza dubarik*⁵⁶ *Elgetan*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143, 148), «*Elgetan ere bai, iru aldiz*» (Uztapide, 1975: 141).

Ebak.: [el.yé.ta.kò] (lek.g.) (Elg-011), [él.ye.tàn], [el.yé.tàn] (in.) (Elg-014), [el.yé.ta.kò] (lek.g.) (Ant-045), [el.yé.ta.].de.à] (adl.) (Oña-089). Ormaetxeak (2006: 568) hau jaso zuen Aramaion: «*Da gu Angusarren gengosen. Ba Angusarti Elgetaa, Elgetatik Eibarrea, Eibartik e Kalamua*».

Etimol.: Oinarria *elge*, *elke* 'alorra', 'lur landua' da, Arabako *Elgea*-n, Gipuzkoako *Elgeta*-n eta *Elketa*-n (Urnietako baserria), Probintziako eta Nafarroako *Elkano*-n eta erresuma zaharreko *Elkarte*-n (Sala., 2010b) dagoena; berrekailua leku-ugaritasunezko

⁵⁶ 'Dohainik'.

-eta ezaguna dugu. Ikusten den eran, Erdi Aroko zenbait testigantzatan aurrean hasperena duela azaltzen da (*Elgueheta*; lodia gurea da). Hau aski ohikoa da Arabako herri izenetan (*Azazaheta*, *Burguheta*, *Gazaheta*, *Ogueheta*, etab; Sala., 2015a: 116, 143, 199, 306) eta bestetako toki izenetan (*Arreteheta*, *Corteheta*, *Elcoheta*, *Iraheta*, *Yrameteheta*, Zestoia, 1380-1479 epean) hain segur ere morfema muga markatzeko (honetaz ikus Salaberri eta Salaberri, 2016: 380-382 eta 384).

Urnietako baserri izenaren kariatara, *cf.* testigantza hauek: *Juan Migueles de Elqueta* (hernaniarra, 1429; Ayer., 2015: 782), «*Francisco de Elqueeta e Martin Sanz de Elqueeta, vecinos de la dicha tierra de Urnieta*» (1540, *ibid.*, 791), *Elqueta (casa de labor*; Nopgui, 1857: 71).

Maya dela-eta, berehala Nafarroako erdarazko *Maya* datorkigu burutara, hots, euskaraz *Amaiur* deitzen den Baztango herriaren erdarazko izena; honen lekuko zaharretan *Amaiur* dugu, era batera edo bestera idatzirik, baita *Amaia* ere txanda batean. *Maya*, goiti-beheiti, XIII. gizaldiaren erditik aitzina aurkitzen dugu. *Amaya*, *La Amaya*, *Maya* bestalde, Espainia aldean errepikatzen den toponimoa da; honetaz Tovar (1958: 832-833), Mitxelena (1972a: 80-81) eta Bascuas (2006: 37) ikus daitezke. Gai bihurri eta sakona da hau, eta ez dugu hemen ikertuko, *Maia* toponimoa *Amaia*-tik atera delako *Amaiur*-en kasuan, baina ez dakigu hola den *Maya* Elgetakoarenean. Nolanahi dela, *Amaia* Nafarroan ere behin baino gehiagotan ediren dugu, Leatxen, Lerrutzen, Lizoainen eta Legasan, eta denetan erreka baten, ugalde baten ondoan da. Beraz, nolabaiteko hidronimo balioa duela pentsatzea ez zaigu zentzugabekeria iruditzen. *Amaiur* herria, bestalde, Baztan ugaldera isurtzen den *Amaiurko erreka* edo *Araneko erreka* delakoaren ondoan dago.

HerritarIz.: *elgetar*.

Elgoibar

IzenOfiz.: *Elgoibar*.

Dok.: (Top.) *Marquina de Yuso* (1335, S.Mar., 2000: 36), «...fagan la dicha puebla en el dicho campo [d'Elgoyuar] commo es deslindado [...] e que aya nombre Villamayor de Marquina» (1345, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 252), «los de las villas de Miranda d'Iraurgui e de Saluatierra d'Iraurgui e de Villamayor de Marquina» (1394, Ayer. eta E., 2008: 40), «Villa d'Elgoybar, llamada Villamayor de Marquina» (1502-1528, Ayer., 1997: 580), *Marquina, elGoyuar (sic)* (Ortelius, 1588: 19), *Marquina de Elgoybar (vi., López, 1770)*.

Dok.: (Top.) «Los conçejos de Vergara y Elgueta y Elgoibar» (1457, Le., 2007: 181), *Elgoybar* (1501, Le. eta Go., 1998: 4), *El concexo de Elgoibar* (1509, Ayer. eta Etxe., 1999: 138), «...en las villas de Guetaria e Zumaya e Elgoibar» (*ibid.*, 141), «...e el bachiller de Lasalde por procurador de Elgoibar» (1518, Her. eta Fdez., 2011: 145), *Elgoibar* (1520, Le. eta b., 2002: 335), *Elgoyuar, Helgoybar* (Gari., II, 1628 [1571]: 286, 287), *Elgoibar* (Ortelius, 1588, mapa), *Elgoibar (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29, 113)*, «...per Elgoyuarrij & Mendari terras»⁵⁷ (Oihenart, 1992 [1637]: 682), *Elgoibar (vi., DRAH, I, 1802: 241; Mad., VII, 1847: 466-467; Go., 1862: 145)*.

(Antrop.) *Juan de Elgoibar* (Segura, 1430; Urz., 1990: 351).

EuskalTes.: «*Elgoibarco Galdaramuño deitzen zaion mendian badira arrobiac*» (Izt., 1847: 56), «*Iturri onec ura botatzen du irrin-arte batetic purrustaca, ain iori ezen erreca pizcor larricho bat eguiñeraturic, berac bacarric Devaco ta Elgoibarco erri-en mugac berecizen dituela*» (*ibid.*, 87), «...eta beste aldetic sartzen zaio Elgoibarcoa» (*ibid.*, 112), «*Alako batean begiztatu omen zuten kotxe bat, Oñatira ta Elgoibarrera asten dan bidegurutzean*» (Orixe, 1985 [1929]: 32), «...eta oso txarki zegoala oartuta, Elgoibarko gaixoetxean utzi» (*ibid.*, 66), «*Orobat Elgoibarren*» (*ibid.*, 1987: 83), «*Elgoibarren ere askotan izan gera*» (Uztapide, 1975: 142).

Ebak.: [el.go̞.βá.rèn] (in.) (Egb-001) (Egb-068), [el.gó̞.βa.rèn] (in.) (Egb-020) (Egb-041), [el.go̞.βá.rèn] (in.) (Sor-024), [él.go̞.βar.kò] (lek.g.), [él.go̞.βar.kú.a] (lek.g. + abs.) (Sor-043).

Etimol.: Irigoienek (1995: 193) *elhorri* + *ibar*-etik eratortzen du, eta dio lehen dardarkari anizkunaren disimilazio osoa gauzatu dela, bai eta ere *-l-* hasperenduaren ordeez *-g-* daukala (*cf.* Malerrekako *Elgorriaga*), hondarreko hau Mitxelenak (AV, 205; 1977a: 224) dioenari jarraikiz, seguruenik.

HerritarIz.: *elgoibartar*.

Altzola

Udala: Elgoibar (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Altzola*.

⁵⁷ «...Elgoibarko eta Mendaroko lurretan barna».

Dok.: «*balle y lugar de Alçola*» (1568, Ayer., 1997: 666), *Alcola* (Ortelius, 1588, mapa), *Alzola* (Isas., 1850 [1625-26]: 28), «*19. San Juan Bautista de Alzola*» (ai., *ibid.*, 210), *Alzola* (lu., DRAH, I, 1802: 66), *Alzola de Azpilcueta* (ai., Mad., II, 1845: 216), *Alzola* (*ibid.*), *Alzola* (ai., Nopgui, 1857: 117), *Alzola-béa* (ca.d.l., *ibid.*), «*Alzola: lugar dependiente de la jurisdiccion de la villa de Elgoibar*» (lu., Go., 1862: 26), «*Elgoibar tiene ademas las parroquias anejas de Santa Maria de Azpilgoeta de Mendaro y de San Juan Bautista de Alzola*» (*ibid.*, 150).

EuskalOnom. Ikus Aiako *Altzola*.

EuskalTes.: «*Badira ugaiotarrac*⁵⁸ *ere iru, ceintzuc deitzen diran Cascante, Olasarraga eta Alzola*» (Izt., 1847: 90), «*San Antolin, beste ballara bat; au ere Elgoibarkoa. Erritik bera, Alzola aldera [...]. Urrengo, Alzolan; an ere ez gera askotan izan, baña bi edo iru aldiz bai*» (Uztapide, 1975: 142). Cfr. hau: «*Erri au escuitara utziric eguiten zaio bere sallari, Marquina-Elgoibarcotic barrena Alzolasco echadiara*» (Izt., 1847: 112).

Ebak.: [ál.t̥so.lá] (abs.), [al.t̥só.làn] (in.) (Egb-001), [ál.t̥so.làn] (in.) (Aiz-001), [ál.t̥so.lá] (abs.) (Men-004).

Etimol.: Ikus Aiako *Altzola*.

HerritarIz.: *altzolar*.

⁵⁸ 'Ur mineralak'.

Errenteria

IzenOfiz.: *Errenteria*.

Dok.: (Top.) «Fazer poblacion de villa do so vno en vna su tierra a que dizen Orereta», «...que todos de so vno fiziessen puebla de villa en el dicho lugar de Orereta [...] fagan poblacion de villa todos de so vno que es en su termino a que dizen Orereta [...] mandamos que aya nombre de aqui adelante Villanueva d'Oyarço» (1320, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 143), «en vna tierra a que dizen Orereta», *Villanueva d'Oyarçu* (1340, *ibid.*, 220), *Villanueva de Oyarço* (1374, *ibid.*, 1996: 71), «...vieren commo (sic) nos el conçejo, alcaldes, prevoste, jurados, regidores, escuderos, fijosdalgo e onbres buenos de la villa de Renteria que esta fundada e edificada en el lugar e campo de Orereta» (1490, Cres., Cr. eta Go., 1997: 94), «procuradores de la dicha villa de la Renteria» (1509, Le. eta b., 2002: 282), «las dichas villas de San Sebastian e Segura e la Renteria e Oyarzun» (1509, Ayer. eta Etxe., 1999: 133), «El conzexo de la villa de la Renteria» (*ibid.*, 138), «jurediciones de Fuenterravia e la Renteria» (1502-1528, Ayer., 1997: 586), *Villa de Renteria* (1546, *ibid.*, 635), «Martin de larrenteria guipuzcoano natural de la villa de la Renteria» (Zaldibia, c. 1560: 263 bin.), «el capitan Joanes deysasti guipuzcoano natural de larrenteria [...] natural de Renteria» (*ibid.*, 264), *Renteria* (Ortelius, mapa eta 1588: 19), *Villanueva de Ojarcum* (*ibid.*), *Renteria* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29), «Llamóse al principio el lugar de Orereta: despues el rey D. Alonso el 12.º mandó al Concejo de Oyarzun lo poblase y cercase, para remedio de los robos y daños que se hacian, y se llamase Villanueva de Oyarzun [...] y conserva hoy su nombre primitivo Renteria», «Renteria (llamada por otro nombre Villanueva de Oyarzun)» (*ibid.*, 478, 533), *Renteria* (vi., López, 1770), *Rentería* (vi., DRAH, II, 1802: 270), *Renteria* (vi., Mad., XIII, 1849: 415; Go., 1862: 415), «Consiguiente a su contexto, esta villa conservó el nombre (Villanueva de Oiarso) que le puso el expresado monarca fundador (D. Alonso II) hasta la época en que el valle de Oyarzun se separó de su jurisdiccion. Entonces recobró el anterior de Renteria, para distinguirlo del mismo valle» (Go., 1862: 418).

(Antrop.) *Joanes de la Renteria* (Tolosa, 1521; Le. eta b., 2002: 348).

EuskalOnom.: Perurenak (2017: 130) bildu duen Goizuetako 1678ko apeoan «euskaraz» idatzirik ageri da: «Otra cassa llamada de Don Pedro propia de Don Juan de Añues vecino de la villa de Errenteria en la qual havita Bernardo de Martincho con su familia». Beste testigantza batzuk: *Renteriola* (Hernani, Isas., 1850 [1625-26]: 234), *Errenteria-mendia* [érrenteiméndiyà] eta *Errenteriasoroa* [érrenteisoruà] (Zaldua, 2012a: 898-899), *Rentería* (Zumaia, ca. d.l., Nopgui, 1857: 36). Gernika-Lumon bada *Errenteria* izeneko auzoa, Gipuzkoakoaren betekizun bera zuena.

EuskalTes.: «Artchipi deitzen zaión mendi Errenteriacóan dago arrobi bat, nabarri ederra ugari ematen debala» (Izt., 1847: 49), «Errenteriacó mendietan badira meatzeco» (*ibid.*, 65), «Errenteriacó erriac badauzca iru iturri eroso chit» (*ibid.*, 91), «...igarotzen da Errenteriará» (*ibid.*, 118), «Errenterian baciran iru oncitegui gaiñ gañecoac» (*ibid.*, 126), «Etorri ciran Errenteriaráño; erre zuten erri au guztia, bai ta Oyarzungoaren zati bat ere» (*ibid.*, 302), «Donostiyako iru damatxo / Errenteriyán dendari», «Donostiyako iru damatxo / Errenteriko kalia»

(ezezaguna¹, 1931 [XIX. m.]: 23), «*Errenteriyān dama oyekin / askotan det nik itz egiñ*» (Xenpelar, 1931a: 17), «*Errenteritik dantzara gatoz / Donostiyara pozikan*» (J. I. Uranga, 1931: 36), «*Neskatxa bat gustatzen / zaisu Errenterīn*» (P. Zabaleta, 1931a: 39), «*Errenteira juan da / ahizpa ori ikusi*» (A. Mitxelena, 1932: 317), «*Errenterī'ko Euskel-olerti-yaiari eskeñia*» (Lizardi, 1972 [1934]: 27), «*Gaur da, Errenterī langile eder ontan, leenbiziko Euskel-Olerti-Yaia*» (*ibid.*, 34), «*Errenterī'ko Olerti-Yaierako neurtitzak ala eman ditu: euskeraz ta erderaz*» (*ibid.*, 62), «*Zumarraga'ko euskal-egun oroigarria, Andoain'goa, Segura'koa, Errenterī'koa, laster Bergara'koa ere ta Otxandio'koa*» (*ibid.*, 134), «*Ori ola pasa zan, eta urrengo igandean Errenterīn trena artu nuan Arriarana joateko, eta Emilio Pasaian sartu zan trenera*» (Uztapide, 1975: 26-28).

Ebak.: [e.rɛ̃p.tej.rà] (adl.), [e.rɛ̃p.tej.kò] (lek.g.) (Err-039), [e.rɛ̃p.te.ri.jàn] (in.) (Err-049), [e.rɛ̃p.tej.ku.à] (lek.g. + abs.) (Err-051), [e.rɛ̃p.téj] (abs.) (Azp-071), [e.rɛ̃p.tej.jà] (abs.), [e.rɛ̃p.tej.á] (adl.) (Lez-002), [e.rɛ̃p.tej.kò] (lek.g.), [e.rɛ̃p.ti.kò] (lek.g.) (Oia-043). Mogelek (1854: 727) honela dio: «*Todo puro vascongado dice Errenteria ó Errenteria, como Errecalde por Recalde, Erriberra (sic) por Ribera. No hay voz vascongada que empiece por r. Los amanuenses corrompen las voces por abreviar*».

Etimol. Mogelek (1854: 727-728) honela dio, *Errenteria*-z ari delarik:

Se llama *Errenteria* al sitio de tráfico de venas de hierro. Hay entre Ondarroa y Berriatua, en Guernica y en Bilbao, tales lugares así denominados, donde se descarga la vena que traen los barcos, se pesa el hierro, se deposita y se embarca. En este supuesto *Errenteria*, dividido en sus raíces *Errent-eria*, es “lugar de renta ó lucro”. Si en el pueblo de Renteria hubo algun sitio como el que se describe, seria denominado por dicha circunstancia.

Mitxelena (1984: 280) XI-XV. mendeetan, gurean, herrien bataiatze publikoak ez direla urriak dio eta, *Rentería / Errenteria*-ri doakionez, izena jendeak eman ziola, ez inongo agintarik, eta badakigula zeintsu izan zen deizio hori ezartzeko arrazoia, Bizkaiko beste bi herriei paratzeko izan zen berbera⁵⁹.

Gipuzkoako hizkuntzalariak (*ibid.*, 281) gehitzen du *Errenteria* euskarak noizbait hartu zuen mailegua dela, izen arrunta, eta ez dakigula (toponimoaz ari da) mugatua den edo ez den, *Errenteria* ez baita argia alderdi honetatik, eta erromantzez *Rentería* nahiz *La Rentería* azaltzen baita. Aurrerago (*ibid.*, 283), *Errentería* berria dela gaineratzen du, *-nt-* multzoa aldatu gabe (horzkari ahoskabea ahostundu gabe) atxikitzen duelako; bokal protetikoa badu, baina hori nahitaezko izan da orain gutxi arte. Beste lan batean (AV, 223) *Rentería (sic)* onimoa *errenteria* ‘adua’ ‘lonja’ sarreran ematen du.

Mitxelena *Orereta* ez zuen biziki gogoko, herriaren izentako, irudi duenez⁶⁰. Honela dio (1986: 537):

Orobat, bere eta besteren jaioterriari izena aldatu nahi diotenenek «*Orereta gure herriko izena da*» aldarrikatzen digute. Hori bederen egia da, inondik ere: *Errenteria*, gure herria,

⁵⁹ Zumaian hau ageri da: «*casa, puerto e rentería de Vedua*» (1484, Ayer., 1997: 551).

⁶⁰ Aldekoa zen, aldiz, Irigoien (1995: 205-208).

sortu zen lekuari Orereta zeritzan eta egungo egunean ere bada, oker ez banabil, Orereta deritzan kalea. Bistan denez, ordea, Errenteria da gure herriaren izena eta, «La place du Peuple» eman nahi badugu aditzera, *Herriaren plaza* beharko dugu esan. Beheragokorik, ez.

Etimologiaz kestionen, garbi dago *Errenteria* toki izena *errenteria* ‘aduaana’-tik atera dela (ikus Mogeleg dioena, goitixeago, atalño honetan berean), eta hau erromantzeko *renteria*-tik. *Rentería*, bestalde, *renta* izen arruntaren eratorria da (ikus Corominas eta Pascualen hiztegia, *rendir* sarrera). Euskarazko testuetan *errenteria*-k ez du leku handirik eduki; OEHn Mogelen *Peru Abarka* laneko lekukotasun bat besterik ez da biltzen.

Orereta-ren etorkia dela-eta, pentsa daiteke lehen osagaia Iruñerrian eta hiriburutik hurbil dagoen *Ororbia* (*Orieriua* 1043an, *Ororibia* 1073an, *Oreliuia* 1094an; Mar.Du., 1983: 64, 148, 204) herri izenaren aurreneko elementua dela, Mitxelenari jarraikiz (AV, 496), nahiz eta, honek erakutsi zuen eran (1971: 241-244), hark ez duen holako itxuraldaketarik (*-n > -r*) izaten, *-eta* atzizkia lagun daukanean. Hau, hala ere, ez da, gure irudiko, guztizko debekua, egoera iruditsuan dagoen beste izenen batekin antzeko zerbait agitzen delako: gehienetan *-n > -r* aldaketarik erakusten ez duen zezen animalia izena (cf. *Zezenarro > Ezenarro* eta *Zezenaga > Zezeaga*), esaterako, *Zezer*- da Luzaideko XVI. gizaldiko *Zezerbakue* (*Cecerbacue* agirietan) toponimoan, hau da, jatorriz ‘zezenak biltzen diren gunea’ adiera zuenean. Horregatik, Nafarroako *Akerreta* eta *Ororbia* herri izenak ikusirik, iruditzen zaigu *Orereta*-ren osagaiak *orein*-en **oreir*- el-karketako aldaera eta *-eta* atzizkia diratekeela. Hasmentako **Oreireta* ‘orein lekua’ hura gero *Orereta* bihurtuko zen, diptongoa bakundu eta.

HerritarIz.: *errenteriar*.

HerritarEz.: *galletero*.

Errezil

IzenOfiz.: *Errezil*.

Dok.: (Top.) «...Yraugy, Goayz, Erretzil, Leitza [...] et tota Ypuçcoa» (1007 [c. 1032⁶¹], Goñi, 1997: 28), *Erretzil* (1186-1189, Mtez.Dz., 1975: 4; Bar., 1989: 434), *Errezil* (1186-1193, Lac., 1949: 425), *Errizil* (1186-1193, Mtez.Dz., 1975: 209), «Iohan de Mendiola, vesino de Rexil» (1394, Ayer. eta E., 2008: 35), *el mançanal de Reçil, el mançanal de Rexil* (1479, *ibid.*, 135), *Rexill* (1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 169), «Joan de Yrure, vezino de Rexil» (1509, Le. eta b., 2002: 286), *Arrexil* (Gari., II, 1628 [1571]: 341), *Raxil (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), «...por dezir Beyçama dizen Bagasama, y Seguisama, si ya no es esta Seguisama Çegama, que no esta muy distante de Beyçama, y por Errexil dizen Arracillum» (Etxabe, 1970 [1607]: 24), «...hasta la poblacion de Erregil, que entonces era grandissima [...] en una montaña que tiene al medio dia, que agora se llama Gurutçeeta, que quiere dezir de las cruces» (*ibid.*, 51), *Erregil* (*ibid.*, 56), *Rexil* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «Regil, o Arracillum el antiguo», «San Juan de Iturrioz en la montaña de Hernio, jurisdiccion de Aya, Rexil, Asteasu, Goyaz, Vidania y Albistur» (*ibid.*, 110, 210), *Regil* (*pu.*,



Errezil

⁶¹ Barrenak (1989: 432), doktore tesian, 1186-1189koa dela dio.

López, 1770), «*Regil, univ[ersidad] de la alcaldía de Sayaz*» (DRAH, II, 1802: 269), *Regil* (lu. o univ., Mad., XIII, 1849: 698), «*Rexil: universidad del partido judicial de Azpeitia, union de Sayaz*» (Go., 1862: 426), «*Arrexil = Regil.*—“Los naturales oy dia dizen *Arrexil*”: Garibay, Comp. Hist., I. XV, 13.—“vecinos de *Arrexil*”: Mendieta, 64» (Ag. eta Mitx., 1958: 45).

(Antrop.) *Miguell Perez de Rexil* (1348, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 256), «*Miguell Perez d'Errexil e Ochoa Sanchez de Leabru (sic) jurados de la dicha villa de Tolosa*» (1348, Rol., 1991: 40), *Pero Martinez de Rexil* (Astigarraga, 1382; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 183), *Pero Martinez d'Errezil* (Hernani, 1388; *ibid.*, 256), «*Pero Martinez de Erreçil e Pero Sanz de Echebe, vezinos de la dicha villa de Hernani*» (1402, Ayer., 2015: 781), «*Juan Peres de Rexil e Pero Martines de Errexil*» (Azkoitia, 1413; Ayer., 1993: 42), *Lope de Rexil* (Ordizia, 1451; Ayer. eta S.M., 2013: 89), *Martin Peres de Rexil* (Tolosa, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 489), *Juan Ochoa de Errexil* (Arrasate, 1511; Le. eta Go., 1998: 88 eta 112), «*Alberto Perez de Rexil, fiel del dicho conçejo*» (1528, Ayer. eta Dz.S., 1996: 512), *Alverto Perez de Rexil* (Tolosa, 1532; Le. eta b., 2002: 368), *Miguel de Errexil* (Legazpi, 1533; *ibid.*, 411), *Alverto Perez de Rexil* (1539, Le. eta b., 2002: 459).

EuskalOnom.: *Erresillenea* (Andoaingo etxea, 1937; Usa., 1993: 146), *Errezilena* (Dimako bas., BFA).

EuskalTes.: «*Erreçilco mendi Mauria eta Loteburua deitzen direanetan badira arrobiac*» (Izt., 1847: 54-55), «*Erreçilco mugape guztia da iturri on guezagozoz betea*» (*ibid.*, 91), «(Urolak) *Azpeitico erriaren ondoan artzen ditu escui aldetic Beizama, Urrustilla, eta Erreçilcic jachitzen diran urac*» (*ibid.*, 113), «*Egia esateko, betiko jardunarekin, Errezilko zapatariari bezela, aztu ere egin zitzaizkion batzuek*» (Urruzuno, 1988: 47), «*Erreterik saka / pillota Errezilla*» (P. Zabaleta, 1931b: 45), «*Gipuzkoaren onra aundirako / zelai bat Errezilkoa*» (Xenpelar, 1932c: 162), «*Errezilko baso mutillak jarriak*», «*Errezil'dikan atera dira / oraingo bertso berriak*» (Errezilko basomutila, 1932: 294), «*Errezil: nekez bizi ta errez il*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143), «*Zeraiñen ere izaten giñan [...]. Errezilkoa zan apaiza orduan Zeraiñen*», «*Errezillen ere izanda nago*» (Uztapide, 1975: 133, 151).

Ebak.: [e.ré.çi.λèn] (in.), [e.rá.çi̯.ðik] (abl.) (Erz-014).

Etimol.: Meyer-Lübke suitzar hizkuntzalariak, aspaldiko artikulua batean (1925: 77) Iberiar penintsulako zenbait toponimok duten *-ila*, *-ili* berrekailuaz ari delarik, esaten du zelta edo euskalduna izan daitekeela, eta *Régil*, *Cizúrquil* eta *Usúrbil* aipatzen ditu. Honela dio: «Das Suffix kann allerdings sowohl keltisch wie baskisch sein [...]. Andererseits darf man auf sard. ('sardinierazko', ustez) *Bili*, *Isili*, *Berállili*, *Sédilo* und auf bask., wie *Régil*, *Cizúrquil*, *Usúrbil* (Guipúzcoa) hinweisen»⁶².

Ramírezek (2002: 112-113) *Regil* (*sic*) euskarazkotzat jotzen du, baina ez du bere iritziaren gaineko argitasunik ematen. Euskarazko eta erdarazko aldaerak ikusirik (*Errezil* / *Régil*), badirudi lekukotasun zaharretan dagoen <tz> kontu grafiko hutsa dela;

⁶² «Atzizkia zeltatikakoa nahiz euskaratikakoa izan daiteke [...]. Bestalde, sardinierazko *Bili*, *Isili*, *Berállili*, *Sédilo*-ri eta euskarazko *Régil*, *Cizúrquil*, *Usúrbil* (Guipúzcoa)-ri errepara dakieke».

behin bakarrik agertzen ez denez gero, ordea, azalpen alternatiboa da antzinako afrikatu lepokaria ([tʃ]) igurzkari ([ʃ]) bihurtu zela -ez dakigu ongi zergatik- pentsatzea (cfr. *Lasarte* Araban eta Gipuzkoan, edo *Lasa* Baigorri aldean, hirurak ere *lats* 'errekastoarekin' lotuak).

Mitxelena (AV, 218), *erratz* landare izena duten deitura-toponimoak (*Erratzu*, *Errazkin*, *Errazti*...) aztertzean, honela dio: «No sé si tendrá que ver con ésta una forma *erre(t)z-* que aparece en *Errezaeta*, *Errezola* (*Rezola*), *Rezabal*, *Rezu*, *Rezusta* (*Resusta*)». *Errezil*-ekin batean, ikusi bezala, *Erretzil* ere kausitzen dugu, eta Nafarroako *Errezu* (*Riezu* erdaraz) behin gutxienez -tz-rekin ageri da (*Rietzu*). Euskarazko *Errezu* aldaera XVII. mendeko *Errezubide*, *Errezumendi*-tik atera da, hots, ez da belarriz jaso, eta baliteke benetan *Erretzu* izatea, gizaldi horretako dokumentazioan, gehienetan, euskarazko afrikatuak izkribuz agertzen ez direlako. Baina hola balitz ere, zer ote da amaierako -il hori?, 'hila' agian? Ez jakinki guk.

Beste azalbide bat oinarrian *erre* 'suak ahitu, hondatu' ikustea da, Nafarroako *Errea* edo *Erreta*-n bezala (berdinu bedi etimologiaz frantseseko egungo *brûler*-ekin erlazioatua dagoen *Burlada* / *Burlata*-rekin), eta bigarren osagaia zentzu metaforikoan ibilitako *zil* 'zilborra' dugula (EHHAaren arabera *zill* da bertako aldaera, egun; cfr. toponimian ezagunak diren *aho*, *begi*, *bizkar*, *bular*, *buru*, *ipurdi*, *kopeta*, *lepo*, *mazela*, *musu*... Ikus Irig., 1995: 160). Hots, etorkiz 'erretako eremuaren / eremuko zilborra' litzateke. Honetarako, *Errezil* dagoen gunea zilbortzat hartzen den eremu batekin bat datorrela edo etor daitekeela onartu behar genuke, beharbada inguruko gainetatik begiratua zuloan gelditzen denarekin (cfr. *Etxarrentxulo* edo *Beintza*, N). Aipatu *zil* hori Esteribarren (N) 1322an lekukotzen den *Cylloqui* herri hustuarekin eta Erroibarko (N) *Zilbeti*-rekin egon liteke lotua, baina jakina, hau ez da inola ere segurua (*zilko* da bertako aldaera). Gainera, *Erretzil*-en <tz> digrafoa azaldu gabe geldituko litzaiguke. Lokizen (N) *Artezil* aurkintza izena daukagu (NEAN, prozesuak, 130169; 1532-1533 urteetako da), apika *arte* zuhaitz izena eta aipatu *zil* osagaiak dituen.

Gaztelaniaz ibili izan den *Régil*, bestalde, euskarazko *Errezil*-etik atera da, edo, hobeki esan, honen *Errexil* aldaera palatalizatutik (bokal palatalak eragindako palatalizazioa?, atzeranzkoa??), ohikoa den bezala euskarazko hasierako bokala eroririk (*Recalde*, *Recondo*, *Roteta*, *Rotaache*...), dardarkari anizkunuzaren aurrean. *Arrexil* aldaera bigarrenkaria izango da, aspaldiko eta egungo aldaerak ikusita.

HerritarIz.: *errezildar*. [e.ré.ʃi̯.da.rá] (abs.) (Zes-044). «*Errezildarrak euskaldunaren / odola dute zañetan*» (Uztapide, 1975: 151).

HerritarEz.: *akerrak*.

Eskoriatza

IzenOfiz.: *Eskoriatza*.

Dok.: (Top.) *yglesia de San Pedro de Escoriaça* (1438, Her., Ach. eta Mo., 1998: 53), *Ezcoriaça* (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 216-217), «*Martin Martinez de Lete, vezino de Escoriaça*», «*Juan Ochoa de Väsabe, morador en Ascoriaça*» (1499, Bazán eta Martín, 1999: 84), *Escoriaça* (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), «*En el lugar de Escoriaça que es en el balle de Leniz*» (1511, *ibid.*, 207), *Escoriaza* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 117), *Escoriaza* (*pu.*, López, 1770), «*Escoriaza, v[illa] del valle real de Leniz*» (DRAH, I, 1802: 431 eta II, 27), *Escoriaza* (*vi.*, Mad., VII, 1847: 546; Go., 1862: 161), «*Comprendense dentro de su jurisdiccion siete anteiglesias, nombradas Apozaga, Bolibar, Marin, Mazmela, Mendiola, Guellano y Zarimuz*» (Go., 1862: 161), «*Aquí principia la mojonera con Villarreal de Alava, que sigue cerro-arriba á buscar el término llamado Herradura Herrequeta, luego al alto denominado de Abita, divisoria con el de la villa de Aramayona, donde da principio el valle de Escoriaza*» (*ibid.*, 1868, I: 60).

(Antrop.) *Pero Ferrandez d'Escoriaça* (Aramaio, 1388; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 261), *Iuan Perez d'Escoriaça* (1390, *ibid.*, 286), *Fernand Garçia d'Escoriaça* (*ibid.*, 290), «*fray Ochoa d'Escoriaça frayre de San Françisco de Vitoria*» (1435, Her., Ach. eta Mo., 1998: 42), *Lope d'Escoriaça* (1502-1528, Ayer., 1997: 590).

EuskalTes.: «*Escoriatzaco mugapean arquitzen dira arrobiac, quisua eta arbela naroró ematen dabeenac*» (Izt., 1847: 56), «*Escoriatzaco mendietan arquitzen dira burnia eta licurta noizbaiten ere atera oiciralaco aztarna eguiazcoac*» (*ibid.*, 74), «*Ezcoriatzan badira iturri guezagozo anitz*» (*ibid.*, 91), «*Ezcoriatzaco erriaren erditic*» (*ibid.*, 111).

Ebak.: [eş.kó.ri.tşá] (adl.) (Esk-014), [eş.kó.ri.tşa.kò] (lek.g.) (Esk-036), [eş.kó.i.tşa.á] (adl.), [eş.kó.i.tşàn] (in.) (Esk-051), [eş.kó.rja.tşà] (abs.) (Elg-001), [eş.kó.i.tşa.kò] (lek.g.) (Are-041), [eş.kó.i.tşa.rà] (adl.), [eş.kó.i.tşàn] (in.) (Lei-009). Aramaion Ormaetxeak (2006: 205) *Eskóitza* jaso zuen, baita beste hau ere: «...*bañe emen, e, Eskoitzako bat, enbarasa auena andrie, garbittu auela*» (*ibid.*, 553).

Etimol.: Montenegrok (1960: 505-506), *Eskoriatza* aipatu gabe ere, esaten du mea lanen ondorio diren toponimoak, erromatarrengandik heldu zaizkigunak, ugariak direla, *aurum* eta *argentum* (*plata*) hitzetatik datozenak, baina baita bestelako oinarriak dituztenak ere: *Escoira*, *Escorial*, *Escombreras*, *Herrera*, *Ferreras*, *Ferreira*, *Ferraira*, etab.

Mitxelenak (AV, 230) Azkueren eta Peñafloidako kondearen *eskoria*, *eskuria lurra* 'lur beltz ona' biltzen du, eta dio ez dagoela zalantzarik zentzu zaharra 'escoria' zela, *Escoriaza* 'Escorial'-en dugun berbera. **Eskauria* aldaera ere, mozarabierako *escauria*-rekin lotua dagoena, *Escauriaza*, *Escauriza*-n daukagu, errenteriarren arabera. *Eskauriatza*, egun, Okondoko (A) baserri baten eta auzo baten izena da, eta, seguru asko, oinarriari den **eskauria* hori gure arteko aldaera ere izan dela pentsatu beharko dugu.

Nietok (1997: 157), *El Escorial* toponimoaz mintzo, ez dakusa horren garbi, eta 'sitio donde se han echado o se echan las escorias de las fábricas metalúrgicas' balioa lehenesten badu ere, ez du guztiz txarresten ez gaitzesten latineko *aescūlu* 'arte' hitzetik

atera zelako ideia, «de donde se podría haber formado **Escular* o **Esculiar* modificado posteriormente en Escorial por la etimología popular que hemos mencionado» baitio.

Gure kasuan, nolanahi ere, franko garbi dago *Eskoriatza*, *Eskauriatza* funtsean burdinolen hondarrak botatzen ziren lekua—edo adierazten dukeela, Luzaideko behialako *Bigarren erretoa*, *Erreतालorra*, *Errestoburua* eta bestek bezala (Kamino eta Salaberri, egiten ari).

HerritarIz.: *eskoriatzar*.

Apotzaga

Udala: Eskoriatza (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Apotzaga*.

Dok.: (Top.) «*Juan de Uriarte, de Apoça*» (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 197), *parrochia de Apoça*, «*vezindades e parrochias de [...] Areyzchabaleta e Galarça e Guillano e Apoça*» (*ibid.*, 208), «*Mazmela e Apoçaga e Guellano*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Apoçaga* (Ortelius, 1588, mapa), *Apozaga* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), «*En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son: [...] Apozaga, Ugasua, Azcaraso [...]*» (*ibid.*, 208), *Apozaga* (*ba.*, López, 1770), *Apozaga* (*ai., pu.*, DRAH, I, 1802: 82 eta II, 27), *Apozaga* (*ai.*, Mad., II, 1845: 366), *Apózaga* (*ai.*, Nopgui, 1857: 123), *Apozaga* (*ai.*, Go., 1862: 161).

(Antrop.) *Martin Rruyz d'Apoça* (1340, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 224), «*Juan Yvannes, dicho Apoca*» (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 77), *Juan Peres d'Apoçaga* (gasteiztarra, *ibid.*, 122), *Martin Yvannes d'Apoça*, «*Iuan Yvannes, dicho Apoça de Çaldiuar*» (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 290 eta 294), *Martin Yvannes d'Apoça* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 72), *Juan de Apoçaga d'Aguirregoya* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 197).

EuskalOnom.: Aretxabaletan egun bada *Apotzagaetxebarri* auzoa.

EuskalTes.: «...*Arguisano, Irimo, Ipinarrieta, Descarga edo Escarca, Ichumendi, Gorostiaga, Usarraga, Elosu, Apozaga, Zarimus*» (Izt., 1847: 35).

Ebak.: [a.pó.tʃa] (abs.) (Are-003), [a.pó.ʃe.tʃe.βa.ri.ku.èk] (lek.g. + abs.) (Are-005), [á.po.tʃàn] (in.), [a.pó.tʃa.ko] (lek.g.) (Are-008), [a.pó.tʃàn] (in.) (Are-019), [a.pó.tʃàn] (in.), [a.pó.tʃa.tik] (abl.) (Are-036).

Etímol.: Mitxelenak (AV, 66) *ap(h)o* 'zapoa' eta 'apotea', 'aketza' dakuski *Apaegui*, *Apaolaza* eta *Apozaga* deitura edo toponimoetan. Guztiaz ere, *-tza* leku-ugaritasunezkoa eskuarki ez ohi da animalia izenen lagun agertzen, eta, horregatik, zentzuzkoena osagaiak **apotz(a)* eta *-aga* atzizkia ikusteari irizten diogu. **Apotz(a)* hori zer den, ordea, guretzat ez dago garbi, ez baitu irudi *apotz* 'fofo', 'esponjoso', 'poroso' adjektiboa dela, baina ezinkizunik ez legoke, lekutu den *lur*-en erako izen bati lagun egiten ziola onartuz gero.

Bolibar-Ugazua (-a)

Udala: Eskoriatza.

IzenOfiz.: *Bolibar-Ugazua* (bizt. ent. ber.).

Dok.: (Top.) «...e *Ugasu* [...] e *Mendiola Arcaraso*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Ugasua* (ai.o.par., Isas., 1850 [1625–26]: 29, 117), «*En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son: [...] Ugasua, Azcaraso, Mendiola [...]*» (ibid., 208), *Ugazua* (ba., López, 1770), «*Ugazua, ó Bolibar*» (pu. o ai., DRAH, II, 1802: 27), *Ugazua* (ba., Mad., XV, 1849: 206).

Dok.: (Top.) «...*Bolibar, que es vezindad e parrochia del dicho valle*» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 207), *Volibar* (Ortelius, 1588, mapa), «*Bolibar, llamado tambien Ugazúa*», «*Bolibar o Ugazua*» (ai., DRAH, I, 1802: 183, 431), «*Bolibar ó Ugazua*» (ai., Mad., 1845–1850: 15), *Bolibar-ugazúa* (ai., Nopgui, 1857: 123), *Bolibar* (ai., Go., 1862: 161).

(Antrop.) *Iohan Perez Volibar* (1345, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 247), *Yénigo Ferrandez Bol[i]juar* (1375, ibid., 1996: 78), *Juan Peres de Bolivar* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 112), *Iuan Garcia de Boliuarre* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 296), *Lope de Bolibar* (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 178).

EuskalOnom.: Oñatin ere *Bolibar* ageri da, 1512an (Zum., 1999: 139); Bizkaian *Ziortza-Bolibar*⁶³ udalerria dago. *Bolibar* Ubideko eta Zamudioko baserri banaren izena da, M. Gorrotxategik (a.a.) dioskunez. Gasteizko kontzejua eta Areatzako auzoa ere bada.

Cfr. *Ugasandi* (Azpeitia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 14), *Ugasarri* (Bergara, ibid., 142).

EuskalTes.: «*Ezcoriatzan badira iturri guezagozo anitz: bai ta ugaiotar sufretsu, eta menasloradunac ere. Bolibarco erreca bicichoac ureztatzen du erri au ondo egoialdetic*» (Izt., 1847: 91).

Ebak.: [bo.lí.βa.rèn] (in.) (Esk-015), [bo.lí.βar] (abs.) (Are-003), [go.lí.βar.tí] (abl.) (Are-010), [bo.lí.βar.ku.à] (lek.g. + abs.) (Are-019).

Etimol.: *Bolibar*-en jatorrizko osagaiak latineko *molinu* ‘errota’ eta *ibar* ‘harana’ dira, hots, etorkiz ‘errota ibarra’, ‘eiherako harana’ zen. Ikus Mitxelena (AV, 170; 1977a: 268) eta Irigoien (1995: 193). Berez, Eskoriatzako *Bolibar*-en testigantzak ikusirik, osagaiak *bolu* ‘errota’ eta *ibar* ‘harana’ direla pentsa daiteke, eta bilakaera *Fuika* > *Fika*-renaren iduria izan dela, hau da, **Boluibar* > *Bolibar* aldakuntza gauzatu dela, lekunea bana (hitz barnekoa vs lexema artekoa) izan arren. Arabako zaizki bereko mikrotoponimo ugariak, ordea, gaia bihurriagoa eta txirristalariagoa dela erakusten digute (ikus Knörr eta Martínez de Madina, 2009: 152, 158, Martínez de Madina eta Knörr, 2009: 25–26, 299–300, 557–558, 705, Martínez de Madina, 2010: 349, 508–509, 2013: 300, 530–531, 538, 600–603, 793–794 eta 2015: 63, 438, 540–542, 630–631; ikus orobat Salaberri, 2015a: 141).

⁶³ Herritar izena: *bolibartar*.

Ugazua dela eta, dokumentazioko testigantzek *Ugasua* erakusten dute. Iztuetak dioena aintzat harturik, toponimoaren lehen osagaia Mitxelenak (AV, 583) dakarren *urats* dela pentsa daiteke; honela dio: «*urats* “agua sulfurosa” (*ats* “hedor”, empleado aquí adjetivamente): *Urastarte* (Vergara, 1390), *Uraszurieta* (Azcoitia, 1319)». Belarraren eta dardarkariaren arteko nahasketa ez da ezinezkoa (*cf.* adibidez ongi ezaguna den *iruzki* ‘eguzkia’ aldaera, aitzineko *iduzki*, *iguzki* batetik, Pasaian ere bildu dena; EHHA), partikularki *ur* hitzaren kasuan. Berrekailua *-zu* dateke, eta toponimoaren hasmentako adiera ‘ur usaindua dagoen lekua’-edo. Aldera bedi Etxarri Aranazko *Iturrusaitu* eta Irañeta (N) *Urusaitua* (Jim. zuz., 1993a: 47, 186) leku izenekin.

HerritarIz.: *bolibartar*⁶⁴. [go.lí. ar.ta.ràk] (abs.) (Are-010).

Gellao

Udala: Eskoriatza (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Gellao*.

Dok.: (Top.) *parrochia de Guillano*, «...vezindades e parrochias de [...] *Areyzchabaleta e Galarça e Guillano e Apoça*» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 208), «*Guellano e Galarça e Surieta*» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Gaillao* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Guillano* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Guillano* (*ibid.*, 118), «*En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son: [...] Guillano, Isurrieta, Aozaraza [...]*» (*ibid.*, 208), *Guillano* (*ba.*, López, 1770), *Guellano* (*ai., pu.*, DRAH, I, 1802: 431 eta II, 27), *Guellano* (*ai.*, Mad., IX, 1847: 62; Nopgui, 1857: 123; Go., 1862: 161).

(Antrop.) *Juan Fernandes de Guellano* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 77), *Iuan Fernandez de Guellano* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 294).

EuskalOnom.: *Gellaogarai* (Eskoriatzako etxea, 2014, EskM).

Ebak.: *Gellaa* (Mitx., 1956b: 77), [ge.Áá] (abs.) (Are-003), [ge.Áá.o.ku.èk] (lek.g. + abs.) (Are-005).

Etimol. Caro Barojak (1945: 94) erromatartzearen ondorena dakusa *Guellano* toponimoan, *Lazcano*-n bezala adibidez, eta, euskarazko aldaerarik ematen ez badu ere, honela dio: «Ahora bien, estos nombres determinan, unidos a otros, la existencia de un curioso fenómeno fonético que es el de la conversion del sufijo “-ano” en “-aun”». Hau, jakina, ez da honela, euskarazko emaitza *-ao*, *-au* izaten delako, leku izendegian bederen. Caro Barojaren arabera, antrotoponimoa dugu *Guellano*, argi eta garbi, baina ez du deus esaten oinarriko pertsona izenaren inguruan.

Mitxelenak (1956b: 77–78), aipatu autorearen bidetik, deantroponimikoa dela uste du, eta *Caelianus* (*fundus*) proposatzen du iturburutzat: «Una de las anteiglesias de su (Eskoriatzako) jurisdicción lleva el nombre de *Guellano*, (forma popular *Gellaa*),

⁶⁴ Belarriz jasoa.

que puede representar muy bien un *Caelianus* (*fundus*), tipo de formación no frecuente en Guipúzcoa».

Hortaz, *Caelianus* (*fundus*) hori euskarak hartu zueneko **Celiano* [keljano] zela pentsatu beharko dugu; hemendik euskararen bilakaera arruntez *Gellano* > *Gellao* aterako zen. Oinarriko pertsona izentzat Portugalen lekukotzen den *Cel(i)us* (*Celi* da harriari dagoena; Grupo Mérida, 2003: 139) proposa daiteke. Nolanahi ere, hori ontzat hartzeko onetsi behar genuke, *Guellano* arras ongi dokumentaturik baitago, hasierako herskari belarraren (*k*-ren) ahostuntzea (*g*- bihurtzea) bokal arteko *n* ahularen hasperentezaren aurrekoa dela, eta guk ez dugu hola dela esateko argumenturik. Bestalde, *ljV* > *llV* aldakuntza burutu dela ere onartu behar genuke.

Gure ustez, errazago da, aurreko paragrafoan aipatu arazoak saihesteko, *Gellano* / *Gellao*-ren azpian den pertsona izena Lusitanian lekukotzen den *Gellius* dela pentsatzea (Grupo Mérida, 2003: 184), alegia, **Gellianus* (*fundus*) batetik abiatzea, euskarari sartu orduko *Gellano* izan behar zuenetik. Hemendik, gure hizkuntzaren ohiko bilakaeraz, **Gellāñō* > *Gellāñō* > **Gellāō* > *Gellao* aterako zen. *Gellaa*, *Gella* aldaeretan asimilazioa izan daiteke, baina toponimoa deklinatzearen ondorioa ere ikus daiteke, hein batean segurik. Dokumentazioko *Guillano*, irakurketa arazorik izan ez dela pentsatzen bada (*e* eta *i* berdintsuak ohi dira ardura, dokumentazioan), ondoko palatalaren asimilazioari zor zaiola kontu egin beharko dugu, *Guellano* lehenago agertzen delako, eta *Guellano* > *Guillano* azaltzen erraza bada ere, *Guillano* > *Guellano* bilakaera justifikatzea hain aisita ez delako.

Zernahi gisaz, Bizkaian 1013an (Hid. eta b., 1988: 2) *Gellu Nunnusoic* ageri da, itxuraz aipatu dugun latineko *Gellius* haren ondokoa, eta pentsa daiteke *-ano* / *-ao* ere, beste atzizki batzuekin agitzen den moduan (cf. *Usotz* *Uso(a)*-tik, *Zuriain*, *Zuri(a)*-tik), beregain bilakatu zela eta zeinahi oinarriari eratziki zekiokela. Geroztik, *Gellano* / *Gellao*-k ez du baitezpada aspaldiko denboretan sortua izan behar; Behe Erdi Aroan jaio toponimoa ere izan liteke.

HerritarIz.: *gellaoar*.

Marin

Udala: Eskoriatza (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Marin*.

Dok.: (Top.) «*E los mojones por do son los terminos que damos a la dicha villa [Legutio] son estos. De la una parte asi como parte termino con Huvidia e de la otra parte con Ochandiano, que es en Vizcaia, e fasta el agua de (tres cruces) e fasta las cruces de Aramaiona e como parte terminos con Mariyn*» (Legutio, 1333; Poz., 2013: 387), *collaçion de Marin*, «...vezindades e parrochias de Marin e Çarimuz» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 207, 208), «...e Marin e Çarimuz e Mazmela» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Marin* (1551, Dz.Bo., 1998: 385; Ortelius, 1588, mapa), *Marin* (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 117), «*En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que*

son: [...] *Marin, Apozaga, Ugasua* [...]» (*ibid.*, 208), *Marin* (ba., López, 1770), *Marin* (ai., pu., DRAH, I, 1802: 431 eta II, 7, 27), *Marin* (ai., Mad., XI, 1848: 233; Nopgui, 1857: 123; Go., 1862: 161).

(Antrop.) «M[...] *Marin, hijo de Ioan Marin*» (ordiziarra, 1387; Cres. eta b., 1995: 43), *Pero de Marieyn* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 78), *Pero de Marieyn, Iuan Ochoa de Marieyn* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 294).

EuskalOnom.: *Maringo erreka* (*Ugaldeandia*, Baztan, N), *Marinborda* (Lesakako bas., N).

EuskalTes.: «*Gatzagan da zentzuna, Mariñen*⁶⁵ *Marin, anakak arin*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III, 145).

Ebak.: [ma.ín.jik] (abl.) (Are-014) (Esk-013), [ma.í.nen] (in.) (Esk-015), [ma.í.ne.rà] (adl.) (Arr-084).

Etimol.: Azalpena zalantzazkoa da. Badirudi antrotoponimoa dugula *Marin*, oinarrian pertsona izena duela. Nolanahiko gisan, agirietan ez dugu sekula **Mariain* ediren, honetatik atera zitekeen *Marieyn* 1390ean aurkitzen badugu ere. Iturburuko jende izena Hispanian daukagun *Marius* (Grupo Mérida, 2003: 230) dateke, hots, etimoa eta bilakaera hauek izan dirateke: *(*uilla*) *Mariani* ‘Mario izenekoaren lurra, bazterretxea’ > **Mariain* > *Mariein* > *Mariin* (*Mariyn* idatzia) > *Marin*. Ikus Beasaingo *Garin* auzo izena aztertzean dioguna.

HerritarIz.: *marindar*.

Mazmela

Udala: Eskoriatza (birt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Mazmela*.

Dok.: (Top.) *parroquia de Mazmela*, «*Juan de Yriarte, vezino de Mazmele*» (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 207, 218), «...e *Mazmela e Apoçaga e Guellano*» (Arrasate, 1500; Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Mazmela* (1551, Dz.Bo., 1998: 386), *Maziada* (sic) (Ortelius, 1588, mapa), *Mazmela* (ai.o.par., Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*En el valle de Leniz* [...] *hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son: Ezcoriaza, Arechavaleta, Mazmela* [...]» (*ibid.*, 208), *Mazmela* (ba., López, 1770), *Mazmela* (ai., DRAH, I, 1802: 221; ai., pu., *ibid.*, 431 eta II, 27), *Mazmela* (ai., Mad., XI, 1848: 324; Nopgui, 1857: 123; Go., 1862: 161).

(Antrop.) *Pedro de Masmela* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 185).

EuskalTes.: «...eta *Gatzaqaco erria arricada bateco bidastian ezquerrerontz lagaric igarotzen da Zarimuz-co eliz-aurrea escuitic dabela, Gaztañarico echadiara, ceña dan Mazmela-co elizaurrea berecitzten duten bietaco bat*» (Izt., 1847: 111).

Ebak.: [más.pe.là] (abs.) (Esk-013), [más.pe.lá] (abs.) (Arr-084).

⁶⁵ «Poblacho de ese valle» dela dio.

Etimol.: Mailegu aire bat dauka (*m-* eta *-zm-*; *cf.* Oztibarreko *Azme*, Sala., 2004: 189-190), baina iluna da guretzat. Areson Eskoriatzakoaren antza duen *Astamela* toponimoa dugu egun, baina berdintasuna engainagarria da, 1894 arte *Astanbela*, *Astambela* izan delako (Jim. zuz., 1997g: 33).

HerritarIz.: *mazmelar*.

Mendiola

Udala: Eskoriatza (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Mendiola*.

Dok.: (Top.) *la parrochia de Mendiola, «vezindades e parrochias de Marin [...] e Mendiola e Arcaraso e Çahalgo e Coroaeta [...]»* (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 207, 208), «*Ugasu [...] e Mendiola Arcaraso»* (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), *Mendiola (ai. o. par., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, *Mendiola (ibid., 118)*, «*En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son: [...] Mendiola, Galarza, Guillano [...]»* (*ibid.*, 208), *Mendiola (ba., López, 1770)*, *Mendiola (ai., DRAH, I, 258 eta II, 18, 27, 410; Mad., XI, 1848: 375; Nopgui, 1857: 123; Go., 1862: 161)*.

(Antrop.) *Juan Urtis de Mendiola* (Arrasate, 1374; Dz.S., 1985: 71.), *Diego Martines de Mendiola, Juan Urtis de Mendiola* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 72, 78, 290), *Lope de Mendiola* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 178), «*Lope de Mendiola e Pedro de Mendiola»* (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 195).

EuskalOnom. Biziki toponimo hedatua dugu hau: auzoa da Abadiñon, Diman, Ean eta Orozkon, eta aurkintzak eta baserriak ere bat baino gehiago dira Euskal Herrian barna, Hegoaldean partikulariki. Hona gutxi batzuk: *Mendiolaburua* (Altzagako aurk., 2013, AlgM), *Mendiola, Mendiolaerrekea* (Legazpiko aurk., 2014, LgaM), *Mendiolaburuko txabola* (Eskoriatzako etxea, 2014, EskM). *Mendiola*, gainera, Gasteizko herri baten izena ere bada (Sala., 2015a: 281).

EuskalTes.: «*Mendiola.-Ap.: Mendiola, il deustac Gasto Apala...: Mendieta, 19* (cantar de Mondr.)» (Ag. eta Mitx., 1958: 55).

Ebak.: [meɲ.dí.o.la] (abs.) (Are-003), [meɲ.djó.la] (abs.), [meɲ.djó.la.tí] (abl.) (Are-010).

Etimol. Etxabek (1970 [1607]: 57) honela dio, burdina kontuez ari dela: «...que en mi language nombramos en estas prouincias con *Olea*. Que es herreria, como *Olaçual, Olauerria, Çuazola, Gaiiola, Mendiola, Egurrola, Balçola* y *Loiola*, con otros infinitos que seria cansancio referirlos». Ikus halaber Isasti (1850 [1625-26]: 236). Osagaiak *mendi* izen arrunta eta *ola* ('artzain etxola' lehenik eta 'burdinola' gero) dira, hots, jatorrizko adiera 'mendiko artzain etxola, burdinola' zen.

HerritarIz.: *mendiolar*.

Zarimutz

Udala: Eskoriatza (biztanle entitate berezia; elizatea).

IzenOfiz.: Zarimutz.

Dok.: (Top.) Çarimus (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 79), *collaçion de Çarimuz*, «...vezindades e parrochias de Marin e Çarimuz e Mazmela» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 207, 208), «...Pedro Ochoa d'Encotegui, vezino de Çalimus» (*ibid.*, 217), «...e Marin e Çarimuz e Mazmela» (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), Çarimuz (1551, Dz.Bo., 1998: 386), Carimus (Ortelius, 1588, mapa), Zarimuz (*ai.o.par.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «En el valle de Leniz [...] hay diez y siete Ante Iglesias en forma de Parroquias con sus pilas, y curas, que son: [...] Zarimuz, Marin, Apozaga [...]» (*ibid.*, 208), Zarimuz (*ba.*, López, 1770), Zarimuz (*ai., pu.*, DRAH, I, 1802: 431 eta II, 27), Zarimuz (*ai.*, Mad., XVI, 1850: 659; Nopgui, 1857: 123; Go., 1862: 161).

(Antrop.) Juan Ferrnandes de Çarimus (Landa-Leintz Gatzaga, 1383; Le., Cr. eta Lar., 2002: 293), Juan Borte de Çarymus (Aretxabaleta, 1497; *ibid.*, 185).

EuskalOnom.: Zarimuzko kurtzeroa (Eskoriatzako aurk., 2014, EskM).

EuskalTes.: «Arguisano, Irimo, Ipinarrieta, Descarga edo Escarca, Ichumendi, Gorostiaga, Usarraga, Elosu, Apozaga, Zarimus [...]» (mendia, Izt., 1847: 35), «...eta Gatzagaco erria arricada bateco bidastian ezquerrerontz lagaric igarotzen da Zarimuz-co eliz-aurrea escuitic da-bela» (*ibid.*, 111).



Leintz harana. T. Lópezen 1770. urteko mapa. ELN.

Ebak.: [ʃa.ri.muʃ] (abs.), [ʃa.ri.mu.tʃék] (erg.) (Esk-013), [ʃáɪ.muʧ], [ʃá.ri.mútʃ] (abs.) (Esk-030).

Etimol.: Gureztat ez da argia. Aintzat har bedi Eskoriatzako auzoa dela, *Mazmela* bezala, eta biak direla ilunak.

HerritarIz.: *zarimuztar*.

Ezki

IzenOfiz.: *Ezki*.

Dok.: (Top.) «...*alius mazaneto de Ezquiaga et terra Iturrioz de Gurtia*» (1055, Ubieto, 1963: 114–115), «*Collaçion de San Miguell d’Ezquiaga [...] abad de Sant Migell d’Ezquiaga*» (1385, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 245–246), *collaçion de Sant Miguell d’Esquiaga* (1386, Dz.S., 1985: 142–143), *collaçion de Ezquioga* (1390, *ibid.*, 155), *collaçion de Sant Miguel de Ezquioga* (1462, Ayer. eta S.M., 2009: 51), *Ezquioga* (*vi.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Ezquioga* (*vi.*, López, 1770), «*Ezquioga, v[illa] de la union de santa cruz de Arquisano*» (DRAH, I, 1802: 278), *Ezquioga* (*vi.*, Mad., VII, 1847: 634; Go., 1862: 164).

(Antrop.) *Iohan d’Esquioga* (Zumarraga, 1390; Dz.S., 1985: 150), *Iohan d’Ezquioga* (*ibid.*, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 305).

EuskalOnom.: *Ezki*alde (Ezkioko aurk., 2015, EzkM).

EuskalTes.: «*Ezquiogaco erri inguruan eta beraren mendietan iturri asco dira*» (Izt., 1847: 92), «*Lagatzen ere ditu bidasti-aldi batean escuirontz Gaviria, Ezquioga eta Ormaiztegui*» (*ibid.*, 113), «*Ezkion dagon milagrua ori / ikusitzeko idian*», «*estaziyotik Ormaiztegiara / Ezkiyo non dan galdian: / Zumarragatik automobillak / danak alkarren pelian*» (Txirrita, 1931b: 15), «*...ta Ezkioko kontuak ere / kasik alako moduan*», «*Ama Birjiña askok ikusi / Ezkioko larrian*» (Txirrita, 1931d: 46), «*Ezkiogan ere bai; Zepairekin an ere*» (Uztapide, 1975: 134).

Ebak.: [eʃ.kí.ò] (abs.), [eʃ.kí.ón] (in.) (Ezk-008), [eʃ.kí.o.i.tʃa.ʃo.kòk] (lek.g. + abs.) (Bea-008).

Etimol. Mitxelenak (AV, 239), *ezki* zuhaitz izenari eskainitako atalñoan, *Ezquioga* sartzen du, eta hau gehitzen: «La terminación de *Ezquioga*, seguramente por falta de documentación temprana, no está clara». Oinarria, beraz, *ezki* da errenteriarren iritzian.

Lehen bi testigantzek (1385ekoak eta 1386koak; 1055ekoak ez da segurua) etimotzat *Ezkiaga*, hau da, *ezki* zuhaitz izena eta leku-ugaritasunezko *-aga* atzizkia ikustearen alde hitz egiten dute; honela izatera, toponimoaren hasierako adiera ‘ezkia dagoen lekua’, ‘ezkiak dauden tokia’ izanen litzateke, baina *-o-dun* aldaera garai bertsuan edireten dugu, 1390ean, eta berriki arte izan da ofiziala. Forma zaharra hau balitz, *Añorga-n*, *Lerga-n*, *Uterga-n* dugun *-ga* atzizkia (aipatu *-aga*-rekin lotua dagokeena) ikusi behar genuke, eta oinarrian *ezki* zuhaitz izena eta ausaz gradu hurbileko *o* artikulua. Honela balitz, hastapeneko balioa arestian aipatu dugun bera edo bertsua litzateke.

Zernahi gisaz, arazoak badira batetik bestera igarotzeko, hau da, *Ezkiaga* > *Ezkioga* edo *Ezkioga* > *Ezkiaga* aldakuntzen arrazoiaren berri emateko. Elkarrekin zuzenki lotutako izen desberdintzat ere har genitzake. Besterik da gero *Ezkioga* > *Ezki* pausoa zeri zor zaion zehaztea: itxuraz belar igurzkaria erori dateke lehenik (*Ezkioga* > **Ezki*), eta gero bukaerako *-a* (**Ezki* > *Ezki*), menturaz deklinatzearen ondorioz artikulutzat ulertu zelako apika (*cf.* *Aramaiona* > **Aramaioa* > *Aramaio*, Sala., 2015a: 85).

HerritarIz.: ezkiotar.

HerritarEz.: otamotzak ('ote motzak').

Anduaga

Udala: Ezkio (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: Anduaga (Santa Lutzia).

Dok.: (Top.) «...*seyendo nos ajuntados en Santa Lusía de Anduaga, que es en la jurisdicción de la dicha collaçion d'Esquioga*» (1411, Dz.S., 1993: 107), «*Santa Lucia de Anduaga en Alegria de Ormaiztegui, en Aleria*» (ai., Isas., 1850 [1625-26]: 212), «(Ezquioga) *tiene un barrio llamado Anduaya compuesto de varios caserios contiguo al camino real de postas, donde tambien hay casa concejil [...]. Su poblacion, incluido el barrio de Anduaya [...]*» (DRAH, I, 1802: 278), *Anduaya* (Ezkio, ba., Mad., II, 1845: 301), *Andoaga-aundía* (Ezkio, ca.d.l., Nopgui, 1857: 24), «(Ezquioga) *Tiene un barrio denominado de Anduaga*» (Go., 1862: 164), *Anduaga (Santa Luzia)* (Ezkioko auzoa, 2015, EzkM).

(Antrop.) *Lope Garçia d'Anduaga, Iohan Garçia d'Anduaga* (Zumarraga, 1390; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 303), «*Lope Garçia d'Anduaga, alçalle de la dicha Villarreal*» (*ibid.*, 305), *Juan d'Anduaga* (Segura, 1411; Dz.S., 1993: 106).

Dok.: (Top.) *Santa Lucía* (Ezkio, ba., Nopgui, 1857: 24).

EuskalOnom.: (Top.) *Anduagacóa* (Oñati, ca.d.l., Nopgui, 1857: 131), *Anduagakua* (Oñatiko bas., 2009c, OñaM), *Anduagaundi* (*Anduaindi*), *Anduagaundiberri* (*Andaundiberri*) (Ezkioko baserriak, 2015, EzkM), *Anduagaundialdea*, *Anduagazelaia* (Ezkioko aurk., *ibid.*).

Cfr. *Andueza* (Zegama, bada., Nopgui, 1857: 16), *Andutza* (Elgetako bas., 2003, ElgM), *Anduezu* (Zumarragako bas., 2015, ZmgM). Cfr., orobat, «*Iohan Lopez d'Andueçu procurador de Seyaz*» (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 303), *Domingo de Anduoça*, *Juan de Anduoça* (Zumarraga, 1526; Le. eta b., 2002: 354).

Ebak.: [aṽ.dú.a] (abs.) (Oña-075).

Ebak.: [sṽ.ṽ.tá.lu.ṽ.á] (abs.) (Ezk-008).

Etimol.: Oinarria *andu*, *andue*, *andui* 'mahatsondoa' (Mitx., AV, 53), 'lur azpian gelditzen den enbor moztuaren zatia', 'lur barnean eta erroei lotua den zeinahi landare' (OEH) da (cfr. *Anduetza*, adibidez), eta atzizkia *-aga* leku-ugaritasunezkoa.

Gabiria

IzenOfiz.: *Gabiria*.

Dok.: (Top.) *collación de Gaviria* (1390, Dz.S., 1985: 155), *Gaviria* (1430, Urz., 1990: 351), «*Sancta Maria de Alcayn, que es en tierra de Gaviria*» (1462, Ayer. eta S.M., 2009: 155), *Gauria* (Gari., II, 1628 [1571]: 341), *Gaviria* (vi., Isas., 1850 [1625–26]: 29, 112), *Gaviria* (vi., López, 1770), «*Gaviria, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa [...]. Estuvo sujeta á la alcaldía mayor de Arería*» (DRAH, I, 1802: 302), *Gaviria* (vi., Mad., VIII, 1847: 338; Go., 1862: 195), «*El resto del vecindario se halla esparramado por su termino, dividido en cuatro partes llamadas vulgarmente Zozqueras; cuyos nombres son Ugarana, Aztirias, Madariaga y Orbeldi. En esta última se halla comprendida la parte del barrio de Alegria, compuesta de nueve casas de labranza*» (Go., 1862: 196).

(Antrop.) *Juan Martines de Gaviria* (Arrasate, 1342; Dz.S., 1985: 36), «*Iohan Perez de Gauyria e Pero Perez de Gauyria*» (1364, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 327), *Iohan Perez de Gabiria* (Erretereria, 1384; *ibid.*, 1996: 213), *Martin de Gabiria* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 106), *Lope Gabiria* (Amezqueta, 1451; Ayer. eta S.M., 2013: 97), *Martin Peres de Gaviria* (Segura, 1509; Le. eta b., 2002: 282).

EuskalOnom.: (Top.) «*Gabiria ó Gaviria*» (Erretereria, Irun, Lazkao, ca.d.l., Nopgui, 1857: 49, 52, 61), *Gabiriás* (Bergara, *ibid.*, 140), *Gavirizar* (Gabiria, ca.d.l., *ibid.*, 25), *Gabiribaso* (Gabiriako aurk., 2005, GabM), *Gabirizarraundi*, *Gabirizartxiki* (Gabiariako bas., *ibid.*), *Gabiriartxiki* (Lezoko bas., 2011, LezM).

(Antrop.) *Lope Ruys de Gaviriaçarr* (Zumarraga, 1390; Dz.S., 1985: 149).

Euskal.Tes.: «*Gabiriaco mugapean badira iturri anitz ur garbi ona iori ematen dutenac*» (Izt., 1847: 93), «(errega) *oetaco bata jachitzen da Gaviriaco mugatic, ceñari esaten zaion San Estebango erreca*» (*ibid.*, 102), «*Lagatzen ere ditu bidasti-aldi batean escuirontz Gaviria, Ezquioga eta Ormaiztegui*» (*ibid.*, 113), «*Gabiri, leku askotatik agiri*», «*Gabirin, arto-tartean gizonak agiriin (agirian)*» (Azkue, 1989 [1935–1947], III: 144), «*Gabiri, leku askotati agiri*» (Zegama, Azur., 1997: 286), «*Gabirian ere izanda nago [...]. Gabiriko baserritarren batek asto bat omen zeukan itxua [...]. Gerra-ondo artan errotak itxiak egon ziren leku askotan, eta Gabirin ere ala egon omen ziran*», «*Gabirin bertan dago komentua*» (Uztapide, 1975: 135).

Ebak.: *Gabiriko* (lek.g.) (Zegama, Azur., 1997: 80), [ga.βí.ri.kòj] (lek.g. + dat.) (Gab-004), [ga.βí.rin] (in.) (Lga-043), [ga.βí.rí] (abs.) (Mtl-006).

Etimol.: Kintanak (1977: 556), *Ordizia*-ren erdal deizioa aztertzean, esaten du *Villafranca* izendapena «zerga, petxa, edo erret paguetan halako probilegio batzu» edukitzeari zor zaiola, zuzen onez gure iritzian, baina gehitzen du *Ordiziar*en ondoan den *Gabiria* ere etorkiz «petxa (edo zerga) gabeko hiria» zatekeela, *Villafranca*-ren euskarazko baliokidea. Irigoienen proposamena ere biltzen du Kintanak: haren arabera *Gabi* izen berezia eta *hiri* dirateke osagaiak, hots, *Enekuri*, *Maruri*, *Otsanduri*, *Erramelluri* eta abarren erako izena dateke *Gabiria*.

Guk uste dugu Kintanaren proposamena ezin dela onetsi, batez ere horren moduko beste herri izenik ez delako, gure oroitean. Irigoienen proposamena, bestalde,

onargarriago iruditzen zaigu, baina ez da arazogabea: herria, Iztuetaren lekukotasunetan ikusten den eran, *Gabiria* da, alegia, bukaerako *-a* hori ez da euskal artikulua, ez da jantzi-erantzikoa.

Orain urte batzuetako lanean genioenez (Sala., 2011b: 163), *Gabiria* herri izena azaltzeko Mungiaiko 1511ko *Gabarica*-rako behar dugun antroponimo ber(tsu)aren premia dugu, lehena gure ustez *-ana* / *-a* motako jabego antroponimoa baita, nahiz dokumentazioan ez den sekula *-ana* aldaera zahar ustezko hori agertzen. Baina hau ardurakoa da, bai Arabako herrien kasuan (Sala., 2015a: 37–38), eta bai *-ana* / *-a*-ren aldaera maskulinoa den *-ano* / *-ao*, *-iano* / *-io* (hemen *-i* oinarriaren zati da) Bizkaiko herrien kasuan (*Abadiano* / *Abadiño*, *Ochandiano* / *Otxandio*, baina *Bakio*, *Derio*, *Lekeitio*, *Zamudio*...) ⁶⁶. Bukaeran *-ika* dutenak ere deantroponimikoak dira (Sala., 2011b). Lan honetan genioenez, Solin eta Salomiesek (1994: 84) biltzen duten *Gaberius*-en oinarri gaitetzke: **(uilla) gaberica* > **Gaberika* > *Gabarika* (bokal asimilazioa), Bizkaiko leku izenaren kasuan, **(uilla) gaberiana* > **Gaberiana* > *Gabiriana* (bokal asimilazioa) > **Gabiriãñã* > **Gabiriãñã* > *Gabiria* Gipuzkoakoarenean.

Egun, aldiz, uste dugu Alemanian lekukotzen den *Cabilius* antroponimoa ere (EDH) egon daitekeela oinarrian. Hala izatekotz, bilakaera hau izan dela kontu egin behar genuke: **(uilla) cabiliana* > *Gabiriana* (ohikoak izan diren *k-* > *g-* eta *-l-* > *-r-* dituzkegu hemen) > **Gabiriãñã* > **Gabiriãñã* > *Gabiria*. Aldakuntzen hurrenkera alde-rantzizkoa ere izan zitekeen, hots, **(uilla) cabiliana* > **Kabiliãñã* > **Gabiriãñã* > **Gabiriãñã* > *Gabiria*. Ez jakinki guk. Hasierako adiera ‘*Cabilius* deritzanaren bazterretxea, jabetza’ zatekeen.

Iturburu beretik abiatuturik toponimoa azaltzeko beste bidea **(uilla) cabilia* batean pentsatzea da, adjektibo balioa duen etimoan alegia, Nafarroako *Marcilla* (< **(uilla) marcëlla*, itxuraz) leku izenaren kasuan bezala. Ikus ondorioetan gai honetaz dioguna.

HerritarIz.: *gabiriar*.

HerritarEz.: *makilariak*.

Alegia (ikus *Itsaso-Alegia*)

⁶⁶ M. Múgicak (2018: 556), oker, bestela uste badu ere. Zinez harrigarriak dira autore honen proposamenak, arraz zimendu ahuletan oinarriturik eraikin erraldoiak goratu nahi baititu.

Gaintza

IzenOfiz.: *Gaintza*.

Dok.: (Top.) «...nos los moradores de las collaciones de [...] Zaldivia e de Gainza e de Ysasondo» (1399, Ayer. eta S.M., 2013: 11), «...el dicho conçejo de la dicha Villafranca, con todas sus vezindades, es a saber: [...] Arama e Gaynça [...]» (1409-1410, *ibid.*, 45), *Gaynça* (Gari., II, 1628 [1571]: 378), *Gainea* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Gainza* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Gainza* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29; López, 1770), «*Gainza, v[illa] de la union de Oria*» (DRAH, I, 1802: 291), *Gainza* (*vi.*, Mad., VIII, 1847: 265; Go., 1862: 194).

(Antrop.) *Martin Yuanez de Gaynça* (Bermeo, 1334; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 186), *Miguell de Gaynça* (1349, *ibid.*, 268), *Iohan de Gaynça* (Segura, 1372; *ibid.*, 1996: 58), *Martin de Gaynça* (Orendain, 1384; *ibid.*, 235), *don Iohan Lopez de Gaynça* (Zumarraga, 1390; *ibid.*, 304), *Juan Ybanes de Gainza* (Getaria, 1393; *ibid.*, 361), «...*Juango de Gainça* [...] *vezino(s) de la tierra de Yrun-Urançu*» (Getaria, 1499; Le. eta b., 2002: 248), *Joan Martines de Gaynça* (Tolosa, 1521; *ibid.*, 353).

EuskalOnom.: *Gainzaberri* (Hondarribiko bas., 1728; Fur., 2002: 349), *Gainza* (Jaizkibelgo erreka, DRAH, I, 1802: 448), *Gaintza* (Lezo, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 52), *Gainza* (Irun, *ibid.*, 49), *Gainza-aundía* (Azkoitia, *ca.d.l.*, *ibid.*, 7), *Gainza-aundía*, *Gainza-azpicóa* (Deba, *ibid.*, 21), *Gainza-béa* (Aduna, *ibid.*, 37), *Gainza-Berri* (Hondarribia, *ibid.*, 42), *Gaintza* (Adunako bas., 2000, AduM), *Gaintzabekoa* (*ibid.*), *Gaintzatziki* (*ibid.*), *Gaintzain* (Errezilgo bas., 2000, ErzM), *Gaintzarreka* (Beasaingo erreka, 2007, BeaM), *Gaintzaundia* (Azkoitiko aurk., 2009b, AzkM), *Gaintzasalla* (*ibid.*), *Gaintzatzikia* (*ibid.*), *Gaintza* (Getariako bas., 2012, GetM), *Gaintzabaso* (Alzagako aurk., 2013, AlgM). Itziarren ere bada *Gaintza*: «*Eta abitu omen ziran korrikari aiek Itziaroko Gaintzatik*» (Uztapide, 1975: 108).

EuskalTes.: «*Gainzaco mugape laburrean badira zortzi iturri ur garbi ona iori ematen dutenac*» (Izt., 1847: 92), «...*Gainza, Alzaga eta Arama escuirontz lagaric igarotzen da Isasondora*» (*ibid.*, 115), «...*eta Gaintzara joan giñan eizean egiñez. An ere San Migeletan egiten dira pestak. Bi erri txiki alkarren ondoan daude Alzaga eta Gaintza, eta biak San Migeletan pestak*» (Uztapide, 1975: 125).

Ebak.: *Gaintze aldea* (adl.), *Gaintzeti* (abl.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 61, 62), [gájn.ɬè] (abs.), [gájn.ɬèn] (in) (Abl-004), [gájn.ɬe.á] (adl.), [gájn.ɬe.ko] (lek.g.) (Alg-002).

Etimol.: Osagaiak *gain* ‘gailurra’, ‘leku gora’ eta ugaritasuna ez ezik toki hutsa ere adieraz dezakeen *-tza* atzizkia dira, eta hasmentako adiera ‘gain batean den lekua’, ‘gain batean kokatutako herria’. Aldera bedi Nafarroako *Beintza* herriaren izenarekin, Elgorriagako *Beintzaga* toponimo txikiarekin eta Gesalatz aldean dugun *Behetitiko gatztea* ‘beheko gatz larraina, gazkuntzea’ toponimoko *gatzte* (< *gatz* + *-tze*) generikoarekin. *Bustitza*, *Leortza*, *Gogortza*, *Gorza* eta beste zeinahi leku izenekin ere erka daiteke (Sala., 1997). Nafarroako Araitzen ere aski goian dagoen *Gaintza* herria dugu.

HerritarIz.: *gaintzar.*

HerritarEz.: *zapoak.*

Gaztelu

IzenOfiz.: *Gaztelu*.

Dok.: (Top.) «...las dichas collaciones e vniversidades e personas singulares de Sancta Maria d'Ernialde [...] Santa Maria de Gastellu» (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), «*conçeijos de Liçaça, Gaztelu y Oresa*» (1551, Ayer., 1997: 169), *Gaztelu* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Gastula* (sic) (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Gaztelu* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Gaztelu* (lu., Isas., 1950 [1625-26]: 29), *Gaztelu* (pu., López, 1770), *Gaztelu* (lu., DRAH, I, 1802: 303; Mad., VIII, 1847: 340), «*Gaztelu: lugar de la jurisdiccion y partido judicial de Tolosa*» (Go., 1862: 197).

(Antrop.) «*Johan Miguell e Miguell de Gaztelo*» (1349, Rol., 1991: 58), «*Martin Perez de Gaztelu* [...] *Juan de Gaztelu*» (Astigarraga, 1382; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 180).

EuskalOnom.: *Gastelu-aspicóa* (Bergara, ca.d.l., Nopgui, 1857: 140), *Gastelu-gañecóa* (ibid.), *Gaztelu* (Altza, Eibar, Gabiria, Usurbil, ibid., 25, 38, 73, 115), *Gaztelu* (Zumaia, aurk., ZumM, 2007), *Gazteluerreka* (erreka, ibid.).

EuskalTes.: «*Mila vrte ygarota / Vra vere videan. / Guipuzcoarroc sartu dira / Gazteluco echean, / Nafarroquin batu dira / Beotibarren pelean*» (Mitx., 1964: 66). *Gaztelu* hau Gipuzkoako herria ote da? Agudek eta Mitxelenak (1958: 61) baietz uste dute: «*Gaztelu = Gaztelu.*—*Guipuzcoarroc sartu dira Gazteluco echean: Zaldibia, 38.* Iztuetak ere badakar (1847: 115-116): «...*Elduain-aldetic jachitzen diraden urac bereganaturic [...] lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza, Oreja, Gaztelu, Berrobi, Leaburu, Belaunza eta Ibarra*», eta orobat Uztapidek (1975: 125, 126): «*Gaztelun ere izaten giñan. Ori ere Nafarroako mugan dago*», «*Leaburu dago beste erri bat, Gazteluko bidean ezkerretara kamio batetik joaten da ara*».

Ebak.: [gaş.té.lu.à] (adl.) (Brs-028), [gaş.té.lùn] (in.) (Lbu-001).

Etimol.: Honen oinarrian *gaztelu* izen arrunta dugu, Nafarroako *Gaztelu*-n eta gure mikrotoponimian ehunka aldiz aurkitzen dugun *Gaztelu*(-) guztietan bezala: Cfr. Zaldibiako *Ausa Gaztelu* mendia.

HerritarIz.: *gazteluar*.

Getaria

IzenOfiz.: *Getaria*.

Dok.: (Top.) «...*meis populatoribus de Guetaria*» (1209, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 21), «*conceios de Fuenterrabia e Guetaria*» (1318, *ibid.*, 129), «*villa de Guetaria, Martin d'Erexa, iurado fiel del dicho conçeio*» (1394, *ibid.*, 1996: 393), «*Pero Yuannes de Çaraos, procurador del dicho conçeio de la dicha villa de Guetaria*» (1394, Ayer. eta E., 2008: 40), «*Pedro de Laurgay et Martin d'Orexa vesinos de Guetaria*» (1397, Bar., 1982: 47), «...*los dichos Juango de Miurabia y Domingo de Liçaola, dicho "Orio", veçinos de Guetaria*» (1499, Le. eta b., 2002: 248), «*Iuan Sebastian del Cano, de nacion cantabro, natural de Guetaria*» (Gari., I, 1628 [1571]: 59), *Guetaria* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29), «...*at Occidentem versus, sunt duo alij portus ignobiles Guetaria ac Motrico cum cognominibus vicis*»⁶⁷ (Oihenart, 1992 [1637]: 686), *Guetaria* (vi., López, 1770; DRAH, I, 1802: 317; Mad., IX, 1847: 72-73; Go., 1862: 201).

(Antrop.): *Vidal Ochoa de Guetaria* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 136).

EuskalOnom.: Lapurdin izen bereko herria dugu, *Getaria*. Donibane Garazin, 1412-13an, «*L'ostau de Johan de Guetayry*» ageri da (Ciér., 1993: 104).

EuskalTes.: «*Guezurra nenzan Guetarian, ni ichean ta ura atarian*» (Isas., 1850 [1625-26]: 173; Mitxelena [1964: 178] honela dakar: «*Guezurra nesan Guetarian, ni ychean ta ura atarian*»), «*Guetariaco plazan arquitzen da iturri bat lau chorrotatic ura iori dariola*» (Izt., 1847: 94), «*Aizarnazabal, eta Oiquiñaren guertutic igarotzen da Zumaiaira, eta emen egonaldi batzuk equiñaz erri au ezquererontz eta Guetaria, ez urrun, escuitara lagaric [...]*» (*ibid.*, 113), «...*Donostia, Orio, Zarauz, Getaria [...]*» (*ibid.*, 202), «*Zarauz izana gatik Nire jatorriya / Leyal zauzkat goguan / Beti, Getariya*» (Egaña, 1932 [1855]: 124), «*Donostiarrak ekarri dute / Getariyatik akerra*» (ezezaguna1, 1931 [XIX. m.]: 23), «*Euskaldumaren fiestak / ziran Getariyan*», «*Juan Sebastian Elkano / Getarikua zan*» (J. J. Sarasola, 1932b: 216), «*!Nik, gure Getari ta Zarautz'eko txakolin orixka min!*» (Lizardi, 1972 [1934]: 44), «*Mundu guziya bildurtu zuben / Getariya'ren izenak*» (Zabala, 1992: 304), «*Gezur bat esan nön Getarin, ni baiño lenago zan atarin*. Variante 1^a, de Arrona: *Gezur bat esan nuen Getarian, ni baiño lenago zan atarian*. Var. 2^a, de Lope de Isas., pág. 173: *Gezurra nenzan (sic) Getarian, ni etxean, bera atarian; Gezurra esan neban atarian, ni baino lenago zan Getarian*. Var. de Moguel (Peru Abarca, pág. 123): *mendian en vez de atarian; y errian en vez de Getarian*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 145), «*Getari'ko txakoliña bera mastea (burubagatik) aguro igotzen ez bada ba*» (Labayen, 1976, II: 125), «*Getaria'n bataiatu niñuben Anton Mari izenakin*» (*ibid.*, 126), «*No estará de más (dice el mismo Michelena) recordar algunos ejemplos, dada la tendencia a suprimir la a orgánica: "Iru damatxo Donostiako". "Donostiarrak ekarri dute Getariatik akerra / kanpantorrean jarri digute Aita Santua dutela"*» (Villasante, 1972: 65), «*Getarikoa ere bai, aitona aundi bat, len musikako direttore izandakoa*» (Uztapide, 1975: 70).

⁶⁷ «...eta sartalderantz badira beste bi portu ezezagun, *Guetaria* eta *Motrico*, herrien izen berekoak».

Ebak.: [ge.tá.ĩ.kò] (lek.g.) (Get-017), [ge.tá.ri.ku.à] (lek.g. + abs.) (Aiz-001), [ge.tá.ri.ti.kàn], [ge.tá.rja.tík] (abl.) (Mut-013), [ge.tá.ĩ.dzàn] (in.) (Zum-015). Isastik XVII. gizaldian jasotzen duen esaera zaharra (ikus EuskalTes. atalñoa) Zuazok (2013: 344) honela bildu du aspaldi ez dela Araitzen (N): «*Gezurre esan nun Getarin, ni baño len zen atarin*».

Etimol. Etxabek (1970 [1607]: 51) *ke* izen arruntarekin lotzen du: «...los puertos de San Sebastian, Pasage y Guetaria, que entonces se llamaba Quetaria, por las humaredas que en su ysla se solian hazer para señal de los navegantes, de que vsan hasta oy aunque â diferente proposito».

Larramendik, hiztegi hirueleduneko (1984 [1745], l) *fumante* sarreran, honela dio: «*queeztaria, guetaria, queguillea*. Lat. Fumans». Mogelek (1854: 731-732) idazten du *Guetaria* toponimoa 'pueblo ó lugar de puerto ó surgidero' adiera duen *Gaitaria*-ren useltzearen ondorio dela. *Cádiz*-ekin identifikatzen du.

Aizkibelek (1883, I: 309), bestalde, andoaindarraren hiztegia gogora ekarriz, *getaria* 'fumante', 'atalaya en que se hacen las señas por humos' dakar, eta jarraian hau gehitzen du: «Una villa de Guipúzcoa en la costa y también en el *Labur*». Gavelek gaskoi jatorria dakusa *Getaria* bietan: *guetari* gaskoiz 'itsaso zelataria', 'itsasoa zelatzeko postua' da, eta Lapurdiko *Getarian* bazen horrelako bat, arrantzaleei balea kostaldera hurbildu zela adieraztea xede zuena (Mitxelenak biltzen du, AV, 79).

Féniék eta Féniék (1992: 49), gure *Getaria*-k aipatu gabe, honela diote: «Du verbe *gaitar* ou *guetar* vient le substantif *guèt*, "guet". Les post de guet sont en général des endroits naturels ou aménagés élevés pour que l'on y découvre bien les environs. D'où des lieux-dits **Lagoueyte** ou **Gueytot** ("petit poste de guet", commune de Moustey, L)».

Rodríguez Adradosok (2002: 46) Espainiako Mediterraneora tokialdatutako greziar toponimoen artean Tarifari hurren zen *Cetaria* aipatzen du, eta esaten izen bereko lekua Sizilian ere bazegoela. Etorikia, haren iritzian, κῆτος 'balea' da.

J. Gorrotxategik (2000b: 104) latineko *cetaria* 'arraina kontserbatzen den tokia' ematen du etimotzat, azkeneko *-a* berezko hori hobeki azaltzen baita era honetan, Gavelek proposatu eta Mitxelenak onartu *guetari* 'zelataria', 'zelatari tokia'-ren bidez baino. Justifikazio arkeologikoa ere bada, J. Gorrotxategik dioenez, kostaldeko bi herrietan arrain edo gazitze erromatar lantegiak aurkitu direlako. Beste lan batean (2009: 550-551), autore berak esaten du itxuraz ez *Guircu* eta ez *Getaria* toponimoak ez direla, *Zaldu(a)* edo *Angelu(a)*-rekin agitzen denaz bestera, izen arruntzat erabili.

Kantabriako Arnüero herriko Quejo auzoan ikus daiteke *cetaria* horietako bat: harrizkoa da, erdi berezkoa, erdi gizakiak egina, zuloekin, ura sartu eta atera dadin, itsasaldiekin batean, nonbait. Bertan den xaflan erraten denez, soberakina zen arraina bizirik gordetzeko itxiturak ziren *cetaria*, *citaria* horiek. A. González irakasle eta onomastikari kantabriarrak dioskunez (a.a.), Kantabrian berean eta Asturiasen ez dago inolakorik, aipatutakotik kanpo, baina Galizian etorki bereko *Cedeira* badago.

Bascuas (2014: 254) galiziar ikertzaileak honela dio, **Cetiārica* (*Sisarga*) toponimoaren oinarrian den *āetus* ‘zetazeoa’ hitzaren κῆτος ‘monstro mariño’ grekoko iturriaz mintzo delarik:

Este grecismo tuvo notable difusión en latín, con formas como, entre outras, *cetārius* ‘vendedor de peixe de mar’, *cetāria* ‘acuario (de peixes)’ de onde o cultismo *cetaria* e o patrimonial *Cedeira* (Cor., de *Cetaria* 830), *Cedeira* (Redondela, Pont., de *Zetaria* 899) e especialmente *Cedeira* en Ponteceso (Cor.) e en Camariñas (Cor.) non lonxe das illas *Sisargas*. Obviamente, estes *Cedeira* máis ca ‘acuarios’ han de ser nomes de lugares en cuxas augas hai abundancia de peixes, co valor colectivo do suf. *-ārius*.

HerritarIz.: *getariar*. [ge.tá.ɟa.rá] (abs.) (Mut-013).

HerritarEz.: *lapa-jaleak*.

Askizu

Udala: Getaria (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Askizu*.

Dok.: (Top.) *Aquien* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Azquiizu* (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *San Martin de Asquiizu* (*ai.*, *ibid.*, 211), *Azquiizu* (*ba.*, López, 1770), *Asquiizu* (*ba.*, DRAH, I, 1802: 125, 317), *Asquiizu* (*ai.*, Mad., III, 1847: 47), *Azquiizu* (*ai.*, Nopgui, 1857: 27), «Tiene un barrio denominado *Asquiizu*, el cual está situado en el camino que se dirige a *Zumaya*» (Go., 1862: 202).

(Antrop.) «...don *Xemeno et Iohan Hiuaynes d’Asquiçu*, clerigos e benefiçiadados en la egleſia de Sant *Saluador de la dicha villa de Guetaria*» (1344, J. Elorza, 2009: 18), *Iohan Yanes de Asquicu* (1397, Bar., 1982: 46.), *Iohan Yanez de Asquiçu* (Getaria, 1397; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), *Juan Ybanes de Asquiçu* (1453, Le., Cr. eta Lar., 2002: 80).

EuskalOnom.: *Asquia* (Billabona, 1562; *sel*, Ayer., 1997: 196), *Azquiola* (Azpeitia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 10).

Ebak.: [aʃ.ki.ʃu] (abs.) (Get-006), [áʃ.ki.ʃu.tik] (abl.) (Get-010), [aʃ.ki.ʃu.ku.à] (lek.g. + abs.) (Get-018).

Etimol.: Osagaiak *aski* ‘arrosario belarra’ izena (Iztuetak [1847: 41] erdaraz *grama* dela dio) eta *-zu* atzizki multzokaria dira.

Gipuzkoa

IzenOfiz.: *Gipuzkoa*.

Dok.: «*De rivo de Galharruaga usque in flumen de Deba, id est, tota Bizcaglia, et de ipsa Deba usque ad Sanctum Sebastianum d'Ernanni, id est, tota Ipuscua a finibus Alava usque ad ora maris*» (934, Gar.An., 2010: 103), *Garsia Açenariz de Ipuscua* (1025, Ubieto⁶⁸, 1963: 116; Bar., 1989: 419. Cfr. Mú. eta Aro., 1931: 369), «...*Egozqueta, Ezcurra, Olarumbe, Imaoç, Gulia, Jansaras [...] et tota Ypuçcoa*» (1007 [c. 1032⁶⁹], Goñi, 1997: 28), «*domna Galga [...] in monasterio Sancti Salbatoris de Ippuzka*», «*Postea vero domna Galga, ex regione Ippuzka*» (1049, Ubieto, 1963: 82-83; Bar., 1989: 421), *Garsia Açenariz de Ipuscua* (1055, Ubieto, 1963: 116), «*Senior Orbita Acenariz in Ipuçcoa, testis*», *Senior Fortun Acenariz de Ipuçcoa* (1066, Mar.Du., 1983: 118, 122), «*Ego senior Lupe Enneconnes, prolis de comite Enneco Lupiz, dominante Bizcaglia et Ipuscua et Alava*» (1082, Ledesma, 1989: 45), «...*de illo monasterio Sancti Andree apostoli et vocato Stigarriuvia inter Bizcaglia et Ipuscua sito*» (1080-1086, *ibid.*, 106), «*Comes Lupus dominans Alava et Bizcaya et Ipuçcoa, testis*» (1088, Lac., 1965: 90), *Santius de Ypuçcoa* (c. 1125, Goñi, 1997: 147), *Ipuçca, Ipuçcoa, Ypuçcoa* (1147, Alegria, Lopetegi eta Pescador, 1997: 9, 11), *Ipuscua* (1182, *ibid.*, 84), *Ipuçquoa* (1232, Jim., 1970: 247), «...*totam Ypuçcuam, Fontem Rabiam, Sanctum Sebastianum et castrum Montis Acuti*» (1234, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 22), *tierra de Ypuçcoa, Ypuçcoa* (1261, Gar.Ar., 1996: 51, 55), *tierra de Guipuzcoa* (1270, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 46), *Roy Periz d'Ipuçcoa* (Lizarrá, 1277; Zab., 1997: 62), *Tòlosa de Guipuzca (sic)* (1290, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 64), *Guipuscua* (1328, *ibid.*, 158), «*tierras de Ypuçcoa et de Alava*» (1330, *ibid.*, 169), *tierras de Ipuçcoa* (1330, Zab., 1998: 138), «*frontera de Ypuçcoa contra los malfeytores de Ypuçcoa, en deffension de la tierra de Nauarra*» (1333, *ibid.*, 160), *Tierra de Guipuzcoa* (1401, Urz., 1990: 343), *Johan d'Ipuçqua* (1401, Ciér. eta Ra., 1996: 37), *Guipuzcoa* (1409, Ayer. eta S.M., 2013: 39), «*Rotulus Fernandi Ayala, praefecti Lepuzcoe*» (1417, Ruiz de Lóizaga, 1997: 114), «*merindades de Allende Ebro con Guipuscoae e Logronno, que son en el dicho su obispado*» (1456, Le. eta b., 2002: 207), «*Noble e Leal Provincia de Guipuscoae*» (1501, *ibid.*, 267), «*los Bardulos son los que tienen las montañas y a Opuçcoa (sic)*» (Zald., c. 1560: 252), *Gvipuscoae regionis typus* (Ortelius, 1588, mapa).

EuskalOnom.: *Gipuzare* (943, Ubieto, 1976: 46); *Petersonek* (2004: 599-600) Burgosko Okako Mendietako asentamendu txiki baten izena dela uste du. Errioxa Garaian *Gipuzauri* zegoen 1067an; Eibarren *Kiputxanekea* aurkintza dago (E.U.-Ego.Ib., 1995: 289) eta Mutriku *Kiputz* izeneko aztarnategia (koba-multzoa).

EuskalTes.: «*Salinasgoa Conde : Guztien da jabe, / Guipuzcoa herrian : on guztien burua. / [...] Vencituric datorren / Conde galantori : Guipuzcoa herrira*» (1491-1510 bitartekoa; I. Sarasola, 1983: 78), «*Joan de Lazcano velçerana Guipuzcoaco capitana françes osteac*

⁶⁸ 1055eko data ezartzen dio.

⁶⁹ Barrenak (1989: 432), doktore tesian, 1186-1189koa dela dio.

jaquin godu hura Ondarribiara çana» (Zald., c. 1560: 262 bin.). Lazarragak (1567-1602: 51) *Guipusco* dakar: «*Yruneco calean / niri ondo costa jaquin / Guipuscoaco lurrean*».

XVII. mendeko testu zaharrear (Muru., 1980: 413-417) hauek ditugu: «*ytaun bequoio ezpabere / egun Guipuzcoari*», «*barriz Guipuzcoari / enzun deusagu sarri*», «*Gastela zar da berrian / ez Guipuzcoaco errian*», «*Valladilico (sic) salea / Guipuzcoari beren chinchurrac*», «*Guipuzcoan eidinoe(la?) / zuenzat ori bere obe*», «*Arabac ecarrico dau / Guipuzcoaconestara*» (resic), «*Francesac Ondarrivia / beti oydauca custicia / a artuyacu Guipuzcoa*», «*bertecozat zen artu / ce esta Guipuzcoa / guganic conseguidu*».

Axularrek (1643: 17) honela dio: «*Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian. Naffarroa garayan, Naffarroa behelean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce anhitz leccutan*».

XVIII. gizaldiko lekukotasun batzuk: «*Vascueña bertce icenez Gascueña, eta bertcela Ippuzcoa eta Cantabria hedatcen da Vizcayaco, eta Naffarroaco cembait populuetara*» (J. Etxeberri Sarakoa, 1907 [1712]: 28), «*Egun escualdun deitcen diren herriac eta escuaraz mintço direnac dira choilqui Naffarroa garaja parteric guehiena, Naffarroa behelea, Çuberoa, Laburdi, Ippuzcoa, Bizcaya eta Alaba herria*» (ibid., 49), «*Onela bada, Francian, Naffarroan, Bizcaian, Araban ta Guipuzcoan beren izquerac bacoitza bere erara dira, ta ori gauza berria ezta*» (Kard., 2004 [1761]: 26), «*Alper alperic leiatcea da; animen oneraco Bizcaico, Naffarroaco ta Guipuzcoaco iru dialectoetan escriticea guztiz premiaçco ta gauza chit bearra da*» (ibid., 55).

XIX. mendeko zenbait testigantza: «*Sagarra edér, guezateá / Guerriyan ere espateá / Domenjon de Andía / Guipuzcoáco erreguiá*» (DRAH, II, 1802: 385), «*Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldíac Don Juan Bautista Aguirre Asteasuco Erretore, eta Guipuzcoaco Arciprestazco nagusian Diputadu generalac, cristau aciai meza nagusietan eguiñac*» (J. B. Agirre, 1978 [1850], II: 1), «*Jaióze S. Ignacio Loiolaco jaunengánic Guipúzcoan*» (Lizarraga, 1994: 485), «*S. Ignacioren conséjus etorrizé Oñaterá, baita Guipúzcoan*» (ibid., 521), «*Izaquiagandic dituen doain andi oezaz gañera arquitcen da Guipuzcoaco mugape guztia [...] çnon billatuco da beste Provincia bat, Guipuzcoac aibat etsai portitç arpegui emanic [...]?» (Izt., 1847, III), «*çez da lotsagarri ez ecic, mingarri ere, Guipuzcoaco erri leialetan gazteria escolatceco, itzcho bat bacarra ere euscaraz ez daquiten maisu erdaldunac ifintea?» (ibid., V), «*Eta oraíndic, maisu guztien gañeco iracasle andi onec beguiramen gueiago ere izan ceban Guipuzcoarentzaco*» (ibid., 35), «*Hec Biscaia, Alaba, eta Guipuzcoa*» (Hiribarren, 1979 [1853]: 71, 72).**

XX. mendeko lekukotasun batzuk: «*Baño Santa Kruzec bazekizkin Gipuzkoako zokondoak*» (Orixe, 1985 [1929]: 41), «*Gipuzkoan ari zan mutil-saldoentzat gerratoki bikaña zala ta Santa Kruz eta Soroeta an tokitu ziran*» (ibid., 49), «*Gipuzkoaren onra aundirako / zelai bat Errezilkoa*» (Xenpelar, 1932c: 162), «*Gure Gipuzkoa'k izandu zuan / Urte oroigarriena*» (Erauskin, 1932d: 301), «*Ikusi ere egin diñat Europa alde artan, Nafarroa Gipuzkoetan*» (Orixe, 1987: 54), «*...eta gero, Bizkai-Gipuzkoetako paurriketan ogibidea bazuketela, angoeri kendurik*» (ibid., 83), «*Gipuzkoan, Bizkaiñ da Nafarroko menditan ezaune zan gure atte*» (Azur., 1997: 175).

Ebak.: [gí.puʃ.kwà] (abs.) (Ant-065), [gi.púʃ.kwà] (in.) (Are-019), [gí.puʃ.kɔa.tik] (abl.) (Gab-006), [gi.púʃ.kɔan] (in.) (Oia-052), [gi.púʃ.ku.tik] (abl.) (Ond-010), [gi.púʃ.kù] (abs.), [gi.púʃ.kún] (in.) (Ond-011).

Etimol.: «Vardulia tiene la etimología *bearduleya*, que en español significa *ama la porfia*, aludiendo a ser tan porfiados y costantes en la guerra, y Guipuzcoa algunos dicen que su etimología es *guc*, *ypusca*, que suena una bravosa amenaza al enemigo, *nos otros te aremos pedaços: guc, ypusca*» (Zald., c. 1560: 277 bin.), «IPVSCOAM Hispanica lingua *Guipuscoam* vocat praefixâ consonante G, quam etiam aliis quibusdam nominibus à vocali incipientibus adiicere solet: dicit enim *Gueuo* pro ouo, *Guerta* pro horto [...] *Guesca* pro Oscâ ciuitate [...] indigenæ vernaculâ linguâ *Ipuscoam* dicunt, nec aliter in veteribus monumentis hoc nomen, nisi per I vocalem inchoatum reperitur, quam etiam transpositam fuisse suspicor, in quibusdam tabulis Cartulario Ecclesiæ primariæ Baionensis insertis, quæ sancti Sebastiani oppidum, *Ipuscoæ* Metropolitim sanctum *Sebastianum de Pusico* nominant, cum de *Ipuscâ* dicere debuissent»⁷⁰ (Oihenart, 1992 [1637]: 680).

Larramendik hiztegia (1984 [1745], I: 73) honela dio: «Solo al nombre de *Guipuzcoa* no se le halla tan facilmente el significado, sea *Guipuzcoa*, sea *Ipuscoa*, sea *Puzico*, si este nombre significa á Guipuzcoa, en el instrumento del Obispo Arsio». Mogelek (1854: 752-753) izenari *l* falta zaiola dio, *Quipulza* edo *Quipultza* izan behar lukeela, eta adiera ‘tipuletan emankorra’, ‘fecundo en cebollas’ dela. Osagaiak, honen arabera, *quipul* ‘tipula’ eta ugaritasunezko *-za* edo *-tza* dira.

Mitxelenak (AV, 15. or.) hitz hasierako kontsonantez asko argitu beharra dela dio, baina ezin dela onartu zenbait «letra protetiko»-z egiten den erabilera, dokumentaturik daudenean izan ezik, *Ipuscoa* / *Guipúzcoa*-ren kasuan bezala. Lan berean, aurrerago (280 sarrera), esaten du nafar agirietan «*Ipuça*, con variantes meramente gráficas» forma bakarra dela.

Gerok honela diogu orain urte batzuetako lanean (Sala., 2011c: 65):

El topónimo aparece en los primeros documentos sin la velar inicial, es decir, como *Ipuscoa*, *Ipuscua*, y el natural de la misma es llamado *ypuçca* (*iputza*), convertidos desde hace siglos ya en *Gipuzkoa* y *giputz* respectivamente, con prótesis de *g-* no desconocida en euskera (cf. *altzairu* / *galtzairu* ‘acero’) [...]. Como en el caso de *Nafarroa* y otros, es el gentilicio, el que con la ayuda del sufijo locativo *-oa* ha dado lugar al nombre de la provincia (Azkue,

⁷⁰ «Españiar hizkuntzak *Ipuscoa*-ri *Guipuzcoa* deitzen dio, G- kontsonantea aurrean ipinita, bokalez hasten diren beste hitz batzuei ere eratzikitzen zaiena, *guevo* esaten baitu *ouo*-ren ordeez, *guerta* hortoren partez [...] *Guesca* *Oscâ* hiri[izen]aren ordainez [...] bertakoek beren hizkuntzan *Ipuscoa* esaten dute, eta dokumentu zaharretan izen hau *i* bokalarekin baizik ez da hasten, zein, susmoa dut, tokiz aldaturik baitzegoen Baionako eliza nagusiko kartularioko larruki batean, hor Gipuzkoako burua den Donostiako hiriari *San Sebastian de Pusico* (*de Puzico*) esaten baitzaio, ez behar bezala *de Ipuscua*».

1927: 182⁷¹). La evolución habrá sido la siguiente: *(G)iputzoa > *(G)ipuztoa > (G)ipuzkoa, paralela a otras como *aetz* + *-oa* > **Aeztoa* > *Aezkoa*, nombre de un valle navarro y *nafar* + *-oa* > *Nafarroa* (*Navarra*).

Aebischer-ek (1948: 64) koronimoak sailkatzeko zazpi kategoria ezartzen ditu, eta laugarrenean eskualde batean bizi den edo bizi izan den populu baten izenean oinarritutakoak sartzen ditu, lehen multzoan eratorpenez sortu direnak, eta, gure ustez, hor eman behar genuke *Gipuzkoa*, baita *Aezkoa* eta *Nafarroa* ere.

Toponimoaren bukaeraren kariaz, honela diogu (Sala., 2011c: 65):

Existe una gran cantidad de topónimos en *-keta* que proceden sin duda de un anterior *-eta* similar al romance *-eda* de *Cereceda*, como por ejemplo **Ametzeta* ‘quejigal’, ‘carballeda’ > **Amezeta* > *Amezketa*, nombre de una localidad guipuzcoana, y seguramente en *(G)ipuztoa > (G)ipuzkoa la evolución habrá sido similar, a pesar de que el entorno fónico no es el mismo, ya que en **Ametzeta* > *Amezketa* podemos pensar que ha habido disimilación de dentales (*t-t* > *k-t*). Es indudable, sin embargo, que en ciertos contextos⁷² se ha producido una confusión entre las oclusivas velares y las dentales (cf. *Erret Ihera* en 1150, de un anterior **errek ihera*, en último término de *errege ihera* ‘el molino real’).

Afrikatuek (kasu honetan (g)iputz-en azken *-tz* horrek) fonema eta erdiren baliola-edo dukete, beste soinuak baino luzeagoak dira eta, alderdi horretatik, aukera badagoke interbertsioa gertatu dela pentsatzeko, alegia, *-tz-* > *-zt-* pausoa burutu dela kontu egiteko. Ikus orain gai honetaz *Aiztondo* sarrerako oin-ohar batean dioguna. Honela jarraitzen dugu (*ibid.*, 65-66):

Irigoien (1977: 515) propone, como terminación de *Aezkoa*, *Gipuzkoa* y *Nafarroa*, el sufijo *-goa* que indica profesión (*arozgoa* ‘profesión de herrero’, *zurgingoa* ‘profesión de carpintero’, por ejemplo) y sirve también para crear nombres abstractos. Indica este investigador, además, que la *-a* final es orgánica, no el artículo, y que tras sibilante sorda se ha solidado ensordecen (*gaitzerizkoa* ‘odio’, *onherizkoa* ‘amor’). Esto viene bien en el caso de *Aezkoa* y *Gipuzkoa* en cuanto a la forma, pero el sufijo *-goa* no ha tenido nunca, que sepamos, sentido locativo, y, por otro lado, la forma *-oa* que encontramos en *Nafarroa* y en *Ondarroa* (de *hondar* ‘arena’), nombre de una localidad vizcaína, tiene todo el aspecto de ser más antiguo que *-koa* de *Aezkoa* y *Gipuzkoa*, como ocurre en una larga serie de sufijos que tienen dos variantes, una con inicial vocálica y otra con inicial consonántica (*-asun* / *-tasun*, *-izun* / *-kizun*, *-un(e)* / *-gun(e)*, *-kun(e)* etc.). Es por ello preferible, creo, pensar en *-oa* ‘territorio, lugar’ inicial, forma de la que, tras sibilante africada (*tz*), habrá salido *-koa*.

Aldaera zaharrena hasieran *g-rik* ez duena dela irudi badu ere (ikus Dok. atala), garbi dago *g-duna* ere hasmentatik-edo lekukotzen dela, agirien datatzearekin arazo bat baino gehiago egon arren. Gu ez gara nor horretan sartzeko eta, jatorrizkoa *iputz* edo *giputz* izan, ez dago zalantzarik, gure ustez, gentilizioa dagoela Probintziaren ize-

⁷¹ Ikus bedi, orobat, autore beraren 1934ko lana (VI-VII, sarrera).

⁷² Lehen osagaiaren bukaeran, elkartuetan. Ikus Mitxelena (1977a: 249).

naren oinarrian. Irigoienek (1992: 164) honela dio: «Parece claro que los gentilicios señalados *giputz*, *nafar* y *a(h)etz* preceden en el tiempo a los topónimos de formación vasca *Gipuzkoa*, *Nafarroa* y *Aezkoa*». Hortaz, eta laburtuz, *Gipuzkoa* koronimoak has-tapenean 'giputzen lurra', 'giputzak bizi diren lurraldea' adiera zukeen, gure iritzian.

HerritarIz.: *gipuzkoar*. Dokumentazioan *iputz*, *giputz*, *kiputz* kausitzen dugu anitzetan, era batera edo bestera idatzirik: *Sancio Ipuza de Tauar* (Urraulbeiti, 1103; Mar.Du., 1983: 282), *Pero Ypuça* (Arainatz, 1197; Jim., 1970: 263), *Enego Ypuça* (Lezaun aldea, 1209; Lac., 1965: 265), *Orti Ipuça* (Allin, 1210; *ibid.*, 268), *Maria Ipuça* (XIII. m., Gar.Lar., 1957: 112), *Lope Iputça* (Gesalatz, 1213; *ibid.*, 152), *Pero Arçeiz Iputça* (Erriberri, 1264; Ciérbide eta Sesma, 1980: 177), *Martin Guypuça* (Axpuru, 1324; Iñurrieta, 1989: 64), *Pero Ypuça* (Larragoa, 1330; Carrasco, 1973: 366), *Iohan Sanchez Ypucha* (tolosarra, 1349; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267), *Johan Yputça* (Tafalla, 1366; Carrasco, 1973: 436), *Juan Guipuça* (Durango, 1453; Hid. eta b., 1989: 4), *Maria Quipuça* (Durango, datarik gabe, *ibid.*, 943), *Martin Quipus* (Bilbo, 1464; Equez. eta b., 1996: 107), *Marina de Guipuça*, *Joane Guipuça* (Oñati, 1489; Zum., 1994: 257 eta 265), «*Juan de Yduquia, dicho Juan Guipuça d'Elorça*» (Legazpi, 1496; Lu. eta Zum., 2001: 92), *Juan Quipuça* (Aramaio, 1510; Goi. eta b., 2005: 186).

Erdarazko gentilizioa ere bokalez hasten da inoiz: «...*eyllos han recebido en lures ganados de partes de los Ypuzcoanos*» (Senosiain, 1345; Zab., 1998: 335).

Zaldibiak (c. 1560: 257) hau dakar: «...*antiguo dicho suyo es Beotibar, Beotibar, hic dia dutac Martin de Oybar y el cantar antiguo de bascuençe dize Milla urte ygarota hura vere videan, guipuzcoarroc sartudira Gaztelaco echean, nafarroquin vildudira, Beotibarren pelean*» (ikus Mitx., 1964: 46. eta hur.). Urkixok (1919: 20), berriz, honela jasotzen du: «*Milla urte igarota / Ura bere bidean / Gipuzkoarrak sartu dira / Gazteluko etsean. / Nafarrokin bildu dira / Beotibarren pelean*». XVI. gizalditik atera gabe, hauek ere badaude: «*Mondr<a>goeri artu deusat gorroto, / Guipuç andraoc artu ditu gaxtoto [...]*» (Mitx., 1964: 75 eta hur.), «*Gomizec asco lagunic, / Çabal arabaarric, / Guipuz hondo ederric, / Vizcaytar urduri gogor<r>ic*» (*ibid.*, 83).

Kardaberatzek (2004 [1761]) *guipuzcoar* ibiltzen du: «*Bata bizcaitarra ta bestea guipuzcoarra zan*» (37), «*bat guipuzcoarra, bestea bizcaitarra*» (42). Iztuetak (1847: I, II, IV et *passim*), berriz, *guipuzcoatar* darabil: «*Guipuzcoatar nere anaia maite leialac*», «*¿Norc ucatu bear du, bada, euscara Guipuzcoan irozotu izan ez dala, guipuzcoatarrac euscaldunac ez dirala; eta Guipuzcoan gaurco egunean ere euscaraz gozotoró itzeguiten ez dala? [...]. Beraz, beguien aurrean dacuscu argui eta garbi, guipuzcoatarrac dirala [...]*», «*¿norc daquí nolacoac eta cembat jazarra portitz eguin bearrean aurquitu izan diran guipuzcoatarrac?*».

Azkue lekeitiarrak (1927: 182), aezkoarren izenaz ari delarik, honela diosku: «*Petiriberro-inguruko ibar gartako gizonak, beren izen egokitako, izen gori bertzerik eztute: Aetz, batzuen ezpäinetan Aietz, Ondarribi-Motriku bitarteko euskaldunen izen egokia Giputz den bezala. Bizkaiko iri batzuetan Kiputx erraten dugu. Altzinako liburuetan Iputz bizi otedeneko ezbaian nago*».

Orixek (1985 [1929]: 13) *giputz* darabil: «Ni *giputz* gaiztoa naizela, eztedala *giputz*-izenik merezi?», eta halaber Lizardik (1972 [1934]: 44): «*gu giputzok ezezik, bazan an ale bat edo beste Bizkaia ta Napparoa'tik*».

Alonimoa: *Probintzia*. Cfr. *Probintziabidea* (Añezkar, N), *Camino de la Provincia* (Iruñea) (Jim. eta Sala., 2006: 95-96), «*artuteco capaz gara / gu one(a)n industria / gueigo ez Provincia*», «*romanoac logratueban / intentoaren erdia / beretutea Provincia*» (XVII. m.; Muru., 1980: 414, 415), «*Onetan neque gogorraz Aita Larramendi batec jardun zuen, ta berac dion bezala, ez bacarric gure Provincia guciz noblearen, ezpada Jaincoaren gloriagatic ta animen salvazioagatic*» (Kard., 2004 [1761]: 29), «*Ala Provincian nola Nafarroan, ta ere gueiago Bizcaian, itzeguiteco edo aoz esatean itz asco laburtcen dira*» (*ibid.*, 35), «*...baña emen usatcen dan izqueraric jaquiñenean, uste ta aleguin guciatz ondo limaturic eta Provinciaco ta Bizcaico gure euscaldun onenac [...]*» (*ibid.*, 55), «*...eta nola zan Provinciaco alaba, eta eche guciz onecoa [...]*» (*ibid.*, 1882: 143), «*Onra oyetara Josefa Veneragarriaren sonac, eta beren jayerac Provincia eta Vizcai-co urrutietatic gendeac ecarri cituen*» (*ibid.*, 232), «*Ibai au (Bidasoa) anciñaeran España-rena zan guztia osotoró, esaten duten bezala eguiatzqui Guipuzcoaco gordelecu zucenean topatzen diraden arguibide eta sinitsgai asco eta ascoc. Provinciac luzaró eutsi izan cion bere escubideari irme eta sendoqui*» (Izt., 1847: 122), «*Aipatu bague lagatzen ditudan Provinciaco erri banaca oetan ere ez da arriaren baguetasunic*» (*ibid.*, 59), «*Probentzian ta Bizkayan*» (Urruzuno, 1988: 40).

Nafarroan, Araitz aldean, *probintziano* ere ibiltzen da Gipuzkoakoen gentiliziotako: «*Probintzianoak heldu'ttuk Alarre 'probintzianoak heldu dituk Aralarrera'*» (Zuazo, 2013: 289).

Goierra

IzenOfiz.: *Goierra*.

Dok.: «*Todos estos pueblos de Guipúzcoa tienen otro modo de división en tres distritos: goyerri, betterri, costaldea o ichasalde [...]. De Tolosa en derechura hasta Zegama, Salinas, Vergara, etc., se tiene por goyerri, país alto o superior de provincia*» (Larra., 1985 [1754]: 94-95).

EuskalOnom.: Nafarroako Araitzen, Tolosatik ez urrun, balio bertsuko *Beierrria* (Arribe, Atallu...) eta *Goierrria* (Azkarate, Gaintza, Intza, Uztegi...) bereizten dira (ikus Euskaltzaindia, 1990: 102 eta Zuazo, 2013: 16). Igualtsuak dira *Baserri* vs *Lañerri* Ezkabarten (N) eta *Baztangoiza* vs *Erberea* Baztanen (N), honetan *Basaburua* ere izanagatik.

EuskalTes.: «*Eta oraindic are goaicarriagoa (sic) da, charlari oec icustea ta aditzea nola dauden ishecaz ta muishinca euscaraz ederqui daquitenen jolasari, bein Nafarroaco mintzoa dala, guero Bizcaico berba donguea, batean ausaz ere goierrico itzqueta dezula; bestean nosquiro beeterricoa (resic)*» (Larramendiren hitzak; *apud* Izt., 1847:V), «*Bestea dago goierrialderontz erritic irten ta bereala*» (Hernaniko iturria, Izt., 1847: 94), «*Goierrialderontz irteteco atacaren ondoan dauca jarria, abereai edan-erazotzeco toqui zabal eder bat*» (Tolosako iturria, *ibid.*, 104), «*Icusten da bada arguiroqui Tolosaz beerontzeco erri eta itsasbazerrecoetan*



Goierri

sagarra ta matsa biltzen dala ioriago, goierrietan baino» (ibid., 137), «Goi-errietaco lurrac aiñ ondo ematen dituzte sagar guri mardulaquin mats ezadetsu (sic) gozoac, nola bealdecoac» (ibid.), «Beguiratzea dago bada Goi-errico echalde purubetar anciñacoetara» (ibid., 138), «...eguiua da [...] sagardoguita arras lagatua egondu dala Tolosaz goitico errietan [...]. Bañan orain Goierrietaco necazariac sagardoaren valio andiaz (noi zbaiten ere bearda) oarqueturic, equin zaiozca berriró sagastiac ifinteari» (ibid., 141-142), «Modu onetan saldutzen dan sagardoaren balioa, orain diru asco eguiten daben demporan cerchobait izan arren, ugaritasunac mercatzera dacarreanean, utsera biurtzen da Goierrico sagar-jabe-etara iritsi orduco» (ibid., 142-143), «Bada auxen berpera guertatu izan zala uste det nic, Goierrietan sagardoac eguiteari lagatu cioten demporan» (ibid., 143), «Bere ait'amen baimenarekiñ / Josecho au Goierri» (Otaño, 1931 [1889]: 59), «Goiarriti'kan etorriya da / euskaldun korrientia» (1919, Zabala, 1992: 315), «Bere sekretario Kaperotxipik ikus zer dion. Gipuzkoako Goierri diru-mordo aundia bilduta Prantzian armak erosi zitula» (Orixe, 1985 [1929]: 21), «nere andregai Goierrikua / gustu badezu ikasi» (Donostia, ezezaguna, 1932: 305), «Alargu[na]: Ni ere Goierritarra nazu bada... / Etxen[agusia]: Goierri... Goierri'tik geiena atsegin zaidana da... zera, sagarra loretan ta... Lierni'ko elizatzxo gain ura» (Labayen, 1976, II: 73), «Etzan gere etxen añako sagar, Goierriko iñongo baserritan [...] Goierri beitu bearra dao» (ibid., 126), «Tolos-errian, Beterrin, Goierri, zoko guzietan arto ta baba ta gari txeatu zetunan» (Orixe, 1987: 74), «Goiarriko Salomon, / au goguan ar zak» (Alkain eta Zabala, 1970: 33), «...Goierri txuletarik baldin bada beintzat», «Gu Goierri aldera joaten bagiñan, an izango zan ura» (Uztapide, 1975: 77, 79).

Ebak.: [go.jé.rin] (in.), [go.jé.ri.tik] (abl.) (Bea-006), [go.jé.rì] (abs.), [go.jé.ri.ku.à] (lek.g. + abs.) (Oia-060). Mitxelena (1977a: 61) Goyarri aldaera biltzen du.

Etimol.: Ikus *Beterrin* sarreran dioguna.

Herritarlz.: *goierritar*. «Badira cembait choriburu uste dutenac ezic, Tolosaz beetico erri sagardo anitz orain eguiten dituztenac iduricatzen asi dirala goierritarrac» (Izt., 1847: 143), «Ni ere Goierritarra nazu bada...» (Labayen, 1976, II: 73), «Goierritarrak zurrak dira» (ibid., 139).

Hernani

IzenOfiz.: *Hernani*.

Dok.: (Top.) «*De rivo de Galharruaga usque in flumen de Deba, id est, tota Bizcaglia, et de ipsa Deba usque ad Sanctum Sebastianum d'Ernanni, id est, tota Ipuzcua a finibus Alava usque ad ora maris*» (934, Gar.An., 2010: 103), «*In primis dono et confirmo illam ecclesiam sancti Sebastiani, que est in litore maris, in finibus Ernani*» (1101, Ubieto, 1951: 358), «*vallis quae dicitur Lerin; terra quae Ermania, et Sanctum Sebastianum de Pusico*» (1105, Bar., 1989: 405), «*...Lerin, Oiarzun, Lauaien, Berastegui, Araynç, Larraun, Araria, Ozcue, Ernani, Seiaz [...] et tota Ypuçcoa*» (1007 [c. 1032⁷³], Goñi, 1997: 28), «*...Goizuuieta, Hernani, Zichurchil, Seiaz, Yziar, Yraurgui, Errizil, Oyaz [...]*» (1186-1193, Mtez.Dz., 1975: 209), «*...in finibus Ernani ad litus maris monasterium unum quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua et illam villam que antiqui dicebant İçurun*» (Goñi, 1997: 25, 1014 [= c. 1030]⁷⁴), «*...la villa de Hernany [...] en la dicha villa de Hernani*» (1379, Her. eta Fdez., 2011: 1), *Villa de*



Muniskuegaña (Hernani-Urnieta)

⁷³ Barrenak (1989: 432), doktore tesian, 1186-1189koa dela dio.

⁷⁴ Barrenak (1989: 437), doktore tesian, 1197koa dela dio.

Ernani (1388, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 260), «*Iohan Ochoa d'Ameçeta procurador de las villas de Sant Savestian e de Hernani e de Vêlmont d'Usurribil*» (1390, Dz.S., 1985: 69), *Villa d'Ernani* (1397, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), *villa de Hernani, villa d'Ernani* (1402, 1429, Ayer., 2015: 781), «...*Ojer de Murguia, vezino de Arnani*» (1514, Ayer., Irijoa eta San Miguel, 2012: 299), *Ernadi* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Hernani* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29; López, 1770), «*Hernani, part[ido] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa* [...] *Hernani v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, I, 1802: 361), *Hernani* (*vi.*, Mad., IX, 1847: 178; Go., 1862: 214).

Zalduak (2012a: 337) honela dio:

«*Hernani* makrotoponimoak 12. gizaldian hasten den idatzizko ibilbide luzea du. Xehetasunetan sartuz gero, lehenbiziko lekukoa 1101. urtekoa da (*Ernani*, NAO1) eta bigarrena 1105ekoa (*Ernania*, IKA1). 12. mendeko gainerako bi mostrak, *Ernani* (1186-1189, IKA4) zein *Hernani* (1186-1193, IKA5) dira eta ohar bedi azken horretan *H* dagoela hasieran. Hurrengo erreferentziak 15. mendekoak dira (*Ernani*, 1427, HUA1; *Hernani*, 1467, HUA5) eta handik aurrera *Hernani* nagusitzen da ia erabat idatzizko tradizioan».

(Antrop.) *Don Martin d'Ernani* (1393, Donostia; Lar. eta Le., 1995: 63).

EuskalOnom.: «*E otrosy los vezinos de Hernayçabal puedan con sus ganados por los dichos montes, terminos e el agua de Hurumea*» (*Hernani*, 1379; Her. eta Fdez., 2011: 4), *Hernanibaso* (1712, HUA30, 87 bin.; Zaldua 2012a: 337), *Ernanibaso* (1739, HUA36; *ibid.*), *Ernanibaso* (1797-1833, HGR2, 58 au.; 1797-1833, HGR2, 61 au.; *ibid.*).

EuskalTes.: «*Pero los nombres propios, que se acaban en vocal, añaden solo una n, v.g. non vici da, donde vive?* Erromán; Donostián, Hernanin, Bilbaon, Salamancan, etc.» (Larra., 1979 [1729]: 324), «*Hernanític, Donostiatic, Sevillatic, Toledotic*» (*ibid.*, 325), «*Los acabados en vocal añaden ronz, Hernanirónz, azia Hernani, echerónz, azia casa, errirónz azia la tierra*» (*ibid.*, 329), «*Búrgosera, Donostíara, Hernánira, Salamáncara*» (*ibid.*, 369), «*Orañ eun urte apaiz bat Ernañin* (*sic*) *omen zan, bere ustez euscaraz ondo cequiena*» (Kard., 2004 [1761]: 46), «*Liburucho onen eguillea, Aita Agustin Cardaveraz* [...] *jayo zan Guipuzcoaco erri noble Hernani deritzayonean*» (*ibid.*, 1882, I), «*Era onetan ederqui irteten zan Bederatziurren au, eta beti ongui irtengo lizaque Donostian, Hernanin, Tolosan*» (J. B. Agirre, 1978 [1850], II: 398), «*Hernanico mugape guztia da, carearri piñaquin ondo jancia*» (Izt., 1847: 52), «*Hernanico erriaren sarreran eta irte-eran chit guertu arquitzen dira bi iturri garbiac eta ioriac*» (*ibid.*, 94), «(Urumea) *Urmietaco erriari bidasti-aldi batean aldonduric jachitzen da Hernanira*» (*ibid.*, 117), «...*baciran onciteguiac Ergobiaco zubia-ren aldechoan, Urumeaco ibai bazter Donostiarequin Hernani eta Astigarraga mugatzen diraden toquian*» (*ibid.*, 127), «*Santa kruzzen atzetik bazebillen Arana Comandantea Oyartzunen, Añarben, Lizarregin, Venta-Atxurin barrena, ta atzera Pikoagatik, Fabollagatik Ernanira itzuli zan*» (Orixe, 1985 [1929]: 40), «*Betroi bat erosi det / Ernaniñ periyen*» (Xenpelar, 1932a: 104), «*Ernani zu zerade / ezti onen eultza*», «*Ernani'ko alaba / eder ta txukunak*» (Otaño, 1932b: 180), «*Etzetik Ernanira / juan giñan oñez*» (A. Mitxelena, 1932: 316), «*Ostegunero Ernani'n izaten da*» (Labayen, 1976, II: 66).

Ebak.: [érnani] (abs.), [érnanìn] (in.), [érnanià] (adl.) (Zaldua, 2012a: 947), [ér.na.nì] (abs.) (Adu-006) (Alk-001), [ér.na.ni.jà] (abs.), [ér.na.ni.á] (adl.) (Atg-030), [er.ná.nìn] (in.) (Irn-007).

Etimol.: Mogelek (1854: 727) *Er-nani* ‘herri edo toki txikia’ dela uste du; honela dio: «Ernani. ó Hernani. – *Er* es *erri*, lugar, como *Erpurua*, *Erberia*. *Nania* ó *ninia*, cosa pequeña ó signo diminutivo. Asi *Er-nani*, pueblo ó lugar pequeño».

Antrotoponimo itxura du, *Ehari*-ren azpian datekeen *Elani*-ren moduko genitibo batena (Sala., 2015a: 164–165). Azaltzeko bidea izan liteke, (*H*)*erranius*-en (Solin eta Salomies, 1994: 74, 92) *(*H*)*errannus* aldaera batetik abiatzen bagara, *(*villa*) *Erranni* genitiboan pentsatzea.

Latin munduko izenetan *-us* / *-ius* bukaera aldizkatzea ardurakoa da: *Aberrinus* / *Aberrinius*, *Abulenus* / *Abulenius*..., baita *-n-* eta *-nn-* duten izen aldaerak kausitzea ere: *Abenius* / *Abennius*, *Canius* / *Cannius*, edo bi gertakariak batera ediretea: *Afinus* / *Afinius* / *Afinnius*, *Caesenus* / *Caesenius* / *Caesennius*, *Calpenus* / *Calpenius* / *Calpennius*... Euskaraz *Gernika* > *Gerrike* gertatu bada, alderantzizko bilakaera izan dela onestea, menturaz, ez dateke zentzugabekeria, ziur egotetik arras urrun bagabiltza ere. *Ernani* / *Ernania* txandakatzea *Zangitu* / *Zangitua*-n eta *Zurbitu* / *Zurbitua*-n dugun antzeko zerbeit izan genezake (ikus Sala., 2015a: 42–43).

HerritarIz.: *hernaniar*.

Oharra: Australian (Hegoaldeko Gales Berrian) eta Filipinetan (Sortaldeko Sá-marren) *Hernani* izeneko herri bana dago.

Hernalde

IzenOfiz.: *Hernalde*.

Dok.: (Top.) *Ernialde* (1396, R. ol., 1991: 97), *Ernialde* (1396, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 422), *Sancta Maria d'Ernialde* (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), *Ernialde* (1510, Her., Ach. eta Mo., 1998: 179), *Hernalde* (1532, Le. eta b., 2002: 399; Gari., II, 1628 [1571]: 340; 1572, Ayer. eta Dz.S., 1996: 571), *Ermalaa* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Hernalde* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Ernialde* (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Ernialde* (*pu.*, López, 1770), «*Hernalde, [lugar] del part[ido] y jurisdiccion de Tolosa*» (DRAH, I, 1802: 363), «*Hernalde o Hernioalde*» (Mad., IX, 1847: 178), *Hernalde* (*vi.*, Go., 1862: 222).

(Antrop.) *Martin d'Ernialde* (Donostia, 1379; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 106), *Iohan Martinez d'Errinalde* (Tolosa, 1384; *ibid.*, 229), *Maria d'Ernialde* (Donostia, 1393; Lar. eta Le., 1995: 63), «*Lope d'Ernialde, capero*», «*Joan d'Ernialde dicho "Galant"*» (Tolosa, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488), *Domingo Lopez de Hernalde* (Tolosa, 1521; Le. eta b., 2002: 348), *Andres de Ernialde* (Tolosa, 1528; Ayer. eta Dz.S., 1996: 512), *Andres de Hernalde* (Tolosa, 1539; Le. eta b., 2002: 459).

EuskalOnom. *Cfr. Ernioerreka* (Errezilgo erreka, 2000, ErzM).

EuskalTes.: «*Hernaldeco mugape guztia da iturri guezagozo ugaritsuaquin ondo jancia*» (Izt., 1847: 95), «*Hernalde, Alquiza, Larraul eta Anoeta ezquerrerontz eta Irura ezcuitara* (*sic*) *lagaric, joaten da Amasa Villabonacora*» (*ibid.*, 116), «*Santa Kruz Ernialden gerrarako asmoetan. 1866garreneko Maiatzaren 25garrenean apaiztu zan, eta aurrena Ernialdera bialdu zun Obispo jaunak [...]. Ernialden bi urtez egon zan [...]. Nonbait indarra ba dute Ernialdeko aizeak*» (Orixe, 1985 [1929]: 19), «*Ernialden preso atxitzen dute [...]. Deitu omen zuten berengana, baño apaiza ageri ez ta, Ernialdera joan omen zitzaizkion [...]. Mutil mordoxka ornitzen ari zala gobernua oartu, ta batalloi bat bialdu zun Ernialdera mikelete askorekin, bera preso artzera*» (*ibid.*, 21), «*Ez ordea Santa Kruzekin ziran Ernialdeko mutil batzuk eta beste bakar batzuk*» (*ibid.*, 25), «*Espuru gañetik zer ageri din? Beizamako baserri bat, Albiztur, Ernio, Urkizu, Ernialde, Andazarrate [...]*» (*ibid.*, 1987: 64).

Ebak.: [er.ní.a].dè] (abs.) (Hrn-001), [er.ní.a].dèn] (in.) (Tol-028).

Etimol.: Osagaiak *Hernio* oronimoa eta *alde* 'hurbileko alderdia' postposizioa dira.

Lehenaren kariaz, Etxabek (1970 [1607]: 52) *Hernio* mendi izena *ernatu*-rekin lotzen du, hitz (aditz) hori aipatzen ez duen arren: «...el lugar que agora se llama *Asteasu* y *Çiçurquil*, que es en la montaña de Andaza, â las aldas de la muy nombrada de Hernio, que quiere dezir cosa brotada y leuantada». Mogel ere (1854: 735) bide bertsutik -ez berberetik- dabil: «*Ernialde.- De erne y alde; se dice ernia dago soroa* cuando el grano ha brotado en el campo [...]. *Ernialde*, pues, viene á ser ladera ó falda reverdecida». Au-r-rerago (*ibid.*, 749) *Ernialde* 'Ernioko mazela' dela dio.

Gure irudiz, ordea, antrotoponimo itxura argia du (*cfr. Bakio, Derio, Otxandio, Undio* eta abar). Azalpenik errazena Hispanian lekukotua dagoen *Ernius* izenean

(Grupo Mérida 2003: 167) pentsatzea da, hau da, honelako bilakaera batean: *(*fundu*) *Ernianu* > **Erniano* (euskaran sartu zenerako) > **Erniãñõ* > **Erniãñõ* > *Ernio*. Horretarako mendi izena bertan zegoen baserriren bati zor zaiola onartu behar genuke, lehenik. *H*-rena kontu grafikoa hutsa zatekeen, baina **Erniano* > **Erniãñõ* > **Herniãõ* > *Hernio* > *Ernio* burutu dela ere kontu egin liteke, hasperena laugarren silabatik lehenera igaro dela, hirugarrenetik eskuinera ezin egon baitzitekeen, garai batetik aurrera.

HerritarIz.: *hernialdetar*. «*Ta zer diote artaz Ernialdetarrak?*» (Orixe, 1985 [1929]: 19). Idazle honek, alabaina, *-ar* hutsa duen aldaera ere badarabil: «...*iru gizon il zitun Osta onek Ayan; Juan Andres Arteaga, Esteban Arteaga ta Jose Prantxixko Boloki, iruek Ernialdearrak*» (*ibid.*, 76).

HerritarEz.: «*Ernialde, asto-erria*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Hondarribia (-a)

IzenOfiz.: *Hondarribia*.

Dok.: (Top.) *Undarribia* (1180, Fur., 2002: 393), *Fonte Rabia* (1203, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 19-20; Fur., 2002: 342), *Fontem Rabiam* (1234, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 22), *Font Arrabia* (1245, *ibid.*, 29), *Fuenterabia* (1256, *ibid.*, 34), *Fuente Rabia* (1261, Fur., 2002: 342), *Fuenterabia* (1280, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 51), *Fuenterrabia* (1290, 1318, *ibid.*, 66, 129), *Fuenterrauia* (1299, 1328, Lar. eta Ta., 1993: 22, 24), *Fuenterrabia*, *Fuenterrauia* (1338, Ayer., Iri. eta S.M., 2012: 2), *Fuenterrabia* (1338, Ayer. eta E., 2008: 3), *Fuenterrauia* (1361, Iri., 2013: 3), *Fuenterrabia* (1397, Ayer. eta E., 2008: 51), *Fuenterrauia* (1399, *ibid.*, 73), *Fuenterrabia* (1432, *ibid.*, 95), *Hundarribia* (1474 [c. 1180], Sala., 2007a: 388), *Fuenterrabia* (1506, Equez., Hid. eta Mtez., 2005: 273), *Fontarrabia* (1541 eta 1542, Sala., 2007a: 389), «...el qual promontorio es la punta de la montaña de Jazquiuel junto a Fuenterrauia» (Zald., c. 1560, 5. atala), «Esta villa de Ondarriuia, siendo incongruentemente llamada Fuenterrauia» (Gari., I, 1628 [1571]: 286), *Fuenterrabia* (1581, Sala., 2007a: 389), *Futarabia* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Fuenterrabia* (1604, NEAN, Ihabengo pr. 3, J. Labayen), «Fuente-rabia Ondarribia» (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «...satis indicat suo saeculo Fontarrabiam oppidum, necnon vicum illum qui Irun Vrançu nuncupatur extra Ipuscuam fuisse»⁷⁵ (Oihenart, 1992 [1637]: 682), *Fuenterrabia* (*ciudad*, López, 1770), «Fuenterrabia, [ciudad] en la pr[ovincia] de Guipuzcoa [...], sobre la costa occidental del rio Vidaso» (1802, DRAH, I, 1802: 286), *Fuenterrabia* (*ciudad*, Mad., VIII, 1847: 235-236; Go., 1862: 167).

EuskalOnom.: *Ondarrabiarena* (Ostizko etxea, N, 1726; NEAN, Inventarios del Reino de Navarra, Estadística Saira, Apeoak).

EuskalTes.: «Joan de Lazcano velçerana Guipuzcoaco capitana françes osteac jaquin godu hura Ondarribiara çana – que quiere dezir Juan de Lazcano el moreno capitan de Guipuzcoa acordar sean los françeses de que llego a Fuenterrauia» (Zald., c. 1560: 262 bin.; irudi luke lehenik *Ondarrabiara* izkiriatu zuela eta gero aldatu. Mitxelenak [1964: 99] honela dakar: «Juan de Lazcano beltzarana, / Guipuzcoaco capitana, / Franzez osteac jaquingo du / Ura Ondarrabian zana»), «De esto hay un cantar en bascuence que dice: Juan de Lazcano belzarana, Guipuzcoaco Capitana, frances hosteac jaquingodic, ura Ondarrabian zana» (Isas., 1850 [1625-26]: 568), «Francesac Ondarrivia / beti oydauca custicia / a artuyacu Guipuzcoa» (XVII. m.; Muru., 1980: 416), «...guero sarturic soldádo etorize Ondarrábía alderát francesen cóntro» (Lizarraga, 1994: 143), «Gatzagaco mendi gañetic, Ondarribiaco Híguer-en bucaeraraño» (Izt., 1847: 24), «Ondarribiaco Iguer-en muturretic asi, eta Ondarroa-rañoço mugapean» (*ibid.*, 33), «...asitzen dira oec goratzen Ondarribiaren guertuan» (*ibid.*, 62), «Ondarribiaco uri inguruan badira iturriac» (*ibid.*, 101), «...ceñetatic ornidutzen dan Ondarribiaco genderic gueiena» (*ibid.*, 102), «Guipuzcaco (*sic*) corregidorea, Ondarribico alcatea, eta Provincia

⁷⁵ «Garbi adierazten du bere mendean Hondarribia gotorlekua, eta berebat Irun Vrançu deritzan herria, Gipuzkoatik kanpo zeudela».

(*resic*) bere Batzar guztiaquicoan autaturic [...]» (*ibid.*, 123), «Ondarrabiko eta Urruñako anchiñako gertaerak» (S. Múgica, 1899: 451), «Aita berriz Oyarzungoa da, / Ondarrabikoa ama» (Urrutia, 1932: 230), «Irun'dik ta Ondarrabi'tik / jende asko da etorri» (Zabala, 1992: 315), «Anchiñako Ondarrabiko uri ontan» (*ibid.*), «Ondarribian, 1899-garren urteko azaroren 21-garren egunean» (*ibid.*, 452), «Pasai San Juan da Fuenterrabiya / zian kasikan batera» (*ibid.*, 370), «Gero Ondarrabi onta etorri giñan» (Labayen, 1976, II: 126).

Ebak.: [oŋ.dá.ra.βi.ku.àk] (lek.g. + abs.) (Hon-026), [oŋ.dá.ra.βin] (in.) (Hon-048), [oŋ.dá.ra.βi.ku.à] (lek.g. + abs.) (Hon-054), [oŋ.dár.βi.ku.à] (lek.g. + abs.) (Hon-059), [oŋ.dá.ra.βi.já] (abs.) (Pas-003), [oŋ.dá.ra.βi] (abs.) (Urn-017), [oŋ.dá.ra.βín] (in.), [oŋ.dá.ra.βi.á] (adl.) (Usu-016). S. Múgicak (1932: 624) jendeak euskaraz *Ondarrabi* edo *Ondarrabia* deitzen duela dio.

Etímol. Garibaik (I, 1628 [1571]: 286) honela dio:

Fuenterrauia [...] fue llamada en la lengua Cantabra *Ondarribia*, que quiere dezir *arena seca*, porque *ondarra* quiere dezir en esta lengua *arena*, y *ibia cosa seca*, aunque en esto mi parecer es que primero se llamó *Ondarribaya*, que quiere dezir *arenal d'el rio*, porque en mucha parte de Cantabria llaman *ybaya* al rio y assi la villa de Fuenterrauia, que los naturales dizen *Ondarribia*, está assentada en el arenal del rio Vidaso.

Isastik (1850 [1625–26]: 446), berriz, hau dakar:

Fué llamada por los antiguos *Olearso*, deribado del dicho promontorio (que es principio de los montes Pirineos), y este nombre se conserva hoy en una casa solar antigua y armera llamada Arsu, que está en su contorno al puntal. Después se llamó *Fuenterrabia*, y en lengua bascongada *Ondaribia*, sitio enarenado ó villa en arenal.

Oihenartek (1992 [1637]: 685) Garibairen esanak onesten eta errepikatzen ditu, baina 'azken ibaia' ulertzen du toponimoa:

...Fontarrabia [...] fons rapidus seu ravidus à quibusdam Latinis scriptoribus dicitur; ab indigenis suo tempore *Ondarribiam* appellatam fuisse, testatur Garibayus lib. 8. cap. o: (*sic*) nunc tamen non *Ondarribiam* sed cum triplici a *Ondarribiam* vocant: videturque sic dictâ vasconicâ voce ab eo ipso flumine cui insidet, quasi *Ondar-ibaya*, id est postremum flumen⁷⁶.

Gorosabelek (1862: 167), berriz, honela dio: «El nombre vulgar vascongado de esta ciudad es *Ondarribia*, que significa rio abundante en arena».

Vinsonek (1909: 352) *Ondarrabia* dakar, eta *deux sables* 'bi harea, bi hondar' ezin itzul daitekeela zehazten du. Aurreraxeago (*ibid.*, 354) esaten du izenaren bukaeran *bia* dagoela, *Beobia* eta *Urtubia*-n bezala, eta bere buruari galdetzen dio amaiera hori ez ote den latineko *via*-ren egokitzapenen bat, *bide*-rekin loturik dagoena. Ondorioz, *voie sur le sable* 'hondarraren gaineko bidea' itzultzen du, baina badirudi, *Beobia*-ren kasuan bezala, zalantzan dagoela azkeneko osagai hori *gué* ez ote den, *ibia* alegia.

⁷⁶ «*Fontarrabia* [...] latindar idazle batzuek iturri azkarra edo amorratua esaten diote. Garibaik 8. lib., o kap., lekukotza dakar bere denboran bertakoek *Ondarribia* deitzen zutela, baina orain ez dute deitzen *Ondarribia*, baizik *Ondarrabia*, hiru *a*-rekin, eta irudi du euskaraz hola, *Ondar-ibaya*, hau da, azken ibaia, honen ondoan egoteagatik [deitzen dutela]».

S. Múgicak (1923: 28) garbi dakusa erdal izena euskarazkoaren itxuratxartzearen ondorena dela, eta osagaiak *hondar* eta *ibia* direla, erdaraz ‘vado del arenal’ (edo ‘vado de la arena’, 1932: 624), haren hitzetan, «pues así lo es en bajamar, pudiéndose vadear perfectamente el Bidasoa al frente de Hondarribia». 1932ko lanean (624. or.) honela dio:

Cabe, pues, que la parte de la ría (*Bidaso* ibaiarena) inmediata a la desembocadura en el Cantábrico, tuviera su nombre particular para los habitantes de aquel contorno y le llamasen *Ondarribia* por el vado que existe entre Fuenterrabía y Hendaya y que siguen utilizándolo, en las mareas bajas, los lancheros de los pueblos citados, y que de ahí se extendiera al pueblo que se iba formando a su orilla.

Autore honen arabera (*ibid.*, 623), *Hondarribia* izenaren hasierako *h* soinuak biziki gogorra emanen zuen belarrarian, *f* bihurtu baitzen (*Fontarrabía* lehenik, *Fuenterrabía* gero).

Gavel (1935: 631-632) ez dabil Múgicaren azalpenetik urrun, baina harenarekiko desbideratze zerbait bada autore honenean. Dioenez, herriaren izena *Ondarrabia* edo *Ondarrabi* (aldaera laburtua) da euskaraz, eta hizkuntza honen bidez esplika daiteke. Osagaiak *ondar* ‘hondakina’, ‘harea’, ‘hondartza’ (< *ondo* < *fundum*) eta *ibai* ‘[le] fleuve [plein] de sable’ edo *ibi* ‘[le] gué de sable’ dirateke, edo, beharbada, *ondar* eta *obi* ‘hobia’, ‘zuloa’, ‘hutsunea’ hitzaren ordeztu egoten den *abi*; azken kasu honetan ‘le creux de sable’ litzateke toponimoaren esanahia.

Hiruretarik lehena, *ibai*-ren bidezkoa, iruditzen zaio onesten zailena, *ai* > *i* laburtzearen lekukotasunik ez dagoelako, Hondarribi aldeko hizkeran. Beste biak onargarriagoak direla uste du, baina oztopoa ere bada, haren irudiko, ontzat hartzeko: ez dakusa garbi nola *Ondarrabia*-tik atera zitekeen espainoleko *Fuenterrabía* egokitzapena, ez eta ere *fuelle* ‘iturria’ hori zeri zor zaion.

Aise errazagoa izanen litzateke kontua, Gavelen irudituan, baldin eta gaztelaniako izena erdiesteko gaskoi zaharreko *hont*-etik abiatuko bagina, hots, *Hont-arrabía* ebakitzzen zen *Font-arrabía* hartuko bagenu abiapuntutzat. Kasu honetan, frantseseko *Fontarrabie* izen horren atxikitzea besterik ez litzateke, dardarkari anizkuna bakundu eta ondoan; *Ondarrabia*, bestalde, gaskoiko forma haren euskaratzearen ondore zuzena litzateke. Azalpen honi autoreak berak dakuskion alderdi txarra *-arrabía* hori behar bezain argi ez egotea da, baina frantseseko *Font-ravine*-ren baliokidetzat hartzea proposatzen du, hots, ‘iturri baserreka’ ulertzea, osagaien hurrenkeraz deus esaten ez badu ere.

Menéndez Pidal filologo entzutetsuak (1986 [1926]: 536), latineko *rapidu*-k gaztelanian izan dituen ondorengoak aztertzean, esaten du «eboluziorik ugariena» den *rábío* forma *rabia*-rekiko homonimiaz galdu zela, eta bakarrik hizkuntza zaharrean eta toponimian atxiki zela. Aipatzen dituen leku izenak Santanderko *La Rabia*, Oviedoko *Rabias*, Portugalgo *Rabia*, *Arrabia*, *Raiva* eta Euskal Herriko *Fuenterrabía* dira. Azkeneko hau dela eta, ikusten du azentua tokiz kanpo dagoela, alegia, ez dela, etimologiaz legegokiekeen moduan, *Fuenterrabía* esaten, eta justifikatzeko, esaten du Euskal Herrian

indar azentua ezezaguna dela. Hau ez dator bat bost urte lehenago, 1921ean (26. or.), Bilbon egin hitzaldian zioenarekin, honetan «seudorromanización» deitu baitzuen *Ondarrabia* toki izena *Fuenterrabía* bihurtu izana.

Montenegrok ere (1960: 517), Menéndez Pidali jarraikiz, *Fontem Rapidum* > *Fuenterrabía* azalpena ematen du. Dauzatek (1962: 171), aldiz, espainoleko *Fuenterrabia* (*Fontarabie* frantsesez) euskarazko *Ondarrabia*-n oinarritu herri etimologia baten ondorioa dela uste du.

Mitxelena ere AVen lehen argitaralditik (1953tik) osagaitzat (*h*)*ondar* duten toponimoen artean sailkatzen du *Ondarrabiya* (490. sarrera), hots, egun *Hondarribia* forma arautuarekin ezagutzen duguna, gorago ikusi dugun S. Múgicaren bidetik. AVen ondoko argitalpenetan Menéndez Pidalen hipotesia, etimotzat **Fontem rapidum* ematen duena, «gutziz onartezina» iruditzen zaio, Donostiako foruan agertzen den *Ondarribia* (edo *Undarribia*, *Hundarribia*) aldaera erabat gardena delako (*hondar* + *ibia*), eta osagai horiek beste euskal toponimo frankotan ere agertzen direlako: *Ondarreta*, *Ondarzabal*, *Ondarza*-n lehena, eta *Arribi*, *Astibia*, *Oñatibia*, *Zaldibia* eta abarretan bigarrena.

Kontuan hartu behar da, Aurelia Arkotxa euskaltzain baigorriar hendaiautak Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian esan zuen bezala (2008: 53; S. Múgicaren bidetik dabil hau ere), Bidasoa dragatu aitzinetik «marea beheitzen zelarik» oinez igaro zitekeela ibaia, eta Hendaiako hondartzari *Ondarraitz* deritzola. Beraz, gunearen nolakoaren aldetik ez dago arazorik batere *hondar* + *ibia* etimologia onartzeko.

Mitxelena AVen (490 sarrera) dioen eran, Gipuzkoako hiriburuko foruaren tradizio «eskuidatzia» akastuna da, eta berak uste du *Hundarribia* hobetsi behar dela, ez *Undarabia*. 1964ko liburuan (99-100. or.), Zaldibiak eta Isastik biltzen dituzten «*Ondarrabian zana*», «*Ondarribira sana*» aipatu ondoan, segurutzat jotzen du *Ondarribia* aldaera *Ondarrabia* baino zaharragoa dela, eta iritzi bera plazaratzen du gero (1977a: 390). Aldaera sinkopatuaz, aldiz, honela diharduka lehenagoko lan batean (1957-58: 212): «L'allongement de la voyelle accentuée (cf. *irú ankéko ollá:rra* 'coq à trois pieds') se retrouve, joint à la syncope de la posttonique, dans le nom basque de Fontarabie: *Ondá:rbi* < *Ondarrabi* ou *Ondarribi*, dont la forme familière usitée comme sobriquet est *Onddá:rbi*».

Donostiaren fundazioa 1180 ingurukoa da Orellaren arabera, baina foruaren kopiarik zaharrena Juan de Sorola eskribauak 1474an egin zuena da, eta bertan *Hundarribia* ageri da, Mitxelena (AV, 490) dioenez. Hondarribiko bereko udal artxiboan, berriz, herri izenaren erdarazko aldaera azaltzen zaigu, harritzekoa ez dena bestalde, toponimo nagusi anitzen euskal aldaera ez baitugu sekula dokumentu ofizialetan aurkitzen, euskara administrazioaren hizkuntza behin ere izan ez delako, orainsu arte, jakina den bezala.

Geronek, lan txiki batean (Sala., 2007a), ondorio batzuk atera zitezkeela genioen, hauek hain zuzen ere, aurrekoa pixka bat osatuta:

1. Geografikoki, deskripzioaren aldetik, ez dago arazorik batere *hondar* + *ibia* etimologia onartzeko, ugaldea dragatu aitzin hondarrezko *ibia* baitzen, itsasbeheran.

2. *Hondarribia* toponimoak azalpen argia eta koherentea du euskal toponimian, *hondar* edo *ibia* osagaiak dituzten toki izenak ugariak direlako. Oroitu beharra da Bidasoan, gorago, *Behobia* (*Beoybia* ere lekukotzen da) edo *Pausua* dagoela, Donostian *Ondarreta* eta Hendaian *Ondarraitz*.
3. Denboraz izen honek hasperena bazukeen (cf. *Hundarribia*), eta erraza zatekeen eskribauek hasperen hori latineko *fontem*-en ondorengoek berandu arte izan zutenarekin nahastea.
4. Gaztelaniazko azentuazioa ez dator bat Menéndez Pidalek ematen dion alegiazko etimoak zuenarekin, ez eta etimo horren ondorengoek, beste toki batzuetan, egun dutenarekin. Ez dirudi ustezko lekualdatzearen hobena euskal azentuaren gain eman daitekeen.
5. Lehen osagaitzat latineko *fonte(m)* daukaten erdal toponimo zaharrek aldaera laburtua ohi dute, eta diptongatugabea, azentugabea baita (Mdez.P., 1982 [1926]: 222-223): *Fonseca*, *Fontecha*, *Hontoria* eta abar. *Fuenterrabía*-n ere *Fon-* edo *(H)on-* espero genuke toponimoa jatorrizkoa balitz, hau da, *fontem rapidum*-etik edo, generoa aldatuz, *fontem rapidam*-etik atera balitz.
6. *Ondarribia* aldaera aise esplikatu daiteke *Ondarribia*-tik abiatuz, asimilazioz.
7. *(H)undarribia* forma ere erraz azaltzen da *(H)ondarribia*-tik abiatzen bagara (cf. *(h)undar* ‘hondarra’, *huntan* ‘honetan’ eta abar).
8. Dokumentazioan gehienik erdarazko aldaera agertzea hagitz arrunta eta usaia-koa da gurean, euskara administrazio hizkuntza inoiz izan ez delako, oraintsu arte.
9. Egungo aldaera arautua, *Hondarribia*, etimologikotzat eman daiteke, hasierako grafemari oharturik ikusten den eran.
10. Bukaerako *-a* artikulua da etorkiz, eta, izen arruntetan agitzen den moduan, zenbait deklinabide kasutan lekutu egiten da: *Hondarribiko*, *Hondarribira*, *Hondarribitik*...

HerritarIz.: *hondarribiar*.

HerritarEz.: *bikingoak*.

Ibarra

IzenOfiz.: *Ibarra*⁷⁷.

Dok.: (Top.) «...*arriendan los molinos de Ybarra e Belaunza*» (1532, Le. eta b., 2002: 402), *Ybarra* (Gari., II, 1628 [1571]: 340; Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Ybarra* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Ibarra* (vi., Isas., 1850 [1625-26: 29]), *Ibarra* (pu., López, 1770), «*Ibarra, [ugar] del part[ido] y jurisdiccion de Tolosa*» (DRAH, I, 1802: 367), *Ibarra* (vi., Mad., IX, 1847: 366; Go., 1862: 222).

(Antrop.) *Juan Martinez de Ybarra* (Bergara, 1348; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 451), «*Martin d'Iuarra, fio de Martin Çufre*» (tolosarra, 1349; *ibid.*, 1991: 266), «*Juan Martinez de Ybarra e Ynigo Martinez de Calduya, vecinos de la villa de Tolosa*» (1434, Ayer. eta Dz.S., 1996: 476), «...*Joan Martinez de Ybarra e Miguel de Ybarra [...] uezinos de la dicha uilla de Tolossa*» (1452, Ayer. eta S.M., 2013: 135), *Sandobal de Ybarra* (Tolosa, 1521; Le. eta b., 2002: 353), *Martin de Ybarra* (Tolosa, 1528, 1539; Ayer. eta Dz.S., 1996: 512; Le. eta b., 2002: 459). Cfr. Bizkaiko *Aznar Sansoiz de Ibarra* (1053, Llor., III, 1806-1808: 387).

EuskalOnom.: *Ybarra* (Antzuolako bas., 1589; Pavo, 2005: 331; *Ibárre* egun, *ibid.*, 331), *Ibarra* (Antzuola, Aretxabaleta, Bidania, Soraluze, Zestoa, ca.d.l., Nopgui, 1857: 19, 34, 110, 112, 137), *Ibarrea* (Oiartzun, *ibid.*, 57), *Ibarrandía* (Eskoriatza, *ibid.*, 123), *Ibarre* (Mutriku, *ibid.*, 129), *Ibarrondo* (Zeraingo bas., 2008, ZerM).

EuskalTes.: «*Ibarreco mugape laburrean arquitzen dira iturri garbi onac iori*» (Izt., 1847: 95), «...*lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza, Oreja, Gaztelu, Berrobi, Leaburu, Belaunza eta Ibarra*» (*ibid.*, 115-116), «*Erreka-zulo ori, Berastegitik Ibarreñoeko ori, lapurzulotako polita dala esan diteke*» (Orixe, 1985 [1929]: 15).

Ebak.: [i.βá.rèn] (in.), [i.βá.ràk] (erg.) (Iba-002), [í.βa.rà] (abs.) (Alk-001) (Alo-003), [i.βá.rà] (abs.) (Tol-019).

Etimol. Iztuetak (1847: 22) honela dio: «(Gure asaba cintzo ernaiac) Baldin toquia bazan ordeca luce ta zabala, icena jarrico cioten *Naba* edo *Nabia*, ezperen, *Arandi* edo *Arandia*; baldin ordeca bazan medarra, deituco cioten *Ibarra*». Moglek (1854: 733-734) *Ibarra* gure toponimian ugaria *Ibai-arra*-tik eratoritzen du, eta ibai baten aldamera adierazten duela gaineratzen du: «Las campiñas que estan como al márgen del rio, *Ibarrac*». Gero (*ibid.*, 734), euskara-iberiera ustekariaren alde egiteko, honela dio: «Toda campiña próxima á un rio (aun con proximidad lata) se llama *Iberia* é *Ibarra*. ¡Cuántas *Iberias* é *Ibarras* en el país vascongado, y lo mismo donde se hablaba antes vascuence!»

Mitxelena (AV, 1, 310) *Arana* 'el valle' dela dio eta *Ibarra* 'la vega' dela; bukaera, jakina, artikulua da. Nolanahi ere, Nafarroan behinik behin ardurakoa da *ibar* erdarazko *val*, *valle*-ren ordaintzat ibiltzea: *Valle de Erro* / *Erroibar*, *Valle de Gulina* / *Gulibar*, *Valle de Olo* / *Oloibar* bizirik daudenetan, *Valle de Elorz* / *Elorçibar* eta *Valle de Orba*, *Valdorba*

⁷⁷ 1802an sortutako udalerrria.

/ Orbaibar dokumentazioan ageri direnetan. *Cfr.*, gainera, *Esteribar*, *Ibargoiti* (eus.) / *Valle de Esteribar*, *Valle de Ibargoiti* (erd.), etab. Nafarroa Beherean *Landibarre* (herria, *Lantabat*) eta *Oztibarre* (ibarra, *Pays d'Ostabarret*) ditugu (ikus Irig., 1986: 212-213 eta Sala., 2004: 181 eta 211).

Irigoienek (1986: 213) honela laburtzen du *Ibarra*-ren gainean esandakoa: «Se trata, por tanto, de uno de los elementos más abundantemente registrados en la toponimia vasca de todas las áreas y de uso bastante antiguo según todas las apariencias». Antzinasun hau, ikertzaile beraren arabera (*ibid.*, 11), Ptolomeok dakarren *Uxama Barca*-n ikusten da, honen gentilizioa forma laburtugabea *Uxama Ibarca* zela erakusten duen *Vxamaibarcensis* delako, aurkitutako bi idazkUNETAN ageri den moduan. Izena deklinatzeko eraz Irigoienek beraren 1992ko lana (174-175, 189-190) ikus daiteke.

HerritarIz.: *ibartar*.

Idiazabal

IzenOfiz.: *Idiazabal*.

Dok.: (Top.) «*nuestra ereditate de Lazcano et de Iviavaval*» (1199, Gar.Lar., 1957: 102), *vezindat de Ydiacabal* (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 232-233), «*collaciones de Legazpia e de Mutiloa e de Ydiacabal e de Çegama*» (1387, *ibid.*, 249), «*collaciones de Legazpia, de Mutyloa e de Ydiacabal e de Çegama*» (1393, *ibid.*, 379), «...*poner sus bustos en los seles de que son de partes de Ydiacauaal*» (1404, Ayer. eta S.M., 2013: 26), «*unibersidades de Çegama e Idiazabal, e Cerain*» (1430, Urz., 1990: 348), *Ydiacaba, R[iø]Ydiacabal (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), «*villas de Segura, Çegama, Ydiacaval*» (1613, Ayer., 1997: 722), *Ydiacaval* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), «*Andrealorriaga... junto a una cruz estaba otro mojon... do acaba Lazcano y comienza Idiazabal*» (1615, Arin, 1929: 51), *Idiazaval (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, *Idiazaval (vi., López, 1770)*, *Puerto de Idiazaval (ibid.)*, *Idiazabal (vi., DRAH, I. 1802: 370; Mad., IX, 1847: 383; Go., 1862: 231)*.

(Antrop.) *Pero Yuannez de'Ediaçauaal (sic)* (tolosarra, 1349; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 268), «*Joan Miguelez de Ydiacauaal, en nonbre de los moradores de las collaciones de Ayn-doayn*» (Andoain, 1397; Lar. eta Ta., 1993: 71), *Martin de Ydiacabal (ibid., 1459; Ayer. eta Dz.S., 1996: 478)*, *Sancho de Ydiacauaal* (Lizarrá, 1481; Ciér. eta Ra., 1996: 6).

EuskalOnom.: «*Doña Maria Joan de Ydiacabal dueña de la casa e caseria de Ydiacabal*» (Urnieta, 1402; Ayer., 2015: 779), *Idiazábal* (Ibarra, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 95), *Idiazábal-aundía*, *Idiazábal-chiqui* (Idiazabal, *ibid.*, 83), *Idiçabal andia* (Andoain bas.; 1615etik aitzina, *Izal* egun; Usa., 1993: 136), *Idiazabaleta* (Idiazabalgo aurk., 1999, IdiM), *Idiazabal* (Mendaroko bas., 2003, MenM).

EuskalTes.: «*Idiazabalco mugapean badira arrobiac*» (Izt., 1847: 58), «*Idiazabalco mugapean iturri on garbi asco dira*» (*ibid.*, 96), «*Idiazabal erriaren guertura [...] andic igarotzen da Beasaingo Yarzaco echadiara*» (*ibid.*, 114), «...*ceñari erantzuten diodan [...] ezen Amezqueta, Zaldivia, Ataun eta Idiazabal, lau erri Provinciaco oetan diraden ardiac urte bacochean eguiten dituztela oguei milla arcume [...]. Uste det bada nic, ezen Idiazabal-co mugapean bacarric [...]*» (*ibid.*, 174), «*Catamotz izugarri bat arrapatu zuten Idiazabal-co artzaiaic cepoan Aranzazu mendian*» (*ibid.*, 193), «*An ere bazeuden bertsolariak: Zaldibiko Iraola eta Idiazabalco Florentino Goiburu*» (Uztapide, 1975: 82), «*Urrengo egunean Idiazabala bazkaltzera*» (*ibid.*, 315).

Ebak: [i.ðjá.şa.ðál.] (abs.), [i.ðjá.şa.ða.le.à.] (adl.) (Idi-010), [i.ðjá.şa.ðal.go.à] (lek.g. + abs.) (Ata-006), [í.şál], [i.ðjá.şa.ðál] (Bea-019), [í.şa.ðì] (abl.) (Ola-001).

Etimol.: Mitxelenak (1969: 7), Iratxeko dokumentazioko *Yhidia* aztartzean, esaten du *Hydia*, *Hiçu* eta beste *i(h)i* 'txunka', 'txunkua' izenaren eratorriak direla. Gero, AVen 1973ko argitaraldian (314 eta 596 sarrerek eta aurkibidea), lekuko zaharrena den 1199ko *Iviavabal*-en oinarriturik, (*h*)*ibi* 'ibia' ere ikus daitekeela uste du, *idoi*-rekiko lotura guztiz saihesten ez duen arren, nonbait; bigarren osagaia *zabal* adjektiboa da. *Idiazabal* aldaera disimilazioz sortu dateke, Mitxelenak berak (AV, 314) dioenez.

Zernahi gisaz, aintzat hartu behar da bestetan *idia*-oinarrria ere dokumentatzen dela, *-tsu* leku-ugaritasunezko atzizkiarekin. Esaterako, J. Lizeaga irakasleak helarazi

digun XVI. mendearen hastapeneko Lokiz aldeko agiri batean (NEAN, prozesuak, 130169; 1532-1533 urteetako da, baina irudi du lehenagoko datuak dituela) «...*asta la fuente de Ydiasu q[ue] esta sequa*», «...*esta la fuente llamada Yriasu llamada fuente sequa*» dugu. Erka bedi hau Biloriako 1689ko *Bustusua* (< *busti* + *-tsu* + *-a*, itxuraz; aldera bedi *Bustitza* eta *Leortza*-rekin, Sala., 1997: 21) toponimoarekin (NEAN, Artabiako pr. 5, M. J. García) edo Zudairiko 1723ko *Espelsua*-rekin (< *ezipel* + *-tsu* + *-a*; *ibid.*, 22, G. Ruiz de Urra).

Cfr. Zumaiaiko «*Iohan Ruys de Ybiacays vesino de Çumaya*» (1380, Ayer. eta E., 2008: 9), *Iohan Rruys (sic) de Ydiacays* (*ibid.*, 11), Zegamako *Idiáñez* (*bada.*, Nopgui, 1857: 15), Zestoako *Idiáñez* (*ibid.*, 19) eta Azpeitiko *Idiaguirre* (*ibid.*, 12). Iruñean (Jim. eta Sala., 2006: 213-215) *Hydia*, *Idia*, *Ydia* ageri dira, eta, hauen aldamenean, *Hydiáçaua* 1291n eta *Yúa çaua* 1294an.

HerritarIz.: *idiazabaldar*.

HerritarEz.: *axerik* ('azeriak'), *azak*. «*Idiazabaldarrak, azeriak; Amezketarrak, elbiak (euliak)*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Ikaztegieta

IzenOfiz.: *Ikaztegieta*.

Dok.: (Top.) *Ycazteguyeta* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 268; 1349, Rol., 1991: 61), *collaçion de Ycazteguieta* (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 235), «*Otrosi que los dichos de Orendayn e Valliarayn e Ycazteguieta*», «*dichos lugares de Vallarrayn e Orendayn e Ycazteguieta*» (1390, *ibid.*, 310), *Ycazteguieta* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Vcastguieta (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Ycazteguieta* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Ycastiguieta* (1615, *ibid.*, 673), *Icazteguieta (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, *Ycastiguieta (vi., López, 1770)*, *Icazteguieta (DRAH, I, 1802: 62)*, *Icazteguieta (vi., Mad., IX, 1847: 383; Go., 1862: 226)*.

(Antrop.) «*Johan Yeneguez d'Ecazteguyeta, fijo de Yenego Martinez d'Ecazteguyeta*» (1349, Rol., 1991: 47), *Martin Yuannez de Icazteguieta* (Aramaio, 1388; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 261).

EuskalOnom. Cfr. Antzuolako *Icaztegui-Aldea* basoa (1945, Pavo, 2005: 349).

EuskalTes.: «*Icaztegietan badira iturri guezagozo onac*» (Izt., 1847: 96), «*...eta au ezquerreco aldera utziric, badoa Legorretan barrena Berozteguico urac arturik Icaztegietara*» (*ibid.*, 115).

Ebak.: [i.káʃ.te.ʝi.e.tàn] (in.) (Ika-001), [i.káʃ.te.ʝà] (abs.) (Alo-003), [i.káʃ.te.ʝje.tà] (abs.) (Lgo-001).

Etimol.: Osagaiak *ikaztegi* 'egur ikatza egiten den lekua' eta leku-ugaritasunezko -*eta* atzizkia dira. Alegia, hasieran 'ikaztegia dagoen lekua', 'ikaztegiak dauden tokia' zatekeen.

HerritarIz.: *ikaztegiatar*.

Herriaren ezizena: *Madril txiki*.

Irun

IzenOfiz.: Irun.

Dok.: *Yrun* (1203, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 19-20), «*Sepades que los arrendadores e los 2 señores de las ferrerías de Oyarçun e Yrun Yran(zu), se nos enbieron querellar*» (1328, Ayer., Iri. eta S.M., 2012: 1), «...*los de nuestra tierra de Oyarçun o de Yrun Vrançu [...] la tierra de Oyarçun o de Yrun Yrançu*» (*ibid.*, 3), *tierra de Yrun-Urançu* (1499, Le. eta b., 2002: 247), «...*cerca del agua de Beobia, estaba un onbre muerto en la orilla del rio de la parte de Yrun*» (*ibid.*, 248), «...*ay bio como un otro onbre de Yrun, que se llamaba Oynes, hermano de Guirguillot, le tiro con la ballesta y le dio con un tragaz por los pechos*» (*ibid.*, 250), «*Joan de Ybargoyen, vezino de Yrun Yrançu*» (1520, Iri., 2013: 376), *Yrun urançu* (Zaldibia, c. 1560: 260), *Hirun Vrançu* (Gari., II, 1628 [1571]: 145), *Yrun Urançua* (*ibid.*, 342), *Yran* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Irun-Uranzu* (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «...*satis indicat suo sæculo Fontarrabiam oppidum, necnon vicum illum qui Irun Vrançu nuncupatur extra Ipuscuam fuisse*»⁷⁸ (Oihenart, 1992 [1637]: 682), *Yrun* (*vi.*, López, 1770), «*Irun-Iranzu ó Iranzu, universidad y villa de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, I, 1802: 380), *Irun* (*vi.*, Mad., IX, 1847: 447-450; Go., 1862: 236).

EuskalOnom. Cfr. *Yrunieta* (Arakilgo herrixka despopulatua: «*Yrunieta e Ayzcorve*» [1268, Felones, 1982: 657]. Ez dirudi *Irañeta* den, gero, zerrenda berean, *Yraynoeta* ageri delako), *Yruyneta* (Gabadiko «sala» baten izena, 1350-1353an; Ciér., 1993: 40), *Yrumbe* (Araia aldeko herri hustua 1455ean, Poz., 2001: 33-34), «*Començando en el biberro, açerca del arroyo de Yrunegui*» (Deba, 1483; Bar. eta Her., 2005a: 92), *Irumbarrena*, *Irumbengóa* (Idiazabal, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 96), *Irumbieta* (Usurbil, *ibid.*, 74), *Irunaga Mayor*, *Irunaga Menor* (Eibar, *ibid.*, 119), *Irunagasoro* (*ibid.*), *Irunzubi* (Tolosa, *ibid.*, 105).

EuskalTes.: «*Monsieur Chanfarron, jaun andia, Yrun calean daça ylla*» (Zaldibia, c. 1560: 266; ikus Mitx., 1964: 106), «*Yruneco calean / niri ondo costa jaquin / Guipuscoaco lurrean*» (Lazarraga, 1567-1602: 51), «*Irungo ospitalle aizineco cabarras orai ere errencuratzen gara [...]. Esta posible zuen soldaduce Irunen eta berzetan eguiten tusten friponqueric geiago soufritzea, Haristegui hemengoa Donostiatie helduzella [...]*» (Urruña - Hondarribia, 1680; S. Múgica, 1899: 456), «...*eta Franciaco erresumacoa da bertce gaineracoa, ceinetan baitira Baionaco hiria, Donijoanecoa, eta cembait bertceric Irungo hibayarainocoan, ceina cerbitçatcen baita mugarritçat*» (J. Etzeberri Sarakoa, 1907 [1712]: 26), «...*ceintzuc diraden Irun-aranzunguic* (*sic*) *asi ta Gatzaga-rañoco errietan arquitzen diran ezagutuenac*» (Izt., 1847: 35), «*Irun-aranzungo mendietan atera oizuten beruna*» (*ibid.*, 64), «*Irun arazungo erri-barruaren aldechoan arquitzen da iturri bat*» (*ibid.*, 96), «*Beste bat are ugariagoa da Endara-errega deitzen zaiona, ceñac berecizen dituen Irun arazungo eta Lezoco mugaac*» (*sic*) (*ibid.*, 97), «...*eta ibai zabal andi eguiñic sartzen da Guipuzcoan, Endarlasa igarotzen dabela. Iristen da Irun aranzungo errira [...]*» (*ibid.* 120), «*Kaperotxipik ateratzen du gañera, Irungo beltzakin adiskidegoan*

⁷⁸ «...garbi adierazten du bere mendea Hondarribia gotorlekua eta berebat *Irun Vrançu* deritzan herria Gipuzkoatik kanpo zeudela”.

zebillela) (Orixe, 1985 [1929]: 71), «*Berrogei ziran etxe barreanean, ezeren kezkarik gabe, Irundik aiei laguntzera etorri-bearrak baitziran*» (*ibid.*, 77), «*Gabez sartu zan Irunen*» (*ibid.*, 90), «*Goizian irten Irun'dik eta / iluntzerako Madrilla*» (Txirrita, 1931c: 40), «*Igeltzeruen kontratista da / Irun'en jayo ta aziya*», «*Nola Irun'go personajia / ala pauso aldekoa*» (*ibid.*, 1931e: 78), «*Irun'dik ta Ondarrabi'tik / jende asko da etorri*» (Zabala, 1992: 315), «*Uste gabian juan dirade / Donostiyatik Irun'a*», «*Orra Irundik Erreterira / berriz iritxi bearra*» (P. Zabaleta, 1932a: 99), «*fiesta aundiyak nola baiziran, / biyok juan giñan Irun'a*» (Txintxua, 1932: 298), «*Aurten Irunen ezitik inork gosez irauen*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 141).

Ebak.: [i.rún.gò] (lek.g.) (Irn-007), [i.rún] (Urn-017).

Etimol. Mogelek (1854: 734-735) bi azalpen etimologiko ematen dizkio toponimoari: *Iri-on* 'herri ona' eta *Irunea* 'ira (iratze) asko dagoen eremua'. Honek «*Iruna ó Pamplona de Navarra*»-rentzat ere balio du, Eibarko idazlearen arabera. Luchairek (1874-75: 21), *iri* 'ville' aztertzen ari delarik, izen hori osagai duten hainbat toponimo hartzen ditu ahotan, horien artean *Irun*: «*Ville: Irun pour Iri-un. Nous considérons un comme un suffixe toponymique plutôt que comme l'adjectif qui signifie bon*». Schuchardtek (1908: 5) ez du *Irun* aipatzen, baina bai *Iriberrri*, *Ulibarri*, *Uribarri*-rekin identifikatzen duen *Iluber(r)i*, egun *Lumbier*.

Vinsonek (1909: 351), Lapurdiko *Hiriburu* herri izenaz dihardukalarik, elementuetako bat *hiru* dela dio (frantsesez *Saint-Pierre d'Irube* da), *hiri*-ren aldaera, hain justu. *Hiru* horren forma osoa *irun*, *hirun* dateke haren arabera, *Irun* eta *Irunberri*-n dukeguna («cf.» dio), gero sudurkaria elkarketan galduko bazen ere, *Eguberri*-n bezala, demagun. Gavelek (1931: 45) toponimoaren jatorria *Iruon* dela dio, 'villa ona' edo 'hiri ona', *Iruña*-rena bera; Gipuzkoako *Villabona*-ren kideak dira bai *Irun* eta bai *Iruña*, autorearen aburuz, eta *Irunberri* ere hori bera da, *berri* izenondoa ere izanagatik ('nouvelle bonne ville'; *ibid.*, 46).

Menéndez Pidalek (1918: 229 eta 1949: 2, 8, 10), etimoaren erdiko bokalaz mintzo, erdarazko *Lumbier* formak *Javier*-ek duen garapen bera izan duela dio, eta Oihenartek *Irunberri* ematen duela euskarazko aldaeratzat («que Oihenart vasconiza en *Irunberri*» hitzez hitz). Moretek oinarrian *ilumbe* 'goibela', 'iluna' zekusala gaineratzen du, eta Jaurgainen arabera *irune* 'urgunea' zela.

Caro Barojak (1945: 189) *Irun* toponimoa *iri*-ren handigarria dela uste du; ez du, ordea, baieztapen hori deusetan finkatzen. Bähr-ek (1948: 181) ez du *Irun* aipatzen, baina bai *Lumberri* eta *Pompailo* edo *Iruña*: «In *Lumberri* steckt wohl b[askisch] *berri* 'neu', der erste Bestandteil könnte, wenn die *Iluberritani* wirklich auf die genannte Stadt zu beziehen sind, identisch sein mit dem zweiten Teil von *Pompa-ilo* (: *Iru-ña*)»⁷⁹.

⁷⁹ «*Lumberri*-n euskarazko *berri* dago, (eta) lehen osagaia *Pompa-ilo* (*Iru-ña*)-ren bigarren zatia bera izan liteke, *Iluberritani*-tarrak aipatutako *Lumberri*-rekin erlazonatu behar badira».

Mitxelena (1953, 332) (*h*)iri eta *ili* bikotean zaharrena bigarrena dela dio, eta *-l* > *-r*- aldakuntza euskararen barnekoa dela, eta berrikara. Harrigarri egiten zaio, hain hitz zaharra izanik, (*h*)il- ez aurkitzea, non edo han. Segur aski *Irun* aipatu (*h*)iri horren eratorria izango dela uste du, eta *Irunberri* ere alor berekoa dela, «cf.» baitarabil.

Erreteriarra, hurrengo urteko beste lan batean (1954: 440) esaten du, onomastika akitaniarraz (eta iberieraz) diharduela, *ilur*- forma *ilun*-en lekune aldaera (*variante posicional* gaztelaniaz) besterik ez dela, *oihar*- adibidez *oihan*-ena den moduan. Honela jarraitzen du: «De las posibilidades no citaré más que una. Como se sabe, hay vasc. *Irunberri* junto a *Iriberr* y siempre se ha pensado que *irun*- procede, de una u otra manera, de *iri*. Esto nos permitiría por lo tanto postular un *ilur*- derivado de *ili*- ‘ciudad’, que se justificaría exactamente de la misma manera». Garai bereko beste lan batean (1957: 156) esaten du bokal arteko *-l* > *-r*- pausoaren lekukoak, besteak beste, antzina-ko *ili*- euskaraz (*h*)iri, (*h*)uri eta *Ilu(m)beritani* gure mintzairan *Irunberri* izatea (erdaraz *Lumbier*) direla.

Erreteriarriko hizkuntzalariak, geroxeagoko beste artikulu batean (1958: 33), idazten du Estrabonen testu argiak Nafarroako hiriburuaren izenaren oinarrian Pompeyoren izena zegoela pentsarazten digula (ikus Montenegro, 1960: 520 eta Rohlf, 1966: 420), eta gainerakoa ‘hiria’-edo adiera zuen bertako akabaila zela. Bigarren honetaz dio gero euskaraz erabili izan den izena besterik ez zatekeela, nahiz eta, segur aski, itxuraldaketa zenbait izan zituzkeen, latinaren ekanduetara egokitzeko. Bakuna irudi ez duen euskal izenaren lehen osagaia Penintsulako eta Frantziako hegoaldeko zenbait hiriren izenetan errepikatzen den *Ili*- dateke, euskarazko (*h*)iri ‘hiribildua’ bera.

Mitxelena, lan berean (34. or. eta hur.), esaten du iritzi komunaren arabera euskarazko izena *Iruña* dela eta horrela erdararatu izan dela, baina, Irigaraik dakarrenez, izena bizirik dagoen tokietan *Iruñe*- esaten dela, ez *Iruña*. Bokal itxiek bokal irekia ixten ez duten lekuetan ere (*iketza* > *iketza*, *burua* > *burue* egiten ez denetan, alegia) *Iruñe*- dagoela gehitzen du, eta nafar hiriburuaren izena arruntzat hartua eta deklinatua dela, artikulu eta gutzi (ikus 1967: 174, 16. oin-oharra), Nafarroako *La Población* edo Arabako *El Burgo* eta *La Puebla de Arganzón* bezala. Geroagoko beste lan batean ere (1972b: 330) *Iruña*, bai Arabakoa eta bai Nafarroakoa, *Ciudad* edo *Lapoblación*-en moduko zerbaiten baliokidea dela berresten du.

Erreteriarra ondoko beste lan batzuetan ere (1977a: 500 eta 509, 1977b: 72-73) ukitzen du gaia, eta dio *Oeaso*-ren zaharkin-hondakinak Irunen berean edireteak *Irun* izenean *Iruñea* (Nafarroakoa) eta *Iruña* (Arabakoa) toponimoen aldaera ikustearen alde egiten duela. Nafar hiriburuaren deizioa (*h*)iri ‘hiribildua’ eta ongi zehaztua ez dagoen beste zerbaiten bidez azaldu izan dela esaten du, eta erresuma zaharreko hiri nagusiaren izenak *-e* bokala, adierazgarria izan litekeen bustidura eta artikulu mugatua dauzkala. Egiantz handikoa iruditzen zaio Erdi Arorako izena (ez dago biziki argi *Irun*-ez ari den, *Iruñea* eta *Iruña* pareaz, edo biez) apelatibotzat hartu zela pentsatzea, *Elburgo*, *La población* eta besterekin agitu bezala. *Iruñea* toponimoak *eskui(n)* hitzaren «eta behar-bada baita ‘aitona’-ren» aldaerek sortzen duten arazo bera sortzen duela esaten du

(1977a: 509) eta, beraz, hor *hiri* ez ezik *on* adjektiboa ere bazegoela pentsatu beharko dugu, baina *Irun*-en gauzak nola diren ez du zehazten.

Mitxelena (1979: 26), Bähr-ek dioenari jarraikiz eta Untermannek dioenaren aurka, uste du latineko *Pampilone* formaren *-ilone* bukaera, era batera edo bestera, euskarazko *Iruñea*-ri dagokiokeela, eta lehenagoko **il* + *V*-etik datorrela, ez **iL* (iberieraz *-Lt-* idatzirik) + *V*-tik, beste gisan euskarazko egungo izenaren dardarkaria ezin azal daitekeelako.

Untermannek (1976: 124-126) *Pompaelo* erromatarren eguneroko hizkeran *Pompelo* bihurtu zela dio, eta izenak zatitzeko dauden aukeren artean bermerik handiena duena *Pompai-ilo* partiketa dela. Segur aski, iberieraz eraginda, jatorrizko *Pompei-ilo* forma *Pompailo* bilakatuko zen. Bigarren osagaia den *-ilo* (lehena erromatar jeneral ezagunaren izena da), iberierazko *-iltu*-rekin identifikatu behar da, latinez *-illu-* edo *-ilu-* izkiriatuko litzatekeenarekin⁸⁰. Bestalde, Nafarroan edo Aragoigoienean etorki duen txanponeko *Olcaifun* idazkuna jatorriz *olka-iltu-n* izan daiteke, alegia, autorearen ideien harira, latinez *Olca-illu-n* edo *Olca-ilu-n* idatziko litzatekeena, eta hemendik, alboko disimilazioz (*l - l > l - r*), nolabaiteko dardarkaria duen aipatu *Olcaifun* aterako zen. Bigarren osagai hori (*-illu-n*, *-ilu-n*, idazkunean *-iñun* bihurtu dena) dateke *Irunberri* eta *Lumbier*-en etimoa den *Ilu(m)berris*-en lehen elementua (*Ilu(m)*).

Tovar (1977) ez da Untermannekin akort, honek idazkuna iberieraren mundura, arlora daramalako, *olca-iltu-n* interpretatzean. Salamancako errektore ohiaren iritzian, *Olcaifun*-en *olca* 'alorra', 'elgea' hitz zelta eta Gipuzkoako hiriaren izena, Nafarroako hiriburuarena eta Arabako herri despopulatuarena den *Irun* ditugu, «*Olca*-ko *Iruña*» alegia. Tovarren arabera, eta *Iluberitani* irakurtzeko dauden arazoak egonda ere, egungo izena ezaguturik *Irun* eta *Iruña*-ren jatorria *Ilum-* dela pentsa dezakegu (*ibid.*, 7). *Pompaelo* forma erromantzea dateke haren aburuz, eta *Olcaifun*-en dugun *-irun* izen herrikoa, euskaldunok erabiltzen genuena. Bukaerako *-n* atzizkia dateke Tovarren ustean, euskaraz (elkartuetan) *-r*-rekin aldizkatzen dena (*Ilurberri* / *Ilumberri*? jainko izenean, kasurako). Ondoko beste lan batean (1985-86: 19), bide beretik, *olca* 'alor landua'⁸¹ eta *irun* 'hiria' dakuski *olcaifun*-en.

Albertosek (2004: 265; lana 1980ko hamarkadan izkiriatua da) *Pamplona* aztertu eta esaten du latineko izena *Pompaelo* zela eta hau, bertsio herrikoa den *Pompaelona*-ri esker, *Pamplona* bilakatu dela. Tovarrek dioena hartzen du ahotan, hots, *Olca-irun*

⁸⁰ Ia hogeitaz lehenagoko lan batean plazaratu zuen aleman irakasleak ustekari hau. 1960an mintzo da gai honetaz, Tübingo Unibertsitateko ikasturte hasierako hitzaldian. Alemaneko bertsioak hurrengo urtean, 1961ean, ikusi zuen argia, portugesekoak 1962an eta gaztelaniako laburpenak 1963an. Honetan honela dio: «Los textos ibéricos arriba examinados nos ofrecen un punto de partida muy conveniente: Se sabe que el elemento *-ili-* o *ilu-* (delante de *r* también *ile-*), tan corriente en la toponimia antigua hispánica, es idéntico al elemento *ilti-* o *iltu-* de las inscripciones ibéricas. Recordándose ecuaciones como ibér. *iltirta* = lat. *ilerda*, ibér. *ilturo* = lat. *Iluro*, etc.» (173. or.). Ikus urte batzuk geroago Velazak (1996: 53-54) gai honetaz dioena.

⁸¹ Honetaz ikus Sims-Williams (1998: 335).

baitugu txanpon batean, *Pompaelo* -izena Pompeyori zor zaio- *Pompa-irun* / *Pompa-ilun*-en latineko egokitzapentzat eman behar dela. Honek hiriak beti izan duen *Iruñea* izena esplikatu luke, Albertosen iritzian.

Gorrotxategik (1984: 333) Iberiar penintsulako eremu ez-indoeuroparreko *ili*-kultura hitzaren aldaeratzat jotzen du *Pompaelo*-n ageri bide den **ilon*, albokari biguna zuena, gero bokal artean *-r*- bihurtu delako. Lan berean (299), Akitaniako *Ilur-berri-xo*, *Ilur-berri-xon(i)* jainko izena *Ilumberri* toponimoarekin (*Auch* egun) lotzen du. Aitzinago (337-340), *Ilurberrixo*, *Ilurberrixon*i eta *IllVnberf* teonimoak aztertzean, lehen osagaian *Ilur-* / *Ilum-* txandakatzea dagoela nabarmentzen du, eta esaten aurreneko osagai hori Pliniok dakarren eta egungo *Lumbier*, *Irunberri*-ri dagokion *Ilumberitani* etnikoarekin esteka daitekeela, non *Ilun* baitugu, gero *Irun* eta artikuluekin («con formación determinada» hitzez hitz) *Iruñea* bilakatu dena alegia, euskara zaharreko *ili*-k duen alboko soinua duena, zein gero bokal artean *-r*- bihurtzen baita.

Bestalde, *Ilurberri-* / *Ilumberfri* osagai beraren bi aldaera diratekeela uste du, Mitxelena (1954: 440) bidetik, *egun* / *egur-aldi*-n edo *jaun* / *Jaur-egi*-n dugun txandakate bera, eta iberierako *iltun*, *iltur*-ekin ezin erlaziona daitezkeela, hauek **L* eskatzen dutelako. Baina, bestalde, akitanierako *deo Iluroni* : *Iluro* (*Oloron* egun) : *ilturo* (Mataroko iberiar txanponekoa) berdinketa dugu, **iLur* oinarria bazela onartzera bultzatzen gaituena. Bide honetatik, *Ilurberri*-rendako **iLur* oinarria onesten badugu, ez legoke arazorik iberierazko *abafiltur*-ekin eta *ilturatin*-ekin lotzeko. Era honetara, ordea, *Ilumberfri*-rekiko parekatzea hautsiko litzateke, eta, hortaz, bi elementu desberdinetan pentsatu behar genuke.

Arazo hau konpontzeko akitanieran hasierako *i-* erori zela dio, adibidez *Lurgorrfi*-n, non menturaz **ilur* ikusi beharko baita, *ilurberri*-rekin erkatzen bada, euskaran silaba bakarreko hitzak urriak direlako. Nolanahi ere, aitortzen du **iLur* etimoaren «berre-raikuntza» iberiar formekiko alderaketan oinarrituta dagoela, eta, molde berean, **ilur* batean pentsa daitekeela, lehenik hasierako bokala galdu zela eta gero bokal artean *-l* > *-r*- burutu zela onesten badugu. Ez du, dena dela, *olcaifun*-en eta *Irun*, *Iruñea*-ren arteko Tovarrek proposatutako erkaketa onartzen.

Garai bertuko beste lan batean (1985-1986: 81) *Pompa-elo*-ren bigarren zatia (*-elo*) euskara zaharrak iberieratik hartu zuela gauza onartua dela dio Eibarko iker-tzaileak: «Si es cosa generalmente aceptada que el vascuence antiguo recibió en préstamo del ibérico la palabra para referirse a ciudad (cf. *Pompa-elo*, vasc. *iri*, *uri*) en virtud del mayor nivel cultural y urbano de estos últimos, cabe la posibilidad razonable de que algo parecido pudiera haber ocurrido en la zona indoeuropea [...]».

Gorrotxategik berak, beste artikulua batean (1993: 119-122), *olCairun* txanpon-idazkuna hartzen du ahotan eta esaten Tovarrek toponimo hibridotzat eman zuela: lehen osagaia zeltako *olca* da espainiar hizkuntzalariaren iritzian, *Octaviolca* toponimo zaharrean dena edo gaztelaniako *Huelgas* eratorriaren oinarrian daukaguna, eta bigarren osagaia *irun* ‘hiria’⁸². Gorrotxategiri azken berdintze hau arriskuz beterik dagoela iru-

⁸² 1985-86ko artikuluan mintzo da Tovar honetaz, 19. eta 25. orrialdeetan.

ditzen zaio, hitz hori denbora hartan *-ilun* izatea espero baikenuen, hain justu ere egungo *Irunberri* / *Lumbier*-ko *Ilumberritani* populu izenean, *Pompaelo* ‘Pompeyoren hiria’-n eta *Andelos*-en kausitzen duguna.⁸³

Ikertzaile honek berak, geroagoko beste lan batean (2000: 147–148), Ptolomeoren idazkiko hiri izen eta etnonimo frankok sudurkaridun deklinabidea onartu dutela dio, *Πομπειλών*-ek adibidez. Egokitze honen arrazoiak garbi zein diren ezin esplika deza-keela gehitzen du, baina hipotesizat tokiko hizkuntzek ez zutela nahitaez deklinabiderik eduki behar esaten du, eta etorkizko *-o* bukaeradun izena, markatugabea alegia, latineko nominatibora asimilatu zela, hau baitzen harengandik hurrana zegoena. Ptolomeok ‘Pompeyoren hiria’ azaltzen duen *Πομπειλών* izenean *-ilu(n)* ‘hiria’ bertako osagaia ikusi dela dio, zein Pliniok dakarren *Irunberri*ko *Ilumberritani*-tarrekin eta bukaeran *-n* duen *Irun* hiriaren izenarekin aldera baitaiteke. Euskaraz *-n* lokatibo hondarkia dela eransten du Gorrotxategik, daitekeena dela lokatibodun aldaera forma absolutua baino erabiliagoa izatea, eta hori toponimook sudurkaridun deklinabidera egokitzeko zergatikoa izan daitekeela.

Irigoienen aburuz (1992: 153–155, 1995: 274), *Iruñea*, *Irun*, *Irunberri* (bigarren osagaia *berri* da) eta *Ilunzar* (Bizkaia; bigarren elementua *-zar* ‘zaharra’ dugu) erdarazko *castro*-ren baliokide dira. Mitxelenaren ustekarian oinarri harturik, Nafarroako hiri-buruaren izenaren kasuan etimotzat **Pompe[i]-* + **-ilon* ‘Pompeyoren hiria’ proposatu behar dela dio, eta gero latinez deklinatu zela: «...declinado en latín con genitivo en *-onis*, sufriendo el nominativo, por constituir un tema en nasal, un alargamiento compensatorio de la vocal de la última sílaba a causa de la caída de dicha nasal final». Ondoren, bokal artean *-l-* > *-r-* aldakuntza burutuko zen, eta sudurkariak eragindako *-o-* > *-u-* hersketa (1995: 72, 406).

Velazak (2006: 53) *olkairun*-ek oraino zenbait ilungune dituela dio; adibidez, *Ipolca*, *Ipolcobulcula*... toponimo sortako *olka* elementuarekiko erlazioa, eta egungo euskarako *irun* hitzarekin *ifun* bigarren osagaiak erakusten duen bat-etortze harrigarri eta, segur aski, zorizkoa.

Berriki argitaratu artikuluko batean, Martínez Chicok eta Amelak (2018: 81–82) esaten dute *Olkairun* zeka ez zegoela Euskal Herrian, hegoalderagoko alderdi batean baizik, «Ebroren goi haranaren hegoko buruaren gainean» («sobre la cabecera meridional del valle alto del Ebro»), autoreen hitzetan).

Orain urte batzuk idatzitako egunkari artikuluan, Knörr (2006) arabar euskaltzaina Luchaireren irizkide ageri zaigu, *hiri un* baitakusa Gipuzkoako toponimoaren oinarrian, ez *hiri on*. Honela dio: «Sólo que ahora creemos que *Iruña* no es ‘Villabuena’. El primer elemento es, sí, (*h*)*iri* ‘ciudad’, pero el segundo preferimos relacionarlo con *un*, ‘lugar’, como en el caso de la capital navarra y el *Irun* guipuzcoano (y *Ataun*, *Solaun*,

⁸³ 2005eko lanean (161. or.) honela dio: «This (Pliniok Nafarroako zenbait herri izen deklinatzen dituen erak) permits us to relate the name of this city (*Andelo*) with that of *Pompaelo* and all the Iberian cities which terminate in *-elo* ‘city’».

etc.)). Gasteizko euskaltzainak dioenez, *Iruña* salbuespena da Araban, herrialde honetan, goizdanik (1025eko «Reja» delakoan, kasurako), *huri* baita ohiko aldaera, hau da, has-tapeneko bokala aldatu duena. Honek pentsarazten dio *Iruña* izena aipatu aldakuntza gauzatu baino franko lehenago finkatu zela.

Garbi dago, bada, eta bukatzeko diogu, asko idatzi dela aztergai dugun toponi-moaren gainean. Esandako horietatik, besteak beste, honako ondorio hauek atera dai-tezkeela dirudi (ikus Sala., 2007b eta 2011c: 80-81): a) *Irun* (G), *Irunberri* (N), *Iruña* (A) eta *Iruñea* (N) etimologiaz loturik daude; b) laurak ere *hiri* izen arruntarekin erla-zionaturik daude; c) *hiri* izena *ili*-tik atera izanen da, honek hasperenik (*h*-rik) ez iza-teak hori onesten laguntzen ez badu ere; *ili* Euskal Herritik kanpo ere erabilitako kultura hitza da⁸⁴; d) modu berean, *Irun*(-) aurreko *Ilun*(-) batetik atera dateke, Gipuz-koako hiriaren kasuan lekukotu aldaera guztiek *r* [r] izan arren, egungo formak bezala; e) *Ilun*- honek ez du argi falta edo gabezia adierazten duen *ilun* adjektiboarekin zeri-kusirik; f) *Ilun*(-) > *Irun*(-) elementuari 'hiria' adiera aitortu izan zaio; g) ez dago argi, dena dela, zein den *hiri* eta *Irun*-en arteko erlazio zehatza, edo, nahiago bada, *ili* eta *Ilun*(-)en artean dagoena, ez baita aise *ili*, *hiri* + *-un* 'hiriaren lekua' edo *ili*, *hiri* + *on* 'hiri ona' formatatik *Ilun*(-), *Irun*(-) formatara iristea, ezinik ez bada ere; h) *Irun*-ek ez duen, baina *Iruñea*-k eta *Iruña*-k baduten palatalizazioaren zergatia zein den ez dago guztiz garbi: irudi luke etimoa *hiri* + *on* bada *Irun*-ek ere izan behar lukeela; aldea itur-buru bana edukitzeari zor dakioke, edo Gipuzkoako toponimoak Nafarroakoak eta Arabakoak duten *-a*, artikulutzat hartu izan dena, ez ukaiteari, menturaz.

HerritarIz.: *irundar*.

Behobia

Udala: Irun (auzoa), Urruña (L, auzoa).

IzenOfiz.: *Behobia*.

Dok.: «*rio y paso de Beobia*» (1499, Le. eta b., 2002: 252), «*Jeronimo de Achega, alcalde de sacas de la provincia en el paso de Behobia*» (1518, Her. eta Fdez., 2011: 152), «*...en yrun urançu, junto al paso de Veouia*» (Zald., c. 1560: 260), «*...se fueron al paso de Veobia y es la raya*» (*ibid.*, 261), *Ca*^[título] *de beau (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), «*Aralar monte se llama tambien Arara: y el rio Vidoso se dize tambien Vidorso, Aduida y Beoyuia. Este rio pasa entre Francia y España*» (Ortelius, 1588: 19), «*rio Vidasoa de Behobia*» (Isas., 1850

⁸⁴ Delamarrek, 2009. urtean argitaratu artikuluan, zeltatzat ematen du European, han-hemen, errepi-katzen den *Iria* izena. Jakina denez, Humboldt (1990 [1821]: 51-55), XIX. gizaldiaren hastapenean, *Iria* hori (Galiziako *Iria Flavia*-n duguna, konparazione) euskaratikakoa zela zioen, *uria*, *ilia* eta *ulia* bezala, euskara-iberiera edo «baskoiberismo» teoriaren barnean. Untermannek (2011: 285) honela dio bere azken lanetako batean: «...y desde hace tiempo nadie duda que *Iliberris* es 'la ciudad nueva' y que *Pompaelo* es *Pompeiopolis* [...], es decir, que se trata de compuestos con la palabra ibérica *Ili*-, en escritura ibérica *ilti*-, y es bien sabido que hay más topónimos que admiten una interpretación comparable a la de *Iliberris* y *Pompaelo*».

[1625–26]: 118), «...para que acudieran al paso de Behobia, junto con la infantería guipuzcoana» (*ibid.*, 280), *Castillo de Beovia* (López, 1770), «Beovia, castillo en términos de Irún construido [...] para defender el paso del río Vidaso [...]. En el referido paso del río Vidaso, que todavía conserva el nombre de Beovia, hay dos gabarras, una de la parte de Francia, y otra de la de España» (DRAH, I, 1802: 162), *Beovia (castillo antiguo, Mad., IV, 1846: 232)*, «En territorio de la misma villa, cerca del paso de Behobia, hubo un castillo construido entre los años de 1512 y 1521» (Go., 1862: 237), «...el Gobierno de aquella Nación levantó otra vez en el paso de Behovia un nuevo puente» (*ibid.*, 1868, I: 45).

EuskalTes.: «...eta zuec placer duzuen orduan conferencia bat iduquitzeko della Pausuan (Behobia) edo berze conveniden lecutan salbo biharco eguna» (Urruñá – Hondarríbia, 1680; S. Múgica, 1899: 456 eta 1908: 731).

Ebak.: [bé.o.βi.a.rát] (adl.) (P. Xarriton, a.a.), [be.ó.βi.pò] (mug. adl.) (Hon-059).

Ebak.: [páɥ.su.rát] (adl.), [páɥ.su.kò] (lek.g.) (P. Xarriton, a.a.). Dassancek (1966: 159) *Pausu* dakar Lapurdiko *Béhobie*-ren baliokidetzat.

Etimol. Etxabek (1970 [1607]: 52) ‘hobi bidea’ adiera ematen dio *Beouia*-ri: «...y entrando por la estrechura de Beouia con arto recelo de los nuestros, por ser lugar en que siempre an corrido fortuna estraños y naturales, como lo da a entender su nombre, que quiere dezir camino de sepulturas».

Vinsonék (1909: 354) *behor* ‘jument’ dakusa izen honen oinarrian. Bigarren osagaitzat latineko *via* ‘bidea’-tik atera zatekeen *-bia* dukegula diosku, *Urtubia*, *Hondarríbia* eta bestetan dukegun bera, eta «voie de jument» itzultzen du, baina parentesi artean *gué* ere sartzen du, ‘ibia’ zeharo arbuaitzen ez zuelako seinale. Mitxelenak (AV, 148) *Behobia* toponimoa *be(h)or*-en eratorriei eskaini atalñoan sartzen du, eta gaineratzen du Garibaik 1571n behin eta berriz *Beoyuia* deitzen duela.

Gure ustez, toponimoaren osagaiak *behor* kabala izena, *ibi* ‘pausua’, ‘ibaia igarotzeko sakontasun gutxiko gunea’ eta *-a* artikulua dira. Aintzat hartu behar da *Hondarríbia* hurbil dagoela. Etorkiz artikulua den *-a*-ren tratamendurako, aldera bedi Mutrikuko auzoa den *Astigarribia*-rekin.

Bestalde, Vinsonék (1909: 354) euskaldunek *Pausu* «arrêt» erraten diotela zehazten du: «c’est évidemment un souvenir du temps des diligences, des chaises de poste, etc.». Mitxelenak (AV, 560b) *Béhobie*-ren izen herrikoia *Pausua* ‘estación, parada’ dela dio.

Gure iritzian, ordea, eta aipatu azalpena zuzena izan daitekeela ukatu gabe, osagaiak *pausu* ‘erreka edo ibaia igarotzeko leku egokia, sakontasun gutxikoa’ izen arrunta eta *-a* artikulua dira. Mikrotoponimian ugariak dira *pausu* daukaten toki izenak, *Arpausua* ‘harrizko pausua’, ‘erreka (hankak busti gabe) igarotzeko harriak dituen pausua’, *Pausu*, *Pausua*, *Pausubiurri*, *Pausugaizto(a)*, *Pausutxar* ‘igarotzeko gaiztoa, txarra den lekua’, *Pausuberri*, *Pausuzar* eta beste, eta ez dira sekula pausatzearekin, gelditu eta atsedean hartzearekin loturik egoten, erreka zeharkatzearekin, ibaia igarotzearekin baizik.

HerritarIz.: Dassancek (1966: 159) *pausuar* dakar.

Pausua (-a) (ikus *Behobia*)

Irura

IzenOfiz.: *Irura*.

Dok.: (Top.) *conçeo de Yrura, collaçion de Yrura* (1385, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 242), «...las dichas collaciones e vniversidades e personas singulares de Sancta Maria d'Ernialde [...] de Sant Miquell de Yrura e de Sancta Maria de Haduna» (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), *Yrura* (1510, Her., Ach. eta Mo., 1998: 179), «*Don Domingo de Echave rettor de Sant Miquel de Yrura*» (1545, Ayer. eta Dz.S., 1996: 547), «*Martin d'Eliçondo, vezino de Yrura*» (1572, *ibid.*, 571), *tierra de Yrura* (1595, *ibid.*, 639), *Irura* (lu., Isas., 1850 [1625-26: 29]), *Yrura* (pu., López, 1770), *Irura* (lu., DRAH, I, 1802: 386; Mad., IX, 1847: 451), «*Irura: lugar de la jurisdiccion y partido judicial de Tolosa*» (Go., 1862: 262).

(Antrop.) *Miguell Martinez d'Irura* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267).

EuskalOnom.: *Irurain* (Urnieta, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 72; Lizartzako aurk., 2012, LizM), *Iruramendi* (Irurako aurk., 2015, IruM).

Cfr. *Irure* (Soraluzeko bas., 1339an [S.Mar., 2000: 35] eta 1857an [Nopgui, 1857: 137]), *Yrure* (Debako alorra, 1391; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 327), *Irure-aruzcóa*, *Irure-aundía* (Errezilgo nekazari etxeak 1857an; Nopgui, 31), *Iruriaga* (Mutrikuko baserria, XIX. gizaldiaren erdialdean; Mad., IX, 1847: 451), *Irure* (Esteribarko herria, N).

EuskalTes.: «*Iruraco mugape laburrean ere iturri asco dira*» (Izt., 1847: 97), «*Hernialde, Alquiza, Larraul eta Anoeta ezquerrerontz eta Irura ezcuitara (sic) lagaric, joaten da Amasa Villabonacora*» (*ibid.*, 116), «*Arrameleko zubira ziranean, kotxe eder bat zijoan Irura aldera [...]. Irura iritxi ziranean, oñezkoak eriotza ondoan zutela uste zuten*» (Orixe, 1985 [1929]: 42).

Ebak.: [í.rú.ràn] (in.), [í.rú.rà] (adl.) (Iru-001), [í.ru.rà] (abs.)(Alk-001), [í.ru.rán] (in.) (Ano-002).

Etimol.: Mogelek (1854: 733) 'hiru ur' dakusa *Irura*-n eta *Irure*-n. Mitxelenak (AV, 336), berriz, *irura* 'vega' ikusten du *Irura*-n, Nafarroako *Irure*-n, *Irurita*-n eta *Iru-rozki*-n bezala. Hola balitz, *Ibarra*, *Arana* eta besteen iduria izanen litzateke. Gure ustez, alabaina, bada arazoa: *irura* hori, izen arruntzat, ez dago ongi lekukotua.

HerritarIz.: *irurar*.

Itsaso

IzenOfiz.: *Itsaso*.

Dok.: (Top.) *collaçion de Ychaso* (1462, Ayer. eta S.M., 2009: 51), *Ichaso leorra*, *Ychaso* (Gari., II, 1628 [1571]: 341, 378), *Ychasolcorra* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Isaso leorra* (*lu.*, *Isas.*, 1850 [1625–26]: 29, 112), *Ychaso* (*pu.*, López, 1770), «*Ichaso, según Garibay Ichaso Leorra, es decir mar seco, concejo de la alcaldía de Alería, pr[ovincial] de Guipuzcoa*» (DRAH, I, 1802: 369), *Ichaso* (*con.*, Mad., IX, 1847: 382), «*Ichaso: concejo del partido judicial de Azpeitia, union de Alería*» (Go., 1862: 227), «*pertenece a su jurisdiccion el valle de Arriarán y una parte del barrio de Alegria con cuatro casas*» (*ibid.*, 228).

(Antrop.) *Garcia Pereitz d'Icasso* (nafarra? 1261; Gar.Ar., 1996: 54), *Pero Sanchez d'Ichaso* (Azpeitia, 1348; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 254), *Pero Yruanez de Ysaso* (Segura, 1372; *ibid.*, 1996: 58), *Iohan Martinez de Areçualdo de Ysaso* (Errenteria, 1384; *ibid.*, 213).

EuskalOnom.: «*monte que se llama Ysaso*» (Andoain, 1434; Ayer. eta Dz.S., 1996: 474), *Joan de Ychaso* (Andoain, 1528; *ibid.*, 538), *Martin Perez de Ysaso* (Andoain, 1571; *ibid.*, 560), *Ichasoeta* (Deba, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 22), *Ichaserrota de abajo*, *Ichaserrota de arriba* (Itsaso, *m.h.*, *ca.d.l.*, *ibid.*, 28), *Ichaso* (Itsaso, *ca.d.l.*, *ibid.*, 83), *Ichaso* (Eibar, *ibid.*, 115), *Ichasoy* (Soraluze, *ibid.*, 137), *Itsasoerrotagoikoa* (Itsasoko bas., 2015, EzkM), *Itsaso-goena* (*ibid.*). *Cfr. Itsasperri* (Arakil, N), *Itsaso* (N) eta *Itsasu* (L).

EuskalTes.: «*Ichasoleorlean iturri on ugaritsu asco dira chit*» (Izt., 1847: 96).

Ebak.: [i.tʃá.ʒò] (abs.) (Ezk-008, Irn-007). S. Múgicak (1932: 620) ahoz *Ichasolegor* izendapena ardurakoa dela dio, txantxetan-edo mintzatzen delarik, ustez.

Etimol.: S. Múgicak (1932: 620), Oihenarti jarraikiz, Garibairen etimologia zaltetasuna kritikatu du, eta dio *Ichaso*-k ez duela *itsaso* izen arruntarekin zer ikusirik, besteak beste Gipuzkoako *Ichaso*, *Ichasondo*, *Ichasalde* (Eibar eta Soraluzeko baserriak) eta Nafarroako *Ichaso* itsasotik urrun daudelako. Múgicaren iritziz, toponimo horiek euskarazko *isats*, *itsats* landare izenarekin loturik daude, gero erabilerak *Ichaso* bilakatu dituen arren, ebakitzeko errazago delako.

Mitxelena (AV, 98) *-asu*, *-azu* bukaera zenbait deituratan agertzen dela idazten du, *Arrazua*-n, *Lizarazu*-n (**leizar-ara(t)zu*-tik ez badator) eta *Ichaso*, *Ichasu*-n, baina sarrera honetan esaten dena hagitz zalantzazkoa dela gaineratzen du. Lan berean, aurrerago (337. sarrera), *Isaso*, *Itsaso*, *Isasondo*, *Ichasondo* eta beste *isats*, *itsa(t)s* 'retama' izenaren eratorritzat ematen ditu, beste aukera batzuk ere izan arren: *isasi* 'xara' (Zigoitia) eta *itsa(t)si* 'eratzikia' 'arrakala'. Euskal txistukarien transkribatze okerrak, ordea, erabaki segurua hartzea galarazten bide dio.

Isasi orain, Araban-eta, 'debekua' 'betatua' dela ikasi dugu; Aragónnek (2009: 51) honela dio: «Los *isasis*, también denominados *yanas* o *igazzas*, eran terrenos forestales recién cortados que eran adehesados, por un periodo no menor de dos años, para evitar la entrada del ganado y posibilitar el crecimiento de los árboles». Etxarri Arantzen (N) 1617an *ascolichasi* (Erdozia, 2001: 157) gauza bera edo bertsua zen (*aizkora*

+ *itsasi*, irudiz), eta orobat Domaikian (A) 1730ean ageri den *ascorisasi* (González de Viñaspre eta Uribarrena, 2016: 21). Arinek (1951: 136) aipatzen duen Ataungo Agauntzako *Aizkolisasi* ez da, noski, *Aiz-kol-isasi* ‘jaro entre peñas peladas’, Etxarri Aranazkoaren eta Domaikiakoaren bizkia baizik.

Gure iritzian, nolanahi ere, egiantzekoena *Itsaso*-ren oinarrian *isats*, *itsa(t)s* landare izena dagoela pentsatzea da; atzizkia, Mitxelenak dioen moduan (AV, 545), *-tsu*, *-zu* ugaritasunezkoaren aldaera bide den *-so* izango da; *Itsasondo*-n, bestalde, azken osagaia *ondo* ‘aldamena’ postposizioa dela dirudi. Toponimoen etorkizko adierak ‘isats lekua’ (*Itsaso*), ‘isats lekuaren ondoko alderdia’ (*Itsasondo*) izanzen ziren.

HerritarIz.: *itsasoar*.

HerritarEz.: *otamotzak* (‘ote motzak’).

Alegia

Udala: Itsaso (bizt. ent. ber.), Gabiria (bizt. ent. ber.).

IzenOfiz.: *Itsaso-Alegia* (Itsaso), *Alegia* (Gabiria).

Dok.: (Top.) *Alesria* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Alegria de Areria* (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 28), «*Alegría, v[illa] de la union de Aizpurúa, pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, I, 1802: 62), *Alegría* (Gabiria, *ba.*, Mad., I, 1846: 522), *Alegría* (Gabiria, Itsaso, *bada.*; Nopgui, 1857: 24 eta 27), «*Alegria: barrio situado en una pequeña vega entre las villas de Ormaiztegui y Zumarraga cerca de la carretera general de Madrid. Se compone de quince casas de labranza; de las que nueve pertenecen a la jurisdicción de la villa de Gaviria, cuatro a la del concejo de Ichaso, y las otras dos a la de la villa de Ormaiztegui*» (*ba.*, Go., 1862: 15), *Alegria* (Itsaso, *ba.*, *ibid.*, 228).

EuskalTes.: «...oetaco bata jachitzen da Gaviriaco mugatic, ceñari esaten zaion San Estebango erreca, eta bestea Alegueriaco echadiatic datorrena» (Izt., 1847: 102).

Ebak.: [á.le.ɣ̃ɲ] (in.) (Gab-006), [á.le.ɣ̃i.á] (adl.) (Orm-001).

Etimol.: Ikus *Alegia* (herri izena) eta *Itsasondo* sarrerak.

Itsasondo

IzenOfiz.: *Itsasondo*.

Dok.: (Top.) «...nos los moradores de las collaciones de Atavn e de Beasain e de Zaldivia e de Gainza e de Ysasondo e de Legorreta» (1399, Ayer. eta S.M., 2013: 11), «...el dicho conçejo de la dicha Villafranca, con todas sus vezindades, es a saber: las collaçiones de Legorreta e Ychasondo [...]» (1409-1410, *ibid.*, 45), *Echasondo* (Gari., II, 1628 [1571]: 378), *Ychasonda (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Ychasondo* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Isasondo (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, *Ychasondo (vi., López, 1770)*, *Isasondo (vi., DRAH, I, 1802: 388; Mad., IX, 1847: 457; Go., 1862: 263)*.

(Antrop.) *Iohan Ximenez d'Ichasondo* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267), *Sancho Garçia de Ysasondo* (Segura, 1374; *ibid.*, 1996: 57), *donna Maria Martinez de Yssasondo* (Ordizia?, 1387; *ibid.*, 251).

EuskalOnom.: *Ichazondo (caserío, Mad., IX, 1847: 457)*, *Ichasondo (Arrasate, ca.d.l., Nopgui, 1857: 126)*.

EuskalTes.: «*Isasondoco mugapean eche guchi topatuco dira beren atari inguruan iturri garbi on ugaria ez daucatela*» (*ibid.*, 96), «...erri au (Zaldibia) Gainza, Alzaga eta Arama escuirontz lagaric igarotzen da Isasondora» (*ibid.*, 115), «*Isasondon ere izan giñan batean, kinto-bazkaria zalalado*» (Uztapide, 1975: 123).

Ebak.: [i.tʃá.ʂoŋ.do.kò] (lek.g.) (Its-002), [i.tʃá.ʂoŋ.dò] (abs.) (Bea-019), [i.tʃá.ʂoŋ.do.à] (adl.), [i.tʃá.ʂoŋ.do.ko.á] (lek.g. + abs.) (Lgo-001), [i.tʃá.ʂoŋ.do.á] (adl.) (Zdb-004).

Etimol. Ikus *Itsaso*.

HerritarIz.: *itsasondoar*.

HerritarEz.: *ijitoak*.

Kosta, Kostaldea (-a) edo Itsasaldea (-a)

Dok.: «*Todos estos pueblos de Guipúzcoa tienen otro modo de división en tres distritos: goyerri, beterri, costaldea o ichasalde. Y toda la marina, desde Orio hasta Motrico, con los lugares cercanos de tierra adentro, se llama costaldea*» (Larra., 1985 [1754]: 94-95).

EuskalOnom.: Cfr. Hondarribiko Kosta auzoa, Urola Kosta eta Uribe Kosta eskualdeak.

EuskalTes.: «*lutoz jantziya dago / Kosta Kantabriya*» (Imaz eta Txirrita, 1932: 306). Cfr. hau: «*Icusten da bada arguiroqui Tolosaz beerontzeco erri eta itsasbazterrecoetan sagarra ta matsa biltzen dala ioriago, goierrietan baino*» (Izt., 1847: 137).

Ebak.: [kós.tàn] (in) (Zar-003), [koş.tá.kò] (lek.g.) (Esk-051).

Etimol.: Gaztelaniazko *costa* 'itsasoaren ertza eta ondoan den lurraldea' dugu Kosta-n. Kostaldea eratorrian, berriz, *kosta* hori bera, *alde* 'hurbileko eremua' eta *-a* artikulua dauzkagu, eta *Itsasaldea*-n *itsaso* izen arrunta, *alde* eta *-a*.

Larraul

IzenOfiz.: *Larraul*.

Dok.: (Top.) *Larraul* (1470, Le. eta Ta., 1996: 63), «*universidades de Asteasu e de Larraul e de Alquiça e de Çiçurquill*» (1492, Ayer. eta Dz.S., 1996: 496), «...*tome de hazer e edificar en los conçejos de Larraul e Asteasu una presa de cal y canto*» (1552, Ayer., 1997: 204), *Laraul (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Larraul (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, *Larraul* (Larra., 1985 [1754]: 94), *Larraul (pu., López, 1770)*, «*Aiztondo, alcaldía de la pr[ovincia] de Guipuzcoa, y una de las tres mayores, que se compone de la villa de Asteasu y lugares de Larraul y Soravilla*», «*Larraul, l[ugar] de la alcaldía mayor de Ayztondo, pr[ovincia] de Guipuzcoa, dió[cesis] de Pamplona*» (DRAH, I, 1802: 12, 418), *Larraul (lu., Mad., X, 1847: 88)*, «*Larraul: lugar del partido judicial de Tolosa, union de Aiztondo*» (Go., 1862: 266).

(Antrop.) «*Martin de Larraul, dicho “Manchingui”*», e *Miguel de Larraul e Miguel de Haya* (Andoain, 1475; Le. eta Ta., 1996: 66), «*Martin de Larraul dicho “Machingui”*», *Joan de Larraul, Perusqui de Larraul* (Tolosa, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488, 489).

EuskalTes.: «*Larraulco mugapean iturri asco dira ur garbi ona iori ematen dutenac*» (Izt., 1847: 97), «*Hernialde, Alquiça, Larraul eta Anoeta ezquerrerontz eta Irura ezcuítara (sic) lagaric, joaten da Amasa Villabonacora*» (*ibid.*, 116), «*Larraulen ere izan naiz; batean bakkarik*» (Uztapide, 1975: 160).

Ebak.: [la.ráũ.lá] (adl.) (Ast-001), [lá.ràũl] (abs.) (Tol-026).

Etimol.: Toponimo ilunxkoa da. Aintzat har bedi *Urraul* Nafarroako ibarra dela (bi dira, zehazkiago esan: *Urraúl Bajo* eta *Urraúl Alto*, euskaraz *Urraulbeiti* eta *Urraulgoiti* adierazi ohi direnak), baita Oleta Orbaibarko aurkintza ere (*Urraul* dugu 1537rako [NEAN, Oibarko pr. 2, S. Murillo], *Urraulburua* 1627an [*ibid.*, Barasoingo pr. 4, Yelz de Monreal]). Erresuma zaharretik atera gabe, *Eraul* Deierriko herria dugu lehenik, eta *Basaula* (*Bassaul* 1590ean) Ameskoako aurkintza baten izena gero (Jim. zuz., 1994: 73)⁸⁵.

Oinarriak *hur* ‘hurritza’ (*Urraul*), *baso* (*Basaula*) eta *larre* (edo *lahar*) (*Larraul*) izan litezke, baina *Eraul* (*Er[a]-?*) argitu gabe geldituko litzateke. Irudi du bukaera *-aul* dela, eta toponimoak *-a* artikulua har dezakeela (*Basaula*), baina ez du ematen *ahul* adjektiboarekin identifikatu behar denik, hau ez ohi baita toponimian agertu.

HerritarIz.: *larrauldar*.

HerritarEz.: *tabako erretzaileak*. «*Larraul tabako erretzaileak; Lazka(n)otarrak antzarrak*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

⁸⁵ Cfr. hau: «...y de alli (Letagiarana-tik) a Adamacurrasacanbarrena conforme dice la pieca de Basaula» (1665, NEAN, Artabiako pr. 2, I. Perez).

Lasarte-Oria

IzenOfiz.: *Lasarte-Oria*.

Dok.: (Top.) *Lasarte* (1402, *molino*; Muru., 1974: 25), «...en la oriella del agua caudal que desciende por la dicha *Lasarte*» (1402, Ayer., 1997: 270), *ferreria de Lasarte* (1404, *ibid.*, 501; 1434, Ayer. eta Dz.S., 1996: 47), *Lasarte* (Ortelius, 1588, mapa), *Lasarte* (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Lasarte* (pu., López, 1770), «*Lasarte, poblacion de la jurisdiccion de la villa de Hernani*» (DRAH, I, 1802: 421), *Lasarte* (pob., Mad., X, 1847: 92), «*La poblacion de Lasarte está comprendida en su [de Hernani] jurisdiccion*» (Go., 1862: 214), «*Lasarte [...]* pertenece a las jurisdicciones de las villas de *Hernani* y *Urnieta*, cuyos barrios son las partes respectivas; y por lo tanto carece de ayuntamiento» (*ibid.*, 267).

(Antrop.) *Joan Perez de Lasarte* (Getaria, 1397; Lar. eta Ta., 1993: 70), *Martin Perez de Lasarte* (Urnieta, 1525; Ayer., 2015: 785), *Martin de Lasarte* (Andoain, 1528; Ayer. eta Dz.S., 1996: 538), *Miguel de Lasarte* (Urnieta, 1616; Ayer., 2015: 857).

Dok.: (Top.) «*pedauelo de alisar en Ohoria*» (1532, Ayer., 2015: 787), *sel de Oria* (1572, Ayer. eta Dz.S., 1996: 582), *Oria mayor* (caserío, Mad., XII, 1849: 348-349), *Oria menor* (caserío, *ibid.*, 349), *Ória chiqui* (Urnieta, ca.d.l., Nopgui, 1857: 72), *Ória-garaicóa* (*ibid.*). Cfr. «...en un brazo e sangradera que del rio llamado *Oria*» (1402, Ayer., 1997: 272), *R[io] Oria*, *Oria fluf[men]* (Ortelius, 1588, mapa), «...hic aguas suas cum *Oria miscet*»⁸⁶ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), *R[io] Oria* (López, 1770), «*Oria, rio el mas caudaloso y de mas dilatado curso de la provincia de Guipuzcoa*» (DRAH, II, 1802: 209).

(Antrop.) *Martin d'Oria* (Legazpi, 1384; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 198), *Pero Beles d'Oria* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 130), *Juan Lopez de Oria* (Segura, 1516; Urz., 1990: 368).

EuskalOnom.: *Lasarte Errecabitartea* (Andoain, 1494; Ayer. eta Dz.S., 1996: 498), *casa de Lasarte* (Hondarribia, 1563; Fur., 2002: 515), *Lasarte* (Itsasondo, ca.d.l., Nopgui, 1857: 98), *Lasarte* (Tolosa, *ibid.*, 105), *Lasarte de Altuna-mendía*, *Lasarte de Gomendía* (Elgetako auzoa, *ibid.*, 122), *Lasartenea* (Andoaingo etxea, 1860; Usa., 1993: 68), *Lasarteko lepoa* (Ataungo aurk., 1999, AtaM), *Lasarte* (Elgetako aurk., 2003, ElgM), *Lasartealde* (Itsasondoko aurk., 2007, ItsM).

EuskalOnom.: (Top.) «...*pobladores de Sant Seuastian de Fonterrabia fasta Horia*» (1374, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 74), *Oriolaça* (1463, sarroia, Ayer., 2006: 27), «*La casa de Oria en la jurisdiccion de la villa de Legorreta*» (Isas., 1625: 144), «*Oria. Union de la pr[ovincia] de Guipuzcoa que se compone de las villas de Isasondo, Legorreta, Gainza y Alzaga*» (DRAH, II, 1802: 210), *Oriazabal Argote*, *Oriazabal Garagorri* (Andoaingo etxeak, 1813; Usa., 1993: 92), *Oriamendi* (Izt., 1847: 36), *Oriturri* (caserío, Soraluze, Mad., XII, 1849: 365), *Oriamuño* (Segura, ca.d.l., Nopgui, 1857: 33), *Oriamendi* (Donostia, *ibid.*, 69), *Oria*

⁸⁶ «Hemen bere urak *Oria*-rekin nahasten ditu».

(Idiazabal, *m.h.*, *ibid.*, 97), *Oriturri* (*ibid.*, *ca.d.l.*, *ibid.*, 137), *Orieta* (Ibarra, bas., 1993, IbaM). Cfr. *Oria* (Biloria, 1032; Lac., 1965: 8), *Oriaçu* (1055, *ibid.*, 20).

(Antrop.) «*Tõmaron estos mismos una vaca de Johan Lopeiç de Oria et leuaronla a casa de don Oria et comieronla hi*», «*Pero Garcia de Cendategui et so ermano, Pero Ortiz de Xaraxua et su ermano, leuaron de Johan Peritz de Oria*» (Egino, 1261; Gar.Ar., 1996: 54), «*Pero Periz d'Oria, alcait del castieillo de Caparroso*» (Faltzes, 1277; Zab., 1997: 73). Cfr. *Martin Sanchez d'Oriola* (Azpeitia, 1348; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 254), «*Martin Martinez de Areyzmeny e donna Oria, su muger*» (Bergara, 1391; *ibid.*, 1996: 320), *Juan de Oriamuño* (1430, Urz., 1990: 352).

EuskalTes.: «*Lasarteco errian fundatu zuten irugarren comentua*» (Kard., 1882: 135-136), «*Oec profesatu eta iru urte eta erdi gueroago eguin ciran Lasarteco comentu berrico alcarteac*» (*ibid.*, 136), «*Lasartetic iru legoaz onunz irten ciran oec artzera*» (*ibid.*, 137), «*Ama Maria Magdalena Encarnaciocoa Lasarten dembora artaco abadesa*» (*ibid.*, 138), «*Lasarten badira iturri guezagozo onac*» (Izt., 1847: 97), «*...eta igarotzen da Lasarteren erditic Zubietara*» (*ibid.*, 116).

EuskalTes.: «*...eta beragandic asitzen da Oria deitzen zaion ibai andi Guipuzcoacoa*» (Izt., 1847: 85), «*Sei ibai andi dira Guipuzcoan; lenengoa da Deva esaten zaiona, bigarrena Urola, irugarrena Oria, laugarrena Urumea, bostgarrena Lezo edo Oyarzungoa, eta seigarrena Bidasoa*» (*ibid.*, 109), «*Devaco ibaian igotzen dira Mendaro-raño (izoqui) samalda andiac; Urolacoan orobat, Iraetara; Oriacoan Usurbilla ugari chit*» (*ibid.*, 203), «*Andik arma batzuc eta bost edo sei kartutxo-pillo artuta Aranorantza jo-bearra zuten, Oria ibaia Villabonaren ondotik igarota*» (Orixe, 1985 [1929]: 44), «*Oriara ere joan izan giñan; pare bat aldiz edo izan giñan an ere. Lasartetik piska bat Tolosa aldera dago ori*» (Uztapide, 1975: 158).

Ebak.: [la.şár.tè] (abs.), [lá.şar.te.kò] (lek.g.), [la.şár.te.ku.àk] (lek.g. + abs.) (Las-001), [lá.şar.te.á.đe.à] (adl.) (Adu-003).

Ebak.: [o.rí.jàn] (in.), [o.rí.ja.kò] (lek.g.) (Las-001).

Etimol.: *Lasarte*-ren osagaiak *lats* 'errekastoa' eta *-arte* 'bi gauzen bitarteko eremua' (Mitx., AV, 96, 398) dira, alegia, toponimoa *Uharte*, *Ubitarte*... hedatuen balio-kide-edo da. Arabako *Lasarte* herri izenaren <ss> digrafoak eta <x>-k irudikatzen bide duten hortz hobietako afrikatu apikaria (Sala., 2015a: 248) ez da gorde egungo erdal ebakeran, ez eta Gipuzkoako herri izenarenean ere, ez erdaraz eta ez euskaraz. Honetaz ikus Irigoien (1992: 188-191, 1995: 238-239).

Etxabek (1970 [1607]: 33) honela dio: «*Oria que quiere dezir amarilla, por los muchos argomales que siendo su flor amarilla y perpetua, an tomado muchos sitios este nombre*». Larramendik (1985 [1754]: 34), berriz, hau dakar, *Oria* ibaiaz ari delarik: «*Llamaríanle con el nombre Oria, porque su color con sus aguas turbias tira mucho a pajizo, aunque hay tambien casas y apellidos de Oria sin esa significación*». Mitxelenak (AV, 497), aldiz, *Oria*, *Orio* eta hauen paretuko beste toponimo batzuek (ikus *Orio* sarrera) *hori* kolorearekin deus ikustekorik ez dutela uste du.

Salaberrik (1997: 32-33), *Orio* deantroponimikoa izan zitekeela aipatu eta ondoan (*Gorrio* ere badakar), *hori* kolorea ikusi nahiago du, bai *Orio*-n eta bai *Oria*-n. Lehenaren

akabailan gradu hurbileko -o atzizkia dukegu, eta *Oria*-n berriz gradu urrunekoa, egun singularrean daukagun bakarra.

Orain ordea, uste dugu bide antroponimikoa lehenetsi behar genukeela, bai *Orio*-rentzat eta bai *Oria*-rentzat. Azkeneko honendako Italian, Alemanian eta Grezian lekukotzen den *Olius* (EDH; Solin y Salomies, 1994: 131) izenetik abiatu eta *(*uilla*) *oliana* eman daiteke etimotzat; hemendik **Oriãñã* > **Oriãñã* > **Oriãã* > *Oria* atera zitezkeen. Ernamuina, hori bai, ibaiaren aldameneko bazterretxe zenbaitetan bilatu behar genuke, ez ibaian berean.

HerritarIz.: *lasartear*, *oriatar*.

Lazkao

IzenOfiz.: *Lazkao*.

Dok.: (Top.) «*nuestra ereditate de Lazcano et de Iviavaval*» (1199, Gar.Lar., 1957: 102), *collaçion de Lazcano* (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 191), «...nos los moradores de las collaciones de Atavn e de Beasain [...] e ciertos moradores de la collacion de Lazcano» (1399, Ayer. eta S.M., 2013: 11), «...con los sus vezinos de Lazcano» (1409-1410, *ibid.*, 45), *Lascano* (Ortelius, 1588, mapa), *Lazcano*, «*Lazcano o Lezcano*» (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29, 108), «*Hay Lazcanos de la casa principal de la tierra de Lazcano*» (*ibid.*, 112), *Lazcano* (vi., López, 1770), «*Lazcano, concejo de la Alcaldía de Arería*» (DRAH, I, 1802: 424), *Lazcano* (con., Mad., X, 1847: 105), «*Lazcano: concejo del partido judicial de Tolosa, union de Areria*» (Go., 1862: 268).

(Antrop.) *Eneco Lupiç (de) Laçkanu*⁸⁷ (Elorrio, 1013; Hid. eta b., 1988: 2), *Eneco Lopez de Lazcano* (1053, Llor., III, 1806-1808: 387), *Semen Garcia de Laçcano* (Egino, 1261; Gar.Ar., 1996: 52), *dona Gracia de Laçcano*, «*Semen Garçeiz et sus fillos, Sançol et Sancho Martin de Laçcano*» (*ibid.*, 53), *Semen Garciaitz de Lezcano*, *Sancho Martineiz de Laçcano* (*ibid.*, 55), *Garci Semeneiz de Leçcana* (sic) (*ibid.*, 56), «*Ochoa Gorria, procurador de Miguell Lopez de Lazcano*» (Segura, 1372; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 41), *Iohan Martinez de Lazcano* (1384, *ibid.*, 191), «*Vernaldino de Lazcano, dueño del palacio de Lazcano*» (Donostia, 1518; Le. eta b., 2002: 330).

EuskalOnom.: Arinek (1955: 88-89), 1565. urtean Lazkao etxeak Aralarren zituena saroietz diharduela, *Lazcauelia* izenekoa aipatzen du: «Lazkau elia (= manada de Lazcano). - Año 1569 “sel de la casa de Lazcano que en vascuence se llamaba y se llama Lazcauelia”». Autore berak 1751n *Lazcausoroco sirasa* dokumentatzen du (1969: 483), eta lehenago, XVI. mendean, Ataunen berean *Lazkautegi* etxea zegoela dio (1926: 30; *Lazkanotegi* ere deitzen du, *ibid.*, 68). Egun *Lazkautiberri(a)* ere bada, *D. Bartolo Auzmendi Lazkautiberrikoa* aipatzen baita (Arin, 2017: 89).

Beste onimo batzuk: *Lazcanorena* (Hondarribiko etxea, 1611; Fur., 2002: 517), *Lazcano* (Andoingo etxea, 1813; Usa., 1993: 59), *Lazcamburu* (Oiartzun, ca. d.l., Nopgui, 1857: 57), *Lazcano* (Donostia, *ibid.*, 67), *Lazcano-eche* (Lazkao, *ibid.*, 99), *Lazcanocóa* (Oñati, *ibid.*, 134), *Lazcanoena* (*ibid.*), *Lazkanoenea* (Abaltzisketako etxea, 1997, AblM), *Lazkaotxe* (Lazkaoko bas., 1999, LazM), *Lazkaobaso* (2) (aurk., *ibid.*), *Lazkaosoro* (*ibid.*), *Lazkaosoromuntegizearra* (*ibid.*), *Lazkanburu* (Lezoko bas., 2011, LezM), *Lazkanburuberri* (*ibid.*), *Lazkano* (Getariako bas., 2012, GetM). Abaltzisketan *Lazkaomendi* (1997, AblM) dago, eta Lazkao-Zaldibietan *Lazkaomendi* eta *Lazkaomendibidezar* aurkintzak ditugu (1999, LazM).

⁸⁷ Aldaera latindurik dagoela irudi du.



Lazkaomendi (atzean Aralar)

Cfr. *Pero Martinez de Lazcayuar* (Tolosa, 1349; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 268), *Lope de Lazquibar* (Donostia, 1379; *ibid.*, 1996: 106), *Juan Perez de Lazcaybar de Balda* (tolosarra, 1613; Ayer., 1997: 721), *Lazkaibar* (Beasaingo auzoa, 1999, LazM).

EuskalTes.: «*Juan de Lazcano velçerana, Guipuzcoaco capitana françes osteac jaquin godu hura Ondarribiara zana*» (Zaldibia, c. 1560: 262 bin.; ikus Mitx., 1964: 99), «*Lascauarroen yesetaco lasterra! / Lascauarroc ostatuan [...]*» (XVI-XVII. gizaldietako testuetan sartzen du Mitxelenak, *ibid.*, 97), «*Lazcauco mugapean ezagutzen dira oguei ta amar iturri*» (Izt., 1847: 97), «*Olaberrico mugape laburrean ere badira iturri onac iori, eta beretatic eguiñeratzten diraden erreca ciztorrac amiltzen dira Lazcaura eta Iurrera*» (*ibid.*, 100), «*...andic laster itsasten zaiozca Aralarco mendi ospatsuan jaiotaco ibai Agauntzacoa, Ataun eta Lazcau igaroric Olaberrico itur-uraquin datorrena escuico aldetic*» (*ibid.*, 115), «*Andurio deitzaion mendi-adar Ataun, Zaldivia eta Lazcau-ren mugapecoan*» (*ibid.*, 195), «*Beasaingo estazioa kixkaltzea [...]. Ataunen, Lazkaun, Beasainen, erri ontako estazioari su ematea zijoala*» (Orixe, 1985 [1929]: 79), «*Ataundik ateratzean, bildu zitun Santa Kruzec egundañoko esku-zartak eta aupak eta oyuaq. Lazkaura joan zan petrolio billa [...]. Lazkaun gelditu gabe, atzera Ataunen sartu giñan gaberako*» (*ibid.*), «*Lenguan bi partidu / Lazkauban izanik*», «*gaur Lazkaukuak / badauzkate eguak*» (ezezaguna2, 1931: 47), «*Lazkaon ere izaten giñan [...]. Lazkaomendi au Lazkaon ballara bat da, eta Lazkao-Txiki ere angoxe semea da*» (Uztapide, 1975: 132).

Ebak.: [laş.káũ.ko.á] (lek.g. + abs.) (Ata-006), [laş.ká.ò], [laş.káũ] (abs.) (Bea-019), [laş.káũ.kò] (lek.g.), [laş.káũ.ti] (abl.) (Ola-001), [laş.káũ.meñ.di.ko.á] (lek.g. + abs.) (Ord-033).

Etimol.: Caro Barojak (1945: 94) *-ano* duten izenetan sartzen du; ordea, ez du zehazten oinarriko antroponimoa zein den. Mitxelena (1957: 145), Carori jarraikiz, *Berezau, Dorrau, Galdako* eta *Lazkao -ano*-dun toponimoetarik direla dio, baina honek ere ez du argitzen iturbegia zein den.

Orain urte batzuetako lanean (Sala., 2011a: 52), *Lazko(t)z* toponimoaz mintzatean (*Lazkoz* Etxarri Aranzako herri hustu baten izena da, eta Sakanako deitura ere bai), esaten genuen *Lascius* lekukotuaren **Lascus* aldaeran oinarrituta azal zitekeela, **Lasco*, *Lasconis* ereduaren arabera deklinatu zela onetsiz gero: **Lasconis* > **Lazkoitz* > *Lazko(t)z*. Halaber, zehazten genuen agirietan *-sk-* dagoela, baina oraingo aldaerak *-zk-* duela (Jim. zuz., 1993a: 50).

Lazkano > *Lazkao* / *Lazcano* azaltzeko ere izen bera har dezakegu abiaburu, atzizkia oraingoan *-ano* > *-ao* izanagatik: *(*fundu*) *Lascanu* ‘Lasc(i)us izenekoaren jabetza’ > *Lazcano* (euskaran sartu zeneko; txistukaria [s̺] zen, jakina, ez [θ]) > **Lazkãñõ* > **Lazkãñõ* > **Lazkãõ* > *Lazkao* (eus.) / *Lazcano* (erd.).

Errioxan *Lasci(v)us* ageri da (HE), Mallorcan *Lascius* eta Hungarian *Madena Lasci f(ilia)* eta *Lascius* (EDH). Erromatarren garaiko pertsona izenetan, ardura, *-us* / *-ius* bukaerak ditu antroponimo berak: *Candidus* / *Candidius*, *Fuscus* / *Fuscusius*, *Paternus* / *Paternius*, etab. Geroztik, ezinik ez dago alderdi honetatik.

Diogun, amaitzeko, Yarzaren (2014: 1126-1127) *(*fundum*) *Felic-ic-anum* ‘Felixen lursaila’ *Lazkao* / *Lazcano*-ren etorkitzat onestea biziro zaila iruditzen zaigula, euskal fonologiaren arauak izugarri bortxatu behar baitira batetik bestera iristeko.

HerritarIz.: *lazkaotar*.

HerritarEz.: *antzarak*. «*Lazka(n)otarrak antzarrak; Ataundarrak otsoak* (hay quien dice *lapurrak*)» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Leaburu

IzenOfiz.: *Leaburu*.

Dok.: (Top.) «...cum uilla *Leiaburu*, medietatem de *Sehiroz*» (1144, Goñi, 1997: 219), «...las dichas collaciones e vniversidades e personas singulares de Sancta Maria d'Ernialde [...] e de Sant Martín de Verastegui e de Santa Cathalina d'Elduayen e de Sant Pedro de Leaburu» (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), *Leaburu* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Leobaru* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Leaburu* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Leaburu* (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Leaburu* (pu., López, 1770), *Leaburu* (lu., DRAH, I, 1802: 425; Mad., X, 1847: 106; Go., 1862: 271).

(Antrop.) *Sancho Yuannez de Lehaburu* (tolosarra, 1349; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 266), *Martin Yuannez de Lebro*, *Fortun Lopez de Lehabru* (*ibid.*, 267).

EuskalOnom.: Erka bedi Bizkaiko *Lea-Artibai*-ren lehen elementuarekin, *Lea*-rekin. Ikus Etimol. atalñoa.

EuskalTes.: «*Leaburuc* mugape guztia da arbela ta quisua iori ematen dituzten arrobiz josia» (Izt., 1847: 53), «*Leaburun*, Guriaga esaten zaion echearen mugapean» (*ibid.*, 97-98), «...lagatzen ditubala escuirontz *Eldua*, *Elduayen*, *Berastegui*, *Lizarza*, *Oreja*, *Gaztelu*, *Berrobi*, *Leaburu*, *Belaunza eta Ibarra*» (*ibid.*, 115-116), «*Espuru gañetik zer ageri din?* *Beizamako baserri bat*, *Albiztur*, *Ernio*, *Urkizu*, *Ernialde*, *Andazarrate*, *Izazkun*, *Leaburuko dorrea*, *Gaztelumendi*, *Berastegi-muga*» (Orixe, 1987: 64), «*Agiz*, *Erniotik agertzen diranak Leaburuko Xaxtin muñoraño zuzen zetozin*» (*ibid.*, 74), «*Leaburura yoan zinan txartel-zabaltzera*, *gorrien alde*, *yakiña*» (*ibid.*, 80), «*Leaburu dago beste erri bat*, *Gazteluko bidean ezkerretara kamio batetik joaten da ara*» (Uztapide, 1975: 126).

Ebak.: [le.a.βú.rùn], [le.á.βu.rùn] (in.) (Lbu-001), [le.á.βu.rù] (abs.) (Alo-003) (Gaz-001).

Etimol. Mitxelena (AV, 403) honela dio *le(g)ar* “grava” sarreran:

...*Learna* (1402); *Legarra*, *Legarralde*, *Legarrasua*, *Legarregui*, *Legarreta* (*Legarret*); *Legarbarrena*, *Legargoyena*. Hay una base *le(i)a* bastante frecuente, que no sé si tendrá relación con ésta: *Leaburu* (*Leyaburu*), *Leazkue* (Nav. 1330, var. *Leyazkue*), *Leaegui*, *Leybar*; cf. también *Leaniz* y *Legazpi(a)*, *Legoitia*. P. de Zabala explica *Leabide* por “camino de narrias” (BAP 8, 1952, 447).

Irigoienek (1992: 357) dio egun *Lea ibarra* izenarekin ezagutzen dena Munitibarreren hasi eta, Aulesti eta Gizaburuagan zehar, «Lekeitio-ko eta Mendexa-ko muga egirik itsasoraino heltzen den ibai ingurua» dela. *Lea ibarra* deizioa berria dela uste du, «1936ko gerlaren ondokoa nonbait, eta delako *Lea* izen hori datorkio Erdi Aroan *Leia* moduan agertzen den eta Lekeitio-ra heldu baino apur bat lehenago aurkitzen den leku-izenetik, auzo bati ere izena emaiten baitio: *Leaegi* [...]». Irigoienek (1987: 8), aurreko lan batean, esaten du Lekeitioko *Leya* > *Lea* metal iturri baten izena dela.

Iglesias (2000: 112-113) Portugalgo *Lena*, Galiziako *Lea* eta *Riberas de Lea*, Asturiasko *Pola de Lena* (*Llena* asturieraz) eta Bizkaiko *Lea* ibai izena lotzen ditu, denak ere ugalde izenetan oinarriturik daudelako, bere iritzian. Corominasek *lena* ‘harlauza’ aipatzen duela ere badio, baina ez zela ohartu Aragoitik kanpo ere ageri zela, hidroni-

mian. Denen oinarritako **lena* ematen du Iglesiasek; ez du zehazten, ordea, zer adiera dukeen, baina bai toponimo horiek zeltaren aurrekoak eta are indoeuroperaren aurrekoak direla. Berebat, esaten du Irigoienek aipatzen duen *Lea*-ren Erdi Aroko *Leia* aldaera bigarrenkaria dela, *leal* > *leial* egiten den bezala *Lea* > *Leia* ere gauza zitekeelako.

García Ariasen aburuz (2005: 88), Asturiasko *Llena*-k Alpeetatik Pirinioetara, Aragoiko mendebalderaino iristen den latinaren aurreko **lena* ‘harlauza’-rekin «hurbiltasun» handia du. Uste du, hala ere (*ibid.*, 89), hobe dela, Iglesiari jarraikiz, latinaren aurreko hidronimoren batekin estekatzea, apika latineko *lenem* ‘emea’ hitzarekin erlazionatua zegokeen batekin.

Egia da euskal toponimo batzuetan bokalardi bigarrenkaria sortu dela, baina hau beti, dakigunez, hitzean *yod* bat dagoenean gauzatzen da, ez bestela: *Deredia* > *Dereidia*, *Domakia* > *Domaikia*, *Leketio* > *Lekeitio*, *Oretia* > *Oreitia* (Sala., 2015a: 412). Kontrako gertakaria ere, *yod* lekutzea alegia, ongi ezaguna da gurean: *Arreo* > *Arreo*, *Gobeiu* edo *Gobeio* > *Gobeu*, *Gobeo*; *Kinea* > *Kinea* > *Ginea*, *Oteio* > *Oteo* (*ibid.*, 189, 277), baita erromantzean ere (**mejare* > *mear*, kasu). Honek, bistan da, Irigoienen ustearen alde hitz egiten du, *Leia* > *Lea* ikustearen alde, eta Iglesiaren iritziaren aurka, *Lea* > *Leia* ikustearen aurka. Zentzu berean mintzo da, eta hau are garrantzi handiagokoa da, dokumentazioa, *Leya* aldaera zaharragoa baita *Lea* baino (Irig., 1975: 88 eta 1987: 8).

Zernahi gizaz, toponimo ilunxkoa dugu hau. Aldaera zaharra **Lena* balitz, **Lena* / *Leniz* pareta *Lemona* / *Lemoniz* bikotea dagoen erlazio berean dagoela onets genezake, hau da, bigarrena lehenetik irten dela, Erdi Aroan (ikus AV, 347), baina, esan bezala, *Leia* da etorkizko forma, bai Bizkaiko *Lea(-Artibai)*-ren kasuan, eta bai Gipuzkoako *Leaburu*-renean, azken honen 1144ko *Leiaburu* testigantzak erakusten digun moduan. *Lea(-Artibai)*, *Leaburu* hortik ateratako aldaera bigarrenkariak dira, Nafarroako Orbaibarko *Leo(t)z* herri izena aitzineko *Leio(t)z*-etik irtendako aldaera den eran. Hau gerok oinarri bera erakusten bide duten Nafarroako *Leitza*-rekin eta *Leiun*-ekin lotu genuen (Salaberri 1997: 27–28), nahiz **lei* xuxen zer den esatea neke izan.

Orbaibarko herri izena azaltzeko *Pleius* (Solin eta Salomies, 1994: 144) edo *Deius* (Dalmazian ageri da, EDH) proposa litezke, *Leius* (Solin eta Salomies, 1994: 103) bera zalantzazkoa denez gero, hots, *(*uilla*) *Pleionis*, *(*uilla*) *Deionis*, orduko **Leio* bihurtutako oinarriari -(i)(t)z atzizkia zuzenean eratxiki zitzaiola pentsatu nahi ez bada segurik.

Bizkaiko eta Gipuzkoako *Leia*- ere deantroponimikoa izan daiteke, aipatu izen horietako bat egon daiteke oinarrian, baina oraingoan jabetza adierazten zuen -*anus* atzizki ezagunaren -*ana* aldaera femeninoarekin: *(*uilla*) *leiana* ‘(*P*)*leius*, *Deius* izenekoaren bazterretxea, lurra...’ sintagmatik abiatu behar genuke, hemendik *Leia* irtengo litzatekeelako (ikus bedi *Gabiria* aztertzean dioguna). Bigarren osagaiak, -*buru*-k, *Leia*-ren ‘goreneko alderdia’ (*Bidaburua* mikrotoponimo arruntean bezala), *Leia* aurkintzako ‘gaina, muinoa’... adierazten zukeen hastapenean.

Nolanahi ere, etorki antroponimikoa ez dago inola ere bermatua. Mitxelenak (AV, 403) *le(i)a* oinarri usua aipatzen du (ikus goraxeago), eta Anuen (N) *Leazkue* herriaren

izena *Leyazcue* da dokumentazio zaharrear, eta, hortaz, hemen *leia* oinarria dukegula pentsatu beharko dugu. Alderdi honetatik, Lizoainbarko *Leiun*-en iduria litzateke (*leia* + *un*, gero *-au-* > *-u-* bihurtu dela onartzen bada; *fr.*, hala ere, *Lezaun* < *leze* + *-un*). Bestela, bi oinarri dauzkagula kontu egin beharko dugu: *lei* (*Leitza*, *Leiun*...) eta *leia* (*Lea-Artibai*, *Leaburu*, *Leazkue*...).

HerritarIz.: *leaburuar*.

Legazpi

IzenOfiz.: *Legazpi*.

Dok.: (Top.) «*las ferrerías que son en Legazpia masuqueras*» (1290, Dz.S., 1985: 20), «*Ssus massuqeras que estauan en Legazpia*» (1300, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 91), *Legazpia* (1300, Dz.S., 1985: 23-24), *Herrerías de Legazpia* (1340, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 225), «*collaciones de Legazpia e de Mutiloa e de Ydiaçabal*» (1387, *ibid.*, 1996: 249), *Legaspi* (1391, Her. eta Bar., 2006: 54), *Legazpia* (1401, Urz., 1990: 344), *valle mayor de Legazpi* (1484, Le. eta b., 2002: 230), *Legaspia* (Ortelius, 1588, mapa), *Legazpia* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29, 115), «*Vrola [...] per Legazpíam vallem ac per Azcoytíæ, Azpeytíæ, & Sancte Crucis Cestonæ vrbium [...]*»⁸⁸ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), *Legazpia* (vi., López, 1770; DRAH, I, 1802: 428; Mad., X, 1847: 123-124; Go., 1862: 272).

(Antrop.) *Ferrand Yuannez de Legazpy* (tolosarra, 1349; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 268), *Iohan de Legaspy* (Zumarraga, 1390; Dz.S., 1985: 152), *Joan Martines de Legazpia* (Tolosa, 1521; Le. eta b., 2002: 344), «*...el noble señor Pero Lopes de Legaspia, alcalde prinçipal en el dicho conçejo de Hareria*» (Zumarraga, 1526; *ibid.*, 354).

EuskalOnom.: 1385ean Zestoa eta Azpeitiaren arteko mugan «*por la senda commo va el agua cabdal que llaman Legazpia*» ageri da (Ayer. eta E., 2008: 18), beharbada Legazpitik heldu den ibaia izendatzen duena, Urola alegia. Beste onimo batzuk: «*la casa de Legazpi Jauregui*» (Zumarraga, Isas., 1850 [1625-26]: 115), «*la herreria de Legazpi Jauregui*» (*ibid.*, 235), *Legazpi-errequea* (*ibid.*, 1862; Ugarte 1998: 357).

EuskalTes.: «*Legazpico erriaren mugapeco mendi Aitzgorricooan arquitezen dira arrobiac*» (Izt. 1847: 57), «*Legazpico mugapean badira bi meatze*» (*ibid.*, 71), «*Legazpico mugapean jaiotzen dira iturri garbi anitz*» (*ibid.*, 98), «*Toqui au zan dempora batean Seguraren mugapecoa [...] bañan orain Legazpico erriaren bere berequia da*» (*ibid.*, 112-113), «*Doble via bat egiten ari dira / Legazpi aldian*» (Zabala, 1992: 284), «*...eta Legazpíraño ederki joan omen zen astoa [...] eta erotara Legazpíra joaten oitua egon astoa eta ederki joaten omen zitzaion*» (Uztapide, 1975: 135).

Ebak.: *Leazpiñ* (in.) (Zegama, Azur., 1997: 167), *Leáspi* (Antzuola, Pavo, 2005: 478), [le.γás.pi.tí] (abl.) (Lga-017), [le.ás.pi] (abs.) (Bea-019), [le.γás.pi.a].de.à] (adl.) (Oña-089).

Etimol.: Galipentzuzun *Legaztuy* ageri da 1597an, *Legastui* XVIII. gizaldian (Sala., 1994: 425). Murillo el Fruton (Sala., 2015b: 417) *Legazpea* zegoen XIV. mendearen akabailan, *Legazpia* XVI.etik aitzina, *La Gázpia* desitxuratua egun. XIV. mendean, *Legazpea*-rekin batean *-ee-* > *-ie-* bokal disimilazioa aurkezten duen *Legazpieta* ere baze-
goen. Irudi luke horietan *legar* 'hartxintxarra', 'harea' izen arrunta, leku-ugaritasunezko *-tze* atzizkia eta *-dui* (*Legaztui*-ren kasuan) edo *-pea* 'azpia' (*Legazpea*-n; baita *-eta* berrekailua ere, *Legazpieta*-n) zeudela. Mitxelenak (AV, 123, 403) *legar* eta *azpi* bide da-

⁸⁸ «*Urola [...] Legazpíko ibarrean eta Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa hirietan barna [...]*».

kuski *Legazpia*-n, baina *le(i)a* oinarria ere ez du baztertzen; honela dio: «Hay una base *le(i)a* bastante frecuente, que no sé si tendrá relación con ésta: *Leaburu* (*Leyaburu*), *Leazkue* (Nav. 1330, var. *Leyazkue*), *Leaegui*, *Leybar*; cf. también *Leaniz* y *Legazpi(a)*, *Le-goitia*».

Gure ustez, eta *Legazpia*-ren osagaiak *legar* eta *azpia* izan badaitezke ere, oztopo bat (ez gaindiezina) dakusagu, Mitxelenak berak dioenez *azpi* gure toponimian ez baita hain zaharra, xuxen noiz hasten den agertzen ez dakigun arren. Beste aukera *legar* + *-tze* ikustea litzateke, lehen zatirako, baina orduan *-pi* solte gelditzen zaigu, eta ez dakigu *bi* zenbatzailearekin lot daitekeen, hots, *legar* + *-tze* + *bi* eraketa, ohikoa ez izanik ere, onesgarria ote den gure toponimian; *-a* artikulua dela dirudi. Oinarri bera duke Bertizaranako *Legasa*-k, irudi duen eran *legar* + *-za* ‘-tza’-ren batzearen ondorea bada (atzizkia *-zaha* zen 1025eko Donemiliagako Reja ezagunean), alegia, bilakaera *Gorza* > *Gosa* > *Güesa*-n dagoen bera izan bada. Berdindu bedi *Ayesa* (erd.) / *Ageza* (eus.) herri izenarekin.

Franko garbi dakusagu, hori bai, *Legazpia*, *Legaztui*, *Legazpea* eta beste ezin direla *leia* > *lea* oinarriarekin estekatu, Erdi Aroan ere batzuek beti *lega-* eta besteek *leia-* dutelako. Egia da Irigoienek *yod*-en kontrako *g* deitzen zuena (ikus *Ageza* eta *fr. oligo* ‘olioa’, edo Nafarroako hizkera zenbaitetako *zago* ‘zaio’, *zitzego* ‘zitzaion’) egon litekeela, hau da, bilakaera *leia-* > *lega-* izan zitekeela, baina hori onartzeko aldakuntza arras goiz burutu zela ontzat eman behar genuke.

HerritarIz.: *legazpiar*.

HerritarEz.: *ilintxak*.

Legorreta

IzenOfiz.: *Legorreta*.

Dok.: (Top.) «*e nos los moradores de las collaciones [...] de Legorreta e de Alzaga e de Arama*» (1399, Ayer. eta S.M., 2013: 11), «...*el dicho conçejo de la dicha Villafranca, con todas sus vezindades, es a saber: las collaciones de Legorreta e Ychasondo*» (1409-1410, *ibid.*, 45), *Legorreta* (1521, Le. eta b., 2002: 341; Gari., II, 1628 [1571]: 340), *unibersidad de Legorreta* (1581, Ayer., 1997: 691), *Ligorreta (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Legorreta* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Legorreta (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29; López, 1770)*, «*Legorreta, v[illa] de la union de Oria*» (DRAH, I, 1802: 429), *Legorreta (vi., Mad., X, 1847: 124; Go., 1862: 279)*.

(Antrop.) *Iohan Martin de Legorreta* (1349, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 267).

EuskalOnom. Gure onomastikan *legor* (eta *idor* adierakidea) bakanetan edireten dugu, eta azaltzen denean aitzinean edo inguruan *erreka* edo horren moduko izena aurkitzen dugu zenbait aldiz, ez beti, bistan da: *Errekalegor* (eta *Errekaigor* < *erreka* *agorra*, Artikutza, Erriondo, 1988: 123), *Errekaidorra* (Irati-Otsagabia, Jim. zuz., 1995d: 199, 214), *Legorburu* (Orozkoko auzoa), *Legorra* (Mañariko bas.), *Legorreko erreka*, *Legorrandiko errekea* (Zeanuri), *Legorreta* (Berriz, Elorrio eta Muxikako baserriak, Zigoitiko aurk.) (EJ), eta abar. Hernanin eta Urnietan badira *Arlegor* izeneko bizkarra eta mendia, hurrenez hurren (Zaldua, 2012a: 284, 292).

EuskalTes.: «*Legorretan ere badira arrobiac carezco arria eta lapitza ematen dabeenac*» (Izt., 1847: 59), «*Legorretaco erriaren mugapean guztiz iturri asco dira*» (*ibid.*, 98), «...*igarrutzen da Isasondora, eta au ezquerreco aldera utziric, badoa Legorretan barrena Berozteguico urac arturik Icazteguietara*» (*ibid.*, 115), «*Legorretan ere askotan izan gara*» (Uztapide, 1975: 123).

Ebak.: [le.ó.re.tà] (abs.), [le.ó.re.tàn] (in.), [le.ó.re.ta.kò] (lek.g.) (Lgo-001), [lé.o.re.ta.kò] (lek.g.) (Alg-002), [le.γó.re.ta.tik] (abl.) (Bal-001).

Etimol. Mitxelenak (AV, 235, 404) *legor* ‘idorra’ dakusa oinarrian; atzizkia lekuugaritasunezko *-eta* da, hainbatetan kausitzen duguna: *Abaltzisketa*, *Amezqueta*, *Elgeta*, *Ikaztegieta*... *Izenondo* + *atzizkia* egitura ez da arraroa gure toponimoetan, baina hola-koetan adjektiboaren aitzinean zihoan izena ezabatu dela pentsatu behar da, kasu honetan *erreka* (ikus EuskalOnom. atalñoa), *lur*, *toki* edo antzekoren bat: *cf.* *Lusarreta* (N), *Luzuriaga* (A), edo mendi beraren bi isurialdeak adierazten dituzten *Mendiandia* (Lerga, N) eta *Andiaga* (Uxue, N).

HerritarIz.: *legorretar*.

HerritarEz.: *pikuak*.

Leintz Gatzaga

IzenOfiz.: *Leintz-Gatzaga*.

Dok.: (Top.) «*Insuper tribuo in villa de Leniz, ubi sal conficitur*» (1080, Ledesma, 1989: 33; *cf.* Serrano, 1930: 24; Mtez.Dz., 1975: 190), *Salinas de Leniz* (1087, Gar.An., 2010: 968; *cf.* Mtez.Dz., 1975: 17 eta Bar., 1989: 404), *Salinas de Lenis* (1333, Poz., 2013: 387), *Salinas de Leniz* (1371, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 18), *Salinas de Lenis* (1390, Dz.S., 1985: 149), *Salinas de Leniz* (1397, Lar. eta Ta., 1993: 70), «*...al condado de Honaty y villa de Salinas e tierra de Lenis*» (1476, Iñurrieta, 1983: 37), «*las villas de Segura e Vergara e Elgueta e Leniz*» (1497–1519, Zum., 1999: 52), *Salinas de Leniz* (1502–1528, Ayer., 1997: 592), *La villa de Salinas* (1551, Dz.Bo., 1998: 387), *Salinas de Leniz, Leniz*, «*La villa de Salinas [...] corriendo por el valle de Leniz*» (Gari., II, 1628 [1571]: 203, 264, 389), *Salinas* (Ortelius, 1588, mapa; Isas., 1850 [1625–26]: 118; DRAH, II, 1802: 27).

(Top.) (harana⁸⁹, artzapez-barrutia) «*In archipresbiteratu de Leniz*» (1257, Rodríguez, 1989: 220), «*que fagades dar al cabildo de Armentia en Leniz e en Vergara*» (1266, *ibid.*, 265), *termino de Leniz* (1280, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 50), *tierra de Leniz* (1367, *ibid.*, 342), «*tierra que dizen de Leniz*» (1390, *ibid.*, 1996: 263), «*Iohanni Sancii de Laharia, tunc archipresbytero de Leniis*» (1422, Ruiz de Lóizaga, 1997: 132), *arciprestazgo de Leniz* (1500, Her., Ach. eta Mo., 1998: 142), «*En el lugar de Escoriaça que es en el balle de Leniz*» (1511, *ibid.*, 207), *valle de Leniz* (1521, Le. eta b., 2002: 351), «*Relacion del arciprestazgo de Leniz*» (1551, Dz.Bo., 1998: 365), *valle real de Leniz* (Larra., 1985 [1754]: 57), *Valle Real de Leniz* (López, 1770), «*Leniz, arcip[restazgo] del ob[ispado] de Calahorra de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*», «*Leniz, valle de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, I, 1802: 431), *Leniz (valle real, Mad., X, 1847: 130)*, «*Leniz [...] Este valle en su principio se componia de los entonces lugares de Mondragon, Salinas, Arechavaleta y Escoriaza*» (Go., 1862: 281).

(Top.) *Gaça* (Gari., II, 1628 [1571]: 264), «*Salinas, Gaça*» (Ortelius, 1588: 19), «*Salinas. Gatzaga*» (*vi.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), «*Deua, Ptolomæi & Melæ scriptis celebratus, oritur in montibus Ipuscoæ qui Alauam attingunt in territorio illius vici cui à proximis Salinis Salinarum nomen est quique vernaculè Gaza, id est Sal dicitur. Hic agros vallium Leyn-zij & Elguete, necnon Vergaræ & Plasenciæ vrbiium decurrens [...]*»⁹⁰ (Oihenart, 1992 [1637]: 682), «*lugar que se llama Gatzaga en vascuence es lo que dice Salinas*» (Larra., 1985 [1754]: 13), *Salinas de Guipuzcoa* (*vi.*, López, 1770), «*Salinas, v[illa] de la prov[incia] de Guipuzcoa, vic[aria] de Mondragon, arciprestazgo] de Leniz, ob[ispado] de Calahorra [...]*.

⁸⁹ «*Comprende los part. de Arechavaleta y Escoriaza*» (Mad., X, 1847:130).

⁹⁰ «*Deba* (ibaia), Ptolomeoren eta Melaren idazkietan aipatzen dena, Araba ukitzen duten Gipuzkoako mendietan sortzen da, hurbileko gatz larrainetatik izena hartzen duen *Salinas* leku hartako lurretan. Bertako hizkuntzan *Gatza* esaten da, hau da, *gatz*a. Ibai hau, *Leintz* eta *Elgeta* haranak eta *Vergara* eta *Plasencia* hiriak zeharkatuz, [...]».



Leintz Gatzaga

En el referido barrio de Dorlas [...] hay una copiosa fuente de agua salobre que se distribuye por conductos a las casas, en las cuales se fabrica la sal [...]. Por esta fábrica se llama la villa en vascuence Gatzaga, que en castellano significa Salinas» (DRAH, II, 1802: 282–283), «Salinas, en vascuence Gatzaga» (vi., Mad., 1845–1850: 169), «Salinas: villa del partido judicial de Vergara, arciprestazgo de Leniz, antiguo obispado de Calahorra, conocida en el idioma vulgar vascongado con el nombre de Gatzaga» (Go., 1862: 429).

(Antrop.) *Pero Ochoa de Salinas* (Arrasate, 1501; Le. eta Go., 1998: 4).

EuskalTes.: Mitxelenak (1964: 71–72) honela transkribatzen du Urrexolako guduaren gaineko testutxoa: «*Gayça çenduan leinzarroc Urruxolaco leçayoa, / Sendo cenduan odolori biurtu jaçu gaçatua*». Eta honela justifikatzen du bere hautua:

Se puede descartar que estos versos incluyeran el intruso *lenizanos*: incluso *lenizanoc*, que tiene apoyo textual, no parece demasiado aceptable, si se tiene en cuenta que el sufijo *-(t)ar* es sumamente frecuente en nuestros cantares medievales, como puede comprobarse en estas páginas. En cuanto a la forma precisa del étnico, Garibay, Compendio, libro 15, cap. 10, nos dice que al Valle Real de Leniz “en lengua de la misma tierra dizen *Leynç*”. Desde luego, *lenizanoc* se explica mejor, como error de lectura, a partir de *leinzarroc* (ni=in, n=rr) que de *leinztarroc*, pero la primera sería una formación anómala que al parecer no está documentada. En Oñate, modernamente (d. Guerra, p.9), se dice *leiztar*, o *leinztar*, según otras fuentes.

1491–1510 bitarteko Britainiako kantan (I. Sarasola, 1983: 78) hau dugu: «*Salinasgoa Conde: Guztien da jabe, / Guipuzcoa herrian: on guztien burua*». Iztuetak hau dakar:

«Gatzagaco mendi gañetic, Ondarribiaco Higuier-en bucaeraraño» (1847: 24), «...ceintzuc diraden Irun-aranzundic (sic) asi, ta Gatzaga-rañoco errietan arquitezen diran ezagutuenac» (ibid., 35), «Gatzagaco mugapean iturri guezagozo asco dira chit» (ibid., 92), «Aomen andico ibai onen (Debaren) jaiotoquia arquitezen da Guipuzcoan Gatzagaco mugapean [...] eta Gatzagaco erria arricada bateco bidastian ezquerrerontz lagaric [...]» (ibid., 111), «...guertatzen dan bezala Gatzagaco errian, Lenizco ibar errealean, eta Hernioco mendietan» (ibid., 134), «¿Cer dute bada cer icusi oen aldean Gatzagaco, Lenizco eta Hernio-mendicoac? [...]. Ez det esaten nic, ez eta esan nai ere, Gatzagaco mugapea, Lenizco Ibarra eta Hernioco mendia ez daudela zuaitzez ondo janciac» (ibid., 135).

Azkuek (1989 [1935-1947], III) hauek dauzka: «Gatza Gatzagan, koipea Motrikun, arekin egiten dira azak bigun bigun» (144), «Gatzagan da zentzuna, Mariñen⁹¹ Marin, anak arin» (145). Uztapidek (1975: 139) honela dio: «Gatzagan ere izan giñan batean. Zeñekin izan nintzan ez daukat gogoan».

Ebak.: [ga.tʃá.kò] (lek.g.), [ga.tʃá.ku.o.ri] (lek.g. + dat.) (Lei-001), [ga.tʃán] (in.), [ga.tʃá.ɣa.tik] (abl.) (Esk-014). Aramaion Ormaetxeak (2006: 205) *Gátza* jaso zuen. Azkuek (1933: 85), bestalde, *Leintz* aldaera desitxuratutzat ematen du.

Etimol.: Caro Barojak (1945: 103-104) *Lenius* antroponimoa dakusa oinarrian; atzizkia latineko *-icus* atzizkiaren genitiboa dugu autore honen iritzian, patronimikotetan dugun berbera. Menéndez Pidalek eta Tovarrek (1962: 387) egun euskaraz mintzatzen den lurraldean bokal azentudunaren aldakortasuna («vacilación» darabilte) handia dela besterik ez diote. Salaberrik (2018a: 332) honela dio: «Zenbait aldiz lekututako kontsonantea hastapeneko tokian ez, baizik beste batean azaltzen da: *Gorri de Areaça* (B, 1504) vs. *Juan de Areaça*, *Juan Gorri de Areaça* (B, 1514). Tankera berekoa da Garibaik hamaseigarren mendean biltzen duen *Leniz* (1257, 1266) izenaren *Leynç* euskarazko aldaeraren garapena: *Leniz* > **Lēñiz* > **Lēiz* > *Leintz*».

Toponimoaren jatorria, Caro Barojak urratu bidetik, Tarragonan ageri den *P. Lenius Fortunatus* (Hesperia) idazkuneko *Lenius* jende izena da, zehazkiago erran, **Leni-*, kasu marka galtzen delako (cf. *merkatari*, *zamari* hiztegi arruntean, *Armentari*, *Azeari*, *Bikendi* antroponimian). Amaiera, *-(i)(t)z*, latineko genitibotik atera dela ez dugu zalantza egiten, baina uste dugu hizkuntza horretako *-(n)is-*etik datorrela, ez *-ici-*tik (ikus Yarza, 2014: 1141). Nolanahiko gisan, argi dago jabetza adierazten zuela, Nafarroako *Auritz*-en (*Aureus*, *Aurius* izenekoaren lurra edo bazterretxea) bezala, beste adibide bat paratzeagatik. Hortaz, *Leni(t)z* hasieran ‘*Leni(us)* izenekoaren bazterretxea, lurra...’ zatekeen. Ondoko bilakaera goraxeago adierazi duguna izan zen, alegia, *Leni(t)z* > **Lēñ(t)z* > **Lēñ(t)z* > **Lē(t)z* > *Leintz*; aldera bedi *Abadiano* > *Abadio* (1495ean, **Abadiō* ebakia, seguruenik) > *Abadiño* (Sala., 2013: 258) Bizkaiko herri izen ezagunarekin.

Gatzaga-k, bistakoa denez, *gatz* izena du oinarritzat eta itxuraz leku-ugaritasunezko *-aga* atzizkitzat. Garibairena den lehen testigantzan *Gaça* daukagu, eta horre-

⁹¹ «Poblacho de ese valle» dela dio.

gatik uste dugu *Gatzaga*-ren etimotako *gatz* eta *-zaha* berrekailua ere, orain *-tza* dena hain zuzen, proposa daitekeela, bigarren aukeratzat besterik ez bada ere. Cfr. Donemiliagako 1025eko Rejako *Hamaezaha*, egun *Ametzaga*. Ikus Salaberri (2015a: 379-380 eta 415).

Herritarlz.: *gatzagar* (ofiz.), *leinztar*. Izaguirrek (1994: 52, 162) *leinztar*, *leiztar* ‘Leintzen bezala mintzatzea’ jaso zuen: «*Leiztarkerixia da ori*. Se dice cuando se habla en Oñate a la manera de Leniz (Oñate)», «*Leiztarrak: los del Valle de Léniz (Oñati-kalian)*» (*ibid.*, 162).

Leitzarar

Dok.: *balle de Liçaran* (1529, Ayer., 1997: 596), *valle de Leyçaran* (1538, 1613, *ibid.*, 602, 721), «*rio que dizen de Leyçaran*» (1572, Ayer. eta Dz.S., 1996: 582), «*Lezarain* (montaña) *entre Leiza y Verastegui*» (Isas., 1850 [1625–26]: 231), *Río Leitzarar* (Larra., 1985 [1754]: 33), «...*el curso del rio Lezarain, que viene de Navarra a incorporarse con el Oriá*» (DRAH, I, 1802: 174), «*Leitzarar, pequeño rio en la pr[ovincia] de Guipuzcoa: baxa de las montañas de Navarra*» (*ibid.*, 430), *Leizaran* (*pequeño rio*, Mad., X, 1847: 127), «*por el valle de Leizaran a Andoain*» (Go., 1862: 108), «...*el puente denominado de Urto, construido sobre el río Leizarán*» (*ibid.*, 1868, I: 57). Honela genioen orain urte batzuk (Zaldua, 2012a: 330):

LEITZARAN toponimoa Isastik aipatzen du lehen aldiz 1625ean eta Lezoko geografoak *-arain* bukaerarekin idatzi zuen (*Lezarain, rio*, LMI, 227 or.; *Lezarain, 1625, montaña*, LMI, 231 or.). Larramendik, 18. mendean, *Leitzarar* aldaera darabil (*rio Leitzarar*, 1754, ML, 33, 34 or.) eta gizaldi hartan bertan *-araun* amaierarekin aurkitu dugu (*terminos de Leizarau*, 1791, JGL, 137 or.); orobat 19. ean (*termino expresado de Leizarau*, 1826, JGL, 149 or.).

EuskalTes.: «*Villabona escuitara eta ezquerrerontz Asteasu, Cizurquil, Aduna eta Sorabilla utziric igarotzen da Andoaingo Santa Cruzco zubiaren ondora, non laztantzen zaion gogoz Leizarango ibai pizcor Berasteguicoarequin batean Nafarraldetic datorrena*» (Izt., 1847: 116).

Ebak.: *Leitzarar*, *Leitzarango Erreka*, *Leitzañ* (Usa., 1993: 152), «Ahozko tradizioari begiratzuz gero, urnietarrek *Leizarar* ([léjzaràn], Amu.) / *Leitzarar* ([léjtzaràn], Amu.) ahoskatzen duten bitartean, Berastegikoeak (Elduakoeak barne) *Leitzaun* ([lejtzáun], Argiñ. / [léjtzàun], Bordatx.) ebakitzen dute» (Zaldua, 2012a: 330), [lej.şá.ra.ne.à] (adl.) (And-008), [lej.şá.ra.ñ.dik] (abl.) (Don-086).

Etimol.: Osagaiak *Leitza* herri izena (ikus *Leaburu* sarrera) eta *haran* ‘ibarra’ dira. Bigarren hau *-arain* ohi da batzuetan toponimian eta, irudiz, horren aldaera laburtutik, *-a(r)in*-etik, atera izango da, ondoren, *-a(r)un* aldaera.

Lezo

IzenOfiz.: *Lezo*.

Dok.: (Top.) *Lezo* (1374, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 74; 1470, Iri., 2013: 82) «el dicho termino de Lazon el dicho consexo de Fuenterravia» (1399, Lar. eta Ta., 1993: 73), *puerto de Lazon* (*ibid.*, 74), «*puerto que llamavan de Lezon*», *yglesia de Lezo* (*ibid.*, 78), *yglesia de Laçón* (1455, Iri., 2013: 38), *Lezo* (1470, *ibid.*, 82), «*los dichos conçejos e vniversidades de los dichos lugares del Pasaje e Leço*», «*los dichos pueblos del Pasaje e Leço*» (1512, 1513, *ibid.*, 159, 181), *Leco* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *Lezo* (*lu.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *La casa de Lezo andia* (*ibid.*, 94), «...*qui ab Ipuscoatibus Rio de Leço dictus*»⁹² (Oihenart, 1992 [1637]: 684), *Lezo* (Larra., 1985 [1754]: 32), *Lezo* (*pu.*, López, 1770), «*Lezo, univ[ersidad] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa [...] llamada antiguamente y hasta el siglo XVI con el nombre de Lazon*» (DRAH, I, 1802: 448), *Lezo* (*univ.*, Mad., X, 1847: 274), «*Lezo: lugar dependiente de la jurisdiccion de la ciudad de Fuenterrabia*» (Go., 1862: 290).

(Antrop.) *Guillelmu de Lacon* (1209, Lar. eta Ta., 1993: 6), *Juan Martin de Leson* (*ibid.*, 12), *Guillen de Lason*, *Guillen de Lazon* (1399, *ibid.*, 73), *Esteuan de Lazon*, *Juan de Lazon*, *Martinon de Lazon* (1457, Iri., 2013: 62), *Domingo de Leço* (c. 1471, *ibid.*, 94), «...*el dicho Martin de Leço, vezino de Leço*» (1499, Le. eta b., 2002: 259), *Tristan de Leço* (1517, Iri., 2013: 200). Cfr. *Esteban de Leyço* (Zestoa, 1509; Le. eta b., 2002: 279).

EuskalOnom.: *Lezoren-errota* (Errenteria, Nopgui, 1857: 62); *Orozkon* (B) *Lezo* izeneko baserria eta auzo txikia dago. Cfr. *Lezoti* (Oiartzun, ca.d.l., Nopgui, 1857: 57).

EuskalTes.: «...*ta au naiz eusqueraz, naiz erderaz, Lezoco Santo Cristoaren devocioan dagoen bezala*» (Kard., 1816 [1762], sarrera), «*Baldin artzen badezu asmo oso, eta andi bat Lezora joateco, Mezaren bat ateratzeco, ez da au votoa, ez promesa [...]. Baldin eguiten badezu voto, edo promesa Lezora, Aranzazura joateco, urliarequin gura dezun eran ibiltzeagatic, ez du balio promes onec*» (J. B. Agirre, 1978 [1850], II: 32), «*Beguire, urliarequin nai bezala ibiltzeagatic eguin ote dezun promesaren bat Lezora, Aranzazura, edo Herniora joateco?*» (*ibid.*, 37), «*Beguire begui onen batec ecusi ditzan, bidaldu ote dituzun alabac, batzuetan Tolosara, besteetan Aranzazura, edo Lezora*» (*ibid.*, 84), «*joango naiz Lezora edo Herniora, baña ez det becuric eguingo*» (*ibid.*, 335), «*Ezagutzen dezu urliac itzequin dizula Ernioco gurutzeraco, Lezoraco, Aranzazuraco, Tolosaraco zurequin lasaiquiro ibiltzeco asmoan [...]*» (*ibid.*, III: 552), «*Lezo-co mendi guztia da arrobi areatsuz ondo josia*» (Izt., 1847: 50), «*Beste bat are ugariagoa da Endara-erreca deitzen zaiona, ceñac berecitzzen dituen Irun arazungo eta Lezoco mugaac*» (*sic*) (*ibid.*, 97), «...*batzuc ifini diote ibai oni icen berria Lezo, eta anciñaco izcribuetan arquitzen da esaten zaiola Lezo baino gueiagotan Oyarzun. Eguiazqui bacuscu bada argui eta garbi, ibai au sortzen dala Oyarzungo mugapean munduaren asieratic; baita ere, bertaco erribera luceac ongarrituaz Errenteriaco erribera igaroric Lezora jachitzen dala ausarqui*» (*ibid.*,

⁹² «Gipuzkoarrek Lezoko ibaia deitzen dutena».

119), «*Oi, Lezoko nere Gurutze santuba!*» (Urruzuno, 1988: 120), «*Orain asi biagu asunto berriyan, / zer gertatzen zaigun Lezoko erriyan*» (Xenpelar, 1931b: 31), «*Lezo bide orretan / zer zaidan gertatu*» (P. Zabaleta, 1932b: 143).

Ebak.: [lé.şó] (abs.), [lé.şòn] (in.) (Lez-002).

Etimol.: Mogelek (1854: 735, 749) *Lezo*-ren oinarrian *leza* ‘leizea’, ‘leize zuloa’ ‘mendi tartean oso sartuta dagoen lekua’ daukagula uste du, eta Eleizalde (1916: 8) *Leiza*, *Leza* eta *leze* ‘haitzuloa’, ‘leize zuloa’ gauza bera direla irizten dio, *Lezo* aipatzen ez badu ere.

Hubschmidek (1960: 489-490), Ariège / Haute Garonneko *Leza* (1001), *Les* (1237) > *Lèze* eta Orneko ibaiadarra den *Leisa* (1077), *Lesia* (1240) > *Laize* ugalde izenak aipatu ondoan, esaten du **les* erroa indoeuroparra dela pentsa daitekeela, eta ez dagoela euskarazko *leza*, *leze* ‘leizea’ elearekin erlazionatua. Portugalgo *Leza*, Errioxako *Leza* eta Gipuzkoako *Lezo* («riachuelo») ere aipatzen ditu, eta dio itxuraz 640ko *flumen Licii*-rekin loturik daudekeela. Ez da garbi gelditzen hauen errotzat zer proposatzen duen Hubschmidek, erro bat baino gehiago aipatzen baititu jarraian. Honela bukatzen du: «Pokorny ve en ellos la raíz indoeuropea **leik-* / **lik-* ‘torcer, combar’». Llorente Maldonadok ere (2003: 34), suitzarrari jarraikiz dirudienez, zeltatzat ematen du *Lezo*.

Gipuzkoakotik desberdina, baina iduritsua den Arabako *Leza*-z honela diogu (Sala., 2015a: 256): «El topónimo parece exigir un étimo **Letia* o **Lecia*. No sabemos si tiene alguna relación con el topónimo de origen céltico *Lezama* (véase esta entrada); de ser así, sería un adjetivo en grado positivo respecto de aquel».

HerritarIz.: *lezoar*.

HerritarEz.: *trapu-jale*.

Lizartza

IzenOfiz.: *Lizartza*.

Dok.: (Top.) «*las dichas collaciones e vniversidades e personas singulares de Sancta Maria d'Ernialde e de Santa Cathalina de Leyçarça e de Sant Miguell de Çiçurquil*» (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), «*Yten a Maria e Mariacho de Leyça, vezinas de Leyçarça, que la su casa de Leyça se les quemio*» (1515, Le. eta Go., 1998: 267), «*conçejos de Liçarça, Gaztelu y Oresa*» (1551, Ayer., 1997: 169), *Liçarça* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Lacarca* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Liçarça* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Lizarza* (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *Lizarza* (*pu.*, López, 1770), *Lizarza* (*lu.*, DRAH, I, 1802: 451), *Lizarza* (*vi.*, Mad., X, 1847: 314; Go., 1862: 292).

(Antrop.) «*Don Garçia de Liçarça abbad de Oresa*» (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 139), *Martin Miguellaz de Leyçarça* (Alkiza, 1396; *ibid.*, 1996: 420), *Pero Garçia de Leyçarça* (Tolosa, 1470; Le. eta Ta., 1996: 59), *Domingo de Liçarça* (Segura, 1509; Le. eta b., 2002: 282).

EuskalOnom.: *Martin de Liçarçaburu*, *Juan de Leyçarçaburu* (Lizartza, 1450; Le. eta Ta., 1996: 20); *cf.* Berastegiko *Garcia de Leyçarraga* (1450, *ibid.*, 19). Toponimian hauek ditugu: *Leyçarçar* (Lizartza, 1473; *ferreñia*, Ayer., 1997: 168), *Lizarza* (Azkoitia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 7), *Lizarzabide* (Gaztelu, *ca.d.l.*, *ibid.*, 94), *Lizarza* (Ikaztegieta, *ibid.*, 95), *Lizartza* (Bergarako aurk., 2011, BerM), *Lizartza* (Elgoibarko aurk., 2011, EgbM), *Lizartzaburua* (*ibid.*), *Lizartzabide* (Gaztelu, bas., 1998, GazM).

EuskalTes.: «*Lizarza guztia da iturri garbi on guezagozo ioritsuakin ondo jancia*» (Izt., 1847: 98), «*Bereala artzen du Iraramendiren ondoan Araxes deitzen zaion ibai Nafarroan jαιο eta Lizarzatic datorrena [...] lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza, Oreja, Gaztelu, Berrobi, Leaburu, Belaunza eta Ibarra*» (*ibid.*, 115), «*Ona non datozen Lizartza'ko dantzari nabar-apainduak*» (Labayen, 1976, II: 59), «*Neguan an zegon errekondoan Lizartza, atsaldeko ordu bietarako eguzkirik gabe*» (Orixe, 1987: 43), «*Gipuzkoan sarturik, Agiñegi, Otsabiok ingurua ixten dula. Onen azpialdean Lizartzako zenbait baserri, goietakoak argi, zokoetakoak ezin esnatuz*» (*ibid.*, 64), «*...Askarateko Sasturain, Bedaioko Xubeldia, Lizartzako Zelağain*» (*ibid.*, 193), «*Orain Lizartzara ezkondata dago*» (Uztapide, 1975: 56).

Ebak.: [lí.şar.ţşàn] (in.) (Liz-001), [lí.şar.ţşa.tìk], [li.şár.ţşa.tìk] (abl.) (Liz-012), [li.şár.ţşák] (erg.) (Alo-003), [li.şár.ţşa.kò] (lek.g.) (Bel-001), [lí.şar.ţşá] (adl.) (Gaz-001).

Etimol.: Mogelek (1854: 735) «*Lizarza.- Fecundo en fresnos, de Lizarra y tza*» dakar. Mitxelena (1956a: 176-177), euskal toponimoetan ageri diren diptongoez dihardukalarik, *l(e)izar*, *lexar*-etik atera diren zenbait izen darabiltza ahotan, horien artean Nafarroako *Lizarraga* (*Liçarraga* 1174an) eta Gipuzkoako *Lizarza*. Osagaiak, hortaz, *leizar* > *lizar* zuhaitz izena eta leku-ugaritasunezko *-tza* dira, eta toponimoaren hasmentako adiera 'lizar lekua', 'lizar franko dauden eremua'.

HerritarIz.: *lizartzar*.

Maia (ikus *Elgeta*)

Mendaro

IzenOfiz.: *Mendaro*.

Dok.: (Top.) «en el val de Mendaro e en el val de Ego» (1335, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 188), *Mendaro* (1345, *ibid.*, 247), «aguas de Legaspi e de Mendaro e de Çestona» (1391, *ibid.*, 1996: 327), «valles de Mendaro e de Çumaya» (1502-1528, Ayer., 1997: 584), *valle de Mendaro* (*ibid.*, 591; 1509, Le. eta b., 2002: 289), *Mendaro* (Gari., II, 1628 [1571]: 339), *Mendaro, Mendare* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), «Mendaro. Dos barrios» (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «...y en Mendaro jurisdiccion de Motrico, Lasalde» (*ibid.*, 235), «...per Elgoyuarij & Mendari terras»⁹³ (Oihenart, 1992 [1637]: 682), *Mendaro* (Larra., 1985 [1754]: 35), *Mendaro* (*pu.*, López, 1770), *Valle de Mendaro* (*ibid.*), «Mendaro, valle de la provincia de Guipuzcoa» (DRAH, II, 1802: 14), *Mendaro* (*va.*, Mad., XI, 1848: 370), «son de su (de Elgoibar) jurisdiccion el lugar de Alzola y una parte del valle de Mendaro» (Go., 1862: 146), «Mendaro: valle situado en las dos margenes del rio Deva entre el lugar de Alzola y el punto de Sasiola [...]. La primera [aldea] compuesta de las barriadas llamadas Azpilgoeta y Plaza; pertenece a la villa de Motrico, ocupa la ribera izquierda del río Deva [...]. La segunda denominada Mendarozabal corresponde a la jurisdiccion civil de la villa de Elgoibar; parte de la cual se halla a la izquierda del citado rio entre las regatas de Inchlussadi y Difuntu-errecu y el recto a la derecha, comprendiendo el territorio que hay entre la última y la llamada Quilimon [...]. La tercera aldea de este valle (de Mendaro) es la nombrada Garagarza, situada a la derecha del rio Deva al pie del monte de Santa Cruz, la cual pertenece a la jurisdiccion de la villa de Deva» (*ibid.*, 297), «Compréndense en él (Motrico) los valles de Astigarribia y parte del de Mendaro» (*ibid.*, 317).

(Antrop.) *Fortun Martinez de Mendaro* (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 296), *Juan de Mendaro* (Aia, 1516; Ayer., 1997: 573).

EuskalOnom.: *Mendaro* (Eibarko etxea, 1860, E.U.-Ego.Ib. 1995: 342), *Mendarozabal* (Elgoibar, aldea, Go., 1862: 297), *Mendarojauregi* (Zumaiako aurk., 2007, ZumM).

EuskalTes.: «...oen artean bat arqitzen da, equin-aldi icusgarriaquicoa Mendaro-n Quilimon deitzen zaiona» (Izt., 1847: 87), «...beitiago ureztatzen du Mendaroco ibarra» (*ibid.*, 112), «Devaco ibaian igotzen dira Mendaro-raño (izoqui) samalda andiac» (*ibid.*, 203), «Mendaro dezu ama / ta jayoterría», «lan onetan badira / Mendaron ernaiak» (Urruzuno, 1932: 266), «Gezurra zirudik Mendaron jayo ta aimbeste jakitea...» (*ibid.*, 1988: 137), «Mendaroko kontua bezela da ori» (*ibid.*, 146), «¡Altzola-Mendaroetan jente ona dek arraietan!, ¡En Alzola-Mendaro, vaya una gente, rayos!», «Deba ta Mendaro, eldu ta igaro» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143), «Gero Mendaron; bi erri edo bi parte ditu Mendarok: bat Garagartza eta bestea Azpilgoeta» (Uztapide, 1975: 142).

⁹³ «Elgoibarko eta Mendaroko lurretan barna».

Ebak.: [mɛ̃p.da.ròn] (in.) (Men-008), [mɛ̃p.dá.ro.ti.kàn] (abl.) (Egb-058).

Etimol.: Mitxelena *Mendaro* eta *Mendarozketa* (hau Zigoitiko herria da, A) *mendi* izenetik eratortzen ditu, baina ez du azalpenik ematen; bigarrenaren *-keta* bukaera *-eta* atzizkiaren aldaera dela uste du (AV, 438 eta izen aurkibidea).

Guk (Sala., 2015a: 278-280) arazoak dakuskigu Errenteriakoak dioen horretan, eta azalpen antroponimikoa nahiago dugu. Funtsean, eta orain Gipuzkoako herrira mugatuz, lekukotuta dauden *Mendus* eta *Mento* proposatzen ditugu oinarritako, *(*fundu*) *mentanu* / *mendanu* ‘*Mento*, *Mendus*-en jabetza’, euskaran sartu aitzinetik **Mentano*, **Mendano* bihurtu zatekeena; gero, gure mintzoaren arau fonologikoei jarraituz, **Mendao* aterako zatekeen bilakaera arruntez, baina oraingoan sudurkari disimilazioa burutuko zen (*Mendaro*), hirugarren sudurkaria lekutu aitzin. Holako zerbait gertatu izango da Nafarroako *Mezkiritz* herri izenean, etimoa **Mezkinitz* bada. Cfr. Arabako *Mezkia* herri izena, *Mizkina*, *Mezquina* agirietan.

HerritarIz.: *mendaroar*.

Azpilgoeta

Udala: *Mendaro* (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Azpilgoeta*.

Dok.: «*Nuestra Señora de Aspilcueta del lugar de Mendaro*» (ai., Isas., 1850 [1625-26]: 210), *Alzola de Azpylcueta* (pu., López, 1770), «*nuestra Señora de Aspilcueta en el valle de Mendaro*» (DRAH, 1802, II: 39), *Alzola de Aspilcueta* (ai., Mad., II, 1845: 216), *Azpilgoeta* (par., Mad., XI, 1848: 370), *Azpilgoeta de Mendaro* (ba., Nopgui, 1857: 128), «*Elgoibar tiene ademas las parroquias anejas de Santa Maria de Aspilgoeta de Mendaro y de San Juan Bautista de Alzola*» (Go., 1862: 150), *Azpilgoeta* (Mutriku, bada., *ibid.*, 297).

EuskalOnom.: *Azpilcoeta* (Aia, bada., Nopgui, 1857: 2), *Azpilcoeta* (Aduna, ca.d.l., *ibid.*, 37), *Azpilcoeta* (Irun, *ibid.*, 48), *Azpilikueta* (Errenteriako bas., 2006, ErrM). Cfr. *Azpillaga* (Azpeitia, ca.d.l., Nopgui, 1857: 10), *Azpilleta* (Bergara, *ibid.*, 139).

EuskalTes.: «*Gero Mendaron; bi erri edo bi parte ditu Mendarok: bat Garagartza eta bestea Azpilgoeta. An ere bietan izan gera. Azpilgoetan dozen erdi bat aldiz izango giñan*» (Uztapide, 1975: 142-143).

Ebak.: [aʃ.pi.lwé.ta], [aʃ.pí.lwe.tà] (abs.), [aʃ.pí.li.kwe.ta.kò] (lek.g.) (Men-008).

Etimol.: Mitxelena (AV, 21) *Azpil*, *Azpileta*, *Azpillaga* edo *Ayzipillaga* (*h*)aitz-en eratorrien artean sartzen ditu. Dokumentazioa ikusirik, badirudi bilakaera *Azpilkoeta* > *Azpilgoeta* izan dela, harritzeko ez dena, albokoaren ondoko herskari ahoskabeen ahostuntzea ardurakoa delako. Elkarketan *aiz-* > *az-* bakuntzea ere ezaguna da.

Etokiari doakionez, *haitz* izena, *bil* ‘biribila’, *-ko* atzizki txikigarria (cfr. *mutiko*, adibidez, edo *Arankoa*, *Arangoa* han-hemengo toponimian, *haran*-etik) eta leku-ugaritasunezko *-eta* atzizkia izan daitezke elementu osagarriak, alegia, hastapenean ‘haitz, malkor biribil txikia dagoen tokia’, ‘haitz, malkor biribil txikiak dauden lekua’. Zernahi

gisaz, hola izatekotan **A(i)zkobileta* espero genuke, hau da, txikigarria izenari eratziki zaion forma, ez *izen* + *adjektibo* multzoari gaineratu zaiona.

Beste azalbide bat oinarrian *aizpil*, *azpil* zuhaitz izena, *-ko* txikigarria eta *-eta* daukela pentsatzea da. Era batera edo bestera izan, kontuan har bedi Iruñerriko Galar zendea *Aizpiltze* herri hustua zegoela, eta *Aizpilduia* Ameskoagoieneko (N) Aranaratxe herriko aurkintza baten izena zela. Honetaz ikus bedi Jimeno eta Salaberri (2006: 138-139).

HerritarIz.: *azpilgoetar*.

Garagartza

Udala: Mendaro (birt. ent. ber., auzoa).

IzenOfiz.: *Garagartza*.

Dok.: «...yglesia llamada e nombrada Santa Maria de Garagarça» (1453, Bar. eta Her., 2005a: 154), «...iglesia de Santa Maria de Garagarça» (1472, *ibid.*, 226), «Nuestra Señora de Garagarza en el valle de Mendaro» (*ai.*, Isas., 1850 [1625-26]: 211), *Garagarza* (Deba, *ai.*, DRAH, I, 1802: 298), *Garagarza* (*par.*, Mad., VIII, 1847: 306), *Eguzquiza de Garagarza* (Deba, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 21), *Garagarza* (Deba, *ba.*, *ibid.*, 22), *Garagarza-eche* (Elgoibar, *ca.d.l.*, *ibid.*, 118), *Garagarza-errota* (*ibid.*), *Garagarza* (Deba, *ba.*, Go., 1862: 126), *Garagarza* (Deba, *aldea*, *ibid.*, 297).

EuskalOnom.: *Garagarza* (Aia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 3), *Garagarza* (Azpeitia, *m.h.*, *ibid.*, 12), *Garagarzacho* (*ca.d.l.*, *ibid.*), *Garagarza-goicóa* (*ibid.*), *Garagarza mayor* (*ibid.*), *Garagarza* (Beizama, *ca.d.l.*, *ibid.*, 15), *Garagarza-saleche* (*ibid.*), *Garagarza* (Oiarzun, *ibid.*, 56) *Garagarza* (Amezketeta, *ibid.*, 80), *Garagarza* (Andoain, *ibid.*, 82), *Garagarza-chiqui* (*ibid.*), *Garagarza* (Ordizia, *ibid.*, 108), *Garagartz aerreka* (Azpeitia, *bas.*, 2014, AzpM), *Garagartz aerrota* (*ibid.*), etab.

EuskalTes.: «Gero Mendaron; bi erri edo bi parte ditu Mendarok: bat Garagartza eta bestea Azpilgoeta» (Uztapide, 1975: 142).

Ebak.: [ga.ra.ɣár.tʃàn] (in.) (Men-004), [ga.rá.ɣar.tʃà] (abs.), [ga.rá.ar.tʃàn] (in.) (Men-008), [gá.rar.ʃà] (abs.) (Antz-070), [ga.ra.ɣár.tʃa] (abs.) (Eib-034).

Etimol.: Osagaiak *garagar* labore izena eta leku-ugaritasunezko *-tza* atzikia dira.

Mondragón (ikus Arrasate)

Mutiloa

IzenOfiz.: *Mutiloa*.

Dok.: «...delante la iglesia de Sant Miguell de Mutiloa», «Iohan de Lencaran, iurado de la vezindat de Mutiloa» (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 223), *Mutiloa* (*ibid.*, 225), «collaciones de Legazpia e de Mutiloa e de Ydiacabal e de Çegama e de Çeray e de Hurrmaystegui» (1387, *ibid.*, 249), *Mutyloa* (1393, *ibid.*, 379), «sobre el camino de Mutiloa» (Segura, 1536; Le. eta b., 2002: 440), *Mutilloa* (Ortelius, 1588, mapa), *Mutiloa* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Mutiloa* (*vi.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29, 112; López, 1770; DRAH, II, 1802: 51; Mad., XI, 1848: 785; Go., 1862: 327).

EuskalOnom. Hemengo lekukotasunak Nafarroakoak dira (Iruñe ondoko herria *Mutilva* da orain gaztelaniaz, baina oso berandu arte *Mutiloa*, *Mutilua* izan da): «Fortunio Orioli de Mutiloa [...] Garssia Ortiz de Mutiloa» (1002, Mar.Du., 1983: 32), *Mutiloa* (1067, *ibid.*, 123; 1135–1136, Goñi, 1997: 157), «*Mutiloa de Ius*, *Mutiloa de Sus*» (1268, Felones, 1982: 630, 682), *Mutiloa* (1280, Zabalo, 1972: 134).

Euskal mikrotoponimian *Mutiloa videa* dugu Badostainen 1803an (Jim. zuz., 1996a: 269), Iberon *Mutiloa* izeneko aurkintza azaltzen da 1818an (Jim., 1989: 142) eta Larrabetzun «*En las casas de Pedro de Mutiloaga*» dugu 1514an (Equez. eta b., 1997: 102). Arabako Bastidan *Mutilluri* herri hustua zegoen, aurkintza orain, eta badirudi Errioxan ere bazela izen bereko beste toki bat (Sala., 2014: 371).

EuskalTes.: «*Mutiloaco mendi Mascor edo Venera deitzen zaion artan arquitzen da [...]*» (Izt., 1847: 71), «*Mutiloaco meatze-mendian jaiotzen dira iturri asco*» (*ibid.*, 100), «...eta bereala ifarraldera igaroric jarraitzen du Seguraco errira, au escuirontz eta Cerain ta Mutiloa ezquerretara lagaric dijoala artzen du beitiago Mutiloaco ibai chiqui icen bereco mendian jaiotzen dana» (*ibid.*, 114), «*Mutiloara ere joaten giñan. Ara ere Zepairekin joan izan nintzan. Segurako bide-gurutzetik oñez joaten giñan*» (Uztapide, 1975: 134).

Ebak.: *Mutiloa* (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 44), [mu. tí. lòn] (in.) (Mtl-006), [mu. tí. lòn] (in.) (Alo-003), [mu. tí. lók] (erg.) (Bea-019), [mu. tí. lo. kò] (lek.g.) (Zmg-029).

Etimol. Mitxelena (AV, 472) honela dio, *-oa* bukaera aztertzean:

En algunos casos esta terminación es acaso una variante de *-ola*; concretamente cuando se unía a radicales terminados en *-l* (*-ll*), en cuyo caso se tratará de pérdida por disimilación de la segunda consonante: *Apalloa*, *Arbeloa*, *Astarloa*, *Epeloa*, *Mutiloa* (*mutil* ‘muchacho’ ‘criado’), *Negueloa*, *Zamalloa*. Como es natural, también puede ser simplemente una palabra terminada en *-o* provista del artículo. Es conocida la teoría de Azkue que ve en *-(k)oa* un suf. con el sentido aproximado de «territorio» en denominaciones geográficas como *Aezcoa* (*a[í]etz* «aetzcoano»), *Amezcoa*, *Guipúzcoa* (*giputz* «guipuzcoano») y *Ondarroa* (p. ej. en *Aezkera*, 8).

Errenteriarren ustekaria ontzat hartzeko pentsatu behar genuke *-ola* > *-oa* bilakaera arrunt goiz burutu zela, ez Gipuzkoan eta ez Nafarroan **Mutilola* inoiz kausitu ez dugulako, hotsez iduria den beste toponimoren batean bi alboko dituen aldaera

dokumentaturik egonagatik: Aralarren, adibidez, *Zamilola* daukagu 1141ean (sarioia, Lac., 1949: 424), *Samiola*, *Zamiloa* 1622an (aurk., Zaldua, 2014: 179), *Samiola* 1794an (*ibid.*), *Zamiola* 1882an (OJA), *Samiola* 1940an (Zaldua, 2012b: 317; ikus orobat Irig., 1992: 201, 31. oin-oharra). Egia da disimilazioa ez dela arau sistematikoa, eta batean gauza zitekeela eta bestean ez, baina gertakari hori izan dela seguru egoteko **Mutilola*-ren testigantza bat behintzat behar genuke, eta holakorik ez daukagu.

Bigarren azalbidea *-oa* horretan *Aizkoa*-n (< *Aizkona*), *Artaxoa*-n (< *Artaxona*) edota *Aramaio*-n (< *Aramaiona*) eta *Larragoa*-n (< *Larrahona*) dugun bera dagoela onartzea da, alegia, *Mutiloa* (cfr. aipatu dugun *Mutilluri*), hastean **Mutilona* ‘*Mutil* izena zuen norbaiten bazterretxea, lurra’ zela. Ordea, izartxodun aldaera eskas dugu oraingoa ere.

Hirugarren azalbidea Mitxelenak aipatzen duen Azkueren ideia onetsi eta herriaren izena beti *Mutiloa* izan dela pentsatzea da. Kasu honetan osagaiak *mutil* izen arrunta edo *Mutil* antroponimoa eta *-oa* leku atzizkia lirakeke, hau da, *Aezkoa*-n, *Gipuzkoa*-n (ikus sarrera hau) edo *Nafarroa*-n dugun *antroponimo* + *atzizkia* egitura bera.

Oinarriaren kariaz, Lope Garcia Salazarrek hau dakar (*apud* Irig., 1986: 6): «e muerto este don Sancho Perez de Gamboa dexo fijo a don Sancho Perez de Motila que tomo este nombre porque criandolo el Rey don Alonso, que fue en la de Alarcos, le pregunto que como llamauan al moço en su tierra de vasquençe e dixo que motila, e por tanto le llamo Motila». *Garcia Mutila* eta *Eneco Mutila* Iruñerrian bizi bide ziren XIII. gizaldian (Gar.Lar., 1957: 110). Gesalatzen, bestalde, *Sancho Mutilon* edo *Anso Mutilon* dugu 1518an (NEAN, Jaizko pr., 5, J. de Irujo zaharra).

HerritarIz.: *mutiloar*.

HerritarEz.: *txerri gorriak*.

Mutriku

IzenOfiz.: *Mutriku*.

Dok.: *Motricu* (1200, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 17), «*uobis concilio de Mortrico*» (*sic*) (1237, *ibid.*, 26; Fdez. Mtez., Mon. eta Her., 2007: 1), «*los mios pobladores de villa Nueva de Motrico*» (1256, *ibid.*, 4), «*mis pobladores de la Villanueva de Motrico*» (1256, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 35), «*Don Lope, capellan de la Villanueva de Motrico*» (1290, *ibid.*, 1996: 64), *Motrico* (1374, *ibid.*, 68; 1457, Le., 2007: 181), *la villa de Motrico* (1504, Ayer. eta S.M., 2013: 194), *Motrico* (1520, Le. eta b., 2002: 335), *Motrico* (Gari., I, 1628 [1571]: 53 eta II, 142; Ortelius, 1588, mapa), *Motrico* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*...at Occidentem versus, sunt duo alij portus ignobiles Guetaria ac Motrico cum cognominibus vicis*»⁹⁴ (Oihenart, 1992 [1637]: 686), *Motrico* (*vi.*, López, 1770; Mad., XI, 1848: 630; Go., 1862: 317), «*Compréndense en él los valles de Astigarribia y parte del de Mendaro*» (Go., 1862: 317).

EuskalOnom.: *Mutriku* (Orexako aurk., 2012, OreM).

EuskalTes.: «*Vizcayagaz Motricu / noc euquean sinistu*» (XVII. m., Muru., 1974: 416), «*(Provinciac) bere zabaltasuna du bederatzzi legua, sort-aldetic sart-aldera, Allecumenditic Motricorano*» (Izt., 1847: 24), «*Motricuco mendietan arquitzen dira arrobiac carezco arri urdin beguitangoa ugari ematen dutenac*» (*ibid.*, 56), «*Motricuco San Blas mendian*» (*ibid.*, 74), «*Azpeitico batzartar jaunac deitu zuten maisu andi Don Mariano Lascurain Mutricucoa*» (*ibid.*, 83), «*Gueroenean [...] igarotzen da emequiró Devaco erriaren ondora, eta au escuirontz lagaric, Motrico legua bateco bidastian daucala [...]*» (*ibid.*, 112), «*...Zumaya, Deva eta Motricu*» (*ibid.*, 202), *Motricutic* (*ibid.*, 203), «*Motrikun Iskiñakin / pasatua dago*», «*ezaizela bakarrik / Mutrikuara joaten*» (Bilintx, 1932: 156, 157), «*Mutriku'ko, Elgoibar'ko ta Arrasate'ko euskozale apalak*» (Lizardi, 1972 [1934]: 120), «*Gau beltz artan, Elgoibar'ek eta Mutriku'k ixar bana izeki zuten*» (*ibid.*, 129), «*Ondarroa ta Motriku, idiak idia arkitu*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 147), «*Motrikon ere izan gera banaka askotan*» (Uztapide, 1975: 143), «*San Jeronimo, bestea; Motrikotik Ondarrua aldera kamioaren ondoan dago beste ballara txiki bat*» (*ibid.*).

Ebak.: [mu.trí.ku.rà] (adl.) (Mut-013), [mo.trí.ko.ku.ék] (lek.g. + abs.) (Men-008), [mu.trí.ku.kò] (lek.g.) (Zar-014).

Etimol. Garibaik (II, 1628 [1571]: 339) honela dio: «(la villa de Motrico) Cuyo nombre es compuesto como el de Montreal, de Monte y Trico, a causa que esta villa tiene a la entrada del mar vna peña, que oy dia los vezinos llaman Trico [...] surtiò el nombre de llamarse Motrico, como quien dize Monte de Trico».

Orteliussek (1588: 19), urte batzuk geroago, Garibairena errepikatu besterik ez du egiten: «Motrico: o, por mejor dezir, Monte de Trico, assi llamada por la roca dicha Trico, que esta alli cerca», eta berebat DRAHk (II, 1802: 38): «Motrico, v[illa] de la

⁹⁴ «...eta sartalderantz badira beste bi portu ezezagun, Guetaria eta Motrico, herrien izen berekoak».

pr[ovincia] de Guipuzcoa que Garibay interpreta *Monte de Trico*, por una peña que hay allí de ese nombre».

Mogelek (1854: 723), bide beretik, honela dio:

Tricio Tuborico es sin duda alguna Motrico, porque conserva el nombre y la circunstancia de que baña su jurisdicción una legua de distancia del pueblo el río *Deva*, ó mejor de *Deva*, porque este nombre es hoy el del pueblo y no del río que desagua en su puerto. Se llama *Mo-trico* porque en su concha hay un peñon llamado *trico-a*, es decir, erizo, por su figura y puntas, y el *mon* (abreviadamente *mo*) significa ribazo ó elevacioncilla.⁹⁵

Bähr-ek (1948: 183-184), aldiz, hau dakar:

Tritium kommt dreimal vor, bei den Autrigonen, den Beronen und an der Küste, an der Grenze der Karistier und Varduler, dieses letztere zum Unterschied von den anderen *Tritium Tuboricum (-licum)* genannt. Keltische *tritios* könnte lat[einisch] *tertius* entsprechen, man müsste nur die Frage aufwerfen, ob ein Ordinale als ON denkbar ist (vielleicht auf dem Umweg über den PN wie lat[einisch] *Tertius*?). *Tritium Tuboricum* wird mit dem heutigen ON *Deva* oder auch mit *Motrico*, bask. *Mutriku* identifiziert, jedenfalls lebt der zweite Bestandteil *Tuboricum* über *Butoricu*, *Butricu*, *Mutricu* im bask. ON fort. Dass beide namen nicht baskisch sind, ist sicher (*tr-*, *t-*), wegen des *-icum* kann der zweite auch nicht iberisch sein, ich vermute einen Zusammenhang mit urkelt[isch] *dubro-*, *dubra-* 'Wasser', illyr[isch] *dybris* 'Meer', also *Tritium am Meer*. Stamm und Suffix dann keltisch.⁹⁶

Mitxelena (1956a: 171-172), euskal toki izenen bokalismoaz mintzo delarik, esaten du antzinako *-o* eta *-u*-ren artean bereiztea nekeza dela, egungo izenak aintzat harturik: *Motrico* / *Mutriku* (herrikoia) Gipuzkoan, *Cárcamo*, *Laño*, *Luco*, *Turiso*, *Tuyo*, *Zumento* (orain) / *Carcamu*, *Cimentu*, *Langu*, *Lucu*, *Torissu* eta *Tuuu* (1025ean) Araban. Lan berean (186. or.), *b-* > *m-* aldakuntzaz diharduela, (*tritium*) *tuboricum* (edo *tubolicum*) > **but(o)ricu* > *Mutriku* / *Motrico* aipatzen du, Bähr-en bidetik.

Errenteriarrek, garai bereko beste lan batean (1956b: 70-71), ikusitako ideia horiek azaldu eta gero, hau dakar: «Entre los eruditos del país está muy extendida la idea, de la cual participó el P. Fita, de que su emplazamiento correspondía al barrio actual de Astigarribia, a orillas del Deva. Es muy dudoso que el corrupto pasaje de Mela (III,

⁹⁵ Ikus, orobat, 732. or.

⁹⁶ «*Tritium* hirutan ageri da, autrigoen artean, berioen artean eta kostan, karistiarren eta barduliarren arteko mugan. Azken hau, besteetatik bereizteko, *Tritium Tuboricum (-licum)* deitu zen. *Tritios* zelta latineko *tertius*-en baliokidea izan liteke. Geure buruari galdegin behar genioke, alabaina, ordinal bat toponimoa izan ote daitekeen (beharbada antroponimo baten bidez, latineko *Tertius*-en bezala?). *Tritium Tuboricum* egungo *Deva* toponimoarekin identifikatzen da, baita *Motrico*-rekin ere, *Mutriku* euskaraz. Zernahi gisaz, *Tuboricum*-en bigarren zatiak oraindik ere bizirik dirau *Butoricu*, *Brutricu*, *Mutricu* toponimoan. Segurua da (*tr-*, *t-*) bi izenak ez direla euskaratikakoak, eta, *-icum*-engatik bigarrena (*Tuboricum*) iberieratikakoa ezin izan daitekeenez gero, iruditzen zait badela *dubro-*, *dubra-* 'ura' aitzin-zeltarekiko lotura, ilirieraz *dybris* 'itsasoa', eta, beraz, *Kostaldeko Tritium* zatekeen. Orduan, bai erroa eta bai atzizkia zeltak dira».

15: ...*deuales tritino bellunte cingit et decium...*) haya de interpretarse *Deua Tritium Tibolicum attingit o accingit*». Geroagoko beste artikulua batean, Mitxelena berak (1984: 281) zehazten du, gure artean V. eta X. mendeen artean dagoen dokumentazio gabezia aipatzean, «hiato documental» horren bi aldeetan ageri diren izenak elkarrekin gutxitan pareka daitezkeela, eta *Motrico* ematen du etsenplutako.

Albertosek (2004: 261) iturri zaharrek *Motrico*-rekin identifikatu ohi den *Tritium Tiboricum* dakartela dio, baina ez dagoela identifikatze horretarako proba arkeologikorik. Beste gisan, gaineratzen du, *Tritium* autrigoien eta beroien artean errepikatzen den toponimoa da; lehenaz kestione, ustea da *Rodilla* deritzan gainean dagoela, Burgoen, eta bigarrenaren kariaz ez da zalantzarik Errioxako egungo *Tricio* bera dela.

Tovarrek (1954: 17), Schulteni jarraikiz, hiru *Tritium* zeudela dio, bat autrigoien lurretan, beste bat beroienetan eta azkena barduliarrenetan; etimologiaz honela mintzo da: «Se trata de adjetivos derivados del ordinal **tr-tyo-* (o **tri-tyo-*), cf. lat. *tertius*, gót. *thridja*». Ildo beretik, Gorrotxategik (2000a: 146) ueste du Ptolomeok barduliarren artekotzat ematen duen *Τριτιον*, hasiera batean bederen, zeltan oinarriturik azaldu behar dela, **trtio-* ‘hirugarrena’ ordinalean hain justu ere.

Yarzak (2014: 1134–1135) *Trition Toubórikon* Arabako lautadan kokatu behar dela uste du, ez Gipuzkoan. Dena dela, autore honek *Mutriku*-rentzat ematen duen *mutur* ‘punta, extremo, cabo’ + *iri* ‘cerca’ eta *-ko* ‘de’ azalpenak ez du euskarririk, ez dokumentazioan (hasieratik berandu arte *Mo-* dugu, ez *Mu-*), ez euskal toponimian, (aspaldidanik) *-ko* leku genitiboaren hondarkia duen toponimo nagusirik gure artean ez dagoelako.

Hortaz, eta laburbilduz, diogun *Mutriku* toponimoa, duen itxura izanda, segur aski ez dela euskararen ondare zaharrekoa, baina ez dakigu xuxen nondikakoa den. Zernahi gisaz, toponimoa azaltzeko bide bat antroponimikoa izan daiteke, Solin eta Salomiesek (1994: 37) dakartzaten *Botrius*, *Brotius* edo *Brotrius* pertsona izenetatik abia baikaitezke. Aintzat har bedi Tunisian *Secundus Botrianus* dokumentatzen dela, Britania Handian *deo Votri* (datiboan, irudiz), eta Austrian *Phileto Motri filius* (EDH). Atzizkia mendebaldean hain zabaldua den *-ika*-ren (*Gernika*, *Sondika*...) *-iku* aldaera maskulinoa izan daiteke (ikus Salaberri, 2015a: 40–41), hau da, oinarrian *uilla* ez, baizik *fundus*-en moduko bat galdegiten duen eraketa, *(*fundu*) *botricu*, *(*fundu*) *brotricu*, *(*fundu*) *brotricu* edo *(*fundu*) *motricu* ‘Botriusen / Brotiusen / Brotriusen bazterretxea, jabetza’, ‘Motr(i)usen baserria, lurra’. Harrigarria litzateke, dena dela, Euskal Herriko alderdi honetan bereziki, etimoa hori balitz, bokal anaptiktikoa duen aldaerarik sekula ez kausitzea.

HerritarIz.: *mutrikuar*. [mu. trí. ku. a. rá] (Mut-013).

HerritarEz.: *lapazorrixak* (‘*lapa* izeneko moluskuetan dabiltzan zorriak’).

Astigarribia

Udala: Mutriku (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Astigarribia*.

Dok.: (Top.) «...de illo monasterio Sancti Andree apostoli et vocato Stigarrivia inter Bizcahia et Ipuzcua sito» (1080-1086, Ledesma, 1989: 106), «monasterio S. Andree apostoli et vocato Stigarrivia», «monasterio S. Andree apostoli vocato Stigarrivia», «ecclesia S. Andree apostoli in Stigarrivia» (1080-1086, 1091, 1108, Mtez.Dz., 1975: 16, 18, 191; Bar., 1989: 406, 425, 426), *las casas de Astigarribia* (1464-1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 169), *la fóguera de Astigarriiua* (1504, Bar. eta Her., 2005a: 114), «Martin de Astigarriiua morador en Astigarriiua alcaldía de Sayaz» (1518-1520, *ibid.*, 321).

(Antrop.) *Martin Perez de Astigarrivia* (1487, Her., Ach. eta Mo., 1992: 95).

Etخابek (1970 [1607]: 30) Ortelius gogor kritikatzan du, euskal izenak nolana-hika transkribatzen dituelako:

...y ser Abraan Ortelio en nuestro tiempo tan curioso y cuidadoso en geografia, es para reyr la corrupción con que tiene escriptos los nombres de nuestros pueblos; y de manera es que si alguno quisiese buscar â alguno de ellos por los nombres que les tiene puestos, seria imposible allarlos ni conocerlos, y si no pregunten en Guipuzcoa por Antigarrion, si se â de pronunciar Astigarriiua, y por el Ariago, si se llama Elorriaga [...].

Ondoko testigantza batzuk: *Astigarrivia* (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29), *San Andres de Astigarribia* (ai., *ibid.*, 211), «Asimismo tiene dos valles ó barrios llamados Astigarrivia y Mendaro» (*ibid.*, 596), *Valle de Astigarrivia* (López, 1770), *Astigarrivia* (DRAH, I, 1802: 127), *Astigarrivia* (ai., Mad., III, 1847: 49), *Astigarribia* (ba., Nopgui, 1857: 130), *Torre de Astigarribia* (ca.d.l., *ibid.*), «Astigarribia: valle situado en la orilla izquierda del río Deva entre el lugar de Mendaro y villa de Motrico, de cuya jurisdiccion civil depende» (Go., 1862: 67).

Ebak.: [aʃ.tí.ɣa.ra.βi.ʃán] (in.) (Mut-037), [aʃ.tí.ɣa.ri.βi.ʃá] (abs.) (Men-004).

Etimol. Mogelek (1854: 727) honela dio: «Astigarrabia [...] tiene tres radicales: *asti* por *aristi*, robredal; *igarra* ó *igar*, cosa desecada; *ibia*, baja mar. Resulta que Astigarribia significa robledal rebegido (*sic*) ó seco y de baja mar».

Osagaiak *astigar* zuhaitz izena (ikus *Astigarraga* sarrera), *ibi* ‘pausua’, ‘erreka edo ibaia zeharkatzeko egokia den sakontasun gutxiko gunea’ (ikus *Behobia*, *Hondarribia*, *Pausua* eta *Zaldibia* sarrerak) eta *-a* artikulua dira (Mitx., AV, 103 eta 312). Azken hau, nolana-hiko gisan, iharturik dagoela dirudi, ez baita toponimoa deklinatzean kentzen, oker ez bagabiltza.

HerritarIz.: *astigarribiar*.

Mijoa (-a)

Udala: Mutriku (bizt. ent. ber.; auzoa, ibarra).

IzenOfiz.: *Mijoa* (-a).

Dok.: *los caminos de Mixo* (1504, Bar. eta Her., 2005a: 120), *Miroa* (*sic*) (*va.o.ba.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «Hay otros dos valles llamados Mixoa y Olas» (*ibid.*, 596), *Mijoa* (*cabeza del valle*, DRAH, II, 1802: 39), *Mijoa* (*bada.*, Mad., XI, 1848: 413), *Apátégui-mijóa* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 129), *Echerre-mijóa* (*ibid.*), *Mijoa* (*ba.ru.*, Go., 1862: 317).

EuskalOnom.: *Mijona* (Eskoriatzako etxea, 2014, EskM).

EuskalTes.: «*Erreca oec biac, Mijoa deitzen zaion ibar buruan alcargana baturic, amairu errota iringuille legua-laureneco bidastian erabilliric, sartzen dira ichasoa*» (Izt., 1847: 99-100).

Ebak.: [mi.xú.ko] (lek.g.) (Mut-029). *Cfr.* [mi.xó.e.re.ki.à] (abs.) (Mut-023).

Etimol.: Badirudi antrotoponimoa dela, hasmentan segur aski *-ona* bukaera zuena, horren testigantzarik, bertan, ez dagoen arren. Alabaina ere, *Mixoa*-ren bukaerako *-a* jantzi-erantzikoa izateak ez du jatorri deantroponimikoa ikustearen alde egiten.

Zernahi gisaz, besterik ezean eta zalantza anitzekin, *Abitona*, *Aramaiona*, *Larraona*, *Lemona* eta besteren erako toponimoa dela esango dugu, eta elementu osagarriak antroponimoa (*Visius* beharbada; ikus EDH) eta *-ona* atzizkia (*-oa* euskaraz) diratekeela.

Olatz

Udala: Mutriku (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Olatz*.

Dok.: «...*los castaños que tiene en Olayça en compañía con Lope, como ban los castaños cruzados fasta el arroyo de Olayça*» (1483, Bar. eta Her., 2005b: 191), *Olaz* (Gari., III, 1628 [1571]: 8), *Olas* (*va.o.ba.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*Hoy otros dos valles llamados Mixoa y Olas*» (*ibid.*, 596), *Valle de Olas* (López, 1770), *Olas* (*barriada ó valle*, Mad., XII, 1849: 230), *Olas* (*ba.ru.*, Go., 1862: 317).

EuskalOnom.: «...*adentro e el castañal de Olasandio segun esta crusado*» (Mutriku, 1483; Bar. eta Her., 2005b: 132), *Olaz* (Azpeitia, *ca.d.l. y erm.*, Nopgui, 1857: 13), *Olaza* (Lizartza, *ca.d.l.*, *ibid.*, 101), *Olatz* (Nafarroa). Ikus Zaldúa (2015: 387 eta 396-397).

Ebak.: [o.lá.tʂèn] (in.) (Mut-046), [olátʂ] (abs.), [o.lá.tʂà] (adl.) (Men-001).

Etimol.: Osagaiak *ola* 'artzain etxola', 'burdinola' eta *-tz(a)* leku-ugaritasunezko berrekailua ditugu. 1483ko testigantza garrantzi handikoa iruditzen zaigu, toponimo honetan *-itza* eta *-tz(a)* aldizkatzen direla erakusten duelako. Erka bedi Euskal Herrian nahiko hedaturik dagoen *Oteitza*-rekin (*ote* landare izena da azpian dena) eta Nafarroako *Olaitz*, *Olatz* eta *Olatza*(*gutia*)-rekin. Hemen nabarmendu behar da Galar zen-deako *Olatz* (N) herri izena *Olace*, *Olatz* eta *Olayz* lekukotzen dela (Euskaltzaindia, 1990: 150). Ikus *Ormaiztegi* sarreran dioguna.

Oiartzun

IzenOfiz.: *Oiartzun*.

Dok. Mitxelena (1956b: 69) honela dio:

Oiasso(n), *Oiarso(n)*. La referencia más antigua la encontramos en Estrabón (III, 4, 10, 161), donde el *Oidasoína* de los códices ha sido corregido en *Oiasó-na*. Conforme a ella, la población estaba situada junto al Océano, en el confín del país de los vascones y al final de la vía de 2.400 estadios que iba desde Tarraco hasta la frontera entre Aquitania e Iberia.

Lan berean, aitzinxego (1956b: 70), honela jarraitzen du errenteriarrek: «La forma genuina del nombre parece haber sido *Oiarson-*, de que (*sic*) procedería el *Olarson-* de Plinio por una confusión gráfica fácil de explicar. *Oiasso* -obsérvese la *s* geminada- representa una simplificación del grupo de consonantes».

Yarzak (2014: 1120) dakarrenez, Οιασσῶνα akusatiboa darabil Estrabonek, *Oiarsonis* genitiboa eta *Oiarso* (*Olarso* irakurri da, oker, bistan da) nominatiboa Pliniok. Ptolomeok honela dio (*ibid.*): «Ούασκόνων Οιασσῶ πόλις Οιασσῶ ἄκρον Πυρήνης» “baskoien lurraldean Oiasso hiria dago eta Oiasso Pirinioetako mendia”. Erreferentzia hau, hein batean, autore beraren beste pasarte honetan errepikatzen da (*ibid.*): «μετὰ τὸ Οιασσῶ ἄκρωτήριον τῆς Πυρήνης» “Pirinoetako Oiasso mendiaren ondoan”. Irudi duenez, Hondarribiko Higer lurmuturra da delako mendi edo muinoa; Oiartzun toponimoak, antzinatean, Oiartzun, Irun eta Hondarribia harrapatzen zituen, Yarzaren iritzian (*ibid.*), baita Errenteria, Pasaia eta Donostia ere.

XI. mendetik aurrerako testigantzak: (Top.) *Oiarzun* (1007, Mtez.Dz., 1975: 170), *Oiarzum* (1027, Llor., III, 1806-1808: 358), *Oiarzun* (1186-1189, Mtez.Dz., 1975: 4; Bar., 1989: 434), *Ribo de Oyarzum* (1203, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 20), *Huarçon* (1237, *ibid.*, 24), *Iurados de Oyarçu* (1318, *ibid.*, 130), *Conceio de Oyarço*, «...que dizen Orereta [...] mandamos que aya nombre de aqui adelante Villanueva d’Oyarço» (1320, *ibid.*, 143), «Sepades que los arrendadores e los señores de las ferrierias de Oyarçun e Yrun Yran(zu) [...]» (1328, Ayer., Iri. eta S.M., 2012: 1), *Uillanueva de Oyharçu* (1338, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 205), *puerto de Oyarçun* (1339, *ibid.*, 214), *Villanueva d’Oyarçu* (1340, *ibid.*, 220), *Villanueva de Oyarço* (1343, *ibid.*, 240; 1374, *ibid.*, 1996: 71), *Villanueva de Oyarçon* (1384, *ibid.*, 213), *tierra d’Oyarçun* (1396, *ibid.*, 411), «...con proposito de quemar a Oyarçun que Plinio llama el salto / o bosque Olarso [...] los vardulos [...] se pueden llamar olarsos por el vosque Olarso [...] pueblo [...] a quien Estrabon llama Edasu» (Zaldibia, c. 1560: 263 bin.), «...a cinco (leguas) del conocido promontorio Olearso, que es el puntal y cabo de Fuenterrauia» (Gari., I, 1628 [1571]: 73), *Oiaxa, R[io] Doiarcon* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), «Oiarzun. Tres barrios grandes» (lu., Isas., 1850 [1625-26]: 29), «El rio Lezo, que nace á la raiz de la peña de Aya jurisdiccion de Oyarzun, y baja por Renteria al puerto de Pasaje» (*ibid.*, 226), «...vsque ad portum Huars vel Huuiars dictum quod incolae nunc Oiharzun vocant»⁹⁷

⁹⁷ «...Huars edo Huuiars izeneko porturaino, bizilagunek orain Oiharzun deitzen baitute».

(Oihenart, 1992 [1637]: 682), «*nec enim aliqua hic veteris vrbis Oiasij, Oidassunæ aut Easonis vestigia supersunt*»⁹⁸ (*ibid.*, 685), «*Promontorium huic oppido imminens Oiassonem vocat Ptolomæus, adiunctâ vrbe cognomine: At Plinio Olarso est, Martiano verò Cappellæ Iarso. Horum nominum vestigia seruat adhuc pagus Oiarço dictus, duabus leucis Fontarrabia distans: voce autem Oiarço Vāscones rem vel locum syluestrem designant*»⁹⁹ (*ibid.*, 686), «*Bertandegui es río que nace en jurisdicción de Oyarzun y se acaba en la misma jurisdicción antigua para entrar en el mar*» (Larra., 1985 [1754]: 32), *Oyarzun* (*vi.*, río, López, 1770), *Oyarzun* (*rio, va., vi.*, DRAH, II, 1802: 218-219), *Oyarzun* (*vi., va.*, Mad., XII, 1849: 498), *Oyarzun* (*va.*, Go., 1862: 376). Ikus Erreterria.

EuskalOnom.: *Oyarchunenéa* (Zizurkil, ca.d.l., Nopgui, 1857: 92).

EuskalTes.: «*Haren ceina deitzen baita Oiarçun Donostiarainoacan*» (J. Etxeberri Sarakoa, 1907 [1712]: 78; *haran* ‘harana’ behar du), «*Oyarzungo mendietan badira arrobiac, nabarri ederra, eta quisu ona iori ematen dutenac*» (Izt., 1847: 50), «*Oyarzungo mugapean badira meatezac*» (*ibid.*, 64), «*Portu aomen andico oni orain Pasayacoa esaten zaion bezala, anciñæran, alic eta XV-garren eunquida iritsi arterañoco guztian, deitu oicitzaion Oyarzungoa. Batzuc ifini diote ibai oni icen berria Lezo, eta anciñaco izcribuetan arquitzen da esaten zaiola Lezo baino gueiagotan Oyarzun. Eguiazqui bacuscu bada argui eta garbi, ibai au sortzen dala Oyarzungo mugapean munduaren asieratic [...]. Beste gauza gueiago ere Oyarzungo erriac anciñæran beretzat ezagutzen citubanac [...]*» (*ibid.*, 119), «*Etorri ciran Erreterriaraino; erre zuten erri au guztia, bai ta Oyarzungoaren zati bat ere*» (*ibid.*, 302), «*Urruñatik Oyarzungo mendietara jo zun, bere erabateko biltokia Aritxulegin egiteko*» (Orixe, 1985 [1929]: 30), «*Orain Oyarzunen, gero Ernion, dagoeneko Oñatin, dantzatzen zan apaiza*» (*ibid.*, 32), «*etorritzaitz Oyarzunera / emen billatukoituzu*» (Xenpelar, 1931a: 17), «*funziyo eder bat ikusi degu / guk Oyarzungo erriyan*» (Lexoti, 1931: 26), «*Beñere baño alaitsuago / arkitzen da Oyarzunga*», «*Gaur Oyarzunga arkitutzen da / atsegiñez ta gozoro*» (J. Zabaleta, 1932a: 211), «*Aita berriz Oyarzungoa da, / Ondarrabikoa ama*» (Urrutia, 1932: 230), «*Oyarzun, dakartzun monedaz erantzun*», «*Oyarzun, datorren bestean erantzun*», «*Oyarzun, ja ze kaka-usaia dakartzun!*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 147), «*Goiz baten nerekin etorri zan Beasaindik onera, Oiartzuna*» (Uztapide, 1975: 43), «*Horrelakoak dira, esate baterako, Abia deunga dustien abia, RS 387 (eta X, lapur guztien abia diotenak), edo Oiartzun, pareta zarrak erantzun. Bi atalen arteko hoskidetasuna premiazkoa da noski*» (Mitx., 1985: 213-214).

Ebak.: [o.jár.t̥su.nèn] (gen.) (Oia-011), [o.jár.t̥sùn] (abs.), [o.jár.t̥suŋ.gò] (lek.g.) (Oia-020), [o.jár.t̥su.ná] (adl.) (Err-039), [o.jár.t̥suŋ.gu.á] (lek.g. + abs.) (Err-051).

Etimol. Moglek (1854: 725) honela dio: «*Oeaso.- Oea sin articulo oe, y lo mismo oi, significa elevación [...]. Oe.aso, otros asu, escrito segun nuestra pronunciacion.*

⁹⁸ «...ez baita hemen *Oiasio, Oidassuna* edo *Eason* aspaldiko herriaren aztarnarik”.

⁹⁹ «Ptolomeok hiriari hurran den muinoa *Oiasson* deitzen du, ondoko hiriaren izengoitiarekin, baina Pliniok *Olarso*, Martiano Capellak *Iarso*. Izen hauen aztarna atxikitzen du *Oiarço* deritzan lekuak, *Fontarrabia*-tik bi leguatarea baita; euskaldunek, ordea, *Oiarço* hitzarekin gauza edo leku basa izendatzen dute”.

Oe-atso, verbeado en participio de pretérito, significa elevado ó lugar de elevacion, y aunque no esté en elevacion si tiene cerca alguna altura peñascosa».

S. Múgicak (1932: 624) antzinako geografoek, gure hitzak ebakitzeko zuten zailtasunagatik, toponimoa itxuragaizturik eman zigutela dio: *Olarso*, *Olarzon*, *Easo*, *Oeason*, *Oidasuna*, *Oiarsu* eta beste. Garibaik *Olearso* forma hartu eta *Oleasco* ‘burdinola asko’ interpretatu nahi duela ere badio Múgicak, eta azalpena onartzeko erromatarren denboran ere burdinolak anitz zirela pentsatu behar genukeela. Beste azalpen etimologiko batzuk ere eman direla gehitzen du, eta bere ustez jatorria *Oian-so*, *Oiansu* ‘oihan lekua’ dela, euskaraz ohikoa den eta Oiartzungo bereko *Oyarzábal* baserriaren izenean dugun *-n* > *-r* aldaketarekin.

Gorrotxategik eta Lakarrak (2001: 431) *-zu* leku-ugaritasunezko atzizkia dakusate mintzagai dugun leku izenean. Argi eta garbi euskalduntzat har daitezkeen Antzinaroko toponimoak bakanak direla esan ondoan, geografo klasikoen lekukotasunak aipatzen dituzte, eta hondarrean hau gaineratzen: «En cuanto al sentido es muy interesante la referencia de Plinio (4.II0: *a Pyrenaeo per Oceanum Vasconum saltus, Olarso, Vardulorum oppida, Morigi, Menosca, Vesperies...*), ya que puede ser entendida como una glosa: ‘vasconum saltus’ = *oiharzu* < *vasc. oihan* + suf. *zu*».

Salaberrik (2005a: 109, 112), *-tsu*, *-zu* atzizkia duten izenez ihardukitzean, esaten du *Oiartzun*-ek *oihan* (*oihar-*) + *-tsu*, *-zu* + *-un* (lokatiboa) egitura duela, eta hasmentako adiera ‘oihan ugari dagoen lekua’ zatekeela. Cfr. Nafarroako *Beartzun* (Elizondoko auzoa), *Irurtzun* (herria) eta Zestoan 1509an ageri den *Joan de Leyçarçun* (Le. eta b., 2002: 76). Honek daukan arazoa da aipatu azalpena onesteko *oihan*-en *oihar-* aldaera gure aroaren hastapenean bizirik zegoela onartu behar dela.

HerritarIz.: *oiartzuar*. «Orain dala gutxi, berorren soldadu oyartzuar batekin ari nintzan izketan» (Orixe, 1985 [1929]: 56), «Euskaldunen artera pasatzeko baimena eskatu nunnan, eta oiartzuarrekin egon nintxinan andik ara» (*ibid.*, 1987: 88), «Oiartzuarrek Antxo aldian / ez gaituzte nai ikusi» (Zabala, 1992: 315).

Olaberria (-a)

IzenOfiz.: Olaberria.

Dok.: (Top.) «E otrosi que fueron de los sobre dichos el solar d'Oribarr e Çeba¹⁰⁰ e las ruedas de Ybargoençelayn que son de la puente de Yarça e Sant Adrian de la Penna» (1340, Dz.S., 1985: 29), «...Don Beltran Velas de Guevara, sennor de Onnati, para vos e para vuestros herederos, el dicho solar d'Oribarr e Çeba, e las ruedas de Ybargoençelayn, que son de la puente de Yarça e Sant Adrian de la Penna» (1372, *ibid.*, 57), «...collaçiones e anteyglesias de Lazcano e de Çeba»¹⁰¹ (1462, Ayer. eta S.M., 2009: 47), Olaurio (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), «Olaberria. Ceba» (*lu.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), Olaberria (Larra., 1985 [1754]: 94), Olaverria (*pu.*, López, 1770), «Olaberria, concejo de la alcaldía de Azeria» (DRAH, II, 1802: 174), Olaberria (*con.*, Mad., XII, 1849: 226), «Olaberria: concejo del partido judicial de Tolosa, union de Azeria, arciprestazgo mayor, antiguo obispado de Pamplona, llamado antiguamente Zeba» (Go., 1862: 330).

(Antrop.) Garçi Martinez d'Olaberria, Iohan de Olaberria (Segura, 1374; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 57), Garcia Martinez d'Olaberria (1374, Dz.S., 1985: 71), Lope Martinez de Olavarria (segurarra, 1479; Urz., 1990: 357), Lope Martines d'Olaberria¹⁰² (1487, Ayer., 1997: 554), «Juan de Yçequiondo e Domingo de Olaberria, vesinos de la dicha tierra de Aya» (1516, *ibid.*, 575), «Lope Martines de Olaberria, veçino de Segura» (1502-1528, *ibid.*, 578), «Juan Martines de Olaberria, vezino d esta villa» (Segura, 1536; Le. eta b., 2002: 442).

EuskalOnom.: Nafarroan Olaberri izeneko bi herrixka daude, bata Erroibarren (arrain haztegia orain) eta bestea Longidan.

EuskalOnom.: Zeba (Olaberria, etxea eta aurk., 1997, OlaM), Zebazelai (aurk., *ibid.*).

EuskalTes.: «Olaberriko mugape laburrean ere badira iturri onac iori, eta beretatik eguiñeratzen diraden erreca ciztorrac amiltzen dira Lazcaura eta Iurrera» (Izt., 1847: 100), «...Arriaran, eta Gudugarreta, igarotzen da Beasaingo erriaren escui-aldetic; andic laster itsasten zaiozca Aralarco mendi ospatsuan jaiotaco ibai Agauntzacoa, Ataun eta Lazcau igaroric Olaberriko itur-uraquin datorrena escuico aldetic» (*ibid.*, 115), «Olaberria ere joaten giñan» (Uztapide, 1975: 134).

Ebak.: [o.lá.βe.ri.kò] (lek.g.) (Ola-001), [ó.la.βe.rì] (abs.) (Bea-019).

Etimol. Etxabek (1970 [1607]: 57) honela dio, burdina kontuez ari dela: «...que en mi lenguaje nombramos en estas prouincias con *Olea*. Que es herreria, como *Olaçual*, *Olauerria*, *Çuazola*, *Gauiola*, *Mendiola*, *Egurrola*, *Balçola* y *Loiola*, con otros infinitos que seria cansancio referirlos». Beraz, osagai argiak *ola* 'artzain etxola', 'burdinola' izen

¹⁰⁰ Morak (2004: 14) zehazten duenez, Olaberria-k Zeba XV. mendearen bigarren erdian ordezkatu zuen. Zebako San Joan / San Juan de Zeba ere erabiltzen zen, agidanez (*ibid.*, 24-25, 49).

¹⁰¹ Ikus Mora (2004: 24-25, 49).

¹⁰² Olaberriko Yurre burdinolaz mintzo den agiri batean dago.

arrunta, *berri* adjektiboa eta *-a* artikulua dira. Lehenaren inguruan ikus Zaldia (2015: 392-397).

Antzinako *Zeba*, bestalde, hotsez iduritsua den eta jatorri zelta (indoeuroparra betiere) eman izan zaion *Deba*-rekin (ikus) erka daiteke. Aintzat eduki bedi Nafarroan badagoela *-ba* bukaera duen toponimo multxo bat: *Aldaba*, *Arriba* (*Arribe*), *Eslaba*, *Ezkaba*, *Izaba*, *Zalba*... Ez dugu ahantzi behar *Araba*-k ere akabaila bera dukeela, eta Zaragozan, Nafarroako mugan, *Sádaba* herria daukagula. Zeanurin *Arraba* aurkintza dugu (EJ).

HerritarIz.: *olaberritar*.

HerritarEz.: *dotoreak*.

Oñati

IzenOfiz.: Oñati.

Dok.: (Top.) *Oinati* (1149, Mtez.Dz., 1975: 208), *Onnati*, *Onnatte* (1149, Ayer., 1985: 11), *Onati* (1200, *ibid.*, 14), *señor d'Oñat* (1305, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 104), «*ffrontera de Vizcaya e d'Onnate e de Navarra*» (1326, *ibid.*, 150), *tierra d'Onnaty* (1335, *ibid.*, 187), «*don Beltran Vélaz de Gueuara, seynnor de Oynarti*» (*sic*) (1351, Ru.S.P., 1997: 75), «*don Bertran Vélaz de Gueuara, seynnor d'Oynati*» (1355, *ibid.*, 127), *logar d'Onnate* (1388, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 263), «*Otrosi que si los de Labort o Nauarra o Alaua o Oñaty o Aramayona [...] fisieren algunas muerte o muertes o furtos o rouos [...]*» (1451, Her. eta Bar., 2006: 150), «*...se ençerraren o fueren a Alaba ho Vizcaya o Onnati ho Aramayona*» (1457, Le., 2007: 181), «*don Juan Vélez de Guebara, sennor d'Onat*» (1467, Equez. eta b., 1994: 70), «*...monjas del monesterio de Várria en el pleyto que trato con el conçejo e vezinos de Honati*» (1496, Lu. eta Zum., 2001: 87), «*...e dende otro mojon en la sierra de Aumamendi que parte con juridiçion, pareçe, con Alaba e Onnate e Leniz; e dende otro mojon [...] donde parte juridiçion con la dicha Onnaty; e dende otro mojon [...] en sumo de Andartochipia, que parte con Onnaty*» (1497, Le., Cr. eta Lar., 2002: 215-216), «*villas de Vergara o Segura o Onate*» (1533, Le. eta b., 2002: 426), *Oñate* (Gari., II, 1628 [1571]: 333; Oihenart, 1992 [1637]: 682; Larra., 1985 [1754]: 93), *Oñate* (*vi.*, López, 1770), «*Oñate, v[illa] de se[ñ]or[ío] título del condado de su nombre*» (DRAH, II, 1802: 185 eta hurr.), *Oñate* (*vi.*, Mad., XII, 1849: 286; Go., 1862: 332).

(Antrop.) «*Rui Peritz, el fi de Pero Sañç de Onati*» (Egino, 1261; Gar.Ar., 1996: 56), *don Beltran Yuannez de Oniate* (1312, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 144), *Don Beltran Yuannez de Onnate* (1320, *ibid.*), *Martin Diaz d'Onati* (1339, *ibid.*, 213), *Iohan d'Onnati* (Legazpi, 1384; *ibid.*, 1996: 198), *Pero Saes de Honnaty* (1515, Equez. eta b., 1995: 267), *Fauste de Onati* (1598, NEAN, Errege epaimahaiak, 309.509 auzibidea, 168. or.).

EuskalOnom.: (Top.) *Oñactogaiña* (*sic*) (Segura, 1430; Urz., 1990: 354. Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusian), *Oñate* (Gorlizko bas., 1704; Kerexeta, 1992: 141), *Oñatibia* (Azkoitia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 8; Gabiria, *ibid.*, 26), *Oñaticóa* (Eibar, *ibid.*, 119), «*Leiztarrak: los del Valle de Léniz (Oñati-kalian)*» (Izaguirre, 1994: 162), *Oñatibia* (Azkoitiko bas. eta landa), *Oñatibiaaundia* eta *Oñatibiatxikia* (Gabiriako bas.) (EJ).

EuskalTes.: «*Cure banderara oraño / Aios Onatico*» (J. Etxeberri Ziburukoa, 1697: 237), «*Oñatin azeria edo aizaria, aseria edo asaria diote, eta orrela esribitu bear da*» (Kard., 2004 [1761]: 34), «*...berarén consejús etorrize Oñateco Villar* [...] *Oñáten eguinzue vicilecubát pobre labúrr érchia [...] baña lastér itzuli bere Oñateco hermitará*» (Lizarraga, 1994: 268), «*...S. Ignacioren conséjús etorrizé Oñaterá, baita Guipúzcoan [...]. Emancióte Oñatécoe limósnas S. Magdalenarén hermitabát*» (*ibid.*, 521) «*Oñatico mendi andietan arrobi asco dira*» (Izt., 1847: 56), «*Oñatico mendietan arquitzen dira meatzeac, beruna eta burnia ematen dituztenac*» (*ibid.*, 71), «*Oñateco mugape guztia da ur garbi ona iori ematen duten iturriaquin ondo jancia*» (*ibid.*, 100), «*...eta oraindic are gueiagocoa izango litzaque, baldin Oñatico jaun prestuac bezalaco gogoa beste cembait andizquic balute [...]. Lore ta berar erbesteco oec beren*

jaioterrico icenaquin deitzen dituzte Oñatian, euscarazcoric oraindic ez dutelaco» (*ibid.*, 160), «Oñatico baratza batean [...] Oñatico echejaun ondraduac» (*ibid.*, 161), «Oñate aldeco mendietan» (*ibid.*, 194).

Hogeigarren mendeko testigantza batzuk: «Illaren 14garrenean Mañarian sekulako mutil-sailla galduerazi zioten Letonari, ta 15garrenean Oñatin giputzak “Mendigorrako eiztariena” zeritzaion batalloiar» (Orixe, 1985 [1929]: 26), «Santa Kruz Oñatin zegoela jabetu omen zan, Amadeo Bilbaorakoa zala kotxean. Alako batean begiztatu omen zuten kotxe bat, Oñatira ta Elgoibarrera asten dan bidegurutzean [...]. Orain Oyartzunen, gero Ernion, dagoeneko Oñatin, dantzatzen zan apaiza» (*ibid.*, 32), «Oñatiko erriyak, / ta Arantzazurako / kristaban larriyak» (J. J. Sarasola, 1932d: 250-251), «Oñati’k eman zion sallari ezin-aaztuzko asibidea» (Lizardi, 1972 [1934]: 115), «Altuan (garaian) Arantzazu, bajuan (barrenean) Oñati, galanten bila beti oi da ibili. En lo alto Arantzazu, en lo bajo Oñate, siempre se suele andar en busca de hermosas guapas» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 139), «Oñatin txitaa beti oilo»¹⁰³ (*ibid.*, 148), «Ondoan neukanan Oñatiko Jausoro» (Orixe, 1987: 102), «Arantzazun ere izan giñan. An ere Basarriekin izan nintzan. Eta Araozen ere bai. Emen ere Basarriekin. Au ere Oñatiko ballara da» (Uztapide, 1975: 137).

Ebak.: Oñatiñ (in.) (Zegama, Azur., 1997: 167), Oñátikua (lek.g. + abs.) (Hualde eta Beristain, 2017: 68), [o.ná.ti.kò] (lek.g.) (Oña-041), [o.ná.ti.tik] (abl.) (Oña-089), [o.ná.ti.á].de.a] (adl.) (Alg-002), [o.na.tí.tik] (abl.) (Ant-079), [o.ná.ti.kò] (lek.g.) (Egb-041), [o.ná.tin.] (in.) (Ezk-008). Aramaion Ormaetxeak (2006: 205) Oñéti jaso zuen.

Etimol.: Dauzatek (1962: 25) galierak sortutako eraketen artean ematen du *onna* ‘cours d’eau’, ‘ur bidea’, *vara* ‘ibaia’ eta *dubron* ‘ura’-rekin batean. Aipatu *onna* hori, konparaziorako, *Chalannes* toponimoan dago, zein *Cal-onna*-tik atera baita, edo *Ar-onna* jatorri hibridokoan (*ibid.*, 71-72): «*Ar-onna*, Aronde, nom de rivière (eau courante dans deux langues prélatines)». Aitzinago (*ibid.*, 100) honela dio: «Les noms désignant l’eau ou l’eau courante ne sont pas fréquents [...] *Onna*, d’origine obscure, peut-être ligure, qui signifie source et rivière [...] a formé divers noms de rivières». Hitz horrek (*ibid.*, 108) eta *duros*, *magos*, *nemetos*, *ritos* eta bestek elkartuak sortu bide dituzte (hona ekarri ditugunak, kasurako), baina ez omen dira inon ere bakarrik ageri, (Frantziako) toponimian.

Interesgarria da nabarmentzea *onna* hori Pirinioetan (baita Rhône, Saône eta Rhin ibaien arroetan ere) azaltzen den *ar*- ‘ura’, ‘ur lasterra’ erro hidronimikoari lotu zaiola, Dauzaten arabera (*ibid.*, 196), eta *Arga* eta *Aragón* ibai izenak jaio direla.

Mitxelena (AV, 479), *oin* ‘pie’ sarreran honela dio:

Oñaederra, *Oñederra* (*Oynaeder*, 1567). Extraña en este apellido la presencia del artículo, si así debe interpretarse. Un primer elemento *oñ(a)*- se presenta en varios apellidos: *Oña*, *Oñatibia*, *Oñaz*. Quizá tenga aquí el sentido «pie del monte» que Azkue atribuye entre otros a *oin*. Este parece ser el primer elemento de *Oñate*; la dificultad para identificar el

¹⁰³ «Quiere decir que son exagerados».

segundo con *ate*, como últimamente hace M. de Lecuona (Oñate, 1952-1953, 58 ss.), es-triba en que *Oñati* no sólo es la forma popular del topónimo, sino también la oficial antigua, como puede verse en el documento navarro de 1466 que publica F. Arocena en la misma revista.

Corominasek (1960: 110) egungo irlanderrako *on* ‘eau’ eta galierako *onno* ‘ibaia’ aipatzen ditu, Gironako *Onyar* ugalde izenaz mintzatzean. Menéndez Pidalek eta To-varrek (1962: 394), -z bukaera duten izenez dihardutela, Gipuzkoako *Oñaz* hartzen dute ahotan, eta Burgosko *Oña*-rekin eta Probintziako *Oñate*-rekin alderatzeko galdegiten, baina ez dute gehiago sakontzen ez zehazten ere.

Irigoienek (1983: 32 eta hur., 1990: 34-35, 49) *Oñati* Burgosko *Oña*-rekin lotu eta esaten du biak Santillana del Mar-en 980. urtean dokumentatzen den *Onnas* izenarekin (*Onnas Zeziniz*, *Onnas frater*) erlazonaturik daudekeela, alegia, izen bera dukegula hiruretan, atzizkitzat hartzen duen *Onnas*-en amaierako -s kenduz gero behintzat. *Oñati*-n, beraz, *Oña* pertsona izena dukegu eta antroponimoei zenbaitetan itsasten zaion -*ti* berrekailua (*Jaun* → *Jaunti*, adibidez). Bizkaiko onomastikiariak, Mixelenaren etimologia (ikus goraxeago) arbuiatu ondoan, esaten du *Oñaz* onimoa *Oña* izenaren patronimikoa besterik ez dela; oinarriaz kestione, uste du (*h*)*ona* (*on* euskara batuan, txarra edo gaiztoa ez dena alegia) hitzaren palatalizatze adierazkorraren ondorio izan litekeela.

Bestalde, Jimenok dioenez (1995: 89 eta hur.), Nafarroako *Eunate* ermitaren izena *Oñate*-tik atera zen, gero *Unate* bilakatu bazen ere, segur aski -diogu guk- sudurkari aurrean egoteagatik. *Unate* hau, Artaxoakoaren iritzian, *Unatermin* mikrotoponimoan ere badagoke; etimoa antroponimo bihurtutako *ona* adjektiboa eta *ate* izen arrunta dituzkegu (*ibid.*, 90).

Izenaren jatorria, gure irudiko, *onna* izan liteke, sudurkaria bortitz edo geminatutzat hartu eta ez zela busti onesten bada (*fr. capanna* > *cabaña* / *gapana*, *kapana*), baina hau ez dator bat Gipuzkoako *Oñati*-k sudurkari palatalizatua izatearekin, esaterako. Jimenok (*ibid.*, 86) berak dioenez, *Eunate* eliza orain *Robo* deritzan ugaldetik hurbil dago, eta hortaz, alderdi honetatik, arazorik ez legoke etimologia ontzat emateko. Bigarren osagaia, *Unatermin* ere gertu dagoela aintzat harturik, *ate* ‘esatea’ izan liteke. Jimenok nahi zuen eran.

García Ariasen arabera (1981: 288), Asturiasko *Piloña* (*Pialoniam* dokumentazioan) **(ad) pedem illam onniam* besterik ez da, ‘al pie del Oña’, «o si se prefiere plenamente en romance “al pie del río”, dado que *oña* remite, sin lugar a dudas, al nombre prerromano de la corriente de agua convertido en nombre propio una vez que se olvida el sentido primero de la expresión y del que hay sobradas muestras en la toponimia asturiana». Autore berak, ondoko beste lan batean (2005: 20, 179, 198, 201-202), erromatarren aurreko *onna* edo *onno* ‘ugaldea’ (**enna* ere aipatzen du) ematen du Asturiasko toponimo frankoren iturritzat, baina gehitzen du **onna* ‘lizarra’ zeltarekin lotu nahi izan dela.

Hortaz, eta laburtuz, *Oñati* da jatorrizko aldaera eta oraino euskaraz ibiltzen dena. *Oñate* Irigoienek (1990: 46) «vocalismo de evolución románica» deitzen duenaren

fruitua besterik ez da, gaztelaniaz *-i* duen hitzik *-tradizioko* hitzik, maileguak eta alde bat utzirik- ez baitago. Euskal toponimoen bukaerako bokal itxiak irekitzeko joeraz (*-i > -e, -o > -u*) ikus Salaberri (2015a: 33, 408). Etimologiaren kariaz, lehen osagaia *Oña* eta *Oñatz*-en dagoen **oña* hidronimoa izango da ausaz, eta *-ti* beharbada lekua adierazten duen berrekailua, *barruti*, *goiti*, *urruti* eta bestetan dagoena. *Oñatz*-en, bestalde, **oña* hori bera dagoke apika, eta leku-ugaritasunezko *-tz* atzizkia, *Olatz*-en modukoetan azaltzen dena.

HerritarIz.: *oñatiar*. Cfr. [o.ná.ti.a.re.ne.kò] (lek.g.) (Oña-062), *Oñatiarren basoa* (oihana, Aramaio eta Arrasate, EJ).

HerritarEz.: *txantxikuak* ('igelak'). Beharbada ongi dokumentatua dagoen *Santxo*-ren *Santxiko* hipokoristikotik atera dateke (ikus Sala., 2009: 122 eta hur.). *Santxo* > *Txantxo* asimilazioa lekukoturik dago (*ibid.*), baita *-iko* atzizkiaren *-iku* aldaera ere (*Martinicu*). Omaetxebarriak (2016a [1954-1955]: 177-178), dena dela, *Francisco*-ren *Pantxiko*, *Patxiko* hipokoristikoa berriro «hipokoristikotzean» dakusa *Txantxiko*-ren oinarria.

Arantzazu

Udala: Oñati (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Arantzazu*.

Dok.: «...*prior e frayles del monasterio de Nuestra Señora de Arançaçu*», «...*Pedro d'Egibay, el ventero de Arançaçu*» (1500-1520, Zum., 1999: 133, 164), *Arançaçu* (Gari., I, 1628 [1571]: 65), *N. S. de Aranzazu* (*Montes de Aranzazu*, López, 1770), *Aranzazu* («sierra elevada», DRAH, I, 1802: 87), *Aranzazu* (*ai.*, Mad., II, 1845: 447), «*Aranzazu o Iglesia-Basilica*» (*caserío*, Nopgui, 1857: 131), *Aranzazu-erota* (*m.h.*, *ibid.*), «*En la falda de la elevada montaña de Aloña estuvo así mismo el convento de religiosos de Aranzazu*» (Go., 1862: 354).

EuskalOnom.: *Aranzaza* (Zegama, bada., Nopgui, 1857: 16), *Aranzazune* (Oiarzun, ca.d.l., *ibid.*, 54). Arratian *Arantzazu* udalerrria dugu¹⁰⁴.

EuskalTes.: «*Baldin eguiten badezu voto, edo promesa Lezora, Aranzazura joateco, urliarequin gura dezun eran ibiltzeagatic, ez du balio promes onec*» (J. B. Agirre, 1978 [1850], II: 32), «*Beguirra, urliarequin nai bezala ibiltzeagatic eguin ote dezun promesaren bat Lezora, Aranzazura, edo Herniora joateco?*» (*ibid.*, 37), «*Beguirra begui onen batec ecusi ditzan, bidualdu ote ditzuzun alabac, batzuetan Tolosara, besteetan Aranzazura, edo Lezora*» (*ibid.*, 84), «*Ezagutzen dezu urliac itzegin dizula Ermioco gurutzeraco, Lezoraco, Aranzazuraco, Tolosaraco zurequin lasaiquiro ibiltzeco asmoan [...]*» (*ibid.*, 3: 552), «...*errecia pizcor anitz; oen artean indarric andienecoac eta ospatsuenac dira Aranzazucoa, Ubao, Olaberrieta eta Anzuelas-errecia*» (Izt., 1847: 101), «*mormorreta bazebillen, praille sartu ote zan Arantzazun*» (Urruzuno,

¹⁰⁴ Herritar izena: *arantzazuar, arantzazutar*.



Arantzazu

1988: 153), «*Santa Kruzen mutillak nun ziran? Egun artan bertan, Arantzazuko arkaitzetan*» (Orixe, 1985 [1929]: 38), «*Arantzazuko praileak ori?*» (*ibid.*, 1987: 85), «*Zer mendi ederra dan Urbia! An bein izan naiz, Arantzazutik joanda*» (Uztapide, 1975: 59).

Ebak.: *Arántzazu* (Izaguirre, 1994: 55), [a.rán.t̪sa.ʃu.ré] (adl.) (Are-008), [a.rán.t̪sa.ʃu.t̪ik] (abl.), [a.rán.t̪sa.ʃù] (abs.) (Are-035), [a.án.t̪sa.t̪su.kò] (lek.g.), [a.án.t̪sa.ʃu.t̪ik] (abl.) (Azk-036).

Etimol.: Osagai argiak *arantza* landare izena eta *-zu* leku-ugaritasunezko atzikia dira, hau da, hasierako adiera ‘arantza lekua’ zatekeen. Puntu honetan interesgarria da Omae-txebarriak (2016b [1956]: 193) toponimoaren gaineko bere lanean dioena irakurtzea:

...la atención de las gentes se fijó especialmente en el Espino y halló motivos para rebautizar el paraje (lehen eta oraindik orain *Askartza* bide da, inguruko baserrietan, egileak dioenez), llamándolo “Arantzazu” o “lugar del espino”, o, tal vez, “lugar abundante en espinos”, aunque desconfío cada vez más del significado abundancial de no pocos sufijos, aun de algunos que en su origen fueron ciertamente abundanciales, pero que luego se degradaron a la categoría de simples sufijos toponímicos.

Araotz

Udala: Oñati (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Araotz*.

Dok.: (Top.) *vesyndad de Araos*, «...dehesas de Labeaga e Leyçarmendi e Ulençiaga, en las quales tyenen sus suertes Urivarri, Araos [...]» (1489, Zum., 1994: 240), «...en la syerra de en sumo de Araoz» (Aretxabaleta-Eskoriatza, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 215), *Araoz* (ba., López, 1770), *Araoz* (ai. DRAH, I, 1802: 186; *montes de, ibid.*, 360), *Araoz* (ai., Mad., 1845-1850: 22), *Aldecóa de Araoz* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 131), *Beiticóa de Araoz*, *Echeberri de Araoz* (*ibid.*, 132), *Errementaricóa de Araoz*, *Garaicóa de Araoz*, *Goiticóa de Araoz* (*ibid.*, 133), *Araoz* (ba.ex., Go., 1862: 332), «En el término de esta villa hay dos antieglasias; una de ellas en el barrio de Araoz con la advocacion de San Miguel, la otra en el de Urréjola con la de la Anunciación de Nuestra Señora» (*ibid.*, 353).

(Antrop.) *Açena[r] Garçia de Araoz* (1149, Zum., 1994: 8), *Domenjon de Arauz* (donostiarra, 1339; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 215), *Ferrando d'Araoz*, *Iohan Martinez d'Araoz* (Aramaio, 1388; *ibid.*, 1996: 261), *Pedro de Araos*, *Pero Lopes de Araos* (Bergara, 1477; Zum., 1994: 81), «*Pero Ruiz de Araoz, mayor de dias, e Miguel Perez de Mirandaola, San Joan de Araoz*» (Legazpi, 1533; Le. eta b., 2002: 410).

EuskalOnom.: *Araozurrieta-azpicóa* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 131), *Araozko borda*, *Araozko barraka* (Lesaka, Jim. zuz., 1997h: 201), *Araotzurritibeitikoa*, *Araotzurritigoitikoa* (Oñatiko bas., EJ), *Araotz Urruti* (*Araotzurti*) (auzoa, 2009c, OñaM), *Araoztako arratea*, *Araoztako laua* (Oñatiko aurk., *ibid.*).

EuskalTes.: «...bere osaba Pedro Miguel Araozcoari burutara eman cion erri onetacoa jarteco» (Izt., 1847: 485), «*Araotzen geundela, egun batzuetako baimena eskatu nion Lizarragari*» (Orixe, 1985 [1929]: 70), «*Arantzazun ere izan giñan. An ere Basarrirekin izan nintzan. Eta Araozen ere bai. Emen ere Basarrirekin. Au ere Oñatiko ballara da*» (Uztapide, 1975: 137).

Ebak.: *Araotze(r)a* 'a Araoz' (Izaguirre, 1994: 55), [a.a.ó.tʃen] (in.) (Oña-045), [a.á.o.tʃe.rá] (adl.) (Ant-079), [a.á.tʃe.à], [a.ó.tʃe.à] (adl.) (Are-036), [a.ra.ó.tʃen] (in.) (Arr-042).

Etimol.: Honetan *haran* 'ibarra' izenaren elkarketako *ara-* aldaera (Iruñerriko *Ara(t)zuri*-n ere badagoke) eta *hotz* adjektiboa ikusi izan dira (Mdez.P., 1918: 232-234, 1921: 25; Mitx., AV, 69, 512).

Uribarri

Udala: Oñati (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: Uribarri.

Dok.: (Top.) *logar de Uribarry, vezindad de Uribarry* (1444, Zum., 1994: 15), «...en las quales tyenen sus suertes Urivarri, Araos [...]» (1489, *ibid.*, 240), *vezindad de Uribarry* (1500-1520, *ibid.*, 1999: 138), *Uribarri* (DRAH, II, 1802: 186), *Uribarri* (ba., *ibid.*, 413; Mad., XV, 1849: 227; Nopgui, 1857: 135), *Uribarri* (ba.ex., Go., 1862: 332).

(Antrop.) *Martin Ximenes de Uribarri* (oñatiarra, 1390; Cres., Cr. eta Go., 1992: 71).

EuskalOnom.: *Uribarri* (*Ulibarri*, *Ullibarri*) biziki toponimo hedatua da Euskal Herriko mendebaldean; Nafarroako Lana eta Arabako Harana ibarretan hasi eta, Ara-

maio, Oñati eta Arrasaten barna, Arrankudiagaraino iristen da, Lanakoa eta Haranakoa toponimia txikian *Iribarri* zirela edo *Iribarri*-rekin aldizka zitezkeela ikusten bada ere (Sala., 2015a: 251-252).

Ebak.: [u.rí.βa.rín] (in.) (Oña-071), [u.rí.βa.ri.kò] (lek.g.) (Oña-112).

Etimol.: Osagaiak *hiri* ‘herria’, ‘hiribildua’ izenaren eta *berri* adjektiboaren sartaldeko *huri* eta *barri* aldaerak dira. Hots, *Uribarri* Nafarroa Garaiko eta Behereko *Iriberrri*, *Hiriberrri*-ren kidea da, erdarazko *Villanueva*-ren euskarazko ordaina. Balio berekoa da Iruñe ondoko *Villava*, euskaraz orain *Atarrabia* deitzen dena, haren etimoa *Villánova* baita (> **Billáoba* > *Billába*, sudurkaria hasperendu, galdu eta bokal bat-egitea gauzatu eta gero, aspaldixkotik *Villava* idatzia). Ikus Arrasateko *Uribarri*.

Urrexola

Udala: Oñati (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Urrexola*.

Dok.: (Top.) *Urrejola* (1149, Zum., 1994: 2), *Urrexola* (1504, *ibid.*, 1999: 96), «*La vezindad de Urruxola deve [...]. Mas debe la dicha vezindad de Urrexola [...]*» (1513, *ibid.*, 351-352), *vezindad de Urrexola* (1500-1520, *ibid.*, 138), *Urruxola* (Ortelius, 1588, mapa), *Urrejola* (*ai.*, DRAH, II, 1802: 186, 417; Mad., XV, 1849: 233), *Echeberri de Urrejola* (Oñati, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 132), *Urrejola-béitia* (*ibid.*, 136), «...*en el (barrio) de Urréjola con la de la Anunciación de Nuestra Señora*» (*ai.*, Go., 1862: 353), *Urrexola* (Oñatiko auzoa, 2009c, OñaM), *Urrexolabeiti*, *Urrexolagarai* (Oñatiko bas.) (EJ).

(Antrop.) *Pero de Hurrexola* (Aramaio, 1388; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 261), *Martin de Urrexola*, «...*Martin de Urroxola, el moço*» (Bergara, 1477; Zum., 1994: 84), *Martin de Urrexola* (Leintz Gatzaga, 1496; Le. eta b., 2002: 237), *Pedro de Urreçola* (Aretxabaleta, 1497; Le., Cr. eta Lar., 2002: 207).

EuskalOnom.: (Top.) *Urrejolaegui-erdicóa* (Elgeta, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 122), *Urrexola* (Gizaburuagako eta Laukizko bas.), *Urrexola* (Orozkoko auzoa), *Urrexolabeitia*, *Urrexolagoitia* (Orozkoko bas.), *Urrexolagarai*, *Urrexolagaraiabekoa* (Aretxabaletako bas.), *Urrexolatxu* (Laukizko bas.) (EJ).

(Antrop.) *Juan Peres d'Urrexolaegui* (Arrasate, 1390; Cres., Cr. eta Go., 1992: 135), *Juan de Urrexolaegui* (*ibid.*, 1458; Ayer. eta E., 2002: 100).

EuskalTes. Mitxelenak (1964: 71-72) Urrexolako guduaren kantorearen bertsio bat baino gehiago biltzen ditu, eta irakurketa hau proposatzen: «*Gayça çenduan leinz-tarroc Urruxolaco leçayoa, / Sendo çenduan odolori biurtu jaçu gaçatua*».

Ebak.: [u.rú.şu.lan] (in.) (Oña-045), [u.ré.fo.là], [u.ré.fo.la] (abs.) (Are-010), [ur.şú.lan] (in.) (Arr-042).

Etimol. Honela dio Mitxelenak (AV, 589): «*urr(e)itz, urretx* “avellano”: *Urreiceta, Urreizti* [...], *Urrexola* (*Urrejola, Urrejolaegui, Urrixola, Urrexolabeitia*). Una variante **urru(t)z, *urru(t)x* en *Urruzola, Urruzuno*, etc. [...]. *Urrexola*, bien documentado, es el antecedente del *Urruxola* actual». Bigarren osagaia *ola* ‘artzain etxola’, ‘burdinola’ da (*ibid.*, 484).

Irigoienek (1986: 235) Oñatiko toponimoa, *Urrejola* idatzirik, Nafarroako *Urritzola* (*Urrizola*, haren lanean) biekin identifikatzen du, eta gaztelaniara ‘sel de avellanos’ iraultzen. Ondoko beste lan batean (1992: 222-223) Gizaburuaga eta Laukizko *Urrexola* darabil ahotan eta esaten, erdal grafian *Urréjola* bada ere, euskaldunek, *in situ*, *Urrúxolà* ahoskatzen dutela, soinu igurzkariarekin, oinarrian *urretx* ‘hurritza’ egon arren. Igurzkaria du, orobat, baina lepokaria, etorki bereko Azkoitiko *Urruzola*-k. Oñatikoaren irudiak diren Bizkaiko Etxebarriko *Arexola* eta *Arexolondo* (*Áxillondò* ebakia) ere aipatzen ditu Irigoienek (*ibid.*, 221), oinarrian *aretx* ‘haritza’ duten toponimoak.

Ordizia

IzenOfiz.: Ordizia.

Dok.: (Top.) «...fazer una puebla en aquel lugar que dizen Ordicia, a que nos ponemos nombre Villafranca» (1268, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 43), «...porque la puebla que el rey don Alonso, mio padre, e yo mandamos hazer en Villafranca de Guipuzcoa [...]» (1290, *ibid.*, 61), *conçejo de Villafranca* (1304, *ibid.*, 102), *conçejo de Villafranca* (1371, *ibid.*, 1996: 27), «Miguell Martines de Lucusayn procurador de Villafranca» (1390, Dz.S., 1985: 150), *Villafranca* (1396, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 422), *la villa de Villafranca de Guipuzcoa* (1399, Ayer. eta S.M., 2013: 11), *Villafranca de Guipuzcoa*, «...el dicho conçejo de la dicha Villafranca, con todas sus vezindades, es a saber: las collaciones de Legorreta e Ychasondo e Alçaga e Arama e Gaynça e Çaldiiua e Beasayn e Ataun, con los sus vezinos de Lazcano» (1409-1410, *ibid.*, 43, 45), «Juan Ochoa de Ysasaga, vecino de Villafranca de Guipuzcoa» (1502-1528, Ayer., 1997: 587), *La villa de Villafranca* (1510, Her., Ach. eta Mo., 1998: 178), *villa de Villafranca* (1511, Le. eta b., 2002: 303), «...y agora se dize Aralar [...] confina con Nauarra, y cae en jurisdiction y termino de Villafranca, villa de la mesma region de Guipuzcoa» (Gari., I, 1571: 87), «Villa franca, llamada de Guipuzcoa» (*ibid.*, II, 340), *Villafranca* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Villafranca* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29; DRAH, II, 1802: 453; Mad., XVI, 1850: 128; Go., 1862: 609).

(Antrop.) «Martin Çuria de Villafranca e Martin Tricua e otros» (Mutiloa, 1384; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 224).

EuskalTes.: «Ordizia(?) aldeco acha / bego yregui paga» (sic) (XVII. m.; Muru., 1980: 416), «Doctrina Christianaren Explicacio Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguitendan moduan [...] D. Joseph Ochoa de Arinac pueblo onetaco aurray iracasteco. Dedicatcen dio erri ilustre oni cartilla au. Eta Villa Francaco Erriac consagratcen dio bere Patrona Soberana Maria Santissima Assumpciocoari» (Otxoa de Arin, 1713, azala), «Vilafrancon (sic) plazaren erdian dago iturri bat lau chorro burniazcotatic ura iori dariola» (Izt., 1847: 106), «iru erri oec escuitara utziric, eta ezquerrerontz Villafranca» (*ibid.*, 115), «Legorte urtean icusi izan det Villafrancaco mercatuan aza onetatic saltzen arroaca» (*ibid.*, 158), «Beguiragarria izateaz gañera da arrigarria chit, urte guztico asteazquen eta laurembatetan, Villafrancara eta Tolosara Guipuzcoaco errietatic biribillatzen dan cerri gazte saill andien copurua» (*ibid.*, 186), «Gu Ataunen geundela jakitea naikoa izan zuten liberalak, andik Villafrankara usu ta arin aldegitteko» (Orixe, 1985 [1929]: 79), «Ordiziako ardandegi batean arro arro txapelgorri batek: “xixpa onekin oinbeste kali ditut”» (*ibid.*, 1987: 91), «Joakin orrek beste (etxe) bat erosi zuan Billafranka edo Ordizian; ez dakit lenago taberna izango zan ala ez, baña gero taberna ederra jarri zuan. Ordizira joaten giñanean, beti antxe izaten giñan» (Uztapide, 1975: 75), «Billafrankan ere izaten giñan», «Billafrankan edo Ordizian leku geiagotan ere egin izan degu» (*ibid.*, 127).

Ebak.: *Ordiziñ* (in.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 45), *Ordizikokiñ* (lek.g. + soz.) (*ibid.*, 44), [or.đi.şi.á], [or.đi.şja.rà.] (adl.), [or.đi.şi.àn] (in.) (Ord-025), [or.đi.şi.kò] (lek.g.) (Ord-033), [ór.đi.şi] (abs.) (Bea-019), [or.đi.şi.á] (adl.), [or.đi.şin] (in.) (Gtz-001).

Ebak.: [bi.Áa.fraŋ.kàn] (in.) (Aiz-001).

Etimol.: Mitxelena (AV, 303) dio, *Erdocia*, *Erquicia*, *Ordicia* eta beste ukitzen dituenean, *-ia* amaiera ardurakoa dela, «sobre todo en la forma *-(t)zia*». Horiekin batean *Cendoya*, *Zozaya* ere aipatzen ditu, eta gehienetan bukaerako *-a* segur aski artikulua dela gaineratzen (*Zendoia*-z ikus gorago dioguna, lan honetan berean, Azkoitiko *Arrietamendi* aztertzean). *Erquicia*, *Ordicia*, *Ulcia*-ren erakoetan *-tza*, *-tze* atzizkiaren aldaera ere egon litekeela uste du, *-a* artikulua ez ezik.

Errenteriarraren proposamenak, *Ordizia*-ren taldekoei doakienez, arazo bat baino gehiago ditu: ez da, dakigula, afrikatadun aldaerarik inon ere jaso, eta egun *Ordizi* esaten da, Ebak. atalñoan ikus daitekeen gisan, ez **Orditzi(a)*. Gainera, oinarriak ilunak dira, eta ez dago arrazoirik *-tze* edo *-tza* dagoela baiesteko.

Orain urte gutxi argitaratu artikuluan, Yarzak (2015: 376-377) idazten du *Ordizia* toponimoa *Fortunius*-en *Fortunicius* patronimikoaren genitibotik abiatutik esplikatu daitekeela (*Fortunici* > **Ortici* > *Ortiz*), edo, bestela, *Forticius* pertsona izenaren genitiboan oinarri harturik (*Forticii* > **(F)ortici(i)* > *Ortiz*). Dena dela, jarraian **Ortici* genitibo euskaraz *Ordizi* bihurtu zela dio, eta honi *-a* («final en un nombre de villa» edo, Mitxelena nahi duen bezala, euskal artikulua) eratziki zitzaioela. Hirugarren azalpena ere ematen du: toponimoa adjektibo gentiliziotzat hartuko zen, hau da, (*terra*) *Ordizia* ‘Ortiz lurralde’ ulertuko zen. Azkenik, *-rt-* > *-rd-* pausoa azaltzeko *Ortiz* patronimikoaren *Ordiz* aldaera dakar ahotara.

Gure irudiz, badaiteke *Ordizia*-ren oinarrian pertsona izena egotea, *Fortis*-ekin (ikus Kajanto, 1982 [1965]: 257) erlazioa dukeen **Ortisius*-en moduko bat. Aintzat har bedi *Acrius* / *Acrisius*, *Albius* / *Albisius*, *Calvius* / *Calvisius*, *Carius* / *Carisius*, *Ludius* / *Ludisius*... pareak ezagunak direla.

Etimoa, menturaz, **(uilla) ortisiana* ‘Ortisiusen lurra, baserria’ zatekeen, oinarriko izena lekukotuturik ez egoteak laguntzen ez badu ere. Beste oztopo bat, ez txikia gainera, *t*-ren ahosuntzea da, dardarkari azkarraren ondoan euskaraz usaiakoa ez delako, testigantzen bat izanagatik. Gainera, eta hau da hirugarren behaztopa harria, bide honetatik oraingo ezin ditugu *Erdozia* eta *Erkizia* azaldu, eta honek, ezbairik gabe, indarra kentzen dio proposamenari.

Villafraanca-k, ezaguna denez (ikus Marsá, 1960: 641-642; Kintana, 1977: 556; Nieto, 1997: 364; Sala., 2015a: 137-138), Erdi Aroan erregeak ematen zuen zerga beharpenari edo gutzizko librantzari egiten dio aipu. Xedeetako bat jaun feudalei buru egin eta jendea hiri(bildu)etara erakartzea zen, edo, beste alderdi batzuetan (baina ez Gipuzkoan), despopulatutako muga aldeko herrietara bizitzera etorraraztea, aipatu pizgarriak emanik.

HerritarIz.: *ordiziar*.

HerritarEz.: *azak*.

Orendain

IzenOfiz.: *Orendain*.

Dok.: (Top.) *Oriendayn* (1350, González Castro, 2010: 247), *Orendain* (1374, *ibid.*, 50), *Orendayn* (1384, *ibid.*, 47), *collaçion de Orendayn* (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 235), «*dichos lugares de Valliarrayn e Orendayn e Ycaztegueta*» (1390, *ibid.*, 310), *Orendayn* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Orendain* (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Ho-rendayn* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Orendain* (1615, *ibid.*, 673), *Orendain* (vi., Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Orendoin* (*sic*) (vi., López, 1770), «*Orendain, v[illa] de la union de Aizpurua*» (DRAH, II, 1802: 208), *Orendain* (vi., Mad., XII, 1849: 304; Go., 1862: 364).

(Antrop.) *Juan Lopez de Orendain* (Segura, 1401; Urz., 1990: 345), *Doña Catelyna d' Orendayn* (Donostia, 1404; Ayer., 1997: 501).

EuskalOnom.: *ssomo de Orendayn* (Elgoibarko Lasalde, 1345; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 247), *campo de Orendayn* (Urretxu, 1346; *ibid.*, 252), «*...otro mojon de piedra que con su testigo de piedra pusieron e esta en el sel de Orendayn en medio del campo*» (Azkoitia-Azpeitia, 1458; Ayer., 1993: 133), *Orendáin* (Aia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 4). Cf. Nafarroako *Orindain*, *Orendain* herrixka hustua, etimologiari eskaini atalean.

EuskalTes.: «*Orendaingo erriac baditu iturri onac iori*» (Izt., 1847: 102), «*Erri au* (Amezqueta), *Orendain*, *Baliarrain*, *Abalcizqueta* eta *Alzo biac escuirontz lagaric igarotzen da Otsaingo errotaren ondora*» (*ibid.*, 115), «*Orendaiñen ere izaten giñan*» (Uztapide, 1975: 130).

Ebak.: [o.rɛ̃p.da.ɲèn] (in.) (Orn-001), [ó.rɛ̃p.dàjn] (abs.) (Bal-001).

Etimol.: Franko garbi dago etorkiz jabetza adierazten zuten *-ain*-dun toponimoetako bat dugula hau. Jakina den bezala, Zuberoan (*Domintxaine*, *Garindaine*, *Gotaine*, *Ündüreine*) eta Araban ere (*Gardelain* herri hustua, *Agurain*, *Andoin*, *Munain*) badira holakoak, eta orobat Gipuzkoan (*Andoain*), baina ugarienik Nafarroan aurkitzen ditugu (ikus Sala., 2000: 113–117). Akabailak, etorkiak etorki eta zehaztu moduan, 'jabegoa' adierazten du, adibidez *Gardelain* 'Gardeleren etxea, lurra' da, *Garindaine* 'Garindoren bazterretxea, lurra', *Zuriain* 'Zuri(a)ren baserria, jabetza', etab.

Nafarroan *Orindain* eta *Orendain* lekukotzen den herri hustua dugu, esan bezala, Mañeruibarren: *Orindain* (1027, Llor., III, 1806–1808: 357), «*...dono ad illos de Çurindain et ad illos de Muizqui et ad illos de Orindain*» (Lizarra, 1196; Jim. eta Jim., 1998: 36), *Yenegro Mjguel de d'Orendiaynn* (Lizarra, 1335; Ciér. eta Ra., 1996: 92), *Sancho Sanchiz Guoycoa de Oryndeyn*, *Pero Garcia de Orindeyn* (1368, *ibid.*, 129), *Orendayn* (1578, NEAN, Lizarrako pr. 1 bis, M. Estenoz; 1601, *ibid.* 12, P. de Zelaia), *Orendain* (DRAH, II, 1802: 208).

Igurikitzeke da, atzizkia *-ain* jabegokoa bada, oinarria antroponimikoa izatea, Caro Barojak (1945: 84) nahi zuen eran. Autore honen iritzian (*ibid.*, 75) etimoa *Aurentianum* da, baina Mitxelenak egin zion oharraren ondotik *Aurentiani* dela pentsatu beharko dugu, genitiboan dagoen forma. Zernahi gisaz, izen hori ez da ohikoa, eta

egokiagoa dirudi *Aurentius* (Solin eta Salomies, 1994: 28) oinarriko antroponimoari *-anus* atzizkia gehitu zaiola kontu egiteak, genitiboan betiere. Izen horretatik eratortzen du Rohlfsek (1955: 4; izartxoak paratzen dio, alabaina), hain justu, Gers departamenduko Riscle kantonamenduko *Aurensan* herri izena.

Nolanahi ere, azalpenari hobeki datorkio horren *Orentius* aldaera monoptongatua, **Orentiani* alegia (ikus Yarza, 2014: 1136 eta *cf.* *Aurio* eta *Orio* gizon izenak). Beste aukera oinarriko izena *Torentius* (Kajanto, 1982 [1965]: 116; Solin eta Salomies, 1994: 413) izatea da, alegia, *(*uilla*) *torentiani*, baina hau onesteko lehenik disimilazioa izan dela onartu behar da.

HerritarIz.: *orendaindar*.

HerritarEz.: *eltxoak*. «*Orendaindarrak, eltxoak; Zegamatarrak, belaak*» (Azkue, 1989 [1935–1947], III: 143).

Orereta (ikus *Erresteria*)

Orexa

IzenOfiz.: *Orexa*.

Dok.: (Top.) «*Don García de Liçarça abbad de Orexa*» (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 139), *feliglesia de Santa Cruz de Orexa* (1450, Le. eta Ta., 1996: 35), «*conçejos de Liçarça, Gaztelu y Orexa*» (1551, Ayer., 1997: 169), *Orexa* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Oresa* (Ortelius, 1588, mapa), *tierra de Orexa* (1595, Ayer. eta Dz.S., 1996: 639), *Oreja* (lu., Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Oreja* (pu., López, 1770), *Oreja* (lu., DRAH, II, 1802: 208; Mad., XII, 1849: 302; Go., 1862: 363). Mitxelena (1956a: 339) 1331ko *Oressa* aipatzen du (ikus Etimol. atalñoa).

(Antrop.) *Martin d'Orexa* (Getaria, 1397; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), *Joan de Orexa* (Berastegi, 1498; Le. eta Ta., 1996: 105–108), «*Joan de Orexa, portero en la dicha Junta de Tolosa*» (1521, Le. eta b., 2002: 342). Cfr. «*Iohannes Oreça, clericus*» (Lizarra, 1295; Zab., 1997: 220) eta «*Martin d'Erexa, iurado fiel del dicho conçeio*» (Getaria, 1394; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 393).

EuskalOnom.: *Orexaran* (*ferreria*, Orexa, 1473; Ayer., 1997: 169), «*ferron de la ferreria de Orexaran [...] por el agua de Orexaran*» (Berastegi, 1548; *ibid.*, 169), *la herreria de Orexarana* (1551, *ibid.*), «*Orexaran errekazuloa laño zegonan, yakiña*» (Orixe, 1987: 63). Intzan (N) *Orexanea* aurkintza dugu, *Orejarena* 1715ean (Jim. zuz., 1997e: 104).

EuskalTes.: «*Oreja-co mugapean badira iturri garbi guezagozo onac ugari*» (Izt., 1847: 1802), «*Bereala artzen du Iraramendiren ondoan Araxes deitzen zaion ibai Nafarroan jαιο eta Lizartzatic datorrena [...] lagatzen ditubala escuirontz Eldua, Elduayen, Berastegui, Lizarza, Oreja, Gaztelu [...]*» (*ibid.*, 115–116), «*Orixera Pestaburu urtero yoatean ikusten indudan*» (Orixe, 1987: 39), «*Aitona Zimurrok au esan oi zidan: "Orixen etsitzen dunak, ipernuan ere etsiko likek"*» (*ibid.*, 41), «*Ni beti soiñeko berriz yoaten nindunan Orixera*» (*ibid.*), «*Zeru geiago ageri din Orixetik, bai*» (*ibid.*, 43), «*Orixeko Juandagirreneko mutiko bikiak ere ala ditxin: bat gorri, bestea gaztain*» (*ibid.*, 45).

Ebak.: [ó.re.xà] (abs.) (Arm-002), [o.ré.fa.kò] (lek.g.), [o.ré.fân] (in.) (Brb-001), [o.ré.xà] (abs.) (Brs-028), [ó.re.xá] (adl.) (Gaz-001), [o.ré.xa.á] (adl.), [o.ré.xa.tik] (abl.) (Liz-012). «*Gu gazteak giñela, asko joaten giñen Orexa*» (Araitz, Zuazo, 2013: 136).

Etimol. Caro Barojak (1995 [1949]: 61) erdal fonetika historikoaren ikuspuntutik bikaina den etimologia azalpena ematen du: (*villa*) *Aurelia*. Mitxelena (1956a: 339), aldiz, hau dakar: «La etimología *Oreja* (Guip.), pop. *Orexa* < *Aurelia*, propuesta por J. Caro Baroja, ofrece la dificultad accesoria de la monoptongación de *au*. La sorda de la forma popular está apoyada por referencias documentales: *Oressa* (año 1331). Se dan, sin embargo, en el País Vasco los apellidos *Oreja* y *Orella*, que resulta difícil considerar como formas casualmente coincidentes». Lapesak (1972: 12) Caro Barojaren (*villa*) *Aurelia* > *Oreja* bilakaera errepikatzen du, ontzat hartzen du.

Aipatu bilakaerak ez du akatsik gaztelaniaren ikuspuntutik, baina erabat akastuna da, gure irudiko, euskal fonetika historikoarenetik, eta, herria oraindik euskalduna izanik, ez da ulertzen nola izenak erdararen bideak ibili dituen, euskararenak ibili beharrean.

Gure ustez *Oresius* antroponimoa (Solin eta Salomies, 1994: 133; EDHk Kroaziako *Horesius* galdera markarekin aipatzen du, eta Italiako Alpeetako *Foresius* segurutzat ematen) dagoke *Orexa*-ren oinarrian: *(uilla) *oresiana* ‘Oresius izenekoaren bazterretxea, lurra...’ > **oreisana* (kontsonanterdiaren metatesiaren ondorioz) > **Oreixãhã* (bokalerdiak ondoko txistukari apikaria busti eta gero; bokal arteko sudurkari ahula hasperendu egingo zen, galdu aurretik) > **Oreixãhã* > **Orexãã* (kontsonante palatalak aurreko bokalerdi palatala «xurgatu» egingo zuen) > *Orexa* (bokal errepikatuen bat-egitearen ondorioz).

HerritarIz.: *orexar*.

Orio

IzenOfiz.: *Orio*.

Dok.: (Top.) *Orio* (c. 1178, Mtez.Dz., 1975: 26; Bar., 1989: 431), *lugar de Orio, Villarreal de San Nicolas de Orio, braço de mar de Orio* (1379, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 101), *concejo de Horio* (1397, *ibid.*, 435), «*Juan Beltran de Amas, en nonbre del concejo de Orio*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 70), «...*al dueno de la casa d Eleyçondo, vezino de Orio*» (1536, Le. eta b., 2002: 442), «...*y del rio Magrada que es el de la Hurumea; el de Orio dice asi de ellos [...]*» (Zald., c. 1560, 5. atala), «...*otro [rio] que se llama Araxes [...] baxa a la Prouincia de Guipuzcoa, y tocando en las villas de Tolosa y Vsurbil, entra en el Oceano Cantabrico en Orio*» (Gari., I, 1628 [1571]: 73), *Orio* (Ortelius, 1588, mapa), *Orio* (*vi.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29; López, 17), «...*Oceano iuxta Orium vicum immergitur*»¹⁰⁵ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), «*Orio, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, II, 1802: 210), *Orio* (*vi.*, Mad., XII, 1849: 365), «*Orio: villa del partido judicial de San Sebastian, union de Andatzabea*» (Go., 1862: 367).

(Antrop.) «*Miguell Ibañez de Orio, vezino de la dicha Villagrana de Çumaya*» (1379, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 106), *Lope Martinez de Orio* (Getaria, 1393; *ibid.*, 361), «*Domingo de Liçaola, dicho “Orio”*» (Getaria, 1499; Le. eta b., 2002: 248), «*Testigos: Sant Johan de Orio, podador, e Johan de Larunça, pelayre, vezinos de la dicha ciudad d’Estella*» (1526, Ciér. eta Ra., 1996: 273).

EuskalOnom.: *Lope Martinez de Oriomuno* (Segura, 1374; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 58). *Cfr.* *Solar d’Oribarr* (Segura, 1370; *ibid.*, 17, 18), *Oribar*¹⁰⁶, *Oribar-zar* (Aia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 4). Elortzibarren (N) Gipuzkoako izenarekin zerikusia izan lezakeen *Oritz* dugu.

EuskalTes.: «...*irugarrena, aurrenecoagana baturic, sartzen dira irurac Orioco atacan itsasora*» (Izt., 1847: 81), «...*ta Saria esaten zaiotenaquin; azquenengo onec berecitzten du erri au* (Usurbil) *Orio-coagandic [...] eta sartzen dira Orioco ibai andian errira baino lenago*» (*ibid.*, 105), «...*Donostia, Orio, Zarauz, Getaria*» (*ibid.*, 202), «*Usurbillen jetsi bear eta etzan oartu. Oriyora urreratu, eta berriz ere billetia eskatu zioten*» (Urruzuno, 1988: 211), «*Indartsua ta korajetsua / beti izan da Oriyo*» (Zabala, 1992: 304).

Ebak.: *Orion* (in.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 73), [ó.ri.jòn] (in.) (Ori-005), [ó.ri.jò] (abs.) (Aiz-001), [ó.rjó] (abs.) (Alk-001), [ó.ri.dʒo.ku.à] (lek.g. + abs.) (Get-017), [ó.ri.fo.tìk] (abl.), [ó.ri.jòn] (in.) (Mut-013), [ó.ri.jò] (abs.) (Pas-003), [ó.ri.fo.kò] (lek.g.) (Usu-008), [ó.ri.jòn] (in.) (Usu-027).

Etimol. Moglek (1854: 732) *o* eta *u*, bata nahiz bestea, zenbait hitzetan ibiltzen direla dio, partikulariki ‘ura’ adierazteko. «*Asi Orio ó Urio* significan “lugar de agua” por antonomasia. Es muy conocido dicho pueblo por su gran rio y pasaje».

¹⁰⁵ “...itsasoan Orio herriaren ondoan murgiltzen da”.

¹⁰⁶ *Oria* ibaia itsasoratzen den alderdian da.

Mitxelena (AV, 497) hau dakar: «*ori(a): *Oria*, *Oriamuno*, *Ori(b)ar*, *Oribe*, *Orio*, *Oriondo*, *Orizin*. En algún caso (*Oribe*) quizá sea var[iante] de *uri*; no parece, de cualquier modo, que tengan la menor relación con (*h*)ori “amarillo”. Han relacionado *Orio* con *ur* Moguel y Gárate (RIEV 24, 1933, 352)».

Aspaldixko idatzi lanean (Sala., 1997: 32-33), *Orio* deantroponimikoa izan zitekeela aipatu ondoan (*Gorrio* ere bagenekarren), *hori* kolorea ikusi nahiago genuen, bai *Orio* herri izenean eta bai *Oria* ibai izenean ere. Lehenaren akabailan gradu hurbileko -o atzizkia dukegula genioen, eta *Oria*-n berriz gradu urrunekoa dagokeela, egun singularrean daukagun bakarra. Orain, ordea, *Orio*-rentzat eta *Oria*-rentzat (ikus *Lasarte-Oria* sarrera) bide antroponimikoa proposatu behar dela uste dugu.

Italian, Alemanian eta Grezian lekukotzen den *Olius* (Solin eta Salomies, 1994: 131; EDH) izenetik abia gaitzke: *(*fundu*) *olianu* ‘*Olius* izenekoaren lurra...’ > **Oliano* (euskaran sartu zeneko) > **Oriãñõ* > **Oriãfñõ* > **Oriãõ* > *Orio* (erka bedi *Ochandiano* / *Otxandio*-rekin, esaterako, edo euskal aldaera besterik ezagutzen ez dugun *Bakio*, *Derio*, *Lekeitio*, *Zamudio*-rekin). Izen aukerak bat baino gehiago dira, alegia, beste antroponimoren bat ere proposa daiteke oinarritako. Puntu honetan nabarmendu beharra dago *Orio*, *Oria*, *Aurio*, *Auria* pertsona izenak ezagunak zirela gure artean, Erdi Aroan.

Ez dakigu Pliniok aipatzen duen *Morogi* non zen, baina ez dugu uste Yarzak (2014: 1121) proposatzen duen *Morogi* > **Orogi* > **Oroi* > (**Oroio* >) *Orio* segida onar daitekeen, nahiz eta Nafarroako erdigunean *saroe* > *saroi* > *sario*-ren moduko bilakaerak ezagunak diren. Ez, ordea, dakigunez, Gipuzkoan. Nolanahi dela, toponimoa azaldu gabe geldituko litzateke, egiantz gutxikoa iruditzen zaigun bilakaera onarturik ere. Are egiantz gutxiagokoa irizten diogu **Morogia* > **Orogia* > **Oroia* > *Oria* kateari. Ikus *Lasarte-Oria* sarreraren dioguna.

HerritarIz.: *oriotar*.

HerritarEz.: *ijitoak*.

Ormaiztegi

IzenOfiz.: *Ormaiztegi*.

Dok.: (Top.) *vezindat de Ormaztegui* (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 207-208), «...collaçiones de Legazpia e [...] de Hurrmaystegui [...] Hurmaystigui [...] Hormays-tegui» (1387, *ibid.*, 249), *vezindat de Ormaztegui* (1393, *ibid.*, 373), «collaçiones de Legazpia [...] e de Hurrmaystigui» (*ibid.*, 379), «...la parte de Ormaztegui restaba por hazer» (Segura, 1536; Le. eta b., 2002: 440), *Ormasleugi (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Ormaiztegui* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Ormaiztegui (vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 112), *Ormaistegui (vi.*, López, 1770), *Ormaiztegui (vi.*, DRAH, II, 1802: 211; Mad., XII, 1849: 366; Go., 1862: 371).

(Antrop.) *Gomiç Forttuniç de Formaiçttegui* (1013, Hid. eta b., 1988: 2), *Garçia Perez d'Ormaztegui* (Deba, 1391; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 315).

EuskalOnom.: *Ormaztegi* (Eibarko erreka, 2005, EibM).

EuskalTes.: «...eta au Ormaizteguico ondoan beste batequin alcaturic jarraitzen dute biac Oriaco ibai andira, berarequin gorputz bat eguitera» (Izt., 1847: 92), «Ormaizteguico mugapean badira iturri garbi onac, bai ta bi erreca pizcor ere» (*ibid.*, 102), «Lagatzen ere ditu bidasti-aldi batean escuirontz Gaviria, Ezquioga eta Ormaiztegui» (*ibid.*, 113), «Estaziyotik Ormaiztegiira / Ezkiyo non dan galdian», «Zumarragatik beraxiogo, / Ormaiztegitik urrian» (Txirrita, 1931b: 15), «Ormaiztegin ere askotan izan giñan» (Uztapide, 1975: 134).

Ebak.: *Ormazteiti* (abl.) (Zegama, Azur., 1997: 79), [or.máș.tèj̃n] (in.) (Orm-001), [or.máș.tèj̃n] (in.) (Ant-079), [ór.maș.tèj̃] (abs.) (Bea-019), [or.máș.tej̃.à] (adl.) (Gab-004).

Etimol.: Herriak izena gorago dauden sendaiturburuetarik hartu duela dio Mitxelenak (AV, 499), eta irudi luke, beraz, errenteriarren ustean Menéndez Pidalek (1986 [1926]: 216) aipatzen duen *forma* 'ubidea', 'kainua', 'akueduktua'-rekin erlazionatua dagoela. *Forma* horretatik aterako ziren beharbada Arizkungo *Ormarteko erreka* (*Ormartea* Azpilkuetako etxea da), Iturengo *Ormatzako erreka*, Leitzako *Ormakiko erreka*, *Ormaxarko erreka*, eta Saigosko *Ormaingo erreka*, baina hau, jakina, ez da segurua, etorki *horma* 'murrua' izenean ukan dezaketelako. Zernahi gisaz, Espainian **formatia* edo **formacia*-tik irtendako *Hormaza* (eta honen *Hormazuela* txikigarria) hidronimoak badira (Mdez.P., 1986 [1926]: 210-211).

González Rodríguezek (1999: 20) honela dio, Kantabriako toponimiaz mintzatzean: «Dentro ya del estrato latino y romance, las bases latinas *glarea* y *forma* generan los términos *lera* 'cantos de río' y *horma* 'piedra', cuya vigencia apelativa es ya muy débil, y los topónimos Laredo, Lerones, Llerana y Ormas, Hormiguera, Horna, Hornedo». Gure artean *horma* ez da behin ere 'harria' izan, guk dakigula, 'murrua', 'parea' adiera harekin nolabait loturik egonagatik.

Mitxelenak (AV, 499) esaten du *Ormaiztegui*, apika, Pokornyk (2002 [1959]: 133, 144) dakartzan indoeuropar oinarri ez-latinoekin lot litekeela, baina ez du gehiago zehazten. Aipatzen dituen orrialdeengatik irudi du *bher-* «etwa 'aufwallen', von que-

llendem oder siedendem Wasser (auch vom Aufbrausen beim Gähren, Kochen, sowie vom Feuer) ‘sich heftig bewegen’¹⁰⁷ erroarekin lotu behar dela, esan bezala zehaztu gabeko beste aukera batzuk izan arren: Pokornyren *aquae Bormiae* («kelto-ligurisch» ‘zelta-liguriarra’), *Bormō* jainko izena, Hispaniako *Bormāte* leku izena eta *Borma* ibai izena.

Laburtuz, *Ormaiztegi* aipatu *forma* ‘erreka’, ‘murrua’ horren eratorria da, 1013ko (*Gomiç Fortuniç de Formaiçttegui*-k salatzen duen moduan hastapeneko *f-*, beste askotan bezala, hasperen (*h-*) baten adierazle baita. **Horma*-ren ondoan den *-iz-* *Olaitz*-en (< *ola* + *-itz*) dugun atzizki bera dela dirudi, hau da, beste batzuetako *Olatza*-n (*Olatzagutia*) edo *Olatze*-n (gero *Olatz* bihurtu izan da, maiz) ditugun *-tza*, *-tze* leku-ugaritasunezko berrekailuen parekoa dela; akabailan *-egi*, *-tegi* tokizkoa dugu. Aldera bedi Uxueko *Ormaizkieta*-rekin (Sala., 1994: 72-75, 855-856).

HerritarIz.: *ormaiztegiar*.

HerritarEz.: *harrikalariak* (harrikariak).

¹⁰⁷ «Zerbait ‘irakin’, borborka edo irakiten ari den (hala nola hartitzean, kozinatzean eta suan jartzean burbuilaka ari den) uraren bidez ‘modu bortitzean mugitu, astindu’».

Pasaia

IzenOfiz.: *Pasaia*.

Dok.: *El Pasaje* (1328, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 157; 1338, Ayer. eta E., 2008: 3), *Puerto del pasaje* (1374, Elor., 1992: 60), «*Puerto de Pasaje llamado de Oyarçon*» (1374, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 74), «*El puerto del Pasaje que llaman d'Oiarçun*» (1377, *ibid.*, 93), *el Pasaje* (1499, Le. eta b., 2002: 248), «*Villanueva de Oyarçun con el Pasaje*» (1502-1528, Ayer., 1997: 583), «*los dichos conçejos e vniversidades de los dichos lugares del Pasaje e Leço*» (1512, Iri., 2013: 164), «*los dichos pueblos del Pasaje e Leço*» (1513, *ibid.*, 181), *Pasaje*, «*Martin de Trinchet, mayordomo del Pasaje*» (1521, Le. eta b., 2002: 346), *el puerto del pasaje* (Zald., c. 1560: 252 bin.), *el Passaje* (Gari., I, 1628 [1571]: 53), «...y los rios Deua, que en Deua entre en la mar, y Vrola, que en Çumaya, y Araxes, que en Orio, y Menlasco en San Sebastian, y Leço en los Passajes, y Vidaso, en Fuenterrauia» (*ibid.*, 58), *Passajes* (*ibid.*, 341), *Pasase* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), *el Pasaje* (1590, Ayer. eta Dz.S., 1996: 621), «...los puertos de San Sebastian, Pasaje y Guetaria» (Etxabe, 1970 [1607]: 51), «...sacó una nao de guerra francesa [...] y la trujo al puerto del Pasaje» (Isas., 1850 [1625-26]: 240), «*El año de 1570 habiendo ido á Terranova á la pesqueria de pescado bacallao marineros de Lezo y Pasaje [...]*» (*ibid.*), «*Præter santi Sebastiani portum, habet Ipuscua alium egregium Passagij nomine notum*»¹⁰⁸ (Oihenart, 1992 [1637]: 686), *Herrería del Pasaje* (Larra., 1985 [1754]: 33), *Los Pasages* (*pu.*, López, 1770), *Pasages* («*puerto y canal muy celebrados*», DRAH, II, 1802: 241, 306), *Pasajes de España* (*ba.*, Mad., XII, 1849: 707-708), «*el canal de los Pasages hácia Fuenterrabia*», «*natural de Pasage*» (1850, Isastiren lanaren hitzaurre gisakoan, 5 eta 6. or.), «*Por el contexto del privilegio del rey D. Alonso VIII se ha visto que los terminos jurisdiccionales concedidos a Fuenterrabia de poniente a oriente se extendían desde el canal de Pasages hasta el rio Vidasoa. Comprendíanse por consiguiente en ellos los territorios de Irun, Lezo y Pasaje de la parte oriental o sea el barrio de San Juan*» (Go., 1862: 173), «*Pasages [...]* La villa se compone de dos lugares o barrios, que se hallan divididos por la canal y puerto del mismo nombre. El de la parte oriental se llama San Juan, y el de la occidental San Pedro denominaciones tomadas de sus respectivas parroquias de estas advocaciones» (*vi.*, *ibid.*, 398).

EuskalOnom.: *Pasaia* (Hernaniko aurk., *Pasaya*, 1920; Zaldúa, 2012a: 1130), «“*Pasaia*ko Lagun Ederrak” fue el nombre de un conocido equipo de fútbol» (Mitz.: *apud* Villasante, 1972: 65).

EuskalTes.: «*Conde andiorrec / Juntaduditu laster / Donostiaco yrian / Passagen embarcatu / Onci andiac chipiaquin*» (1491 ingurukoa, Otazu, 1975: 44; ikus halaber I. Sarasola, 1983: 77-82), «*Pasaia biac itsas bazterrean daudelaric arquitzen dira iturri on garbi guezagozo anitzequin ondo janciac*» (Izt., 1847: 103), «...eta Lezo escuitara utzirik aurquez-tutzen da Pasaya bien erdian [...]. *Portu aomen andico oni orain Pasayacoa esaten zaion bezala [...]*» (*ibid.*, 119), «*Pasaya bietaco onciteguien eguin izan dirala ontzi andi ospatsu anitz [...]*»

¹⁰⁸ “Donostiako portuaz landara, Gipuzkoak badu beste portu nabarmen bat, *Passage* izenarekin eza-gutzen dena”.

Pasayan eguiña zan» (ibid., 127), «Pasaia biac» (ibid., 202), «Pasayako erritik / dator notiziya [...] Santiago eguna / Pasayan siñale» (Xenpelar, 1932d: 226), «Prenda ederra ori Alkizakua, / Pasayan dago serbitzen» (ibid., 1932e: 264), «Nere nobiya izandu ori / Pasayakua da berez» (Txintxua, 1932: 299), «Ori ola pasa zan, eta urrengo igandean Errenterín treña artu nuan Arriarana joateko, eta Emilio Pasaian sartu zan trenera» (Uztapide, 1975: 26-28), «Horrelatsu darabil Xenpelarrek Pasai Sanjuango zezenak direla eta: Gure Pasaia beti / sonatua dago; / errepñ gabe ezta / urte bat igaro» (Mitx., 1985: 212).

Ebak.: [pásáyà] (abs.) (Elor., 1992: 60), [pá.şaj.ti.kàn] (abl.) (Bil-003), [pa.şá.jàn] (in.) (Mtl-006), [pá.şaj.rà] (adl.) (Oia-011), [pá.şa.jà] (abs.) (Urn-017). Villasantek (1974: 25) esaten du, euskarazko elkartuez ari dela, lehen osagaiak hiru silaba baditu amaierako -a erortzen dela, eta, besteak beste, gure toponimoa hartzen du ahotan: «El nombre vasco de Pasajes es *Pasaia*, con la *a* orgánica, pero en composición es normal que se diga *Pasai San Pedro*, etc.».

Etimol.: Euskarazko izena ezin gaztelaniakoan oinarritu, besteak beste aitzineko [ʃ] edo [x] batetik gure hizkuntzan [j] aterako ez zelako. Aintzat hartu behar da, bestalde, alderdi honetan, Donostian berean bezala, gaskoia berandu arte bizirik egon zela (Gavel, 1918), eta ez dago zalantzarik leku izena hizkuntza horretako hitz batean oinarritu beharra dagoela, hain zuzen *passàdje* ‘passage, defilé [...] action de passer, traversée, voie’ (Palay, 1991: 734) elean.

Toponimoa sortzearen arrazoa badiaren alde batetik bestera txalupaz igaro behar izatean xerkatu behar dela dirudi; DRAHk (II, 1802: 240) honela dio, Pasai San Pedrori doakion sarreratxoan: «...llamado así desde principios del siglo XV, por ser paso ó tránsito para San Sebastian, adonde van a parar todas las mercaderías». Guztiaz ere, aintzat eman behar da S. Múgicak (1923: 12) bildu zituen herriko gaskoiko hitz eta esaldietan *passaje* ageri dela, eta haren iritzian ‘portua’ adiera zuela. Hola balitz, *Pasaia*-ren jatorrizko esanahia ‘portua’ zela pentsatu behar genuke (*ibid.*, 30).

HerritarIz.: *pasaitar*.

Pasai Antxo

Udala: Pasaia (auzoa).

IzenOfiz.: *Pasai Antxo*.

Dok.: *Joanes de Anso* (1587, Elor., 1992: 67), *Casa de Ancho* (1800, *ibid.*, 67), *nuevas murallas de Ancho* (1879, *ibid.*), *el barrio de Ancho* (1895, *ibid.*).

EuskalOnom.: *Anchó* (Altza, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 37), *Anchoene* (Donostia, *ibid.*, 63), *Antxo* (Beasaingo aurk., 2007, BeaM), *Antso* (Urnietako bas., Zaldúa: 2012: 237).

EuskalTes.: «*desgrazi batek Antxon askori / bueltatu ziyon barrena*» (ezezaguna3, 1932: 252), «*Oiartzuarrak Antxo aldian / ez gaituzte nai ikusi*» (Zabala, 1992: 315), «*Pasai Antxon ere izaten giñan*» (Uztapide, 1975: 167).

Ebakera: [án.tjo.á] (adl.) (Lez-059).

Etimol.: *Pasai* osagaiaz ikus bedi *Pasaia* sarrera. *Antxo*-ren etorkia Elortegik bilzen duen *Anso* deituran (euskaraz *Antso* ebakitzen zenean) bilatu beharko dugu. *Antxo*, bestalde, *Antso*-ren aldaera adierazkorra izan da, *Otxoa* *Otsoa*-rena izan den eran, konparaziorako; ez dakigu gaztelaniak eraginik ukan duen *-ts-* > *-tx-* aldaketa horretan. Elortegik (1992: 67) honela azaltzen du: «(Antxo), Etxea. Nahiz eta Antxo etxea Altzako lurretan zegoen berez, bere lursailtako batzu Pasaiaren barruan izan eta auzoari izena eman ziolako sartu dugu hemen». Irigoienek (1992: 195) zuzenean *Santxo*-tik eratorzen du, disimilazioz, baina 1587ko testigantza *Antso* ikustearen alde mintzo da.

HerritarIz.: *antxotar*. «*Antxo'tarrentzat zer esanikan / ez dadukagu batere*» (ezezaguna3, 1932: 252).

Pasai Donibane

Udala: Pasaia (auzoa).

IzenOfiz.: *Pasai Donibane*.

Dok.: «*iglesia parroquial de San Juan de Larrivera*» (1549, Elor., 1992: 44), «*Iglesia del Señor San Joan*» (1555, *ibid.*, 164), «*Pasaje de la parte de Fuenterrabia*» (Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*Al tiempo de las guerras con Francia, el capitan Juanot de Villaviciosa Martisco, natural del Pasaje de la parte de Fuenterrabia hizo dos hazañas con su navio y gente de la tierra*» (*ibid.*, 240), *Pasaje* (DRAH, II, 1802: 241), *Pasajes de Francia* (ba., Mad.,



Pasai Donibane

XII, 1849: 707-708), «*Pasage de la parte oriental o sea el barrio de San Juan*» (Go., 1862: 173), «*barrio de San Juan de Pasages*» (*ibid.*, 174), *San Juan* (lu., ba., *ibid.*, 398), «*La villa de Pasajes, en su barrio de San Juan, padeció así bien por importación de un barco en los años de 1780 y siguiente una enfermedad extraña*» (*ibid.*, 1868, I: 71).

EuskalOnom.: *San Juan de Arri* (1871, mendia eta harria, Elor., 1992, 164), *Sanjuanarri* (egun, *ibid.*), *Sanjuanazuloa* (aurk., egun, *ibid.*).

EuskalTes.: «...eta esquitara lagaric San Juan-goa, eta ezquerrerontz San Pedro-coa, memperatzen zaio itsaso andiari [...]» (Izt., 1847: 119), «*Pasai San Juan da Fuenterrabiya / zian kasikan batera*» (Zabala, 1992: 370), «*ogei eta bat segunduz gero / San Juanguak urrena*» (*ibid.*, 369), «*San Juan'a nuala / zer izan detan*» (Errenteria, P. Zabaleta, 1932b: 143), «*Pasai San Juanen ere izan gera Mitxelena eta biok*» (Uztapide, 1975: 168), «*Horrelatsu dabil Xenpelarrek Pasai Sanjuango zezenak direla eta: Gure Pasaia beti / sonatua dago;/ errepiñ gabe ezta / urte bat igaro*» (Mitx., 1985: 212-213).

Ebak.: [sán.xwán] (abs.) (Pas-003), [san.xwá.nèn] (in.), [sán.xwa.nèn] (in.) (Pas-016).

Etímol.: *Pasai* osagaiaz ikus *Pasaia* sarrera. Herriko elizaren zaindariaren izenean bilatu behar da *San Juan* deizioaren jatorria. *Donibane*, Hegoaldean, Iparraldeko *Donibane Lohizune* eta *Donibane Garazi* toponimo ezagunak eredu harturik hedatu bide da. Berebat gertatu da, konparaziorako, Iruñeko auzo baten izena den *San Juan / Donibane*-ren kasuan.

HerritarIz.: *sanjuandar*. «*Ta berriz ere len bezelaxe / San Juandarrak atzian*» (Zabala, 1992: 369).

Pasai San Pedro

Udala: Pasaia (auzoa).

IzenOfiz.: *Pasai San Pedro*.

Dok.: «*iglesia de San Pedro del Pasage*» (1458, Elor., 1992: 43), «*Pasage de la parte de San Sebastian*» (Isas., 1850 [1625-26]: 29), «...*que estaba en la parte del Pasage de San Sebastian*» (*ibid.*, 239), *Pasage* (DRAH, II, 1802: 240), *San Pedro* (lu., ba., Go., 1862: 398).

EuskalTes.: «...eta esquitara lagaric San Juan-goa, eta ezquerrerontz San Pedro-coa, memperatzen zaio itsaso andiari [...]» (Izt., 1847: 119), «*Pasai San Pedron ere izaten giñan*» (Uztapide, 1975: 167).

Ebak.: [sam.pé.ðrò] (abs.) (Pas-003), [sam.pé.ðro.tik] (abl.) (Don-070).

Etímol.: *Pasai* osagaiaz ikus *Pasaia* sarrera. *San Pedro*-ren arrazoia, berriz, herriko elizaren zaindariaren izenean bilatu behar da. Ohartzekoa da, nolana ere, *San Pedro* ez dela euskarara irauli, ez dela *Done Petri* edo *Donepetri* bilakatu, hain segur ere holako eredurik ez zelako, *Donibane*-rekin agitzen denaz bestera.

HerritarIz.: *sanpedrotar*. «*Estropara ortan San Pedrotarrak / etorri dira aurrena*» (Zabala 1992: 369).

Placencia de las Armas (ikus Soraluze)

Saiatz

Udala: Aiak¹⁰⁹, Beizamak, Goiatzek, Errezilek eta Bidaniak osatzen duten alkaterria. Albiztur ere kide izan zen.

IzenOfiz.: *Saiatz*.

Dok.: «...*Larraun, Araria, Ozcue, Ernani, Seiaz, Titiar* [...]» (1186-1189, Mtez.Dz., 1975: 4; Bar., 1989: 434), «...*Hernani, Zichurchil, Seiaz, Yziaz*» (1186-1193, Lac., 1949: 425; Mtez.Dz., 1975: 209; Bar., 1989: 436), «...*que los omes fijosdalgo de Seas, que es asi tierra de Guipuscoa [...] les mandasemos faser e poblar vna villa en que morasen para nuestro seruiçio en el lugar que llaman Çumaya [...]. Et tenemos por bien que los pobladores e vesinos que poblaran el dicho lugar de Çumaya, [...] antes que poblasen la dicha villa o despues, que son en comarca e termino de Sayas*» (1347, J. Elorza, 2009: 32), *omnes fijosdalgo de Seaz* (1374, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 253), *alcallia de Seaz* (1349, *ibid.*, 263), *vecinos de Seyaz* (1384, *ibid.*, 1996: 194), *alcallia de Seyaz* (1390, *ibid.*, 305), «*alcaldias de Seyaz e de Areria e de Aeztondo*» (1397, *ibid.*, 423), «...*alcaldias de Seyaz e de Areria e de Ayztondo*», «*Yten, Azcoytia e Azpeitia con sus vezindades con la alcaidia de Seyaz*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 47, 63), «...*e el conçejo e ofiçiales e omes buenos de la villa de Santa Crus de Çestona e de los omes buenos, sus vesinos nuebos que son en Seas, en la collaçion de Sant Miguell de Ayçarnaçaua*» (1399, J. Elorza, 2009: 76), «...*los abitantes e moradores de la tierra de Seyas*» (1470, *ibid.*, 124), «...*vesinos de la collaçion e vesindad de Sant Miguel de Ayçarnaçabal e de Seyas e Oyquina*» (1486, *ibid.*, 138), «...*casa de Echabe de suso que es en termino de la tierra de Seyas, juridición de la dicha villa de Çumaya [...] vesinos e moradores de la dicha tierra e universidad de Seyas*» (1491, *ibid.*, 178), «*el conçejo de Çumaya con Oquina e Sayaz*» (1509, *ibid.*, 254), «*Martinez de Areiçaval, vezino de l alcaidia de Areria, e Rodrigo Ruyz de Loyçaran, vezino de l alcaidia de Sayaz*» (1520, Le. eta b., 2002: 335), *La Alcaidia de Saiatz* (Isas., 1850 [1625-26]: 49), *Sayaz (alcaidia mayor, López, 1770)*, *Sayaz (alcaidia, DRAH, II, 1802: 360; Mad., XIII, 1849: 885)*, «*Sayaz: una de las tres alcaldias mayores que en lo antiguo hubo en la provincia, reducida en el día a una mera union*» (Go., 1862: 492).

EuskalOnom.: Aizarnazabalen bada *Seatz*¹¹⁰ biztanle entitate berezia, auzoa (2007, ZumM); alkaterrri nagusiarekin nahasi izan da, eta nahasten da.¹¹¹

EuskalTes.: «...*bere leialtade pin eta serbitzo andien saritzat, eman ciozcaten iru bicildiraco Alcatetza Sayaz-coa, Guipuzcoaco escribani nagusia, eta beste cembait escubide*» (Izt., 1847: 455).

¹⁰⁹ Hau da, Aiak berak, Altzolak, Laurgainek eta Urdanetak.

¹¹⁰ Euskaltzaindiaren EHLIn eta EODAn *Zeatz*. Izen ofiziala: *Saiatz*.

¹¹¹ «Una de ellas (piezas del siglo XIV) se refiere a la sempiterna disputa que durante la etapa medieval mantuvieron los concejos de Zestoia y Zumaia por las colectividades rurales asentadas en su entorno, que genéricamente recibían la denominación de Seatz. Al hilo de este asunto, digamos que este enclave de Seatz siempre ha resultado muy controvertido, porque comúnmente se confunde con la histórica alcaidia mayor de Saiatz, cuando el núcleo de ésta quedaba bastante alejado hacia el interior de la provincia» (J. Elorza, 2009: 1-2).

Etimol.: Dokumentazioko testigantzak ikusirik, aski garbi azaltzen da jatorrizko formak *-eia-* zuela, ez *-aia-*, eta, hortaz, ezin dela esaterako Aragoiko *Sayerrri*-ren parekotasun jo (*sai* ‘putrea’ eta *herri* ‘lurra’; ikus Irig., 1986: 226).

Etimologia guretzat ez da argia, baina alkaterrak sei kide zituenez gero, *sei* zenbakiaren eratorria ikus liteke. Akaberako *-atz* hori *Gesalatz* (cfr. *Gesaltza*) eta *Zabalatz* (cfr. *Zabaltza*) toponimoetan dugun bera izan liteke apika, *-a* artikulua eta leku-ugaritasunezko *-tz* atzizkiak osatutakoa, alegia (Sala., 1997: 28 eta hur.). Eredu toponimiko argirik ez dago, baina badakigu Nafarroako *zendea* latin-erromantzeko *centena*-tik atera dela, erresuma zaharreko *Gendearia* mikrotoponimo historikoa, Iratxekoa, *centenaria* zaharrago baten eratorria dela (Mitx., 1969: 38), *Bortzerriak*, *Bortziriak* ere baditugula, *Laurhibarrea* Garaziko Mendibe herriko toponimoa dela (Géoportail), etab.

San Sebastián (ikus *Donostia*)

Segura

IzenOfiz.: *Segura*.

Dok.: (Top.) «*Los de la mi puebla de Segura sse me enviaron a querellar*» (1290, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 62), *nuestra puebla de Segura* (1290, *ibid.*, 65), *Segura* (1290, Dz.S., 1985: 3), *Eglesia de Ssancta Maria de Ssegura* (1335, Ayer., 1997: 488), *Segura* (1336, Zab., 1998: 191), *la villa de Segura, la villa de Ssegura* (1348, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 260), «*Pero Lopez de Helorça, escriuano del Rey, e Lope Ochoa de Çiuiizquiça, vezinos de Segura*» (1409-1410, Ayer. eta S.M., 2013: 52), *villa de Segura* (1429, Ayer., 1997: 517), *Segura* (Gari., I, 1628 [1571]: 420; Ortelius, 1588, mapa; 1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Segura* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 112), «*Vrola, è montibus Seguræ [...]*»¹¹² (Oihenart, 1992 [1637]: 683), *Segura* (*vi.*, López, 1770; DRAH, II, 1802: 360; Mad., XIV, 1849: 153; Go., 1862: 493).

(Antrop.) *Joan Martines de Segura, «Pedro de Segura, pintor»* (Tolosa, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488).

EuskalOnom.: Cfr. *Segurola* (Aia, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 4) eta *Martin de Segurola* (Astigarraga, 1382; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 180).

EuskalTes.: «*Seguraco erribarruan icusten da iturri leor bat bi chorrorequin*» (Izt., 1847: 103), «*Ibai au (Urola) jaiotzen da Seguraco erriaren mugapean Araia-mendian, Guipuzcoaren güenean, eta Arabaco provinciaren guertuan. Toqui au zan dempora batean Seguraren mugapecoa*» (*ibid.*, 112), «*Santiago egunean Seguraco mercatutic [...]* eta *San Tomas-etan Azpeitian, Seguran eta Mondragoico errian eguiten direanetatic*» (*ibid.*, 186), «*Zumarraga'ko euskal-egun oroigarria, Andoain'goa, Segura'koa, Errenderi'koa, laster Bergara'koa ere ta Otxandio'koa*» (Lizardi, 1972 [1934]: 134), «*Segura, asko il ta gutxi zerura*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 148), «*Lenago urtero-urtero ikustaldi bat egitera joaten nintzan, Segura'tik barrena Oñez*» (Labayen, 1976, II: 73), «*Mutiloara ere joaten giñan. Ara ere Zepairekin joan izan nintzan. Segurako bide-gurutzetik oñez joaten giñan*» (Uztapide, 1975: 134).

Ebak.: *Segurako madura* (Izaguirre, 1994: 22), *Segura* (abs.), *Segurako* (lek.g.) (Zegama, Azur., 1997: 80, 115), [s̺e.γú.ra.ko.à] (lek.g. + abs.) (Ata-006), [s̺e.γú.rà] (abs.) (Bea-019).

Etimol.: Mitxelenak (1976b: 55), beste gai batez diharduela, esaten du modaren aldakuntzek toponimoak antroponimoak baino gutxiago ukitzen dituztela, toki izenak ere modatik libre ez dauden arren. Konparazione, gehitzen du, denbora batean usaia-koak (modaren fruitu) izan ziren *Alegría, Miranda, Mondragón, Monreal, Salvatierra, Segura* hiribildu izenak ugariak dira euskara mintzatu edo mintzatzen den eremuan.

Caro Barojak (1982: 60-61), bide bertsutik, esaten du *Laguardia, Miranda, Mondragón, Salvatierra* eta abar Erdi Aroko garai jakin bateko Europako kultura zabalkundeari zor zaizkiola. Ondoko beste lan batean (1991: 58) honela dio: «También

¹¹² «*Urola, Segurako mendietatik [...]*».

presentan un asentamiento con especiales sentidos de posición, distancia y dirección los pueblos o pueblas mayores fundados en época medieval y que, por lo general, llevan o han llevado nombres castellanos que corresponden a un “estilo” o gusto internacional propio de la época en que se fundaron», eta *Miranda, Salvatierra, Villafranca, Villarreal, Belmonte, Mondragón, Monreal* eta *Segura* hartzen ditu ahotan.

Hortaz, eta laburtuz, *Segura* Erdi Aroko denbora bateko modaren fruitu da; hasierako adiera ‘villa segura’, hots, ‘herri segurua’, ‘hiribildu segurua’ zatekeen.

HerritarIz.: *segurar*.

HerritarEz.: *zopa-jaleak*.

Soraluze

IzenOfiz.: *Soraluze / Placencia de las Armas.*

Dok.: *Marquina de Suso* (Eibar eta Soraluze, 1335; S.Mar., 2000: 36; honela dio Eibarko euskaltzainak: «Placencia de la Armas, que formó villa con los núcleos de Soraluze y Erlaibia, también estaba dentro de Marquina de Suso, mientras que Elgoibar era Marquina de Yuso»), «*Villas de Saluatierra d'Iraurgi e de Plasencia*», «*Villas de Saluatierra d'Iraurgi e de Plasencia*» (1390, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 305), «*Conçejo de Plazencia de Soraluce*» (1397, *ibid.*, 435), *Plazencia* (1509, Le. eta b., 2002: 289), «*Lope Ybannes de Espuru, en nombre del concejo de Plazencia de Soraluce*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 71), «...*Martin Arano de Ariçaga, vecino de Plazencia*» (1521, Le. eta b., 2002: 348), *Plazencia* (Gari., II, 1628 [1571]: 338), *Plazencia* (Ortelius, 1588, mapa), *Placencia* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «*Hic agros vallium Leynzij & Elguete, necnon Vergaræ & Plasenciae vrbium decurrens [...]*»¹¹³ (Oihenart, 1992 [1637]: 682), *Plasencia* (*vi.*, López, 1770), «*Plasencia ó Placencia, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, II, 1802: 259), «*Placencia o Plasencia*» (*vi.*, Mad., XIII, 1849: 76), *Placencia* (*vi.*, Go., 1862: 411 eta 1868, I: 75).

EuskalOnom.: *Soraluce* (Idiazabal, Oñati, *ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 97, 135).

EuskalTes.: «*Placenciaco erriac badauzca bi iturri guertuan chit*» (Izt., 1847: 103), «...*eta igarotzen da Placenciaco erriara*» (*ibid.*, 112), «*Plazentzia'ko Don Antonio / zapateriak azia*», «*Aurten goseak ezin legoke / Plazentzia'ko erria*» (Zabala, 1992: 355), «*Plazentzian ere bai, askotan izan naiz [...]*. Ori Plazentziako ballara bat da» (Uztapide, 1975: 141).

EuskalTes.: «*Tà zuek, Bergara'ko euskeltzale onak, bai-eta Eibar, Arrasate, Oñati, Elgoibar, Soraluze, Azkoiti, Azpeiti ta abarrekoak*» (Lizardi, 1972 [1934]: 119).

Ebak.: [pla.şén.şi.a.rá] (adl.) (Sor-024), [pla.şén.tşja.rà] (adl.) (Ant-041). *Cfr.* Mitxelenaren hau (AV, 403): «ant. *Placencia*, vulgar y mod. *Plencia* (Vizc., el nombre popular de *Placencia* en Guip. es también *Plaentzia*)».

Ebak.: [şo.á.lu.şe.ti.kàn] (abl.), [şo.rá.lu.şe.ku.àk] (lek.g. + abs.), [şo.rá.lu.şèn] (in.) (Esk-036).

Etimol. Corominasek eta Pascualek, hiztegi ezagunean (1989ko edizio eta liburukian), *placer* sarreran (572. or.), honela diote: «*Placemiento* o *Placimientto* ant.; *placencia* se emplearía antiguamente como indican los nombres de lugar de Extremadura y País Vasco (*Plazentzia*, *Plencia*) y el uso que de él hace Axular en vasco: *plazentzia* 'contentamiento'».

Nolanahi ere, Caceresko *Plasencia* eta Bizkai-Gipuzkoetakoak ez dira Iberiar penintsulan dauden bakarrak: Nietok (1997: 284) *Plasencia de Jalón* (Zaragoza), *Plasencia del Monte* (Huesca) eta *Plasenzuela* (Cáceres) aipatzen ditu, baita Italiako *Piacenza* hiri izena ere. *Plasenzuela*-k, diogu guk, *Plasencia* handiagotik bereizteko daramake atzizki txikigarria (*cfr.* Nafarroako *Billaba / Billabeta*, *Larraga / Larrageta*, etab.). García Sán-

¹¹³ «Ibai hau (*Deua*), *Leintz* eta *Elgeta* haranak eta *Vergara* eta *Plasencia* hiriak zeharkatuz [...]».

chezek (2007: 292), Extremadurako *Plasencia*-z mintzo, esaten du izenak berekin ongi izatearen eta atseginaren ideia dakarrela, eta uste dugu horrek Gipuzkoako eta Bizkaiko toponimoentzat ere balio duela.

Soraluze-ren osagaiak, berriz, *soro*-ren elkarketako aldaera den *sora*- izen arrunta eta *luze* adjektiboa dira; hastapeneko adiera ‘soro luzea’ da. Jakina den bezala, *soro* ‘belar soroa’ izan daiteke, baina baita ‘alorra’ ere, lekuaren arabera.

HerritarIz.: *soraluzetar*.

HerritarEz.: *hautx herrikoak* (‘hauts herrikoak’).

Tolosa

IzenOfiz.: *Tolosa*.

Dok.: (Top.) *puebla de Tolosa* (1256, Rol., 1991: 7), «*Los mios pobladores de la mi puebla de Tolosa, que es en Guipuzcoa*» (1256, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 36), *conçeo de Tolossa* (1282, *ibid.*, 54), «...*la puebla que el rey don Alfonso mio padre e yo mandamos ffazer en Tolosa de Guipuzca*» (*sic*) (1290, *ibid.*, 64), *villa de Tolosa de Guipuzcoa* (1319, *ibid.*, 1996: 60), «*Miguelles d'Arbide procurador de la villa de Tolosa e de Villabona e de Alegria*» (1390, Dz.S., 1985: 153), «*Fecha e otorgada fue esta carta de poder, delante la casa de Berasybia, que es en el termino e jurisdiccion de la villa de Tolosa, de Guipuzcoa*» (1409, Ayer. eta S.M., 2013: 39), *villa de Tolosa* (1434, Ayer. eta Dz.S., 1996: 476), «*Anton Martinez d'Elduayn e Anton Goncalvez de Andia, vezinos de la dicha villa de Tolosa*» (1511, Le. eta b., 2002: 318), «*los vezinos de la villa de Tolosa, a la qual los franceses llaman Toloseta, a diferencia de Tolosa de Françia*» (Zaldibia, c. 1560: 261 bin.), «...*otro [rio] que se llama Araxes, cuyo nacimiento es en la Cantabria, en termino del Reyno de Nauarra [...] baxa a la Prouincia de Guipuzcoa, y tocando en las villas de Tolosa y Vsurbil, entra en el Oceano Cantabrico en Orio*» (Gari., I, 1628 [1571]: 73), *Tolosa* (Ortelius, 1588, mapa; 1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Tolosa* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), «...*Alegriam attingit: indêque Tolosam versus procedens [...]*»¹¹⁴ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), *Tolosa* (*vi.*, López, 1770), «*Tolosa, villa principal mas no capital de la provincia de Guipuzcoa*» (DRAH, II, 1802: 378 eta hurr.), *Tolosa* (*vi.*, Mad., XV, 1849: 8-16; Go., 1862: 507).

(Antrop.) *Sancho Martiniz de Tholosa* (1319, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 140), «*don Joan Lopez de Tolosa, en nonbre de la collaçion de Urnieta*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 71).

EuskalOnom.: *Tolosagaztañeta* (Anoetako aurk., 1997, AnoM), *Toloserria* («*Toloserrian, Beterrin, Goierin, zoko guzietan arto ta baba ta gari txeatu zetunan*», Orixe, 1987: 74), *Tolosoro* (Billabona-Amasako aurk., 1994, BilM). Cfr. *Artatolosa* (Billabona-Amasa, ca.d.l., Nopgui, 1857: 106).

EuskalTes.: «*Tolosa aldeco mendia / zeure aguni orria*» (*sic*) (XVII. m.; Muru. 1980: 415), «*Tolosan: Libruguille Don Francisco de la Lama-ren echean*» (Kard., 1816 [1762], hasiera), «*Tolosan: libruguille Francisco de la Lama-ren echean, 1785. urtean*» (Ubillos, 1785, hasiera), «*Tolosan: Andres Gorosabelen moldeteguiian 1850 garren urtean*» (J. B. Agirre, 1978 [1850], II, hasiera), «*Beguira begui onen batec ecusi ditzan, bidaldu ote dituzun alabac, batzuetan Tolosara, besteetan Aranzazura, edo Lezora*» (*ibid.*, 84), «*Ezagutzen dezu urliac itzeguin dizula Ernioco gurutzeraco, Lezoraco, Aranzazuraco, Tolosaraco zurequin lasaiquiuro ibiltzeco asmoan [...]*» (*ibid.*, III: 552), «*Tolosaco mendietan arquitzen dira arrobi asco*» (Izt., 1847: 53), «*Felipe II-garrenaren Erreinaldian asmoa artuzan ibai au Oriarequin bat eguiñic Donostiatic Tolosara urezco ibilbidea ifinteco*» (*ibid.*, 118), «*Icusten da bada arguiroqui Tolosaz*

¹¹⁴ «...*Alegia iristen du, eta hemendik Tolosarantz doa [...]*».

beerontzeco erri eta itsasbazterrecoetan sagarra ta matsa biltzen dala ioriago, goierrietan baino» (ibid., 137), «Apaiz D. Francisco Ignacio de Lardizabal Zaldivia-co beneficiaduac Pamplona-co Obispo Jaunaren baimenarequin. Tolosa-n 1855-garren urtean» (Lardizabal, 1855, azala), «Donostiara etorri zaigu / utzirik bere baztarra / Tolosa bañan goragotikan / Mendiburuko maiztarra» (Otaño, 1931 [1889]: 59), «Bere apaiz lanetan oso begiratuia izan arren, Tolosan zeuden gobernu-mutillai salatu egin zioten, pulpitutik gobernuaren kontra ari zala [...] Tolosako apaiza Orkaiztegi zanak [...]» (Orixe, 1985 [1929]: 21), «iñoiz Alegrira ta / Tolosara juana» (J. J. Sarasola, 1932e: 269), «Ondo zekiñate Tolosan» (Orixe, 1987: 79).

Ebak.: *Tolosa aldea* (adl.) (Zegama, Azur., 1997: 64), *Tolosati* (abl.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 45), [to.ló.șàn] (in.) (Tol-019), [to.ló.șa.ál] (adl.) (Tol-023), [to.ló.șa.đe.ko.à] (lek.g. + abs.) (Alg-002), [tó.lo.șàn] (in.) (Alk-001), [to.ló.șa.kò] (lek.g.) (Alo-003), [to.ló.șa.ti.kàn] (abl.) (Irn-007), [to.ló.șa.tik] (abl.) (Iru-001), [to.ló.șa.kò] (lek.g.) (Ord-033). «*Gue izoa Tolosaa ezkondu huen* 'gure izeba Tolosara ezkondu zuan' (Zuazok Araitzen bildua; 2013: 339).

Etimol.: Moglek (1854: 733) denboran *Iturisa* izan zela dio, *Iturri*za alegia, ongi idazten badugu. Zernahi gisaz, ez dago arras seguru horretaz: «Añadiendo una *I* á Tolosa, sale *Itolosa*, tal vez corrupción de *Iturisa*. Si no es así, es nombre moderno y no vascongado, como tampoco lo son Mondragon, Bilbao, ni San Sebastian».

Gavelen arabera (1931: 40), Gipuzkoako *Tolosa* Okzitaniako *Tolosa*-ren alderako analogiaz sortu zen, Galiziako *Baiona* Lapurdiko hiriburuarekikoaz jaio zen eran. Mitxelena (1956a: 179), herskari ahoskabeez mintzo, esaten du mailegu batzuetan, bes-telako izenetan gertatzen denaz bestera-edo, ahoskabea atxiki dela, segur aski mailegu horiek hizkuntzan berandu sartu direlako, eta *Placencia*, *Plencia* eta *Tolosa* aipatzen ditu, *Cortézubi*-z landara. Hubschmidek (1960: 468) ez dakusa garbi Gipuzkoako *Tolosa* eta *Toletum* (> *Toledo*) erro berekoak direnez; Okzitaniako *Toulouse* eta Bartzelonako *Tolosa* ere aipatzen ditu.

Albertosek (2004: 259), Galiako *Tolosa*-z mintzo dela, esaten du Gipuzkoako toponimoaren testigantza zaharrik ez daukala, baina badela Huesca aldean zegokeen eta bigarren osagaitako *Tolosa* zuen *Labitolosa* leku izenaren dokumentazioa. Uste du *Tol*-erroa Iberiar penintsulako *Toletum* toponimoetan dugun berbera dela, edo, gutxienez, egungo *Toledo*-n eta Lugoko *Toletenses* zirelako izenean dagoena. Huescako *Labitolosa* Antoninoren ibilbidean *Ilerda* eta *Pertusa* artean ageri den *Tolous* hiri edo etxalde bera datekeela pentsatzen du.

Gorrotxategik (2000a: 147) Ptolomeoren lanean *-osa* bukaera edo atzizkia duten hirien xerrenda ematen du, eta esaten hauei *Tolosa* ere gehi dakiekeela. Ikertzaile honen irudiko, toponimo horietako batzuk Gaskoinian eta Pirinioetan agertzen den *-òs* / *-ués* / *-otze* atzizkiarekin loturik egon daitezke. Arazoa da Ptolomeok jasotzen dituen izenetan berrekailuaren lehen bokala *o* dela eta *Tolosa*-rena ere luzea dela, baina Pirinioetako atzizkiak *o* laburra behar duela, diptongatzeko. Eibarko ikertzailearen iritzian konponbidea atzizki hori, latintze prozesu batean, *otiosus*-en moduko adjektiboan *-osus* berrekailura asimilatuta zela onestea da.

HerritarIz.: *tolosar*. [tó.lo.ʃa.rà] (Bel-001). «*Aurrenean esan dedan tolosar aren paperetan eta garbitasunetan irakurri nun aitaren aitortza ori*» (Orixe, 1985 [1929]: 63). Cfr. *Tolosarreena* (Pasaiako etxea, 1754; Elor., 1992: 170).

HerritarEz.: *zuriak, haizeak*. «*Tolosarrak, aizeak*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Aldaba

Udala: Tolosa¹¹⁵ (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Aldaba*.

Dok.: (Top.) *Monte de Aldaba* (1532, Le. eta b., 2002: 393), *Aldaua* (montaña, Gari., I, 1628 [1571]: 209), *Aldaba* (monte, Isas., 1850 [1625-26]: 230-231), *Aldaba* (ba., DRAH, I, 1802: 59), *Aldaba* (ba.ru., Mad., 1845-1850: 16), *Aldaba-zar* (ca.d.l., Nopgui, 1857: 104), «*Los barrios mas importantes de entre los numerados al principio son los de Aldava y Bedayo*» (Go., 1862: 519).

(Antrop.) *Juan Martinez de Aldaba* (1471, Orella, 1983: 166).

EuskalOnom.: «...*Otrosi, qualesquier personas que en Aldabachipia cortaren algun roble para hazer leña, paguen de pena [...]*» (Tolosa, 1532; Le. eta b., 2002: 397), *Aldabaldebarrena* (Abaltzisketa, ca.d.l., Nopgui, 1857: 75), *Aldabalde-goena*, *Aldabalde-Lorenciorena* (*ibid.*), *Aldabaldéa* (Ikaztegieta, *ibid.*, 95), *Aldababaso*, *Aldabatxikimendi* (Alegiako aurk., 1998, AleM), *Aldaba* (Errezilgo aurk., 2000, ErzM), *Aldaba* (Ezkioko aurk., 2015, EzkM). Cfr. *Aldabea* eta *Aldaburu* (Azkoitiko aurk., 2009b, AzkM).

Aldaba Itza zendeako herria ere bada, baita Arakilgo herrixka hustu baten izena ere (1268, Felones, 1982: 657, 682; 1280, Zabalo, 1972: 73), egun Lakuntzako aurkintza (Jim. zuz., 1993a: 93).

EuskalTes.: «*Aldaba-mendian arquitzen dira arcantoin batzuc erpiñ zorrotzac*» (Izt., 1847: 54), «*Aldabaco erroaitzari dautson mendi Madariaga deitzen zaiionaren aldatsean dago izen andico iturri Salubietacoa*» (*ibid.*, 77-78), «*Aldaba deitzen zaiion mendi chunchurrean, Mauriacoan, eta Hernio inguruan*» (*ibid.*, 260).

Ebak.: [a_l.dá.βà], [á_l.da.βà] (abs.), [a_l.dá.βàn], [á_l.da.βàn] (in.) (Tol-028), [á_l.da.βà] (abs.), [á_l.da.βa.tík] (abl.) (Tol-048). Cfr. [a_l.dá.βa.şàr] (abs.) (Tol-028).

Etimol.: Mitxelenaren arabera (AV, 33), badaiteke *alde* 'alboa', 'eskualdea' hitzaren eratorria den *Aldabe* (*Aldape*, *Althabe*) izenarekin zer ikusia izatea; *Aldabalde* eta *Aldabaldetrecu* deiturak ere jasotzen ditu errenteriarrak.

Beste aldetik, *Aldaba*-n *Araba*, *Arraba*, *Arriba*, *Azpa*, *Eslaba*, *Ezkaba*, *Izaba*, *Sadaba*, *Zalba* eta *Zeba*-n (ikus *Olaberria* sarrera) -horietako batzuetan segurik- bide dagoen atzizki edo bukaera bera ere egon daiteke.

¹¹⁵ Tolosak Gaztelako Antso IV.a Ausartari erosi zion Aldaba, 1290. urtean.

Bedaio

Udala: Tolosa (bizt. ent. ber.; auzoa¹¹⁶).

IzenOfiz.: *Bedaio*.

Dok.: *monte de Bedayo* (1340, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 224), «*monte que llaman Vedayo*» (1370, *ibid.*, 1996: 18), «...*ateniendo al termino de Tolosa con el monte de Vedayo, e Aduna e Beotibarr e otros terminos*» (c. 1374–1375, *ibid.*, 85), «*Nuestra Señora de Bedayo, jurisdiccion de Amezqueta*» (*ai.*, Isas., 1850 [1625–26]: 210), *Bedayo* (*ba.*, López, 1770; DRAH, I, 1802: 83; Mad., XV, 1849: 8), *Bedayo* (*ba.*, Go., 1862: 519), «...*desde el paraje llamado Illaraso y alto de Lasturriaga, que divide los términos del barrio de Bedayo con los del Lugar de Azcárate*» (*ibid.*, 1968, I, 51).

EuskalOnom.: *Bedayo-barrena* (*ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 104), *Bedayo-errot*a (*m.h.*, *ibid.*, 104).

EuskalTes.: «*Ai! ez nik bezela egingo ba'lute: bertsotan naiz itz zelaiez, nik barrena yalkitzea, ta Bedaio'rañoko guziak mara-mara yabetzea, guzia bat izaten baita!*» (Lizardi, 1972 [1934]: 79), «*Naparroan galdu zinan aurreku ori, iñoiz izan baldin bada; Gipuzkoan, berri, orri dagozkion bi ingurutxoak; baña Bedaion, Orixen, eta Napar-mugan dantza oso ateratzen zinan*» (Orixe, 1987: 189), «*Esana duk, ba: "Askarate ta Bedaio, alkar ezin eraio!"*» (*ibid.*, 191), «...*Askarateko Sasturain, Bedaioko Xubeldia, Lizartzako Zelagain [...]*» (*ibid.*, 193), «*Sekreta[rio]: Nungotarra zera Jonixio? / Jonixio: Bedaio'koa*» (Labayen, 1976, II, 99–100), «*Orain Bedaioko arri-jasotzallea dago an ostatuarekin*», «*Bedaion ere izan giñan batean*» (Uztapide, 1975: 126).

Ebak.: [be.ðá.jo.á] (*adl.*) (Tol-007), [be.rá.jo] (*abs.*), [be.ðá.jo.kok], [be.rá.jo.kok] (*lek.g. + abs.*) (Alo-003).

Etímol.: Bukaerak antrotoponimo baten aitzinean gabela pentsarazten digu, nahiz honen erdarazko kidea zatekeen **Bedaiano* ez dugun ediren, ez baita harritzeko, Bizkaian konparaziorako *Abadiano* eta *Abadiño*, *Ochandiano* eta *Otxandio* pareak izanik ere, *Bakio*, *Derio*, *Erandio*, *Lekeitio* edo *Zamudio* besterik ez dugulako, dakigunez.

Oinarrian *Bedaius*, *Bedaio* pertsona izena (Delamarre, 2007: 38) dago, hots *(*fundu*) *bedaianu* 'Bedaioaren bazterretxea, lurra' dukegu etorkian. Bilakaera, ondoren, hau izan izango da: **Bedaiano* (euskaran sartu zeneko) > **Bedaiãñõ* > **Bedaiãñõ* > **Bedaiãõ* > **Bedaiao* > *Bedaio*.

HerritarIz.: *bedaiotar*.

Urkizu

Udala: Tolosa (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Urkizu*.

¹¹⁶ Udallerriaren eremutik kanpo dago, Amezketa ondoan.

Dok.: (Top.) *Urquizu azpicoa (casa*, Isas., 1850 [1625–26]: 104), *Urquizu garaicoa (ibid.)*, *Urquizu (ba.*, Mad., XV, 1849: 229), *Echeberri de Urquizu, Eguzquiiza de Urquizu (Tolosa, ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 104), *Iparraguirre de Urquizu (ibid.*, 105), *Urquizu-azpicóa, Urquizu-garaicóa (ibid.*, 106), *Urquizu (ba.*, Go., 1862: 509).

(Antrop.) *Pero Sanchez d'Urquiso* (asteasuarra, 1348; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 256), «...e Domingo de Urquizu Mendizorroz e Domingo de Urquizu» (Tolosa, 1532; Le. eta b., 2002: 368).

EuskalTes.: «Beste bi iturri ere jaiotzen dira toqui berperean, deitzen zaiotenac Lizarraga, ta Artucha; eta urac berecitzen dituzte Urquizuco echadia-ren mugac» (Izt., 1847: 78), «Aralar, Urbietta, Narbaitzu, Agiñegi, Beizamako basoak, Albiztur, Urkizu [...]» (Orixe, 1987: 43), «Espuru gañetik zer ageri din? Beizamako baserri bat, Albiztur, Ermio, Urkizu, Ernialde [...]» (ibid., 64).

EuskalOnom.: *Urquizunéa* (Astigarraga, ca.d.l., Nopgui, 1857: 41), *Urquizuena* (Aretxabaleta, ibid., 113), *Urquizu-chirrinchogúa*, *Urquizu-echeverri*, *Urquizu de Ubernaga* (Eibar, ibid., 116), *Urquizu de Evaristo (taller de armería, ibid.)*, *Urquizu-errota (m.h., ibid.)*, *Urkizu* (Errezilgo bas., 2000, ErzM), *Urkizualdea* (aurk., ibid.). Igorren *Urkizu* auzoa dugu eta Elorrión *Urkizuaran* (BFA).

Ebak.: [ur.kí.ʃu] (abs.), [ur.kí.ʃu.ti.kàn] (abl.) (Tol-012), [ur.kí.ʃun] (in.) (Bid-008).

Etimol.: Osagaiak *urki* zuhaitz izena eta leku-ugaritasunezko *-zu* atzizkia dira, hau da, 'urki lekua', 'urki ugari dauden tokia' dugu.

Urnieta

IzenOfiz.: *Urnieta*.

Dok.: (Top.) *Vnierta (sic)* (1388, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 257), «*don Joan Lopez de Tolosa, en nombre de la collaçion de Urnieta*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 71), *collaçion de Vrnietta* (1397, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 435), *collaçion de Urrieta* (Urnieta, 1402; Ayer., 2015: 779), *lugar de Urnieta* (1418, Her. eta Fdez., 2011: 20), «*Ochoa de Hareysmendi, dicho Ochoalaça, morador en la tierra e collaçion de Sant Miguell de Urrieta, duenno e senmor de la casa, e caseria nueva que agora tengo començada a faser en la dicha tierra e collaçion de Urrieta en el logar que le disen Oyharbide*», «...*otros besinos de la dicha tierra e collaçion de Urrieta*», *Urrieta*, «*tierra e collaçion de Urrieta*» (1429, *ibid.*, 30-31), *collaçion de Urrieta* (1429, Ayer., 2015: 781), «*Joan Peres de Alçusta, por la yda a Hurnieta [...]*» (1521, Le. eta b., 2002: 341), «...*Martin de Lobera, vecino de Hurnieta, que la su casa se le quemó*» (*ibid.*, 351), *tierra de Vrnietta* (1525, Ayer., 2015: 785), *tierra de Hurnieta* (1532, *ibid.*, 787), *tierra de Urnieta* (1540, 1548, *ibid.*, 791), *Uronta (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Urnieta (vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29; López, 1770; DRAH, II, 1802: 414), «*Urnieta, monte de mediana elevacion al ofeste*» y á la vista de la villa de *Urrieta*» (*ibid.*), *Urnieta (vi.*, Mad., XV, 1849: 228; Go., 1862: 561).

(Antrop.) *Miguel de Vrnietta* (Donostia, 1379; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 106), «...*e Pes de Anguelu e Miguel de Urrieta [...] e Martin de Liçardi, capenales (sic) vezinos de la dicha villa de San Sabastian*» (*ibid.*, Her. eta Fdez., 2011: 5-6), «*Martin Perez de Urnieta, en nombre del concejo de la villa de Çarauz*» (Getaria, 1397; Lar. eta Ta., 1993: 71).



Adarrako zabala (Urnieta)

EuskalOnom.: *Cfr. Urnobietako gaina* (Mendaroko aurk., 2003, MenM).

EuskalTes.: «Urnietan ere badute cara-arri bicañenecotic naico guztia» (Izt., 1847: 52), «Urnietaco mugapean icusten dira aimbeste iturri eder guezagozo, ezic ez daquit arquite ote li-tequean erri guztian baserri-eche bat bacarra ere bere iturri jaquiña baguecoric» (*ibid.*, 104), «(Urumea) Urnietaco erriari bidasti-aldi batean aldonduric jachitzen da Hernanira» (*ibid.*, 117), «Pijo, pijo esateko ere ez nago, baiña... Urnietan jaio ote nintzan...» (Urruzuno, 1988: 99), «Illaren irugarrena zan. Apaiza bere mutillekin Urnietara jetxi zan, eta baita aren atzetik Arana liberala ere» (Orixe, 1985 [1929]: 39), «Migel Deunetan Urnieta-ra / hurrengo erro-meriya» (ezezaguna4, 1932: 304).

Ebak.: Zalduak (2012: 384) biltzen duenez, *Urnieta* forma erabiltzen da usaian ([úrnetjá] abs., [úrnetatik], abl.), nahiz eta *-i + -eta > -ita* laburtzearen lekuko den *Urnieta* ([úrnitá], [urníta] abs. / [úrnitàn] in.) jasota egon. Beste testigantza batzuk: [úr.nje.tàn] (in.) (Urn-009), [ur.nje.tá.ku.à] (lek.g. + abs.) (Urn-017) (Urn-033), [úr.nje.ta.kò] (lek.g.) (And-063), [úr.nje.tá] (adl.) (Bil-029).

Etimol. DRAHk (II, 1802: 414) hau dakar *Urnieta* sarreran: «Los rios Oria y Uru-me, que fecundan su jurisdiccion, la proveen con abundancia de barbos, truchas, salmones, salmonetes y otros peces. Esta copia de aguas hace verosímil el origen de la voz Urnieta, que algunos miran como corrupta de Uroneta, que significa lugar de buenas aguas».

Iztuetak (1847: 104–105) azalpen horren antzekoa jasotzen du: «Iturri oetatic eguiñeraten dira erreca ciztor asco, eta beretatic dator Urnietaren icena. Anciñaeran deitu oicitzaion erri oni *Ur-oneta*, bere mugapean iturri onac eta asco cituelaco. Orain ere alaishen bear litzaioque esan leguez ta bidez, baldin dempora doatsu artaco euscaldunac bezin maite oraingoac balute beren itzcuntz gozoa».

Gure garaian, Mitxelenak (AV, 235, 586) dio bukaeran pluraltasuna adierazten duen *-eta* atzizkia daukagula, baina, hasieran esan zuenaren kontra (*ibid.*, 174), ez du uste oinarrian *burdina* dagoenik, honen elkarketako aldaera beti *burdin-* delako. Zernahi gisaz, eta azalpenik ematen ez duen arren, Nafarroako *Urniza*-rekin batean aipatzen du, ez baita harritzeko, biek, itxuraz bederik, **urni-* oinarri ezezagun bera baitute. Atzizkiak bana dira, hori bai: *-eta* leku-ugaritasunezkoa dugu *Urnieta*-n eta balio bertuko *-tza Urniza*-n, edo zehazkiago litzateke apika *-za* aldaera dagoela esatea, *Ekiza*-n edo *Gorza*-n (N) duguna, kasurako. Aipatu oinarria Aian erreka baten ondo-ondoan dagoen *Urniola* baserri izenean ere ageri bide da (*ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 5).

Zalduak (2012: 384), berriz, *Urnieta*-ren azpian apika **Urneeta* dagokeela uste du, eta *-ieta* segmentua *-eeta*-tik atera datekeela (*cfr. Ibiltzieta* < **Ubiltzieta* [*Hwilcieta* idatzirik, 1268an] < **Ubiltzeeta*), disimilazioz antza, baina ez du zehazten **urne* hori zer den eta, egoera horretan, irudi du egokiena dela, beste daturik ez daukagun bitartean, **urni* ezezaguna dugula pentsatzea, *Urniza*-n eta apika *Urniola*-n dagoen bera. Diogun, atalño honi etsia emateko, agirietan garbi ikusten dela goizdanik *Urnieta* > *Urrieta* asimilazioa gauzatu zela, *Fernando* > *Ferrando* pertsona izenean burutu den berbera, konparaziorako.

HerritarIz.: *urnietar*.

Urretxu

IzenOfiz.: *Urretxu*.

Dok.: «...para que poblades e podades poblar vna villa en nuestras tierras de Hurreyçua, que es en Guipuzcua [...]. Otrosi tenemos por bien que aya nombre Villarreal» (1383, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 187; *cf.* Ayer. eta S.M., 2009: 14), *Villarreal d'Urrechua* (1383, 1385, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 190, 245), *Villarreal de Hurreçu* (1387, *ibid.*, 251), *Villarreal d'Urrechua* (1390, Dz.S., 1985: 152), «las villas de Segura e Vergara e Elgueta e Leniz y Villareal de Urrechu» (1497-1519, Zum., 1999: 52), *Villarreal* (Tolosa, 1521; Le. eta b., 2002: 345), *Vrrechua*, *Villa Real* (Gari., II, 1628 [1571]: 339), *Ville real* (Ortelius, 1588, mapa), *Villarreal de Urrechu* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 115), *Villarreal* (*vi.*, López, 1770), «*Villareal, v[illa] de la pr[ovincia] de Guipuzcoa*» (DRAH, II, 1802: 457), *Villarreal* (*vi.*, Mad., XVI, 1850: 255), «*Villarreal [...] conocida antiguamente con el aditamento de Urrechua*» (*vi.*, Go., 1862: 621).

EuskalOnom.: «*la ermyta de Urrechua*» (Arrasate, 1447; Orma., 1996: 410), «*una pieca de tierra labrradia en el partido de Urrechua*» (*ibid.*, 1475; Cres., Cr., Go. eta Le., 1996: 448), *Urretxu* gaur egun (Orma., 1996: 411), *Urretxuarroa* (Arrasateko aurk., *ibid.*), *Urretxutxiki* (*ibid.*, 210), *Urresua* (Ataungo auzoa, Mad., XV, 1849: 233).

EuskalTes.: «*Villar[r]eal de Urrechu, beti guerrea darraiçu*» (Gari., 1854 [XVI. m.]: 639), «*Villaerrealen au guertatu zan [...]*» (Kard., 1882: 251), «*Villaerreal-en bertan*» (*ibid.*, 252), «*Villarealco mendi goititu Irimo icendatuan*» (Izt., 1847: 58), «*Villarealco erri ingurua eta baserri-echeetan badira ur garbi ona ematen duten iturri guezagozoac*» (*ibid.*, 106), «...*eta guero dator Zumarraga Villa-errealatara [...]. Zumarraga guelditzen da escuitara, eta ezquerre-rontz Villa-erreal*» (*ibid.*, 113), «*Eta guztien gañecoa da Santa Lucia egunean Zumarraga Villa-errealatara batutzen dan zamari chiqui oetaco samalda andia*» (*ibid.*, 184), «*Bai, bai. Urretxun ez daude aztuta*» (Labayen, 1976, II: 135), «*Nungo izango da ba... Billarrial Urrutxukoa!*» (*ibid.*, 138), «*Billarrealen ere bai, frontoian, askotan izan naiz [...]. Agiñeta ballaran ere bai, izanda nago. Ori ere Billarrealco partekoa da*» (Uztapide, 1975: 136), «*Kandido Izagirre Salaberria, Urretxuan jaio zan, Ipenarrieta-torrea deritzaion etxe famatuan*» (Villasante, *apud* Izaguirre, 1994: 25).

Ebak.: [u.ré.tjùn] (in.) (Urr-027), [u.ré.tju.kò] (lek.g.) (Mtl-006), [u.ré.tjun] (in.) (Zmg-037).

Etimol.: Garibai izan zen, dakigunez, toponimoaren azalpena ematen saiatu zen lehena, gorago aipatu «*Villar[r]eal de Urrechu, beti guerrea darraiçu*» atsoitzaren kariaz. Honela dio (Urkixo, 1919: 28): «Porque la villa de Villa real de Urrechua, que quiere dezir *villa real del avellano*, tuvo en un tiempo muchos debates y pleytos con las tierras sus circunvezinas».

Mitxelenak (AV, 589, 622) *urr(e)itz*, *urretx* 'hurritza' zuhaitz izena eta ugaritasu-nezko *-zu* atzizkia dakuski *Urretxu*-n, eta gu ados gaude iritzi horrekin. Ikusten den moldean, hasiera hartan *-a* artikulua zeraman edo eraman zezakeen, ez baita harritzeko, *-zu* duten leku izenetan. Hastapeneko *h-* etimologikoa izan zitekeen, ebakitzen zena,

baina <u> eta <v> berdin(tsu) idazten baitziren, badaiteke *h*-ren xedea ondoko soinua bokalikoa zela adieraztea izatea.

HerritarIz.: *urretxuar*. «*Baña urretxuar orik beti pesta ipintzeko konporme*» (Labayen, 1976, II: 138).

HerritarEz.: *otamotz* ('ote motz').

Usurbil

IzenOfiz.: *Usurbil*.

Dok.: (Top.) «*La dicha colacion de San Salvador de Usurbil, que fagades puebla e villa cercada [...] e que haya nombre Belmonte de Usurbil*» (1371, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 21), «*Iohan Ochoa d'Ameceta procurador de las villas de Sant Savestian e de Hernani e de Velmont d'Usurbil*» (1390, Dz.S., 1985: 152), «*Joan Perez de Lasarte e Ochoa de Paris en nonbre de Belmonte de Usurbill*» (1397, Lar. eta Ta., 1993: 70), «*Miguell Martines d'Urdayaga, besino de Usurbill*» (1404, Ayer., 1997: 502), «*Villagrana de Çumaya e Belmonte de Usurbill e Santa Crus de Çestona*» (1417, *ibid.*, 1993: 85), «*Miguel de Olaria, vezino de Usurvill*» (1475, Ayer. eta Dz.S., 1996: 494), «*Gonçalo de Soroa, veçino de Usurbil*» (1502–1528, Ayer., 1997: 591), «*Joan de Saroe, vecino de Usurbil*» (1521, Le. eta b., 2002: 351), *Usurbil* (vi., 1554, Ayer., 1997: 645), *Usurbil* (Gari., I, 1628 [1571]: 73), *Usurvill* (Ortelius, 1588, mapa), *Usurbil* (vi., 1617, Ayer., 2015: 880; Isas., 1850 [1625–26]: 29), «*Usurbil alias Belmonte*» (vi., López, 1770), *Usurbil* (vi., DRAH, II, 1802: 421; Mad., XV, 1849: 238–239), «*Usurbil [...]. Su territorio comprende los barrios de Elizalde, Belmonte o Usurbizarra, Aguinaga, Urdayaga, y parte de Zubieta*» (vi., Go., 1862: 573).

(Antrop.) *Tomas de Usurbil* (Tolosa, 1539; Le. eta b., 2002: 459).

EuskalOnom.: *Usurbilzarra* (Usurbilgo auzoa, DRAH, II, 1802: 422; Mad., XV, 1849: 238–239; Go., 1862: 573). Cfr. *Usurburu* (Gazteluko etxea, 1998, GazM), *Usurbiribillaga* (Zumaiaiko aurk., 2007, ZumM) eta *Usurbiribilgo zuloa* (*ibid.*).

EuskalTes.: «*Usurbilco mugapean ere ateratzen dituzte eotarri bitoreac toqui ascotaraco*» (Izt., 1847: 50), «*Usurbilco baserri-echeric gueienac dituzte beren iturri jaquiñac*» (*ibid.*, 105), «*...au ezquerretan utzizic badoa Usurbilco errira*» (*ibid.*, 116), «*Devaco ibaian igotzen dira Mendaro-raño (izoqui) samalda andiac; Urolacoan orobat, Iraetara; Oriacoan Usurbilla ugari chit, eta Andoaina ere bai ascotan*» (*ibid.*, 203), «*Bero-bero eginik, nun arkitzen zan etzekiala zijoa. Usurbillen jetsi bear eta etzan oartu. Oriyora urreratu, eta berriz ere billetia eskatu zioten*» (Urruzuno, 1988: 211), «*Osta onen anaia coronela Usurbillen illa zan*» (Orixe, 1985 [1929]: 76), «*Usurbillen dema bat / aurten da jokatu*» (Udarregi, 1932: 177).

Ebak.: [u.şúr.βi.λèn] (in.), [u.şúr.βi|,di.kán] (abl.) (Usu-027).

Etimol. Mogelek (1854: 727) honela dio: «*Usurbil.- U por ur se halla á veces en los compuestos como en ubidea, camino de agua ó calce; ubilla, isla ó circuito de agua. U-surbil, agua molida o pasada de color. Surbilla dago guizon au, este hombre está pasado de color. Tambien urbil significa cerca; u-urbil cerca el agua: en este caso la s redundat*». Meyer-Lübke suitzar hizkuntzalariak aspaldixkoko lan batean (1925: 77) dioenez ikus *Errezil* sarrera.

Gure iritzian, toponimo honen osagaiak ezezaguna zaigun **usur-* eta toki izenetan 'biribila' adiera duen *bil* dira (*Iturbil, Mendibil, Sorabilla...* esaterako). Adjektibo argia da beraz, baina **usur-* ez, nahiz eta Probintziako eta Nafarroako beste toponimo batzuetan ere ageri bide den: cfr. Zumaiaiko Urola ibaiko *Usurbiribillaga* urbitartea (2007, ZumM), Beasaingo *Usurbe* (ca.d.l.¹¹⁷, Nopgui, 1857: 88) eta Gipuzkoako Gazteluko

¹¹⁷ Bada izen bereko mendia.

Usurburu eta *Usurburuko borda* (1998, GazM), hondar hauek xuxen non ziren ez dakigun arren. Goizuetan *Usurbidegi*, *Usurbideko elutsa*, *Usurbideko gaña* eta *Usurbideko harria* ditugu (Jim. zuz., 1997f: 142); errekarik, ordea, ez da bertan: patar handia da, hiru iturriren ura beheiti erortzen den lekua, eta meazuloak ere badira¹¹⁸.

Probintziako *Usurbil* toponimoa *Sunbilla* (< *osuin*, *usuin* ‘osina’, *bil* ‘biribila’ eta *-a* artikulua) eta *Usurbeltz* (< *osuin*, *usuin* eta *beltz*) nafar herriren izenekin lot liteke beharbada. Salaberri (1994: 262, 967) lanean genioen eran, irudi du azkeneko horien oinarria *osuin*, *usuin* dela, Eslabako *Lixuñeta*-n (< *liho* landare izena [edo *lixu* ‘bokata’], *osuin*, *usuin* eta *-eta*) edo Zareko *Ligusuñeta*-n (< *ligu* ‘lihoa’, *osuin*, *usuin* eta *-eta*) dugun bera. Arazoa da *osuin*, *usuin*-en azpian **osuni* moduko bat dagokeela eta sudurkaria berez ez zegoela, hastapenean, hitz bukaeran eta, itxuraz, aukera gutxiago zeudela *jaun* > *jaur-* edo *oihan* > *oihar*-en dugun dardarkaritzea gauza zedin.

Nolanahi dela, *oin*-etik *orkoi*, *oinazpi* eta *oinpe* dauzkagu; *ohoin*-etik *ohorgo(a)* eta *ohoingo*, *soin*-etik *sorburu* eta *soinburu*, eta, horren arabera, badirudi *osuin*-etik aurrena *usuin* asimilatua ateratzeko eta gero, elkarketan, *usun-* (cf. *Iruñe* + *bidea* > *Iruñbidea* > *Iruinbidea* > *Irunbidea*, hainbat lekutan, Nafarroan) eta **usur-* bihurtzeko arazorik ez dela.

Beste kontua, arras garrantzitsua, Usurbilen osina izatea edo ez izatea da, eta egun ez da erraz jakitea gauzak lehen nola ziren, ibaien «morfologia» ere aldatzen delako.

HerritarIz.: *usurbildar*.

Agiñaga

Udala: Usurbil (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Aginaga*.

Dok.: *vecindad de Aguinaga* (1429, Mutiloa, 1976, II: 145), «...*Aguinaga onze fuegos*» (1464–1506, Le., Cr. eta Lar., 2002: 166), *Aguinaga* (va.o.ba., Isas., 1850 [1625–26]: 29), «*barrio de Aguinaga de Usurbil*» (*ibid.*, 234), «*Los barrios que tiene demas de la villa son cuatro, Zubieta, Aguinaga, Elizalde y Urdaiaga*» (*ibid.*, 582), *Aguinaga* (ba., López, 1770), *Aguinaga* (ba., DRAH, I, 1802: 9), «...*el pueblo está dividido en 5 barrios denominados Usurbilzarra, Elizaldea, Aguinaga, Urdayaga y Zubieta*» (DRAH, II, 1802: 422), *Aguinaga* (ai., Mad., 1845–1850: 15; Nopgui, 1857: 73), «*Aguinaga: comunidad dependiente de la jurisdicción de la villa de Usurbil*» (Go., 1862: 5), «*En la Comunidad de Aguinaga* [...]» (1884, Mutiloa, 1976, II: 157).

EuskalOnom.: *Aginagamendi* (Usurbilgo aurk., 1992, UsuM).

EuskalTes.: «...*au ezquerretara utzirik badoa Usurbilco errira, ceñetara iritsi ezquero ugarotu leiquean aisha ibai andi onetan; erri au escuirontz lagaric jarraitzen da Aguiñagatic aurrera*» (Izt., 1847: 116), «*Usurbilco Aguiñagan beti ezagutzen dira bi onçitegui zabal erosoac*» (*ibid.*, 128).

¹¹⁸ Juan Jose Zubiri goizuetar lankideari zor diogu informazioa.

Ebak.: [a.γí.ɲa], [a.í.ɲa] (abs.) (Usu-002), [a.γí.ɲa.γàn] (in.) (Zar-017), [a.γí.na.γà] (abs.) (Zar-022).

Etimol.: Ikus Eibarko eta Zumarragako *Agiñaga* biztanle entitate bereziak.

HerritarIz.: *agiñagar*. [a.γí.ɲa.rak] (abs.) (Usu-002), [a.γí.ɲa.ta.rà] (abs.) (Don-111).

Urdaiaga

Udala: Usurbil (bizt. ent. ber. [San Esteban]; auzoa).

IzenOfiz.: *Urdaiaga*.

Dok.: (Top.) *Urdayaga* (1489, *herreria*, Ayer., 1997: 561), «*Los barrios que tiene demas de la villa son cuatro, Zubieta, Aguinaga, Elizalde y Urdaiaga*» (Isas., 1850 [1625-26]: 582), *Urdayga* (*sic*) (*pu.*, López, 1770), «...*el pueblo está dividido en 5 barrios denominados Usurbilzarra, Elizaldea, Aguinaga, Urdayaga y Zubieta*» (DRAH, II, 1802: 422), *Urdayaga* (*ba.*, Mad., XV, 1849: 223; Go., 1862: 573), *Urdaiaga* (Usurbilgo auzoa, 1992, UsuM), *Urdaiaga* (Usurbilgo bas., *ibid.*).

(Antrop.) «*Miguell Martines d'Urdayaga, besino de Usurbil*» (1404, Ayer., 1997: 502), *Juanes de Urdayaga* (1554, *ibid.*, 637).

EuskalOnom. Cfr. *Urdáide* (Oiartzun, *ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 59), *Urdaira* (Usurbil, *ibid.*, 74), «*Arzubi, ó Urday*» (Arrasate, *ibid.*, 125), *Urdaira txiki* (Usurbilgo bas., 1992, UsuM), *Urdaira haundi* (*ibid.*).

EuskalTes.: «...*azquenengo onec berecitzten du erri au Orio-coagandic; Ardumbrecoac Aya, Urdayaga, eta Amidia esleitzen dituen bezalaishen, eta sartzen dira Orioco ibai andian errira baino lenago*» (Izt., 1847: 105).

Ebak.: [ʃa.níʃ.te.βàn] (abs.) (Usu-041).

Etimol.: Osagaiak *urdai* izena eta *-aga* leku-ugaritasunezkoa direla dirudi. Lehenaz ikus Aiako *Urdaneta* aztertzean dioguna.

Villabona-Amasa (ikus *Billabona-Amasa*)

Etimol.: Bähr-ek (1948: 179) *Pferdefurt* ‘zaldi ibia’ dakusa toponimo honetan. Mitxelenak (AV, 599) ez du *zald*u, *zaltu*-ri eskainitako sarreran aipatzen; bai, ordea, (h)ibi-n (*ibid.*, 312): «(h)ibi “vado” (v. ubi, s.v. u-): *Ibia*, *Ibieta* (acaso de [h]ibai), *Ibiri*, *Ibiricu*, *Ibiurreta* (*Iburreta*); *Arribi*, *Arribiondo*, *Astibia*, *Oñativia*, *Zaldibia*, etc.».

Irudi du bi azalbide nagusi daudela izen honentzat: a) *zald*u eta *ibia*, eta b) *zaldi* eta *ibia*. Biak izan daitezke, zalduak erreken eta ibaien inguruetan egoten direlako, eta antzina zaldiek erreka igarotzeko baliatzen zuten ibia ere izan zitekeelako. Aldera bitez bi azalpenak Bergaran 1506an lekukotzen den «*el nuestro molino de Çaldibay*»-rekin (Le., 2007: 377-378). Hotsei doakienez, irudi du -u + i- > -i- ateratzea zailagoa dela -i + i- > -i- irtetea baino, eta honek *zaldi* + *ibia* ikustearen alde hitz egiten duela, baina oroit gaitezen, adibidez, Bizkaiko *Fika* herriaren izena *Fuica* zela lehen, lekuneak desberdinak izanik ere. Irigoienek (1995: 193) ez du zalantzarik egiten *Zaldibar* herri izena *zald*u + *ibar* esplikatzeko tenorean.

HerritarIz.: *zaldibiar* (ofiz.), *zaldibitar* (herrikoa): «*Zer, zaldibitar?*» esan ohi dute hangoek, ‘bertakotu al zara?’ galdetzeko. «*Zaldibitar*rak, *esan didate / kantak jarri albanintza*» (Erauskin, 1932b: 262), «*Franzisko Erauskin zaldibitarra / ni kanta oek jarria*» (Zabala, 1978a: 144), «*zaldibitar Erauskin / errotariak*» (Zabala, 1978c: 17).

HerritarEz.: *arkakuso*.

Zarautz

IzenOfiz.: Zarautz.

Dok.: (Top.) Zarauz (1237, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 28), Çaraoz, Zarauz (1305, *ibid.*, 104, 109), *concejo de Zarauz* (1332, *ibid.*, 181), «Iohan Lopez d'Ayçarnaçaval procurador de las villas de Çarauz e de Çumaya» (1390, Dz.S., 1985: 150), Çaraoz (Getaria, 1394; Ayer. eta E., 2008: 42), *la villa de Çarauz* (1397, Lar. eta Ta., 1993: 71), Caraos (Ortelius, 1588, mapa), Çarauz (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), Zarauz (*vi.*, López, 1770; DRAH, II, 1802: 526; Mad., XVI, 1850: 649-659; Go., 1862: 634).

(Antrop.) *Semeno de Ssarauz* (Donostia, 1292; Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 71), *Pero Yuannes de Çaraoz* (Getaria, 1394; Ayer. eta E., 2008: 40), «faz a la parte de la ferreria de Lope Martinez de Çarauz» (Zestoa, 1479; *ibid.*, 112), *Lope Martines de Çaraoz* (1489, Ayer., 1997: 561), *Pero Martinez de Çaraoz*, *Juan Martinez de Çaraoz* (Kanpezu, 1490; Poz., 1998: 181).

Etxabek (1970 [1607]: 30) Ortelius gogor kritikatzan du, euskal izenak nolana-hika transkribatzen dituelako, *Zarautz*, besteak beste:

...y ser Abraan Ortelio en nuestro tiempo tan curioso y cuidadoso en geografia, es para reyr la corrupción con que tiene escriptos los nombres de nuestros pueblos; y de manera es que si alguno quisiese buscar â alguno de ellos por los nombres que les tiene puestos, seria imposible allarlos ni conocerlos, y si no pregunten en Guipuzcoa por Antigarbion,



Gipuzkoako iparralde. T. Lópezen 1770. urteko mapa. ELN.

si se â de pronunciar Astigarriuia, y por el Ariago, si se llama Elorriaga, y por quien, auiendo de nombrarse Guetaria, que es puerto muy conocido, y Caraos por Çarauz [...].

EuskalOnom.: *Zarauzenea* (Hondarribiko bas., 1713), *Zarauçenêa* (ca.d.l., Nopgi, 1857: 44), *Zaotzenia* (egun; Fur., 2002: 909), *Zarauz aspi* (1852, *cerrado*, *ibid.*, 908). Cfr. *Sorautz* (Eskoriatzako etxea, 2014, EskM).

EuskalTes.: «A. Fr. PEDRO ANTONIO Añibarroc, *Zarauzco Colegio A. San Franciscoren Ordeaco Misionariac Bizcaico eusqueran ifini dituz*» (Añibarro, 1978 [1802], lehen orrialdea), «...eta laugarren errecachoa beraren iceneco echadian arquitzen diran ola bat eta iru errota erabilliric, itsasoratzen da Zarauzco mugapean» (Izt., 1847: 81), «...eta ezquerretara Zarauzco erria bere portuarequin legua erdico bidastian utziric» (*ibid.*, 116), «...Donostia, Orio, Zarauz, Getaria» (*ibid.*, 202), «Zarauz izana gatik nire jatorriya / Leyal zauzkat goguan / Beti, Getariya», «San Antongo Menditik¹¹⁹ / Zarauzko ondarrera» (Egaña, 1932 [1855]: 124), «!Nik, gure Getari ta Zarautz'eko txakolin orixka min!» (Lizardi, 1972 [1934]: 44), «Andik zuzen, gau artan bertan, Zarautza bidea urratu zun mendiz [...]. Ara joanda bi illa-betera, Zarauzko alkate liberalai kartaz berriro eskerrak eman zizkion. Zarautzen bi egun egin izan zitun Luis Arregi apaiz Laguntzallearen etxean» (Orixe, 1985 [1929]: 22-23), «Atakearen egun-aurrea zan, eta Santa Kruzek jakin izan zun alabearrez, Lizarraga Zarautza zetorrela» (*ibid.*, 46), «Ordun Zarautz aldera igesegin zuten» (*ibid.*), «Zarauzko izketa artan elkartzeko egon zirala esaten dute» (*ibid.*, 47), «Jai-goiz batian ikusi nuben / Zarautz'era etorriya» (Zabala, 1992: 304), «Nola maiteko ez du euskera / Zarautz'en jαιο ta aziyak» (*ibid.*, 410), «Zarautz, ez gari ez galauts» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 149), «Zarautzen ere askotan izan giñan» (Uztapide, 1975: 155).

Ebak.: [ʃa.ráʊ.tʃàn], [ʃáʊ.tʃàn] (in.), [ʃáʊʃ.kò] (lek.g.) (Zar-013), [ʃa.ráʊ.tʃèn] (in.) (Zar-017), [ʃa.ráʊ.tʃàn], [ʃáʊ.tʃàn] (in.), [ʃa.ráʊʃ.kò] (lek.g.) (Zar-029), [ʃáʊ.tʃèn] (in.), [ʃa.áʊ.tʃà] (adl.) (Aiz-001), [ʃáʊ.tʃàn] (in.) (Get-017).

Etimol.: Moglek (1854: 731) *Saraus* idatzi behar dela dio, eta ebakera egokiari so eginez gero, *Saraus*. Osagaiak, Eibarko idazlearen ustean, *sarats* 'sahatsa' zuhaitz izena eta *utsa* 'hutsa', 'dena' dira, hau da, 'dena sahatsa', 'sahats hutsa' da toponimoaren esanahia, Zarautzen denboraz zuhaixka horietarik ausarki bazelako. Eleizalde ere (1916: 30) *Zarauts* (*Zara'uts*), 'puro jaro' interpretatzen du.

Mitxelena (AV, 594, 605) oinarria *zara* 'basoa', 'txaradia' dela uste du, *Zaragueta*, *Zarate* eta bestetan dugun bera, baina bergararraren azalpena onesteko txistukariaren nolakoa oztopo handia dela iruditzen zaio, eta (*h*)*uts* 'vacío', 'mero', 'puro' 'simple' hori *Zarautz*-en ezin daitekeela egon, baina bai *Ubillus*, *Ubillos*-en.

Gure iritzian (Sala., 1997: 22-24), *Ubillus*, *Ubillos*-ek ez du deus ikustekorik *huts* 'hutsa'-rekin, *ur* 'erreka, ibaia', *bil* 'bildu, batu' eta *-o(t)s* atzizkia baititugu hor (cfr. *Zaraitzuko Ibiltzieta* eta Esteribarko *Inbuluzketa* herri izenak, N). Orain urte batzuetako artikuluan (Sala., 2011a: 56-57), *Zarautz*-en Eleizalde proposatu eta Mitxelena onar-

¹¹⁹ *Ratón de Getaria* gaztelaniaz.

tzen duen *zara* izena dugula idatzi genuen, eta bigarren osagaia *hotz* adjektiboa izan daitekeela. Gaur, ordea, dokumentazioari oharturik eta *baso*, *harizti*, *pagadi*, *oihan* eta beste *hotz*, *epel*, *bero* eta hauen pareko adjektiboekin ez ohi direla agertzen ikusirik, uste dugu herri izenari beste azalpen bat eman behar zaiola, baina ez dakigu xuxen zein.

HerritarIz.: *zarauztar*. *Zarauztarrena* (Eskoriatzako etxea, 2014, EskM).

HerritarEz.: *haizeak*.

Zeba (ikus *Olaberria*)

Zegama

IzenOfiz.: *Zegama*.

Dok.: (Top.) «*Garcia Semeneiç et sos tios, leuaron XII puercos del abat de Cegama a Murguindoeta*» (1261, Gar.Ar., 1996: 43), «*collaçiones de Legazpia e de Mutiloa e de Ydiaçabal e de Çegama e de Çeray e de Hurrmaystegui*» (1387, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 249), «*collaçiones de Legazpia, de Mutyloa e de Ydiaçabal e de Çegama e de Çeray e de Hurrmaystegui*» (1393, *ibid.*, 379), «*unibersidades de Cegama e Idiazabal, e Cerain*» (1430, Urz., 1990: 348), «*ferreria de Çateyçalibarr, que es en Çegama*» (1475, Ayer., 1997: 129), *Çegama* (1475, 1502-1508, *ibid.*, 129, 588), *Çegama* (Gari., II, 1628 [1571]: 340), *Segoma* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), «*...pues en solo escrivir nuestros nombres, en pocas vezes los historiadores latinos y griegos los descompusieron de tal manera que agora casi no entendemos lo que quisieron dezir, como se ve [...] por dezir Beyçama dizen Bagasama, y Seguisama, si ya no es esta Seguisama Çegama, que no esta muy distante de Beyçama*» (Etxabe, 1970 [1607]: 24), «*villas de Segura, Çegama, Ydiaçaval*» (1613, Ayer., 1997: 722), *Çegama* (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Cegama* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29, 113), «*...suprà Cegamam vicum*»¹²⁰ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), *Cegama* (*vi.*, López, 1770; DRAH, I, 1802: 205; Mad., VI, 1847: 290; Go., 1862: 115).

(Antrop.) *Pero Ladron de Cegama* (Arrasate, 1375; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 78), «*Sancho Martinez de Çegama, iurado de la vezindat de Çegama*» (1384, *ibid.*, 226).

EuskalOnom.: «*mañanal que dizen de Çegama sagasty*» (Arrasate, 1475; Orma., 1996: 292).

EuskalTes.: «*Cegamaco erri barruan badira bi iturri ur garbi ona iori ematen dutenac [...] gatz asco eguin izan zuten Cegamaco mugapean*» (Izt., 1847: 85), «*toqui au dago Cegamaco mugapean, erritic legua bateco bidastian bezalatsu*» (*ibid.*, 114), «*Ataunen eta Zegaman, egunez ikusi ta gauetz eraman*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 140), «*Zegama, deabruak badarama*» (*ibid.*, 149).

Ebak.: *Zeamá* (adl.) (*Zegama*, Azur., 1997: 38), *Zeamako* (lek.g.) (*ibid.*, 29), *Zeamati* (abl.) (*ibid.*, 177); *Zegama* (abs.), *Zeamati* (abl.), *Zeamakoa* (lek.g. + abs.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 44, 45), [se.ýá.mà] (abs.) (Bea-019), [se.á.màn] (in.), [se.ýá.ma.tí] (abl.) (Zer-002).

Etimol.: Mitxelenak (AV, 39; 1968: 485) dio *Aldama*, *Arama*, *Beizama*, *Cegama*, *Lezama* (*Letisama*, *Ledesma*-ren baliokidea), *Ulzama* (*Uzama*, *U(t)çama* Erdi Aroan; *Unzama* Ataungo toponimoa ere bada, *Uxama*, *Osma*-ren adierakidea) toponimoetan dagoen *-ama*-k indoeuropar atzizki ongi ezaguna dakarrela gogora, eta *Leguizamón* deiturak ere berrekailu bera dukeela (*cf.* *Segisama* / *Segisamo(n)*).

Schmollen liburuari egin erreseinan (1959-60: 248), honela dio Errenteriako irakasleak: «A mí me parece que nombres de población como *Arama*, *Beizama*, *Berama*

¹²⁰ «Zegama herriaren gaineko aldean».

(cf. *ueramos*), *Cegama* (cf. *Segisama*, con distinto sufijo), *Lezama* (de *Letisama*?), no son sino lo que parecen ser: muestras, como *Deva*, de designaciones indoeuropeas en una zona que más tarde había de serles extraña».

Beste lan batean ere (1968: 485-486) esaten du *-ama*-dun euskal toponimoak (*Arama*, *Beizama*, *Berama*, *Lezama*, *Zegama*), neurri handi batean behinik behin, indoeuropar zaizkikoak direla. Horietan berriro euskal *z*-rekin topo egiten dugula gehitzen du, batez ere *Ulzama*-n. Toponimo honetan zaila da, errenteriarraren arabera, leku askotako *Uxama* ez ikustea, eta zeltiberierako *uśamus* ‘Uxamēnsēs’-ekin alderatzeko galdegiten du. *Sesma*-rekin loturik egon daitekeela iradokitzen du, eta etorkia, beraz, **segh-* datekeela (*seg(h)-* ‘garaipena’, Gorrotxategi, 2002: 107). Ikus *Arama* sarrera.

Albertosek (1966: 295), Hispaniako alderdi zabal batean ageri diren *-m*-dun atzizkiez diharduela, ardura balio superlatiboa dutela dio, *-mo-* edo *-amo-* (*-*mmo*) itxurarekin azaltzen direnean, edo aitzinean *s* dutenean (*-samo-*): *Vxama* ‘oso garaia’ edo etimologiaz latineko *supremus*-en baliokideak diren idazkUNETAKO *ueramos*, *uoramos*. **Segh-*, **seghi-* ‘eutsi’, ‘garaitu’ da aipatu ikertzailearen iritzian (*ibid.*, 200-203), eta hainbat antroponimo eta toponimotan kausitzen da Hispanian, *Segisama*, *Segisamo* (egun *Sasamón*, Burgos), *Segisamonculum* eta *Segontia*-n¹²¹ besteak beste.

Geroagoko beste lan batean (1978) Osma Gaubeari erreferentzia egiten dion Ptolomeoren testuko *Οὔζαμα Βάρχα* hartzen du ahotan Albertosek, eta esaten *Barca* edo *Ibarca* euskal etorkiko epitetoa dela, **bai-* / **ibai-* ‘ibaia’-rekin loturikako **bar-* / **ibar-* ‘ibarra, landa, ibaia’ hain justu. Nafarroako *Ulzama* (*U(t)çama* Erdi Aroan) toponimo bera dela uste du, *Vxama* > *Osma*, *Ledisama* > *Ledesma* eta bestetan ageri den azentu ondoko bokalaren galera ukan ez badu ere, «*Lezama*, *Cegama* eta eskualdeko beste toponimo batzuetan» agitzen den bezala.

Gorrotxategik (2002: 114), Mitxelaren oinatzetan, *Zegama*-n *Lezama* eta *Beizama*-ko *-ama* superlatibo zelta dagoela iradokitzen du. Zalduak (2016: 198), bestalde, honela dio:

Al margen de su origen, en Vasconia son pocos, muy pocos, los nombres que comienzan con la secuencia *Zeg-*; *Zegamendi* es uno de ellos (cima, IDEA; Iruña de Oca [A]). Sin embargo, en los territorios limítrofes a Vasconia hay varios topónimos emparentados probablemente con la raíz indoeuropea **seg(h)-*; dos muy conocidos son Ejea de los Caballeros (ZA), que, según puntualiza Velaza (2009: 615), viene de *Segia* (forma latina de *Sekia*) y *Sasamón* (municipio, BU), cuyo origen está en *Segisamo* / *Segisama*.

Hortaz, eta laburbilduz, *Zegama*-rentzat egungo egunean harroxkoa dirudien **seg(h)-ama* ‘garaitzaileena’ ‘indartsuena’ izena proposa daitekeela ematen du. Jatorriz Nafarroako *Sesma*-ren baliokidea dateke, adieraz denaz bezainbatean, azken honentzat **Ségisamā* > **Ségsama* > *Sésma* bilakaera onartu behar bada ere. Ikus bedi Prósper (2004: 188-189 eta 2018: 125).

¹²¹ Cf. hau: «*yendo de Çegondia a Yndovirivilla*» (Zestoa, 1512; Ayer. eta E., 2008: 232).

J. Gorrotxategik (2001: 201), Iberiar penintsulaz dihardukalarik, honela dio: «Aunque la presencia de celtas en la península ibérica era conocida por los estudiosos desde antiguo, debido tanto a la lectura de los autores clásicos como a la correcta identificación de topónimos como *Sego-briga*, cuyos dos elementos constitutivos se repiten en otros muchos nombres de lugar hispanos [...]». *Segobriga* egungo *Segorbe* da (Valentzia), Albertosek (1966: 201) dioenez.

Galieran ere, hots, galiarren hizkuntza zelta aspaldi galduan ere, ezaguna zen *Zegama*-n dugun oinarria: konparaziorako, ongi lekukotua dagoen *Sego-maros* antroponimoa ‘garaipenei esker handia’ edo ‘garaipen handiak dituen’ da etorkiz (Lambert, 2003: 31). Sustraira **sego*- ‘indarra’ da aitzin-zeltan (Matasović, 2009: 327).

HerritarIz.: *zegamar*.

HerritarEz.: *beleak*. «*Zegamatarrak, belaak; Alegitarrak, txintzarriak*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 143).

Zerain

IzenOfiz.: *Zerain*.

Dok.: (Top.) «Eglesia de Santa Maria de Çerayn», Çerayn (1384, Dz.S., 1985: 102), Çerain (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 204), «...collaçiones de Legazpia e de Mutilloa e de Ydiaçabal e de Çegama e de Çeray» (1387, *ibid.*, 249), tregoa de Çerayn (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 128, 130), «collaçiones de Legazpia, de Mutyloa e de Ydiaçabal e de Çegama e de Çeray» (1393, *ibid.*, 379), «unibersidades de Cegama e Idiazabal, e Cerain» (Segura, 1430; Urz., 1990: 348), *Cerain* (*sic*) (Ortelius, 1588, mapa), Çerain (1615, Ayer. eta Dz.S., 1996: 673), *Cerain* (*vi.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *Zerayn* (*vi.*, López, 1770), *Cerain* (*vi.*, DRAH, I, 1802: 207), «...esta villa llamada en lo antiguo Santa María de Basarte, santa María la Asumta de Cerain, la universidad, y ultimamente villa de Cerain» (*ibid.*), *Cerain* (*vi.*, Mad., VI, 1847: 317; Go., 1862: 118).

(Antrop.) *Iohan Garcia de Çerain* (Zerain, 1384; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 204), *Iuan de Çerayn* (1390, *ibid.*, 291), *Pedro de Çerain* (1613, Ayer., 1997: 705).

EuskalOnom.: *Cerainsagasti* (Segura, *ca. d.l.*, Nopgui, 1857: 33), *Zerainbidea* (Segurako aurk., 1997, SegM), *Zerainbordazpi* (aurk., *ibid.*), *Zerainerreka* (erreka, *ibid.*), *Zerainportala* (sarbidea, *ibid.*), *Zerainborda* (Zeraingo etxea, 2008, ZerM), *Zerainsolo* (Eskoriatzako aurk., 2014, EskM).

EuskalTes.: «Ceraingo mendi Hoa deitzen zaion artan ere badira arrobi areatsu arri ederra ondo ematen dutenac» (Izt., 1847: 58), «Ceraingo mendi Barbaria icendatzen danaren aldatsean arquitzen dira meatze eta lurruspe zulo asco» (*ibid.*, 70), «Mutilloaco meatze-mendian jaiotzen dira iturri asco [...]. Beste bat ere jachitzen da erri onetara Ceraingo mugapeco Aizpea-mendian sortzen diran uraquin eguiña» (*ibid.*, 100), «...eta bereala ifarraldera igaroric jarraitzen du Seguraco errira, au escuirontz eta Cerain ta Mutilloa ezquerretara lagaric dijoala [...]» (*ibid.*, 114), «Zerain, ankea yaso ta buztanari era(g)in» (Azkue, 1989 [1935–1947], III: 149), «Zeraiñen ere izaten giñan» (Uztapide, 1975: 133).

Ebak.: *Zerain* (abs.) (Zegama, Azur., 1997: 115), *Zeraingo* (lek.g.) (*ibid.*, 80), *Zeraiñen* (in.), *Zeraingoa* (lek.g. + abs.) (Zaldibia; Etxa. eta Gar., 2003: 44); [sé.raj.nèn] (in.), [se.raj̃n.dik] (abl.) (Zer-002), [sé.ra.nèk] (erg.) (Bea-019), [se.raj̃.nèn] (in.) (Mtl-006).

Etimol.: Mitxelenak (AV, 18) *-ain* eta *-rain* bukaera duten deitura (toponimo) franko oraindik ez direla argitu esaten du, *Asiain* eta *Cerain* besteak beste. García Ariasek (2005: 503), latineko *-inum*, *-ini* atzizkiaren ondorengoak aztertzean, Asturiasko *Cerín* darabil ahotan eta dio *Cerinius* edo *Celerinius*-etik atera zitekeela.

Gure ustez, lehen kontsonantea txistukaritu duen *Zerio* antroponimoa onargarria da (*Cerio* edo *Cereus*, Kajanto, 1982: 164 eta 343): *Zerio* + *-ain* > **Zerain* izanen genuen hastean (*Otsokain* > *Otsakain*-en erakoa dateke, beraz), eta, disimilazioz, *Zerain* gero (cfr. *Zirao* < *Ziriao* < *Ziriano* < *Zeriano* edo *Ceriano*, Araban; Sala., 2015a: 396), *(*uilla*) *Zeriani* ‘Zerio izenekoaren bazterretxea, lurra’ > **Zerain* > *Zerain* bilakaera ikusi nahi ez badugu behintzat.

Beste aukera etimotzat *Serus* ikustea da (Italia, EDH), hots, *(*uilla*) *serani* ‘Serus izenekoaren bazterretxea, lurra’, honi jabegoko *-anus* atzizkiaren *-ani* genitiboa itsatsi zaiola pentsatzen bada.

Nolanahi ere, *Seranus* osoa hagitz ongi dokumentaturik dago gurean: *C(aivs) Valerius Seranus* (Errioxako idazkun batean; Elorza, Albertos eta González, 1980: 21), *Lucius Aemilius Seranus* (Mendigorriko hiru hilarritan), *Am[ba]tus Serani filius* (Kontrastan; ikus Yarza, 2014: 1138-1139), eta, hortaz, *(*uilla*) *serani* ‘Seranus deritzanaren baserria, funtsa’ ere izan daiteke. Hobeki esan, *Serani* da eman daitezkeen azalpen guztietan egokiena irudi duena.

C(a)elius (Badajoz, HE), *Cel(i)us* (Lamas de Moledo, Grupo Mérida, 2003: 139), *Celius* (Tunisia, EDH) eta *Selius* ere (Aljeria, EDH) proposa daitezke *Zerain*-en oinarritako, baina bigarren maila batean edo.

HerritarIz.: *zeraindar*.

HerritarEz.: *xaguak*.

Zestoa

IzenOfiz.: *Zestoa*.

Dok.: (Top.) «*los dichos vesynos e moradores d'Ayçarna et d'Acoa e de Çestona*» (1380, Ayer. eta E., 2008: 8), *villa de Santa Cruz de Çestona* (1383, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 185), «...*estando yuntados partida de los omes bonos de la villa de Santa Cruz de Çeztona [...] jurado de la dicha villa de Santa Cruz*» (1385, Ayer. eta E., 2008: 17), «...*et Lope Lopes d'Iraheta dicho d'Orro [...] vesinos principales de la dicha villa de Santa Crus*» (1393, *ibid.*, 28), «*jurados de la villa de Santa Crus de Çestona*» (1394, *ibid.*, 36), *villa de Santa Cruz de Zeztona (sic)* (1462, Ayer. eta Etxe., 1999: 94), «*escuderos fijosdalgo de la villa de Santa Cruz de Çestona*» (1479, Ayer. eta E., 2008: 103), *villa de Sancta Cruz de Çestona* (1483, Le. eta b., 2002: 227), *Çeztona* (1510, Her., Ach. eta Mo., 1998: 178), *Çeztona* (1518, Le. eta Go., 1998: 285), «*En la dicha villa de Ceztona*» (1518, Her. eta Fdez., 2011: 154), *Junta de Çeztona* (1536, Le. eta b., 2002: 440), *Cestona* (Ortelius, 1588, mapa), *Cestona (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29, 115)*, «*Vrola [...] per Legazpium vallem ac per Azcoytia, Azpeytia, & Sancte Crucis Cestona vrbium [...]*»¹²² (Oihenart, 1992 [1637]: 683), *Cestona (vi., López, 1770)*, «*Cestona, ó Santa Cruz de Cestona, v[illa] del part[ido] de su nombre*» (DRAH, I, 1802: 208), *Santa Cruz de Cestona (vi., Mad., VI, 1847: 368)*, «*Cestona (Santa Cruz de) [...]. Pertencen a su vecindad y jurisdiccion la tierra de Aizarna y valle de Arrona*» (vi., Go., 1862: 120).

(Antrop.) *Miguel de Zeztua, Miguel de Cestua* (Larraungo zinegotziak, 1726an; NEAN, Inventarios del Reino de Navarra, Estadística saila, 5, 15).

EuskalTes.: «*Cestonaco mendi Izarraitz eta Erchina deitzen zaiotenean badirá arrobiac*» (Izt., 1847: 54), «*Cestoaco Erchina deitzen zaion mendian badira meatzeac leiar arrocaczoa ematen dutenac*» (*ibid.*, 74), «*Cestoaco erriaren mugapean iturri on asco dira chit*» (*ibid.*, 86), «...*ta andizcaturic igarotzen da [...] erri Cestoacora*» (*ibid.*, 113), «*Arro(n)arrak arro, Zesto(n)arrak zesto; Arro(n)arren ondakinak Zesto(n)arrak yango, baina ez emango*» (Azkue, 1989 [1935-1947], III: 140), «*Oiartzungo Mendizabal ere askotan an izango zan aiekin, eta Goikoetxea Zestuakoa, orain Errenterin bizi da aspaldian baña*» (Uztapide, 1975: 69), «*Au Zestuako ballara da*» (*ibid.*, 148), «*Beste lau eiztariak Zestuakoak giñan; Zestuara etorri giñan, an bazkaldu genduan lasai, eta illunerako etxera joan giñan*» (*ibid.*, 303).

Ebak.: [sés.tu.á] (adl.) (Zes-001), [sés.tu.àn] (in.) (Zes-038), [sés.tu.á] (adl.) (Zes-044), [sés.tu.kò] (lek.g.), [sés.tu.àn] (in.) (Aiz-001).

Etimol. Mogelet (1854: 736) *ona* bukaera duten euskal toponimo gehienetan *n* erredundantea dela dio: «...á veces castellanizan la final, diciendo ó escribiendo *Arrona* por *Arroa*, *Sestona* por *Sestoa*, *Lemona* por *Lemoa*, y en casi todas las voces terminadas en *ona* redunda la *n*; y pruébase porque los paisanos, por tradicion, pronuncian *oa*, no *ona*».

¹²² «*Urola [...] Legazpiko ibarrean gaindi eta Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa hirietan barna [...]*».

Azkuek (1925: 30), bokal arteko *-n*-ren erortzeaz mintzo dela (*Bedarona* > *Bedaroa* > *Bedaru*, *Lemona* > *Lemoa*, *Likona* > *Likua*, *Zestona* > *Zestua*; *Lazkano* > *Laskao* eta *Galdakano* > *Galdakao* ere badakartza), honela dio: «¿Quién sabe si los actuales *Lasao*, *Sestao*, *Ubaio*, *Bilbao* y *Ondarroa*, *Belarroa*, *Arbeloa* no habrán sido un tiempo (*sic*) *Lazano*, *Sestano*, *Ubaio*, *Bilbano* y *Ondarrona*, *Belarrona* y *Arbelona*?».

Gure irudiz, *Zestoa*-k *Sestao*-ren jatorri bera duke (*Cestao* ere ageri da: «*Cestao ó Sestao, concejo del valle de Somorrostro*», DRAH, I, 208; ikus Irig., 1986: 159¹²³), hau da, *Sextus* antroponimotik abia gaitetzke, atzizkia ez ezik bilakaera ere bana izan den arren: *(*uilla*) *sextona* ‘*Sextus* izenekoaren baserria, lurra’ (cfr. *Larragoa* < *Larrahona*; *Larrah(e)*, *Larrah(i)* teonimotik) > **Sestona* (-*ks-* multzoa bakuntzearen ondorioz, asimilazioz apika) > *Zeztona* > **Zeztōñā* > **Zeztōñā* > **Zeztōā* > *Zeztōa* > *Zestoa* (euskal toponimo frankotan ohikoa den herskari ahoskabe aitzineko *z* > *s* aldakuntzarekin: *Ezteno(t)z* > *Esteno(t)z*, *Ozti(t)z* > *Osti(t)z*...). Erdarazko *Cestona* aldaera *Zeztona*-tik atera dateke, euskararen barneko *Zeztōa* > *Zestōa*-rekin batean. Aldera bedi Ondarro-lako (NB) *Zeztōa* oikonimoarekin.

HerritarIz.: *zestōar*. «*Ango nagusia ere zestuarra da, Zestuako Listorraitza’koa, eta urtero joaten giñan ura bixitatzerara*» (Uztapide, 1975: 68).

Aizarna

Udala: *Zestoa* (bizt. ent. ber.; elizatea).

IzenOfiz.: *Aizarna*.

Dok.: (Top.) «*los dichos vesynos e moradores d’Ayçarna et d’Acoa e de Çestona*» (1380, Ayer. eta E., 2008: 8), *perrochia de Santa Maria d’Axarna (sic)* (1383, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 185), «*vezinos e moradores d’Ayçarna e d’Acoa e de Çestona*» (1384, *ibid.*, 193), «*las collaçiones de Santa Maria d’Ayçarna e de Sant Miguel de Ayçarnaçaua*» (1394, Ayer. eta E., 2008: 34), *Ayçarna* (1483, Le. eta b., 2002: 228), *Aicarna* (Ortelius, 1588, mapa), *Aizarna*, «*Aizarna jurisdiccion de Cestona*» (Isas., 1850 [1625–26]: 29, 115), *Aizarna* (Larra., 1985 [1754]: 179), *Ayzarna (ba., López, 1770)*, *Ayzarna* (DRAH, I, 1802: 209), «*Aizarna o Ayzarna*» (*ai.*, Mad., I, 1846: 175), *Aizarna (ai., Nopgui, 1857: 17)*, «*Aizarna: tierra dependiente de la jurisdiccion de la villa de Cestona*» (Go., 1862: 6).

(Antrop.) *Iohan Ybanes d’Ayçarna* (Eldua – Berastegi, 1313; Lar. eta Le., 1995: 26), *Miguell Martinez de Ayçarna* (Getaria, 1397; Lar. eta Ta., 1993: 70), *Joancho de Ayçarna* (Tolosa, 1475; Ayer. eta Dz.S., 1996: 488).

EuskalOnom.: (Top.) «*un poco mas arriba pusieron un mojon, e dende adelante, veniendo faz al camino e senda que ba faz a Ayçarnatea*», «*de la parte de ayçarnatea*» (1479, Ayer. eta E., 2008: 109 eta 120), *Aizarnatēa (ca.d.l., Nopgui, 1857: 17)*.

(Antrop.) *Pero Martines de Ayçarnauea* (1380, Ayer. eta E., 2008: 8), *Pero Martinez de Ayçarnauea* (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 193).

¹²³ Honek, dena dela, *Sesto* aldaera zaharra du, M. Gorrotxategik dioskunez (a.a.).

EuskalTes.: «...ta andizcaturic igarotzen da ausardia betean Lasaco echadia escuitara utziric, Aizarnaren auzoco chunchur batean dagoen erri Cestoacora» (Iztueta, 1847: 113), «Ederki nengoan ni Aizarnan eskola-maisu ta organista, gerra asi zanean» (Orixe, 1985 [1929], 70), «Ez-ta Aizarna'ra yoan-ta ere» (Lizardi, 1972 [1934]: 61), «ernari jarri omen dek / Aizarna'n idiya» (Zabala, 1992: 168), «Zestuan badauzkazu, Zestuako partean, Arrua-goia, Arrua-beia, bi; Aizarna, Iraeta, Ibañarrieta, Endoia, Santa Engrazia, Lasao, San Juan» (Uztapide, 1975: 105), «Aizarnan ere bai» (*ibid.*, 148).

Ebak.: [áj.šar.ná] (adl.) (Aiz-001), [áj.šár.nà] (abs.) (Brs-17), [áj.šár.na.ku.à] (lek.g. + abs.) (Get-016).

Etimol. Mitxelena (AV, 461) honela dio, *-na* amaiera iruzkintzean: «Terminación de *Aizarna*, *Altuna*, *Sagarna*.V. *-no*. En la toponimia riojana *-arna* es terminación abundante: véase Merino Urrutia, op. cit., p. 49 s. Al menos en algunos casos parece proceder de síncope, de *barrena*, por ejemplo». Aitzintxeago (470. sarrera), *-no* atzizki txikigarriari eskaini atalñoan, «no sé cuál puede ser la relación entre los sufijos *-na* y *-no*» dio. Halarik ere, ez dirudi *Aizarna*-n *barrena*-ren aldaera laburtu edo itxuragabetua dugula. Cfr. Basaburuko *Aizarotz* herri izena (aldera bedi *Mizkina* > *Mezkia*, A, eta *Mezkiritz*, N, bikotearekin).

Aski toponimo iluna da guretzat, eta ezin dugu gauza handirik esan. Azken zatiak, *-na*-k, Irurritako *Laurnaga* eta *Laurnagaraia* (< *Laurnaga* + *garaia*, haplologiaz sortua hain segur) oikonimoen azpian bide den **Laurna*- dakarkigu burutara, baina Baztango etxe izenean dardarkaria oinarriaren zati izan liteke, hori *laur* dela pentsatzen bada. *Sagarna*-n oinarria *sagar* 'sagarrondo' dela kontu egin daiteke, baina *Aizarna*-renean, *Aizar-na* ulertzen bada, ez genekike *aizar*- hori zer den (cfr. hala ere Mortua-Orokietako *Aizarbil* oronimoa, Jim. zuz., 1997b: 157 eta 1997c: 44: 102). Ikus *Aizarnazabal*.

Arroabea (-a) eta Arroagoia (-a)

Udala: Zestoa.

IzenOfiz.: *Arroa Behea* (bizt. ent. ber.; auzoa), *Arroa Goia* (bizt. ent. ber.; elizatea).

Dok.: (Top.) «*la cofradia en Arrona*» (1394, Ayer. eta E., 2008: 54), «...de las iglesias de la jurisdicción de Çestona, eçebto a Ayçarna e Arrona e Ayçarnaçabal» (1483, Le. eta b., 2002: 228), «...valles de Alçolaras y Herarriçaga e Arrona», *tierra de Arrona* (1484, Ayer., 1997: 550, 552), «...herrerya de Ochoa de Arrona, que es en el dicho rryo de Arrona» (1505, J. Elorza, 2009: 220), «*Don Juan de Sorasu, de Arrona*» (1559, Ayer., 1997: 657), «...*Juan de Balçola, morador en Arrona*» (Zestoa, 1585; *ibid.*, 697), *Arrona, R[io] d^e Arrona* (Ortelius, 1588, mapa), *Arrona (va.o.ba., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, «*Santa Ana de Arrona, jurisdiccion de Deva*» (ai., *ibid.*, 212), «...atque Arronæ vallis fines deductus»¹²⁴ (Oihenart, 1992 [1637]:

¹²⁴ «...eta Arroako ibarraren mugetara jaitsirik».

683), *Arroña* (ba., López, 1770), *Arrona* (ai., DRAH, I, 1802: 122; Mad., III, 1847: 215; Nopgui, 1857: 18), «*Arrona: tierra dependiente de la jurisdiccion de la villa de Cestona*» (Go., 1862: 56), *Arrona* (va., *ibid.*, 120).

(Antrop.) *Martin d'Arroa* (1390, Cres., Cr. eta Go., 1992: 139), «*don Joan de Arrona, capellan*» (1394, Ayer. eta E., 2008: 44), *Juan de Arrona* (1396, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 415), *Domingo de Arrona* (Aia, 1489; Ayer., 1997: 573), *Domingo d'Arrona* (Zestoa, 1489-1514; Ayer. eta E., 2008: 168), *Iohan de Arrona* (1502/1528, Ayer., 1997: 582).

EuskalOnom.: *Arroa* (molino, Go., 1862: 28), *Arroa* (Billabona-Amasako auzoa), *Arroakola* (Zestoako bas., 2010, ZesM).

EuskalTes.: «*Zumayaren mugapean badira iturri onac eta asco ur guezagozo garbia naroró ematen dutenac, eta oetatic eguiñeratzen da Arroaco aldetic jachitzen dan erreca acichoa*» (Izt., 1847: 108-109), «(Urolak) emendic (Zestoatik) jarraitzen du Arroaco ibarrera» (*ibid.*, 113), «*Aitona ta billoba, / Bigaramonian, / Sartu ziran Arrua-n / Lenengo trenian*» (Urruzuno, 1988: 218), «*Arruan bataiatua naiz; gure gurasoak esan oi zutenez, Arruan kristau egiña. Arruak badu, beraz, parrokia, baña aiuntamenturik ez*» (Uztapide, 1975: 103), «*Zestuan badauzkazu, Zestuako partean, Arrua-goia, Arrua-beia, bi; Aizarna, Iraeta, Ibañarrieta, Endoia, Santa Engrazia, Lasao, San Juan*» (*ibid.*, 105), «*Arrua-beian Karmenetan izaten dira jaiak*» (*ibid.*, 148).

Ebak.: [a.rún] (in.) (Zes-041), [a.rú.a], [a.rú.à] (abs.) (Aiz-001), [a.rú.an] (in.) (Get-009), [á.ru.à] (abs.), [a.rú.a.βé.jàn] (in.) (Zum-012).

Etimol.: Moglek (1854: 736) *ona* bukaera duten euskal toponimo gehienetan *n* soberakina dela dio: «...á veces castellanizan la final, diciendo ó escribiendo *Arrona* por *Arroa*, *Sestona* por *Sestoa*, *Lemona* por *Lemoa*, y en casi todas las voces terminadas en *ona* redundan la *n*; y pruébase porque los paisanos, por tradicion, pronuncian *oa*, no *ona*».

Arroa, erdaraz *-ona* eta euskaraz *-oa* duten beste asko bezala, antroponimoa da, oinarrian pertsona izena duen toki izena. Jende izen hori *Arrus*-etik ateratako *Arro* ezaguna da, zalantzarik gabe, baina oraingoan Nafarroako *Arroitz* (*Arróniz* gaztelaniaz) edo *Arruiz* azaltzeko behar dugun *(*uilla*) *arronis* 'Arro izenekoaren bazterretxea, lurra'-tik abiatu beharrean (ikus Albertos, 1966: 36 eta Grupo Mérida, 2003: 100; *cf.* Hispanian lekukotzen diren *Medugena Arronis filiae*) eta *Fa(bi) Pisini Arronis Lerogum* idazkunak, EDH), balio bereko baina beste atzizki bat duen *-zehazkiago* esan, atzizki bera duen baina latineko lehen deklinabidera egokitua den- *(*uilla*) *arrona*-tik abiatu behar dugu (*-ona* / *-oa* bukaeraz ikus Sala., 2015a: 48; ikus orobat Mitx., AV, 37 eta Irig., 1986: 81-82).

Proposamen hau Yarzaren (2014: 1126) *(*uilla*) *Varrona* > *Arrona* baino ekonomiokoagoa da eta, hortaz, hobestekoa. Eta ekonomia ez da arrazoi bakarra: oinarritzat *Arro* antroponimoa duten toponimoek sail tiki bat osatzen dute Euskal Herriko leku izen-degian: *Arroa*, *Arroitz*, *Arruiz*, *Arroze*, etab. Hemendik kanpo ere, gureari hurren, eza-gunak dira aipatu jende izena iturburu duten toponimoak (ikus Rohlf, 1952: 229-230).

Lasao

Udala: Zestoa (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Lasao*.

Dok.: (Top.) *pasaie de Lasao* (1385, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 241), «*el agua arriba al pasaje de Lasao*» (1385, Ayer. eta E., 2008: 18), *Lasao (herreria, 1489, Ayer., 1997: 561)*, «*la (herreria) de Lasao con martinete*» (Isas., 1850 [1625-26]: 235), *Valle de Lasao (ba., López, 1770)*, *Lasao (ba., DRAH, I, 1802: 209, 421; Mad., X, 1847: 91)*, *Lasáo* (Zestoa, bada., Nopgui, 1857: 19), *Lasáo mayor* (Mutriku, ca.d.l., *ibid.*, 129), *Lasáo menor (ibid.)*, *Lasao (ba., Go., 1862: 120)*.

(Antrop.) *Joan Martines de Lasao* (Oiartzun, 1455; Le. eta b., 2002: 195), «*Chartico de Lasao, su criado*» (Azpeitia, 1475; Ayer. eta E., 2008: 97), *Juan Garçia de Lasao* (1489, Ayer., 1997: 561), *Juan Garçia de Lasao* (Zestoa, 1489-1514; *ibid.*, 168).

EuskalOnom.: *Lasaoerreka* (Zestoako erreka, 2010, ZesM). Beste *Lasao* batzuk: *Lasáo de abajo*, *Lasáo de arriba* (Usurbil, ca.d.l., Nopgui, 1857: 74), *Lasao garaikoa* (Usurbilgo bas., 1992, UsuM), *Lasaoaundi* (Mutrikuko bas., 2000, MutM), *Lasaoaixiki (ibid.)*, *Lasao* (Alonsotegi, erreka Cadagua ibaian isurtzen den gunean; ikus Guezala eta Guiard, 1966: 155 eta Irig., 1991: 168).

EuskalTes.: «*Ugaiotarra ere arquitzen da (iturri) bat erritic legua-erديو bidastian, Ces-toaraco bidean Lasao olearen aurquez aurque*» (Izt., 1847: 82), «...*igarotzen da ausardia be-tean Lasao echadia esuitara utziric*» (*ibid.*, 113), «*Zestuan badauzkazu, Zestuoako partean, Arrua-goia, Arrua-beia, bi; Aizarna, Iraeta, Ibañarrieta, Endoia, Santa Engrazia, Lasao, San Juan*» (Uztapide, 1975: 105), «*Lasao ere izan giñan egun baten*» (*ibid.*, 148).

Ebak.: [lá.şa.òn] (in.) (Zes-038), [lá.şa.òn] (in), [lá.şa.o.rà] (adl.) (Zes-041).

Etimol.: Osagaiak *lats* 'errekastoa' eta *aho* 'ur-laster batekiko batze gunea' dirateke. Ikus Mitxelena (AV, 61 eta 398) eta Irigoien (1990: 304). Mutrikuko *Lasao* aurkintza (eta izen horretako bi baserriak, *Lasaoaundi* eta *Lasaoaixiki*) *Lasao* erreka Deba itsasadarrean isurtzen den gunean dago (Castro eta Larrañaga, 2012: 38 eta a.a.).

Ohartzeko da, zernahi gisaz, dirudien bezala lehen osagaia *lats* bada, ez duela afrikatua atxiki, elkarketan. Gauza bera dugu Gipuzkoako eta Arabako *Lasarte*-n, eta, elkarketatik kanpo, Baigorri aldeko *Lasao*-n. Gai honetaz ikus Irigoien (1992: 188-191). Autore honek (*ibid.*, 197) s-dun aldaera erabiltzea «izkribuetako formen eraginez» gertatzen dela dio. Bukaera dela eta, bizkaitar euskaltzainak (*ibid.*, 173) azpimarratzen du Bilboko *Askao* ez dela **Asko* bilakatu, ezta *Lasao* Mutrikukoa **Lasao* ere, horiekin batean *Bilbao* > *Bilbo* eta *Ubaio* > *Ubo* ditugun arren.

Zizurkil

IzenOfiz.: Zizurkil.

Dok.: «...Hernani, Zichurchil, Seiaz, Yziaz, Yraurui [...]» (1186-1193, Lac., 1949: 425; *fr.* Mtez.Dz., 1975: 209), «Don Martino de Valliarray, abad de la yglesia de Sant Juan de Cicurquill» (1384, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 236), *collaçion de Sant Millan de Çiçurquill* (1391, *ibid.*, 235), *collaçion de Çiçurquill* (*ibid.*, 323), «...las dichas collaciones e universidades e personas singulares de Sancta Maria d'Ernialde e de Santa Cathalina de Leyçarça e de Sant Miguell de Çiçurquill de Sant Miguell de Yrura» (*sic*) (1450, Le. eta Ta., 1996: 26), «universidades de Asteasu e de Larraul e de Alquiça e de Çiçurquill» (1492, Ayer. eta Dz.S., 1996: 496), Çiçurquill (1510, Her., Ach. eta Mo., 1998: 179), *Tierra de Çiçurquill* (1540, Ayer., 1997: 628), *Cicurquill* (Gari., II, 1628 [1571]: 378; Ortelius, 1588, mapa), «tierras de Aynduayn y Çiçurquill» (1592, Ayer. eta Dz.S., 1996: 630), *tierra de Çiçurquill* (1595, *ibid.*, 639), Çiçurquill (1615, *ibid.*, 673), *Cizurquill* (*vi.*, Isas., 1850 [1625-26]: 29), *villa de Zizurquill* (1684, Ayer., 2015: 915), *Cizurquill* (*vi.*, López, 1770; DRAH, I, 1802: 212; Mad., VI, 1847: 473; Go., 1862: 123).

EuskalTes.: «Cizurquillo mendian badira arrobiac caregaia ugari ematen dutenac» (Izt., 1847: 53), «Cizurquillgo mugapean badira iturri anitz ur garbia iori ematen dutenac» (*ibid.*, 86), «Cizurquillo mendian arquitezen da meatze zulo bat guztiz bide lucean ondo daucana» (*ibid.*, 66), «Villabona escutara eta ezquerrerontz Asteasu, Cizurquill, Aduna eta Sorabilla utziric [...]» (*ibid.*, 116), «Zizurkildikan Madrila aña / bide gutxi gora bera» (Otaño, 1932a: 102), «Zizurkildik atera izan omen da / talentu aundiko gizona» (Etxezarreta, 1932: 143), «Zizurkillen ere bai» (Uztapide, 1975: 159).

Ebak.: [ʃi.ʃúr.kil.kó] (lek.g.) (Adu-006), [ʃi.ʃúr.ki.ʎèn] (in.) (Bil-011).

Etimol.: Meyer-Lübke suitzar hizkuntzalariak aspalditxoko artikulu batean (1925: 77) dioena jakiteko ikus *Errezil* sarrera.

Mitxelenak (AV, 565), *txintxur* (*zintzur*-etik) 'zintzurra', 'mendi arteko mehaka' ukitzen duenean, esaten du J. Garatek Nafarroako *Zizur* biendako eta Gipuzkoako *Zizurkil*-endako *zintzur* 'gaintxo' proposatzen duela. Mitxelenak berak onargarrizat ematen du *Zizur* toponimoan *zintzur*-en aurreko forma egon daitekeelako ustea; azken hau -ongi ulertu badugu, erredakzioa ez baita guztiz argia, guretzat- kontsonante gehitua («adventicia» erdaraz) zukeen **zirzur*-etik aterako zen, disimilazioz. *Ulzama* toponimoa eta *altzeiru* izen arrunta horren parekotzat jotzen ditu; Orreagako 1284ko *Çinçurçu* toki izena ere aipatzen du, esandakoen sendogarri, iduriz.

Gure iritzian, *Zizurkil*-en *Zizur* (Iruñerrikoa bera) eta *-kil* atzizki txikigarria ditugu (Cfr. Debako *Cizurrola, ca.d.l.*, Nopgui, 1857: 21). Atzizkia, azalpena zuzena bada, konposatua da, *-ki* eta *-l* berrekailuak batzearen fruitu. Lehenak duen txikigarri eta hipokoristiko balioa argia da: *mutiki* 'mutikoa', *neskaki* 'nexka', *opilki* 'opil mehea', konparaziorako. Pertsona izenetan *-ki* dugu (*-gi* sudurkari ondoan) *Joangi*, *Joanki*, *Mariki(a)*, *Matxiki*, *Mitxelki*, *Mitxeleki*, *Peruki*, *Txaxiki*, *Xoaneki* eta beste hainbestetan (Sala., 2009: 138-139 eta 2018b: 717, 719, 724, 725), baita *-l* hutsa ere, nahiz hau bakarrik bakanetan

edireten dugun: *Baskol* (*Basko*), *Enekol* (*Eneko*) (Sala., 2009: 160–161). Mikrotoponimian txikigarria edo lekuzkoa izan daiteke *-ki*: *Atatxarki* (Galbarra), *Iturrikia* (Ollongoien), *Kortaki* (Eulate), *Zalduki* (Ekala), *Zaldukia* (Antzin eta Legaria), *Zubizarki* (Artatza), *Zufizarki* (Larragoa), denak ere oraindik bizirik daudenak (Sala., 1998: 80–81). Amasan *Miguell de Mumoqui* lekukotzen da 1450ean (Le. eta Ta., 1996: 20), iduriz osagaitzat *muno* ‘muinoa’ eta *-ki* atzizkia dituen deizioa.

Beste aukera bat *Zizur*, *-ki* atzizki tokizko edo txikigarria eta *bil* ‘biribila’ adjektiboa ikustea da, ezaguna baita bokal arteko lekunean *b* igurzkaria erortzeko izan den joera, galera beti gauzatu ez den arren. *Cfr.*, adibidez, *Etxarri* / *Etxabarri* / *Etxeberri* Nafarroako eta bestetako herri izenak.

HerritarIz.: *zizurkildar*.

Elbarrena (-a)

Udala: Zizurkil (auzoa).

IzenOfiz.: *Elbarrena*.

EuskalTes.: «*Zizurkil-beian ere bai; izan gera an ere*» (Uztapide, 1975: 160).

Ebak.: [el.bá.re.nà] (Adu-006).

Ebak.: [ʃi.ʃúr.kil.be.rá] (abs.) (Ziz-I).

Etimol.: Hainbat tokitan aurkitzen dugun *Elbarrena* ere erabiltzen da bestela *Zizurkilbea* deitzen den auzoa izendatzeko (ikus Ataungo *Elbarrena* eta *San Martin* sarre-rak). Osagaiak *herri*-ren elkarketako (*h*)*er*- aldaera, *barren* ‘beheitikoa’ eta *-a* artikulua dira. Ikusten den eran, jatorrizko **Erbarrena* gero *Elbarrena* bilakatu da, beste toki askotan agitu den moduan, dardarkari disimilazioz.

Zizurkilbea (-a) (ikus *Elbarrena*)

Zizurkilgoia (-a)

Udala: Zizurkil (auzoa).

Ebak.: [ʃi.ʃúr.kil.go.rá] (abs.) (Ziz-I).

Etimol.: Osagaiak *Zizurkil* herri izena (ikus sarrera hau) eta *-goia* ‘goikoa’-tik atera bide den *gora* dira.

Zumaia

IzenOfiz.: Zumaia.

Dok.: *monasterio de Sancta Maria de Çumaya* (1292, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 70), «*Que haya nonbre el dicho logar Villagrana de Çumaya*» (1347, *ibid.*, 253), «*Miguell Ibañez de Orio, vezino de la dicha Villagrana de Çumaya*» (1379, *ibid.*, 1996: 106), «*Iohan Ruys de Ybiacays vesino de Çumaya*» (1380, Ayer. eta E., 2008: 9), «*Iohan Ruys (sic) de Ydiacays vesino de Çumaya*» (*ibid.*, 11), «*...Santa Maria de Çumaya que ha agora nombre Sant Pedro de Çumaya*» (1382, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 176), «*Iohan Lopez d'Ayçarnaçaval procurador de las villas de Çaraus e de Çumaya*» (1390, Dz.S., 1985: 150), «*...e omes buenos de la Villagrana de Çumaya*» (1393, Ayer. eta E., 2008: 28), «*Villagrana de Çumaya e Belmonte de Usurbill e Santa Crus de Çestona*» (1417, Ayer., 1993: 85), «*Juan de Mainçiçidor, vesino de Çumaya*» (1475, Ayer. eta E., 2008: 100), «*...en el arrabal de Çumaya [...] Juan de Sararte, veçino de Sumaya*» (*sic*) (1518, Iri., 2013: 219), «*...y los rios Deua, que en Deua entre en la mar, y Vrola, que en Çumaya*» (Gari., I, 1628 [1571]: 58), *Cumaia (sic)* (Ortelius, 1588, mapa), *Çumaia (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29)*, «*...iuxta Çumayam vicum mari infunditur*»¹²⁵ (Oihenart, 1992 [1637]: 683), «*Zumaya alias Villagrana*» (*vi., López, 1770*), *Zumaya (vi., DRAH, II, 1802: 535)*, *Zumaya (Mad., XVI, 1850: 678; Go., 1862: 658)*.

EuskalOnom.: *Zumaiagaña* (Getariako aurk., 2012, GetM).

EuskalTes.: «*Zumayaco Indo deitzen zaion mendian arkitzen dira arrobiac*» (Izt., 1847: 55-56), «*Zumayaren mugapean badira iturri onac*» (*ibid.*, 108), «*Aizarnazabal, eta Oiquiñaren guertutic igarotzen da Zumaiara*» (*ibid.*, 113), «*...Zumaya, Deva eta Motricu*» (*ibid.*, 202), «*Pedro Balentziagak Zumaiatik: [...]*» (Orixe, 1985 [1929]: 56), *Zumaia'koa* (Lizardi, 1972 [1934]: 137), «*Aginaga eta Zumaya'k ere / egin dute alegiña*» (Zabala, 1992: 502).

Ebak.: [su.má.jàn] (in.) (Zum-013), [su.má.dzàn] (in.) (Zum-054), [su.má.ja.ti.kàn], [su.má.ja.tìk] (abl.) (Aiz-001), [su.má.jan], [su.máj.dzàn] (in.) (Get-017), [su.máj.ku.à] (lek.g. + abs.) (Zar-014).

Etimol.: Gavelek (1931: 45) *Villabona* gaskoitik hartua dela dio, eta Zumaiaren «izen zaharretako bat» den *Villagrana* ‘ville grande’ ere hizkuntza horretatik mailegatua dela.

Mitxelena (AV, 623) *Zumaya* toponimoa *zuhai(n)*, *zumai* ‘zuhaina’, ‘belar bazka’ izen arruntaren eratorritzat ematen du, eta izan ere, badirudi hala dela. Begira zer dioen Aragónek (2009: 112), Debako 1394ko ordenantzen kariatara: «...los árboles de los seles eran utilizados por los vaquerizos de los seles para obtener, leña, hoja y “zur-maya” para las vacas». Honakoa irakur daiteke aipatzen dituen ordenantzetan (Deba, 1412-1477, Le. eta b., 2002: 190; lodia gurea da): «*Otrosi, que los baquerizos que estuvieron*

¹²⁵ “...Zumaia herriaren ondoan itsasora isurtzen da”.



Algorri (Zumaia)

en nuestra jurisdicción a guardar vacas que puedan cortar de las ramas de los robres cada uno d'ellos en el sel donde estuviere con las vacas para su lenna e para ostoa e para çurmaya para las vacas del dicho sel adonde estuviere [...].

Zernahi gisaz, *Zumaia* ez da behin ere *-r*-rekin agertzen, eta, bestalde, Lapurdiko *Hendaia*, *Makaia* (> *Makea*) eta Nafarroako *Zozaia* (Oronoz) hor daude, baita Gipuzkoako *Zaraia* mendia ere («...*Urbiet*a, *Aranzazumendi*, *Zaraia*, *Aloña*», «*Zaraiaco* mendia*ren chunchurretic*»; Izt., 1847: 35, 37). Ikus Arabako *Araia* eta *Arraia* toponimoak aztertzean dioguna (Sala., 2015a: 82–83 eta 99)¹²⁶.

Yarzak (2014: 1123–1124), Pliniok eta Ptolomeok aipatzen duten *Menosca* herri-gunearen kokalekua finkatu beharrez ari dela, hastapenean Zarautz eta Getariaren arteko *Meaga*-rekin identifikatu nahi du, baina, Ptolomeok *Menosca* testuan *Meelaco* ibaia isurtzen den tokian ezartzen baitu, *Meaga* ezin izan eta, hondarrean, *Zumaia* ematen du kokalekutat. Toponimoaren etimoa **Vimenosica* edo **Mimenosica* ‘zumea ugari den *terra* edo *villa*’ dateke Yarzaren arabera, *Zumaia* ‘zumadia’ herri izenaren jatorrizko adierarekin bat datorrelako.

Baliteke gauzak aipatu autoreak nahi duen bezala izatea, baina *Zumaia*-ren oinarrian *zume* ote dagoen ez da segurua, batez ere amaiera, *-(a)ia*, zer den ez dakigulako.

¹²⁶ Meyer-Lübke (1925: 81–82) *-aya* bukaera ukitzen du, baina biltzen dituen toponimoetan etorki bateko baino gehiagotako onimoak daude.

**Vimenosica* edo **Mimenosica* ustezko etimoa, bestalde, geografo klasikoen *Menosca* eta egungo *Zumaia* lotzeko proposatu da, argi eta garbi, ez du beste «izaerarik» edo arrazoirik.

HerritarIz.: *zumaia*r.

Artadi

Udala: Zumaia (bizt. ent. ber.; auzoa).

IzenOfiz.: *Artadi*.

Dok.: *Sant Miguel Artadico* (*va.o.ba.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *San Miguel Artadico* (*ai.*, *ibid.*, 211), *Artadi* (*ba.*, López, 1770; DRAH, I, 1802: 108), *Artadi* (*lu.*, Mad., III, 1847: 216), *Artadi* (*bada.*, Nopgui, 1857: 36), «*Tiene un barrio llamado Artadi, con una iglesia parroquial de la advocacion de San Miguel, servida por un rector*» (Go., 1862: 658).

Ebak.: [ʃan.mi.ɣé], de.ar.tá.ði] (abs.) (Zum-017).

Etimol.: *Artadi* berez izen arrunta da, *arte* zuhaitz izenaren multzokaria, 'arte basoa' adiera duena.

Oikia

Udala: Zumaia (bizt. ent. ber.; elizatea, ibarra).

IzenOfiz.: *Oikia*.

Dok.: (Top.) *Termino de Oquina* (1340, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 225), *Oyquina* (1344, *ibid.*, 1996: 449), *eglesia de Sant Bartolome de Oquina* (1344, J. Elorza, 2009: 14), *la iglesia de Sant Bartolome d'Oyquina* (*ibid.*, 28), «*...fasta Oquena e Narrundo*» (1347, Mtez., Glez. eta Mtez., 1991: 253), *termino d'Oquina* (1371, *ibid.*, 1996: 33), «*...vesinos de la collaçion e vesindad de Sant Miguel de Ayçarrnaçabal e de Seyas e Oyquina*» (1486, J. Elorza, 2009: 138), «*El conçejo de Çumaya con Oquina e Sayaz*» (1509, *ibid.*, 254), *Oquina* (Ortelius, 1588, mapa), *Oquina* (*lu.*, Isas., 1850 [1625–26]: 29), *San Bartolome de Oquina* (*ai.*, *ibid.*, 211), *Oquina* (*ba.*, López, 1770), *Oiquina* (*va.ɣ.lu.*, DRAH, II, 1802: 174, 535), *Oiquina* (*ai.*, Mad., XII, 1849: 220), *Oiquina* (*ba.*, Nopgui, 1857: 36), «*Oiquina: valle de la jurisdiccion de la villa de Zumaya*» (Go., 1862: 329).

(Antrop.) *Martin Perez d'Oyquina* (1371, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 431, 155).

EuskalOnom.: Bernedon *Okia* herria dugu (Sala., 2015a: 308).

EuskalTes.: «*Oiquinaco echadian Mancidor esaten zaion zubiaren alboan*» (Izt., 1847: 100), «(Urolak) *emendic* (Zestoatik) *jarraitzen du Arroaco ibarrera, eta andic Iraetaco echadiara. Aizarnazabal, eta Oiquinaren guertutic igarotzen da Zumaiaara*» (*ibid.*, 113), «*...or bada Zakillu-buelta esan oi zaiona: Arruatik Iraetara, andik Soaitzenera, Oikiatik Larrondora, eta atzera Arruara; ori da Zakillu-buelta*» (Uztapide, 1975: 107), «*Oikian ere izaten giñan*» (*ibid.*, 146).

Ebak.: [ó.ki.jà] (abs.), [oĩ.kí.ja.ku.e.nà] (lek.g. + gen. + abs.) (Zum-006), [óĩ.ki.jà], [oĩ.kí.jà] (abs.) (Aiz-001).

Etimol.: Erdaraz *Oiquina* eta euskaraz *Oikia* izatea antrotoponimoa ikustearen alde mintzo da, ezbairik gabe. Alegia, Nafarroako *Gulina* / *Gulia*, *Zolina* / *Zolia*-ren eta Arabako *Marquina* / *Markia*-ren erako toponimoa da, oinarrian pertsona izena duena. Antroponimoa Arabako *Oquina* / *Okia*-rendako proposatu genuen (Sala., 2015a: 308) *Occius* bera (Italian lekukotzen da; EDH) dela uste dugu, eta toponimoaren bilakaera hau izan dela: **(uilla) occina* ‘Occius izenekoaren baserria, lurra’ > *Ofkjsina* > *Oquina* (erd.) / **Okĩñã* > **Okĩñã* > **Okia* (eus.). Puntu honetan, kontu egin beharko dugu Arabako *Domakia* > *Domaikia*-n, *Oretia* > *Oreitia*-n eta Bizkaiko *Leketio* > *Leketitio*-ren moduko gertakaria izan dela hemen ere, hau da, bukaeran *-CiV* duten beste toponimo batzuetan bezala, aitzineko silaban bokalerdia garatu dela (*-VCiV* > *-ViCiV*; Sala., 2015a: 412).

**Okia* edo *Oikia* euskal aldaera ez dugu behin ere dokumentazioan aurkitu, baina ez dago zalantzarik hor zegoela (*cf.* 1390eko *Martin d’Arroa*, *Arroa*-ren testigutza zaharretan). Gero, *Oikia*-k erdarazko *Oquina*-ri eragingo zion, eta hau *Oiquina* bihurtuko zen.

Zumarraga

IzenOfiz.: *Zumarraga*.

Dok.: (Top.) *collaçion Santa Maria de Çumarraga* (1383, Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 190), *collaçion de Santa Maria de Çu[m]arraga* (1390, Dz.S., 1985: 155), *tierra de Çumarraga* (1526, Le. eta b., 2002: 354), *Cumaraga* (sic) (Ortelius, 1588, mapa), *Çumarraga, Zumarraga* (vi., Isas., 1850 [1625-26]: 29, 115), *Zumarraga* (vi., López, 1770), «*Zumárraga, v[illa] de la union de Arguisano*» (DRAH, II, 1802: 534), *Zumarraga* (vi., Mad., XVI, 1850: 678; Go., 1862: 645).

(Antrop.) *Garcia Lopez de Çumarraga* (Arrasate, 1374; Mtez., Glez. eta Mtez., 1996: 57), *Martin de Çumarraga* (Segura, *ibid.*), *Lope Yvañez de Çumarraga* (Segura, 1429; Ayer., 1997: 517).

EuskalOnom.: *Chumarraga* (Irun, ca.d.l., Nopgui, 1857: 49), *Zumarraga berri* (Bilbona-Amasako etxea, 1994, BilM), *Zumarraga zahar* (*ibid.*), *Txumarraga* (Irungo bas., 2008, IrnM).

EuskalTes.: «*Arrobi onetaco arriaquin [...] eguiña aurquitzen da Zumarragaco elizaren aurreco estalpe bitorea*» (Izt., 1847: 58), «*...ceñetara jachitzen dan ibai au lendabici, eta guero dator Zumarraga Villa-errealera [...]. Zumarraga guelditzen da escutara, eta ezquerrerontz Villa-erreal*» (*ibid.*, 113), «*Eta guztien gañecoa da Santa Lucia egunean Zumarraga Villa-errealera batutzen dan zamari chiqui oetaco samalda andia*» (*ibid.*, 184), «*Zumarraga-ko gelune edo estazioan gutxi-gutxigatik etzioten eman Burdeoserako txartel edo billetea*» (Urruzuno, 1988: 155), «*Ba zitun etsaiak Azpeitin, Azkoitin, Zumarragan, eta gizatalde bat atzetik zetorkion [...]. Zumarragan egon ainbeste gizonekin eta Artetxerrekan aldegitea galeraziz bere artan itxi zezakela, ez ta mugitu ere Zumarragatik*» (Orixe, 1985 [1929], 66), «*Lizarragak bere mutil-sailla Azpetititik (sic) Zumarragara aldatu nai ta asi zan [...]*» (*ibid.*, 70), «*estazi-yotik Ormaiztegira / Ezkiyo non dan galdian: / Zumarragatik automobillak / danak alkarren pelian*» (Txirrita, 1931b: 15), «*Zumarragatik Donostia-ra / neska ori etorriya*» (ezezaguna4, 1932: 304), «*Zumarraga'ko euskal-egunera gatoz*» (Lizardi, 1972 [1934]: 91), «*Gualupe bialdu dezakezu orain gurekin Zumarraga'ra*» (Labayen, 1976, II; 137).

Ebak.: *Zumárra* (abs.) (Zumarraga, Ugarte, 1998: 453), *Zumarrá* (adl.), *Zumarráko* (lek.g.) (Zegama, Azur., 1997: 253), [su.má.rá] (abs.), [su.má.ra.kòk] (lek.g. + abs.) (Zmg-030), [su.má.ràn] (in.) (Ant-079), [su.má.rá] (adl.) (Azp-029), [su.má.ràn] (in.) (Bea-019), [su.má.raj.nò] (muga adl.) (Gab-004).

Etimol. Etxabek (1970 [1607]: 22), Logroño ondoko *Cantabria* muinoaz ari delarik, honela dio:

...a quien aviendola poblado llamaron *Canta Uria*, que quiere dezir ciudad ò *pueblo de canto*, ò *canta*, por que ya lo sabeis que a la ciudad, ò poblacion, en nuestro language llamamos *Yria* y *Uria* [...] mas añadiendole la dicion *Ga* ò *Aga*, a cualquiera nombre propio ò comun, particularmente de puesto, poblacion ò monte, rio ò casa, comprehende no tan solamente la cosa asi nombrada, mas tambien la comarca, asi como *Ori Arriaga*, *Astigarraga*, *Çumarraga*, *Uriaga*, y otras muchas.

Toponimoaren etorkia argia da (Sala., 2011c: 91-92): oinarria *zumar* zuhaitz izena dugu, beste alderdi batzuetan *zugar* deitzen den bera, eta berrekailua hainbestetan edireten dugun *-aga* leku-ugaritasunezkoa. *Zumar* zuhaitz izena, bestalde, **zunar*-etik atera bide da: hemendik, bokal arteko sudurkari biguna erori, eta, *u* sudurkaritu ondoan (**zũhār* > **zũhār*), sudurkaria berriz sortuko zen, baina oraingoan ezpainbiko gisa, Bizkaiko *Lumo* > *Lumo*-n bezala (ikus Mitx., 1977a: 301 eta hur.).

HerritarIz.: *zumarraġar*.

HerritarEz.: *otamotzak*, *otamoxkak* ('ote motzak').

Agiñaga

Udala: Zumarraga (bizt. ent. ber.; auzoa).

Dok.: (Top.) «...*los vezinos que biuiesen e morasen en las dichas casas e caserías de Aguinaga, e paġer con sus ganados mayores e menores, e beuer las aguas en todos los terminos e hervados de la dicha tierra de Çumarraga*» (1494, Ayer. eta S.M., 2013: 241-242), *San Cristoval de Aguinaga* (eliza, Isas., 1850 [1625-26]: 220), *Varrio de Aguinaga* (1768, Ugarte, 1998: 206). Cfr. hau: «...*moradores en Aguinaga, juridiġion de la villa de Ayzcoytia, senores de la casa e caseria de Abendano*» (1478, Ayer. eta S.M., 2013: 202).

(Antrop.) *Sancho Martines de Aguinaga* (Legazpi?, 1390; Cres., Cr. eta Go., 1992: 140).

Ebak.: *Agiñá* (Ugarte, 1998, 206), [a.í.ná] (abs.), [a.í.nàn] (in.) (Zmg-030).

Etimol.: Ikus Eibarko *Agiñaga* sarrera.

Ondorioak

Lanean zehar ikusi ditugunetak hainbat ondorio atera daitezke, mota batekoak baino gehiagotakoak, baina hemen toponimoak sailkatzeko dauden erak baizik ez ditugu aipatuko, lau denetara.

1. Lehen sailkapena

Aurrena leku izenek guretzat duten ulergarritasun mailaren arabera sailka ditzakegu, **argiak** diren, **zalantzazkoak** edo **ilun(xko)ak**. Lehen multzoan azaltzen diren guztiak argiak dira, baina ez, inola ere, hein berean. Oro har, deskribatzaileak franko gardenagoak ohi dira antrotoponimoak baino: adibidez, *Olaberria*-ren azalpen etimologikoa aise ulertezago zaio nornahiri -eta beraz anitzez seguruagoa da- ezen ez *Andoain*-ena, demagun.

Bestalde, zenbait aldiz, lehenbiziko taldean sartu ditugun batzuk gure irudiz dira argiak, baina ez menturaz beste ikertzaile batzuen ustean. Gero, tarteka, zalantza izan dugu halako toponimoa 1.1en edo 1.2n eman, eta orain batean sartu, orain bestean ibili gara, seinale gauzak kasu horietan zeharo garbi ez ditugula. Beraz, har bedi hau kontu pixka batekin.

1.1. Toponimo argiak

Aduna, Agiñaga (3), Aia (2), Aiztondo, Alegia, Altza, Altzaga, Altzo, Altzoazpi, Altzola (2), Altzomuño, Amezketa, Andoain, Anduaga, Angiozar, Anoeta, Antzuola, Arantzazu, Araotz, Areantza, Aretxabaleta, Argisain, Aristerratzu, Arkaraso, Arrasate, Arriaran, Arrietamendi, Arroa, Arroabea eta Arroagoia, Artadi, Askizu, Astigarraga, Astigarreta, Astigarribia, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Bedaio, Bedoña, Behobia, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Beterri, Bolibar, Deba, Donostia / San Sebastián, Elbarrena (2), Elgeta, Elkano, Elorriaga, Elosua, Errenteria, Eskoriatza, Ezkio, Gabiria, Gaintza, Galartza, Garagartza, Gatzaga, Gaztelu, Gellao, Gesalibar, Getaria, Gipuzkoa, Goiatz, Goierri, Goroeta, Hernialde, Hondarribia, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Itsaso, Itsasondo, Izarraitz; Kosta, Kostaldea edo Itsasaldea; Larrino, Lasao, Lasarte, Lazkao, Legorreta, Leintz, Leitzarain, Lizartza, Loiola, Martirieta, Matxinbenta, Mendaro, Mendiola, Mutiloa, Oikia, Olaberria, Olatz, Orendain, Orereta, Oresa, Oriá, Orió, Pasai Antxo, Pasai Donibane, Pasai San Juan, Pasaia, Pausua, Probintzia, San Gregorio, San Martín, Santa Lutzia, Santa Marina, Segura, Sorabilla, Soraluze, Ugarte, Urdaiaga, Urdaneta, Uribarri (2), Urkizu, Urrestilla, Urretxu, Urrexola, Uzarraga, Zaldibia, Zegama, Zendoia, Zerain, Zestoa, Zubieta eta Zumarraga.

1.2. Guztiz argi ez daudenak

Abaltzisketa, Aizarnazabal, Albiztur, Aldaba, Alkiza, Apotzaga, Arama, Azpilgoeta, Beasain, Beizama, Bidania, Eibar, Elgoibar, Errezil, Garin, Gudugarreta, Hernani, Idiazabal, Igeldo, Irun, Isurieta, Larraul, Laurgain, Leaburu, Legazpi, Marin, Mijoa, Mutriku, Nuarbe, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Ormaiztegi, Saiatz, Tòlosa, Udala, Ugazua, Urnieta, Usurbil, Zizurkil, Zumaia.

1.3. Ilun(xko)ak

Aizarna, Amasa, Andatza, Aozaratz, Aratz, Areria, Asteasu, Baliarrain, Bergara, Eldua, Elduain, Itziar, Lezo, Mazmela, Zarimutz, Zarautz, Zeba.

2. Bigarren sailkapena

Toponimoak beste era honetara ere sailka ditzakegu: zentzu orokorrean **deskribatzailetzat** jo ditzakegunak lehenbizi, **antrotoponimoak** (antropónimo batean oinarrituta daudenak) gero, eta fundatu zirenean **desirazko**, **zorte oneko** izendapena jaso zutenak azkenik. Ikusten den bezala, bigarren sailkapen honetan lehenean ilun(xko)tzat hartu ditugun gehienak falta dira, *Asteasu, Tòlosa* eta *Zarautz*, esaterako.

2.1. Deskribatzaileak

Abaltzisketa, Agiñaga (3), Aia (2), Aizarnazabal, Aiztondo, Albiztur, Aldaba, Altza, Altzaga, Altzo, Altzoazpi, Altzola (2), Altzomuño, Amezket, Anduaga, Angiozar, Antzuola, Apotzaga, Arantzazu, Araotz, Areantza, Aretxabaleta, Aristerratzu, Arkaraso, Arrasate, Arriaran, Arrietamendi, Arroabea eta Arroagoia, Artadi, Askizu, Astigarraga, Astigarreta, Astigarribia, Atauñ, Azkoitia, Azpeitia, Azpilgoeta, Behobia, Belauntza, Berrobi, Beterri, Bolibar, Eibar, Elbarrena (2), Elgeta, Elgoibar, Elkano, Elorriaga, Elosua, Erreterria, Errezil, Eskoriatza, Ezkio, Gaintza, Galartza, Garagartza, Gatzaga, Gaztelu, Gesalibar, Getaria, Goiatz, Goierri, Goroeta, Gudugarreta, Hernalde, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Igeldo, Ikaztegieta, Irun, Irura, Isurieta, Itsaso, Itsasondo, Itziar (?), Izarratiz, Kosta, Kostaldea edo Itsasaldea; Larraul, Larrino, Lasao, Lasarte, Laurgain, Leaburu, Legazpi, Legorreta, Leitzaran, Lizartza, Loiola, Mendiola, Nuarbe, Oiartzun, Olaberria, Olatz, Oñati, Oreteta, Ormaiztegi, Pasaia, Pausua, Probintzia, Sorabilla, Soraluze, Udala (?), Ugarte, Ugazua, Uribarri (2), Urkizu, Urnieta, Urrestilla, Urretxu, Urrexola, Usurbil, Uzarraga, Zaldibia, Zizurkilbea, Zizurkilgoia, Zubieta eta Zumarraga.

2.2. Antrotoponimoak

Aduna (?), Albiztur (?), Alkiza (?), Andoain, Anoeta, Arama (?), Argisain, Arroa, Beasain, Bedaio, Bedoña, Berastegi, Bidania (?), Deba (teotoponimoa), Donostia / San Se-

bastián (hagiotop.), *Gabiria*, *Garin* (?), *Gellao*, *Gipuzkoa*, *Hernani*, *Hernalde*, *Lazkao*, *Leaburu* (?), *Leintz*, *Marin* (?), *Martirieta*, *Matxinbenta*, *Mendaro*, *Mijoa*, *Mutiloa*, *Mutriku* (?), *Oikia*, *Ordizia*, *Orendain*, *Orexa*, *Oria*, *Orio*, (*Pasai*) *Antxo*, (*Pasai*) *Donibane* (hagiotop.), (*Pasai*) *San Pedro* (hagiotop.), *San Gregorio* (hagiotop.), *San Martin* (hagiotop.), *Santa Lutzia* (hagiotop.), *Santa Marina* (hagiotop.), *Urdaiaga*, *Urdaneta*, *Zendoia*, *Zerain*, *Zestoa*.

2.3. Erdi Aroan jaiotako desirazko eta zorte oneko izenak¹²⁷

Bizirik daudenak: *Alegia*, *Billabona*, *Billafranka*, *Billarreal* (*Urretxu*), *Mondragoe*,¹²⁸ *Plazentzia*, *Segura*.

Zaharrak: *Belmonte de Usurbil* (*Usurbil*), *Marquina de Suso* (*Eibar* eta *Soraluze*), *Marquina de Yuso* (*Elgoibar*), *Miranda de Iraurgi* eta *San Martin de Iraurgi* (*Azkoitia*), *Monterreal de Deba* (*Deba*), *Salvatierra de Iraurgi* (*Azpeitia*), *Santa Cruz de Çestona* (*Zestoa*), *Villagrana de Çumaya* (*Zumaia*), *Villamayor de Marquina* (*Elgoibar*), *Villanueva de San Andres* edo *San Andres de Eibar* (*Eibar*).

Tankera honetakoak dira, baina zelta (indoeuropar) jatorrikoak, *Beizama* eta *Zegama*; badaiteke *Arama* ere taxu berekoa izatea.

3. Hirugarren sailkapena

Hirugarren sailkapena ere egin daiteke Gipuzkoako toki izenekin: deskribatzailetzat eman ditugunak **osagai duten elementuren bat erreferentzia** hartuta multzoka daitezke, eta, antrotoponimoen eremuan, **erroan dagoen pertsona izena** (gentilizioa edo izen arrunta, inoiz) eduki daiteke kontuan.

Aintzat har bedi, puntu honetan, toponimo deskribatzaile batzuk **multzo batean baino gehiagotan** sar daitezkeela. Konparaziorako, *Arroabea* eta *Arroagoia* kokalekuaz edo kokaleku korrelatiboaz mintzo zaizkigunen artean paratu ditugu, baina *Arroa* oinarria antrotoponimoa dugu etorkiz. *Lasao*, *Lasarte* eta *Ugarte*, bestalde, kokagunea adierazten diguten toki izenetan sailkatu ditugu; ordea, urarekin zerikusia dutenetan ere badute lekua.

¹²⁷ Berez izendabideak zabalagoak dira, ez bakarrik desirazkoak eta zorte onekoak. Nolabait deitu behar, ordea, eta holaxe egin dugu.

¹²⁸ Hau beste tankera batekoa da, mito eta elezaharrekin lotutakoa, eta labur-zurrean baizik ez dugu hemen sartu. Cfi. euskarazko *Laminputzu*, *Tartaloetxeta* eta abar.

3.1. Deskribatzaileak

3.1.1. Zuhaitz eta landare izenetan oinarri dutenak

Abaltzisketa (?), *Agiñaga* (3), *Altza*, *Altzağa*, *Altzo*, *Altzoazpi*, *Altzola* (2), *Altzomuño*, *Amezqueta*, *Anduaga*, *Arantzazu*, *Aretxabaleta*, *Aristerratzu*, *Arkaraso*, *Artadi*, *Askizu*, *Astigarra*, *Astigarreta*, *Astigarribia*, *Elorriaga*, *Elosua*, *Ezkio*, *Galartza*, *Itsaso*, *Itsasondo*, *Itziar* (?), *Izarraitz*, *Lizartza*, *Oiartzun* (?), *Urkizu*, *Urrestilla*, *Urretxu*, *Urrexola*, *Uzarraga*, *Zumaia* (?), *Zumarraga*.

3.1.2. Lurraren ezaugarri batean oinarri dutenak

Areantza, *Gesalibar*, *Gatzaga*, *Hondarribia*, *Legazpi*, *Legorreta*.

3.1.3. Orografiaz eta tokiaren nolakoaz hitz egiten digutenak

Aia (2), *Aizarnazabal*, *Aldaba* (?), *Altzomuño*, *Araotz*, *Arrasate*, *Arriaran*, *Arrietamendi*, *Astigarribia*, *Behobia*, *Bergara* (?), *Berrobi*, *Bolibar*, *Eibar*, *Elgoibar*, *Gesalibar*, *Gudugarreta* (?), *Hondarribia*, *Ibarra*, *Idiazabal*, *Irura*, *Leaburu*, *Leitzaran*, *Mendiola*, *Usurbil* (?), *Zaldibia*, *Zizurkil* (?).

3.1.4. Kokalekuaz eta kokaleku korrelatiboaz mintzo zaizkigunak¹²⁹

Aiztondo, *Altzoazpi* / *Altzomuño*, *Arroabea* / *Arroagoia*, *Azkoitia* / *Azpeitia*, *Beterri* (ikus) / *Goierrri* / *Kosta(Idea)*, *Itsasaldea*; *Elbarrena* (2), *Elduain* (?), *Gaintza*, *Goiatz*, *Goroeta*, *Hermialde*, *Itsasondo*, *Lasao*, *Lasarte*, *Laurgain*, *Leaburu*, *Legazpi* (?), *Nuarbe* (?), *Ugarte*, *Zizurkilbea* / *Zizurkilgoia*.

3.1.5. Urarekin lotuak daudenak

Kosta, *Kostaldea* edo *Itsasaldea*; *Lasao*, *Lasarte*, *Oñati* (?), *Ormaiztegi* (?), *Ugarte*, *Ugazua* (?), *Isurieta* (?), *Leaburu* (?), *Usurbil* (?). Baita *Deba* ere, nonbait.

3.1.6. Ura zeharkatzearekin zerikusia dutenak

Astigarribia, *Behobia*, *Hondarribia*, *Pasaia*, *Pausua*, *Zaldibia*, *Zubieta*.

3.1.7. Eraikuntzaren bat erreferentzia hartzen dutenak

Albiztur, *Altzola* (2), *Antzuola*, *Errenteria*, *Gaztelu*, *Getaria*, *Loiola*, *Mendiola*, *Olaberria*, *Olatz*, *Urrexola*, *Zubieta*.

¹²⁹ Hauek, hein handi batean, Irigoienek (1995: 197-198) «argigarri toponymikoak» deitzen dituenen barnean sartzen dira. González Rodríguezek (1999: 29-31), neurri batez euskarazkoen baliokideak diren formak (*Campoo de Suso*, *Campoo de Yuso* eta *Campoo de Enmedio*, konparazione), «toponimia debida a la situación relativa» izenburua daraman atalean aztertzen ditu.

3.1.8. Abeltzaintza eta nekazaritzarekin zerikusia du(ke)tenak

Altzola (2), Angiozar, Antzuola, Belauntza, Berrobi, Elgeta, Elkano, Garagartza, Larraul (?), Larrino, Loiola, Mendiola, Olaberria, Olatz, Sorabilla, Soraluze, Udala (?), Urrexola.

3.1.9. Arrantzarekin nolabaiteko esteka dutenak

Getaria.

3.1.10. Industriarekin lotuta daudenak

Bolibar, Errenteria, Eskoriatza, Ikaztegieta.

3.1.11. Populazio gune bati erreferentzia egiten diotenak

Elbarrena (2), Irun, Leitzarain, Probintzia, Uribarri (2).

3.1.12. Ilun(kar)ak

Aizarna, Aozaratza, Areria, Asteasu, Errezil, Gudugarreta, Igeldo, Urnieta, Zarautz.

3.2. Antrotoponimoei dagokienez, oinarrian duten pertsona izenari (edo santu izenari, hagiotoponimoetan) so egin diezaikegu:

*Aduna (*Adunus)*

Albiztur (Albius, Albi?)

Andoain (Antonianus edo Antonius)

Anoeta (Hanno)

Arama (Arabus?)

Argisain (Argis(o), Argix(o))

Arroa (Arro)

*Beasain (*Bearzo, *Bearso)*

Bedaio (Bedaio)

Bedoña (Vedonius edo Bedo)

Berastegi (Berats(a))

Bidania (Fidius?)

Donostia / San Sebastián ([done / san] Sebastianus)

Gabiria (Cabilius edo Gaberius)

Hernalde (Ernius)

*Hernani (*Errannus?)*

Gellao (Gellius edo Gellu)

Gipuzkoa, Ipuzkoa (giputz, iputz)

Lazkao (Lascus)

Leintz (Lenius)

Martirieta (martiri)

Matxinbenta (Matxin)
Mendaro (Mento edo Mendus)
Mijoa (Visius?)
Mutiloa (mutil edo Mutil)
Mutriku (Botrius, Brotius, Brotrius, Motr(i)us)
Oikia (Occius)
*Ordizia (*Ortisius?)*
Orendain (Orentius)
Orexa (Oresius)
Oria (Olius)
Orio (Olius)
Pasai Antxo (Antso, Antxo)
Pasai San Juan (→ Pasai Donibane) (Juan)
Pasai San Pedro (Pedro)
San Gregorio (Gregorio)
San Martin (Martin)
Santa Lutzia (Lutzia)
Santa Marina (Marina)
Urdaiaga (urdai?)
*Urdaneta (*urdan-?)*
Zendoia (Sentonius)
Zerain (Seranus)
Zestoa (Sextus)

Antrotoponimoak ote diren zalantzan daudenak: *Asteasu, Garin, Leaburu, Marin*.

4. Laugarren sailkapena

Leku izenak sailkatzeko beste bide bat morfologikoa da: deskribatzaileetan **elkarketa** edo **eratorpena** ibili ote den ikus daiteke eta, eratorpena dugunean, atzizkien zerrenda egin daiteke. Hauetaz landara, badira itxuraz **elementu bakarreko toponimoak**, baita nahitaez elkartutzat hartuko ez genituzkeen *izen + izenondo + artikulua* egiturakoak ere. Hauetako batzuetan, alabaina, lehen osagaiaren azken bokala aldatua dago, holakoetan *izen + adjektibo* segida arrunta ez dela salatzen duen ezaugarria. Horregatik, besteak beste direla, horiek ere elkartuetan eman ditugu.

Antrotoponimoetan antzeko sailkapena egin daiteke, nahiz eta elkartuak zenbait aldiz, hemen ere, aski bereziak diren (*done* edo *san, santa* dutenez ari gara). Zernahigisaz, eta argitasun-zurrean, elkartutzat jo ditugu.

4.1. Deskribatzaileak

4.1.1. Bakunak

Aia, Altza (?), Altzo, Erretereria, Getaria, Pasaia, Pausua.

4.1.2. Elkartuak

Aizarnazabal, Aiztondo, Albiztur, Altzoazpi, Altzomuño, Altzola, Angiozar, Antzuola, Arrasate, Arriaran, Arrietamendi, Astigarribia, Azkoitia, Azpeitia, Berrobi, Beterri, Billabona, Eibar, Elgoibar, Elbarrena (2), Gesalibar, Goierri, Kostaldea edo Itsasaldea, Lasao, Lasarte, Laurgain, Loiola, Mendiola, Olaberria, Sorabilla, Soraluze, Udala (?), Ugarte, Uribarri (2), Urrexola, Usurbil.

4.1.3. Eratorriak

Atzizki eta bukaera hauek ediren ditugu:

-aga: *Agiñaga, Altzaga, Anduaga, Apotzaga, Astigarraga, Elorriaga, Gatzaga, Uzarraga, Zumarraga*

-aia (?): *Zumaia*

-atz: *Goiatz, Saiatz (?)*

-aul (?): *Larraul*

-ba: *Aldaba, Zeba (?)*

-di: *Artadi, Urrestilla*

-do: *Igeldo*

-eta, -keta: *Abaltzisketa, Amezketa, Aretxabaleta, Arrietamendi, Astigarreta, Azpilgoeta, Elgeta, Goroeta, Gudugarreta, Isurieta, Oreta, Urnieta, Zubieta*

-(i)(t)z: *Leintz*

-itz: *Izarraitz*

-(iz)ama: *Arama (?), Beizama, Zegama*

-kil (?): *Zizurkil*

-na (?): *Aizarna, Aizarnazabal*

-no: *Elkano, Larrino*

-sa (?): *Amasa*

-so: *Arkaraso*

-tz: *Olatz*

-tza: *Altza (?), Andatza (?), Areantza, Eskoriatza, Gaintza, Galartza, Garagartza*

-un: *Ataun, Oiartzun (?)*

-untza: *Belauntza*

-zu(a): *Arantzazu, Aristerratzu, Askizu, Elosua, Oiartzun (?), Ugazua, Urkizu, Urretxu*

4.1.4. Ilun(kar)ak

Asteasu, Baliarrain, Bergara, Eldua, Elduain, Errezil, Itziar, Mazmela, Nuarbe, Zarautz, Zarimutz.

4.2. Antrotoponimoak

4.2.1. Bakunak

Hernani, Zerain (ikus).

4.2.2. Elkartuak

Donostia / San Sebastián, Matxinbenta, Pasai Antxo, Pasai San Juan → Pasai Donibane, Pasai San Pedro, San Gregorio, San Martin, Santa Lutzia, Santa Marina.

4.2.3. Eratorriak

-aga: *Urdaiaga*

-ain: *Andoain* (ikus), *Argisain, Beasain, Orendain, Zerain* (ikus)

-ana > -a: *Aduna, Alkiza* (?), *Arama* (?), *Bedoña* (-ina ez bazuen), *Bidania, (Lasarte)*

Oria, Ordizia, Oresa, Zendoia

-ano, -(i)ano > -ao, -(i)o: *Bedaio, Gellao, Lazkao, Orio*

-egi, -tegi: *Berastegi*

-eta: *Anoeta, Martirieta, Orereta, Urdaneta*

-(i)(t)z: *Albiztur*

-iku: *Mutriku* (?)

-ina > ia: *Bedoña* (-ana ez bazuen), *Oikia*

-ona > -oa: *Arroa, Mijoa* (?), *Zestoa*

-oa: *Gipuzkoa*

-ti: *Oñati*

Bedoña, Gabiria eta *Zendoia* sarreretan esan dugun bezala, zenbait aldiz pertsona izenak -ana edo beste atzizki bat hartu beharrean adjektibo balioa duela pentsa daiteke, adibidez ahotan darabiltzagun hiru toponimoak erdiesteko *(uilla) *vedonia*, *(uilla) *cabilia* eta *(uilla) *sentonia* etimoetatik abia gaitzeko, González Olléren bidetik (2004: 135), honek Nafarroako *Marcilla* (*Marçella, Marzieylla* dokumentazio zaharrean) azaltzeko *(uilla) *marçella*-tik abiatzen baita.

Arazoa da gure toki izendegia ikusirik horietatik kanpo gehien-gehienetan atzizkidun forma aurkitzen dugula (*Arroa, Audika, Baternia, Lazkao, Markalain, Otxandio*, etab., erdaraz *Arrona, Audicana, Paterni(a)na, Lazcano, Marcaláin* eta *Ochandiano*, hurrenez hurren), eta honek aipatu Probintziako toponimoetan (baita *Ordizia*-renean ere, hau hain argia ez den arren) berrekailudun formak hobestera eta lehenestera garamatza.

4.2.4. Ilun(kar)ak

Garin, Marin.

Laburdura eta siglak

A: Araba

a.a.: ahozko adierazpena

abl.: ablatiboa

abs.: absolutiboa

adl.: adlatiboa

Ag. eta Mitx.: Agud, M. eta Mitxelena, K.

ai.: *anteiglesia*

ai.o.par.: *anteiglesia o parroquia*

Antrop.: Antroponimia

aurk.: aurkintza(k)

AV: *Apellidos Vascos* (Mitxelena, 1953)

Ayer.: Ayerbe, M^a R.

Ayer. eta Dz.S.: Ayerbe, M^a R. eta Díez de Salazar, L. M.

Ayer. eta E.: Ayerbe, M^a R. eta Elorza, J.

Ayer. eta Etxe.: Ayerbe, M^a R. eta Etxezarraga, J.

Ayer. eta S.M.: Ayerbe, M^a R. eta San Miguel, A.

Ayer., Iri. eta S.M.: Ayerbe, M^a R., Irijoa, I. eta San Miguel, A.

ayunt.: *ayuntamiento*

Azur.: Azurmendi, X.

B: Bizkaia

ba.: *barrio*

ba.ex.: *barrio exterior*

ba.ru.: *barrio rural*

bada.: *barriada*

Bar.: Barrena, E.

Bar. eta Her.: Barrena, E. eta Herrero, V. J.

bas.: baserria(k)

BFA: Bizkaiko Foru Aldundiaren sareko datu-basea

bin.: binperra, ifrentzua

bizt. ent. ber.: biztanle entitate berezia

ca.: *casa*

ca.d.l.: *casa(s) de labor*

Ciér.: Ciérbide, R.

Ciér. eta Ra.: Ciérbide, R. eta Ramos, E.

con.: *concejo*

- Cres. eta b.: Crespo, M. A., Cruz J. R., Gómez, J. M., Larrañaga, M. eta Lema, J.
 Cres., Cr. eta Go.: Crespo, M. A., Cruz, J. R. eta Gómez, J. M.
 Cres., Cr., Go. eta Le.: Crespo, M. A., Cruz, J. R., Gómez, J. M. eta Lema, J.
- dat.: datiboa
 dest.: destinatiboa
 DRAH: Real Academia de la Historia
 Dz.Bo.: Díaz Bodegas, P.
 Dz.S.: Díez de Salazar, L. M.
 E.U.-Ego.Ib.: Eibarko Udala – Ego Ibarra Batzordea
 EDH: Epigraphic Database Heidelberg
 EHHA: Euskaltzaindia, 2018
 EHLL: Euskaltzaindia, 2017
 EJ: Eusko Jaurlaritzaren sareko toponimia datu-basea
 Elor.: Elortegi, A. M^a
 EODA: Euskaltzaindiaren *Euskal Onomastikaren Datutegia* (paperean) argitaragabea.
 Datu base honetatik ateratzen dira Akademiaren webgunean kontsulta daitezkeen onimoak.
- Equez. eta b.: Enríquez, J., Hidalgo de Cisneros, C., Lorente, A. eta Martínez Lahidalga, A.
 Equez., Hid. eta Mtez.: Enríquez, J., Hidalgo de Cisneros, C. eta Martínez Lahidalga, A.
- erd.: erdaraz (gaztelaniaz)
 erg.: ergatiboa
 erm.: *ermíta*
 Etxa. eta Gar.: Etxabe, K. eta Garmendia, L.
 eus.: euskaraz
 Fdez. Mtez., Mon. eta Her.: Fernández Martínez, M., Montecelo, L. eta Herrero, V. J.
 Fur.: Furundarena, J. J.
 G: Gipuzkoa
 Gar.An.: García Andrevia, F.
 Gar.Ar.: García Arancón, M^a R.
 Gar.Lar.: García Larragueta, S.
 Gari.: Garibai, E.
 gen.: genitiboa
 Go.: Gorosabel, P.
 Goi. eta b.: Goicolea, Fco. J., Villanueva, E., Lema, J. A., Fernández de Larrea, J. A., Munita, J. A., Díaz de Durana, J. R.
 Goik. eta Lek.: Goikoetxea, I. eta Lekuona, I.
 hagiopotop.: hagiopotoponimoa
 Her. eta Bar.: Herrero, V. J. eta Barrena, E.
 Her. eta Fdez.: Herrero, V. J. eta Fernández, M.

Her., Ach. eta Mo.: Herrero, V. J., Achón, J. A. eta Mora, J. C.
 Hid. eta b.: Hidalgo de Cisneros, C., Largacha, E., Lorente, A. eta Martínez Lahidalga, A.
 in.: inesiboa
 Iri.: Irijoa, I.
 Iri. eta Le.: Irijoa, I. eta Lema, J. A.
 Irig.: Irigoien, A.
 Isas.: Isasti
 Izt.: Iztueta, J. I.
 Jim.: Jimeno Jurío, J. M^a
 Jim. eta Jim.: Jimeno Jurío, J. M^a eta Jimeno Aranguren, R.
 Jim. eta Sala.: Jimeno Jurío, J. M^a eta Salaberri Zaratiegi, P.
 Kard.: Kardaberatz, A.
 L: Lapurdi
 Lac.: Lacarra, J. M^a
 Lar. eta Le.: Larrañaga, M. eta Lema, J. A.
 Lar. eta Ta.: Larrañaga, M. eta Tapia, I.
 Larra.: Larramendi, M.
 Le.: Lema, J. A.
 Le. eta b.: Lema, J. A., Fernández de Larrea, J. A., García Fernández, E., Larrañaga, M., Munita, J. A. eta Díaz de Durana, J. R.
 Le. eta Go.: Lema, J. A. eta Gómez, J. M.
 Le. eta Ta.: Lema, J. A. eta Tapia, I.
 Le., Cr. eta Lar.: Lema, J. A., Cruz, J. R. eta Larrañaga, M.
 lek.g.: leku genitiboa
 Llor.: Llorente, J. A.
 López: López de Vargas, T. (mapetan)
lu.: lugar
 Lu. eta Zum.: Lucio, M. J. eta Zumalde, I.
 m.: mendea
 m.adl.: muga adlatiboa
m.h.: molino harinero
 Mad.: Madoz, P.
 Mar.Du.: Martín Duque, A.
 Mdez.P.: Menéndez Pidal, R.
 Mtez., Glez. eta Mtez.: Martínez Díez, G., González, E. eta Martínez Llorente, F. J.
 Mtez.Dz.: Martínez Díez, G.
 Mitx.: Mitxelena, K.
 Mú. eta Aro.: Múgica, S. eta Arocena, F.
 Muru.: Murugarren, L.
 N: Nafarroa

NB: Nafarroa Beherea
NEAN: Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
Nopgui: Izengabea, 1857
OEH: Mitxelena, 1987-2005
Orma.: Ormaetxea, J. L.
par.: *parroquia*
pob.: *población*
Poz.: Pozuelo, F.
pr.: protokoloa(k)
pu.: *pueblo*
Rol.: Roldán, J. M^a
Ru.S.P.: Ruiz San Pedro, M^a T.
S.Mar.: San Martin, J.
Sala.: Salaberri, P.
soz.: soziatiboa
Top.: toponimia
univ.: *universidad*
Urz.: Urzainki, A.
Usa.: Usabiaga, A.
va.: *valle*
va.o.ba.: *valle o barrio*
va.y.lu.: *valle y lugar*
vi.: *villa*
Z: Zuberoa
Zab.: Zabalza, M^a I.
Zald.: Martínez de Zaldibia, J.
Zum.: Zumalde, I.
zuz.: zuzendari

Liburu, aldizkari eta webguneak

- AEBISCHER, P., 1948, *Estudios de toponimia y lexicografía románica*, Bartzelona: CSIC - Escuela de Filología.
- AGIRRE, A., 1988, *Tratado de Molinología*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- AGIRRE, J. B., 1803 eta 1823, *Confesioco eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldia*, Tolosa: Fco. Lalamaren moldiztegia.
- , 1978 (1850), *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldia*, Tolosa: A. Gorosabelen moldetegia, hiru liburuki. Lur argialetxeak 1978an Donostian egindako faksimilea erabili dugu.
- AGIRREBALTZATEGI, P. Ikus Omaetxebarria (2016a) eta (2016b).
- AGUD, M., 1968, “Donación del Monasterio de San Salvador de Olazábal”, *BRSVAP* 24.3-4, 323-339.
- AGUD, M. eta MITXELENA, K., 1958, “Formas populares de topónimos del País Vasco anteriores a 1900”, *Actes et Mémoires du Cinquième Congrès International de Sciences Onomastiques. Volume II. Tirage à part*, Salamanca, 39-59.
- AGUD, M. eta TOVAR, A., 1993, *Diccionario etimológico vasco. VI. Ilpiztu-Korotz*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, ASJUren gehigarriak 33.
- AIZKIBEL, F., 1883-1885, *Diccionario basco-español titulado euskeratik erdarara biurtzeko Itztegia*, Tolosa: E. Lópezen moldiztegia, hiru liburuki.
- ALBERTOS, M. L., 1966, *La onomástica personal primitiva de Hispania Tarraconense y Bética*, Salamanca: CSIC - Instituto “Antonio de Nebrija”.
- , 1978, “A propósito de la ciudad autrigona de Vxama Barca”, *Estudios de Arqueología Alavesa* 9, 281-291.
- , 2004, “La lengua de los habitantes del País Vasco en la Edad de Hierro”, *Estudios de Arqueología Alavesa* 21, 253-280. Egilea hil ondoan argitaratutako lana.
- ALEGRÍA, D., LOPETEGI, G. eta PESCADOR, A., 1997, *Archivo General de Navarra (1134-1194)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 77.
- ALKAIN, I. eta ZABALA, A., 1970, *Alkain aita-semeak*, Tolosa: Auspoa.
- AÑIBARRO, P. A., 1802, *Jesus. Escu-Librua, ta berean egumeango cristiñau-cereguiñác*, Tolosa: Fco. Lalamaren etxea.
- ARAGÓN, A., 2009, *La ganadería guipuzcoana durante el antiguo régimen*, Bilbo: EHU.
- ARIN, J., 1926, “Pueblo de Atáun. Los establecimientos humanos y las condiciones naturales”, *Anuario de Eusko Folklore* 7, 17-69.
- , 1928, “Toponimia del pueblo de Ataun”, *Anuario de Eusko Folklore* 8, 55-153.

- , 1929, “Atáun. Toponimia de carácter religioso”, *Anuario de Eusko Folklore* 9, 27-60.
- , 1951, “Toponimia y vida rural en Ataun”, *Eusko Jakintza* 5.1-2, 129-152.
- , 1955, “Notas acerca del pastoreo tradicional de Ataun”, *Anuario de Eusko Folklore* 15, 87-121.
- , 1969, “Contribución al estudio de la toponimia (Ataun)”, *BRSVAP* 25.4, 471-516.
- , 2017, *Juan Arin Dorronsoro. Idazlan Bilduma. Argitaratutako idazlan corpusa. I liburukia*, J.A. Zurutuza (arg.), Donostia: Aranzadi Zientzia Elkarte - Ataungo Udala.
- ARKOTXA, A., 2008, “Bazterrez: sarrera hitzaldia”, *Euskera* 53, 2008, 1, 49-60.
- ARZAMENDI, J., 1985, *Términos Vascos en Documentos Medievales de los ss. XI-XVI*, Bilbo: EHU.
- ASTARLOA, P. P., 1803, *Apología de la lengua bascongada ó ensayo critico filosofico de su perfeccion y antigüedad sobre todas las que se conocen*, Madril.
- AXULAR (P. Agerre), 1643, *Gvero*, Bordele: G. Milanges Erregeren inprimatzailea baitan.
- AYERBE, M^a R., 1985, *Historia del Condado de Oñate y Señorío de los Guevara (XI-XVI)*, Donostia: Itxaropena.
- , 1993, *Documentación medieval del Archivo Municipal de Azkoitia (m.s. XIII-1500)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 45.
- , 1997, *Ferrerías Guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*, Donostia: Instituto Dr. Camino de historia donostiarra.
- , 2006, *Documentación Medieval del Archivo Municipal de Segura. Tomo III (1450-1521)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 127.
- , 2015, *Urnieta, de tierra a villazgo (1402-1615)*, Urnieta: Urnietako Udala.
- AYERBE, M^a R. eta Díez de Salazar, L. M., 1996, *Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615)*, Andoain: Andoaingo Udala; *Leyzaur* aldizkariaren zero zk.
- AYERBE, M^a R. eta ELORZA, J., 2002, *Archivo Municipal de Elgueta (1181-1520)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 112.
- , 2008, *Archivo Municipal de Zestoa (1338-1520)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 136.
- AYERBE, M^a R. eta ETXEZARRAGA, J., 1999, *Archivo Municipal de Elgoibar (1346-1520)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 94.
- AYERBE, M^a R. eta SAN MIGUEL, A., 2009, *Documentación medieval de los Archivos Municipales de Urretxu (1310-1516) y Zumarraga (1202-1518)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 138.
- , 2013, *Archivo Municipal de Ataun (1268-1519)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 146.
- AYERBE, M^a R., IRIJOA, I. eta SAN MIGUEL, A., 2012, *Documentación Medieval del Archivo Municipal de Oiartzun. II. Pleito de los ferrones (1328-1514)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 145.

- AZKUE, I., 2008, *Zumaia, izena eta izana*, Lasarte-Oria: Zumaiako Udala.
- AZKUE, R. M^a, 1925, *Morfología vasca*, Bilbo: Editorial Vasca.
- , 1927, “Aezkera edo Petiriberro-inguruetakoa mintzaera”, *Euskera* 8.3-4, 180-300.
- , 1933, “Acerca del Santoral Vasco”, *Euskera* 14.1, 60-99.
- , 1934, “Gipuzkera osotua”, *Euskera* 15.3-4, 1-150.
- , 1969 (1905), *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- , 1989 (1935-1947), *Euskalerraren Yakintza - Literatura popular del País Vasco*, Bilbo: Euskaltzaindia – Espasa Calpe, lau liburuki.
- AZPIROZ, J. M^a, 1967, “Azkue jaunaren iztegia osatzeko, Nafarroako Leitze-n bildutako itz-bilduma”, *Euskera* 12, 5-24.
- , 1981, “Azkue hiztegiari gehituz”, *Euskera* 26, 1981, 1, 239-244.
- AZURMENDI, X., 1997, *Atzoko Zegama*, L. M. Zaldúa (arg.), Donostia: Eusko Ikaskuntza – Zegamako Udala, «Lankidetzan» 3.
- BÄHR, G., 1948, *Baskisch und Iberisch; Jakintza 2*, Baiona. Bada J. Gorrotategik 2016an J. M^a Vallejoren eta C. García Castilleroren laguntzarekin egindako gaztelaniazko argitalpena: Banco de Datos Hesperia de Lenguas Paleohispánicas (BDHESP). IV Estudios y Suplementos, EHU - Euskaltzaindia.
- BANUS, J. L., 1990, “El topónimo Donostia”, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* 24, 539-547.
- BARANDIARAN, J. M., 1972a (1923), “Mari, o el genio de las montañas”, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, «Obras Completas» 1, 277-302.
- , 1972b (1952), “Contribución al estudio de la mitología vasca”, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, «Obras Completas» 1, 355-394.
